

Euskal Autonomia Erkidegoa  
**MEMORIA**  
Sozioekonomikoa **2011**



Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Araoetarako Batzardea





© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía, 81-7. a  
48011 Bilbo

Maketazioa eta fotomekanika: Parima Digital, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-1565-12



Euskal Autonomia Erkidegoa  
**MEMORIA**  
Sozioekonomikoa 2011



**Juan María Otaegui Murua**  
EGABko Presidentea

## Krisiaren iraunkortasuna

---



2011ko Memoria Sozioekonomikoa pasa den ekainaren 29ko Batzordearen osoko bilkuran onartu zen EGABeko araudian ezarritako epeen barnean. Memoria burutzen eta onartzen izandako atzerapena izendatzaile komuna izan den urte askoren buruan, aurten, bigarrenagoz, gure memoria denbora baliagarrian zabaltzearen helburua lortu dugu. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrari eta sozietate zibilarri ere EGABek 2011. urtean zehar arlo ekonomiko eta sozialen bilakaeraren inguruan duen ikuspegia helarazi diegu. Lan handiko hilabeteak izan dira pasa den azaroan batzordeak aldez aurreko lanak hasi zituenetik memoriaren egitura eta burutzapen egutegia finkatzeko. Hilabete hauetan, halaber, eztabaidak eta akordioak egon dira berez korapilatsuak diren gaitetan ikuspegi komunak ezartzeko, izan ere, krisiak ertzak gaineratzen dizkie gai horiei eta batzordeko kideen hizketaldi irekia beharrezkoa bihurtzen da entzutea osagai nagusizat izanik.

Beraz, sarrera honetan eskerrak eman nahi dizkiet memoriaren batzordea osatzen duten pertsona horiei, haiei esker izan baita posible. Inmaculada Gallastegui buruari eta batzordeko kide guztiei, Eduardo García (CCOO), Atxon Tomasena (CCOO), Maribel Ballesteros (UGT), Raúl Arza (UGT), Eduardo Arechaga (Confebask), Jaime Fernández (Confebask), Carlos Pereda (Confebask), Rafael Aranguren (Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak), Sylvia Gay (EHU), Javier Muñecas (ASLE) eta Adituen Taldekoak, hau da, Felicísimo Ayastuy, Ignacio Barrenechea, Aitor Bengoetxea eta Carlos Trevilla. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, Azterlan eta Proiektuen arduradunei, Leire Ozerin eta

Arantza Unzurrunzaga, memoria idaztearen garrantzi materiala izan baitute eta euren esperientzia eta ezagutzarekin lanen koordinazioa erraztu baitute.

Beste urteetan bezalaxe, EGABek memoriaren bidez azterketa tresna baliagarria eta erabilgarria eskaintzen du, izan ere, euskal gizartearen bitzta ekonomikoa eta sozialaren erradiografia egiten du ekitaldiko datu kontrastatuak oinarritzat hartuta, gogoetak gaizki bidera zitzaketan egoeraren arabera larraldietatik urrunduta. Hala eta guztiz ere, memoria sozioekonomikoaren abantaila nagusia eragile ekonomiko eta sozialen artean adostutako gogoeta izaera da.

Eurogunearen bilakaeratik hasita, EAEn eragin gehien duen esparru gisa, 2010ean izandako berreskurapenaren ondoren, BPGaren hazkundea moteldu zen 2011n. Horrela bada, % 1,5eko urte arteko bariazio tasa erregistratu zen 2011n, 2010eko % 1,9ren aurrean, behearanzko hiruhileko hazkunde profila islatuz: %2,4 lehen hiruhilekoan, %1,6 bigarrenean, %1,3 hirugarrenean eta %0,7 laugarrenean. Hori guztia mundu mailako esparru orokor baten barruan, gertaera mota ezberdinen eraginarekin (Japongo lurrikara, lehengaien prezioen hazkundea, finantza merkatuetako tentsioak euroguneko zor handiaren krisiaren aurrean) hazkunde erritmoaren ahultze berria eragin du, BPGaren %3,9ko hazkundera bultzatu gaituena 2010eko %5,3ren aurrean.

Euskal ekonomiari dagokionez 2011ko BPGaren hazkundea (EUSTATEko datuen arabera) %0,6koa izan zen, 2010ean, berriz %0,3koa. Bi zenbaterako txikiak badira ere, esan genezake gutxienez egoerak ez duela okerrera egin urte mailako jardueraren hazkuntzari dagokionez, hiruhileko bilakaerak, berriz, hazkuntzaren abiadura pixkanaka moteltzen ari dela islatzen du, %0,9 lehen hiruhilekoan, 0,8 bigarrenean, 0,6 hirugarrenean eta 0,2 laugarrenean.

Industria BEGaren bilakaera aztertzen badugu, bigarren hiruhilekoan lehenengoarekiko %1,3ko aldeko bariazio tasa duela ikusiko dugu, hirugarrena bigarrenarekiko %−0,6koa eta laugarrena hirugarrenarekiko %−1,6koa. Nabarmenagoa izan bada ere, bilakaera hori bera eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreetan gertatu da.

Bilakaera horrek eragin negatiboa dauka lanaren bilakaerarekiko, urtero batez beste 11.300 lanpostu galdu baitira, %1,2ko beherapena, eduki teknologikoko sektore altu eta erdi-altuen pisuaren hazkunderarekin. Hiruhileko jarrerak arestian aipatutako abiaduraren moteltzearen eragina ere jasotzen du. Horrela bada, lehen hiruhilekoko bariazioa %−0,3koa da eta laugarren hiruhilekoko %−1,4koa, ondorioz, azken hiruhilekoko langabezi tasa %11,2koa da, urte guztiko tasa %10,8koa den bitartean. Urteko tasa hori eurogunean dagoenaren antzekoa da (%10,6), hiruhileko bilakaera, berriz, ez da horren negatiboa eurogunean, azken lauhilekoko bariazioa %−0,2koa izan baita eta EAEn, esan bezala, %−1,4koa. Urteko batez besteko bilakaera bera baino gehiago, joera da kezka gehien sortzen duena.

Iaz azaltzen genuen moduan, hainbat erakunde maila eta EAeko zenbait agente prestakuntza zein lanerako orientazio eta sustapenerako programa batzuen garapenean lan egiten aritu dira, lan politika aktiboen garrantzia indartuz. Jarduera hori gure autonomia erkidegoko Lan Sustapenaren gastuan islatzen da, termino erlatiboetan estatuko altuena baita, izan ere, estatu mailako guztizko %3,8ko langabeziarako funtsen %7,6 erabili ziren, beraz, langabezien zenbatekoa batez bestekoaren ia bikoitza da. Egia da oraindik ez direla emaitza zuzenak ikusten, baina kontseiluak langileen prestakuntza, orientazioa eta laneratzea hobetzeko ahalegin horren aldeko balorazioa egiten du, izan ere, lan indarraren enplegarritasuna hobetze aldera egindako inbertsioa da.

Baina EGABen Memoria Sozioekonomikoak hainbat kapitulutan ongizateko estatuarekin zerikusia duten beste gai garrantzitsuak jorratzen ditu.

Hezkuntza mailan, 2011-2012 ikasturtea %2,3ko ikasle hazkuntzarekin hasi da hezkuntza berezia kontuan hartzen badugu. Alor horretako adierazleek gure hezkuntza sistemaren osasun ona islatzen dute. Irakasle bakoitzeko ikasle ratioa ELGEko batez bestekoa baino hobea da, ikaslearen adinaren egokitasunean estatuko erkidego aitziandarien artean gaude, eskola-uzte goiztiarrean dugun tasa estatukoa baino hobea da argi eta garbi eta EBko batez bestekoa baino baxuagoa, zientzia eta teknologiko goi mailako hezkuntza graduatuetan estatuan zein Europan buruan gaude eta aipatu beharra dugu gure Lanbide Heziketa sistemaren indarra, hala ere, emakumeen parte-hartze murrizta oraindik ere jorratu beharreko arazoa da horien laneratzea hobetze aldera.

Osasunaren alorrean eta osasun sisteman bizi baldintzen inkestaren azken emaitzek inkestatutako herritarren osasun egoera onra islatzen dute. Aldekota da, halaber, mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztu dela, 2010arekiko itxaronzerrendan dauden gaixoen kopurua gutxitu dela eta hilabete baino gehiago itxaroten duten herritarren ehuneko txikitzea. Batzordeak espero du 2011n hasitako aurrekontu murrizketa, beharrezkoak ziren doikuntza neurrien ondorioz, konpentsatua izan dadin sistemaren eraginkortasunaren hazkunderarekin eta horren erabileren kaltea eragin ez dezan.

Gizarte babesaren esparruan, egoerarik kezkarriena langabezia prestazioen inguruan dago. Estreinakoz azken 10 urteetan pertsona onuradunen kopurua (81.847) %4,1 murriztu da langabezia hazi bada ere. Eta langabezia prestazioa jasotzen ez duten pertsona kopurua hazten doa, 2010ean %39 izatetik 2011 %43 izatera igaro baita. Multzo hori, logikoki, diru-sarrerak bermatzeko errentara igarotzen da. 2011n diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa ordaindutako zenbatekoa guztira 330M eurokoa da, 2010ean baino %4,9 gehiago.

Krisi honen iraunkortasunaren alderik kezkarriena, bere munduko izaeraz gain, ekonomia dezelerazio prozesuan jarraitzen duela da, 2011rako egiaztatuta, eta 2012ra zabaldu dena lehen hilabete hauetako datuak eta aurreikuspen eguneratuenak ikusita. Egoera horren pairamenak EAEn 2011. urtean zehar zailtasunak izan ditu, bereziki lanari buruzko telematikan, lehendik baitator. Lanari buruzko politika pasiboek eta diru-sarrerak bermatzeko errentak egoera hori arindu dute euren aurrekontu zenbatekoak handituz. Funtsean, mantentzen den gizarte kohesioak ez ditu euskal familia askok pairatzen dituzten zailtasun materialak eta gabezia konpontzen, baina EAeko bizitza baldintzak estatukoekin eta eurogunekoekin alderatuz, gabezi horrek euskal familien %6ri eragingo lieke, arestian aipatutako eremuen %13ren aurrean.

Sarrera honetan arreta berezia jarri nahi izan dut gizartearen kezka nagusi diren elementutzat jotzen ditudanen inguruan. Baina EAeko ekonomia eta gizarte bizitzak, gainera, interes eta garrantzi handiko alderdi asko ditu, irakurleak memoriaren egituraren bidez ezagutu ahalko dituenak.

Memoria herritarrentzat, profesionalentzat, gizarte agenteentzat eta politikako arduradunentzat erreferente erabilgarria izaten jarraituko duelakoan nago. Pertsona horiek guztiak euskal gizartearen bilakaeran inplikaturik daude eta euren eguneroko lanarekin herri honentzako gizarte bidezko eta zuzenagoa lortzen laguntzen dute.

# AURKIBIDEA

## I. KAPITULUA. EAEko JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

<b>1. Giza baliabideak EAEn</b> .....	18
1.1. Demografia eta inmigrazioa.....	18
1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera.....	19
1.1.2. EAEko inmigrazioa.....	25
1.2. Hezkuntza eta hezkuntza sustapena.....	29
1.2.1. Unibertsitateaz kanpoko ikasketak.....	29
1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntza.....	33
1.2.3. Hezkuntza adierazleak.....	36
<b>2. Egitura produktiboa eta berrikuntza EAE-n</b> .....	47
2.1. Egitura produktiboa.....	47
2.1.1. Enpresen egitura eta demografia.....	47
2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea.....	50
2.1.3. Industria.....	54
2.1.4. Eraikuntza.....	59
2.1.5. Zerbitzuak.....	60
2.2. I+G+B eta IKT jarduerak.....	68
2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak.....	68
2.2.2. EAEko enpresa-sektorearen I+G+b jarduerak.....	71
2.2.3. Ikerkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean.....	76
2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn.....	77
2.2.5. Komertzio elektronikoa EAEn, Familiak eta erabiltzaileak.....	81
<b>3. Ingurumenaren egoera EAEn</b> .....	84
3.1. EAE-ko 2002-2020ko ingurumen estrategiaren jarraipena. Ingurumen adierazleak.....	84
3.2. Enpresa industrial eta ingurumena.....	92
3.2.1. Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean.....	92
3.2.2. Ingurumena eta industriako enpresa EAEn.....	92

## II. KAPITULUA EKONOMIA EAE-n

<b>1. Kanpoko ingurune ekonomikoa</b> .....	98
1.1. Faktore ekonomiko nagusiak.....	98
1.2. Bilakaera ekonomikoa guneen arabera.....	99
1.3. Europar batasuna. Eurogunea.....	101
1.4. Espainiako ekonomia.....	104
1.5. Autonomia erkidegoak.....	106
<b>2. EAE-ko abagune ekonomikoa</b> .....	108
2.1. Bilakaera orokorra.....	108
2.2. Barne eskaria.....	109
2.3. Kanpoko eskaria.....	111
2.4. Atzerriko inbertsioa.....	115
<b>3. Prezioak, kostuak eta errentak</b> .....	120
3.1. Kontsumo ondasun eta zerbitzuen prezioak.....	120
3.2. Kostuak.....	122
3.3. Errentak.....	125
<b>4. Sektore publikoa</b> .....	128
4.1. Sarrerak.....	128
4.2. Gastuak.....	131
4.3. Aurrekontu saldoa.....	132
4.4. Sektore publikoaren zorpetzea.....	132
4.5. Erakundeen transferentziak.....	134
<b>5. Gizarte-ekonomiaren kontuak EAE-n</b> .....	137
<b>6. Lan merkatua</b> .....	140
6.1. Jaurdueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera.....	141
6.1.1. Jarduera eta okupazioa.....	141
6.1.2. Langabezia.....	144
6.2. Lan merkatuko sarrera eta irteera fluxuak.....	145
6.2.1. Kontratazioaren egoera.....	145
6.2.2. Iraizpen indibidualen eta kolektiboen bilakaera.....	147
6.3. Laneko osasuna.....	149
6.4. Lan harremanak.....	150
6.4.1. Lan gatazkak.....	150
6.4.2. Negoziazio kolektiboa: Soldata igoera eta lansaioa.....	151
6.5. EAE-ko soldatak.....	152
6.5.1. 2009ko Soldata egiturari buruzko inkestaren emaitzak.....	152
6.5.2. Lan kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak, 2010.....	153
6.6. Enplegu politikak.....	154
6.6.1. Enplegu politika aktiboak.....	154
6.6.2. Enplegu politika pasiboak.....	157

### III. KAPITULUA BIZI-KALITATEA EAE-n

<b>1. Familiak eta lana, norberaren bizimodua eta familia bateratzeko premiak</b> .....	164
1.1. Familia-sistemaren bilakaera EAEn .....	164
1.2. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeko beharrianak .....	166
1.3. Familiei laguntzeko politika publikoak .....	169
<b>2. Bizi-baldintzak</b> .....	172
2.1. Bizi-baldintzak: bizi-baldintzei buruzko 2010eko inkestaren emaitzak .....	173
2.2. Pobrezia eta bazterketa: gizarte premiei buruzko 2010eko inkestaren emaitzak: gabezia -adierazleak .....	176
2.3. Gizarte zailtasunak dituzten haurren bizi-baldintzak.....	178
2.3.1. Gizarte zailtasunak dituzten adingabeak babesteko figurak .....	179
2.3.2. EAEn gizarte babesa jasotzen duten adingabeen kolektiboa .....	180
2.3.3. Bakarrik dauden adingabe atzeritarren kasua .....	183
2.3.4. Adingabeak pobrezian .....	185
<b>3. Osasun eta osasun sistema</b> .....	188
3.1. Osasun egoera .....	188
3.1.1. Bizi itxaropena.....	188
3.1.2. Hilkortasuna.....	188
3.1.3. Osasun egoera: atzemandakoa edota aitortutakoa.....	189
3.1.4. Ospitaleko erikortasuna.....	191
3.2. Osasunaren determinante ez-medikoak: bizi-ohiturak eta substantzia adiktiboaren kontsumoa.....	191
3.3. Osasun sistema eta prestazioak.....	194
3.3.1. Sarrera .....	194
3.3.2. Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera.....	195
3.4. Osasun-sistemaren gastua eta finantzaketa .....	200
3.4.1. Osasun Sailaren gastua .....	200
3.4.2. Gastua osasunean.....	200
3.4.3. Laguntza-jardueraren gastua .....	200
<b>4. Hirigintza eta etxebizitza</b> .....	204
4.1. Zorua eta eraikuntza kostuak .....	204
4.1.1. Lurzorua EAEn.....	204
4.1.2. Eraikuntza-kostuen estatistika .....	205
4.2. Etxebizitza-eskaintza.....	206
4.2.1. Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak .....	206
4.2.2. Alokairu araubidea .....	208
4.2.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa Autonomi Erkidegoen arabera.....	209
4.2.4. Eraikuntza jarduera.....	210
4.3. Etxebizitza-eskaria.....	211
4.3.1. Etxebizitzaren beharra eta eskaria.....	211
4.3.2. Familien finantza-ahalegina.....	212
4.3.3. Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria .....	213
4.4. Etxebizitza politika.....	213
4.4.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika .....	213
4.4.2. Foru aldundien etxebizitza politika.....	215
4.4.3. Udal etxebizitza politika .....	216



5. <b>Aisia eta kultura</b> .....	218
5.1. EAEko biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran.....	218
5.1.1. Komunikabideen eragina.....	218
5.1.2. Biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran: Aisia.....	218
5.1.3. Biztanleriaren kultur ohiturak.....	218
5.2. Kultura eta aisialdi jardueren eskaintza EAEn.....	220
5.2.1. Kultura ekipamenduetan izandako bisitari kopurua.....	220
5.2.2. Biltzar eta azoka jarduera.....	221
5.3. Argitaletxeen ekoizpena.....	223
5.4. Kulturako finantzaketa eta gastu publikoa.....	224
5.5. Familien kultur kontsumoaren gastua.....	226

## IV. KAPITULUA GIZARTE BABESA EAE-n

1. <b>Gizarte zerbitzuak EAE-n</b> .....	231
1.1. Gizarte zerbitzuen egoera.....	231
1.2. Mendekotasunarentzako arreta.....	232
2. <b>Gizarte segurantzaren prestazioak EAE-n</b> .....	235
2.1. Kudeaketa transferitu gabe duten gizarte segurantzaren prestazioak.....	235
2.2. Kudeaketa transferituta duten gizarte segurantzaren prestazioak: kotizazio ga eko prestazioak.....	237
2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak.....	237
2.2.2. Gizarte Ongizateko Funttsaren laguntzako pentsioak.....	238
2.2.3. LISMI prestazioak.....	238
3. <b>Txirotasuna eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak EAE-n</b> .....	240
3.1. Diru sarrerak bermatzeko sistemaren prestazioak.....	241
3.1.1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.....	241
3.1.2. Etxebizitzaren Prestazio Osagarria.....	241
3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak.....	242
3.2. Gizarteratzea errazteko programak.....	242
3.2.1. Hirugarren Sektorearentzako Laguntza Programa.....	242
3.2.2. BETIKOLAN Programa.....	243
3.2.3. Laneratzeo programen kudeaketa errazteko indartze programa.....	243
3.2.4. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak.....	244
4. <b>Gizarte aurreikuspeneko sistema osagarriak EAE-n</b> .....	245
4.1. Magnitude nagusiak.....	245
4.2. Araubide fiskala.....	247

<b>V. KAPITULUA</b> <b>EAEko JARDUN ARAUGILEA</b> .....	250
--	-----

<b>VI. KAPITULUA</b> <b>LABURPENA ETA GOGOETA OROKORRAK</b>	
1. <b>Laburpena</b> .....	256
2. <b>Gogoetak</b> .....	270

# 01

## EAEko JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK



# 1. Giza baliabideak EAEn

## 1.1. Demografia eta inmigrazioa

Nazio Batuen Erakundeko azken datu eskuragarrien arabera, munduko biztanleria 6.800 pertsonakoa da. EUROSTATen arabera, Europar Batasuneko biztanleria 502,5 milioikoa da (erreferentzia 2011ko urtarrila), 2010eko urtarrilean baino 1,4 milioi pertsona gehiago. Milako 2,7ko hazkunde horren bitartez —aurreko urtean milako 2,8koa izan zen— urtebetez 1960tik jazotzen ari den etenik gabeko hazkunde horren joera mantendu ahal izan da, egungo Batasuneko biztanleria 400 milioi pertsonakoa zenean. Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren % 38 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkundeari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

Etorkizuneko bilakaerari dagokionez, EUROSTATEk aurreikusten du EB-27ren biztanleria hazi egingo dela 2040. urtean, 526 milioi pertsonetara heldu arte. Urteko jaiotza kopurua aldi oso horretan erori egingo da eta heriotza kopurua, aldiz, handitu, *baby boomeko* belaunaldiak zahartzearen ondotik. Aurreikuspen demografiko horien arabera, biztanleria Batasuneko 27 herrialdeetako 14tan handitu egingo da eta gainbehera demografikoak bereziki eragingo die ekialdeko herrialdeei emigrazioagatik eta jaiota-tasa txikiagatik. Espainian badirudi % 13,7ko hankundea jazoko dela, 2011ko biztanleriaren zifrekin alderatuz gero.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak<sup>1</sup> 2011ko urtarrileko erreferentziari buruz emandako azken datuen arabera, biztanle kopuruak 2000n hasitako goranzko bideari jarraitu dio, hazkunde gero eta txikiagoa bada ere. Zehazki, 2011n 2.184.606 biztanle zeuden (2010ean baino % +0,3), alegia, aurreko urtean baino 6.267 herritar gehiago eta eta 2005ean baino ia 60.000 gehiago. Lurralde historikoetako datuek agerian jartzen dute biztanleira gehiago handitu dela Araban (azken urtean % +0,6) eta erritmo neurrizkoagoan Gipuzkoan (% +0,3) eta Bizkaian (% +0,2).

Zifra horiei, gainera, EAEn erroldatuta dauden herritar atzerriarren % 6,6 gehitu behar zaie (eta ia % 8 atzerrian jaiotako herritarrak aintzat hartzen baditugu,

nazionalizatutako pertsonak barne hartuko lituzkeena), 2010eko urtarrilaren 1eko % 6,4ren aurrean. Horrek % 3,12ko aldaketa erlatiboa dakar. Epe berean, atzerriar biztanleriaren pisua egonkor mantendu da estatu osoan (% 12,2), baina EAEko datua oraindik oso urrun dago Espainiako batez bestekotik —eroldaren azken eguneratzean 5,7 milioi atzerriar izan dira eta ia 7 herrialdetik kanpo jaiotakoak kontuan hartzen baditugu— eta, batez ere, beste erkidego batzuetatik; besteak beste, Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan eta Madrilen atzerriarrak bertako biztanleriaren ehuneko oso handia dira.

Azkenik, EUSTATEk EAerako proiektio demografikoak egin ditu. Horiek, 2020. urtea mugatzat jarri, biztanleriaren bilakaera orokorra antzematen dute, baita bilakaeran eragina duten aldagai bakoitza ere. Heriotzen, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruz egindako hipotesiak oinarri hartuta, epe laburrera mende aldaketarekin hasi zen hazkunde txikiaren joerari eutsiko zaiola aurreikusi da, eta ondoren biztanleriaren kopuruak egonkorak izango dira. Halaber, eta eraginezko haurrak nolabait berreskuratu diren arren, euskal gizartearen heltze- eta zahartze-prozesua biziagotuko da.

Hazkunde erritmoa pixkanaka moteltzea eragile biren uztarketaren emaitza izango da: alde batetik, lehenengo urteetan saldo begetatiboa apur bat positiboa izango da, baina joera aldatuko du 2014az geroztik, orduan heriotzen kopuruak jaiotzena gaindituko baitu berriro. Bestalde, migrazio saldoak positiboa izaten jarraituko du, baina neurri gero eta txikiagoan: 2007an 18.000 migratzaile garbi baino gehiago izatetik 2020an 4.000 baino zertxobait gehiago izatera igaroko da.


Azken bosturtekoetan gertatu den bezala, biztanleriaren bilakaera migrazio-saldoaren zeinuaren eta intentsitatearen arabera izango da batez ere. Horiek markatzen dute biztanleriaren hazkundearen abiadura. Grafikoan ikus daitekeen moduan, epe laburrera, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak mesede egingo dio hazkundeari baina ez da oso aipagarria izango. Alde horren zeinua aurki aldatuko da eta denboraldiaren amaieran saldo begetatiboa

I.1.1. Koadroa. EAEko biztanleriaren egungo bilakaera 2006-2011


	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Ald. 10-11
Araba	301.926	305.459	309.635	313.819	317.352	319.227	+1.875
Bizkaia	1.139.863	1.141.457	1.146.421	1.152.658	1.153.724	1.155.772	+2.048
Gipuzkoa	691.895	694.944	701.056	705.698	707.263	709.607	+2.344
EAE	2.133.684	2.141.860	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.184.606	+6.267

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

<sup>1</sup> Biztanleen Udal Erroldako zifrak ezin dira hertsiki alderatu Biztanleen eta Etxebizitzaren Erroldarekin haren metodologia desberdinagatik. Udal errolda administrazio-erregistro bat da eta horren eraketa, mantentzea eta kudeaketa Espainian dauden 8.000 udal baino gehiagori dagokio. Datuen bidez frogatzen da herritarrak benetan udalerrian bizi dela eta aipatu erroldako egiaztapenek izaera publikoa eta fede-emailea dute administrazioaren ondorio guztietarako. Hala ere, Biztanleen Errolda estatistika bat da eta horren eraketa Estatistikako Institutu Nazionalari dagokio. Baliabide horrek biltzen dituen datuak estatistika sekretuak babesten ditu, erroldan ez bezala, azken horretan pertsonak identifikatzea ezinbestekoa baita.

**I.1.1. Grafikoa. EAEko biztanleen portzentajezko banaketa adinen arabera, herritartasuna kontuan hartuta**

Iturria: ElNeko datuekin eginda. Udal Errolda.

**I.1.2. Grafikoa. 2020rako EAEn proiektzio demografikoa: Osagaika aurreikusitako hazkundera. Milaka pertsona**

Iturria: EUSTAT. Proiektzio demografikoak 2020.

dela eta galerak sortuko dira, aurreko mendeko 90eko hamarkadan erregistratutakoak baino handiagoak. Zenbakiei dagokienez, hazkunde naturalak ia 15.000 kenduko ditu 2016 eta 2020 bitartean. Saldo begetatibo gero eta negatiboagoak eragindako galerak ezingo dituzte migrazioek orekatu, eta epe luzera aurreikusten da, joera horiei utsiz gero, EAEn bizi diren biztanle guztien zenbatekoa berriz jaisteko fasean sartuko dela.

**1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera****(a) Biztanleriaren mugimendu naturala**

2010eko behin-behineko datuen arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren bariazioa, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen arabera, migrazio-mugimenduak aintzat


**I.1.2. Koadroa. EAEko Biztanleriaren mugimendu naturala**

	Bizirik jaiotakoak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetatiboa	Tasa
2003	19.267	9,2	19.305	9,2	-38	0,0
2004	19.594	9,3	18.684	8,9	910	0,4
2005	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1
2006*	20.043	9,4	18.507	8,7	1.536	0,7
2007*	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008*	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009*	20.928	9,7	19.645	9,0	1.283	0,7
2010*	21.159	9,7	18.608	8,6	2.551	1,1

(\*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.  
Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta testuaren egileak egindakoa.


hartu gabe) zarpigarren urtez jarraian positiboa izan da; hori gure erkidegoan ez zen gertatu 1986az geroztik: urte horretan 21.159 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 1,1 gehiago, eta 18.608 heriotza, 2009an baino % 5,3 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa +2.551 izan da, hots, milaka 1,1ekoa. EAEko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezean, azkenean ere badirudi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan. 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo positibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an saldirik txikienera iritsi zen, urte hartan EAEk 2.000 biztanlelik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen. Beraz, ikusten denez, saldo begetatiboa positiboa izan da 2010ean jaiotzak arinki handitu direlako eta heriotzak, berriz, erori direlako: % +1,1 eta % -5,3 hurrenez hurren. Bestalde, ohikoa denez, 2010eko portaerak aldeak izan ditu lurraldeen arabera: Bizkaiak, saldo positiboak berreskuratzeko atzeratuago egonda, urte horretan 148 biztanle irabazi ditu, behin-behineko datuen arabera, Gipuzkoak eta Arabak beste urte batez euren joera

## I.1.3. Grafikoa. EAEko jaiotzen eta heriotzen bilakaera



Iturria: EUSTATEko datuekin eginda.

## I.1.4. Grafikoa. Lurraldeen arabeko jaiotza-tasaren eta ezkondu gabeko amek izandako haurren ehunekoaren bilakaera. EAE



Iturria: EUSTATEko datuekin eginda. ENAC.

## I.1.3. Koadroa. Jaiotzak eta heriotzak EBN mila biztanleko 1975 eta 2010

	Jaiotzak		Heriotzak	
	1975	2010	1975	2010
UE-27	14,7	10,7	10,7	9,7
Alemania	9,9	8,3	12,6	10,5
Austria	12,4	9,4	12,7	9,2
Belgika	12,2	11,7	12,2	9,6
Bulgaria	16,6	10,0	10,3	14,6
Zipre	16,3	12,4	9,8	6,7
Danimarka	14,2	11,4	10,1	9,8
Eslovakia	20,6	11,1	9,5	9,8
Eslovenia	16,6	10,6	10,1	9,1
Espainia	18,8	10,4	8,4	8,2
Estonia	14,9	11,8	11,6	11,8
Finlandia	13,9	11,4	9,3	9,5
Frantzia	14,1	12,8	10,6	8,4
Grezia	15,7	10,2	8,9	9,4
Holanda	13,0	11,1	8,3	8,2
Hungaria	18,4	9,0	12,4	13,0
Irlanda	21,1	16,5	10,4	6,2
Italia	14,9	9,3	10,0	9,7
Letonia	14,2	8,6	12,2	13,4
Lituania	15,7	10,8	9,5	12,8
Luxenburgo	11,1	11,6	12,2	7,4
Malta	18,8	9,6	9,5	7,2
Polonia	19,0	10,8	8,7	9,9
Portugal	19,8	9,5	10,8	10,0
Erresuma batua	12,4	13,0	11,8	9,0
Txekiar errepublika	19,1	11,1	12,4	10,2
Errumania	19,6	9,9	9,3	12,1
Suedia	12,6	12,3	10,8	9,6
EAE	19,1	9,7	7,1	8,6


Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

positiboak sendotu dituzten bitartean, hurrenez hurren, 1.210 eta 1.033 biztanle gehiago izanik.

2010ean hiru lurraldeetako jaiotzek zeinu bereko bilakaera izan zuten, intentsitatea, berriz, desberdina; alde batetik,

Arabari 3.346 haur jaio ziren (% +3,8), eta Bizkaian, aldiz, 10.598, aurreko urtean baino % 0,6 gehiago. Gipuzkoan jaioberriak 7.215 dira, 2009an baino % 0,7 gehiago. Emaizta horiek agerian jartzen dute milako 9,7ko jaiotza-tasa EAE osorako, aurreko urtekoaren antzekoa, badiardi 1995ean hasitako jaiotza-tasaren igoera finkatzen duela eta estatuko batezbestekoaren gainera zegoela. 60. hamarkadan zifra horrek milako 20 gaintzen zuen eta estatuko batezbestekoaren gainera zegoen. Gaur egun, igoera eman arren, EAEk estatuko eta EBko batezbestekoak (milako 10,4 eta 10,7, hurrenez hurren) baino tasa baxuagoi eusten die.

Lurraldeka, Bizkaia milako 9,1eko jaiotza-tasa dauka —arinki ari da erortzen 2009tik, milako 9,2tik, biztanleria jaiotzak baino proportzio handiagoan hazi delako—, Arabak milako 10,4 eta Gipuzkoak, berriz, milako 10,3. Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. 2010ean bizirik jaio ziren 21.159 haurretatik 3.356k ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoaren % 16k, herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Horrek esan nahi du etorkinen jaiotza-tasa milako 20koa dela, bertakoaren milako 8,2koaren aurrean. Proportzio horiek azken urteotan ohikoak ari dira izaten. Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoaren ehunekoak gero eta handiagoa dela. 2010ean ezkontzatik kanpo jaiotakoak 6.934 izan ziren, guztien % 32,8 (% 31,2 aurreko urtean). Bizkaia izan zen EAEn ehuneko handiena izan zuen lurraldea (% 33,2) eta Araban eta Gipuzkoan balio erlatibo txikiagoak izan ziren (% 32,7 eta % 32,1 hurrenez hurren). Egungo ehunekoak 1990ekoarekin (%7,7) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa laukoiztu egin dela. Herrien arabera, EBko ehunekoak Estonia (% 59,1) eta Esloveniako (% 55,7) mailen eta Txipre (% 11,7) edo Greziakoaren (bizirik jaiotakoaren %6,6) artean mugitzen dira. Batasunetik kanpo, Islandiako tasa handia nabarmentzen da, 2010ean jaiotakoaren % 64,3 ama ezkongabeengandik jaio baitziren.

**I.1.5. Grafikoa. Jaiotzen bilakaera amaren adina kontuan hartuta. EAE**

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika.


Horrez gain, EUROSTATEko datuek agerian jartzen dute 2010ean EBn guztira 5,36 milioi jaiotza egon zirela, ia aurreko urtean egondako kopuru bera, baita bigarren urtez kopurua gutxitzen ari dela 2000. eta 2008. urteen artean erregistratutako joera positiboaren ostean. Jaiotza-tasa altuenak Irlandan eta Erresuma Batuan daude (milako 16,5 eta 13, hurrenez hurren), txikiena Alemanian dagoen bitartean (milako 8,3) eta, bigarrenik, Letonian (milako 8,6). Espainian milako 10,4koa da.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2010ean joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %79ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte arteko emakumeei dagokie, jaiotza guztien % 42,5ekin. Halaber, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopuruak (% 36,3) handitzen jarraitzen du, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 15,1) nabarmen gainditzen du. Amen batez besteko adina 32,7 urte izan zen; ama hasi berriena, aldiz, 31,7 urte izan zen. Zifra horiek azken bi urteetako kopuruen antzekoak dira. Horrela, EAEn bizi diren ama lehenerdiak EBkoak baino nagusiagoak dira. Halaber, beste urtebetez 25 urtez azpiko amen pisua murrizten da, guztien % 6,1 dira (% 6,6 2009an).

Horrez gain, EINen Jaiotzen Estatistikak jaiotakoen aiten adina ere jakitea ahalbidetzen du. haietako gehienak, % 35,2, 2010ean 35 eta 39 urte artekoak ziren, eta haien atzean dago 30 eta 34 urte artekoen taldea, % 34.

Heriotzei dagokienez, 2010ean EAEn 18.768 lagun zendu ziren, aurreko urtean baino % 5,3 gutxiago; haietatik, % 51,7 gizonak eta % 48,1, aldiz, emakumeak. 2010ean zendutakoen % 31,2 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, % 29,3, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, % 8,4<sup>2</sup>.

Halaber, EUSTATEN Heriotzen Estatistikak hauxe agertu du: 2010ean EAEn hildakoen batez besteko adina 78,1 urte zen (2009an 77,7), 74,6 gizonekoena eta 81,8 emakumezkoena, bizitza-luzeagoa izaten baitute. Hala, azken hamarkadan gure autonomian bizi-itxaropena

**I.1.6. Grafikoa. EAEn hildako pertsonen batez besteko adinaren bilakaera**

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

gizonentzat 3,7 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2,6. Europar Batasuneko datuei dagokienez, 2003an lortu zen mailarik altuena, ia 5 milioi zentze; hori milako 10,5eko tasa gordina da, EAEn urte horretan 9,2koa izan zen bitartean. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori baieztatzeko. 2010eko datuen arabera, 4,8 milioi pertsona hil ziren, aurreko lau urteetan bezalaxe (milako 9,7), eta, beraz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) 500.000 lagun ingurukoa izan zen Batasunean.

**(b) Migrazio-mugimenduak**

EUSTATEN 2010ari buruzko Migrazio-mugimenduen estatistikak 13.028 laguneko hazkundera zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino % 2 gutxiago), eta hamaika urtez jarraian migrazio saldoa

<sup>2</sup> Memoria sozioekonomiko honen "Osasuna eta osasun sistema" kapituluaren zehaztasunez aztertzen dira euskal herritarren hiltzeko kausak.

## I.1.4. Koadroa. EAEko migrazio saldoen bilakaera

	Atzerriarekiko	Estatuko gainerako lurraldeekiko	Guztizko / kanpoko migrazio saldoa*			
			EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2004	11.664	-2.640	9.024	2.955	5.168	901
2005	14.742	-1.478	13.264	3.028	7.603	2.633
2006	18.134	-3.676	14.458	3.271	8.021	3.166
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259
2008	14.903	1.898	16.801	4.207	8.773	3.821
2009	9.802	3.452	13.254	3.670	7.394	2.190
2010	9.342	3.686	13.028	3.902	6.562	2.564

(\*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.  
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika".

positiboa izan da. Lurraldeka, Bizkaia, 6.562 lagun irabazita, migrazio saldirik handiena dauka zenbaki absolutuetan, baina % 11 jaitsi da 2009aren aldean. Bestalde, Arabak 3.902 lagun irabazi ditu (% -6) eta Gipuzkoak 2.564 (% +17).

Era berean, azken 20 urteetan hirugarren urtez jarraian EAEn beste erkidegoetatik iritsitako immigrazio gehiago gertatu dira haietarako emigrazioak baino, eta horrela estatuarekiko migrazio saldoa positiboa izan da (+3.686). Hala ere, ezin dugu ondorioztatu saldo hori aurreko urtean aldean joera aldaketa denik. Horretarako gutxienez hurrengo bosturtekoan erregistratuko diren datuen sail historikoa ikusi beharko da, horri buruzko hipotesiak egiteko.


Baina azpimarragarria da aurreko urteetako bilakaera, haietan EAE eta estatuaren arteko migrazio saldoa negatiboa izan baita etengabe eta beti. Zentzu horretan, erreferentzia bakarra 2003-2010 saila hartuta, saldoa negatiboa da, 4.399 lagunekoa. Kopuru horiek are deigarriagoak dira EAEn eta atzerriaren arteko migrazio saldoarekin erkatuz gero, aldi berean positiboa izan baita, 108.171 lagunekoa.

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATen datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitsiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio-mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. Bestalde, 2010ean migrazio saldoa mantendu egin da 2009arekin alderatuz gero, 0,9 milioi lagunekoa (-0,8 milioi aurreko urtean); migrazio tasa gordina milako 1,7koa izan da 27-Ebrako eta milako 2,1koa eurogunerako. Saldo positibo horren % 71 hiru herriri dagokie: Italia, Alemania eta Erresuma Batua. Bestalde, Batasuneko zazpi herri (Bulgaria, Irlanda, Zipre, Letonia, Lituania, Polonia eta Eslovenia) migrazio saldo negatiboak dauzkate.

Bestalde, 2010ean, 197.768 lagunek, aurreko urtean baino % 2,4 gehiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen % 9,1); mugikortasun horren % 47,9 udal beraren barruan izan zen eta % 24 EAEko bi udalerriren artean. Gainontzekoetatik, 34.234 mugimendu kanpoko immigrazio lirakeke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta 21.206 kanpoko emigrazio (jatorria EAE eta helmuga handik kanpo, haietatik 3.353ren helmuga atzerrian).

Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, 2010ean EAEko mila biztanleko 25,6ri eragin die (Arabak milako 32,3, Bizkaian milako 26,1 eta Gipuzkoan milako 21,6); tasa horiek nahiko txikiak dira gainontzeko autonomia erkidegoekin erkatuz

## I.1.7. Grafikoa. EAEko migrazio-saldoen bilakaera




Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen Estatistika.

## I.1.5. Koadroa. Autonomia erkidego bakoitzeko fenomeno demografikoak tasak 1.000 Biztanleko. 2010

	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa	Ezkontza-tasa	Ezkontza-desegiteen tasa
Andaluzia	11,24	7,84	3,63	2,38
Aragoi	9,92	10,04	3,41	1,88
Asturias	7,39	12,06	4,10	2,56
Balearrak	11,04	7,05	3,74	2,58
Kanariak	8,69	5,81	2,71	2,72
Kantabria	9,58	9,47	4,39	2,30
Gaztela eta Leon	8,24	10,77	3,34	1,73
Gaztela-Mantxa	10,71	8,55	3,59	1,82
Katalunia	11,50	8,10	3,84	2,78
Valentziako E.	10,36	7,97	3,50	2,53
Extremadura	9,32	9,92	3,67	1,76
Galizia	8,07	10,89	3,63	2,16
Madril	11,42	6,44	3,97	2,38
Murtzia	12,35	6,82	3,46	2,21
Nafarroa	10,97	7,99	3,76	1,96
EAE	9,89	9,01	3,89	1,94
Errioxa	10,51	9,05	3,71	1,89
Ceuta	15,37	7,05	5,18	2,73
Melilla	18,20	5,51	6,00	2,37
GUZTIRA	10,51	8,22	3,67	2,35

Iturria: EIN.



**I.1.8. Grafikoa. EAEko ezkontza zibilen ehunekoaren bilakaera**

Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika.

gero, haietan, batez beste, mila biztanleko 40 mugitzen baitira. Galizia, Kantabria, Nafarroa eta Extremadura izan ezik, estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek biztanle gehiago ematen diote EAERI bertatik jaso baino; EAEko emigranteentzako erakarpen poloak, ordea, honako erkidegoak dira, ordenan: Gaztela eta Leon, Kantabria, Madril, Katalunia, Nafarroa eta Andaluzia. Sei erkidegoren artean EAE uzten duten pertsonen % 66 jasotzen dute.

Azkenik, 2010ean atzerriko naziotasuna dutenen immigrazioak 20.184 izan dira, 2009an baino 1.219 gutxiago, eta gure erkidegorako sarreraren % 59 izan dira. 2000tik, hirugarren urtez jaitsi da atzerriko etorkinen EAERako sarreraren bolumena. Bestalde, kontuan izan behar da atzerriko etorkin horien % 43,8 beste autonomia erkidegoetatik datozela, aurreko urtearen aldean 8 dezimako hazkundera.

Haien egoerari dagokienez, prestakuntza mailarik baxuenak immigrazioen % 65ari dagozkie eta emigrazioen % 66ri, eta mailarik altuenak, berriz, immigrazioaren % 14ri eta etorkinen % 13ri.

Hala, gure erkidegora 2010. urtean heldu ziren 5 urtetik gorako 31.988 pertsonatik 4.522k erdi- edo goi-mailako ikasketak edo goi-mailako ikasketak zituzten (% 14). Emigratu zuten pertsonen kasuan, 5 urtetik gorako 20.042 pertsonatik 2.580k zituzten aipatu ikasketak, alegia, % 12,9k. Hortaz, ikasketa maila altuenetan 1.942ko migrazio saldoa erregistratzen da. Saldo hori, gainera, positiboa da etenik gabe 1997. urtetik.

Halaber, immigranteen eta emigranteen batez besteko adina desberdina zen (31,5 eta 36,1 urte, hurrenez hurren).

**(c) Ezkontzak**

"Ezkontzen Estatistikak", Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du. Estatistika aspaldikoa izanik, garai horretan eman diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzea ahalbidetzen du. Elizako agiritzei esker Estatuak 1861etik aurrerako informazioa lortu du.

EUSTAen datuen arabera, 2010ean EAEn sexu desberdineko 8.096 ezkontza egon ziren (eta 122 sexu bereko pertsonen artean), aurreko urtean baino 1.007 gutxiago (% -11,1). Ezkontzeko eskubideari dagokionez

**I.1.6. Koadroa. Ezkontza zibilen ehunekoaren bilakaera guztien gainean, autonomia erkidegoen arabera**

	1991	2001	2008	2009
Andaluzia	14,47	19,27	36,90	42,12
Aragoi	18,99	22,92	42,59	49,14
Asturias	21,26	31,73	51,02	56,27
Balearrak	29,10	36,92	61,84	69,10
Kanariak	28,50	35,66	60,10	67,94
Kantabria	17,94	27,02	46,64	51,56
Gaztela eta Leon	13,89	22,43	38,70	45,48
Gaztela-Mantxa	8,47	15,84	33,35	39,42
Katalunia	28,77	36,24	69,42	73,90
Valentziako E.	24,62	27,21	53,51	60,06
Extremadura	11,44	15,67	28,94	34,66
Galizia	14,41	24,86	44,96	51,78
Madril	25,65	27,89	53,21	56,38
Murtzia	16,34	19,56	35,13	41,80
Nafarroa	19,05	25,43	51,51	54,14
EAE	25,19	33,09	56,06	60,23
Araba	23,78	32,66	54,36	58,42
Gipuzkoa	24,87	34,72	57,42	63,79
Bizkaia	25,71	32,16	55,61	58,27
Errioxa	18,64	23,85	45,72	51,68
Ceuta eta Melilla	46,73	62,68	71,02	64,50
GUZTIRA	20,89	26,64	49,37	54,86

Iturria: EIN. Gizarte adierazleak 2010.

Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko 13/2005 estatu Legearen onarpenaren hurrengo urteetan sexu bereko ezkontzek izan duten bilakaeraren eskema honela laburbil daiteke: abiatze txikia 2005ean (legea urte erdialdean onartu zen), eklosioa 2006an, jaitsiera 2007an eta egonkortzea 2008tik gaur arte. Portaera hori bai EAEn bai Estatuan gertatu da, baina bigarren kasuan erritimo askoz biziagoan. Izan ere, EAE bederatzigarren tokian dago sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen rankingean, erkidegoen arabera. EAEko lurraldeen arabera, Bizkaia dauka sexu bereko ezkontza tasarik handiena.

Halaber, azken urteotan asko handitu da ezkontza zibilen kopurua, 1991. urtean % 25,9 ziren eta 2010. urtean, berriz, % 65,6. Estatuko gainontzeko erkidegoei dagokienez, EAEk bosgarren postua dauka, Ceuta eta Melillaren, Kataluniaren eta bi artxipelagoen atzetik.

Guztira, EAEn 2010ean 5.310 elkartzeko zibil egon dira, 2.786 ezkontza katolikoan eta beste erlijioen aurrean. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan izan zuten pisurik handiena ezkontza zibilek (% 68,4), eta haren atzean Bizkaian (% 65,7) eta Araban (% 61,8). Horrez gain, ezkontzeko unea atzeratzeko joera mantentzen dela dioen datua nabarmentzen da, senarren % 82,9 eta emakumeen % 70,1 30 urterekin edo gehiagorekin ezkondu baitziren. Ehuneko horiek 2009koak baino handiagoak dira (% 81,2 eta % 67,1 hurrenez hurren).

Hala, 2010ean EAEko ezkontza-tasa 1.000 biztanleko 3,9 ezkontzakoa da, estatuan 1000 biztanleko 3,6koa denean, Europar Batasuneko baino txikiagoa izan arren, 2009an milako 4,5ekoa zen. 2010erako behin-behineko datuak aintzat hartuta, ezkontza-tasa altueneko Europako herrialdeak dira Malta (6,2) eta Polonia (6,0). Ratio baxuenak, aldiz, Eslovenia keta Bulgariak (biek milako 3,2) eta Luxenburgok (1.000 biztanleko 3,5) dituzte.

### I.1.7. Koadroa. Sexu bereko ezkontzen ehunekoaren bilakaera guztien gainean, autonomia erkidegoen arabera

	2007	2008	2009	2010
Andaluzia	1,16	1,23	1,25	1,48
Aragoi	0,71	0,79	1,03	1,25
Asturias	1,00	1,28	1,15	1,26
Balearrak	2,88	2,17	2,90	2,78
Kanariak	3,34	2,84	3,36	3,31
Kantabria	0,71	0,91	0,69	0,79
Gaztela eta Leon	0,59	0,54	0,61	0,74
Gaztela-Mantxa	0,42	0,65	0,61	0,81
Katalunia	2,46	2,65	2,98	2,97
Valentziako e.	1,86	1,74	2,11	1,84
Extremadura	0,34	0,41	0,62	0,93
Galizia	0,66	0,68	0,70	0,82
Madril	2,23	2,47	2,21	2,51
Murtzia	1,01	1,01	1,20	1,67
Nafarroa	0,99	1,22	1,23	1,64
EAE	1,01	1,09	1,19	1,33
Araba	1,06	0,72	0,99	1,41
Gipuzkoa	1,18	0,97	1,32	1,24
Bizkaia	0,88	1,27	1,15	1,43
Errioxa	0,59	0,68	0,99	0,79
Ceuta eta Melilla	0,55	0,71	0,75	0,75
GUZTIRA	1,56	1,62	1,74	1,87

Iturria: INE.

Bestalde, EInen “Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika” delakoak dibortzio eta banantzeen igoera erakusten du, bai gure erkidegoan bai estatuan<sup>3</sup>. Zehazki, 2010ean EAEn 3.974 dibortzio eta 257 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeak batez beste 6 inguru ziren informazioa dagoenetik eta 2010ean 5 izan dira.

Guztira, erreferentziatzko urtean 4.236 ezkontza desegin ziren, 2009an baino % 8,6 gehiago; datu horren arabera ratioa 1,94koa mila biztanleko, estatuan, aldiz, batez beste bestekoaren milako 2,35 da. Banantze-tasa handienak erregistratuta dituzten autonomia erkidegoak Katalunia (milako 2,78) eta Ceuta (milako 2,73) dira; haustura gutxien dituztenak, aldiz, Gaztela eta Leon eta Extremadura dira (mila biztanleko 1,73 eta 1,76 banantze, hurrenez hurren). Nazioarteko erkaketei dagokienez, dibortzio tasa gordina, azken urteetan, milako bi ingurukoa izan da Europar Batasun osoan, Maltako 0 (bertan ez da legezkoa) eta Irlandako 0,7tik, Belgikako eta Lituaniako milako 3 arte.

2006az geroztik estatuan orokorrean eta gure erkidegoan bereziki desegite horien osaketan aldaketa bat ikusten da, dibortzio kopurua hazi eta banantze kopurua jaitsi baita, banantzeari eta dibortzioari dagokienez Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen uztailaren 8ko 15/2005 estatu Legea onartzearen ondorioz. Arau horren bidez aurrez banatu gabe dibortzioa onartzen da. Autonomia erkidegoak erkatuta, ikusten da legea aldatu aurretik zein ondoren EAE toki neurritsuan dagoela, 2010ean erregistro gutxien izandako seigarren erkidegoa izan baitzen.


EAEn banandu edo dibortziatutako pertsonen ezaugarriei dagokienez, EInen datuen arabera gehienak 30 eta 50

### I.1.8. Koadroa. Europar batasuneko ezkontzak. Adierazleak 1.000 biztanleko

	Ezkontzak		Dibortzioak	
	2009	2010	2009	2010
UE-27 (2007)	4,5	—	—	—
Alemania	4,6	4,7	2,3	2,3
Austria	4,2	4,5	2,2	2,1
Belgika	4,0	4,2	3,0	3,0
Bulgaria	3,4	3,2	1,5	1,5
Zipre	7,9	—	2,2	—
Danimarka	6,0	5,6	2,7	2,6
Eslovakia	4,9	4,7	2,3	2,2
Eslovenia	3,2	3,2	1,1	1,2
Espainia	3,8	3,6	2,1	2,2
Estonia	4,0	3,8	2,4	2,2
Finlandia	5,6	5,6	2,5	2,5
Frantzia	3,9	3,8	2,1	—
Grezia	5,2	5,0	1,2	—
Holanda	4,4	—	1,9	—
Hungaria	3,7	3,6	2,4	2,4
Irlanda	4,8	4,6	0,7	0,7
Italia	3,8	3,6	0,9	—
Letonia	4,4	4,1	2,3	2,2
Lituania	6,2	5,7	2,8	3,0
Luxenburgo	3,5	3,5	2,1	2,1
Malta	5,7	6,2	—	—
Polonia	6,6	6,0	1,7	1,6
Portugal	3,8	3,8	2,5	—
Erresuma batua	4,3	—	2,0	—
Txekiar errepublika	4,6	4,4	2,8	2,9
Errumania	6,3	5,4	1,5	1,5
Suedia	5,1	5,3	2,4	2,5
EAE	4,1	3,9	1,9	1,9

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta EIN.

### I.1.9. Grafikoa. EAEn desegindako ezkontzak: Banantzeen eta dibortzioen bilakaera



Iturria: EIN. Deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika. (\*) Desegiteak elizako deuseztasunak barne hartzen dituzte.

<sup>3</sup> “Banantzeen, Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistika” lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.

**I.1.9. Koadroa. 100 ezkontzako dibortzio kopuruaren bilakaera, autonomia erkidegoen arabera**

	2006	2007	2008	2009
Andaluzia	58,95	57,20	57,74	65,41
Aragoi	58,59	54,47	55,39	58,01
Asturias	77,59	72,05	63,32	65,13
Balearrak	93,10	77,22	74,66	71,67
Kanariak	122,67	116,91	109,93	108,56
Kantabria	57,70	54,80	54,00	53,41
Gaztela eta Leon	56,15	49,22	48,54	54,12
Gaztela-Mantxa	48,12	46,97	44,43	49,07
Katalunia	84,22	77,80	70,99	74,67
Valentziako E.	74,25	72,19	71,38	74,59
Extremadura	47,72	47,88	43,70	45,46
Galizia	73,08	66,13	64,38	65,40
Madril	65,71	62,74	60,58	63,38
Murtzia	62,87	52,02	58,57	66,30
Nafarroa	55,09	48,17	48,71	49,27
EAE	54,20	55,07	50,56	51,52
Errioxa	57,11	58,22	49,47	49,22
Guztira	68,02	63,92	61,77	65,46

Iturria: EIN. Gizarte adierazleak 2010.

urte bitartekoak dira, baina emakumeak (batez beste 42 urtekoak) gizonak (ezkontza desegiterakoan batez beste 44,6 urtekoak) baino gazteagoak izan ohi dira. Halaber, banandutako senar-emazteen batez besteko iraupena 15,5 urtekoa da eta kasuen erdian ezkontideek seme-alabak izaten dituzte eta kasuen % 30,7tan seme-alaba bakarria duten bikoteak dira. Azkenik, 2010ean senar-emazteen % 67,7 bi alderdiak ados egonda banandu ziren eta prozeduren batez besteko iraupena 4,8 hilekoa izan zen.


**1.1.2. EAEko inmigrazioa**

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrietakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira. 1850-1910 aldian mundu osoan lehenengo migrazio-garaia bizi bazen ere, XX. mendeko 90eko hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zen migrazio-aldi handiaren bigarren fasean gaude.

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere inmigratioagatik, 2010ean haren ratio gordina berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen. Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarritzko zeregina dute.


2010eko urtarrilaren 1ean bertan 32,5 milioi atzerritar bizi ziren, biztanleria guztiaren % 6,5 ordezkatuz. Horietako gehienak, 20,2 milioi, erkidegokoak ez diren herrialdekoak ziren, gainontzeko 12,3 milioiak EBko beste herrialde batekoak ziren bitartean. Baina, gainera, herrialde atzerritarretan jaiotako pertsonen zifra aintzat hartzen badugu (herritarren atzerritarrekoak eta egoitza-herrialdean nazionalizatutako atzerritarrek), zifra 47,3 milioi pertsonetara helden da, Europar Batasuneko biztanleria guztiaren % 9,4.

EUROSTATEko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren % 75 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira.

**I.1.10. Grafikoa. EBko hazkunde demografikoaren bilakaera, osagaien arabera. Ratioak 1.000 biztanleko**


Iturria: EUROSTAT.

Inmigratioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian inmigratorako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko inmigratioaren ehuneko handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren, eta Frantzian, Alemanian eta Herbeheretan, aldiz, erregularizazio mugatuak egin ziren etorkin talde zehatzentzat. EBn hirugarren herrietako nazionalitate talderik ugariena, 2010ean, Turkiatik (2,3 milioi), Marokotik (1,8 milioi), Albaniatik (milioi 1) eta Txinatik (0,7 milioi) zetozen. Dena

**I.1.11. Grafikoa. Atzerritarren urte arteko hazkunde eta biztanleria osoaren gaineko ehunekoak. 2011**

Iturria: IKUSPEGI EINEko datuekin.

### I.1.12. Grafikoa. Estatuko eta EAEko Udal Erroldan izena emanda duten atzerritarren ehunekoaren bilakaera



Iturria: EINEko datuekin eginda.

den, atzerrian jaiotako estatu kideetako -adibidez, Frantzia, Suedia, Herbeherak eta Erresuma Batua- herritar kopurua hirugarren herrialdeetako nazionalena baino handiagoa da, etorkin askok harrera-herrialdeko herritartasuna eskuratu baitute.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak gerotz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gaintu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien berriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz.


EINEk, 2007ko datuekin, 2008an lehen aldiz argitaratu zuen "Encuesta Nacional de Inmigración" delakoak agertu zuenez, EAEn bizi diren etorkinak gure erkidegora, batez ere, lan hobearren bila (% 42,9), familia arrazoiengatik (elkarretaratzea) (% 32,1), bizi kalitatea hobetzeko (% 23,9) eta lan faltagatik (% 21,8) etorri zirela, erantzun bat baino gehiago eman dezaketela. Hortaz, migrazio-fenomeno bat da, batez ere, ekonomikoa.

#### (a) Biztanleen bilakaera

Udal Erroldaren datuen arabera, azken urtean EAEn bizilekua duten biztanle atzerritarrek gora egin dute. 2005. eta 2011. urteen artean EAEn erroldatutako atzerritarren bolumena bikoiztu egin da. 2005ean gure erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren; 2011ko urtarrilaren 1ean udal erroldak 144.551 zenbatu zituen, aurreko urtean baino % 3,7 gehiago (2011rako behin-behineko datuak; 2010erako, aldiz, behin betikoak). Herritar etorkinen hazkunde hori biztanleria osoan duten pisu gero eta handiagoan islatzen da: 2011n EAEn atzerritarren pisua % 6,6koa da, eta estatuan % 12,2koa.

Hazkunde hori hiru lurralde historikoetan jazo da. Bizkaian bizi dira atzerritar gehienak (71.962), 2010ean baino % 4,7

### I.1.13. Grafikoa. Atzerritarren herritartasuna kontuan hartuta. Ehuneko atzerritar guztien gainean. 2011




Iturria: IKUSPEGI EINEko datuekin.

gehiago, eta ondoren Gipuzkoan (43.948 erroldatuta, % +3,5) eta, azkenik, Araban (28.641, % +1,5). Beraz, ikus daiteke atzerritarren hazkunde erritmoa biziagoa izan dela Bizkaian eta Gipuzkoan.

Eusko Jaurlaritzako Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin duen erroldako datuen aurrerapenaren azterketak, 2011ko ekaineko 40. zk.ko aldizkarian, agerian jartzen du 2011n gure erkidegoa izan dela bigarrena atzerritar kopurua handitzeari dagokionez, Extremaduraren atzerik (% +5,4) eta Andaluziaren gainetik (% +3,3). Horrez gain, EINEko datuen bidez aditzera ematen da immigrazioa gehien handitu dela atzerritarren ehuneko oso txikia duten komunitate horietan. Ikusi dugunez, EAEko immigrazioaren pisua (% 6,6) estatu osokoaren erdia

### I.1.14. Grafikoa. EAEko eta estatuko atzerritarren pisuaren bilakaera



Iturria: EINEko eta MTINEko datuak oinarri hartuta.

Oharra: Erregularizazio indizea da atzerritar kopurua zati bizileku-baimena eta erroldatuak egitean lortzen den emaitza.

da (% 12,2); Extremaduran % 3,7koa eta Andaluzian % 8,6koa den bitartean. Aitzitik, etorkin-tasa handienak dituzten komunitateetan (Valentziako Erkidegoa, Madril, Aragoi, etab.) errolatutako atzerritar kopurua gutxitu egin da. Ikuspegiren ustez, joera hori hainbat arrazori dago lotuta, besteak beste, atzerritarren nazionalizazioei eta lan-aukeretan jazotako aldaketan ondoriozko immigrazioaren lurralde birbanaketari.

EAEko atzerritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: % 51,4 gizonezkoak dira eta % 48,6 emakumezkoak. Gainera, ikuspegik EAEko etorkinei 2007an egindako inkesta batek zera zioen: edozein adin-taldetan, etorkin latinoamerikarren taldea batez ere emakumezkoek osatzen dute. Etorkin afrikarren taldea, aldiz, portugaldarrekin batera, gizonezkoek osatzen dute gehienbat. Jatorriz europarrak diren artean, zein Errumaniakoen eta Frantziakoen artean, emakumeen indizeak laginaren batez besteko osoa dira gutxi gorabehera, % 45. Azkenik, Txinatik etorritako pertsonen artean sexuen arteko banaketa antzekoa da jorei erreparatuz.

Era berean, jatorrizko herriek ama hizkuntzak baldintzatzen dituzte, eta horiek, gutxienez, kasu garrantzitsu bi erakusten dituzte, hiltun kopuruari dagokionez: bata, gaztelania, emakumezko aurpegia duena, eta bestea, arabiera, gizonezko fisonomiakoa.

EAEn errolatuta dauden nazionalitate-taldeak aintzat hartzen baditugu, antzematen da 2011n jatorrizko herrialdearen arabera hiru talde nagusi daudela: % 42,4 Latinoamerikatik dator, % 24,9 batasuneko da eta % 15,2 magrebtarra. Hala ere, immigrazio berriaren jatorria aztertzen badugu, hain zuzen, azken lau urteetan EAera heltzen ari dena, antzematen da ohikoa izan den Latinoamerikako nazionalitateetako nagusitasuna (urtebetean heldutako biztanleriaren % 48 baino gehiago) aldatu egin dela eta orain nagusitasun hori Afrikako nazionalitateei dagokiela -1997 eta 2011 bitartean heldutako atzerritarren % 33,8; hirutik bi Magrebetik

datoz). Latinoamerikako pertsonak, aldiz, % 29,9 dira Europako nazionalitate guztiak hirugarren postuan daude, guztizkoaren % 26.

Herrialdeka, lehenengo hamar garrantzitsuen artean bost Latinoamerikakoak dira (Kolonia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bat Asiakoa (Txina). Errumaniak, 16.220 pertsonarekin, laugarren urtez jarraian EAEko nazionalitate garrantzitsuena izaten jarraitzen du, atzerritarren % 11,2rekin. Ondoren, Maroko eta Kolonia daude, errolatutako atzerritarren % 10,8 eta % 8,4rekin, hurrenez hurren.

Halaber, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuek agerian jartzen dute 2010eko abenduaren 31n 115.838 atzerritarrek EAEn bizitzeko baimena zutela, 2009an baino 9.180 pertsona gehiagok. Datu horiek 2011ko urtarilaren 1ean errolatutakoekin alderatzen baditugu, erregularizazio tasa edo indizea lortzen dugu eta horrek erakusten du errolatutako atzerritarren % 80,1ek data horretan bizileku-baimena zutela. Erregularizazio tasa hori 3,6 puntu handitu da aurreko urteari dagokionez. Gauza bera gertatzen da estatu mailan (% 86ko tasa erregistratzen da, 2010ean baino portzentajezko hiru puntu gehiago).


Hala, antzematen da biztanleria atzerritarren erdia administrazio egoera irregularrean egotetik (2002-2005. urteak) erregularizazio tasa geroz eta handiagoa den beste egoera batera igaro dela, erkidego batzuetan —adibidez, Errioxa eta Aragoia— % 100 inguruan dabil. Igoera horretan modu erabakigarrian bi faktorek eragin dute: 2005ean jazotako aparteko erregularizazioa eta gizarte errotzerako bidea bizileku-baimena lortzeko; horren bidez handitzen ari den atzerritar-biztanleriak bizileku-baimena modu patxadatsuagoan lortu du.

Halaber, Eusko Jaurjaritzaren 2010eko “EAEn bizi diren atzerriko etorkinen inkestaren” (AEI) arabera, 16 urte baino gehiagoko biztanleen artean, gure erkidegora atzerritar-multzoa 2005. eta 2006. urteen artean iritsi zen

#### I.1.10. Koadroa. 16 urteko eta gehiagoko biztanleak eaera lehenengo aldiz etorri zirenetik, urte kopuruen arabera, jatorrizko herrialdea kontuan hartuta. Ehuneko horizontalak eta batez besteko urte kopurua ean. 2010

	Urteak lehenengo aldiz etorri zirenetik						Batez bestekoa
	< 2 Urte	2-3 Urte	4-5 Urte	< 6 Urte	6-9 Urte	10 Urte edo gehiago	
Mendebaldeko EB	1,4	8,7	8,3	18,3	17,0	64,7	18,7
Errumania eta ekialdeko beste eb batzuk	4,2	22,7	31,3	58,1	29,9	11,9	6,4
Magreb	8,5	19,1	17,9	45,5	29,9	24,6	7,7
Argentina, Txile, Uruguai	5,6	8,6	25,9	40,1	41,9	18,1	8,0
Kolonia, Ekuador, Peru	2,8	14,6	15,6	33,0	47,8	19,3	7,1
Bolivia	1,0	8,3	42,5	51,7	45,7	2,6	5,8
Paraguai	8,1	27,7	39,5	75,3	23,7	1,0	4,3
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak	5,4	12,2	22,5	40,1	34,6	25,3	8,1
Gainontzeko Latinoamerika	8,2	14,2	27,2	49,6	32,9	17,5	6,5
Txina	4,2	13,1	21,0	38,3	27,2	34,5	8,4
Senegal	4,4	21,0	28,6	53,9	32,2	13,9	5,9
Gainontzeko Afrika	9,3	16,5	26,4	52,2	31,1	16,8	6,6
Gainontzeko Mundua	2,8	25,7	19,6	48,1	22,3	29,6	8,1
Guztira	4,6	15,6	22,2	42,4	33,3	24,3	8,5

### I.1.15. Grafikoa. Zeintzuk dira EAEko hiru arazo nagusienak? (Gehienez 3 erantzun, erantzun naturalak)



Iturria: IKUSPEGI barometroa 2010eko urria.

eta, hortaz, EAEen 4 eta 5 urte daramatza. Aldi hori baino lehen eta ondoren etorritakoak kontuan hartuta, kopurua murriztu dela antzematen da, denboran hurrundu ahala. Oro har, atzeritarren nukleo zentralak (% 42,4) EAEen 2 eta 6 urte bitartean daramatza, beste % 33,3k 6 eta 9 eta % 24,3k 10 urte edo gehiago. % 4,6 bakarrik, inkesta hau egin zenean, alegia, duela bi urte baino gutxiago, eta horrek azken urteotan biztanleria berria erakartzeko erritmoaren erorketa handia berresten du.

Immigrazio talde zaharrena EBko mendebaldeko herrialdeetatik etorritakoa da, duela 10 urte edo gehiago % 64,7rekin. Era berean, proportzio hori garrantzitsua da Txinako jatorria duten horien kasuan (% 34,5).


Horrez gain, 2010eko AEIk agerian jartzen du EAEen bizi diren jatorri atzeritarreko pertsonen % 50,1en sarrera nagusiak erreferentziazko data horretan haren laneko edo haien errentetako etekin ekonomikoak zirela; sarrera nagusiak pentsio edo prestazio orokar bat -kotizazioduna edo kotizaziorik gabekoa- duten biztaleen zama, aldiz, oso mugatua dago. Aztertutako biztanleen % 2,1 baino ez dago egoera horretan, EBko mendebaldeko herrialdeetako jatorria duten biztanleen kasuan % 5eko mailak bakarrik gaindituz.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta da aintzat hartutako biztanleriaren % 9,6rentzako sarrera-iturri nagusia eta errenta hori langabeziagatik prestazioak jarraitzen du, % 7,2k jasoko luketena. Por su parte, el 29,9% de los inmigrantes mayores de 16 años dice no tener fuente alguna de ingresos.

#### (b) Elkarbizitza eta ongizatea<sup>4</sup>

Ikuspegiren 2010eko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. % 2,8k baino ez dute berez esaten hura EAEren arazo nagusia dela. Hala ere, berezko hiru erantzunen artean laugarren tokian dago: lehenengo tokia langabeziak hartu du, inkestatuen % 82,4k aipatuta, haren atzean terrorismoa (% 20,9) eta

### I.1.16. Grafikoa. Etorkinek honako eskubide hauek edukitzeko aukera dute? EAE, 2010




Iturria: Ikuspegi barometroa, 2010eko urria.

etxebizitza (% 21) daude, eta laugarren tokian, immigrazioa (inkestatuen % 15,4k aipatuta, % 12,9k 2009an).

Immigrazioak EAEko ekonomian daukan eraginari dagokionez, eta aurreko urteetan bezala, euskal gizarteak ez du immigrazioak gizartean dituen ondorio positibo edo negatiboen alde egiten, eta 0tik 10erako eskalan, batez besteko puntuazioa 4,75 da (4,95 2009an).


Ekonomia sektore batzuetarako etorkinak behar direla onartzen da (% 44,9), baina aldi berean uste da haiek egoteak langabezia handitzen duela Euskadin (% 60,8). Era berean, aurreko urteetan baino indar eta ongura txikiagoz bada ere, uste da atzeritarrei esker, orokorrean, ekonomia hobeto dabilela, baina horren ordaina soldata mailetan ondorio kaltegarriak izatea dela (% 44,1) eta gure gizarteko sektore ahulenei kalteak dakartzketela (% 72,4). Bestalde, euskal biztanleria 2009an baino gehiago dago atzeritar guztiek osasun laguntza (+3,5 puntu aurreko

### I.1.17. Grafikoa. Zure ustez zein da politikarik egokiena etorkin langileen gaia jorrazteko?



Iturria: Ikuspegi barometroa, 2010eko urria.

<sup>4</sup> Kapitulu hau ixterakoan, ezin izan dira atal honetako datuak 2011ri lotutako informazio berriarekin eguneratu. Hortaz, memoria sozioekonomiko honen 2010eko edizioko edukiak mantentzea erabaki da.

**I.1.18. Grafikoa. Gizartea hobetu dela pentsatu. Bertakoak eta etorkinak. EAE, 2010**

Iturria: IKUSPEGI, 37. zk.ko aldizkaria. 2010eko abendua.

urtearen aldean) eta euren seme-alaben hezkuntza (+3,7 puntu) eskuratu ahal izatearen alde, baina ezohiko edo larrialdiko egoerei lotutako zerbitzu edo eskubideei dagokienez (gizarte laguntzak, BOE) aurreko urteetan baino murriztaileagoa da (etorkinek halakoak eskuratu ahal izatearen aldeko pertsonen ehunekoa, hurrenez hurren, 7 eta 3,2 puntu jaitsi da).

Halaber, Barometroak erakutsi duenez, immigrazio politikari dagokionez, euskaldunen % 8,6 (aurreko urtean baino gutxiago) daude etorkinak sartzeari batere oztoporik ez jartzearen alde, eta aldi berean % 6,2 edonola ekiditearen alde daude. % 82,6 sartzeari lan kontratua izatearen truke baimentzearen alde daude, aurreko urtearen antzeko ratioa.

Bestalde, Ikuspegiren 2010eko abenduko Aldizkariak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu ditu. Bertan, immigrazioari dagokionez, osasunari, bizitzarekiko asetasunari, gizarte harremanei, bereizkeriari eta euskal gizartearen beste alderdi batzuei lotutako alderdiak aztertu dira.

Lehenbizi, azpimarratzekoa da bizitzarekiko asetasun maila orokorra nahiko handia dela, bai bertako herritarrei (7,18 10etik) bai atzerritarrei (6,40) dagokienez, eta azkenen artean, nabarmentzen dira, batez bestekoaren gainetik egoteagatik, kolonbiar (7,30) eta boliviarrak (6,86) nazionalitatea duten pertsonak. Batez bestekoaren azpitik leudeke Sahara azpikoak (6,04), errumaniarrak (5,98) eta marokoiarrak (5,82). Dena dela, atzerritarren herenak baino ez dio bizitzako gertaerak nahi zuten moduan jazo zaizkiela, bertako biztanleen % 53ren aurrean.

Gainera, gizartea hobetzeko itxaropen maila biziagoa da etorkinen artean bertakoen artean baino, eta azkenak, halaber, gehiago onartzen dute gizartea haiek bezalakoentzat hobetzen ari dela (etorkinen % 52,2 eta bertakoen % 35,8).

Bestalde, atzerritarrek, orokorrean, ez dute adierazten EAEn bizi izandako bizipenetan zailtasun handirik topatu izana. Esperientzia horien guztien artean, lana lortzea (% 65,2) eta etxebizitza erosi eta alokatzea (% 56,2) bakarrik nabarmentzen dituzte, nahiko zailtzat jotzen baitituzte. Lana lortzeari dagokionez, kolonbiar biztanleak dira zailtasunik txikiena adierazten dutenak (% 45,6), Sahara azpiko Afrikatik datozenen % 81,9ren aurrean. Era

berean, kolonbiarrek ez dute arazo handirik izan etxebizitza lortzeko (horrela adierazi dute elkarrizketatuen % 56,5ek), Sahara azpikoak % 19,9ren aurrean.

Azkenik, bertako biztanleek etorkinekin duten enpatia eta konpromiso mailari dagokionez, orokorrean, ondorioztatzen denez, bertako biztanleek ahalegina egiten dute etorkinen egoera hobeto ulertzeko (horrela adierazi dute % 64,9k), baina onartzen dute ez diela gehiegi eragiten (% 58,3), ez dela beti erraza haien lekuan jartzea eta, azken batean, haien arazoek ez dutela euren eguneroko bizimodua aldatzen.

Halaber, bertako herritarrek izateko prest dauden konpromiso maila, ikerketatik ondorioztatzen denez, tokian dago etorkin bati laguntzeaz hitz egiten dugunean —bakarka, eremurik pribatuenean— (% 90,6 horren alde ageri dira), edo taldeei laguntzeaz hitz egiten dugunean —esparru publikoan edo GKE baten testuinguru formal eta iraunkorragoan— (% 35,4).

## 1.2. Hezkuntza eta hezkuntza sustapena

### 1.2.1. Unibertsitateaz kanpoko ikasketak

**1.2.1.1. Ikasleen bilakaera hezkuntza mailen arabera**  
EUSTATEk 2011/2012 ikasturteari buruz emandako datu aurrerapenaren arabera, EAEn 349.095 ikasle matrikulatu dira unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan (Helduen Hezkuntza zenbatu gabe). Hazkundera gertatu da berriro ere. Kopuru horretan Hezkuntza Berezia sartuz gero, hazkundera %1 izan da (aurreko ikasturtean baino 3.361 ikasle gehiago) eta sartzen ez badugu, berriz, %2,3 (347.995 ikasle).

Bigarren horri helduz, hau da, Hezkuntza Berezia kanpoan utziz, hazkunderaren arazoia beheko mailetan gertatu den hazkundera (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn) nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) zein Erdi mailako ikasketetan izandakoa da. Lehenengoan, 288.119 ikasle (+%2) zeuden matrikulatuta 2011-2012 ikasturtean, EUSTATEn behin-behineko datuen arabera: 95.563 ikasle Haur Hezkuntzan (+%0,8), 120.284 ikasle Lehen Hezkuntzan (+%2,6) eta 72.272 ikasle DBHn (+%2,5). Bigarrenetan, hots, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) zein Erdi mailakoetan hazkundera %3,9 izan da. Hazkunderik handienak Lanbide

## I.1.11. Koadroa. Titulu eta mailaren araberako ikasleak (1)

	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	2010-11	2011-12 behin- behinekoa	2011-2012 Aldak.
Ikastetxe guztiak, Hezkuntza Bereziarekin	314.573	319.842	328.183	337.903	345.734	349.095	1,0
Ikastetxe guztiak, Hezkuntza Berezirik gabe	313.590	318.844	324.509	332.219	340.165	347.995	2,3
Beheko mailak, Hezkuntza Berezirik gabe	257.608	264.518	270.347	275.599	282.527	288.119	2,0
Haur Hezkuntza	84.851	88.308	91.206	92.800	94.818	95.563	0,8
Lehen Hezkuntza	103.859	107.329	110.095	113.335	117.193	120.284	2,6
Hezkuntza Berezia (Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza)	404	412	423	428	444	447	0,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.)	68.898	68.881	69.046	69.464	70.516	72.272	2,5
Lanbide Hastapenerako Prestakuntza Programak (LHPP)			2.641	4.615	4.519		
Hezkuntza Berezia (D.B.H.)	184	199	195	208	208	228	9,6
Erdi mailako ikasketak edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO), Hezkuntza Berezirik gabe	58.087	55.982	54.326	54.162	57.638	59.876	3,9
Batxilergoa	30.719	30.043	29.112	28.832	28.769	29.485	2,5
Erdi mailako Lanbide Heziketa	11.023	10.523	10.266	10.232	11.468	12.272	7,0
Goi mailako Lanbide Heziketa	16.345	15.416	14.948	15.098	17.401	18.119	4,1
Zereginen Ikaskuntza (LH. Hezkuntza Berezia)	375	395	387	415	398	425	6,8
Batxilergoak ordezkatzeko duen DBHOren %	52,9	53,7	53,6	53,2	49,9	49,2	-1,3
LH ordezkatzeko duen DBHOren %	47,1	46,3	46,4	46,8	50,1	50,8	1,3

(1) Unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko ikasketak. Helduentzako Heziketa Iraunkorra eta erregimen bereziko irakaskuntzak (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika kanpoan utzi dira). Iturria: EUSTAT.

Heziketan gertatu dira: %7 erdi mailako Lanbide Heziketan eta %4,1 goi mailako Lanbide Heziketan. Urruti, Batxilergoa kokatuko litzateke (%2,5).


2011-12 ikasturtean erdi mailako ikasketak egiten ari diren 59.876 ikasleetatik, 29.485ek, hau da, %50,1ak, Batxilergoa aukeratu dute derrigorrezko hezkuntza amaitu eta gero. Aldiz, %50,8k Lanbide Heziketa aukeratu du. Gainerakoek Zereginen Ikaskuntza.

**Lanbide Heziketa**

Berariazko Lanbide Heziketak ondorengo irakaskuntzak hartzen ditu bere barne: Erdi mailako Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak eta Goi mailako Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak.

Lanbide Hastapenerako Prestakuntza Programek (LHPP) osatzen dute Lanbide Heziketako prestakuntza eskaintza. Programa hauen xedea ikasleek Lanbide

## I.1.19. Grafikoa. Lanbide prestakuntza eta heziketa sistema



Iturria: kei-ivac.



Gaitasunen Katalogo Nazionalako lehenengo mailari dagozkion lanbide gaitasunak eskuratzea da; oinarrizko gaitasunak areagotzea eta behar bezalako sarrera izatea lan munduan. DBHko tituluak lortu ez duten hamasei urtetik gorako ikasleei zuzenduta daude.

Berriazko Lanbide Heziketa Enplegurako Prestakuntzarekin osatzen da Lanbide Prestakuntzen Sistema Nazionalan (LPSN).

Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionala (LPKN) prestakuntza eskaintza, Lanbide Heziketako tituluak eta Profesionaltasun Ziurtagiriak, onarpena eta egiaztatzea eta lan eta prestakuntzari buruzko informazio eta orientazioa diseinatzeko erreferente komuna da.

Katalogoa Lanbide Heziketako tituluak eta profesionaltasun ziurtagiriak lantzeko erreferentzia bitartekoa da. Lehenengoaren kasuan, Hezkuntza Administrazioarena da eskumena; eta bigarrenaren kasuan, Administrazio Autonomikoa. Espero den bezala, ikasleei, langabeei eta lanean diharduten langileei zuzendutako integratutako prestakuntza eskaintza sustatzeko lagungarria da katalogoa. Bere gaitasun unitateei lotutako prestakuntzak hasierako lanbide heziketan eta enplegurako lanbide heziketan elementu komunak egotea ahalbidetzen du.

Lanbide Heziketa arautzen duten legegintza xedapenak aztertzen baditugu, laburbilduz, marko legegilea honakoa izango litzateke:

Lanbide Heziketa moduluetan antolatutako erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloak osatzen dute eta Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalan (LPKN) biltzen dira. Gobernu Zentralari dagokio, lehenik autonomia erkidegoekin kontsultatuta, Araututako Lanbide Heziketari dagozkion titulazioak eta curriculumaren oinarrizko alderdiak ezartzea. Heziketa zikloak tituluaren profil profesionalari lotutako Berriazko Lanbide Heziketa dira eta oinarrizko bi irizpidek mugatzen dituzte: euren kidetasuna eta tituluari dagokion gaitasun profesionala eskuratzeko euren ekarpena. Modulu profesionalak osatzen dituzte heziketa zikloak.

Halaber, autonomia erkidegoek eskumena dute Araututako Lanbide Heziketaren irakaskuntza eskaintza programatzeko. Xede horretarako ELOk zenbait helburu orokor ezartzen du: eduki zientifiko, teknologiko eta antolatzaileen sustapena, IKTei lotutako ezagutza eta gaitasunak eskuratzea, EBko hizkuntzak, talde lana eta lan arriskuen prebentzioa. Aipatutako hauek lehentasunezko arloak dira Prestakuntzei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 LOan.

Lanbide heziketan integratutako Ikastetxeen oinarrizko baldintzak arautzen dituen abenduaren 23ko 1558/2005 EDak hauen ezaugarri nagusiak biltzen ditu:

- Lanbide heziketako tituluak eta profesionaltasun ziurtagiriak eskuratzera bideratutako lanbide prestakuntzen katalogo nazionalan jasotako prestakuntza eskaintza guztiak ematen dituzte. Dauden azpisistemetera heltzen den moduluetan antolatutako eskaintza malgua daukate eta honi esker, produkzio sektoreen prestakuntza beharrei eta baita banako behar zein itzaropenei erantzuna eman ahal zaie.
- Familiari berezko prestakuntza eskaintzez gain zein baimendutako lanbide arloen berezko eskaintzez gain, ikastegi bateratuek profesionalak informatzeko eta orientatzeko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte, beste ikaskuntza ez-formalen bitartez eta lan eskarmentuaren bitartez eskuratzeko gaitasunak ebaluatzeko

zerbitzuekin batera; beti ere, prestakuntzen eta lanbide heziketaren sistema nazionalaren esparruan.

1538/2006 EDak lanbide heziketako titulu berrien egitura eta eskakizunak ezarri zituen, Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalan eta EBak xedatutako arauetan oinarrituta. Prestakuntzek, eta dagokionean aipatutako katalogoaren gaitasun unitateek, zehaztuko dute titulu bakoitzari dagokion lanbide profila.

Irakaskuntzak prestakuntzen katalogoaren gaitasun unitateei lotutako heziketa zikloetan eta lanbide moduluetan antolatzen dira. Egitura modular honi esker eta prestakuntzen katalogoerako loturari esker, heziketa zikloetako bat edo bat osorik gainditzen ez duen ikasleak gaindituta dituen prestakuntza moduluen egiaztagiria (notak) jaso ditzake. Egiaztagiri honek eskuratutako lanbide gaitasunen pilatu daitezkeen egiaztagiri partzialen balioa izango du, beti ere, Lanbide Prestakuntzen Sistema Nazionalaren esparruan.

Bere aldetik, autonomia erkidegoek curriculumaren zati bat zehazten dute, estatuko erregulazioaren oinarrizko alderdiak errespetatuz. Lanbide Heziketaren tituluen edukiak zabaldu ditzakete lurraldeko errealitate sozioekonomikoa kontuan hartuz. Horrela irakaskuntzek inguruko sektore sozioproduktiboen gaitasun beharrei erantzunak diete momentu oro, ikasleen mugikortasunari kalterik egin gabe.

EUSTATEN datuen arabera, 2010-11 ikasturtean gehien eskatu diren erdi mailako lanbide tituluak honako hauek dira: Osasuna (%15), Fabrikazio mekanikoa (%13,9), Elektrizitatea-Elektronika (%11,1), Garraioa eta Ibilgailuen mantentzea (%7,4), Informatika eta Komunikazioak (%5,3), Ostalaritza eta Turismoa (%5) eta Zerbitzu soziokulturalak-Gizarte zerbitzuak (%4,2).

Goi mailako tituluen artean ondoregoak nabarmentzen dira: Administrazioa eta Kudeaketa (%12,7), Zerbitzu soziokulturalak-Gizarte zerbitzuak (%12,6), Elektrizitatea eta Elektronika (%12,2), Fabrikazio mekanikoa (%9,9), Informatika eta Komunikazioak (%7,2), Osasuna (%7,11) eta Instalazioa eta Mantentzea (%7).

Lanbide ikasketetan oraindik emakume askoz gutxiagok hartzen dute parte gizonen baino, batez ere izaera teknikoko lanbide familetan. Gainera, azkenengo hauek dira lanbide munduan errazago sartzen diren lanbideak.

### **1.2.1.2. Bilakaera ikastetxeen titulartasunaren eta eredu soziolinguistikoen arabera**

EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, sare publikoan matrikulatutako ikasle kopuruak gora egin du azkenengo urteetan ere. 2010-11 ikasturtean %49,6ko hazkundera izan da beheko mailatan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) eta %54,2ko hazkundera izan da DBHO mailatan.

Nabarmenezkoa da sare publikoak erdi mailako LHn duen indarra, %60,8. Sare publikoko matrikulazio ratioirik baxuena DBHn gertatzen da, %45,5, hau da, DBHn egiten diren matrikulen %50 baino gehiago sare pribatuko ikastetxeetan egiten da.

Bestalde, hizkuntza ereduaren sistema abian jarri zenetik, euskalduntze prozesuak gora egin du. Horrela 2009-10 eta 2010-11 ikasturteetan D ereduaren egindako matrikula kopurua (HHLrik eta Hezkuntza Berezirik gabe) igo da %59tik %60,4ra. Berriz, A ereduaren egindako matrikulen kopurua jaitsi da %17,6tik %16,9ra. Bere aldetik, B ereduaren txikiagotuz doa, %22,8tik %22,1era.

Hala, Haur Hezkuntzan D ereduan egindako matrikulazioa %72,7ra heldu da 2010-11 ikasturtean, A ereduak matrikulen %4,1 jasotzen duen bitartean. Lehen Hezkuntzan matrikulen %63,8 dagokio D ereduari eta %7,4 A ereduari. DBHn matrikulen %55,9 egin dira D

ereduan eta %15,4 A ereduan. Batxilergoari dagozkion ehunekoak honakoak dira %53,8 eta %43,8.

Aldiz, Lanbide Heziketan erdi mailako zikloetako matrikulen %22,4 eta goi mailako zikloetako matrikulen %25,5 baino ez da egiten D ereduan. Honen aurrean,

### I.2.12. Koadroa. Lanbide heziketako ikasleak graduaren, familiaren eta sexuaren arabera

FAMILIA		2009-2010 IKASTURTEA		2010-2011 IKASTURTEA	
		Goi mailako zikloa	Erdi mailako zikloa	Goi mailako zikloa	Erdi mailako zikloa
Nekazaritza	Guztira	170	156	198	159
	emakumeen %	24,7	26,9	18,2	18,2
Itsas arrantza	Guztira	77	167	79	201
	emakumeen %	5,2	7,2	5,1	8,0
Fabrikazio mekanikoa	Guztira	1.824	1.897	1.595	1.724
	emakumeen %	5,6	12,2	5,1	9,3
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.263	2.109	1275	2131
	emakumeen %	3,2	7,3	2,4	6,1
Kimika	Guztira	53	463	67	493
	emakumeen %	66,0	56,4	64,2	52,9
Eraikuntza eta obra zibila	Guztira	72	645	94	673
	emakumeen %	2,8	32,9	1,1	27,8
Zurgintza, altzarigintza eta artelazkigintza	Guztira	220	47	229	48
	emakumeen %	5,9	17,0	6,1	14,6
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	579	592	569	639
	emakumeen %	35,9	56,9	29,5	52,6
Osasuna	Guztira	1.540	1.178	1.751	1.243
	emakumeen %	88,6	79,9	87,4	79,4
Arte grafikoak	Guztira	169	285	178	295
	emakumeen %	39,6	56,8	48,3	56,6
Automozioa/Berez dabiltean ibilgailuen mantentzea	Guztira	818	474		
	emakumeen %	3,2	3,6		
Irudia eta soinuak/komunikazioa, irudia eta soinua	Guztira	80	386	94	401
	emakumeen %	56,3	37,6	48,9	32,7
Irudi pertsonala	Guztira	716	207	775	225
	emakumeen %	98,0	99,0	97,2	99,6
Gorputz eta kirol jarduerak	Guztira	160	562	192	670
	emakumeen %	18,1	20,5	20,8	21,5
Administrazioa eta kudeaketa	Guztira	997	2.104	993	2202
	emakumeen %	79,2	74,5	76,5	71,2
Zerbitzu soziokulturalak eta gizarte zerbitzuak	Guztira	347	2.017	476	2.187
	emakumeen %	87,9	87,5	87,6	85,5
Merkataritza eta marketina	Guztira	291	818	290	889
	emakumeen %	71,1	50,0	67,2	48,1
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira	14	69	32	63
	emakumeen %	85,7	88,4	84,4	96,8
Elikagaien industria	Guztira	76	18	111	16
	emakumeen %	39,5	77,8	40,5	68,8
Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak	Guztira	846	1.028		
	emakumeen %	2,1	8,6		
Energia eta ura	Guztira		64,0	0	163
	emakumeen %		6,3		4,9
Informatika eta komunikazioak	Guztira	241	1.176	604	1.258
	emakumeen %	15,4	20,9	11,9	18,0
Instalakuntza eta mantenua	Guztira		117,0	850	1213
	emakumeen %		5,1	2,2	7,5
Garraioa eta ibilgailuen mantenua	Guztira	172,0		1.016	508
	emakumeen %	3,5		3,6	3,7
Guztira	Guztira	11.068	16.579	11.468	17.401
	emakumeen %	37,4	42,2	38,4	40,6

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.

**I.2.13. Koadroa. Ikasleen banaketaren bilakaera ikastetxeen titulartasunaren arabera**

	2008/09			2009/2010			2010/11		
	Guztira	(%) Publikoa	(%) Pribatua	Guztira	(%) Publikoa	(%) Pribatua	Guztira	(%) Publikoa	(%) Pribatua
Guztira*	324.509	49,5	50,5	332.219	50,0	50,0	340.165	50,4	49,6
Beheko mailak	270.347	48,8	51,2	275.599	49,2	50,8	282.527	49,6	50,4
Haur Hezkuntza	91.206	51,2	48,8	92.800	51,6	48,4	94.818	52,1	47,9
Lehen Hezkuntza	110.095	49,5	50,5	113.335	49,9	50,1	117.193	50,1	49,9
D.B.H.	69.046	44,6	55,4	69.464	45,1	54,9	70.516	45,5	54,5
DBHO mailak	54.162	52,6	47,4	56.620	53,8	46,2	57.638	54,2	45,8
Batxilergoa	28.832	52,0	48,0	28.973	52,4	47,6	28.769	52,4	47,6
Erdi mailako L.H.	10.232	57,6	42,4	11.068	59,6	40,4	11.468	60,8	39,2
Goi mailako L.H.	15.098	50,5	49,5	16.579	52,3	47,7	17.401	52,9	47,1

\* HHLrik eta Hezkuntza Berezirik gabe.  
Iturria: EUSTAT.

**I.2.14. Koadroa. Hizkuntza erduen bilakaera (%horizontalak\*)**

	2008-09			2009-2010			2010-11		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Guztira**	18,5	23,2	57,7	17,6	22,8	59,0	16,9	22,1	60,4
Haur Hezkuntza	4,9	24,4	70,2	4,4	23,7	71,4	4,1	22,7	72,7
Lehen Hezkuntza	8,9	30,1	60,3	8,1	29,3	61,9	7,4	28,1	63,8
DBH	19,4	27,1	52,7	17,0	28,0	54,2	15,4	28,0	55,9
Batxilergoa	46,2	1,4	51,7	44,9	1,6	52,7	43,8	1,7	53,8
Erdi mailako L.H.	76,3	2,1	21,6	77,0	0,8	22,2	76,7	0,8	22,4
Goi mailako L.H.	74,7	2,9	22,4	72,6	2,7	24,6	72,1	2,5	25,5

\* Ehuneko horizontalen batuketa ez da 100era heltzen ez delako X erdua kontuan hartzen \*\* HHLrik eta Hezkuntza Berezirik gabe.  
Iturria: EUSTAT.

**I.2.15. Koadroa. Graduatutako pertsonak**

	2008-09 IKASTURTEA		2009-2010 IKASTURTEA				
	Guztira	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Unibertsitateak (%)		
					Publikoak	Pribatuak	
GUZTIRA	e.d	12.375	4.991	7.384	74	26	
1. eta 2. zikloan graduatuak (1)	10.170	10.346	4.231	6.115	75	25	
Lizentziak	3.879	3.733	1.239	2.494	75	25	
Arkitekturak eta ingeniariak	1.537	1.544	1.019	525	58	42	
Diplomaturak	3.113	3.458	821	2.637	84	16	
Arkitekturak eta ingeniariak teknikoak	1.641	1.611	1.152	459	69	31	
Graduetan graduatuak (2)		150	16	134	0	100	
Graduondokoetan graduatuak (3)	e.d	1.879	744	1.135	39,6	60,4	
Hirugarren zikloa edo doktoretza UL	—	0	0	0	0	0	
Graduondoko programa ofizial berriak	Master ofizialak	—	1.517	558	959	55	45
	Doktoretza	—	362	186	176	84	16

(1) Lehenengo zikloa gainditzeak diplomatura, arkitektura tekniko edo ingeniariak teknikoak titulua eskuratzea dakar. Bigarren zikloa gainditzeak lizentzia, ingeniariak edo arkitektura titulua eskuratzea dakar.

(2) Unibertsitateko ikasketak berriak hiru ziklotan banatzen dira: Gradua, Masterra eta Doktoretza.

(3) Doktoretza ofizialeko programa berrietan UL (abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa) matrikulatutako ikasleak eta graduondoko programa ofizial berrietan (masterrak eta doktoretzak) matrikulatutako ikasleak.

Iturria: EUSTAT.

matrikulen %76,7 eta %72,1, hurrenez hurren, egiten da A erduan.

**1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntza**

EUSTATen matrikulazioei buruzko datuak lortzerako orduan gertatzen ari diren aldaketak direla eta, 2010-

11 ikasturteari dagozkion datuak ez daude eskuragarri. Baditugu, ordea, graduatutako pertsonen buruzko datuak. Hala ere, informazio hau 2009-10 ikasturtekoa da. Ondorioz, aurreko urteetan egin ez bezala, aurten azterketa aipatutako ikasturtean graduatutako ikasleengan oinarrituko da.

2009-10 ikasturtean EAEn unibertsitateko irakaskuntzan 12.375 pertsona matrikulatu ziren.

Guztien artean %83,6 1. eta 2. ziklodun ikasketetan matrikulatu ziren (lizentziak, arkitektura eta ingeniartzak, diplomatura eta arkitekturak eta ingeniartza teknikoak); %1,2 gradu<sup>5</sup> ikasketetan; eta %15,1 graduondokoetan (hirugarren zikloa edo doktoretza ULren arabera (abenduarien 21ko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa) eta GHEEtik eratorritako graduondoko programa ofizialetan (master ofizialak eta doktoretza).

Matrikulen %59,6 emakumei dagokie eta %40,4 gizoni. Gainera, emakumeak gehiago dira ikasketen mota guztietan: lehen eta bigarren zikloan (%59,1), graduak (%89,3) eta graduondokoetan (%60,4).

Ikastetxeen titulartasunaren arabera, ikasleen %74 unibertsitate publikora doa eta %26 pribatuan matrikulatu da.

Gradu ikasketetan graduatutako pertsona kopurua txikia izan zen (150), izan ere, titulu hauek unibertsitate pribatuek baino ez zituzten eskaini. Graduondoko ikasketetan 1.879 pertsona graduatu ziren: %60,4 unibertsitate publikoetan eta %39,4 unibertsitate pribatuetan. Alde handia dago doktoretza eta masterren artean: doktoretzak gehiago dira unibertsitate publikoetan, baina masterrei dagokienez unibertsitate publiko eta pribatuen aldeko alde orokatuago dago (%55-45).

### 1.2.2.1. Unibertsitateko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta gradua EAEn

Lehen eta bigarren zikloko eta graduko ikasketei helduz, EUSTATen datuen arabera, graduatutako pertsonen kopurua handitu da 2008-09 eta 2009-10 ikasturteetan. Hala ere, bi ikasturte hauetako tituluen arabera graduen bilakaera aztertzea zaila da Europako Goi Mailako Ikasketen Esparruak (EESP) emandako unibertsitateko

ikasketen egitura berria dela eta (gradua, masterra eta doktoretza).

2009-10 ikasturteari buruzko azkenengo datuek erakusten dute graduatuen kopurua igo dela aurreko ikasturtearekin alderatuz gero, %3,2 (%4,5 gizoni dagokienez eta %2,4 emakumei dagokienez). Hots, 10.496 pertsona graduatu ziren 2009-10 ikasturtean, aurrekoan graduatu ziren 10.170 pertsonen aurrean (6.249 emakume eta 4.247 gizon). Hau da, graduatutako emakumeen kopurua %50 baino handiago da. 2009-10 ikasturteko graduazioen %59,5 emakumei dagokie, aurreko ikasturteko %60 baino apur bat gutxiago.

2008-09 eta 2009-10 ikasturteen arteko tituluen arabera graduen bilakaera aztertzeak arkitektura, arkitektura tekniko eta diplomaturen hazkundera erakusten du eta, aldiz, lizentzien, ingeniartzaren eta ingeniartza teknikoaren jaitsiera.

2009-10 ikasturteko tituluen arabera gradua sakon aztertzen baditugu, honakoa ikus dezakegu lehenengo 25ei dagokienez:

- 300 pertsona baino gehiago graduatu ziren ondorengo graduetan: enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentzia (graduatutako 748 ikasle), enpresa zientzien diplomatura (682 ikasle), maisu-maistra ikasketak: haur hezkuntza (593), maisu-maistra ikasketak: lehen hezkuntza (401), industria ingeniartza: (399), ingeniartza tekniko —espezialitatea: tekniko— (388), erizaintzako diplomatura (380), psikologiako lizentzia (314), industria antolamenduko ingeniartza (309), gizarte hezkuntzako diplomatura (308), industria ingeniartza tekniko —espezialitatea: elektronika— (306).
- 300 pertsona baino gutxiago graduatu ziren ondorengo graduetan: zuzenbideko lizentzia (292), informatikako ingeniartza (265), maisu-maistra ikasketak: gorputz heziketa (239), arte ederretako lizentzia (210), gizarte

### 1.2.16. Koadroa. Tituluen arabera graduen bilakaera

	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	Aldea 2008-09 eta 2009-10
LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOA ETA GRADUA								
GUZTIRA	11.704	11.382	11.400	10.625	10.726	10.170	10.496	3,2
Gizonak	4.607	4.556	4.581	4.334	4.472	4.065	4.247	4,5
Emakumeak	7.097	6.826	6.819	6.291	6.254	6.105	6.249	2,4
LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOA								
GUZTIRA	11.704	11.382	11.400	10.625	10.726	10.170	10.346	1,7
Gizonak	4.607	4.556	4.581	4.334	4.472	4.065	4.231	4,1
Emakumeak	7.097	6.826	6.819	6.291	6.254	6.105	6.115	0,2
Arkitektura	126	177	136	160	158	67	163	143,3
Goi mailako Ingeniartza	1.579	1.567	1.681	1.543	1.635	1.470	1.381	-6,1
Lizentziak	5.372	4.980	4.793	4.175	4.020	3.879	3.733	-3,8
Diplomaturak	3.024	3.004	2.977	3.066	3.008	3.113	3.458	11,1
Arkitektura Teknikoa		8	64	56	51	66	72	9,1
Ingeniartza Teknikoa	1.603	1.646	1.749	1.625	1.854	1.575	1.539	-2,3
GRADUAK								
GUZTIRA							150	—
Gizonak							16	—
Emakumeak							134	—

Iturria: EUSTAT.

<sup>5</sup> Gogoratu behar dugu 2008-09 ikasturtean eskaintzen hasi zirela Europako Goi Mailako Ikasketen Esparruak (EESP) eratzeko hitzarmenaren eraginez sortutako ikasketak.

laneko diplomatura (195), kudeaketa informatikako ingeniari teknikoa (187), medikuntzako lizentzia (184), maisu-maistra ikasketak: atzerriko hizkuntza (181), kazetaritzako lizentzia (169), psikopedagogiako lizentzia (167), arkitektura (163), turismoko diplomatura (163), telekomunikazioetako ingeniari (149), maisu-maistra ikasketak: hezkuntza berezia (113).

Aipatutako tituluetan graduatutako emakumei buruzko datuek hiru talde bereizten direla erakusten dute:

- Graduutako emakume kopurua oso handia denean (%80 edo gehiago emakumeak direnean: haur hezkuntzako maisu-maistra ikasketak, lehen hezkuntzako maisu-maistra ikasketak, erizaintzako diplomatura, psikologiako lizentzia, gizarte hezkuntzako diplomatura, gizarte laneko diplomatura, atzerriko hizkuntzako maisu-maistra ikasketak, psikopedagogiako lizentzia, turismoko diplomatura eta hezkuntza bereziko maisu-maistra ikasketak.
- Graduutako emakume kopurua %50 eta %79 artean kokatzen denean: administrazio eta enpresen zuzendaritzako lizentzia, enpresa zientzietako

diplomatura, zuzenbideko lizentzia, medikuntzako lizentzia eta arkitektura.

- Graduutako emakume kopurua txikiagoa denean: industria ingeniari teknikoa —espezialitatea: mekanika—, industria antolamenduko ingeniari teknikoa —espezialitatea: elektronika—, informatikako ingeniari teknikoa —espezialitatea: gorrputz heziketako maisu-maistra ikasketak, kudeaketa informatikako ingeniari teknikoa eta telekomunikazioetako ingeniari teknikoa.

Sare publiko edo pribatuen graduatutako pertsonak aztertuz gero, hiru talde bereiz ditzakegu:

- Graduazioa batez ere sare publikoan gertatzen denean (%60tik gora): lehen hezkuntzako maisu-maistra ikasketak, erizaintzako diplomatura, arte ederretako lizentzia, medikuntzako lizentzia, kazetaritzako lizentzia, arkitektura, enpresa zientzietako diplomatura, atzerriko hizkuntzako maisu-maistra ikasketak, gizarte hezkuntzako diplomatura, haur hezkuntzako maisu-maistra ikasketak, hezkuntza bereziko maisu-maistra ikasketak, gorrputz heziketako maisu-maistra ikasketak, industria ingeniari teknikoa.

### I.2.17. Koadroa. Graduatu gehien izan duten 25 titulu etako ikasleen bilakaera. 2009-10 ikasturtea

	GUZTIRA			PUBLIKOA			MATRIKULAZIOA PUBLIKOAN %	PRIBATUA		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.		GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.
<b>GUZTIRA</b>	10.346	40,9	59,1	7.729	38,6	61,4	74,7	2.617	47,7	52,3
Administrazio eta enpresen zuzendaritzako lizentzia	748	41,6	58,4	419	38,7	61,3	56,0	329	45,3	54,7
Enpresa zientzietako diplomatura	682	41,3	58,7	656	41,3	58,7	96,2	26	42,3	57,7
Maisu-maistra ikasketak: haur hezkuntza	593	9,3	90,7	470	8,7	91,3	79,3	123	11,4	88,6
Maisu-maistra ikasketak: lehen hezkuntza	401	20,0	80,0	401	20,0	80,0	100,0	—	—	—
Industria ingeniari teknikoa	399	70,4	29,6	209	74,6	25,4	52,4	190	65,8	34,2
Industria ingeniari teknikoa, espezialitatea mekanika	388	80,9	19,1	265	80,8	19,2	68,3	123	81,3	18,7
Erizaintzako diplomatura	380	12,6	87,4	380	12,6	87,4	100,0	—	—	—
Psikologiako lizentzia	314	15,9	84,1	184	19,0	81,0	58,6	130	11,5	88,5
Industria antolaketako ingeniari teknikoa	309	68,0	32,0	152	73,7	26,3	49,2	157	62,4	37,6
Gizarte hezkuntzako diplomatura	308	16,6	83,4	267	15,7	84,3	86,7	41	22,0	78,0
Industria ingeniari teknikoa, espezialitatea industria elektronika	306	82,0	18,0	165	84,8	15,2	53,9	141	78,7	21,3
Zuzenbideko lizentzia	292	35,6	64,4	125	42,4	57,6	42,8	167	30,5	69,5
Informatikako lizentzia	265	78,1	21,9	103	77,7	22,3	38,9	162	78,4	21,6
Gorrputz heziketako maisu-maistra ikasketak	239	65,3	34,7	170	67,6	32,4	71,1	69	59,4	40,6
Arte ederretako lizentzia	210	27,6	72,4	210	27,6	72,4	100,0	—	—	—
Gizarte laneko diplomatura	195	11,3	88,7	121	14,0	86,0	62,1	74	6,8	93,2
Kudeaketa informatikako ingeniari teknikoa	187	75,9	24,1	66	68,2	31,8	35,3	121	80,2	19,8
Medikuntzako lizentzia	184	25,0	75,0	184	25,0	75,0	100,0	—	—	—
Atzerriko hizkuntzako maisu-maistra ikasketak	181	19,9	80,1	166	19,3	80,7	91,7	15	26,7	73,3
Kazetaritzako lizentzia	169	30,8	69,2	169	30,8	69,2	100,0	—	—	—
Psikopedagogiako lizentzia	167	14,4	85,6	97	16,5	83,5	58,1	70	11,4	88,6
Arkitektura	163	41,1	58,9	163	41,1	58,9	100,0	—	—	—
Turismoko diplomatura	163	17,2	82,8	6	16,7	83,3	3,7	157	17,2	82,8
Telekomunikazioetako ingeniari teknikoa	149	52,3	47,7	82	47,6	52,4	55,0	67	58,2	41,8
Hezkuntza bereziko maisu-maistra ikasketak	113	8,0	92,0	81	6,2	93,8	71,7	32	12,5	87,5

teknikoa —espezialitatea: mekanika—, gizarte laneko diplomatura.

- Sare publikoko graduazioa %50 eta %60 artean kokatzen denean: psikopedagogiako lizentzia, administrazio eta enpresen zuzendaritzako lizentzia, telekomunikazioetako lizentzia, industria ingeniariaritzako teknika —espezialitatea: industria elektronika— eta industria ingeniariaritzako.
- Sare publikoko graduazioa %50etik behera kokatzen denean: industria antolamenduko ingeniariaritzako, zuzenbideko lizentzia, informatikako ingeniariaritzako, kudeaketa informatikako ingeniariaritzako teknika eta turismoko diplomatura.

### 1.2.3. Hezkuntza adierazleak

2009ko maiatzaren 12an Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluak izandako batzarrean *Europako hezkuntza eta prestakuntza kooperaziorako markoa* erabaki zen. Honen helburuak honakoak dira: herritar guztien lanbide errealizazioa, gizarte errealizazioa eta norberaren errealizazioa bermatzea; enplegarritasun eta oparotasun ekonomiko jasagarria; eta balio demokratikoak, gizarte kohesioa, herritar aktiboak eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzea.

Hezkuntza eta Prestakuntza Estrategia 2020an ezarritako helburuak 2010eko aurreko estrategian zehaztutakoak eguneratzen ditu eta beste berri batzuk gaineratu. Berriz, estatu kideek berezko helburu nazionalak ezartzeko konpromisoahartu dute, abiapuntuak eta inguruabar nazionalak kontuan hartuz. Adierazle nagusiak ondorengo koadroan aipatzen dira:

Epigrafe honetan zehar, bere adierazleen sailkapenean (Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema) oinarrituz, zenbait hezkuntza adierazlen bilakaerari buruz *HKMaren Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalak (INEE)* emandako informazioa aztertzeari ekin zaio. Ez dugu

urtero hauetako bakoitza aztertzen, beraz, edizio honetan aztertu ez direnei buruzko informazioa nahi izanez gero, aurreko urteetako memoriak irakurtzea gomendatzen dugu.

#### 1.2.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea

##### Eskolaratze itxaropena

Herrialde bateko eskola biritza itxaropena pertsona bat eskolaratuta egongo den aurreikusitako urteen ehunekoan datza eta adin bakoitzeko eskolaratze tasa garbietetan oinarrituz kalkulatzen da. Adierazle honek zein den biztanleriaren parte hartzea eskolan erakusten du. *HKMaren Hezkuntza kopuruak Espainian (2012ko edizioa)* txosteneko datuen arabera, 2009-10 ikasturtean Espainiar Estatuan sei urte dituen ikasle baten (beraz, derrigorrezko eskolaratzeari ekiten dio) eskola biritza itxaropena 14,7 urtekoa da. Sei autonomia erkidegok estatuko batez besteko eskola biritza itxaropena baino handiagoa lortu dute ikasturte horretan bertan eta hauen artean handiena EAeri eta Gaztela-Leoni dagokie. Biek daukate 15,7 urteko eskola biritza itxaropena eta jarraian Madril dator 15,2 urterekin, Nafarroa 15,1 urterekin eta Asturias eta Galizia 15 urterekin.

Aurreikusitako 6 urteko ikasleen eskolaratze urteen bilakaerak erakusten du batez besteko urteak nahiko egonkor mantendu direla urteen buruan.

Sexuaren ikuspuntutik, hezkuntza sistemari jarraitzeko emakumeen itxaropena handiagoa da gizonena baino; horrela, 2009-10 ikasturtean emakumeek duten eskola biritza itxaropena 15 urtekoa da gizonenak 14,4 urtekoaren aurrean.

Nazioarteko konparaketa egin ahal izateko datuak Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalak argitaratutako *Hezkuntza adierazleen estatuko sistema* (2011) txostenean biltzen dira. 2009 urteari egiten dio erreferentzia txosten

#### I.2.18.

ADIERAZLEA	EUROPAKO ERREFERENTZIA PUNTUA 2020RAKO
Eskolaurreko irakaskuntzan parte hartu	Lau urte eta derrigorrezko hezkuntzan sartzeko adin tarteko haurren %95 gutxienez parte hartu behar izango du Haur Hezkuntzan. (Helburua Haur Hezkuntzako parte hartzea sustatzea da gerorako hezkuntza arrakasta bermatzeko, batez ere, eremu babesgabeetan).
Bigarren Hezkuntzako 2. etapako titulu tasa (INSN 3)	Oro har, titulu tasa eta eskola porrotaren kontzeptua erabili izan dira DBHko hezkuntza etekina baloratzeko. Ondorioz, gomendatu da erreferentzia puntu honetan sartzea informazio osagarri moduan eta Espainiako Estatuaren 2010erako berariazko helburu bezala. <b>Eskola elkartearen lehenetsuna da DBH ondo amaitzen duten ikasleen kopurua handitzea.</b> Hori dela eta, adierazle hau 2020rako mantentzeari egoki iritzi zaio.
Gaitasuna irakurmenean, matematiketan eta zientzietan	Irakurmenean, matematiketan eta zientzietan errendimendu gutxi ( <b>PISA eskalako1 edo &lt;1 gaitasun maila</b> ) duten 15 urteko ikasleen ehunekoak %15 baino txikiagoa izan beharko litzateke.
Eskola uzte goiztiarra	Gehien jota bigarren hezkuntzako 1. etapa amaitu eta jada ikaskuntza zein prestakuntzarik jasotzen ez duten 18 eta 24 urteko biztanleen ehunekoak %10 baino txikiagoa izan beharko litzateke.
Goi mailako hezkuntzako tituluak (unibertsitatean eta unibertsitate kanpo)	Hirugarren Hezkuntza maila ondo amaitu duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoak gutxienez %40 izan beharko litzateke.
Pertsona helduen prestakuntza euren bizitzan zehar	Euren bizitzan zehar hezkuntzan parte hartzen duten 25 eta 65 urte bitarteko biztanleen ehunekoak %15 baino handiagoa izan beharko litzateke. (Erreferentzia puntu hau 2010erako estrategian jasotzen zen jada (helburua %12,5 zen), baina 2020rako helburuak anbizio handiagoa dauka).
Goi mailako hezkuntzako ikasleen nazioz haraindiko mugikortasuna	Ikaskuntzan gertatzen den mugikortasunak daukan aitortutako balio erantsia kontuan hartuz eta mugikortasun hori sustatzeko xedearekin, Kontseiluak Batzordeari eskatu dio arlo honi buruzko erreferentzia puntu baten proposamena lantzeko, batez ere, Goi mailako Hezkuntzako herrialdeen arteko mugikortasun fisikoan areta jarritz. Horrez gain, lanbide heziketa eta prestakuntza puntu honetara ekartzeko aukera ere egongo da eta baita irakasleen mugikortasuna.

## I.2.19.

## ADIERAZLEEN SAILKAPENA (Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema)

Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskolaratzea eta biztanleria</li> <li>2. Eskolaratze tasak derrigorrezkoak ez diren mailetakoa adin teorikoetan (INSN 0, 3, 4 eta 5)</li> <li>3. Atzerriko ikasleak</li> <li>4. Ikasleak talde eta irakasle bakoitzeko Ikasleak hezkuntza talde bakoitzeko Ikasleak irakasle bakoitzeko Hezkuntzako gastu publikoa</li> <li>5. Ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea</li> </ol>
Hezkuntza finantzaketa	<ol style="list-style-type: none"> <li>6. Hezkuntzako guztizko gastua Hezkuntzako guztizko gastua BPGd-arekiko Hezkuntzako gastu publikoa Itunetarako gastu publikoa</li> <li>7. Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko</li> </ol>
Hezkuntza emaitzen adierazleak	<ol style="list-style-type: none"> <li>8. Oinarrizko gaitasunak Lehen Hezkuntzako laugarren mailan</li> <li>9. Oinarrizko gaitasunak DBHko bigarren mailan</li> <li>10. Funtsezko gaitasunak 15 urtean (Irakurmen, Matematika eta Zientzietan)</li> <li>11. Egokitasuna ikaslearen adinean</li> <li>12. Eskola garaia baino lehenago uztea</li> <li>13. Graduatze tasak (INSN 2, 3, 5 eta 6) DBHko graduatze tasa gordinak Derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailako ikasketetako graduatze maila gordinak Goi mailako ikasketetako graduatze tasa gordinak Goi mailako Zientzia, Matematika eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa</li> <li>14. Helduen ikaste maila</li> <li>15. Jarduera eta langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera</li> <li>16. Laneko diru sarreren arteko aldea ikasketa mailaren arabera</li> </ol>

## I.2.20. Koadroa. Eskola bizitza itxaropena hezkuntza sisteman 6 urterekin

ESTATUA	2004-05	2009-10
Andaluzia	14,1	14,5
Aragoi	14,6	14,8
Asturias	14,9	15,0
Balearr Uharteak	12,5	12,3
Kanariar Uharteak	13,7	13,7
Kantabria	14,3	14,5
Gaztela-Leon	15,4	15,7
Gaztela-Mantxa	13,5	13,8
Katalunia	14,3	14,7
Valentzia	14,1	14,3
Extremadura	14,0	14,1
Galizia	14,8	15,0
Madril	15,1	15,2
Murtzia	14,0	14,4
Nafarroa	15,0	15,1
EAE	15,5	15,7
Errioxa	13,7	14,1

Iturria: Hezkuntza kopuruak Espainian. 2012 edizioa, HKM.

honek eta Europar Batasuneko (ELGAko kide ez direnak) herrialdeetako 5 urteko haurren eskola bizitza itxaropena aztertzen du.

Espainia, 17,2 urteko eskola bizitza itxaropenarekin, Italia, Irlanda, Erresuma Batua, Austria, Eslovakia eta Frantziaren gainetik dago. Berriz, Hungaria, Alemania eta Txekiaren azpitik. Eskola bizitza itxaropen handiena duten herrialdeak Finlandia eta Belgika dira, 21,1 urte eta 20,1 urterekin, hurrenez hurren. Frantzia da, 16,4 urterekin, eskola bizitza itxaropen txikiena duena. Espainian gertatzen den bezala, Europako herrialde gehienetan emakumeek eskola bizitza

itxaropen handiagoa daukate gizonek baino. Suedian eta Estonian gertatzen dira alderik nabarmenenak. Gizonek arinki gaintzen dituzte emakumeak Alemanian bakarrik eta Herbehereetan ez dago bien arteko alderik.

**Eskolaratze tasa garbia bost urterekin (Haur Hezkuntzan)**

Haur Hezkuntza gure hezkuntza sistemaren lehenengo etapa da eta zero eta bost urte arteko tartea hartzen du. Borondatezkoa bada ere, berebiziko garrantzia dauka etorkizuneko ikaskuntzari eta gizarte zein kultura ingurune babesgabeetatik datozen ikasleen hezkuntza desabantailak murrizteari begira.

Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalaren *Hezkuntza adierazleen estatuko sistema* (2011) txosteneko datuen arabera, 1998-99 eta 2008-09 urteen artean Haur Hezkuntzako eskolaratze tasa garbiak hazi dira. Hortaz, bigarren zikloko adin teorikoen eskolaratzea ia osoa da. Estatuko batezbestekoak hiru, lau eta bost urterekin honakoak dira: %97,9, %99,2 eta %98,8.

Tasa hauen hazkundearen ondorioz, Haur Hezkuntzako eskolaratze urteen batezbestekoak gora egin du azkenengo urteetan zehar: 1998-99 ikasturtean 3 urte izatetik 3,7 urte izatera igaro da 2008-09 ikasturtean. Beste alde batetik, ez da neska eta mutilen arteko alderik ikusten aztertutako garaian zehar eskolaratzeko batez besteko urteetan ezta eskolaratze tasetan.

Autonomia erkidegoetan 1998-99 eta 2008-09 ikasturteen artean Haur Hezkuntzako eskolaratzean gertatutako bilakaeran arreta jartzen badugu, estatuko batez besteko urteak baino urte gehiagotan zehar ikasten da EAEn, Katalunian, Nafarroan, Aragoian eta Madrilan.

Erantsitako grafikoak erakusten duen bezala, Espainiar Estatua, eta hedaturaz EAE, 2008an hiru eta lau urterekin eskolaratze tasa handienak dituzten Europar Batasuneko herrialdeen artean dago.

## I.2.21. Koadroa. Eskola bizitza itxaropena EB-ko herrialdeetan bost urterekin. Urteen batez besteko kopurua. 2009

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Aldea
Finlandia	21,1	20,3	21,9	1,6
Belgika	20,1	19,2	21,0	1,8
Suedia	19,9	18,6	21,3	2,7
Grezia	19,6	19,4	19,8	0,4
Portugal	19,0	18,6	19,5	0,9
Danimarka	19,0	18,2	19,8	1,6
Eslovenia	18,5	17,7	19,4	1,7
Europar Batasuna	18,1	17,6	18,7	1,0
Polonia	18,1	17,7	18,5	0,8
Herbehereak	17,9	17,9	17,9	0,0
Estonia	17,8	16,8	18,9	2,0
ELGA	17,8	17,4	18,3	0,9
Txekia	17,8	17,3	18,3	1,0
Alemania	17,8	17,9	17,8	-0,1
Hungaria	17,7	17,2	18,1	-0,8
ESPAINIA	17,2	16,7	17,8	1,1
Italia	17,1	16,7	17,6	0,9
Irlanda	17,1	17,0	17,3	0,3
Erresuma Batua	16,8	16,3	17,4	1,2
Austria	16,8	16,6	17,0	0,4
Eslovakia	16,6	15,9	17,3	1,3
Frantzia	16,4	16,1	16,7	0,6

Iturria: Hezkuntza Ebaluazioko Estatuko Sistema, Hezkuntza adierazleen estatuko sistema, 2011.


**Ikasleak talde eta irakasle bakoitzeko**

Hezkuntza Sistemaren funtzionamenduaren kalitatea neurtzerako orduan talde eta irakasle bakoitzeko batez beste zenbat ikasle dagoen hartu behar da kontuan. Gela bakoitzeko ikasle kopurua ez gainditzea ikaskuntzak hobetzeko eta irakasleei laguntzeko bitartekotzat hartu da. 2008-09 ikasturtean gehieneko kopuruak honakoak dira: 25 Lehen Hezkuntzan eta 30 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

INEEren *Hezkuntza adierazleen estatuko sistema* (2011) txostenean jasotako datuen arabera, 2008-09 ikasturtean

Espainiar Estatuan talde bakoitzeko ikasle kopururik handienak DBHn eta Batxilergoan daude: 24,3 lehenengo kasuan eta 24,4 bigarrenen. Aldiz, kopururik txikiena Hezkuntza Berezian dago, 5,5 ikaslerekin. Haur Hezkuntzak eta Lehen Hezkuntzak hezkuntza talde bakoitzeko batez beste 19,4 eta 21,1 ikasle dituzte, hurrenez hurren. Bestalde, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloek 19,5 eta 18,7 ikasleko batez besteko kopuruak dituzte, hurrenez hurren. LPPetan talde bakoitzeko ikasle kopurua txikiagoa da, 13,6 ikasle.

## I.1.20. Grafikoa. Eskolaratze tasa 3 eta 4 urterekin Europar Batasuneko herrialdeetan. 2008



Iturria: Hezkuntza adierazleen estatuko sistema. IE. 2011ko edizioa.



**I.2.22. Koadroa. Talde bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua unibertsitateaz kanpoko ikasketetan autonomia erkidego bakoitzeko, 2008-2009 ikasturtea**

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	D.B.H.	Batxilergoa	Erdi mailako HZ	Goi mailako HZ	LPP	Hezkuntza Berezia
ESPAINIA	19,4	21,1	24,3	24,4	19,5	18,7	13,6	5,5
Andaluzia	20,1	21,9	25,9	28,7	24,5	22,5	16,2	4,8
Aragoi	18,1	19,4	23,8	21,9	18,5	17,1	12,0	6,4
Asturias	18,6	18,7	22,2	22,1	15,5	16,4	9,8	4,8
Balear Uharteak	21,1	23,3	23,2	25,0	17,2	17,0	13,1	4,1
Kanariar Uharteak	21,3	21,4	23,4	25,9	17,9	19,7	16,2	5,0
Kantabria	19,1	19,3	21,4	20,6	16,9	14,7	12,2	4,7
Gaztela-Leon	18,7	17,6	22,3	21,1	17,9	16,7	13,2	4,9
Gaztela-Mantxa	19,2	19,0	22,6	22,6	16,3	14,1	12,6	5,2
Katalunia	19,4	22,9	27,8	27,2	23,3	21,5	—	6,5
Valentzia	20,3	21,5	23,5	23,9	15,8	17,3	13,8	6,2
Extremadura	18,5	17,8	21,6	20,7	15,0	15,7	11,3	5,9
Galizia	18,7	18,0	20,5	21,5	15,3	15,6	10,0	4,7
Madril	19,0	23,0	25,5	25,0	21,2	20,8	16,8	6,1
Murtzia	20,5	21,2	26,0	23,2	20,8	18,2	13,4	5,3
Nafarroa	16,6	19,3	23,3	24,0	17,8	16,2	10,4	4,3
EAE	17,0	20,1	19,7	22,9	15,3	15,7	11,7	4,1
Errioxa	21,4	21,7	23,1	23,0	19,9	18,6	14,0	4,8

Iturria: Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionala. Hezkuntza adierazleen estatuko sistema, 2011.

**I.2.23. Koadroa. Ikasle/irakasleko eta ikasle/taldeko ratioak. EAE**

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09		
							Guztira	Publi.	Priba.
<b>Oinarrizko hezkuntza (1)</b>									
Ikasle/irakasleko	12,3	12,7	12,1	12,3	12,6	12,5	12,6	10,5	15,8
Ikasle/irakasleko (AOB) (2)	12,8	13,2	14,0	13,9	14,0	13,9	13,9	11,2	18,5
Ikasle/taldeko	18,3	18,3	18,2	18,1	18,3	18,5	18,6	16,9	20,6
<b>Bigarren hezkuntza (3)</b>									
Ikasle/irakasleko	9,3	9,1	8,8	8,7	8,4	8,2	8,2	6,8	10,1
Ikasle/irakasleko (AOB)	9,7	9,6	9,2	10,7	10,4	9,7	9,7	7,1	14,6
Ikasle/taldeko	21,0	20,5	20,1	19,8	19,4	19,1	19,3	18,0	20,6
<b>Unibertsitateko ikasketak</b>									
Ikasle/irakasleko	15,5	15,0	14,3	14,1	13,3	11,6	11,1	11,1	11,1
Ikasle/irakasleko (AOB)	18,3	17,7	16,7	16,4	15,6	13,5	12,9	12,4	14,9

(1) Oinarrizko hezkuntza: haur eta lehen hezkuntza sartzen dira. (2) AOB: arduraldi osoko baliokidetasuna. Arduraldi osoa duten irakasle guztien eta arduraldi partziala duten irakasleen erdien batuketara. (3) Bigarren hezkuntza: DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa sartzen dira.  
Iturria: EUSTAT.

EAEren kasuan, Batxilergoan dago talde bakoitzeko ikasle kopururik handiena, 22,9 ikaslekin. Jarraian Lehen Hezkuntza (20,1) eta DBH (19,7) kokatzen dira.

Hezkuntza talde bakoitzeko ikasle kopuruari dagozkion datuak irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle kopuruari buruzko datuekin osatzen dira. Oro har, bi adierazle hauen arteko konparaketak erakusten digu irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua talde bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua baino txikiagoa dela.

EUSTATen arabera, EAE 2008-09 ikasturtean ratioko baliorik handiena oinarrizko ikasketetan ematen da (13,9), 2007 urtea baino lehen bestera gertatzen bazen ere. Bigarrenik unibertsitateko ikasketak kokatzen dira (12,9). DBHn aldaketa antzematen da urteen arabera, 9 eta 11 ikasle artean irakasle bakoitzeko.

Halaber, nabarmentzekoa da irakaskuntza publiko eta pribatuaren arteko aldea hezkuntza maila guztietan.

ELGak argitaratutako azkenengo datuek (Education at a glance, 2011), 2009ko datuek, erakusten dute irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle ratioak EAE

erregistratutakoak baino handiagoak direla. Haur Hezkuntzan 14,3; Lehen Hezkuntzan 16; Bigarren Hezkuntzan 13,5; goi mailako Hirugarren Hezkuntzan 15,3. Berriz, EUSTATen datuen arabera, EAE 2008-09 ondorengo datuak jaso dira: Oinarrizko Hezkuntzan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) 12,5; Bigarren Hezkuntzan 9,7 eta goi mailako Hirugarren Hezkuntzan 13,5.

**1.2.3.2. Hezkuntzako gastua**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2.784 milioi euroko gastua izan zuen 2010ean. Diru partida handiena da hau Osasun Sailak daukan diru partidaren atzetik (3.400 milioi euro). Honek %2,6ko jaitsiera dakar aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren %27,1 dagokio hezkuntzari, aurreko ekitaldian baino apur bat gutxiago, 3 hamarreko. Gastu hau EAEko BPGd-aren %4,21 da, hau da, ehunekoetan 0,19 puntu jaitsi dira 2009 urtean erregistratutako ehunekoari dagokionez, %4,4.

### 1.2.24. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailaren gastu likidatuaren/ aurreikusitako gastuaren bilakaera

Urteak	Euroak milaka	Jaurlaritzaren guztizkoa (euroak milaka)	EJak likidatutako guztizko gastuaren gaineko %	BPGd euroak milaka (oinarria 2005)	BPGd gaineko %	2006ko oinarria=100	Ikasleak guztira (1)	Gastuak ikasle bakoitzeko eurotan
2006	2.140.099	7.770.938	27,5	61.760.620	3,47	100	437.900	4.887
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	66.427.468	3,62	112	438.745	5.477
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	67.924.490	3,81	121	483.671	5.353
2009	2.824.094	10.304.507	27,4	64.568.087	4,40	132	444.981	6.347
2010	2.783.639	10.327.556	27,1	65.847.395	4,21	129	458.854	6.066
2011ko aurrekontuak	2.572.856	10.567.063	24,3	65.419.243	3,93	120	—	—

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira.

Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitateaz kanpoko ikasketak –zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira– eta unibertsitateko ikasleak daude.

Erregimen bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, kiroleko eta diseinuko goi mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.

Iturria: EUSTATen datuetatik guk egina, EAEko Kontu Orokorrak, eta azken urterako aurrekontuak.

Beste alde batetik, 2011ko aurrekontuetan 2.573 milioi euroko partida dagokio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Honek %6,5eko jaitsiera dakar aurreko urtean likidatutako gastuari dagokionez. Eusko Jaurlaritzaren gastu aurrekontu osoaren %24,3 dagokio hezkuntzari. Gastu hau EAEko BPGd-aren %3,93 da, hau da, ehunekoetan 0,28 puntu jaitsi dira 2010 urtean erregistratutako ehunekoari dagokionez.

Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzeko (ikasle guztiak kontuan hartuta, hau da, erregimen orokorreko nahiz bereziko ikasketak (hizkuntzak, musika, dantza...)) izandako gastu ratioa jaitsi da 2009 eta 2010 urteen bitartean, 6.347 eurotik 6.066 eurora pasatu baita. 2011ko datuak ez daude eskuragarri, ez baitago 2011ko unibertsitateko matrikulazioari buruzko informaziorik.

HKMaren *Hezkuntza kopuruak Espainian, 2012* txosteneko datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa EAEn 2009an, 2.817,3 milioi eurokoa izan da eta estatu osoan hezkuntza administrazioen gastua 46.311,5 milioi eurokoa izan da.

BPGd-aren gainean Hezkuntza Administrazioek izandako gastua %4,4koa da EAEn (%3,6 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta %0,7 unibertsitatekoan) eta %4,3koa estatuan (%3,2 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta %0,97 unibertsitatekoan).

Txosten beraren arabera, 2008 urtean 27EBean hezkuntzako guztizko gastu publikoaren aurreikuspena BPGd-ari dagokionez %5,07koa zen eta estatukoa %4,62koa.

Bestalde, 2009 urtean ikasle bakoitzeko (publikoa eta itundua) gastu publikoa unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita) 7.595 eurokoa izan da EAEn. Gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko diru gehien gastatzen duena. Estatuko batez besteko kopurua 5.692 eurokoa da. EAEtik gertu kokatzen dira Nafarroa (6.900 euro), Galizia (6.787 euro), Asturias (6.537 euro), Kantabria (6.463 euro), Gaztela-Leon (6.159 euro) eta Extremadura (6.110 euro). Bere aldetik, 2009 urtean ikasle publiko bakoitzeko gastu publikoa unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita baita ere) 10.964 eurokoa izan zen EAEn. Datu honek gure erkidegoa kokatzen du ikasleko diru gehien

gastatzen duen erkidego bezala berriro ere. Estatuko batez besteko kopurua 6.703 eurokoa da.

2008 urtean 27EBean hezkuntza erakundeetako ikasle bakoitzeko gastu aurreikuspena 5.348 eurokoa izan zen lehen hezkuntzan eta 6.607 eurokoa bigarren hezkuntzan. Espainiar Estatuko gastua, aldiz, honakoa izan zen: 5.570 euro lehen hezkuntzan eta 7.591 euro bigarren hezkuntzan.

#### 1.2.4.3. Hezkuntza emaitzak

##### Egokitasuna ikaslearen adinean<sup>6</sup>

Egokitasun mailari esker hezkuntza sistemako emaitzak neur daitezke. Euren adinari dagokien ikasturteari jarraituz, derrigorrezko eskolaratzean zehar aurrera doazen ikasleen isla da maila hau.

Datuek baieztatzen dute arreta handia eman behar zaiela lehenengo adinei, eskola atzerapenak eta, ondorioz, desegokitasuna, urteetan hazi eta pilatzen direlako.

EUSTATen arabera, aztertzeiko puntu gisa 2008-09 ikasturtea (eskuragarri dauden azkenengo datuak) hartuz gero, ikusten da 7 urteko biztanleria osoaren %98,9 teorikoki dagokion mailan dagoela matrikulatuta. Baina erreferentziako biztanle taldearen adinak gora egin heinean, egokitasunaren ehunekoak behera egiten du. Horrela, 13 urteko biztanle guztietatik, teorikoki dagokien mailan matrikulatuta daudenen ehunekoak %82,9ra jaisten da; eta 17 urteko biztanle guztietatik, teorikoki dagokien mailan matrikulatuta daudenen ehunekoak %59ra jaisten da. HKMaren Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalaren datuen arabera, 2008-09 ikasturtean Lehen Hezkuntzako hirugarren eta bosgarren maileri dagozkien adinetan (8 eta 10 urte) estatuko batez besteko egokitasun maila baino handiagoa duten autonomia erkidegoak honakoak dira: Kantabria, Katalunia, Valentzia, Extremadura, Galizia, EAE eta Errioxa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza aztertutako adinetan (12, 14 eta 15 urte) estatuko egokitasun mailaren batez bestekoa baino handiagoa duten autonomia erkidegoak ondorengoak dira: Asturias, Kantabria, Katalunia, Galizia, Nafarroa eta EAE.

Aztertutako garaian zehar, 1998-99tik 2008-09ra, egokitasun mailek izandako bilakaerak erakusten du

<sup>6</sup> Bere adinaren arabera ikasturtean edo ikasturte teorikoetan matrikulatutako ikasleen batez bestekoa.

**I.2.25. Koadroa. Hezkuntzako gastua 2009an**

	BPGd (euroak milaka)	Hezkuntzako gastua guztira				Uniberts. kanpoko hezkuntzako gastua				Unibertsitateko hezkuntzako gastua			
		Guztira (euroak milaka)	%		Gastua/ BPGd	Guztira (euroak milaka)	%		Gastua/ BPGd	Guztira (euroak milaka)	%		Gastua/ BPGd
			Gastu korrontea	Kapital. gastua			Gastu korrontea	Kapital. gastua			Gastu korrontea	Kapital. gastua	
<b>GUZTIRA (1)</b>	1.087.749.000	51.258.142	88,0	11,0	4,7	37.495.502	92,3	7,7	3,4	10.542.143	74,6	20,6	1,0
Hezkuntza administratioak guztira		46.311.511	89,4	9,5	4,3	34.245.209	93,5	6,5	3,2	10.524.661	74,5	20,6	1,0
HKM		2.980.982	88,9	5,7		1.374.686	88,7	11,3		464.900	62,1	2,9	
HKM erk. autonomo. transf. ondoren		2.139.054	90,7	1,7		566.321	96,1	3,9		431.337	59,2	3,1	
Andaluzia	142.991.401	7.870.522	87,5	11,8	5,5	5.959.515	91,1	8,9	4,2	1.831.040	75,3	21,5	1,3
Aragoi	33.102.115	1.227.370	89,9	10,0	3,7	902.211	94,8	5,2	2,7	312.268	75,6	24,2	0,9
Asturias	22.397.148	930.163	90,4	9,0	4,2	691.946	95,7	4,2	3,1	218.344	76,6	21,6	1,0
Balear Uharteak	26.034.867	910.237	90,7	9,2	3,5	811.497	92,4	7,5	3,1	95.468	76,2	23,7	0,4
Kanariar Uharteak	40.289.791	1.801.627	94,1	5,8	4,5	1.462.074	96,2	3,9	3,6	318.597	84,3	15,3	0,8
Kantabria	12.773.701	578.547	90,6	9,4	4,5	453.190	96,0	4,0	3,5	124.737	70,9	29,0	1,0
Gaztela-Leon	54.862.905	2.385.896	90,2	9,0	4,3	1.789.620	93,0	7,0	3,3	579.641	81,2	15,6	1,1
Gaztela-Mantxa	37.614.364	2.010.917	91,4	8,1	5,3	1.739.789	93,1	6,9	4,6	270.541	80,9	15,8	0,7
Katalunia	193.478.780	6.931.549	91,3	8,6	3,6	5.357.788	94,3	5,7	2,8	1.538.728	80,4	18,9	0,8
Valentzia	101.197.353	5.088.006	82,2	14,6	5,0	3.722.596	90,6	9,4	3,7	1.364.936	59,3	28,5	1,3
Extremadura	17.222.104	1.077.363	92,5	7,5	6,3	906.139	95,0	5,0	5,3	159.611	78,3	21,7	0,9
Galizia	56.085.401	2.620.886	89,8	9,6	4,7	2.004.193	95,1	4,9	3,6	604.693	72,0	25,4	1,1
Madril	189.265.497	5.473.449	89,5	9,5	2,9	3.585.960	95,3	4,6	1,9	1.784.675	77,1	20,0	0,9
Murtzia	27.715.223	1.492.598	90,5	8,7	5,4	1.181.799	95,6	4,3	4,3	297.534	69,7	26,4	1,1
Nafarroa	17.726.517	674.733	90,9	9,1	3,8	584.987	92,6	7,4	3,3	84.856	79,0	21,0	0,5
<b>EAE</b>	<b>63.461.207</b>	<b>2.817.312</b>	<b>92,3</b>	<b>7,6</b>	<b>4,4</b>	<b>2.292.230</b>	<b>93,8</b>	<b>6,2</b>	<b>3,6</b>	<b>461.345</b>	<b>84,0</b>	<b>15,5</b>	<b>0,7</b>
Errioxa	7.903.705	280.983	91,5	8,5	3,6	233.354	92,2	7,8	3,0	46.309	87,5	12,3	0,6
Hezkuntz. kanpoko administr. guztira (2)		4.946.632	74,9	25,0		3.250.293	79,4	20,5		17.482	98,4	1,5	

(1) Banaketa ateratzeko guztizkoari Administrazioak banatu gabekoa eta doitzeko sailak kendu zaizkio. (2) Beste ministerio eta sail batzuk eta tokiko korporazioak biltzen ditu. Iturria: HKM (Hezkuntzako Gastu Publikoari buruzko Estatistika) eta EIN.

**I.2.26. Koadroa. EAEko ikasleen adin egokitasuna (1), 2008-09 ikasturtea (bere adinari dagokion ikasturtean matrikulatutako ikasleen ehunekoak)**

	Total	Hombre	Mujer	Dif. Mujer-hombre
7 urte (2)	98,9	98,8	99,0	0,2
9 urte (3)	93,5	93,5	93,6	0,1
11 urte (4)	94,5	93,8	95,2	1,4
12 urte (5)	92,9	92,4	93,4	1,0
13 urte (6)	82,9	80,7	85,3	4,6
14 urte (7)	78,2	74,0	82,5	8,5
15 urte (8)	71,3	67,0	75,9	8,9
16 urte (9)	64,6	59,5	70,1	10,6
17 urte (10)	59,0	52,5	65,9	13,4

(1) Euren adinerako egokia den maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko harremana. (2) Ikasturte teoriko egokiak: lehen hezkuntzako 2. maila. (3) Ikasturte teoriko egokiak: lehen hezkuntzako 4. maila (4) Ikasturte teoriko egokiak: lehen hezkuntzako 6. maila. (5) Ikasturte teoriko egokiak: derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1. maila. (6) Ikasturte teoriko egokiak: derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. maila. (7) Ikasturte teoriko egokiak: derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. maila. (8) Ikasturte teoriko egokiak: derrigorrezko bigarren hezkuntzako 4. maila. (9) Ikasturte teoriko egokiak: batxilergoko 1. maila eta erdi mailako LHko 1. maila (10) Ikasturte teoriko egokiak: batxilergoko 2. maila eta erdi mailako LHko 2. maila. Iturria: EUSTAT.

beherakada gertatu dela analizatutako bost adinetan, nahiz eta azkenengo urteetan egoera zertxobait egonkortu den. Beherakadarik handiena 14 urtetan gertatzen da,

ehunekoetan 11 punturekin (%78tik %67ra); jarraian 15 urteko adina dator sei punturekin (%65etik %59ra); ondoren 10 urteko adina bost punturekin (%94tik %89ra);

**I.2.27. Koadroa. Ikasleen adin egokitasuna  
Autonomia Erkidegoka, 2008-09 ikasturtea (bere  
adinari dagokion ikasturtean matrikulatutako  
ikasleen ehunekoak)**

	8 urterekin	10 urterekin	12 urterekin	14 urterekin	15 urterekin
Estatua	94	89	84	67	59
EAE	95	91	88	78	72
Katalunia	96	93	90	77	70
Nafarroa	92	87	84	75	67
Asturias	92	89	84	70	64
Galizia	95	90	84	70	60
Madril	93	88	83	68	60
Kantabria	95	91	86	70	59
Gaztela-Leon	92	88	81	67	58
Errioxa	94	90	86	67	58
Aragoi	92	86	81	65	57
Valentzia	96	93	86	67	57
Gaztela-Mantxa	91	86	79	62	54
Extremadura	94	89	83	63	54
Andaluzia	93	88	82	62	54
Murtzia	92	86	78	61	53
Kanariar Uharteak	92	85	77	59	52
Balearr Uharteak	91	83	75	61	52
Melilla	94	88	82	57	44
Ceuta	92	82	81	50	42

Iturria: Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionala. Hezkuntza adierazleen estatuko sistema, 2011.

eta 12 urteko adina lau punturekin (%88tik %84ra). Alderik txikiena 8 urteko adinean gertatzen da, ehunekoetan bi puntu jaitsi baita (%96tik %94ra).

2008-09 ikasturtean emakumeek lortutako egokitasun maila gizonena baino handiagoa da kontuan hartutako adin guztietan.

**Eskola garaia baino lehenago uztea**

Eskola garaia baino lehenago uztea murrizteko politikei buruz 2011ko ekainaren 28an Europar Batasuneko Kontseiluak egindako gomendioan aipatzen den bezala, *eskola garaia baino lehenago uztea* esamoldea erabiltzen da bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa edo hemendik beherako ikasketak egin dituzten eta jada ikasten ez duten zein prestakuntzarik jasotzen ez duten pertsonen kasuan. EUROSTATEk estatistikoki definitzen du gehien jota oinarrizko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa (INSN 2 - INSN 0, 1, 2 edo 3c) amaitu duen eta inkesta egin aurreko lau astetan ikasten ez zuen zein prestakuntzarik egiten ez zuen 18 eta 24 urte bitarteko biztanleria erreferentzia gisa hartuz.

Europako hezkuntza politikan funtsezko kezketako bat izan da, eta oraindik bada, deskapitalizazio handia dakarrelako.

Izan ere, eskola garaia baino lehenago uztea murriztea oinarrizkoa da Europa 2020 Estrategian zehaztutako zenbait helburu nagusi lortzeko. Zehazki, eskola garaia baino lehenago uztea murrizteak "hazkunde zentzuduna"

**I.2.28. Koadroa. Eskola garaia baino lehenago uztea (bigarren hezkuntzako 2. etapari dagokion maila gainditu ez duen eta heziketa prestakuntza gehiagorik jasotzen ez duen 18-24 urte arteko biztanleria)**

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
27EB	16,0	15,8	15,5	15,1	14,9	14,4	14,1
15EB	17,6	17,5	17,3	16,9	16,6	15,9	15,4
Belgika	13,1	12,9	12,6	12,1	12,0	11,1	11,9
Bulgaria	21,4	20,4	17,3	14,9	14,8	14,7	13,9
Txekia	6,3	6,2	5,1	5,2	5,6	5,4	4,9
Danimarka	8,8	8,7	9,1	12,5	11,3	10,6	10,7
Alemania	12,1	13,5	13,6	12,5	11,8	11,1	11,9
Estonia	13,1	13,4	13,5	14,4	14,0	13,9	11,6
Irlanda	13,1	12,5	12,1	11,6	11,3	11,3	10,5
Grezia	14,7	13,6	15,5	14,6	14,8	14,5	13,7
Espainia	32,0	30,8	30,5	31,0	31,9	31,2	28,4
Frantzia	12,8	12,2	12,4	12,6	11,5	12,2	12,6
Italia	22,3	22,0	20,6	19,7	19,7	19,2	18,8
Zipre	20,6	18,2	14,9	12,5	13,7	11,7	12,6
Letonia	14,7	14,4	14,8	15,1	15,5	13,9	13,3
Lituania	10,5	8,1	8,2	7,4	7,4	8,7	8,1
Luxenburgo	12,7	13,3	14,0	12,5	13,4	7,7	7,1
Hungaria	12,6	12,5	12,6	11,4	11,7	11,2	10,5
Malta	42,1	38,9	39,9	38,3	39,0	36,8	36,9
Holanda	14,1	13,5	12,6	11,7	11,4	10,9	10,1
Austria	9,5	9,1	9,8	10,7	10,1	8,7	8,3
Polonia	5,6	5,3	5,4	5,0	5,0	5,3	5,4
Portugal	39,4	38,8	39,1	36,9	35,4	31,2	28,7
Errumania	22,4	19,6	17,9	17,3	15,9	16,6	18,4
Eslovenia	4,3	4,9	5,6	4,1	5,1	5,3	5,0
Eslovakia	6,8	6,3	6,6	6,5	6,0	4,9	4,7
Finlandia	10,0	10,3	9,7	9,1	9,8	9,9	10,3
Suedia	9,2	10,8	13,0	12,2	12,2	10,7	9,7
Erresuma Batua	—	—	—	16,6	—	—	—
EAE	13,4	14,5	15,6	15,4	14,7	n.d.	12,6

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey eta ISEI-IVEI, Hezkuntza kopuruak Espainian, HKM eta Hezkuntza adierazleen estatuko sistema, 2011ko edizioa.

lortzeko helburuei (hezkuntza eta prestakuntza mailak hobetzeko) zein "hazkunde integratzailea" lortzeko helburuei (langabezi, pobrezia eta gizarte eskusioarentzat arrisku faktore nagusienak direnei aurre egiteko) heltzen die. Hori dela eta, Europa 2020 Estrategiaren helburu nagusia eskola garaia baino lehenago uztea murriztea da gutxienez %10 gehien jota 2020rako, 2009ko %14tik abiatuz. Estatu kideek helburu nazionalak zehazteko konpromisoa hartu dute, euren hasierako jarrerak eta inguruabar nazionalak kontuan hartuz.

Adin tarte horretan dauden gazteak prestatzen jarraitzea bultzatu nahi dira, prestakuntza arautuan (derrigorrezkoaren ondorengoa) edo hezkuntza sistematik kanpoko beste prestakuntza mota batean, eta biztanleen portzentaje bat ezagutzaren gizarretik at geratzea saihestu nahi da.

EUROSTATEk argitaratutako azken datuen arabera, 2010ean Espainian ikasketak uzteko tasa %28,4koa da (aurreko urtean %31,2koa izan zen). 15EBko herrietako batezbestekoa %15,4 da, eta Europa hedatuan, tasa %14,1 arte jaisten da. Hori hedapeneko herrietan EBko gainontzeko estatu kideetan baino tasa askoz txikiagoa delako gertatu da.

HKMaren Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalaren Hezkuntza adierazleen estatuko sistema (2011ko edizioa) txosteneko datuen arabera, 2009 urtean 18 eta 24 urte arteko pertsonen %31,2k utzi zuen bere prestakuntza Espainiar Estatuko hezkuntza sisteman. Ehuneko hau 2,8 puntutan jaitsi zen 2010ean, %28,4ra arte. Eskola garaia baino lehenago uzteari dagozkion ehunekorik txikienak honako erkidegoetan gertatzen dira: EAE (%12,6), Nafarroa (%16,8) eta Madril eta Asturias (%22,3). Gizonen

eskola uzteek emakumeen uzteak gainditzen dituzte autonomia erkidego guztietan, Errioxan izan ezik.

### Graduatze tasak

#### Graduatze tasa gordinak DBHn, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketetan eta goi mailako ikasketetan

Gorago aipatu den bezala, oro har, titulu tasa eta eskola porrotaren kontzeptua erabili izan dira DBHko hezkuntza etekina baloratzeko. Ondorioz, gomendatu zen berariazko helburu bezala sartzea. Horrela, adina edozein dela DBH ondo amaitzen duten ikasleen kopurua handitzea lehentasunezko helburua da eskola elkarte guztientzat. Etapa bakoitzeko azken maila hasteko adin teorikoa duten biztanle guztien gainean DBH, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo ikasketak eta goi mailako ikasketak arrakastaz bukatzen dituztenen ehuneko informazio garrantzitsua da hezkuntza sistemaren emaitzak ezagutzeko.

Estatuan, 2008-09 ikastuteko datuek (HKMaren *Hezkuntza kopuruak Espainian* (2012ko edizioa) txostena) alde handia erakusten dute DBHn (%74,1) zein Batxilergoan (%45,6) graduatutako eta erdi mailako heziketa zikloetan (%17,4) graduatutako pertsonen artean. DBHko graduatze tasa gordin handienak dituzten autonomia erkidegoak honakoak dira: Asturias (%89,4), EAE (%87,8) eta Kantabria (%86,5). Eta Batxilergoan EAE (%66,8), Asturias (%58,7), Gaztela-Leon (%53,3) eta Nafarroa (%52,4). Bestalde, Lanbide Heziketako erdi mailako heziketa zikloetan Katalunia (%21,6), Errioxa (%21,4) eta EAE (%21,1) nabarmentzen dira.

Goi mailako ikasketetako (unibertsitateaz kanpoko zein unibertsitateko ikasketak barne) graduatze tasei

### I.2.29. Koadroa. Irakaskuntza/titulu bakoitzaren graduatze tasa gordina, 2008-09

	DBHko gradua	Batxilergoa/UBI	Teknikoa/ Tekniko lag. (2)	Goi mailako tek./ Tekniko espezialista (1)	Unibertsitate diplomatua eta arkitektoak eta ing. teknikoak (2)	Unibertsitate lizentziatuak eta arkitektoak eta ingeniariak (2)	Master Ofiziala (2)
	15 urte	17 urte	15 urte	18-19 urte	20 urte	22 urte	23 urte
GUZTIRA	74,1	45,6	17,4	17,6	18,1	18,2	3,2
Andaluzia	72,7	41,5	16,6	14,3	16,2	13,8	2,3
Aragoi	74,3	45,8	20,7	18,3	18,6	13,5	0,8
Asturias	89,4	58,7	20,7	22,5	21,3	15,0	1,1
Balear Uharteak	61,0	32,1	14,0	8,8	9,7	4,1	1,9
Kanariar Uharteak	73,7	40,4	16,2	15,0	11,1	8,9	0,9
Kantabria	86,5	44,8	15,8	16,7	15,6	10,7	3,4
Gaztela-Leon	80,4	53,3	17,5	18,7	28,1	21,4	3,5
Gaztela-Mantxa	68,8	42,7	15,5	13,3	13,8	6,3	0,2
Katalunia	77,2	44,3	21,6	22,2	16,9	18,7	4,7
Valentzia	63,1	40,5	18,5	16,8	18,0	16,9	4,2
Extremadura	76,3	44,3	16,2	12,3	18,1	8,7	1,1
Galizia	78,2	51,7	20,1	23,6	15,6	16,1	4,1
Madril	76,2	51,6	12,1	16,7	19,3	29,6	4,8
Murtzia	70,0	41,9	14,6	13,3	16,5	12,2	0,8
Nafarroa	82,1	52,4	20,3	20,7	19,4	27,1	5,2
EAE	87,8	66,8	21,1	33,2	24,0	23,0	4,2
Errioxa	71,8	46,5	21,4	15,9	17,2	14,5	0,0
Ceuta	61,8	28,4	9,3	14,7	—	—	—
Melilla	63,4	40,2	11,1	13,3	—	—	—

Iturria: HKMaren Hezkuntza kopuruak Espainian. 2012ko edizioa.

dagokienez, estatuko 18-19 urteko biztanleriaren %17,6 goi mailako heziketa zikloetan graduatu da. Unibertsitateko irakaskuntzetan, diplomatura/arkitektura zein ingeniariaritz teknikoak bukatutakoak 20 urteko biztanleen %18,1 dira eta lizentziatu/arkitektura zein ingeniariaritz titulua lortu dutenak 22 urteko biztanleen %18,2.

Goi mailako teknikari tasarik altuenak EAEk (%33,2), Galiziak (%23,6), Asturiasek (%22,5) eta Kataluniak (%22,2) dauzkate. Diplomatu tasarik altuenak Gaztela-Leoni (%28,1) eta EAeri (%24) dagozkie. Lizentziatu tasagatik Madril (%29,6), Nafarroa (%27,1) eta EAE (%23) nabarmendu dira.

#### Goi mailako Zientzia eta Teknologian graduatutako pertsonak, 20-29 urte bitarteko 1.000 biztanleko

Zientzia berrikuntza eta ikerkuntza indartzeko premia dela eta, EBk lehentasunezkoztat jo du Matematika, Zientzia eta Teknologian graduatu eta hirugarren mailako titulua (INSN 5 eta 6 zientzia, matematika eta teknologian) lortu duten 20 eta 29 urteko pertsonen tasa (biztanleria tasa 1.000 biztanleko) igotzea.

Era berean, sexu desoreka ikusita, zientzia eta teknologia ikasketetan gizon eta emakumeen titulazioak orekatzea ezarri da helburu.

HKMaren Hezkuntza kopuruak Espainian (2012ko edizioa) txosteneko datuen arabera, EAEn 2008-09 ikasturtean goi mailako zientzietan eta teknologian<sup>3</sup> graduatutako pertsonen graduatze tasa 20 eta 29 urteko biztanleen %24,3an kokatzen da, estatuko batezbestekoa %12,5 den bitartean.

Datu iturri beraren arabera, 2009 urtean 27UBaren batezbestekoa %14,3an kokatzen da. Ratorik handienak Frantzia (%20,2), Errumanian (%20), Finlandian (%19), Lituanian (%18,5) eta Erresuma Batuan (%17,5) gertatzen dira. Izandako etengabeko bilakaerak EAE estatuaren eta Europaren buruan kokatzen du. Arrazoia, neurri handi batean, EAEn goi mailako Lanbide Heziketan (INSN 5B) dagoen pertsona kopurua da, ia estatuko batezbestekoa

#### I.2.30. Koadroa. Goi mailako zientzia eta teknologian graduatutako pertsonak (INSN 5-6) 20-29 urte arteko 1.000 biztanleko

	2000	2005	2009
27EB	10,1	13,3	14,3
Alemania	8,2	9,7	13,5
Austria	7,2	9,8	14,0
Belgika	9,7	10,9	12,0
Bulgaria	6,6	8,6	10,1
Zipre	3,4	3,6	4,6
Danimarka	11,7	14,7	15,2
Eslovakia	5,3	10,2	17,5
Eslovenia	8,9	9,8	11,3
Espainia	9,9	11,8	12,5
Estonia	7,8	12,1	10,8
Finlandia	16,0	18,1	19,0
Frantzia	19,6	22,8	20,2
Grezia	—	10,1	—
Hungaria	4,5	5,1	7,5
Irlanda	24,2	24,5	17,2
Italia	5,7	11,6	—
Letonia	7,4	9,8	9,8
Lituania	13,5	18,9	18,5
Luxenburgo	1,8	—	—
Malta	3,4	3,4	7,0
Herbeherak	5,8	8,6	8,9
Polonia	6,6	11,1	14,3
Portugal	6,3	12,0	14,6
Erresuma Batua	18,5	19,2	17,5
Txekia	5,5	8,2	15,3
Errumania	4,5	10,3	20,0
Suedia	11,6	14,4	13,0

Iturria: Hezkuntza kopuruak Espainian. 2012ko edizioa, HKM.

halako hiru eta ia Nafarroakoa halako bi, azkena bigarren autonomia erkidegoa izanda goi mailako Lanbide Heziketa indizeari dagokionez.

#### I.2.31. Koadroa. Goi mailako zientzian eta teknologian graduatutako pertsonak (INSN 5-6) 20-29 urteko 1.000 biztanleko 2008-09 ikasturtea

	Enseñanza Superior			Ciclos Formativos de Grado Superior			E. Universitaria		
	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres
ESTATUA GUZTIRA	12,5	17,0	7,8	3,8	6,3	1,2	8,7	10,7	6,6
Andaluzia	8,5	11,7	5,2	2,7	4,6	0,8	5,8	7,1	4,4
Aragoi	13,0	17,5	8,1	4,2	6,9	1,2	8,8	10,6	7,0
Asturias	16,3	22,1	10,3	5,1	8,4	1,8	11,2	13,7	8,5
Balear Uharteak	3,7	5,4	1,8	1,6	2,8	0,3	2,1	2,6	1,5
Kanariar Uharteak	6,4	8,7	4,0	2,2	3,6	0,8	4,1	5,1	3,1
Kantabria	12,5	16,4	8,3	3,3	5,0	1,6	9,1	11,4	6,7
Gaztela-Leon	15,9	20,5	11,0	4,5	7,1	1,8	11,4	13,4	9,3
Gaztela-Mantxa	6,2	9,1	3,0	3,2	5,2	1,1	3,0	3,9	1,9
Katalunia	14,1	19,3	8,6	4,4	7,2	1,4	9,7	12,1	7,2
Valentzia	11,9	16,4	7,2	3,5	5,9	1,0	8,4	10,4	6,3
Extremadura	9,0	12,9	4,8	3,4	5,8	0,7	5,7	7,1	4,1
Galizia	14,6	19,2	9,9	5,8	9,4	2,0	8,8	9,8	7,9
Madril	14,6	19,3	9,8	3,0	5,0	0,9	11,6	14,2	8,9
Murtzia	8,8	11,8	5,6	2,6	4,3	0,8	6,2	7,5	4,8
Nafarroa	16,9	21,6	11,9	5,8	9,7	1,6	11,1	11,9	10,3
EAE	24,3	34,2	14,1	10,8	17,5	3,8	13,5	16,7	10,3
Errioxa	10,2	15,1	5,0	4,4	7,0	1,5	5,9	8,1	3,5

Iturria: Hezkuntza kopuruak Espainian. 2012ko edizioa, HKM.

Izan ere, unibertsitateaz kanpoko ikasketak eta unibertsitateko ikasketak bereizten baditugu, ikus daiteke unibertsitateaz kanpoko ikasketetan (goi mailako heziketa zikloak) graduatutako pertsonak %10,8 direla eta bigarrenak %13,5. Estatuko batezbestekoak, berriz, ondorengoak dira: %3,8 eta %8,7.

Nabarmenezkoa da baita ere EAEn goi mailako heziketa zikloetan graduatzen den gizon kopurua gainontzeko autonomia erkidegoetan graduatutakoan aldean. Hurbilen dagoen tasa Nafarroak dauka eta ez da %10era heltzen.

Sexuaren arabera bereizketa eginez gero, EAEn 2008-09 ikasturtean goi mailako Zientzietan eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa %34,2an kokatzen da gizonen kasuan eta %14,1ean emakumeen kasuan. Tasa hauei dagozkien estatuko tasak honakoak dira: %17 gizonen kasuan eta %7,8 emakumeen kasuan.

EAEn etorritik, unibertsitateaz kanpoko ikasketak (goi mailako heziketa zikloak) eta unibertsitateko ikasketak bereizten baditugu, ikusten da emakumeen graduatze ratioak (%3,8 eta %10,3) gizonenak (%17,5 eta %16,7) baino txikiagoak direla. Alderik nabarmenena goi mailako heziketa zikloetako graduatzean gertatzen da.

#### **Helduen ikasketa maila**

Helduen ikasketa maila neurri handi batean biztanleek hezkuntza sistemari buruz dauzkaten itxaropenak baldintzatuko dituen eragilea da, eta ondorioz hezkuntzaren plangintzan eta lan jardueran eragingo du. Gainera, zenbait ebaluazio azterlanek erakutsi dute lotura handia dagoela ikasketa maila horren eta ikasleen emaitzen artean.

Irakaskuntza maila jakin bat osatu duten helduen portzentajea erabiltzen da neurtzeko.

Elaren *Hezkuntza adierazleen estatuko sistema (2011ko edizioa)* txostenean jasotako datuen arabera, 2009 urtean 25 eta 64 urte arteko estatuko biztanle helduen erdiak baino gehiagok (%51,8) derrigorrezko hezkuntzako

ikasketak baino maila handiagoko ikasketak dituzte. EAEn batezbestekoa %54,8koa da.


Derrigorrezko ikasketak baino maila altuagoko ikasketak burutu dituzten kontuan hartutako 25 eta 34 urte arteko guztizko biztanleen ehunekorik altuenak dituzten autonomia erkidegoak EAE (%81,9), Nafarroa (%79,2) eta Madril (%74,6) dira. Estatuan %64,1ekoa da portzentajea. 2003 eta 2009 urte artean derrigorrezko ikasketak baino maila altuagoko ikasketak dituzten biztanle helduen portzentajea hazi da 8,6 puntutan estatu mailan. Ehuneko hau gainditzen dute Errioxak, EAEk, Aragoi, Valentziar Erkidegoak, Madril, Asturiasek, Nafarroak eta Gaztela-Mantxak. Gainerako autonomia erkidegoetan ehunekoak gora egin du baita ere, baina neurri apalagoan. Berriz, portzentajeak behera egin du Ceuta eta Melillan. ELGako herrialdeetan 25 eta 64 urte arteko biztanleen %73k gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako maila eskuratu du. Estatu batezbesteko horren azpitik 21 puntura dago eta aldea nabarmen da 55-64 urte artean (31 puntu) eta 45-54 urte artean (25 puntu). Gainerako bi adin tarteetan arteko aldeak behera egiten du 19 puntutan 35-44 urte artean eta 17 puntutan 25-34 urte artean.

#### **Jarduera eta langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera**

Hezkuntza maila bakoitzeko pertsonen enplegu itxaropenak lan merkatuaren premien eta prestakuntza maila bakoitzeko eskulan eskaintzaren arabera da, baina oro har, atxikitako taulako EUROSTATEko datuen azterketatik ondorioztatzen denez, langabezia tasa hezkuntza mailarekin batera jaisten da.

Era berean, EPA-2011n jasotako datuen azterketatik erakusten du langabezia tasak behera egiten duela prestakuntza mailak gora egin heinean, bai Espainiar Estatuan baita EAEn ere.

**1.1.21. Grafikoa. Biztanle helduen ikasketa maila autonomia erkidegoaren arabera. 25-34 urte 2009ko ehunekoak**



## I.2.32. Koadroa. 25-64 urte arteko biztanleen langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Lehen Hezkuntzaren aurreko mailak, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehenengo maila (INSN 0, 1 eta 2)												
27EB	—	10,8	9,6	10,1	10,2	10,6	10,4	10,0	9,2	9,8	12,9	14,2
17EB	—	11,0	9,5	9,9	10,3	10,6	10,5	10,1	9,4	10,2	13,4	14,8
Espainia	14,6	13,8	10,3	11,1	11,2	11,3	9,3 (b)	9,0	9,0	13,2	21,9	24,7
Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa eta hirugarren mailak ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa (INSN 3 eta 4)												
27EB	—	8,1	7,8	8,2	8,2	8,4	8,1	7,2	6,0	5,6	7,2	7,8
17EB	—	7,7	7,1	7,4	7,9	8,3	8,0	7,3	6,4	6,1	7,5	7,8
Espainia	13,0	11,1	8,1	9,4	9,7	9,2	7,3	6,8	6,8	9,3	15,3	17,4
Hirugarren maila (INSN 5 eta 6)												
27EB	—	4,5	4,0	4,3	4,6	4,7	4,5	4,1	3,6	3,5	4,5	4,9
17EB	—	5,0	4,5	4,8	5,2	5,4	5,2	4,7	4,1	4,0	5,0	5,5
Espainia	10,7	9,1	6,6	7,5	7,4	7,3	6,1	5,5	4,8	5,8	9,0	10,5

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey.

## I.2.33. Koadroa. Langabezia tasaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera

	2007		2008		2009		2010		2011	
	Estatua	EAE	Estatu	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
GUZTIRA	11,3	6,4	8,3	6,1	18,0	11,0	20,1	10,5	21,6	12,0
Analfabetoak	30,1	13,6	25,3	25,0	43,8	18,2	44,4	—	52,4	50,0
Lehen Hezkuntza	16,7	8,1	10,6	6,8	26,0	20,8	29,8	15,0	31,9	16,4
Bigarren Hezkuntza. Lehenengo etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	14,3	9,3	10,2	8,1	23,5	16,1	25,7	15,9	27,3	18,4
Bigarren Hezkuntza. Bigarren etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	10,7	7,8	8,1	7,3	17,2	11,2	19,3	11,3	21,5	12,4
Prestakuntza eta laneratzea bigarren hezkuntzako titulua izanda (2. etapa)	12,7	—	13,8	—	18,0	—	24,4	—	18,8	—
Goi mailako hezkuntza, doktoretza izan ezik	6,4	4,2	5,4	4,5	9,9	7,5	11,4	7,4	12,8	8,6
Doktoretza	2,4	—	3,0	—	2,4	—	2,7	1,8	3,9	2,7

Iturria: EPA, INE.

## I.2.34. Koadroa.

International Standard Classification of Education (ISCED 1997)	Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (INSN 1997)
Kalitate eta Ebaluazioko Institutu Nazionalak INCEK INSNetik hartutako definizioak erabiliz egiten du adierazle hau	
Ikasketa mailak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pre-primary education: ISCED 0</li> <li>• Primary education: ISCED 1 First stage of basic education</li> <li>• Lower secondary education: ISCED 2 Second stage of basic education</li> <li>• (Upper) secondary education ISCED 3</li> <li>• Post-Secondary non tertiary education ISCED 4</li> <li>• First stage of tertiary education ISCED 5 (not leading directly to an advanced research qualification)</li> <li>• Second stage of tertiary education ISCED 6 (leading to an advanced research qualification)</li> </ul>	Ikasketa mailak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen Hezkuntza aurrekoa (INSN 0): Irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak eta idazten jakin arren, gutxienez eskolako 5 urte bete ez duten biztanleak.</li> <li>• Lehen Hezkuntza (INSN 1): Gutxienez eskolako 5 urte, oro har 5 edo 6 urterekin hasi eta 11 edo 12rekin bukatuta, bete duten biztanleak, goragoko mailarik bete gabe.</li> <li>• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-DBH (INSN 2)</li> <li>• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (INSN 3 eta 4): Batxilergoko titulua, titulu teknikoa (erdi mailako heziketa zikloak) eta pareko titulua eta parekagarriak dauzkaten biztanleak.</li> <li>• Goi mailako Hezkuntza INSN 5: Goi mailako teknikari (goi mailako heziketa zikloak), unibertsitateko diplomatu, lizentziatu, doktore titulua eta pareko titulua edo parekagarriak dituzten biztanleak.</li> <li>• Goi mailako Hezkuntza (INSN 6): Diploma aurreratuak eta Doktorego Tesiak.</li> </ul>



# 2. Egitura produktiboa eta berrikuntza EAE-n

## 2.1. Egitura produktiboa

### 2.1.1. Enpresen egitura eta demografia

#### Enpresen egitura

EUSTATEko Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) azken datuetan, 2011. urteari buruzkoak, 185.545 establezimendu ageri dira, EAEn aktibo dauden 165.995 enpresei dagozkienak (lehen sektorekoak bazter utzita), 2010. urtean baino 5.603 establezimendu eta 5.350 enpresa gutxiago alegia.

Datu horiek EAEko enpresa kopuruaren beherakada erakusten dute (fabrikak, saltokiak, bulegoak,...), 2011. urtean, % 3,1ekoa. Lanpostuen beherakada % 1,8koa izan da. Beraz, batezbestekoa 5,3 lanpostutik 5,4 lanpostura igaro da enpresa bakoitzeko.

Egoitza soziala EAEn mantentzen duten enpresen portzentajea % 97,4an kokatzen da; kopuru absolutu eta erlatiboetan jaitsi egiten dira EAEn egoitza dutenak, baina ez egoitza soziala Estatuko gainerako tokietan dutenak.

Sektoreka, enpresa guztiak kontuan hartuz gero, beherakada egon da alor guztietan, honako hauetan izan ezik: Uraren hornidura; saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea; Finantza- eta aseguru-alorreko jarduerak; Administrazio Publikoa eta defentsa, gizarte segurantza; Hezkuntza; Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak; eta Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak. Beherakadarik handienak hauek dira: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (% -14,4), Eraikuntza (% -8,2), Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak (% -4,9), Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (% -4,4), eta Garraioa eta biltegiatzea (% -3,6).

Enpleguari dagokionez, beherakadarik handienak sektore hauetan gertatu dira: Eraikuntza (% -8), Erauzketa-industriak (% -6,3), Garraioa eta Biltegiatzea (% -6,1) eta Finantza- eta aseguru-alorreko jarduerak (% -3,6). Gorakadak honako sektoreotan eman dira: Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak (% 7,4); Uraren hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea (% 4,6) eta Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak (% 3,6).

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,4 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa, eta derrigorrezko gizarte segurantza alde batera utzita, enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea (25,6), Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (16,3), Erauzketa-industriak (14,8), Manufaktura industria (14,4), Hezkuntza (9,8) eta Jarduera administratiboak eta gizarte-zerbitzuak (8,5).

#### I.2.1. Koadroa. EAEko enpresak, sozietate egoitzaren arabera

	2008	2009	2010	2011
Guztira (EAE ETA ESTATUA)	184.290	182.284	171.345	165.995
EAE	179.953	178.062	167.270	161.658
ESTATUKO gainerakoak	4.337	4.222	4.075	4.337
EAE (%)	97,6	97,7	97,6	97,4
ESTATUKO gainerakoak (%)	2,4	2,3	2,4	2,6

Iturria: EUSTAT. JEGID

Nortasun juridikoa aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak kanpoan utzita, hain zuzen ere titulartzat pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 10,3 pertsonan kokatzen da (10,4 pertsonan aurreko urtean). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lantaldea 30,6 langilekoa da (30,7 aurreko urtean) eta Kooperatibena, aldiz, 35,3 pertsonakoa (36,3 aurreko ekitaldian).

EAEko enpresa-jardueraren erdia baino gehiago (% 55,7) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 14,8 baino ez du biltzen. Horrenbestez, "pertsona juridikoen" estaldura juridikopean egiten den enpresa-jarduera % 44,3koa da eta enpresa horiek enpleguaren % 85,2 biltzen dute.

"Pertsona fisikoen" estaldura juridikoa honako jarduera-adarretan gailentzen da: eraikuntza (% 52,3), merkataritza (% 55,8), garraioa eta biltegiatzea (% 77,9), ostalaritza (% 68,5), finantza- eta aseguru-alorreko jarduerak (% 55,5), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (% 60,9), jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak (% 52,0), hezkuntza (% 57,6), osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (% 72,7), jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak (% 50,5) eta bestelako zerbitzuak (% 58,0).

#### I.2.2. Koadroa. Kooperatiba kopurua EAEn, motaren arabera sailkatuak (abenduaren 31n)

	2009	2010	2011	%	Igoera 10-11	aldak. %a 00-11
Guztira	1.713	1.747	1.770	100,0	23	51,5
Nekazaritza	97	101	105	5,9	4	19,3
Kontsumoa	34	33	34	1,9	1	21,4
Zerbitzuak eta beste	89	89	88	5,0	-1	79,6
Elkarlana	1.072	1.075	1.074	60,7	-1	36,5
Irakaskuntza	94	94	93	5,3	-1	9,4
Etxebizitza	251	271	288	16,3	17	190,9
Kreditua	1	1	1	0,1	0	0,0
Mistoak	27	33	36	2,0	3	800,0
2. gradua edo handiagoa	48	50	51	2,9	1	88,9

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Lan eta Gizarte Gaietako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

### I.2.3. Koadroa. EAE-ko enpresa eta enplegu kopuruaren eboluzioa, jardura adarraren (CNAE 09) eta nortasun juridikoaren arabera

	Enpresen kop.			Enplegua			Batez besteko enplegua		
	2010	2011	Aldakuntza (%)	2010	2011	Aldakuntza (%)	2010	2011	Aldea
Guztira	171.345	165.995	-3,1	906.044	890.093	-1,8	5,3	5,4	0,1
Zehaztugabea									
B. Erauzketa-industriak	38	37	-2,6	586	549	-6,3	15,4	14,8	-0,6
C. Manufaktura industria	13.442	13.127	-2,3	194.547	188.920	-2,9	14,5	14,4	-0,1
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	167	143	-14,4	2.366	2.331	-1,5	14,2	16,3	2,1
E. Ur hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea	234	239	2,1	5.854	6.126	4,6	25,0	25,6	0,6
F. Eraikuntza	28.667	26.319	-8,2	87.481	80.504	-8,0	3,1	3,1	0,0
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	39.715	37.959	-4,4	140.901	136.222	-3,3	3,5	3,6	0,0
H. Garraioa eta biltegiak	12.192	11.747	-3,6	45.894	43.095	-6,1	3,8	3,7	-0,1
I. Ostalaritza	13.843	13.614	-1,7	50.877	50.858	0,0	3,7	3,7	0,1
J. Informazioa eta Komunikazioak	3.032	2.979	-1,7	23.349	23.099	-1,1	7,7	7,8	0,1
K. Finantza- eta aseguru-arloko jarduerak	2.801	2.899	3,5	22.813	21.987	-3,6	8,1	7,6	-0,6
L. Higiezin jarduerak	5.483	5.354	-2,4	7.313	7.198	-1,6	1,3	1,3	0,0
M. Jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.820	20.609	-1,0	58.534	58.505	0,0	2,8	2,8	0,0
N. Jardura administratiboak eta zerbitzu lagungarriak	6.890	6.554	-4,9	59.948	59.044	-1,5	8,7	9,0	0,3
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	444	464	4,5	73.547	74.054	0,7	165,6	159,6	-6,0
P. Hezkuntza	3.670	3.747	2,1	35.945	35.888	-0,2	9,8	9,6	-0,2
Q. Jardura sanitarioak eta gizarte zerbitzuak	7.458	7.841	5,1	62.405	67.038	7,4	8,4	8,5	0,2
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	3.091	3.118	0,9	11.311	11.722	3,6	3,7	3,8	0,1
S. Bestelako zerbitzuak	9.358	9.245	-1,2	22.373	22.953	2,6	2,4	2,5	0,1
Pertsona fisikoa	97.262	92.520	-4,9	138.214	131.529	-4,8	1,4	1,4	0,0
Sozietate anonimoa	8.194	7.883	-3,8	251.214	241.214	-4,0	30,7	30,6	-0,1
Erantzukizun mugatuko sozietatea	47.349	46.974	-0,8	277.586	272.251	-1,9	5,9	5,8	-0,1
Beste sozietate eta elkarte batzuk	17.494	17.549	0,3	117.411	121.528	3,5	6,7	6,9	0,2
Beste sozietate bat*	7.719	8.041	4,2	49.887	53.257	6,8	6,5	6,6	0,2
Ondasun erkidegoa	8.513	8.168	-4,1	21.768	20.990	-3,6	2,6	2,6	0,0
Sozietate kooperatiboa	1.262	1.340	6,2	45.756	47.281	3,3	36,3	35,3	-1,0
Beste forma juridiko batzuk	1.046	1.069	2,2	121.619	123.571	1,6	116,3	115,6	-0,7
Tokiko korporazioa	380	391	2,9	26.262	26.901	2,4	69,1	68,8	-0,3
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erljio erakundeak	608	616	1,3	26.623	27.416	3,0	43,8	44,5	0,7
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak	58	62	6,9	68.734	69.254	0,8	1.185,1	1.117,0	-68,1

\* (Erregular kolektiboa, komandita, elkarte, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk).  
Iturria: EUSTAT, JEGID

2008 eta 2011 artean 18.295 enpresako eta 52.386 enpleguko murrizketa garbia egon da: horietatik 15.391 enpresa (% 84,1) eta 22.311 enplegu (% 42,6) pertsona fisikoei dagozkienak izan dira.

Pertsona fisikoak kontuan hartu gabe, enpresa-jardueren ia bi heren (% 63,9) erantzukizun mugatuko sozietate moduan egiten dira; enpleguaren bi heren baino zertxobait gehiago (% 67,7) Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen artean banatzen da; Sozietate Kooperatiboak enpresen % 1,8 dira eta enpleguaren % 6,2 biltzen dute.

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren analisia (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan-sozietateak) erakusten du Sozietate Kooperatiboko izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua, 2011. urtean, EUSTATen arabera, 1.340 dela. 47.281 langile daukate; beraz, batez besteko plantilla 35,3 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez. Gizarte Segurantzak, 2011ko irailaren 31an, 1.522 enpresa kooperatibo zeuzkan erregistratuta (aurreko urtean baino 24 gehiago), 55.614 langile zeuzkatenak. Beraz, kooperatiba bakoitzeko 36,5 langile daude batez bestez (EUSTATen ratioa baino handiagoa),

**I.2.4. Koadroa. Establezimendu kopuruaren eta enpleguaren eboluzioa EAE-n**

	Establezimenduak			Enplegua			Batez besteko enplegua	
	2010	2011	Aldakuntza (%)	2010	2011	Aldakuntza (%)	2010	2011
<b>GUZTIRA</b>	191.057	185.454	-2,9	906.044	890.093	-1,8	4,7	4,8
B. Erauzketa-industriak	46	50	8,7	576	543	-5,7	12,5	10,9
C. Manufakturen industria	13.881	13.516	-2,6	191.816	185.844	-3,1	13,8	13,7
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	200	208	4,0	2.385	2.337	-2,0	11,9	11,2
E. Ur hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea	277	340	22,7	5.335	5.666	6,2	19,3	16,7
F. Eraikuntza	29.656	27.248	-8,1	87.597	80.492	-8,1	3,0	3,0
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	47.012	45.060	-4,2	142.731	136.991	-4,0	3,0	3,0
H. Garraioa eta biltegiak	12.866	12.393	-3,7	45.650	42.991	-5,8	3,5	3,5
I. Ostalaritza	14.738	14.556	-1,2	51.301	51.435	0,3	3,5	3,5
J. Informazioa eta komunikazioak	3.304	3.256	-1,5	23.490	23.277	-0,9	7,1	7,1
K. Finantza- eta aseguru-arloko jarduerak	5.137	5.199	1,2	21.983	21.069	-4,2	4,3	4,1
L. Higiezinaren alorreko jarduerak	5.708	5.566	-2,5	7.285	7.179	-1,5	1,3	1,3
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.587	21.387	-0,9	59.024	59.408	0,7	2,7	2,8
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak	7.805	7.427	-4,8	60.963	60.707	-0,4	7,8	8,2
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	1.153	1.178	2,2	43.617	44.427	1,9	37,8	37,7
P. Hezkuntza	5.259	5.336	1,5	61.161	61.816	1,1	11,6	11,6
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	8.860	9.235	4,2	65.562	69.126	5,4	7,4	7,5
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	3.542	3.567	0,7	13.409	14.084	5,0	3,8	3,9
S. Bestelako zerbitzuak	10.026	9.932	-0,9	22.159	22.701	2,2	2,2	

Iturria: EUSTAT, JEGID.

estatuko handiena, eta ia estatuko batezbestekoa (13,2) hiru aldiz.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzako kooperatiben erregistroaren arabera, kooperatiben kopurua, 2011. urtean, 1.770<sup>1</sup> da. Haien artean, erdia baino gehiago (1.074) elkarlaneko kooperatibak dira; haietatik 304 (%28,3) kooperatiba txikiak dira (figura honek bere erregimena eta araudia dauka, Euskaidiko Sozietate Kooperatibo Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide). Elkarlaneko kooperatiba horiek 1 gutxiago dira aurreko urtean 3tan areagotu ziren. Hazkunderik handiena (2009. urtean bezala) etxebizitzako kooperatibetan (+17) eta nekazaritzakoetan (+4) izan da.

Lan-sozietateei dagokienez<sup>2</sup>, Gizarte Segurantzaren arabera, kotizatutako kopuru osoa 762 da. Hau da, 2010. urtean baino 53 gutxiago. 7.918 langile daukate (2010ean baino %12,7 gutxiago). Batez besteko tamaina 10,4 langilekoa da sozietate bakoitzeko, estatuko batezbestekoa baino askozaz ere handiagoa (5,5 langile). Enpresen multzo osoari erreparatu gero, eta analisi unitatetzat establezimendua hartzen badugu, ikusiko dugu % 2,9ko murrizpena izan dutela (enplegua, esan dugunez, % 1,8 jaitsi da). 195.454 establezimendu eta 890.093 lanpostu daude. Establezimendu bakoitzeko batez besteko enplegua 4,8 da (4,7 aurreko urtean).

**I.2.5. Koadroa. Establezimenduen egitura enpleguaren arabera**

	2009		2010		2011	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
<b>Guztira</b>	202.093	952.510	191.057	906.044	185.454	890.093
=< 2	150.438	184.515	141.607	172.920	137.537	168.525
3-5	27.576	101.164	26.252	96.187	25.266	92.582
6-9	9.631	69.047	9.449	67.908	9.061	65.033
10-14	4.618	53.884	4.277	50.050	4.258	49.766
15-19	2.510	41.823	2.490	41.657	2.437	40.836
20-49	4.883	146.791	4.644	140.720	4.567	138.771
50-99	1.455	100.396	1.411	97.884	1.410	98.099
100-249	719	108.057	687	103.476	676	102.102
250-499	178	60.562	159	55.575	161	55.448
>= 500	85	86.271	81	79.667	81	78.931

Iturria: EUSTAT, JEGID.

Establezimendu eta lanpostu kopuruetan gehien jaitsi diren sektoreak hauek dira: Eraikuntza (% -8,1 establezimenduetan eta % -8,1 enpleguan), Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak (% -4,8 establezimenduetan eta % -0,4 enpleguan), Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motorren konponketa (% -4,2 establezimenduetan eta

<sup>1</sup> Ikusi Gizarte Segurantzaren datuarekiko eta EUSTATen datuarekiko ezberdintasuna.

<sup>2</sup> Horietan kapital sozial gehiena langile bazkideen jabetzakoa da. Bazkide bakoitzak gehienez izan dezakeen kapital sozialak ezingo du guztirakoaren herena gainditu (partaidetza publikoko zenbait salbuespenetan izan ezik), beraz, gutxieneko bazkide kopurua hiru da.

Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan-sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, aldiz, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateak dira (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.

% -4 enpleguan), eta Garraioa eta biltegiatzea (% -3,7 establezimenduetan eta % -5,8 enpleguan).

Aurreko urteetan bezala, enplegu tamainaren arabera egitura aldatu gabe mantendu da. 2.328 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,3ak hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 334.580 enplegu (guztien % 37,6). Aldiz, 137.537 establezimendu, kopuru osoaren % 74,2, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 18,9 bakarrik hartzen dute.

### Enpresa-txandakatzea

Establezimenduen kopurua murriztu egin da 13.606 establezimendu berrik jarduera hasi dutelako baina 19.209 establezimenduk utzi dutelako euren jarduera. Horrenbestez, jarduera hasten eta uzten duten establezimenduen arteko enplegu-saldo garbia -5.603koa da.

Establezimendu-txandakatzerik handiena Handizkako eta txikizkako merkataritza eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa arloan, Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrien arloan, Ostalaritza, Informazioaren eta komunikazioen arloan, eta Administrazio publikoaren, defentsaren eta derrigorrezko gizarte segurantzaren arloan eman da.

Txandakatze handieneko estratuak, establezimenduei dagokienez, tamaina txikieneko dagozkie: 2 enplegu edo gutxiagoko establezimenduei.

Nortasun juridikoa kontuan hartuz gero, EUSTATen arabera, txandakatze handiagoa egon da Pertsona fisikoaren formula juridikopean sortutako establezimenduetan: guztirako alden % 51,6 eta bajen % 62,0. Mota horretako establezimenduen saldo orokorrak 4.890 establezimendu gutxiago ditu, jarduera utzi zutenak gehiago izan baitziren berria hasi zutenak baino.

### 2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea

Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoen (HHBKE) behin-behineko datuen arabera (2012ko otsailean argitaratu ziren), 2011. urtean lehen sektoreak EAEko eguneko prezioen BEGen % 0,7 bakarrik hartzen zuen eta enplegu osoaren % 2,2. Horrela, lehen sektorearen balio erantsia 451,5 milioi eurora iritsi zen eta enplegua 21.489 lanpostura.

Beste era batera esanda, 2010. eta 2011. urteen artean, lehen sektoreko BEGa hazi egin da (% 2,8) EAEn kopuru errealean, eta enplegua % 1,2 erori da.

Ingurumen, lurralde plangintza, nekazaritza eta arrantza saileko datuen aurrerapenaren arabera, honakoa izan da nekazaritza-sektoreak izan duen eboluzio xehea.

### Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso ustiapena

**Azken Nekazaritza-ekoizpena (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, basogintzakoa eta beste ekoizpen batzuk).** Azken nekazaritza-ekoizpenaren balioa (eguneko

### 1.2.6. Koadroa. Enpresa-txandakatzea jarduera-sektorearen eta enplegu-mailaren arabera, 2011. (establezimendu kopurua)

	Aldakuntza osoa (altak-bajak)	Altak	Bajak
2009an, guztira	-1.794	13.771	15.565
2010ean, guztira	-11.036	14.346	25.382
<b>2011an, guztira</b>	<b>-5.603</b>	<b>13.606</b>	<b>19.209</b>
B. Erauzketa-industriak			
C. Manufaktura industria	9	10	1
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	-372	813	1.185
E. Ur hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea	7	44	37
F. Eraikuntza	59	81	22
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	-2.393	2.304	4.697
H. Garraioa eta biltegiatzea	-1.871	3.118	4.989
I. Ostalaritza	-506	600	1.106
J. Informazioa eta komunikazioak	-211	849	1.060
K. Finantza- eta aseguru-arloko jarduerak	10	454	444
L. Higiezin jarduerak	60	378	318
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-159	345	504
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak	-56	1.741	1.797
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantz	-344	598	942
P. Hezkuntza	27	47	20
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	71	455	384
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	142	679	537
S. Bestelako zerbitzuak	22	377	355
<b>Enplegu-maila</b>			
0 eta 2 artean	-5.294	11.520	16.814
3 eta 5 artean	-284	1.286	1.570
6 eta 9 artean	-46	382	428
10 eta 19 artean	6	249	243
20 eta 49 artean	11	119	108
>= 50	4	50	46

**I.2.7. Koadroa. Nekazaritzako makromagnitudeen eboluzioa (euroak milaka)**

	2008 Behin betikoa	2009 Behin betikoa	2010 Aurrerapena	2011 Aurrerapena
<b>Azken nekazal-ekoizpena</b>	<b>475.923,9</b>	<b>393.134,8</b>	<b>392.015,5</b>	<b>417.169,2</b>
<b>Nekazaritzako Azken Ekoizpena</b>	<b>259.213,0</b>	<b>222.089,2</b>	<b>223.990,7</b>	<b>251.851,0</b>
Zerealak	35.493,0	19.830,3	35.255,5	49.614,4
Lekadunak	2.865,6	3.291,5	3.298,4	3.740,4
Patata	8.861,8	10.617,4	10.414,2	11.747,4
Erremolatxa	5.142,1	6.833,0	6.264,8	8.124,4
Industriako beste batzuk	303,8	1.005,7	934,5	1.323,2
Barazkiak	67.822,7	70.513,5	72.122,1	70.657,5
Frutak	13.550,9	12.479,4	12.834,6	14.879,9
Mahastiak	97.265,1	70.465,0	54.476,3	63.489,6
Bestelakoak	27.907,9	27.053,5	28.390,3	28.274,1
<b>Abeltzaintzako azken ekoizpena</b>	<b>172.700,0</b>	<b>148.806,3</b>	<b>139.960,1</b>	<b>137.007,8</b>
Behi animaliak/haragia	34.107,0	32.354,5	32.144,3	33.162,8
Ardi-ahuntz anim./haragia	6.461,1	7.615,3	6.852,3	7.294,5
Txerri animaliak/haragia	7.099,2	3.989,8	2.023,8	1.150,5
Behi-esnea	81.672,6	62.347,4	58.071,6	57.187,1
Arrautzak	27.391,0	26.916,3	25.823,8	23.845,3
Beste batzuk	15.969,0	15.583,0	15.044,4	14.367,6
<b>Basogintzako azken ekoizpena</b>	<b>28.969,1</b>	<b>8.115,7</b>	<b>13.889,2</b>	<b>13.644,0</b>
Insignis Pinuaren egurra	19.926,9	4.496,1	9.850,0	8.569,3
Beste batzuk	9.042,2	3.619,6	4.039,2	5.074,7
Bestelako ekoizpenak	15.041,8	14.123,6	14.175,5	14.666,5
Bitarteko kontsumoak	210.507,0	179.158,1	173.291,1	191.625,9
Diru-laguntzak	71.630,7	70.122,3	68.877,6	67.754,8
Amortizazioak	53.562,8	50.702,9	51.250,3	51.596,7
BEG BBS	265.416,9	213.976,7	218.724,4	225.543,3
<b>Nekazaritzako errenta (BEG)</b>	<b>283.484,9</b>	<b>233.396,1</b>	<b>236.351,6</b>	<b>241.701,4</b>

Iturria: Ingurumen, lurralde plangintza, nekazaritza eta arrantza saila.

prezioetan) 2010ean lortutakoa baino % 6,4 handiagoa da prezioak % 6,6 hazi baitira, ezen ekoizpena nahiko egonkor mantendu baita (% -0,1). Modu esanguratsuan hazi da nekazaritzako ekoizpenaren balioa eta zertxobait jaitsi dira bai abeltzaintzako bai basogintzako azken ekoizpenak.

Bolumenak (aldaketarik gabeko prezioetan) izan duen eboluzioari dagokionez, nekazaritzako ekoizpenak gorakada izan du azken bi urteetan, urtez urte murriztu egin da abeltzaintzako ekoizpena eta basogintzakoak, aldiz, egonkortu egin da azken urtean.

**Nekazaritzako Azken Ekoizpena.** Nekazaritzako azken ekoizpenaren balioa 2010ekoa baino % 12,4 handiagoa izan da. Urte horretakoa, 2009koarekin batera, historian balio ekonomikorik txikiena izan zuen urtea izan zen. Gorakada hori prezioak % 9 hazi direlako eta bolumena % 3 hazi delako gertatu da.

Ekoizpenari dagokionez, aldaketarik gabeko prezioak kontuan hartuta izandako eboluzioak baratzeko ekoizpenen eta nekazaritzako gainerako ekoizpenen gorakada leuna eta ardoaren beherakada txikia erakusten ditu; zerealak, aldiz, beren horretan mantendu dira 2010ean gora egin ondoren.

Prezioen arloan zera esan beharra dago: 2010. urtea ardogintzarako txarra izan zen merkaturatutako ardoaren prezioaren ikuspuntutik, baina 2011. urtean merkaturatutako kopuruek zertxobait egin dute behera eta jasotako prezioek, aldiz, nabarmen egin dute gora (% 23). Horri zereala izaten ari den prezio-igoera gehitu behar diogu. Igoera horren zergatiak hainbat dira, besteak

beste, tamaina handiko hainbat herrialde ekoizletan (Errusia) izandako eguraldi txarra eta eskaria areagotu duten ekonomia berrien zabalkundea (esaterako, Txina, India edo Brasil).

**Abeltzaintzako Azken Ekoizpena.** Prezioen gorakadak (% 2,8, batez beste) ezin du ekoizpenek izandako beherakada (% 4,8, batez beste) orekatu, eta Abeltzaintzako Azken Ekoizpeneko kapitulu bakoitzaren eboluzioak beherakadaxoa erakutsi du bai atal nagusien (behi-esnea, behi-haragia, arrautzak eta ardi-esnea eta gazta) ekoizpenaren balioari dagokionez, baita gainerako ekoizpenen kopuruari dagokionez ere.

**Basogintzako Azken Ekoizpena.** Mozketek 2010ean gorakada izan ondoren, 2011. urtean berriro egin dute behera (% 3). Prezioak historiako mailarik baxuenetan mantentzen dira; 2011n apenas % 1 hazi ziren. Ekoizpenaren eta prezioen bi eboluzio horien ondorioz, Basogintzako Azken Ekoizpenaren balioa % 2 jaitsi da. Azken urte honetan pinu beltza mozteko baimenak % 13 murriztu dira batez beste, eta eukalipto moztekoak, aldiz, % 11 hazi dira. Espezie bien kasuan prezioak mantendu egin dira, baina "beste egur batzuk" atalean hazi egin dira bai mozteko baimenak (% 53), baita prezioa ere (% 16).

**Bitarteko kontsumoak**

Gastuen balioa 191 milioikoa izan da 2011n, 2010ean baino % 11 gehiago. Historikoki baliorik altuena da 2008koa eta gero. Orduan zerealen (2007ko lehorreagatik) eta gasolioaren prezioak sekulako jauzi kualitatiboa eman zuen eta maximo historikoa lortu zuen. Gorakada

**I.2.8. Koadroa. Nekazal-errenta errearen eboluzioa (deflaktatua) (aldakuntza-tasak) 2010-2011**

	EAE	Estatua	27 EB
Nekazal-errenta (termino errealean)	0,6	-5,9	3,9
Nekazaritz. eta Abeltzaintz. azken Ekoizpena	4,9	1,5	7,5
Nekazaritzako Azken Ekoizp.	10,6	-3,3	8,0
Abeltzaintzako Azken Ekoizp.	-3,7	10,1	7,8
Bitarteko kontsumoak	9,6	10,4	9,7
Nekazaritzako lan-eskuaren aldakuntza	-5,9	-4,5	-2,7
Nekazal-errenta / okupatua	6,9	-1,5	6,7

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

hori prezioen igoeraren (% 13) ondorio zuzena da, kontsumitutako kopuruek behera egin baitute (% 2). Kontsumitutako kopuruaren beherakada abeltzaintzako erroldaren murrizketaren ondorioa da, izan ere, abeltzaintzan behar diren produktuen kopuruak murrizten dira, esaterako, produktu zoosanitarioenak (% 4) eta pentsuarenak (% 4). Gainerako ataletako bitarteko kontsumoen bolumena ia-ia egonkor mantentzen da bere horretan, aldaketarik gabe. Gastuen % 59 pentsuei (% 42) eta ongarriei (% 17) dagokie; 2011n produktu horien prezioa igo zen, % 14 eta % 30, hurrenez hurren.

**Ustiapenerako diru-laguntzak.** 2011. urtean zehar, ustiapenerako diru-laguntza osoak % 1,6 jaitsi dira; nekazaritzako errenta osoaren % 28 dira (2010ean % 29 ziren).

**Amortizazioak.** % 0,7 hazi dira.

**Nekazal-errenta nominala edo balio korrontekoa (BEG).** Nekazal-errenta kalkulatzeko Gastuak eta Amortizazioak kendu behar zaizkio Azken Nekazal-ekoizpenaren (nekazaritzakoa + abeltzaintzako + basogintzakoa + bestelakoak) eta Diru-laguntzen baturari. 2011n nekazal-errenta % 2,3 hazi da. Gorakada horren zergatia Azken Nekazal-ekoizpenaren gorakada (% 6,4) izan da, eta azken ekoizpenak gora egin badu nekazaritzako

azpisektorea % 12,4 hazi delako izan da, eta horrek orekatu egin ditu abeltzaintzako eta basogintzako azpisektoreetan egondako beherakadak. Bestalde, bitarteko kontsumoak hazi egin direnez (% 10,6) eta diru-laguntzak zertxobait murriztu direnez (% 1,6), nekazal-errentak aipatutako % 2,3ko gorakada izan du.

**EAEko balio errealeko Nekazal-errenta (deflaktatua) EBko eta Estatuko errentekin konparatzea**

EUROSTATEk inflazioa kenduta konparatzen ditu Estatuaren arteko Kontuen Aurrerapenak, herrialde bakoitzak berea baitu. Inflazioa kenduz gero, EAEko nekazal-errenta erreala, termino errealean (EAEen BPGaren % 1,69ko deflatorearekin), % 0,6 hazi da eta EBkoa % 3,9.

EAEen eta EBn nekazaritzan diharduen biztanleriaren zenbatespenek % 5,9ko eta % 2,7ko beherakada erakusten dute, hurrenez hurren. Gauzak horrela, Okupatu bakoitzeko Nekazal-errenta Erreala % 6,9 hazi da EAEen eta % 6,7 EBn.


**Arrantza**

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko estatistika-organoaren datuen arabera, 2011. urtean euskal arrantza-flotak beherakada izaten jarraitzen du bai ontzi-kopuruari dagokionez, baita enplegatutako langileen kopuruari dagokionez ere, baina beherakada hori aurrekoak baino neurritzkoagoa da.


Hala ere, antxo-harrapaketen gorakadak eta espezierik komertzialenetako batzuen balioa handitzeak diru-sarrerak areagotu dizkio baxurako artisau-flotari.

Euskal arrantza-flota osatzen duten ontzien kopuruaren eboluzioak behera egiten jarraitzen du. 2011n arrantza-flota 15 ontzitan murriztu da (baxurako 14 ontzi gutxiago eta atun-ontzi izoztaile bat gutxiago), hau da, % 5,8ko beherakada izan du, eta urte amaieran 245 ontzi zituen guztira.

Ontziek behera egin duten bezalaxe, tripulazioa ere murriztu egin da % 3,1ean eta orain 2.455 tripulatazaile daude.

**I.2.1. Grafikoa. EAEko arrantza-flotaren eboluzioa**

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza..

**I.2.2. Grafikoa. EAEko arrantza-flotako tripulatazaileen kopuruaren eboluzioa**

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza..

Baxurako flota da ontzi gehien duena. Artisau-arrantza egiten duen azpisektore horrek guztirako flotaren % 76,3 hartzen du. Langile-kopururik handiena duena ere bada, 2010arekiko % 4,7ko beherakada izan duen arren 1.324 tripulatazaile baititu, hau da, guztirako tripulazioaren % 53,9 biltzen du eta batez beste 7,1 tripulatazaile izaten dira ontzi bakoitzeko.


Freskotarako altura-arrantzako flota Ondarroako eta Pasaiako portuetan dago, eta ontzi-kopuru berbera mantendu du (28 ontzi), hau da, arrantza-ontzi guztien % 11,4. Flota horrek 11,8 tripulatazaile izaten ditu, batez beste, ontzi bakoitzeko eta bi langile gutxiago ditu aurten (2011 amaieran 329 tripulatazaile zituen). Azpisektore honetako flota erdira jaitsi da azken hamarkadan.

Arrantza handiko flotari dagokionez, ordea, Bermeoko portukoak izan ohi diren atun-ontzi izoztaileen azpisektoreak 24 ontzi ditu, 2010ean baino bat gutxiago. Horiek dira ontzirik handienak eta potentziarik handiena dutenak, eta baita ontzi bakoitzeko tripulatazaile gehien biltzen dutenak ere, batez beste 27 tripulatazaile egoten baitira ontzi bakoitzean. Azpisektore horretako ontziek Atlantikoko ur tropikaletan (Gineako Golkoa) eta Indiako Ozeanoan garatzen dute arrantza-jarduera, beti ere beste herrialdeekiko akordioan arabera. Harrapatzen dituzten espezie nagusiak atun hegats-horia (yellowfin)

eta marraduna (skipjack) dira. Espezieon harrapaketa ez da TAC sistemaren bidez arautzen, ez baitaude gehiegi ustiatzeko arriskuan. Horrenbestez, baliabideok harrapatu ahal izatea EBko kanpo-harremanen mende dago, Batasunetik kanpoko herrialdeekin lortzen dituzten akordioen mende. Azken urteotan atun-ontzi izoztaileen azpisektoreak piraten erasoak jasan izan dituzte, bereziki Somaliakoena, eta horrek neurriak hartzea behartu du sektorea: ontzian segurtasun pribatuko langileak eramatea edo EBko estatu kideetako indar armatuek Indiako Ozeanoan uretan diharduten ontziak defendatzeko garatu duten Atalanta Operazioa.

Bakailao-ontzien azpisektorea Pasaiako portukoa da eta 6 ontzi baino ez ditu, 2010ean bezainbeste. Ternuako bakailaoa bezalako espezieei ezarritako mugen eta halibut beltzaren urritasunaren (berreskuratze-planean dago 2004az geroztik) ondorioz, euskal arrantza-flotan tradizionerik handiena zuen arrantza handiko azpisektore honek flota osoaren % 2,5 baino ez du hartzen gaur egun. Azpisektore horretako ontziak bigarrenak dira, atun-ontzi izoztaileen ondotik, potentziari eta edukierari dagokionez; batez beste 25,5 tripulatazaile izaten dira ontzi bakoitzeko eta guztira 153 tripulatazailek egiten dute lan azpisektore horretan (itsasoan guztira sortutako enpleguaren % 6,2).

### I.2.3. Grafikoa. EAEn lehorreratutako baxurako harrapaketen kopurua eta balioa



Iturria: EZAS. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila. Eusko Jaurlaritza.

### I.2.9. Koadroa. Baxurako flotak EAE-ko portuetan lehorreratutako arrantza

	2009			2010			2011				aldak. %a 2010-2011		
	K	B	P	K	B	P	K	%	P	K	B	P	
Antxoa	0,00	0,00	0,00	4.740,72	12,90	2,72	8.750,65	18,02	25,78	2,06	84,58	39,70	-24,32
Atuna	843,69	4,25	5,04	528,69	2,93	5,53	470,79	3,07	4,39	6,52	-10,95	4,94	17,84
Hegaluzea	4.190,57	16,98	4,05	5.248,18	18,67	3,56	4.533,14	16,75	23,96	3,69	-13,62	-10,29	3,85
Txitxarroa	1.728,26	1,19	0,69	10.483,12	4,09	0,39	6.246,17	3,71	5,31	0,59	-40,42	-9,28	52,26
Legatza*	3.740,53	9,58	2,56	3.493,75	7,34	2,10	3.385,67	6,70	9,58	1,98	-3,09	-8,78	-5,87
Bisigua	14,20	0,12	8,41	0,51	0,01	19,75	0,28	0,01	0,01	22,00	-45,10	-38,83	11,42
Gainerako espez.	52.254,64	22,33	0,43	28.857,99	19,38	0,67	18.319,33	21,65	30,97	1,18	-36,52	11,70	75,95
<b>Guztira</b>	<b>62.771,89</b>	<b>54,46</b>	<b>0,87</b>	<b>53.352,96</b>	<b>65,32</b>	<b>1,22</b>	<b>41.706,03</b>	<b>69,90</b>	<b>100,00</b>	<b>1,68</b>	<b>-21,83</b>	<b>7,01</b>	<b>36,90</b>

K.- Kopuruak tonatan; B: Balioa milioika eurotan; P: Prezioa, €/kiloa

(\*) Tarteko legatza eta merlenka barne.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

## I.2.10. Koadroa. Enkanteetako kopuruak eta balioak eaeko baxurako lonjetan, portuz portu (2010-2011)

Portua	2010. urtea		2011. urtea		Aldakuntza %a	
	Kopuruak tonatan	Balioak mila €-tan	Kopuruak tonatan	Balioak mila €-tan	Kopuruak	Balioak
Armintza	4,58	23,71	23,24	59,07	407,42%	149,14%
Bermeo	4.775,13	5.983,39	2.601,67	5.227,46	-45,52%	-12,63%
Elantxobe	9,08	12,40	0,00	0,00	-100,00%	-100,00%
Lekeitio	1.589,10	980,87	468,91	404,94	-70,49%	-58,72%
Mundaka	8,98	58,26	6,20	36,80	-30,96%	-36,83%
Ondarroa	16.996,15	13.827,28	14.097,28	17.323,52	-17,06%	25,29%
Santurtzi	8,85	42,39	10,99	62,30	24,18%	46,97%
<b>Bizkaia guztira</b>	<b>23.391,87</b>	<b>20.928,30</b>	<b>17.208,28</b>	<b>23.114,10</b>	<b>-26,43%</b>	<b>10,44%</b>
Donostia	1.100,15	1.444,79	715,57	1.217,18	-34,96%	-15,75%
Getaria	14.024,65	18.870,10	11.334,52	20.810,66	-19,18%	10,28%
Hondarribia	8.300,91	9.888,65	6.043,32	9.912,65	-27,20%	0,24%
Mutriku	63,93	67,34	14,03	63,60	-78,05%	-5,55%
Pasaia	6.471,45	14.122,20	6.390,30	14.785,05	-1,25%	4,69%
<b>Gipuzkoa guztira</b>	<b>29.961,09</b>	<b>44.393,08</b>	<b>24.497,73</b>	<b>46.789,15</b>	<b>-18,23%</b>	<b>5,40%</b>
<b>Guztira</b>	<b>53.352,96</b>	<b>65.321,38</b>	<b>41.706,01</b>	<b>69.903,25</b>	<b>-21,83%</b>	<b>7,01%</b>

K.- Kopurua tonatan; B: Balioa milioika eurotan; P: Prezioa, €/kiloa.

(\*) Tarteko legatza eta merlenka barne.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

EAEko baxurako lonjetan 2011. urteetan egindako enkanteak guztira 41.706 tona izan dira (2010ean baino % 21 gutxiago). Berdeletarako TACaren beherakada eta atunaren (hegaluzea eta hegalaburra) arrantza-denboraldian izandako emaitza txarrak orekatu egin dira antxoaren gorakadarekin, izan ere, 2010ean (debekualdia lehenengoz kendu zenean) 4.740 tona hartu baziren ere, 2011n kopurua askoz handiagoa izan da: 8.751 tona.

Espezierik komertzialenen artean antxoa da 2010ean baino gehiago harrapatu izanagatik nabarmendu den bakarra: harrapaketa % 84,6an hazi da.

Kontrakoa gertatu zaie, hots, bolumen txikiagoan arrantzatu dira honako espezieak: hegalaburra (471 tona jarri dira enkantean, % 11 gutxiago), hegaluzea (4.533 tona jarri dira enkantean, % 10,3 gutxiago); txitxarroa (6.246 tona jarri dira enkantean, % 9,3 gutxiago), eta legatza (merlenka eta tarteko legatza barne; 3.386 tona jarri dira enkantean, % 8,8 gutxiago).

EAEko baxurako lonjetan egindako enkanteetan lortutako balioei dagokionez, 69,9 milioi euro bildu dira. Beraz, diru-sarrerak 2010ean baino % 7 handiagoak izan dira (orduan 65,3 milioi euro lortu ziren). Eskaintza murriztu egin denez prezioek gora egin dute, eta enkantean jarritako antxoa-kopurua ere nabarmen hazi da, eta horrek guztiak diru-sarrerak areagotzea ekarri du nahiz eta kopuru gutxiago jarri enkantean.

Antxoak eta hegalaburrak 2010ean baino diru-sarrera handiagoak lortu dituzte. Antxoaren kasuan, 18 milioi euro bildu dira, hau da, aurreko urtean baino % 39,7 gehiago; hegalaburraren kasuan, aldiz, 2011. urtean 3,1 milioi euro lortu dira, 2010. urtean baino % 5 gehiago.

Bisiguak, ordea, 0,01 milioi euro sortu ditu eta horrek nabarmen murriztu ditu bildutako diru-sarrerak (kasu horretan, beherakada % 38,8koa izan da). Gauzak horrela, hegaluzetak % 10,3 egin du behera (16,8 milioi bildu ditu), txitxarroak % 9,3 (3,7 milioi euro) eta legatzaren taldeak % 8,8 (6,7 milioi euro).

EAEko baxurako lonjetan 2011n enkantean jarritako arrainaren batez besteko prezioa 1,7 €/Kg izan da, hau da, 2010ean baino % 39,9 garestiagoa.

Prezioak gora egin izanaren arrazoi nagusia eskaintzaren beherakada izan da. Prezio-gorakada hori oso esanguratsua izan da enkanterako bolumena murriztu duten espezieen kasuan. Hala gertatu zaie honako espezieei: hegalaburra 6,5 €an ordaindu da kilo, prezioak % 17,8 egin du gora; bisiguaren kasuan 22 €an ordaindu da kilo, 2010ean lortutako prezioa baino % 11,4 gehiago; txitxarroa 0,59 €an ordaindu da kilo, aurreko urtean baino % 52,3 gehiago; eta hegaluzearen prezioa 3,69 €/kg izan da (% 3,9 gehiago).

Prezioa merkatu zaien espezieen artean antxoa eta legatzen taldea nabarmendu behar dira. Lehenaren prezioa eskaintza asko hazi delako jaitsi da eta 2010ean baino % 24,3 gutxiago ordaindu da (2,06 €/Kg); bigarrenaren kasuan, prezioa % 5,9 jaitsi da egindako inportazioen ondorioz (% 1,98 €/Kg).

### 2.1.3. Industria

Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera (2012ko otsailean argitaratu ziren), industriaren sektorea EAEn 2011. urtean izandako prezioen BEG osoaren % 24,4 da, 2010. urtean baino 6 hamarren gehiago. Gauzak horrela, 213.946 lanpostu biltzen ditu, enplegu osoaren % 22,1 (2010. urtean baino 3 hamarren gutxiago).

Datuek erakusten dutenez, 2007ko bigarren hiruhilekotik aurrera ekoizpenaren hazkunde-tasa errealak apurka-apurka ahultzen joan ziren, eta 2009ko hirugarren hiruhilekoa % 14,8ko urte arteko aldakuntza-tasa negatiboarekin amaitu zen; une horretatik aurrera egoerak hobera egin zuen. Hala ere, 2011. urteak aurrera egin ahala, industriako BEGaren hazkunde geldotuz joan da apurka-apurka: lehenengo hiruhilekoan aldakuntza-tasa % +3,7koa izan zen, bigarrenean % +3,3koa, hirugarrenean % 01,5ekoa eta, azkenik, laugarren hiruhilekoan urte arteko tasa % 0,2 txikitu zen.

Horrela, industriako BEGaren urte arteko gehikuntza erreala, 2011. urtean, % 2koa izan zen (aurreko urtean hazkunde % 1,8koa izan zen). Eta industriako BEGa, 2011. urtean, 15.262 milioi eurokoa izan zen guztira.

Enpleguari dagokionez, kopuruek erakusten dute (213.946 lanpostu, EUSTATen hiru hilez behingo kontu



**I.2.11. Koadroa. Europako Batzordeak Espainiari esleitutako qrantza-kuotak (TAC) (Tonatan)**

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2009-10	2010-11	2011-12
Atlantikoko bakailaoa I, II *	10.364	9.294	2.299	11.589	12.857	13.301	14.068	10,94	3,45	5,77
OPANO 3M Bakailaoa					796	1448	1328	100,00	81,91	-8,29
Abadira	835	835	835	835	779	764	764	-6,71	-1,93	0,00
Brosmioa V, VI, VII	29	24	21	21	14	14	14	-33,33	0,00	0,00
Halibut beltza (NAFO)	5.080	4.403	4.396,50	4.396,50	4.396,50	4.722	4.486	0,00	7,40	-5,00
Halibut beltza Ila, IV, VI	8	6	6	4	3	2	2	-25,00	-33,33	0,00
Sakoneko krabarroka	3.113	2.848	2.099	2.099	2.848	2.099	2.632	35,68	-26,30	25,39
Fosforua Vb, VI, VII	85	74	74	63	54	48	41	-14,29	-11,11	-14,58
Fosforua VII, IX, X, XII, XIV	5.165	4.391	4.391	3.734	3.734	3.286	2.857	0,00	-12,00	-13,06
Marrazoa				131	0	0	0	-100,00	0,00	0,00
Berruenda	4.124	3.229	2.969	2.969	2.156	2.150	2.156	-27,38	-0,28	0,28
Berruenda urdina	104	83	67	67	57	835	840	-14,93	1.364,91	0,60
Liba VIII	1.440	1.440	1.440	1.440	1.296	1.270	1.270	-10,00	-2,01	0,00
Legatza VI, VII, XII, XIV	7.257	8.708	5.785	8.513	9.109	9.109	9.109	7,00	0,00	0,00
Legatza VIIIa, b, d, e	5.052	6.062	5.785	5.926	6.341	6.341	6.341	7,00	0,00	0,00
Legatza VIIIc, IX, X, COPACE	4.263	3.922	1.320	5.186	5.952	6.844	7.870	14,77	14,99	14,99
Mielga				38	0	0	0	-100,00	0,00	0,00
Mihi-arraina	467	468	467	468	11	413	413	-97,65	3.654,55	0,00
Zapoa	3.917	4.064	4.064	3.918	4.034	4.024	5.327	2,96	-0,25	32,38
Arraia	6.561	6.561	6.561	10.268	8.981	8.509	6.519	-12,53	-5,26	-23,39
Oilarra VIII a, b, d, e	1.176	1.176	1.176	1.176	1.176	999	950	0,00	-15,05	-4,90
Oilarra VIIIc, IX, X, COPACE	1.171	1.330	1.320	1.320	1.188	1.010	1.121	-10,00	-14,98	10,99
Oilarra, gainerakoa	5.817	5.817	5.785	5.808	5.840	5.875	5.601	0,55	0,60	-4,66
Platuxa leuna	75	75	75	75	67	66	66	-10,67	-1,49	0,00
Zigala	1.830	2.043	2.031	1.965	1.794	1.731	1.716	-8,70	-3,51	-0,87
Antxoa VIII	4.500	0	0	0	6.300	14.040	26.730	100,00	122,86	90,38
Antxoa IX, X, COPACE	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.635	3.998	0,00	-4,99	9,99
Hegalaburra (E. Atlantikoa - Mediterraneo)	6.266	3.133	5.379	4.116,50	2.526,06	2.411,01	2.411,01	-38,64	-4,55	0,00
Ezpata-arraina	10.988	12.002	11.099	11.958,90	13.169,60	12.151,40	11.973,90	10,12	-7,73	-1,46
Bakalada	91.328	74.073	48.405	21.710	19.682	2.124	16.243	-9,34	-89,21	664,74
Sardinzarra	70	79	112	121	109	73	61	-9,92	-33,03	-16,44
Txitxarroa	44.263	44.289	48.980	48.784	49.049	47.117	47.235	0,54	-3,94	0,25
Berdela	21.594	24.425	22.276	29.549	27.939	24.392	24.456	-5,45	-12,70	0,26
Iparraldeko izkira							106			
<b>GUZTIRA</b>	<b>234.692</b>	<b>214.312</b>	<b>192.951</b>	<b>192.075</b>	<b>196.084</b>	<b>180.803</b>	<b>208.704</b>	<b>2,09</b>	<b>-7,79</b>	<b>15,43</b>

Iturria: Europako Batzordea.

**I.2.4. Grafikoa. Industriako adierazle nagusien eboluzioa. Datu zuzenduak**

— Produktibitatea (guztirako enplegua kontuan hartuta, ez DOB kontuan hartuta)

— Industriako BEGaren urte arteko aldakuntza-tasa. Bolumen-indizea

— Industrian diharduten langileen urte arteko aldakuntza-tasa

Iturria: Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoak.

**I.2.12. Koadroa. Industriaren sektoreko adierazleak**

	2008	2009	2010	2011	
BEG	Kateatutako bolumena	106,7	93,1	94,8	96,7
	Eguneko prezioak (milakotan)	17.193.284	13.645.281	14.481.910	15.262.942
Enplegu osoal	250.292	226.269	218.146	213.946	
BEG aldakuntza (erreal)	-0,6	-12,7	1,8	2,0	
Enpleguaren aldakuntza	-2,0	-9,6	-3,6	-1,9	
Produktibitatea (enplegu osoaren arabera neurtuta)	1,3	-3,5	5,6	4,0	
Deflatoarea	1,8	-7,0	2,0	3,3	

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta HHBKE.

### I.2.13. Koadroa. IPIren bilakaera Lurralde Historikoen eta ondasunen destino ekonomikoaren arabera. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundera

	EAE guztira	Lurralde historikoak			Ondasunen destino ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Kontsumo ondasunak			Ekipamendu ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
					Guztira	Iraunkorra	Ez iraunk.			
2008	-2,9	-3,9	-2,7	-2,5	-7,0	-16,7	-3,1	-1,0	-4,1	3,6
2009	-21,8	-24,2	-20,3	-22,0	-14,6	-29	-9,7	-23,2	-26	-7,0
2010	2,1	8,1	0,8	0,7	1,0	0,7	0,9	-2,6	7,0	-5,2
2011 p	1,4	5,5	2,2	-1,4	-2,2	-8,2	-0,5	5,2	2,6	-7,7

b-b: behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2012. urteko martxoan argitaratutako datuak).

### I.2.14. Koadroa. IPI, jarduera sektoreen arabera. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundera

	2008	2009	2010	2011
02. Erauzketa-industriak	-14,4	-26,6	-20,0	-19,6
03. Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	-1,2	-4,7	4,0	-2,9
04. Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinet.	-6,6	-29,2	6,8	5,5
05. Zura, papera eta arte grafikoak	-7,2	-18,7	-4,2	1,5
06. Kokea lortzeko eta petrol. fintzeko fabrikak	5,9	-11,2	-7,7	-4,7
07. Industria kimikoa	-8,5	-23,5	2,2	4,4
08. Produktu farmazeutikoak	5,4	-3,0	4,3	5,0
09. Kautxua eta plastikoa	-7,9	-20,5	9,9	1,8
10. Metalurgia	-4,4	-29,4	6,1	1,0
11. Produkt. informatikoak eta elektronikoak	-13,5	-24,7	4,6	-1,1
12. Material eta ekipamendu elektrikoak	-1,8	-22,7	-0,1	-0,7
13. Makinak eta ekipamendua	-2,1	-30,2	-5,0	12,8
14. Garraiorako materiala	6,0	-15,1	7,0	9,8
15. Altzariak eta bestelako manufakturarak	-3,4	-22,5	-12,9	-10,5
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	2,5	-6,4	-3,7	-7,3

b-b: Behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT IPI (2012. urteko martxoan argitaratutako datuak).

ekonomikoen arabera) urteko batezbestekoa % 1,9 jaitsi dela. Ondorioz, sektoreko produktibitateak % 4ko urteko batez besteko gehikuntza erakusten du.

Bestalde, INEren datuen arabera, Estatu osoko industriako BEGek urte arteko aldakuntza-tasa erreal positiboa erregistratzen du, % 2,4koa hain zuzen. Hiruhilekoko aldakuntza-profila moteldu egin da 2011ko bigarren hiruhilekokoan (% 3 izatetik % 2 izatera), hirugarrenean hobetu egin da (% 2,8), eta urtea % 0,4ko txikitze-tasarekin amaitu da.

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) urteko batez besteko aldakuntzak, EUSTATEk 2012ko martxoan argitaratutako datuen arabera, jardueraren hazkundera erakusten du EAEren multzoarentzat, % 1,4koa hain zuzen (aurreko urtean % 2,1ekoa izan zen, datu gordinetan, hau da, egutegiko edo urtarotetako doikuntzarik gabe). Lurralde historikoen arabera analisiak ondorioztatzen du euskal IPIak 2011n izandako gehikuntza Arabako ekoizpenaren (% 5,5) eta, hein txikiagoan, Gipuzkoako ekoizpenaren (% 2,2) bultzadaren ondorio dela, Bizkaiaren ekoizpen-indizea % 1,4koa baino ezpaita izan.

Ondasunen destino ekonomikoa aztertuz gero, EUSTATEN arabera, EAEen batez besteko hazkunde horren jatorria ekipamendu ondasunen ekoizpenaren gorakada (% 5,2 eta aurreko urtean, aldiz, % 2,6) eta bitarteko ondasunen ekoizpenaren gorakada (% 2,6, nahiz eta aurreko urtearekin alderatuta —% 7— moteldu egin den) izan da. Aitzitik, kontsumo iraunkorreko zein ez iraunkorreko ondasunen ekoizpenak behera egin du (% -8,2 iraunkorren kasuan eta % -0,5 ez iraunkorren kasuan), eta gauza bera gertatu da energiarekin (% 7,7ko beherakada).

### I.2.15. Koadroa. IPRI, ondasunen destino ekonomikoaren eta jarduera sektoreen arabera, CNAE-2009 (urteko batez besteko hazkundera)

	2007	2008	2009	2010	2011
Indize orokorra	5	5,4	-6	3,4	7,6
<b>Ondasunen destino ekonomikoa</b>					
Kontsumo ondasunak	3,5	4,2	0,5	0,2	2,4
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	1,5	3,0	0,2	-0,5	0,5
Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	4,4	4,7	0,7	0,5	3,1
Ekipamendu ondasunak	3,8	2,6	1,4	0,1	2,0
Bitarteko ondasunak	7,1	3,8	-7,9	3,2	6,1
Energia	1,1	15,7	-14,6	11,7	21,9
<b>Jarduera sektoreak</b>					
Erauzketa-industriak	5,0	5,4	-6,0	3,4	7,6
Erauzketa-industriak	2,6	15,3	5,5	-1,2	-4,8
Manufaktura-industria	2,6	15,3	5,5	-1,2	-4,8
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	5,4	4,9	-6,5	3,8	6,4
Oihal prod., jantzi., larru prod. eta oine.	7,0	8,4	-1,2	1,5	6,4
Zura, papera eta arte grafikoak	-0,8	3,1	1,1	0,8	1,8
Kokea lortzeko eta petrol. fintzeko fabrik.	1,8	1,2	-3,2	1,1	3,5
Industria kimikoa	1,8	19,4	-24,1	24,0	21,7
Produktu farmazeutikoak	7,0	4,9	-2,0	1,9	7,0
Kautxua eta plastikoa	0,0	1,7	1,0	0,5	0,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	4,2	3,5	-0,3	0,9	3,4
Prod. informatikoak eta elektronikoak	8,1	3,4	-10,7	3,5	6,4
Material eta ekipamendu elektrikoak	9,7	4,2	0,9	0,5	2,6
Makinak eta ekipamendua	2,2	3,1	-1,7	2,2	2,7
Garraiorako materiala	3,1	2,0	1,7	-0,5	2,0
Altzariak eta bestelako manufakturarak	3,9	1,9	2,7	0,7	2,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5,1	3,8	2,4	-0,2	1,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	0,3	10,9	-1,5	-1,4	22,1

2005eko oinarria. Iturria: EUSTAT. IPRI.

## I.2.16. Koadroa. Industriaren sektoreko magnitudeak sektoreka

	Banaketaren %a (Industria = 100) 2010					Inbertsioa (milaka euro / enplegua) 2010	Emaizta (milaka euro/ enplegua) 2010	BEG	Enpleg.	Inberts.	Emaizta eragiketa jarraituetan*, zergak eta gero
	BEG	Enpleg.	Inbertsioa	Salmenta garbiak	Zerga ondorengo emaiztak						
Industria Guztira	100	100	100	100	100	—	—	3,47	-2,89	-6,02	16,38
Erauzketa-industria	0,69	0,32	0,69	0,44	1,61	20,3	50,2	-20,65	-9,68	-38,34	-39,36
Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	6,72	7,27	5,60	7,20	10,83	7,2	14,9	6,71	2,52	-20,38	11,20
Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	0,72	1,38	0,07	0,66	0,51	0,5	3,7	-5,37	-5,03	-86,40	-39,35
Zura, papera eta arte grafikoak	5,33	6,68	4,41	4,51	1,60	6,2	2,4	-3,97	-6,08	17,55	-48,31
Kokea lortzeko eta petrol. fintzeko fabrik.	2,20	0,54	14,61	10,10	16,63	253,6	306,7	60,05	0,76	-1,80	107,45
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	2,85	2,37	3,22	3,02	3,56	12,8	15,0	0,80	-3,02	46,90	-2,93
Kautxua eta plastikoa	6,80	6,87	3,06	5,76	7,87	4,2	11,4	13,25	-3,84	-44,71	193,76
Metalezkoak ez diren bestel. produk. mineralak	3,11	3,12	4,96	2,52	3,16	14,9	10,1	-4,80	-0,52	6,97	-42,40
Metalurgia eta produktu metalikoak	27,11	34,16	21,51	25,89	4,59	5,9	1,3	4,39	-4,90	-4,09	1.185,52
Prod. informatik. eta elektroniko. eta optikoak	2,06	2,62	2,45	1,43	2,23	8,8	8,5	12,09	-0,88	35,63	307,72
Material eta ekipo elektrikoa, etxeko tresna (elektrikoa)k barne	5,37	5,83	4,05	5,39	7,87	6,5	13,5	-1,52	-3,10	-22,33	24,03
Makinak eta ekipamen.	9,09	9,95	5,22	6,97	7,88	4,9	7,9	2,86	-1,86	-39,89	38,19
Garraiorako materiala	8,85	8,19	4,71	10,37	11,13	5,4	13,6	5,85	-1,25	-22,53	28,48
Altzariak eta bestelako manufaktura	4,69	6,93	2,05	2,98	2,33	2,8	3,4	4,38	-0,86	-36,12	16,62
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	11,56	1,12	18,91	10,98	14,78	158,9	131,9	-4,80	-4,03	30,79	-37,35
Ur eta saneamendu hornidura	2,85	2,63	4,49	1,79	3,41	16,1	12,9	9,77	4,47	-8,29	35,10

\*Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne. Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika

INEk 2012ko otsailan emandako datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuta 2011. urtean IPIren (indize orokorra datu gordinetan) batez bestekoak % -1,8ko aldakuntza izan zuen estatuan. INEK EAerako ezarri duen batez bestekoa ez dator EUSTATEk ezarritakoarekin bat, % -1,2koa baita.

EUROSTATEko datuen arabera, 2011ko abenduko datuak 2010eko abendukoekin alderatuz gero (egutegi-efektua zuzenduta), industria-ekoizpena % 1,8 erori da euro-gunean eta 27en EBN; Espainian, aldiz, % 5,1 erori da.

IPIren (datu gordinak) sektorekako azterketatik ondorioztatzen denez, EAeko hiru industria-sektorerik garrantzitsuenetatik, hau da, Metalurgia, Makina eta

ekipamendu eta Garraiorako materialaren arloetatik, azken biak suspertu egin dira 2011n eta % 12,8ko eta % 9,8ko aldakuntza-tasa izan dute hurrenez hurren (2010ean % -5 eta % 7koak izan ziren). Metalurgiaren kasuan, aldiz, hazkundera % 6,1ekoa izatetik % 1ekoa izatera igaro da. Industriako ondasunen prezioei dagokienez, EUSTATEN arabera, Industriako Prezioen Indizeak (IPRI) gure erkidegoan urteko % 7,6ko gehikuntza izan zuen batez beste 2011n, aurreko urteko % 3,4ko hazkunderaren aldean.

Urteko batez besteko hazkundera, bereziki, Industria Kimikoan eta Energia elektriko, gas eta lurrunaren arloan IPRIk izandako gorakadaren ondoriozkoa da (% 21,7 eta % 22,1, hurrenez hurren).

## I.2.17. Koadroa. EAEko sektore nagusietako magnitudeak

	Enplegua		BEG ald.		Inbertsioa		Negozioen kopuru garbia		Zerga ondorengo emaitzak	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
<b>METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK</b>										
25/26 Siderurgia/Burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena	12.837	12.636	807.541	900.575	142.879	170.824	4.845.108	5.910.043	31.304	-5.917
27 Metalen galdaketa	8.123	7.983	362.422	406.268	45.125	40.209	1.090.183	1.223.605	-14.491	-6.072
28 Metalezko eraikuntza	13.328	12.729	586.029	548.318	50.019	30.952	1.514.727	1.382.394	2.789	-40.395
29 Forjaketa eta estanzazioa	6.803	6.350	348.936	375.163	48.359	30.215	1.110.880	1.231.754	12.432	64.782
30 Ingeniaritza mekanikoa	19.305	18.284	827.176	863.851	80.638	93.539	1.714.193	1.781.969	-27.588	22.912
31 Metalezko artikulua	18.201	16.762	850.161	854.315	94.617	77.031	2.335.860	2.311.739	3.353	64.948
<b>MAKINAK ETA EKIPAMENDUA</b>										
35 Erabilera orokorreko makinak	17.432	17.242	1.023.859	1.084.767	143.199	87.905	2.966.449	2.997.742	107.610	163.590
36 Makina-erreminta	4.758	4.536	263.441	239.315	35.490	19.513	877.416	727.928	17.109	8.762
<b>GARRAIORAKO MATERIALA</b>										
37 Ibilgailu motordunak fabrikatzea	10.721	10.582	562.913	664.401	67.956	54.550	2.338.530	3.050.804	-2.281	78.736
38 Ontzigitza	1.387	1.186	126.192	100.797	15.547	7.283	668.362	561.251	31.323	20.850
39 Garraiorako bestelako materiala	6.040	6.154	528.493	523.678	41.744	35.191	1.736.616	1.933.492	160.405	143.821

Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika.

## I.2.18. Koadroa. Industriak EAE-n duen eduki teknologikoa ELGA-ren sektoreen arabera

	2009	2010	Pisua 2009an	Pisua 2010ean	2009-10 aldakuntza
<b>ENPLEGUA (kopurua)</b>					
Guztira	225.337	218.819			-2,9
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	65.825	64.775	29,2	29,6	-1,6
Maila teknologiko altua	8.592	8.545	3,8	3,9	-0,5
Maila teknologiko ertain-altua	57.233	56.230	25,4	25,7	-1,8
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	150.677	145.141	66,9	66,3	-3,7
Maila teknologiko ertain-baxua	108.867	104.607	48,3	47,8	-3,9
Maila teknologiko baxua	41.810	40.534	18,6	18,5	-3,1
Sailkatu gabe	8.835	8.903	3,9	4,1	0,8
<b>BEG ald. (euroak, milaka)</b>					
Guztira	14.074.809	14.563.855			3,5
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	3.976.385	4.137.647	28,3	28,4	4,1
Maila teknologiko altua	462.130	506.551	3,3	3,5	9,6
Maila teknologiko ertain-altua	3.514.255	3.631.096	25,0	24,9	3,3
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	7.826.355	8.228.056	55,6	56	5,1
Maila teknologiko ertain-baxua	5.689.769	6.052.704	40,4	41,6	6,4
Maila teknologiko baxua	2.136.586	2.175.352	15,2	14,9	1,8
Sailkatu gabe	2.272.069	2.198.152	16,1	15,1	-3,3
<b>SALMENTAK (euroak, milaka)</b>					
Guztira	49.226.282	53.469.783			8,6
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	13.369.518	14.258.432	27,2	26,7	6,6
Maila teknologiko altua	1.439.103	1.505.320	2,9	2,8	4,6
Maila teknologiko ertain-altua	11.930.415	12.753.112	24,2	23,9	6,9
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	29.373.668	32.145.779	59,7	60,1	9,4
Maila teknologiko ertain-baxua	22.195.462	24.631.556	45,1	46,1	11,0
Maila teknologiko baxua	7.178.206	7.514.223	14,6	14,1	4,7
Sailkatu gabe	6.483.096	7.065.572	13,2	13,2	9,0
<b>PRODUKTIBITATEA</b>					
Guztira	-11,8	6,6			
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	-9,6	5,7			
Maila teknologiko altua	-12,1	10,2			
Maila teknologiko ertain-altua	-9,3	5,2			
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	-16,1	9,1			
Maila teknologiko ertain-baxua	-20,1	10,7			
Maila teknologiko baxua	-2,8	5,0			

Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika.

EAEko oinarritzko hiru industria sektoreetako bakoitzaren IPRIari dagokionez, hirurek ere hazkunde-tasak izan dituzte: Metalurgia eta produktu metalikoak, % +3,4; Makinak eta ekipamendua, % +2,7; eta Garraiorako materiala, % +2.

Ondasunen destino ekonomikoaren arabera, energiaren prezioa % 21,9 gehitu da aurreko urteko joerarekin jarraituz (orduan % 11,7 hazi zen), bitarteko ondasunena % 6,1 gehitu da (aurreko aldian % 3,2), eta kontsumoko eta ekipamendu ondasunena ere aurreko urtean baino gehiago areagotu da, % 2,4 eta % 2, hurrenez hurren (2010. urtean % 0,2 eta % 0,1).

INEk 2012ko urtarrilean argitaratutako behin-behineko datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuta EAEko IPRIK % 5,3ko urteko aldakuntza-tasa izan du 2011. urtean. Estatuan indize hori % 5,2 izan da.

EUROSTATen datuen arabera, Estatuko IPRI (datu garbietan) % 6,6 aldatu da 2010 eta 2011 artean; 27EBkoa % 4,5 aldatu da eta 17Eurogunekoa, aldiz, % 4,2.

EUSTATEN Industria Estatistikako 2010. urteari buruzko azken datuek adierazten dute 2009. eta 2010. urteen artean industriaren sektorearen balio erantsiak % 3,5eko hazkunde nominaleko tasa erregistratu zuela, eta enplegua % 2,9 jaitsi zela. Bestalde, inbertsioa % 6,02 jaitsi zen eta zergen ondorengo eragiketa jarraituen emaitzak % 16,4 igo ziren.

Ekoizpena eta enplegua kontuan hartuz gero, Metalurgia eta produktu metalikoak, Makinak eta ekipamendua eta Garraiorako materiala dira, oraindik ere, gure ekonomiako oinarritzko arloak, baina guztiek ere beherakada izan dute enpleguari eta inbertsioari dagokionez; ez da gauza bera gertatu faktoreen kostuaren eta zergen ondorengo emaitzen BEGari dagokionez.

Sektoreok jarduera-arloa bananduz gero, Metalurgia eta produktu metalikoen arloa honakoetan banatzen da: Siderurgia, burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena, metalen galdaketa, metalezko eraikuntza, forjaketa eta estanpazioa, ingeniari mekanikoa eta metalezko artikulua; eguneko prezioen BEG industrialaren % 27,1 da, enpleguaren % 34,2, inbertsioaren % 21,5 eta negozio kopuru garbiaren % 25,6 biltzen ditu. Arlo honek beherakada izan ditu enpleguari (% -4,9) eta inbertsioari (% 4,1) dagokionez, eta hazkundera izan du, aldiz, BEG ald. eta zerga ondorengo emaitzetan.

Makineria eta ekipamendua arloan sartzen dira: Erabilera orokorreko makinak eta Makina-erreminta; industriako BEGaren % 9,1, enpleguaren % 10, inbertsioaren % 5,2 eta negozio kopuru garbiaren % 7,9 biltzen du, eta beherakada izan ditu bai enpleguari (% -1,9) zein inbertsioari (% 39,9) dagokionez, baina hazkundera izan du BEG ald. eta zerga ondorengo emaitzetan.

Garraiorako materiala. Bertan hauek egongo lirateke: Motordun ibilgailuen fabrikazioa, Ontzizintza eta Garraiorako bestelako materialak; industriako BEGaren % 8,9, enpleguaren % 8,2, inbertsioaren % 4,7 eta negozio kopuru garbiaren % 10,4 biltzen du, eta beherakada izan ditu bai enpleguari (% -1,3) zein inbertsioari (% 22,5) dagokionez, baina hazkundera izan du BEG ald. eta zerga ondorengo emaitzetan.

Idazpuru honetan biltzen diren taulek erakusten duten BEG, enplegu, inbertsio, negozio-kopuru eta zerga ondorengo emaitzen inguruan egindako sektorekako azterketatik ondoriozta daitekeenez, jarduera-azpisektore ezberdinek ez dute eboluzio homogeneorik izan.

Eduki teknologikoari dagokionez, eta EUSTATEk erabiltzen duen ELGaren sailkapena gorabehera, maila teknologiko altuak aireontziak eta espazio-ontziak, farmaziako produktuak, bulegoko makineria eta ekipamendu informatikoa, material elektronikoa eta ekipamendu eta tresna mediko-kirurgikoak eta doitasunezkoak hartzen ditu. Maila baxuak mota ezberdinetako manufakturak eta birziklapena, paper egurra eta paperezko produktuak, elikadura produktuak, edariak eta tabakoak, oihal produktuak, jantzizintza, larru produktuak eta oinetakoak hartzen ditu. Ertain-altuan hauek hartzen dira: makineria eta ekipamendu elektrikoak, ibilgailu motordunak, produktu kimikoak farmaziakoak salbu, bestelako garraio materialak eta makineria eta ekipamendu mekanikoak. Ertain-baxuan, aldiz, hauek: ontziak, kautxu produktuak eta gai plastikoak, petrolio fintzeko produktuak eta burdinazko metalak eta burdinazkoak ez direnak, produktu metalikoak eta metalikoak ez diren produktu mineralak.

EUSTATEN datuen arabera, 2009 eta 2010 urteetako enplegua alderatuz gero, eduki teknologiko altua eta ertain-altua duten sektoreetan gorakada igarri da; BEG ald. kontuan hartuz gero, aldiz, eduki altua eta ertain-baxua duten sektoreek egin dute gora; eta salmentei dagokionez, eduki ertain-baxua duten sektoreen garrantzia areagotu da, eta gutxi gora behera antzeko mantendu dira eduki altua eta ertain-altua duten sektoreak.

Nabarmendu beharra dago maila teknologikorik altuena duten sektoreek izan dutela BEG hazkunderik handiena eta enplegu-murrizketarik txikiena, eta maila teknologiko baxuko sektoreek, aldiz, kontrako bilakaera izan dutela.

Halere, aintzat hartu behar dugu zenbait egile ñabardurak egiten hasi direla ELGak erabiltzen duen intentsitate teknologikoaren araberako sailkapen sektorialean, jarduera produktiboek eboluzionatzen dutelako eta ez direlako egoten teknologia jakin batzuen mende. Zientziak eta teknologiak ehundura produktibo osoan zehar eta industria tradizionalako sektoreetan zabaltzen dira. Adibidez, ibilgailuen eta makinaren sektoreek gero eta patente gehiago dauzkaten elektronikaren sektorean. Oro har, teknologia txikikotzat hartzen diren sektoreak haien erabiltzaile nagusiak dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuz.

#### 2.1.4. Eraikuntza


Eraikuntzak, 2012ko otsailean argitaratutako Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, EAEko 2011ko eguneko prezioen BEGaren % 6,6 hartzen du (4.398,5 milioi euro), 2010. urtean baino ehuneko 1,2 puntu gutxiago. Halaber, enplegu osoaren % 7,9 hartzen du (76.214 lanpostu), aurreko urtean, 82.617 lanposturekin, enplegu osoaren % 8,5 hartu zuen bitartean.

Datuen iturri horren arabera, eraikuntza sektoreak 2011n % 5,3 egin du behera BEGaren termino errealetan.

Eraikuntzaren hiruhileko eboluzioaren profilak beherakada mailakaturak erakusten du, eta laugarren lauhilekoan suspertu egin da. Gauzak horrela, urtea % -4,6ko tasarekin hasi zuen, eta berriro egin zuen behera hurrengo bi hiruhilekoetan: % -5,6 eta % -6; laugarren hiruhilekoan beherakada moteldu egin zen: % -4,8.

Eraikuntzaren BEGaren urteko batez besteko txikitzea EAEn Estatuan igarritakoa baino handiagoa da; Estatuan % 3,8 murriztu da, INEren arabera.

### I.2.5. Grafikoa. Eraikuntzako adierazle nagusien eboluzioa. Datu zuzenduak



Iturria: Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoak.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen hiru hilez behingo kontu ekonomikoek haren erorketa erakusten dute gure erkidegoan: 2011. urteko lehen hiruhilekoan aldakuntza-tasa negatiboa, % 5,8koa, izan zen, eta laugarrenean % -9,7koa. Urteko batez besteko aldakuntza % -7,8 izan zen, aurreko urtekoa baino 9 hamarren txikiagoa alegia. Sektorearen produktibitatea % 0,7 hazi da.

*Eraikuntzaren Koiuntura Indizeari* dagokionez, urteko batez besteko aldakuntza 2011. urtean % -10,4an kokatzen da. Eraikuntzan izandako beherakada (% -11,2) obra zibilean izandakoa (% -8,7) baino handiagoa izan da. Enpleguak erregistratu duen urteko batez besteko aldakuntza % -8,2koa izan da.

EUROSTATEko datuen arabera, 2011ko abenduko datuak 2010eko abendukoekin alderatuz gero (egutegi-efektua zuzenduta), eraikuntzaren ekoizpen-indizea % 12,9 erori da euro-gunean eta % 9,4 27en EBn; Espainian, aldiz, % -4,6 erori da.

Bestalde, EUSTATen datuen arabera, EAEko BPGaren deflatoreak % 1,6ko tasarekin amaitu du laugarren hiruhilekoa urteko erdiko hiruhilekoetan beherakada jasan ondoren. Urteko batez bestekoa % 0,7 da.

### 2.1.5. Zerbitzuak

EUSTATEk 2012ko otsailan argitaratutako Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, zerbitzuen sektoreak 2011. urtean BEGaren % 60,7 hartzen zuen (40.624,8 milioi euro), eta EAEko enpleguaren % 67,8 (655.689 enplegu batez beste urtean). Bertan, merkatuko zerbitzuek sektore honen % 82,2 hartzen dute, BEGaren kopuruei dagokienez.

EAEko zerbitzuen sektoreko balio erantsi erreala % 0,9 hazi da 2011. urtean (aurreko urtean hazkundera % 0,6koa izan zen). Merkatukoak diren eta ez diren zerbitzuen arteko bereizketa ginez gero, ikus daiteke lehenengoek % 0,9ko beherakada izan dutela eta bigarrenek % 1,1ekoa. 2010. urtean, lehenengoak % 0,1 murriztu ziren eta bigarrenak % 2,8.

EAEn, sektore osoaren BEGaren gehikuntza erreala (EUSTATen arabera, % 0,9) txikiagoa da estatukoa baino (INERen behin-behineko datuen arabera, % 1,1 gehitu da estatuan).

EUSTATen datuen arabera, gure erkidegoan zerbitzu sektoreko enplegua % 0,9 hazi da, aurreko urteko ehuneko berean, alegia. Produktibitatea % 0,1 hazi da.

Deflatoreak, aldiz, hazkunderako joera izan du: hasi % 0,9 lehen hiruhilekoan eta laugarren hiruhilekoan % 3,1ekoa izatera iritsi arte.

Zerbitzuen sektorearen barruan, azpimarragarria da oraindik Enpresei emandako Zerbitzuen eta Merkataritza eta Konponketen adarren pisu handiagoa, bai BPGaren kopuruetan, bai enplegukoetan. Gauzak horrela, lehenengo Zerbitzuen Sektoreko BPG arrunt osoaren % 27,4 da (2010eko datua) eta enpleguaren % 19,9 (2009. urteko datua); eta bigarrena % 16,9 eta % 21,1 da hurrenez hurren.

2007. eta 2010. urteen artean, enpresei emandako zerbitzuen sektoreko BPGak urteko batez besteko hazkundera eduki du kopuru errealetan, % 3,4koa hain zuzen, eta prezioak murriztu egin dira urteko % 0,1eko batez besteko tasarekin. Enpleguari dagokionez, hazi egin da 2007. eta 2009. urteen artean, urteko % 0,3ko batez besteko tasan. Bestalde, Merkataritzaren eta Konponketen sektoreko BPGak, kopuru errealetan, % 0,7ko batez besteko hazkunde-tasa erakusten du 2007. eta 2010. urteen artean, eta prezioak areagotu egin dira urteko % 0,7ko batez besteko tasan. Enpleguari dagokionez, jaitsi egin da 2007. eta 2009. urteen artean, urteko % 1,9ko batez besteko tasan egin ere.

Bigarren talde bat Garraio eta komunikazioen azpisektoreak eratzen du; haren pisua zerbitzuen sektoreko BPG osoaren gainean, lehenengo kasuan, %

### I.2.19. Koadroa. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera

	Eraikuntzaren koiuntura indizea. Urteko batez besteko hazkundera				Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. (Datu zuzenduak) urte arteko aldakuntza tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua. Datu deset.	BPG bolumen kateatua	Lanpostuak	Produktibitatea	Deflatorea
2008	1,8	-2,0	10,0	-3,2	-5,8	-5,0	-0,9	3,8
2009	-12,2	-15,0	-6,9	-7,4	-7,4	-7,9	0,6	-3,1
2010	-16,9	-13,6	-22,5	-8,3	-9,8	-6,9	-3,1	0,1
2011p	-10,4	-11,2	-8,7	-8,2	-5,3	-7,8	2,7	0,7

b-b: Behin-behineko datuak.  
Iturria: EUSTAT.

**I.2.20 Koadroa. Zerbitzuen sektorearen bilakaera (urte arteko aldakuntza tasak)**

		Zerbitzuen BEG. Bolumen-indizea			Lanean ari diren langileak	Deflatorea
		Guztira	Merkatukoa	Ez merkatukoa		
2008	1. hiruh.	3,6	3,2	5,3	2,9	3,7
	2. hiruh.	3,4	2,8	6,4	3,1	3,2
	3. hiruh.	3,4	2,5	8,3	1,3	3,1
	4. hiruh.	2,6	1,6	7,6	1,1	2,5
2009	1. hiruh.	1,1	-0,1	7,0	-0,4	2,5
	2. hiruh.	-0,3	-1,5	5,6	-1,3	2,4
	3. hiruh.	-0,5	-1,2	2,9	-0,3	1,7
	4. hiruh.	-0,6	-0,8	0,5	-0,2	1,1
2010	1. hiruh.	0,6	0,4	1,5	0,2	0,2
	2. hiruh.	0,9	0,5	2,8	0,8	0,3
	3. hiruh.	0,4	-0,2	2,9	1,3	0,8
	4. hiruh.	0,5	-0,2	4,0	1,1	0,5
2011	1. hiruh.	0,8	0,8	1,1	1,5	0,9
	2. hiruh.	1,0	1,0	0,9	1,1	1,7
	3. hiruh.	1,3	0,9	2,9	0,7	1,8
	4. hiruh.	0,6	0,8	-0,3	0,2	3,1

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Iturria: EUSTAT.

**I.2.21. Koadroa. Zerbitzuen sektorearen egitura eta bilakaera EAE-n**

	EGITURA										urteko aldakuntzaren %		
	Urteko BPG					Enplegua					BPG*	Prezioak	Enplegu.
	2006	2007	2008	2009	2010	2005	2006	2007	2008	2009	2007-2010	2007-09	
21. Merkataritza eta konponk.	18,1	17,8	17,5	16,8	16,9	23,1	22,7	22,2	21,8	21,1	0,7	0,7	-1,9
22. Ostalaritza	6,1	6,2	6,0	6,2	6,4	8,2	8,4	8,3	8,3	8,4	1,0	3,4	1,0
23. Garraioak eta komunikazioak	11,6	11,4	11,2	11,1	10,9	8,3	8,3	8,4	8,4	8,0	0,3	1,2	-1,4
24. Bankua eta aseguruak	10,3	10,4	10,4	10,1	10,1	3,4	3,4	3,3	3,3	3,3	-0,1	2,1	0,0
25. Enpresentzako zerbitzuak	27,1	27,3	27,6	27,6	27,4	19,4	19,8	20,1	19,9	19,9	3,4	-0,1	0,3
26. Administrazio Publikoa	7,7	7,5	7,7	7,6	7,5	8,9	8,7	8,6	8,6	8,8	2,5	0,3	1,6
27. Hezkuntza	6,5	6,6	6,6	7,0	7,0	9,8	9,8	10,0	10,2	10,7	5,2	0,1	4,2
28. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7,9	8,1	8,4	8,8	8,9	7,7	7,6	7,9	8,2	8,6	7,1	-0,7	5,0
29. Zerbitzu pertsonalak	4,1	4,0	3,9	4,1	4,1	6,7	6,8	6,6	6,6	6,6	3,1	1,1	0,5
30. Etxeko zerbitzua	0,8	0,7	0,7	0,7	0,8	4,5	4,6	4,5	4,5	4,7	2,9	2,0	2,8
Zerbitzuak guztira (BEG milioika eurotan eta enplegua milaka pertsonatan)	33.365,20	36.044,70	38.392,10	39.096,2	39.496,7	597,2	615,5	635	648,1	644,5	2,4	0,7	0,8

\* BPG erreala (bolumen kateatuan). Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.

10,9koa izan zen 2010. urtean, urteko % 0,3ko batez besteko hazkundearekin 2007. eta 2010. urteen artean. Halaber, Bankuek eta aseguruak (zerbitzuen BPGaren % 10,1 2010. urtean) urteko % -0,1eko batez besteko aldakuntza-tasa eduki zuten 2007. eta 2010. urteen artean (zerbitzuen sektoreko batez bestekoa % 2,4koa izan zen epealdi horretan).

2007. eta 2010. urteen artean zerbitzuen sektorean prezioek izandako urteko batez besteko hazkundera % 0,7koa izan da.

**Merkataritza**

Merkataritzaren eta konponketen sektoreak, EUSTATen Kontu Ekonomikoek emandako azken datuen arabera, EAEko BPGaren balioaren % 10,2 inguru hartzen du

(6.692 milioi euro, 2010. urteko datua) eta enpleguaren % 13,9 inguru (135.829 lanpostu guztira, 2009. urteko datua).

2011. urtean salmentek beherakada izan dute. Jaitsiera hori kontsumoa moteldu delako gertatu da, izan ere, kontsumo pribatua % 0,9ko aldakuntza-tasa izatetik % 0,6koa izatera igaro da. Prezioak, aldiz, igo egin dira eta horrek ere eragina izango zuen kontsumoaren dezelerazioan eta, beraz, baita salmenten jaitsieran ere.

Gauzak horrela, aldaketarik gabeko prezioetan egindako Barne Merkataritzako salmentak % 2,7 murriztu dira 2011. urtean. Handizkako merkataritzako salmentak % 2 erori dira termino errealean (aldaketarik gabeko prezioetan), eta txikizkako merkataritzakoak, aldiz, % 4 murriztu dira (% -3,5 zerbitzuguneak kontuan hartu gabe<sup>3</sup>).

<sup>3</sup> Europako sailkapen berrira (NACE 2. ber) eta nazioan dagoen horren bertsiora egokitzean (EJSN 09) Barne Merkataritzaren Indizean aldaketak egin dira. Aldaketarik garrantzitsuenak da ibilgailuen establezimendu espezializatueta egindako industriarako erregaiei txikizkako merkataritzaren jarduerak (gasolina zerbitzuguneak) Txikizkako Merkataritzaren azpisektorean sartu izana.

### I.2.22. Koadroa. Barne merkataritzako salmenten indizearen eta merkataritzan lanean ari diren pertsonen indizearen eboluzioa \*

	SALMENTA INDIZEA						LANEAN HARTUTAKO PERTSONEN INDIZEA		
	Indize orokorra	Handizkako	Txikizkako	Txikizkako, zerbitzugun. kontuan hartu gabe	Prezioak	Etxeen azkeneko kontsumoa	Guztira	Handizkako	Txikizkako
2007	3,1	3,8	1,8	1,8	3,5	3,6	2,5	2,3	2,5
2008	-4,3	-5,2	-2,8	-2,2	4,1	0,6	0,9	0,5	1,1
2009	-9,1	-12,1	-3,7	-3,4	-5,6	-3,9	-3,5	-4,0	-3,2
2010	2,8	5,0	-0,5	-0,2	2,8	0,9	-0,5	-1,5	0,2
2011	-2,7	-2,0	-4,0	-3,5	4,5	0,6	-1,5	-1,1	-1,7

(\*) Urteko batez besteko hazkundeak prezio iraunkorretan.  
Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea" eta "Kontu Ekonomikoak".

### I.2.23. Koadroa. Handizkako eta txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen bilakaera sektoreka\*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nekazaritzako eta elikadurako prod.	Elikadura. ez diren kontsumo. beste artikulatu batzuk	Prod. semi-elaborados; chatarra	Makineria eta ekipamendua	Espezializatua	Elikagaiak	Pertsonaren ekipamendua	Etxeko ekipamendua	Kontsumoko beste ondasun batzuk	Ez espezializatua	Elikadura nagusi	Gainerako produktuak nagusi
2007	2,0	5,9	0,5	13,2	1,8	-3,7	5,1	-0,4	2,6	1,7	1,4	3,3
2008	-0,9	-0,9	-9,6	-4,3	-3,1	-4,7	3,7	-6,9	-5,9	-2,1	-1,2	-7,0
2009	-3,2	-3,0	-18,3	-18,7	-3,5	-8,6	-1,6	-2,2	-4,1	-4,2	-4,3	-3,4
2010	-1,9	1,6	14,6	-1,8	-0,2	0,8	0,5	1,1	-2,0	-1,2	-1,0	-2,3
2011	0,8	-2,8	-4,4	0,8	-4,4	-4,7	-2,9	-5,5	-5,1	-2,9	-1,9	-9,0

(\*) Urteko batez besteko hazkundeak prezio iraunkorretan.  
Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea".

Indize horren okupazio-datuak erakusten dute sektorean enplegua murriztu dela 2011. urtean, % 1,5 hain zuzen ere. Aurreko denboraldian, berriz, beherakada % -0,5koa izan zen. Handizkako eta txikizkako merkataritza bereiztuz gero, lehenengoaren enplegua % 1,1 murriztu da eta bigarrenarena % 1,7.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren eta espezializatu gabearen artean bereizketa eginez gero, ikusten dugu lehenengo kasuan gehiago murriztu direla salmentak bigarrenaren baino. Merkataritza espezializatuaren salmentak % 4,4 beheratu dira eta espezializatu gabeko merkataritzaren salmentak, aldiz, % 2,9.


Handizkako merkataritzari dagokionez, 2010 eta 2011. urteen artean Makinen eta ekipamenduen hobekuntzak nabarmendu behar dira, izan ere, sektorea % -1,8ko aldakuntza tasatik % +0,8ra igaro da. Nekazaritzako produktuak eta elikagaietan ere hobekuntza egon da % -1,9tik % +0,8ra igarotzean.

#### Ostalaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek emandako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGaren balioaren % 3,9 inguru hartzen du (2.525,4 milioi euro, 2010. urteko datua) eta enpleguaren % 5,5 inguru (53.977 lanpostu, 2009. urteko datua).

EUSTATen Establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuek EAEen kokatzen diren hotel erako establezimenduetan (hotelak, aparthotelak, landa eremuko hotelak eta pentsioak) eta nekazaritza turismoko establezimenduetan (nekazaritza turismoko ostatuak eta landetxeak) ostatu hartu duten bidaiariak biltzen dituzte eta EAEko hotel erako establezimenduetan bidaiari kopurua hazi egin dela erakusten dute (2010 eta 2011. urteen artean % 4,8). Gauzak horrela, EAEko hotel

### I.2.6. Grafikoa. EAE n sartzan diren bidaiarien eboluzioa. Hotel erako establezimenduetan.



Iturria: EUSTAT.

erako establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiariak 1.955 mila izan dira (EAEko bidaiariak kontuan hartu gabe). Gorakada hori atzerriko turismoan (% 6,6) nahiz estatukoan (% 3,6) gertatu da.

Bertan pasatako gauen multzoa (EAEko bertakoak kanpo utzita) % 5,1 gehitu da, beraz, batez besteko egonaldia 1,94 egunetan kokatzen da. Estatuko bisitarien kasuan egonaldia 1,96 egunekoak izan da eta Estatutik kanpokoan kasuan, aldiz, 1,91 egunekoak.

EAEko bertako bidaiariak eta horiek egindako gauak zenbatuz gero, batez besteko egonaldia 1,88 egunetan



**I.2.24. Koadroa. Bidaiari kopuruaren, bertan egindako gauen eta batez besteko egonaldiaren bilakaera egunetan EAE-n**

	2008			2009			2010			2011		
	Bidaiariak	Bertan igarotako gauak	Batez besteko egonaldia	B	G	BBE	B	G	BBE	B	G	BBE
Guztira EAE gabe	1.667.790	3.215.495	1,93	1.638.466	3.170.583	1,94	1.866.571	3.608.925	1,93	1.955.327	3.793.633	1,94
Estaturia EAE gabe	1.021.117	1.970.466	1,93	1.035.125	1.995.124	1,93	1.150.543	2.262.749	1,97	1.192.275	2.332.858	1,96
Atzeritarak	646.673	1.245.029	1,93	603.341	1.175.459	1,95	716.028	1.346.176	1,88	763.052	1.460.775	1,91
EAEkoak bertakoak	352.932	577.574	1,64	353.324	572.626	1,62	372.128	605.135	1,63	386.393	641.771	1,66

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

**I.2.25. Koadroa. Bertan igarotako gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-maila**

	Guztira okupaturako plazak (igarotako gauak)	Batez besteko egonaldia egunetan (Estaturia)	Batez besteko egonaldia egunetan (Atzerria)	Batez besteko egonaldia egunetan (Orokorra)	Okupazio-maila plaza bakoitzeko	Okupazio-maila gela bakoitzeko
2008	3.792.091	1,85	1,93	1,88	44,57	54,31
2009	3.743.209	1,85	1,95	1,88	41,66	50,44
2010	4.214.060	1,88	1,88	1,88	43,97	52,19
2011	4.435.404	1,88	1,91	1,89	46,40	54,49

Iturria: EUSTAT.

kokatzen da eta okupazio-maila areagotu egin da berriro ere (% 43,97tik % 46,4ra) plaza bakoitzeko urteko batez besteko kopuruari dagokionez eta % 52,19tik % 54,49ra gela bakoitzari dagokionez.

Direktorioan dauden establezimenduen kopurua murriztu egin da, 452tik 446ra. Irekitako establezimenduetako plaza kopurua, inkestaren arabera, 9.584.009tik 9.559.303ra

igaro da (% -0,26). Logela kopurua, berriz, 5.075.650tik 5.062.860ra jaitsi da (% -0,25).

**Garraioa eta Komunikazioak**

Egoera estrategikoagatik nahiz industria-jarduera altuagatik, EAE Europan mota guztietako trafikoen maila altuenetarikoa ageri duen gunetako bat da. Errepide-sare

**I.2.26. Koadroa. Errepide-sarea bide-motaren eta aldiaren arabera. (Km)**

	2006	2007	2008	2009	2010
ESTATUA					
Errepideen km guztira	166.339	166.011	165.011	165.463	165.787*
Edukiera handiko bideak guztira	13.872	14.689	15.105	15.621	15.965
Bidesaria duten autobideak	2.815	2.972	2.997	3.016	2.991
Autobiak	9.258	10.041	10.521	11.005	11.275
Galtzada bikoitzeko errepideak	1.799	1.676	1.587	1.599	1.703
EAE					
Errepideen km guztira	4.205	4.229	4.203	4.209	4.198
Edukiera handiko bideak guztira	528	573	588	607	598
Bidesaria duten autobideak	211	228	240	256	254
Autobiak	224	261	270	273	281
Galtzada bikoitzeko errepideak	93	84	78	78	63

Iturria: INE errepideen guztirako kilometroen kasuan, eta 2011. urtean argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2010eko urtekaria gainontzekorako.

\* 2011ko abuztuaren 25ean, El Hierro Irlako Kabildoa kontuan hartu gabe.

**I.2.27. Koadroa. Errepide-sarea (Km) mota eta lurraldearen arabera**

	EAE					ESTATUA	
	2006	2007	2008	2009	2010	2009	2010
Km errepide*	4.205	4.229	4.203	4.209	4.198	165.466	165.787**
Biztanleak (udal errolda, INE)	2.141.860	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.184.606	47.021.031	47.190.493
Ibilgailu parkea	1.205.350	1.252.519	1.275.782	1.286.541	1.299.807	30.855.969	31.086.035
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,59	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,96	1,96	1,93	1,93	1,92	3,52	3,51
Ibilgailu parkea / sare osoa	286,6	296,2	303,5	305,7	309,6	186,5	187,5
Ibilgailu parkea / biztanle	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7	0,7

\* Hemen ez da sartu udalen, Defentsa Ministerioaren eta beste erakunde batzuen kargura dauden auzo-bideen luzera. \*\* 2011ko abuztuaren 25ean, El Hierro Irlako Kabildoa kontuan hartu gabe. Iturria: Sustapen Ministerioari dagokien urtekaria eta INE.

trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrei erantzuten saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate altuagoak diren zerbitzuak eskainiz.

Garraio eta komunikazioen sektoreak, EUSTATEN Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAEko BPGaren balioaren % 6,6 inguru hartzen du (4.312,5 milioi euro, 2010. urteko datua) eta enpleguaren % 5,4 inguru (57.717 lanpostu guztira, 2008. urteko datua).

Gure erkidegoko **errepide-sarea** Europako sare trinkoenetako bat da azalerako dentsitate handienetakoa baitu (0,58 km errepide-azalera km<sup>2</sup>-ko, Estatuak duenaren -0,33- bikoitza, nahiz eta biztanleko dentsitate txikiagoarekin). Sarearen % 14,4 baino gehiago edukiera handiko bideek osatzen dute eta Estatuan mota horretako bideak % 9,4 dira (2009ko datuak); edukiera handiko bide horietatik % 42,5 bidesaria duten autobideak dira, eta Estatuan, aldiz, % 18,7 dira bidesaridunak (biak ere 2010eko datuak).

Salgaien errepide bidezko garraioan metodologia-aldaketa bat egon da 2011n, izan ere, udalerrri barruko garraioa sartu da lehenengo aldiz. Gauzak horrela, beste Erkidego batzuen arteko igarotze-garraioa alde batera utzita, salgaien garraioak 97 milioi tona mugitzen ditu: % 46,5 eskualde arteko garraioan, % 41,7 eskualde barrukoan eta gainerakoa udalerrri barrukoan.

Estatu osoan errepidez garraiatutako salgai guztien gainean EAEko garraioak duen ratioa % 6,9koa da.

**Trenbideko garraioari** dagokionez, trenbide-sareak jatorritik eduki dituen sorrera-arazo ugariak (bide-zabalera

### I.2.28. Koadroa. EAE-ko salgaien barne garraioa (mila Tonatan)

		2011
ESTATUAN GARRAIATUTAKO GUZTIA		1.401.429
EAE-N GARRAIATUTAKO GUZTIA		97.030
Joan-etorri mota		
Udalerrri barrukoa		11.427
Eskualde barrukoa		40.501
Eskualde artekoa	Guztira	45.103
	Bidalitakoa	23.064
	Jasotakoa	22.039
EAEk Estatuaren aldean duen %a		6,9*

Iturria: Sustapen Ministerioa. Datu basea.

ezberdinak, estatu mailan trenaren bitartezko garraioa modu erradialean egitea, lotura falta, eta abar) larritu egiten dira gure erkidegoan orografia zaila delako eta egituratze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zaila da. Arrazoi horiek direla eta, EAEn trenaren ez da lehiakorra beste garraio bide batzuen aldean, batez ere hiriburuen arteko loturetan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu baxuak dituelako eta ingurumenari beste garraio modu batzuk baino kalte gutxiago ekartzen dielako.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2010. urtean EAEko trenbide-sarea elektrifikatutako 592,71 kilometro osatzen zuten. Horietatik % 51,4 ADIFena da; enpresa

### I.2.29. Koadroa. Trenbide Km EAE-n

	ELEKTRIFIKATU GABE				ELEKTRIFIKATUTA			
	2009		2010		2009		2010	
	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra
GUZTIRA	47,44	47,44	47,98	47,98	592,71	251,99	592,89	252,00
ADIF (trenbide zabala)	0	0	0	0	304,5	86,80	304,50	86,80
FEVE	41,75	41,75	42,30	42,30	45,91	20,71	45,91	20,71
EUSKO TREN	5,68	5,68	5,68	5,68	242,29	144,49	242,29	144,49

Iturria: 2011. urtean argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2010eko urtekaria.

### I.2.30. Koadroa. Euskotrenen eta Metro Bilbaoren bidaiariak

	2008	2009	2010	2011	2010-11
Eusko Tren Guztira	20.898.398	24.638.334	26.518.183	26.494.162	-0,1
Bizkaia	9.698.594	9.263.776	9.047.821	8.766.677	-3,1
Deustu - Lezama	2.205.520	2.072.941	1.915.064	1.811.246	-5,4
Bilbo - Bermeo	2.099.169	2.003.722	1.949.492	1.775.738	-8,9
Bilbo - Ermua	2.365.443	2.209.681	2.158.413	2.019.590	-6,4
Larreinetako funikularra	181.749	177.980	175.244	161.260	-8,0
Bilboko tranbia	2.846.713	2.799.452	2.849.608	2.998.843	5,2
Gipuzkoa	11.088.624	10.685.276	10.492.521	10.301.839	-1,8
Ermua - Amara	4.059.363	3.872.618	3.863.239	3.758.281	-2,7
Lasarte Oria - Hendaia	6.994.603	6.775.308	6.592.487	6.511.908	-1,2
Azpeitia - Lasao lurrun tren	34.658	37.350	36.795	31.650	-14,0
Araba		4.689.282	6.977.841	7.425.646	6,4
Vitoria-Gasteizko tranbia*		4.689.282	6.977.841	7.425.646	6,4
Metro Bilbao	86.333.743	87.043.712	88.566.281	—	—

\* 2008ko abenduaren 23tik aurrera.

Iturria: EUSTAT.

horrek kudeatzen ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako aldirietako zerbitzuak, eta baita penintsulara doazen ibilbide ertain eta luzeko zerbitzuei loturiko azpiegitura ere. Beste % 40,9 Eusko Trenenak da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea, adibidez), eta gainerako % 7,7 FEVEren bide estuko trenbideei dagokie; enpresa horrek kudeatzen ditu Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Handiko eremuko eskualde arteko loturak.

Ibilbide luzeko lineei eta haiek nazioartearekin dituzten loturei dagokienez, azpimarratzekoa da Irunen Frantziako TGVrekiko dagoen lotunea eta euskal Y-aren proiektua. Azken hori EAERako abiadura handiko trenari lotutako trenbide-trazatu berria da; erkidegoko hiru hiriburuak 30 minutu inguruan eta Madril eta Bordelerekin 2 ordu baino pixka bat gehiagoan lotuko dituela agintzen du. Adierazgarria da EAEn geltoki intermodal bakarra edukitzea, RENFERen mendekoa den Jundizekoa (Araba), alegia. Jundizeko geltokia Europako trafikoa lortzeko lehian da Baionatik gertu dagoen Baiona-Mugerreko pleiteko Zentro europarrarekin. Azken horrek 20 Ha-ko (gehi erreserbako 50 Ha) azalera du, trenbideekiko dituen lotunekin eta autobiderako sarrerarekin batera.

Bilboko Metroak eta Euskotrenek egindako bidaiarien tren-garraioan —horientzat besterik ez baitugu daturik— ikus daiteke Bilboko Metroak garraiatutako bidaiari-kopurua hazi egin dela berriro ere 2009 eta 2010 artean, % 1,7 hazi ere; bidaiariak 88,6 milioi izan dira. Euskotrenek garraiatutako bidaiari kopurua, aldiz, % 0,1 jaitsi zen 2010 eta 2011 artean, linea guztiek garraiatutako bidaiarien kopuruak behera egin baitu Bilboko tranbiak eta Gasteizko tranbiak garraiatutako bidaiarien kasuan izan ezik (horietan bidaiari kopurua % 5,2 eta % 6,4 hazi da, hurrenez hurren).

**Aireko garraioari** dagokionez, EAeko hiru aireportuetatik 4.194 mila bidaiari igaro ziren 2010. urtean, eta hori % 5,8ko gorakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien garraioari dagokionez, epealdi berean bolumena % 5,1 jaitsi da.

Loiuko aireportutik 3,9 milioi bidaiari igaro zen guztira 2010. urtean, eta hori % 6,5eko gorakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien garraioari dagokionez, bolumena % 5,1 jaitsi da epealdi berean.

Forondako aireportuak % 10eko gorakada izan zuen 2009. eta 2010. urteen artean salgaien garraioari dagokionez. Bidaiari-kopuruaren aldetik, trafikoaren bolumena hazi

### I.2.31. Koadroa. Aireko trafikoaren bilakaera kontzeptu, eremu eta aireportuka

	EAE		Foronda		Loiu		Donostia		Aldakuntzak 2009-2010			
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	EAE	Foronda	Loiu	Hondarr.
Aireontziak guztira	58.796	58.454	6.210	5.058	46.102	46.825	6.484	6.571	-0,6	-18,6	1,6	1,3
Bidaiariak guztira (milakoetan)	3.965	4.194	39	40	3.638	3.876	288	278	5,8	2,6	6,5	-3,5
Nazionala	3.021	3.171	37	37	2.697	2.857	287	277	5,0	0,0	5,9	-3,5
Nazioartekoa	944	1.023	2	3	941	1.019	0,6	1	8,4	50,0	8,3	66,7
Salgaiak guztira (Tm)	14.721	15.479	11.736	12.912	2.685	2.548	30	19	5,1	10,0	-5,1	-36,7
Nazionala	4.132	3.889	2.005	1.761	2.100	2.110	27	18	-5,9	-12,2	0,5	-33,3
Nazioartekoa	10.318	11.589	9.730	11.151	585	437	3	1	12,3	14,6	-25,3	-66,7

Iturria: Sustapen Ministerioa.

### I.2.32. Koadroa. Ontziak, bidaiariak eta itsasoko garraioak mugitutako salgaiak, motaren arabera sailkatuta

		2006	2007	2008	2009	2010	2011	%	Aldakuntza %a 2010-11
		Bilbo	Salgaiak guztira (milaka Tm)	38.591	40.023	39.398	32.180	34.666	31.998
	Ontziratutako gabeko likidoak	22.290	22.682	23.057	20.498	19.763	17.855	55,8	-9,7
	Solido solteak	4.989	5.832	5.267	3.828	4.452	4.006	12,5	-10,0
	Edukiontzia	5.629	5.920	6.139	4.757	5.696	6.081	19,0	6,7
	Salgai arruntak	4.300	3.997	3.518	2.522	3.750	3.789	11,8	0,9
	Bestelako trafikoa*	1.383	1.592	1.418	576	1.005	274	0,9	-72,7
	Ontziak guztira (kopurua)	3.693	3.595	3.585	3.042	3.240	2.992		-7,7
	Bidaiariak guztira (kopurua)	185.388	172.626	179.572	166.104	165.024	151.421		-8,2
	Salgaiak guztira (milaka Tm)	5.511	5.078	4.778	3.519	3.896	3.252	100	-16,5
	Ontziratutako gabeko likidoak	0	0	0	0	0	0	0	—
	Solido solteak	3.253	2.784	2.353	1.658	1.657	1.247	38,3	-24,7
	Edukiontzia	0,2	0,0	0,4	0,0	295	0,1	0	-100,0
	Salgai arruntak	2.202	2.240	2.372	1.810	2.181	1.949	59,9	-10,6
	Bestelako trafikoa**	57	54	53	51	58	56	1,7	-3,4
	Ontziak guztira (kopurua)	1.547	1.453	1.320	943	1.086	963		-11,3
	Bidaiariak guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0		—

\* Hornidura eta arrantza.

Iturria: Sustapen Ministerioa. Datu basea.

egin zen 39 mila bidaiaritik 40 mila bidaiarira. Horrek esan nahi du % 2,6ko hazkundea egon zela.

Donostiako aireportuan, 2009. eta 2010. urteen artean, bidaiarien trafikoa % 3,5 erori zen eta salgaiena, aldiz, % 36,7.

**Itsasoko garraioan,** Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2010. eta 2011. urteen artean portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) % 7,7 murriztu zen Bilboko Portuan, aurreko urteko % 7,7ko gorakadaren aurrean, eta 31.998 mila Tm-ra iritsi zen. Horietatik 21.861 mila soltean edo ontziratu gabeak ziren, eta horietatik % 81,7 (17.855 mila Tm) likidoak ziren. Bestela esateko, garraiatutako salgaien % 55,8 ontziratu gabeko likidoak ziren, batez ere petrolio-produktuak, baina azken urteetan beheranzko joera izan dute, bai balio absolutuetan bai osotasunaren gainean.

Ontzien kopurua jaitsi egin da 2011. urtean, eta 2.992ra murriztu dira. Bidaiarien kopurua ere jaitsi egin da, % 8,2 jaitsi ere: 151.421 izan dira urte osoan.

Pasaiako Portuko kopuruak askoz ere murriztagoak dira. Salgaien portuko trafikoa % 16,5 murriztu da aurreko urtean izandako % 10,7ko gorakadaren ondoren, eta 3.252 mila Tm-koa izan da; salgai arrunten trafikoa, solido solteen trafikoa eta horniketara zein arrantza trafikoa murriztu egin dira.

Nabarmena da salgai solido solteen trafikoa izan duen joera-aldaketa, osotasunaren barruan pisua galdu baitu, salgai arrunten mesedetan.

Ontzien kopurua txikitu egin da 2010 eta 2011 artean, eta 963 daude.

### **Finantza-sektorea**

2010. urtean Europako Banku Zentralak egun bateko esku-hartze tipoa egonkor mantendu zuen % 1ean, baina 2011. urtean birritan igo zuen (apirilean eta uztailan, % 1,25 eta % 1,5ean jarri zituen, hurrenez hurren) eta beste

birritan jaitsi zuen (azaroan eta abenduan, % 1,25era eta % 1era, hurrenez hurren).

Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, aldiz, 2010. urtea (eta 2009. urtea) amaitu zuten bezalaxe mantendu dituzte euren esku-hartze tasak, lehenengoak % 0,25arekin eta bigarrenak % 0,1arekin. Diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, esan beharra dago horiek areagotu egin zirela epe guztietan. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,86an zegoen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 1,24an amaitu zuen laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra % 1,09tik % 1,5era igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeterako Euriborra % 1,73an hasi zen eta % 2,05ean amaitu.

Kreditu-entitateek etxebizitzetara emandako tasari dagokionez (UTB), hazi egin da bai kontsumoaren kasuan, % 7,47tik % 9,1ra 2010. eta 2011. urteen artean, baita etxebizitzaren kasuan ere, % 2,66tik % 3,66ra.

Gordailu-entitateek<sup>4</sup> EAEn emandako kreditu osoa txikitu egin da 2011. urtean, 86.884 milioi eurotik 85.956 milioi eurora, hain zuzen (% -1,1). Beherakada hori sektore pribatuari emandako kredituak izandako beherakadaren (% -1,5) ondorioa da, Administrazio Publikoari emandako kreditua hazi egin baita (% +8,3).

Beste sektore egotiarretan kreditu-saldoak erori izanak ziurrenik eragina eduki du ere etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duen kredituaren beherakadan. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago Autonomia Erkidegoetako daturik), magnitude hori % 1,2 murriztu da 2010. eta 2011. urteen artean (620.433 milioi eurotik 612.829 milioi eurora).

Zentzu horretan, INEren Hipoteken Estatistikan argitaratutako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek adierazten dute EAEn esleitutako hipoteken

### **I.2.33. Koadroa. Kreditu-entitateek etxebizitzetara emandako interes-tasa\***

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa)			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Haztatutako batez besteko tasa			Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede batzuk
	Etxebizitza-kreditua	Kontsumo-kreditua***	Beste xede batzuk			
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29

\* Familien zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak. \*\* DMTEk ez ditu komisioak kontuan hartzen, UTBk bai. \*\*\* 2010eko maiatzera arte, hura barne; zutabe honetan sartzen da kreditu-txartelen bidez emandako kreditua.  
Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

### **I.2.34. Koadroa. Gordailu-entitateek sektore publikoari eta pribatuari emandako kreditua (12/31Ko saldoak)**

	Euroak, milioika				EAEko banaketa 2011	Estatua, 2011	Estatuaren gaineko %	Aldakuntzaren % 2010-11
	2008	2009	2010	2011				
Guztira	87.420	83.863	86.884	85.956	100,0	1.798.156	4,8	-1,1
Admin. Publikoa	2.028	2.757	3.562	3.859	4,5	82.996	4,6	8,3
Sektore Pribatua (BSE)	85.391	81.106	83.322	82.097	95,5	1.715.160	4,8	-1,5

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

<sup>4</sup> 2011. urteaz geroztik, Espainiako Bankuak informazioa Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Kreditu-Kooperatiben artean banakatuta argitaratzeari utzi dio.

**I.2.35. Koadroa. Etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duten kredituak Estatuan**

	Miloi €	Aldakuntza-tasak
2007	580.722	14,1
2008	611.483	5,3
2009	611.813	0,1
2010	620.433	1,4
2011	612.829	-1,2

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

kopurua % 21,7 murriztu dela. Hipotekatutako finka kontuan hartuta emandako batez besteko zenbatekoa % 8,4 murriztu da: 151,7 mila euro eman dira, eta aurreko ekitaldian, ordea, 165,6 mila. Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua ere % 23,6 murriztu da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoa % 2,1 erori da (146,3 milioi eurotik 143,2 milioi eurora).

Finantza-entitateetan jarritako gordailuei dagokienez, Espainiako Bankuaren Buletin Estatistikoaren datuen arabera, EAEn Administrazio Publikoak titular dituzten gordailuetako saldoa 2.757 milioi eurokoa izan zen 2011. urtearen amaieran. Kopuru hori bat dator urteko % 44,2ko beharakada-tasarekin. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak (BSE) 72.093 milioi euroan kokatu ziren, eta hori % 2,4ko beharakada izan zen aurreko aldiarekiko.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak izan ditzaketen modalitate ezberdinak (agerikoa, aurrezpena eta

eperakoa) kontuan hartuta aztertuz gero, ikusiko dugu ageriko gordailuek gora egin dutela eta 15.795 milioi eurora iritsi direla (% +13,9), aurrezpen gordailuen saldoak % 14,5 egin duela behera (15.919 milioi euro) eta epekako gordailuen saldoa % 2,4 murriztu dela 40.379 milioi eurora jaitsi arte<sup>5</sup>.

Burtsari dagokionez, Madrilgo Burtsaren kapitalizazioa (442.034 milioi euro 2011n) % 10,7 jaitsi da 2011n aurreko urtearekin alderatuz gero, eta % 45,5 2007. urteko datuekin alderatuz gero; kontratazio-bolumena (926.265 milioi euro) % 10,8 txikitu da 2011n aurreko urtearekin alderatuz gero, eta % 44,5 2007. urteko datuekin alderatuz gero; IBEX-35 indizea (urteko batez bestekoa: 9.734,6 puntu) % 4,6 jaitsi da 2011n aurreko urtearekin alderatuta, eta % 34,4 2007ko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren 2000 Indizea 1.366,1 puntuan egon da 2011ko abenduan, eta horrek esan nahi du % 15,4ko beharakada izan duela aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 21,3 murriztu da 2011. urtean, 52.506,9 milioi euro, alegia. Beharakada horren jatorria errenta aldagarriak eta errenta finkoak izan duten galera da (% -20,4 eta % -47,5 hurrenez hurren). Kontratazio osotik % 49,7 erosketei dagokie; esan beharra dago % 24,5eko beharakada izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

**Gizarte Zerbitzuak**

Epigrafe hau "Gizarte Babesa EAEn" izeneko Kapituluaren sarreran jorratzen da.

**I.2.36. Koadroa. Landa-finken eta hiri-finken hipotekak EAE-n**

	2009			2010			2011 (behin-behineko datuak)			Aldakuntza		
	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez beste. zenbat. (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez beste. zenbat. (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez beste. zenbat. (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez beste. zenbat. (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	42.626	7.505	176.061	43.384	7.186	165.637	33.979	5.155	151.711	-21,7	-28,3	-8,4
Landa-finkak	1.048	251	239.872	872	156	178.899	781	156	199.744	-10,4	0,0	11,7
Hiri-finkak	41.578	7.253	174.453	42.512	7.029	165.342	33.198	4.999	150.581	-21,9	-28,9	-8,9
Etxebizitzak	27.447	3.960	144.272	30.230	4.421	146.245	23.082	3.306	143.228	-23,6	-25,2	-2,1
Orubeak	1.428	1.499	1.049.947	884	913	1.032.805	628	676	1.076.433	-29,0	-26,0	4,2
Beste hiri finka batzuk	12.703	1.794	141.246	11.398	1.695	148.710	9.488	1.017	107.188	-16,8	-40,0	-27,9

Iturria: INE Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistrozailen Espainiako Elkargoa).

**I.2.37. Koadroa. Sektore pribatuak eta administrazio publikoek gordailu-entitateetan dituzten gordailuak (XII-31ko saldoak)**

	Euroak, milioika			Banak.	Estatua	%a estat. kop. osoaren aldean	Aldakuntzaren %	
	2009	2010	2011				2009-10	2010-11
PRIBATUA ETA PUBLIKOA GUZTIRA	78.640	78.799	74.850	—	1.175.472	6,4	-0,2	-5,0
SEKTORE PUBLIKOA GUZTIRA	4.452	4.937	2.757	—	66.470	4,1	10,9	-44,2
SEKTORE PRIBATUA (BSE) GUZTIRA	74.188	73.862	72.093	100,0	1.109.002	6,5	-0,4	-2,4
Ageriko gordailuak	14.605	13.866	15.795	21,9	267.930	5,9	-5,1	13,9
Aurrezpen gordailuak	17.544	18.624	15.919	22,1	203.004	7,8	6,2	-14,5
Eperako gordailuak	42.037	41.374	40.379	56,0	638.067	6,3	-1,6	-2,4

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

<sup>5</sup> 2011. urteaz geroztik, Espainiako Bankuak informazio hau ere Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Kreditu-Kooperatiben artean banakatuta argitaratzeaz utzi dio.

## 2.2. I+G+B eta IKT jarduerak

### 2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak

**I+G gastuak.** 2010. urtean, Eustaten datuen arabera, 1.360,3 milioi euro inbertitu ziren, aurreko urtean baino % 6,2 gehiago.

EAEko enpresek (zentro teknologiko pribatuak barne direla) I+Gan egikaritutako gastua % 77,1ekoa izan da, aurreko aldiaren baino gehiago (% 76,3).

Enpresek egikaritutako gastu hori sektoreak Estatuan egindakoa baino handiagoa izan da. Izan ere, INEren arabera, estatuko enpresek (IAGEP alde batera utzita) I+G gastuaren % 51,5 egikaritu dute.

Hala ere, zuhurrak izan behar dugu informazio hori interpretatzeko orduan, Frascatiren Eskuliburuko<sup>6</sup> metodologiak talde honetan batez ere finantzabide pribatua daukaten teknologia zentroak sartzen baititu.

EB-27n, erantsitako taulan jasotako datuen arabera, enpresek gastuaren % 64,4 egin dute, baina kasu honetan ere kontuan izan behar dugu lehen azalduetako zehaztasia.

EAEen, soilik enpresek (ZTES-Zientzia eta Teknologiko Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita<sup>7</sup>) I+Gan egikaritutako gastua % 67 izan da.

Bestalde, Zientzia eta Teknologiko Euskal Sareko zentro teknologikoek % 10,1eko gastua egin dute, eta unibertsitatearen partaidetza % 18tik % 17,2ra jaitsi da.

**I+G ahalegina.** Eustaten arabera, 2010. urtean BPGaren gaineko I+G gastua % 2,08koa izan da (% 1,99koa 2009an), EB-27n lortutako balioa baino handiagoa, % 2,01 (2009ko datua), baina taulan azaltzen diren arloko herrialde eredarrietakoa baino txikiagoa.

INEk 2010. urtean EAerako erregistratu duen ahalegina % 1,95ekoa da. Estatuko batez bestekoa % 1,39koa da (% 1,38koa 2009an) eta ratorik handiena autonomia erkidego hauek dute: Madril (% 2,02), Nafarroa (% 1,97), EAE (% 1,95) eta Katalunia (% 1,63). Hazkunde-tasarik handienak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: Balearrak, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa.

**I+G gastuaren finantzaketa (gastua, funtsen jatorriaren arabera).** I+G gaian egindako gastuaren finantzaketari dagokionez, azken urteetan sektore pribatuak edukitako pisua galdu dela ikusi bada ere, sektore pribatua da oraindik ere finantzaketa-iturri garrantzitsua. Hala, sektore pribatuak I+G gastu osoaren % 54 finantzatzen du, hots, 733,9 milioi euro (2009. urteko portzentaje berbera), eta Administrazioak % 40 (iaz ere % 40).

Ondorioz, Lisboako helburutik 12 puntura dago EAE: I+Gan egiten den gastu osoaren % 66 funts pribatuekin finantza dadila.

### I.2.38. Koadroa. Zientzia eta teknologiar buruzko adierazleak 2010 (\*)

	Alemania	Espainia 2010	Frantzia	Italia	Portugal	Erresuma Batua	AEB	Japonia	27-EB	EAE 2009	EAE 2010
I+G gastuak											
Guztira	63.276,3	15.445,1	36.136,1	18.651,2	3.323,9	30.602,2	308.629,7	115.739,6	225.603,5	1.289,9	1.360,2
Langile okupatuekiko (‰)	2,82	1,39	2,21	1,27	1,66	1,87	2,77	3,44	2,01	1,99	2,08
Langileak (DOB)											
Guztira	529.100	222.022	472.171	239.246	52.313	330.299	—	882.739	2.554.862	16.690	17.532
Langile okupatuekiko (‰)	13,0	11,7	17,7	9,7	10,6	11,4	—	14,1	11,5	17,0	18,0
Ikertzaileak (DOB)											
Guztira	311.500	134.653	289.478	101.821	45.909	243.338	—	656.676	1.584.880	10.386	11.071
Langile okupatuekiko (‰)	7,7	7,3	10,9	4,1	9,3	8,4	—	10,5	7,1	10,6	11,4
Gastuaren finantzaketa (%)											
Enpresak	67,3	42,9	50,7	45,2	48,1	44,4	67,3	78,2	54,2	54,0	54,0
Administrazioak	28,4	46,6	38,9	42,9	43,7	30,7	27,1	15,6	34,5	40,1	39,8
Unibertsitateak	0,0	3,9	1,2	1,3	3,6	1,2	2,7	5,1	1,0	2,4	2,2
Bestelako iturriek	0,3	0,7	1,1	2,8	1,7	4,9	3,0	0,7	1,6	0,5	0,3
Atzeritarrek	4,0	5,7	8,0	7,8	3,0	17,7	0,0	0,4	8,6	3,0	3,7
Gastuaren egikaritzea (%)											
Enpresak	68,2	51,5	61,9	51,5	46,7	62,0	72,6	78,5	61,4	76,3	77,1
Soilik enpresek	—	—	—	—	—	—	—	—	—	54,9	67,0
ZTESko zentro teknologikoek	—	—	—	—	—	—	—	—	—	21,4	10,1(**)
Administrazioak	13,7	20,1	16,5	19,2	9,1	9,2	10,7	8,3	13,2	5,7	5,7
Unibertsitateak	22,0	28,3	19,2	30,3	29,9	24,5	13,3	12,7	21,8	18,0	17,2
IAGEPek	1,0	0,2	1,1	0,5	9,5	2,1	4,2	1,9	1,0	0,0	0,0

(\*) Herrialde guztietako 2010 edo eskuragarri egon den azken urteko datuak.


(\*\*) Zientzia eta Teknologiko Euskal Sareko zentroak bakarrik.

DOB= Dediakzio Osoko Baliokidetzak.

Iturria: EUSTAT. Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Jardueri buruzko Estatistika; eta INE.

<sup>6</sup> Frascatiren Eskuliburua (izen ofiziala "Ikerkuntza eta Garapen Esperimentaleko Inkestetarako Arau Praktiko baterako Proposamena" du) ELGaren proposamena da. ELGAK 1963an I+G estatistiketako aditu talde bat batu zuen arau hori idazteko. Gaur egun, erreferentzia bat da arau hori, ikerkuntza eta garapenaren arlokatzat zein jarduerari jo ditzakegun zehazteko.

<sup>7</sup> 2010. urtean, aldaketa handi bat gertatu da datuetan. Ordura arte zentro teknologikoen edo ikerkuntza erakundeen inguruan jasotzen zen informazioak horien guztien informazioa biltzen zuen. Baina 2010. urteaz geroztik, datuak soil-soilik Zientzia eta Teknologiko Euskal Sareko zentro teknologikoek buruzkoak dira. Ondorioz, ez dira konparagarriak "soilik enpresen gauzatzea" eta "zentro teknologikoena" bereizten duten 2010. urtea baino lehenagoko eta geroagoko datuak.

**I.2.7. Grafikoa. langileak eta ikerlariak (biztanleria okupatuaren %)**

Iturria: EUSTAT.

EAEn, INEren datuen arabera, Administrazio Publikoak % 46,6 finantzatzen du, eta sektore pribatuak % 43 (Lisboako helburutik 23 puntura).

EB-27n, Eurostaten datuen arabera, 2009. urtean hurrenez hurreneko portzentajeak % 34,9 eta % 54,1 dira. 2008.

eta 2009. urteetan honako herrialde hauek nabarmentzen dira I+G gastuan finantzaketa pribatuaren ratioa handia izateagatik: Japonia (% 78,2), Hego Korea (% 72,9), Finlandia (% 68,1), AEB (% 67,3), Alemania (% 66,1), Danimarka (% 60,3) eta Suedia (% 58,8).

Kontuan hartzen badugu Eustaten arabera 2010. urtean 65.419 milioi euro zirela EAEko BPGa, orduan sektore pribatuak finantzatutako I+Ga (734 milioi euro) BPGaren % 1,14 da.

Bartzelonako helburuak balioa % 2an zenbatzen du. Bestalde, EAEn Administrazio Publikoak finantzatutako I+Ga (542,3 milioi euro) BPGaren % 0,83 da. Bartzelonako helburuak balioa % 1ean zenbatzen du.

**I+G gastua diziplina zientifikoaren arabera.** Berriro ere ingeniari eta teknologia nabarmentzen dira (gastu osoaren % 69,3); ondoren, oso atzetik, zientzia zehatzak/natura-zientziak daude, % 12rekin; eta zientzia medikoak, osterak, % 10,2 dira. Bestalde, gizarte-zientziak eta nekazaritza-zientziak, hurrenez hurren, % 6,3 eta % 2,2 dira. Funtsen jatorriaren arabera, ingeniari eta teknologiaren arloko ikerketa oraindik ere sektore pribatuak (enpresak eta zentro teknologikoak) finantzatzen du gehienik.

Hala, % 67,5 sektore pribatuak finantzatzen du, eta % 27,5 sektore publikoak. Zientzia medikoetan, zientzia zehatzetan/natura-zientzietan, nekazaritza-zientzietan eta gizarte-zientzietan, justu kontrakoa gertatzen da; izan ere, Administrazioak finantzatzen du, hurrenez hurren, gastuaren % 66,4, % 70,9, % 67,5 eta % 64,3.

**I.2.39. Koadroa. Horma barruko gastuak, diziplina zientifikoaren eta egikaritze-sektorearen arabera, funtsen jatorria kontuan hartuta (euroak, milaka)**

	2009						2010 (*)						Aldakuntza %a 2009-2010					
	Guztira	Datuen jatorria					Guztira	Datuen jatorria					Guztira	Datuen jatorria				
		Admin.	Goi-mailako irakas.	Enpr.	IAGEP	Atzerr.		Admin.	Goi-mailako irakas.	Enpr.	IAGEP	Atzerr.		Admin.	Goi-mailako irakas.	Enpr.	IAGEP	Atzerr.
<b>Total</b>	1.280.917	512.640	31.522	691.653	6.079	1.280.917	1.360.271	542.285	29.981	733.951	4.288	49.766	6,2	5,8	-4,9	6,1	-29,5	-96,1
<b>DIZIPLINA ZIENTIFIKOA</b>																		
Ingeniaritza eta teknologia	893.427	248.816	13.736	596.836	3.611	30.428	943.062	259.420	11.450	636.439	1.720	34.033	5,6	4,3	-16,6	6,6	-52,4	11,8
Gizarte-zientziak	127.776	84.295	1.661	36.450	1.584	3.786	138.019	91.626	2.061	38.323	2.020	3.989	8,0	8,7	24,1	5,1	27,5	5,4
Zientzia zehatzak/natura-zientziak	136.805	98.127	7.587	28.377	348	2.366	162.534	115.252	5.301	34.844	236	6.901	18,8	17,5	-30,1	22,8	-32,2	191,7
Nekazaritza-zientziak	43.621	27.882	116	15.201	19	403	31.363	21.175	118	8.368	5	1.697	-28,1	-24,1	1,7	-45,0	-73,7	321,1
Gizarte-zientziak	79.289	53.521	8.422	14.790	517	2.039	85.293	54.812	11.051	15.977	307	3.146	7,6	2,4	31,2	8,0	-40,6	54,3
<b>EGIKARITZE-ARLOA</b>																		
Admin.	72.610	64.017	2.468	4.857	458	810	77.246	68.550	172	6.655	290	1.579	6,4	7,1	-93,0	37,0	-36,7	94,9
Goi-mailako hezkuntza	230.383	177.761	27.981	19.801	981	3.859	234.486	178.890	29.574	19.609	645	5.768	1,8	0,6	5,7	-1,0	-34,3	49,5
Teknologia zentrorik EZ duten enpresak	703.904	140.780	114	548.402	633	13.975	911.643	237.018	235	644.696	3.135	26.559						
ZTESko teknologia zentroak	274.019	130.082	959	118.593	4.006	20.378	136.895	57.827	0	62.990	218	15.860						

(\*) Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentroak bakarrik  
Iturria: EUSTAT. «I+G jardueri buruzko estatistika».

## I.2.40. Koadroa. Dob langileak, eremu edo diziplina zientifikoaren, lanbidearen eta sexuaren arabera. 2010

	Guztira			Ikertzaileak			Teknikariak			Laguntzaileak		
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
Guztira	17.531,9	11.669,3	5.862,6	11.070,8	7.310,4	3.760,4	5.006,2	3.512,9	1.493,3	1.454,9	845,9	609,0
Zientzia zehatzak	2.060,4	1.114,2	946,3	1.717,7	955,0	762,7	238,0	120,2	117,8	104,8	39,0	65,8
Ingeniaritza	12.205,4	9.015,4	3.189,9	7.096,9	5.198,9	1.898,0	4.032,0	3.098,0	933,9	1.076,5	718,5	358,0
Zientzia medikoak	1.585,3	681,9	903,4	1.020,8	488,4	532,4	455,4	172,1	283,2	109,2	21,4	87,8
Nekazaritza-zientziak	377,5	194,8	182,7	227,0	121,7	105,2	94,8	31,0	63,8	55,8	42,1	13,6
Gizarte-zientziak	1.303,3	663,0	640,3	1.008,6	546,5	462,1	186,1	91,6	94,5	108,6	24,9	83,7

D.O.B.= Dediakzio osoko baliokidetzak

Iturria: EUSTAT. Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Jardueri buruzko Estatistika.

## I.2.41. Koadroa. I+G langileria egikaritze-sektoreko, lanbidearen arabera (\*)

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2009	2010	2009	2010	2010					
	Guztizko bertik. gainerako %	Guztizko bertik. gainerako %	Guztizko gainerako %	Guztizko gainerako %	z	Guztizko horiz. gainerako %	z	Guztizko horiz. gainerako %	z	Guztizko horiz. gainerako %
Guztira	26.664	27.883	9.113	9.408	17.217	62,0	7.795	28,0	2.869	10,0
Enpresak	65,1	66,3	53,5	53,8	10.032	54,0	6.237	34,0	2.209	12,0
Soilik enpresak	51,0	59,1	36,8	45,5	8.496	51,6	5.953	36,1	2.020	12,3
ZTESko teknol. zentroak	14,1	7,2	16,7	8,3	1.536	76,5	284	14,1	189	9,4
Administrazio Publikoa	9,3	8,6	13,7	13,2	1.206	50,0	1.047	44,0	146	6,0
Goi-mailako hezkuntza	25,6	25,1	32,9	33,1	5.979	85,0	511	7,0	514	8,0

(\*) Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko zentroak bakarrik  
Iturria: EUSTAT, I+G jardueri buruzko estatistika.

**I+Gko langileria DOBen.** Goranzko joerari eusten dio. Hala, 2010. urtean 17.532 pertsonara iritsi zen, hots, biztanleria okupatuaren % 18ra (% 17 iaz); Estatuan (% 12), EBn (% 11,6) eta are lurralderik dinamikoetan —Frantzia (% 17,7), Alemania (% 13), Japonia (% 14,1)— izandakoaren halako mila gehiago. Zenbaki absolutuetan, Estatuan 222.022 pertsona dira, EB-27n 2.554.862, Frantzian 472.11, Alemanian 529.100 eta Japonian 882. 739.

Bestalde, ikertzaileak % 11,4 dira (11.071 pertsona zenbaki absolutuetan), eta Estatuan, berriz, % 7,3 dira (134.653 pertsona).

Emakumeak I+G jardueretan duen eginkizuna jaitsi egin da lehenengoz, eta 2008ko ratioaren antzekoa izan du, guztizkoaren % 33,4 (2009an % 34koa izan zen). Ratio hori gizonezkoena baino txikiagoa da oraindik ere (% 33,4 eta % 66,6). Estatuan, INEren arabera, emakumeak langile guztien % 40 dira.

Lanbidea kontuan hartuta (ikertzaileak, langile teknikoak edo laguntzaileak), berriro ere ikusten da emakume ikertzaileek halako jardueretan lanean dabiltzan emakumeen guztizkoarekiko duten proportzioa handiagoa dela gizonezko ikertzaileek beren genero-taldearekiko dutena baino. Gizonen artean, I+G jarduerak egiten dituztenen % 62,7 ikertzaileak dira, eta emakumeen artean portzentaje hori % 64,1 da. Hori ez da Estatuan gertatzen: I+G jarduerak egiten dituzten emakume langileen % 58,3 dira ikertzaileak, eta % 62,2 dira gizonezkoen kasuan.

Diziplina zientifikoaren arabera, emakumeen eta gizonen presentziak orekatzeko joera du, ingeniaritzaren arloan izan ezik; hain zuzen, arlo horretan % 73,9 gizonak dira.

**I+G langileria egikaritze-sektorearen arabera.** Enpresa-sektorean daude langile gehienak (% 59,1); ondotik,

## I.2.42. Koadroa. Patenteak eta eredu baliagarriak EAE-n

	Eskabide kop.			Onartutako kop.		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Patente kop.	171	206	185	169	190	184
Eredu baliagarrien kop.	132	104	122	120	107	119

Iturria: EUSTAT.

goi-mailako hezkuntza-erakundeak (% 25,1), Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko teknologia zentroak (% 7,2) eta Administrazio Publikoa (% 8,6) daude.

Ikertzaile-laguntzaile (teknikariak eta laguntzaileak) bikoteari dagokionez, erlazioa honakoa da: Administrazioan 50-50, goi-mailako hezkuntzan 85-15, enpresa-sektorean 51,6-48,4 eta Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko teknologia zentroetan 76,5-23,4. Zenbaki orokorretan: 62-38.

**Patenteak eta eredu baliagarriak** Azkenik, aipatu behar da patenteen eskabideak eta indarrean dauden patenteak gutxitu egin direla 2009an eta 2010ean: lehenak 206tik 185era igaro dira, eta bigarrenak 190etik 184ra. Eredu baliagarriak, ostera, hala eskatutakoak nola onartutakoak, igo egin dira.

Berrikuntza Adierazleen Panela (IUS 2011) kontuan hartuta beste lurralde-eremu batzuekin alderatuz gero, ondoriozta liteke EAE, EAP patenteen eskabideen adierazlea BPGko bilioiko (EAP eurotan) 1,71koa baitu, Estatu batez bestekotik gora dagoela (1,71) baina EB-27ko batez bestekotik behera dagoela (3,78) eta oso urrun dagoela ereduak herrialdeetatik, hala nola Suediatik (10,53), Finlandiatik (9,57), Alemaniatic (7,04) eta Herbehereetatik (6,39).



**I.2.43. Koadroa. I+G arloko enpresa eta langile kopuruaren bilakaera  
(zentro teknologikoak alde batera utzita)**

	Enpresa kop.					DOB langileak				
	2007	2008	2009	2010	Ald. 2009-10	2007	2008	2009	2010	Ald. 2009-10
	Enpresak, zentro teknologikoak alde batera utzita			ZTESko enpresak, zentro teknologikoak alde batera utzita		ZTESko enpresak, zentro teknologikoak alde batera utzita			ZTESko enpresak, zentro teknologikoak alde batera utzita	
<b>GUZTIRA</b>	1.255	1.412	1.469	1.522		7.874,8	8.684,90	9.097,9	11.461,3	
Lehen mailakoak, aterakuntzakoak eta energiakoak	10	15	15	11		66,3	99,4	130,1	154,1	
Industria	688	751	760	750		4.407,1	4.880,10	5.157,9	5.390,9	
Eraikuntza	30	41	41	41		50,3	77	96,2	131,3	
Zerbitzuak	527	605	653	720		3.351,0	3.638,40	3.713,7	5.785,1	

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerari buruzko estatistika.

**I.2.44. Koadroa. Enpresa-sektorearen adierazleak (ZTESko zentro teknologikoak alde batera utzita), jarduera-arloaren arabera. I+G 2010**

	Enpresen kop.	DOB langileak	Barne gastuaren banaketa		Funts propioen %	Kanpoko funtsen %	Enplegua guztira EAEn	EAEn I+G arloan enplegatutako langileen %
			2009	2010				
<b>GUZTIRA</b>	1.522	11.461,3	703.904	911.643	63,6	36,4	924.886	1,2
Nekazaritza-abeltzaintza eta arrantza, eraztekoak eta energiakoak	11	154,1	13.139	13.192			20.682	0,7
Industria	750	5.390,9	416.490	457.928	74,5	25,5	195.935	2,8
M-A Kimika eta petrolio fintzeko fabrikak	48	308,9	24.879	27.924	84,2	15,8	5.920	5,2
M-B Kautxua eta plastikoa	50	238,5	14.451	15.802	73,9	26,1	14.702	1,6
M-B Industria ez metalikoa	20	76,7	6.338	5.397	87,8	12,2	5.662	1,4
M-B Metalurgia	47	294,4	27.090	23.924	74,7	25,3	20.311	1,4
M-B Produktu metalikoak	163	650,0	57.297	45.127	81,6	18,4	48.495	1,3
M-A Makina-erreminta	36	304,4	20.701	19.913	63,9	36,1	3.937	7,7
M-A Etxetresnak	8	409,8	30.075	33.439	85,6	14,4	3.870	10,6
M-A Bestelako makineria.	112	881,7	59.094	69.593	84,1	15,9	22.081	4,0
M-A Material elektrikoak	52	456,9	34.128	39.196	74,5	25,5	8.388	5,4
A Material elektronikoak	20	309,3	21.791	20.482	74,4	25,6	3.625	8,5
A Doitasun-materiala	34	338,9	13.231	24.860	68,8	31,2	2.966	11,4
M-A Garraio materiala	52	810,8	91.215	111.845	70,1	29,9	17.770	4,6
Beste manufaktura batzuk	108	310,6	16.200	20.426	78,8	21,2	38.208	0,8
Eraikuntza	41	131,3	5.687	8.702	76,3	23,7	87.602	0,1
Zerbitzuak	720	5.785,1	271.406	431.822			620.667	0,9
A Jarduera informatikoak	136	1.080,2	45.116	57.248	66,6	33,4	15.104	7,2
A I+G jarduerak	125	2.591,5	98.840	223.188	38,8	61,2	5.991	43,3
Bestelako enpresa-jarduerak	266	1.168,7	68.752	86.696	60,1	39,9	60.447	1,9
Beste zerbitzu batzuk	193	944,7	58.698	64.690	56,2	43,8	539.125	0,2


Iturria: EUSTAT, I+G jarduerari buruzko estatistika.

**2.2.2. EAEko enpresa-sektorearen I+G+b jarduerak****a) Enpresa-ehun osoaren I+G adierazleak, zentro teknologikoak alde batera utzita**

Eustaten datuen arabera, 2010. urtean 1.522 enpresak egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiko Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 750 industria-sektorekoak dira eta 720 zerbitzuen sektorekoak. Halako jardueretan dedikazio osoz jarduten duten langile enplegatuei dagokienez, industrian eta zerbitzuetan antzeko proportzioa dago: % 47 industrian (5.390,9 DOBen) eta % 50,0 zerbitzuetan (5.785,1 DOBen).

I+G arloko jarduera-arloa alde batera utzita —horren barruan sartzen dira jarduera nagusiztat I+G jarduerak dituzten enpresak (hau da, ingeniariak eta aholkulariak teknologikoak) eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profila, helburuak eta finantzaketa dutenak—, ikusten dugu sektore hauek bideratzen dutela langile gehien I+G jardueretara: doitasun-materiala (langile guztien % 11,4), etxetresnak (% 10,6), material elektronikoa (% 8,5), makina-erreminta (% 7,7) eta informatika-jarduerak (% 7,2). Paraleloki, ikusten da euskal enpresek oraindik ere halako gastuak, portzentaje handi batean, enpresaren beraren funtsekin finantzatzen dituztela.

## I.2.8. Grafikoa. Europako Berrikuntza Panela IUS 2010. EAE eta EB 27



Iturria: EUSTAT eta PRO INNO Europee: INNO-Metrics. Europar Batzordea.

## b) Europako Berrikuntza Adierazleen Panela, IUS 2010

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS 2010) herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da. Hori kalkulatzeko, EBko 27 estatu kideak eta Turkia, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublikak ohia, Serbia, Kroazia, Norvegia, Islandia eta Suitza hartzen dira kontuan.

Eustaten datuen arabera, 2010. urtean, Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria, EAEk 0,45eko balioa lortu zuen. Hala, EB-27ko 15. lekuan dago, batez bestekotik behera (0,52).

EB-27ko herrialdeak lau kategoriatan taldeka daitezke, lortutako puntuazioa kontuan hartuta. Lehenengoan, berrikuntzan aitzindari diren herrialdeen taldean, honako hauek daude: Suedia (0,75), Danimarka (0,74), Finlandia (0,70) eta Alemania (0,70). Europar Batasuneko kide ez direnak ere kontuan hartuz gero, talde horretan sartzen da Suitza ere, 0,83rekin; beraz, berrikuntzaren abangoardian dago.

Bigarren taldean, hots, berrikuntza-maila handia duten herrialdeen taldean, ondoko hauek daude: Erresuma Batua, Belgika, Austria, Herbehereak, Irlanda, Luxenburguro, Frantzia, Zipre, Eslovenia eta Estonia, 0,62 eta 0,45 bitarteko puntuazioekin. Talde horretan dago EAE, azken lekuan bada ere.

Hirugarren taldean, berrikuntza-maila ertaina duten herrialdeen taldean, honako hauek daude: Portugal, Italia, Txekiar Errepublikak, Espainia, Grezia, Malta, Hungaria, Polonia eta Eslovakia.

Eta laugarren taldean, berrikuntza-maila txikia duten herrialdeen taldean, Errumania, Lituania, Bulgaria eta Letonia daude.

Panel berria hiru multzo nagusitan egituratuta dago, eta multzo horien barruan 8 alderdi biltzen dira, guztira 25 adierazle dituztela. EIS 2009aren aldean dauden desberdintasunak handiak dira, hala neurrii dagokienez nola adierazleei dagokienez, eta, beraz, ez dira konparagarriak. Hona egitura:

- Berrikuntza «bideratzaileen» multzoan, «Giza baliabideak», «Ikerketa-sistemak» eta «Finantzaketa eta Laguntza» alderdiak sartzen dira. 8 adierazle ditu:
- «Enpresa-jarduerak» multzoak 3 alderdi ditu, «Enpresa-inbertsioak», «Loturak eta Enpresa-ekimena» eta «Aktibo intelektualak». 9 adierazle ditu:

- «Output» multzoak «Berritzaileak» eta «Ondorio ekonomikoak» alderdiak biltzen ditu. 8 adierazle biltzen ditu.

Multzo eta alderdi bakoitzeko, bai eta indize orokorrerako ere, adierazle sintetiko bat kalkulatu da. Adierazle horren balioa 0 eta 1 bitartekoa da, eta metodologia bera erabiltzen da herrialde guztietarako. Gainera, adierazle bakoitzak erreferentzia gisa urte bera hartzen du herrialde guztietan (2007, 2008 edo 2009, adierazle bakoitzerako ezarritako erreferentziako azken urtearen arabera).

Europako batez bestekoa kontuan hartuta, EAE hiru alderdi hauetan nabarmentzen da: «Giza baliabideak», «Enpresa-inbertsioa» eta «Loturak eta enpresa-ekimena». Gainerako alderdietan, lortutako puntuazioa EBn lortutakoa baino txikiagoa da.

«Giza baliabideak» alderdiak goi-mailako kualifikazioa eta heziketa duten eta libre dauden pertsonak hartzen ditu berrikuntzarako datu giltzarri gisa.

- Hirugarren mailako irakaskuntza (unibertsitatekoa edo goi-mailako lanbide heziketa) egin duten 30-34 urteko biztanleen portzentajea % 41 da, eta Europar Batasuneko batez bestekoa % 32,3 da.

## I.2.45. Koadroa. Europako berrikuntza-adierazleen panela, IUS 2010. Multzoak eta alderdiak

	EB-27	EAE	Espainia
Berrikuntza Adierazleen Panela 2010	0,52	0,45	0,39
<b>BIDERATZAILEAK</b>	<b>0,57</b>	<b>0,50</b>	<b>0,49</b>
Giza baliabideak	0,54	0,57	0,41
Ikerkuntza-sistemak	0,55	0,53	0,55
Finantzaketa eta laguntza	0,63	0,34	0,52
<b>ENPRESA-JARDUERAK</b>	<b>0,46</b>	<b>0,40</b>	<b>0,27</b>
Enpresa-inbertsioa	0,46	0,50	0,26
Loturak eta enpresa-ekimena	0,41	0,43	0,18
Aktibo intelektualak	0,50	0,31	0,35
<b>OUTPUT-AK</b>	<b>0,53</b>	<b>0,44</b>	<b>0,45</b>
Berritzaileak	0,50	0,40	0,33
Ondorio ekonomikoak	0,54	0,45	0,50

Iturria: EUSTAT.

- Gutxienez bigarren mailako irakaskuntza amaitu duten 20-24 urteko biztanleen ehunekoa Europako batez bestekoaren (% 78,6) antzeko mailetara iristen da.

Enpresa-inbertsioak berrikuntzan egindako inbertsio-ahalegina azpimarratzen du, hala I+Gan nola antzeko beste gastu batzuetan egindakoa. Hemen, BPGaren gainean I+Gan egindako gastu pribatuaren ehunekoa nabarmentzen da: % 1,51ekoa da EAEn, eta Europako batez bestekoa % 1,25ekoa.

Lotura eta enpresa-ekimenari dagokionez, hau da, sektore pribatuko enpresen arteko eta enpresa horien eta sektore publikoaren arteko harremanak eta lankidetzak neurtzen dituen alderdiari dagokionez, lortutako emaitzak Europako batez bestekoaren oso antzekoak dira.

Nahiz eta gainerako alderdietan lortutako puntuazioa Europako batez bestekoa baino txikiagoa den, EAEk beste hainbat adierazletan ere lortu ditu Europar Batasunaren antzeko emaitzak, hala nola honako hauetan:

- Nazioarteko kopublikazio zientifikoak.
- EBtik kanpoko doktoareak
- EBko merkataritza-markak, BPGko bilioiko.
- Produktu edo prozesu aldetik berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak.
- Jakintza intentsiboko jardueretako enplegua.
- Erdi eta goi mailako teknologiararen esportazioak.
- Goi-mailako jakintzaren zerbitzu-esportazioak.

Alde txarrean,

- Finantzaketa eta laguntzaren alderdian, hala sektore publikoak BPGarekiko portzentajea I+Gan egikaritutako gastuan nola arrisku-kapitalaren baliagarritasunean lortutako balioak Europako batez bestekotik behera daude.
- Ondorio ekonomikoen alderdian, ikusten da produktu berrien salmentatik merkaturako edo enpresarako lortutako negozio-zifra ere batez besteko hori baino txikiagoa dela, aktibo intelektualean alderdiaren barruan BPGko bilioiko EAP<sup>8</sup> patenteen eskaerekin gertatzen den moduan.
- Azkenik, Berritzaileen alderdian, marketinean edo antolaketan berritzaile diren enpresa txiki eta ertainen portzentajea ere txikiagoa da.

### c) Berrikuntza enpresa-ehunean

Has gaitzen berrikuntzari buruzko inkestak eta definizioak ikusiz:

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa. Berrikuntzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura aterak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan. Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza-mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkaturatuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.
- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

Orain ikusiko dugun bezala, berrikuntzarako jardueretan egindako gastua handitu egin da (9 lanpostu baino gehiagoko enpresetan), eta enpresa berritzaileen portzentajea, ostera, gutxitzen ari da, nahiz eta joera hori ez den agertzen sektore guztietan.

### Enpresa berritzaileak

Eustaten Berrikuntzaren Inkestako datuen arabera<sup>9</sup>, EAEn, 2008-2010 aldian, enpresen % 19,8 izan ziren berritzaile (aurreko aldian izandako portzentaje berbera). Portzentaje hori lortzeko, kontuan hartu behar dira bai berrikuntza

#### 1.2.46. Koadroa. Jarduera berritzaileak dituzten enpresen ehunekoaren bilakaera, EAE-ko enpresa guztiekiko

		2006-08	2007-09	2008-2010
Enpresak guztira	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	20,8	19,8	19,8
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	15,0	14,5	13,8
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	12,9	11,7	11,8
	Jarduera berritzaile teknologikoak edo ez teknologikoak dituzten ENBak	15,7	17,4	20,3
9 lanpostu baino gehiagoko enpresak (INERekin, Eurostatekin eta abarrekin konparatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	41,2	38,9	38,9
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	31,5	29,8	30,1
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	27,4	26,3	26,2
	Jarduera berritzaile teknologikoak edo ez teknologikoak dituzten ENBak	—	40,2	41,4
	Jarduera berritzaile teknologikoak dituzten ENBak	34,4	31,9	—

(1) Ez daude sartuta soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak. ENBak: enpresa berritzaileak edo hasitako edo arrakastarik gabeko berrikuntzak dituztenak. Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoaren inkesta.

<sup>8</sup> Patent Cooperation Treaty: PCT (mundu patenteak).

<sup>9</sup> Tamaina guztietako eta lehen sektorea, administrazio publikoa eta etxe zerbitzua ez beste jarduera-sektore guztietako euskal enpresei zuzendua (ikus, INEk ez bezala, hezkuntza osoa hartzen duela). Alegia, populazio esparrua honakoa da: honako jarduera sektoretako tamaina guztietako establezimenduak, CNAE-93 Rev. 1 en arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, honakoak baztertzeko dituzte: lehen sektorea (A eta B), herri-administrazioa (L), eta etxeko zerbitzua (P).

## I.2.47. Koadroa. 10 Langile edo gehiagoko establezimenduak, berrikuntza-motaren eta jarduera-arloaren arabera

	2008-2010					
	Berrikuntza-mota ez teknologikoa		Establezimendu berritzaile ez teknologikoak	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez teknologikoak)	ENB establezimendu berritzaileak (2) (teknologikoak edo ez teknologikoak)
	Antolaketa	Komertzializazioa				
<b>Guztira</b>	<b>22,3</b>	<b>11,2</b>	<b>26,2</b>	<b>30,1</b>	<b>38,9</b>	<b>41,4</b>
<b>Industria</b>	<b>22,3</b>	<b>12,2</b>	<b>27,9</b>	<b>41,0</b>	<b>48,0</b>	<b>52,9</b>
Erauzketa-industriak, kokea lortzeko eta petrolio-fintzeko fabrikak	7,9	0,0	7,9	21,0	28,8	28,8
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	12,0	17,7	25,9	41,9	43,9	45,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	19,1	3,4	22,6	18,7	32,2	32,2
Zura, papera eta arte grafikoak	17,4	4,7	19,1	30,5	35,1	37,8
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak	22,8	13,5	31,7	66,5	72,6	74,7
Kautxua eta plastikoa	14,5	13,3	19,0	43,5	48,0	57,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	23,6	9,9	28,0	38,6	46,0	50,0
Prod. informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipamendu elektrikoak	37,6	15,9	41,2	60,1	66,6	70,0
Makinak eta ekipamendua	24,9	21,7	36,0	49,4	59,7	68,2
Garraio materiala	39,3	10,0	39,3	53,5	64,1	72,2
Altzariak eta bestelako enpresak	14,9	12,4	21,8	30,7	34,8	40,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	40,6	3,8	40,6	24,9	61,7	65,5
Ur eta saneamendu hornidura	20,8	7,4	20,8	19,6	26,6	38,0
<b>Eraikuntza</b>	<b>10,6</b>	<b>5,4</b>	<b>12,5</b>	<b>11,0</b>	<b>18,0</b>	<b>18,9</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>24,3</b>	<b>11,8</b>	<b>27,9</b>	<b>29,2</b>	<b>38,9</b>	<b>40,8</b>
Ibilgailuen merkataritza eta konponketa	17,8	9,4	22,2	18,4	29,7	31,6
Garraioa eta biltegiak	26,3	15,2	26,5	25,2	36,4	38,1
Ostalaritza	11,0	9,4	16,1	10,9	20,5	21,8
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak:	43,3	27,4	48,8	52,4	62,2	63,8
Finantza eta aseguru enpresak	36,1	28,7	37,1	39,0	42,9	44,6
Higiezin enpresak	40,3	14,1	40,3	34,1	50,3	50,3
I+G, aholkularitza eta bestelako jarduerak profesionalak eta teknikoak	35,5	13,0	37,3	40,7	52,2	56,4
Zerbitzu lagungarriak	6,3	6,2	11,4	7,1	15,0	18,6
Bidaia-agentziak eta operadore turistikoak	30,4	10,1	36,2	50,7	56,5	56,5
<b>Hezkuntza</b>	<b>21,5</b>	<b>12,0</b>	<b>26,2</b>	<b>48,9</b>	<b>54,9</b>	<b>55,5</b>
Osasun-jarduerak	79,1	2,8	79,1	83,2	85,8	85,8
Gizarte, aisialdi, kultur eta beste arlo batzuetako jarduerak	23,0	11,2	26,6	16,2	31,4	32,8

(1) Ez daude sartuta soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak.

(2) Barruan sartuta daude soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak.

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoaren inkesta.

teknologikodun (produktua edo/eta prozesua) enpresak (enpresen % 13,8) eta bai berrikuntza EZ teknologikoa (antolakuntza edo/eta komertzializazioa) egiten duten enpresak (enpresen % 11,8).

Soilik hamar langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartzen baditugu (horrek modua ematen baitigu INE, Eurostat eta 10 langile baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik ematen ez duten beste estatistika-erakundeekin konparatzeko), enpresa berritzaileen portzentajea (teknologikoak eta ez teknologikoak) % 38,9 da. Estatuan, INEren Berrikuntzaren Inkestaren arabera, aldi horretako portzentajea % 32,9koa da.

Bilakaeraren ikuspegitik, EAEn, 2007-09tik 2008-2010era bitartean, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajeak egonkor eutsi dio % 38,9an, eta berrikuntza teknologikoak sartu dituztenen portzentajea handitu egin da, % 29,8tik % 30,1era.

Bestalde, enpresa berritzaileen edo hasitako zein arrakastarik gabeko berrikuntzak (teknologikoak edo ez) dituzten enpresen portzentajea % 41,4koa izan da 2008-2010 aldian.

CIS 2008ren arabera (CIS6), EB-27n, industria eta zerbitzuen sektoreko enpresen % 52k ekarri dituzte jarduerak berritzaileak (hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne) 2006tik 2008ra bitartean. Estatu kideen

**I.2.48. Koadroa. Berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastua, BPGaren gainean**

	Enpresak guztira				>= 10 Langile			
	2007	2008	2009	2010	2007	2008	2009	2010
Guztira (milioi eurotan)	2.609,9	2.782,0	2.753,4	2.581,9	2.030,0	2.193,9	2.219,9	2.159,5
BPGaren gaineko %	4,0	4,1	4,1	3,95	3,1	3,2	3,3	3,3
Barruko I+G	1,7	1,8	1,9	2,08	1,5	1,7	1,7	1,94
Kanpoko I+G	0,5	0,6	0,5	0,52	0,4	0,5	0,4	0,38
Makineria	1,3	1,2	1,2	0,82	0,9	0,8	0,7	0,60
Bestelako ezagutzak	0,1	0,1	0,1	0,10	0,1	0,1	0,1	0,06
Prestakuntza	0,0	0,1	0,1	0,06	0,0	0,0	0,0	0,04
Merkaturatzea	0,2	0,2	0,2	0,10	0,1	0,1	0,1	0,07
Diseinua eta prestakuntza-lanak	0,1	0,1	0,1	0,27	0,1	0,1	0,1	0,22

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza teknologikoaren inkesta.

artean, portzentajerik handienak Alemaniak (enpresen % 80), Luxenburgok (% 65) eta Irlandak (% 57) dituzte. Espainiak % 43,5eko portzentajea du; eta batez bestekotik urrunen dauden estatuak honako hauek dira: Letonia, Polonia, Hungaria, Lituania eta Bulgaria.

Sektoreen ikuspegitik, zerbitzu-enpresen % 38,9 dira berritzaileak, industriakoen % 48 eta eraikuntzakoen % 18.

Jarduera-azpisektoreak kontuan hartuta, honako hauek nabarmentzen dira industrian: industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak (sektoreko enpresen % 72,6 dira berritzaileak), produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipamendu elektrikoa (% 66,6) eta garraio-materiala (% 64,1). Zerbitzuetan: osasun-jarduerak (% 85,8) eta Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak (% 62,2).

Eta berritzaile teknologikoak dira zerbitzu-enpresen % 29,2, industriakoen % 41 eta eraikuntzakoen % 11. Jarduera-azpisektoreak kontuan hartuta, honako hauek nabarmentzen dira industrian: industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak (sektoreko enpresen % 66,5 dira berritzaileak), produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipamendu elektrikoa (% 60,1). Zerbitzuetan: osasun-jarduerak (% 83,2) eta Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak (% 52,4).

**Berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastua**

Eustaten Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuen arabera, berrikuntza teknologikorako jardueretan guztira egindako gastua % 6,2 gutxitu da 2010ean; hain zuzen, 2.581,9 milioi eurokoa izan da gastua, BPGaren % 3,95. 9 langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta, gastua % 2,7 gutxitu da eta BPGaren % 3,3 da.

Beste urte batez, gastu horren zatitik handiena barruko I+Gari (BPGaren % 2,08 enpresa guztiak kontuan hartuta eta % 1,94 bederatzi langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta) eta makineriaren erosketari dagokie (BPGaren % 0,82, enpresa guztiak kontuan hartuta eta % 0,6 bederatzi langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta)

Jarduera-sektorearen arabera, 9 lanpostu baino gehiagoko enpresen artean, industriaren esparruan, gastua arlo hauetan egiten da: garraio-materiala (gastuaren % 12,9), metalurgia eta gai metalikoak (% 9,5), produktu informatikoak eta elektronikoak, material eta ekipamendu elektrikoa (% 6,4) eta makinak eta ekipamendua (% 5,1).

**I.2.49. Koadroa. Berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastua, jarduera-sektorearen arabera, 9 lanpostu baino gehiagoko enpresetan, 2010**

	Milaka	% bertikala
<b>Guztira</b>	<b>2.159.502</b>	<b>100,0</b>
<b>Industria</b>	<b>991.857</b>	<b>45,9</b>
Erauzketa-industriak, kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	3.269	0,2
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	28.964	1,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	1.569	0,1
Zura, papera eta arte grafikoak	49.975	2,3
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak	46.635	2,2
Kautxua eta plastikoa	45.567	2,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	204.479	9,5
Prod. informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipamendu elektrikoa	138.991	6,4
Makinak eta ekipamendua	109.452	5,1
Garraio materiala	277.988	12,9
Altzariak eta bestelako enpresak	37.412	1,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	33.478	1,6
Ur eta saneamendu hornidura	14.077	0,7
<b>Eraikuntza</b>	<b>20.965</b>	<b>1,0</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>1.146.679</b>	<b>53,1</b>
Ibilgailuen merkataritza eta konponketa	39.703	1,8
Garraioa eta biltegiak	7.996	0,4
Ostalaritza	3.965	0,2
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak:	112.870	5,2
Finantza eta aseguru alorretako jarduerak	18.789	0,9
Higiezinaren alorreko jarduerak	258	0,0
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduerak profesionalak eta teknikoak	516.576	23,9
Zerbitzu lagungarriak	1.085	0,1
Bidaia-agentziak eta operadore turistikoak	428	0,0
Hezkuntza	246.367	11,4
Osasun-jarduerak	169.305	7,8
Gizarte, aisialdi, kultur eta beste arlo batzuetako jarduerak	29.339	1,4

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza teknologikoaren inkesta.

**I.2.50. Koadroa. I+G+B jarduera onartu / kontratatu moten bilakaera (eurotan)**

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Ikerkuntza-proiektuak	19.139.665	22.439.020	22.078.138	25.395.032	30.871.317	26.745.792
LOUko 83.artikuluaren arabeko I+G kontratuak	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837	12.349.125	11.492.239
Ikerkuntza-taldeak*	5.811.131	6.447.949	8.289.127	1.004.766	1.202.900	23.741.678
Ikertzaile/teknikariak kontratatzea	2.677.727	569.210	1.111.497	4.380.476	1.771.170	3.935.608
Prestakuntzako langileak	2.102.400	2.051.638	9.935.973	6.617.646	4.601.721	3.687.198
Azpiegitura zientifikoa	5.655.172	981.772	3.542.695	2.190.378	1.412.019	1.646.001
Ikertzaileen mugikortasuna	243.463	623.372	801.934	472.872	576.779	487.055
Ekintza bereziak	743.615	2.222.177	868.958	737.984	253.649	96.818
Ikerkuntza Zerbitzu Orokorrek (SGIKER) emandako zerbitzuak					1.186.629	1.086.098
Beste batzuk**	196.362	236.467	1.254.158	2.008.888	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>46.562.937</b>	<b>48.807.533</b>	<b>60.761.625</b>	<b>54.779.880</b>	<b>54.225.309</b>	<b>72.918.487</b>

\* 2007. eta 2010. urteetako kopuruetan Eusko Jaurlaritzak ikerkuntza-taldeei emandako diru-laguntzen zenbateko osoa sartu da, nahiz eta hainbat urtean erabili, gainerako ekintzen finantzabidea islatzeko erabiliko irizpideekin bat etorritz.

\*\*Ikerkuntzaren Hedapena, Komunikazio Sareak eta halako memorietan adieraziak.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan, 2009-2010.

**I.2.51. Koadroa. I+G+B jardueren bilakaera, arlo zientifikoaren arabera**

	2006	2007	2008	2009	2010
Zientzia esperimentalak	19.174.523	22.108.443	23.288.301	21.521.867	42.292.722
Irakaskuntza teknikoak	12.804.217	18.319.582	9.814.894	15.117.305	12.396.143
Osasun-zientziak	4.413.473	5.801.784	3.706.658	4.671.922	5.833.479
Gizarte-zientziak eta z. juridikoak	6.290.040	6.983.260	9.050.252	8.044.579	5.104.294
Giza zientziak	5.183.629	5.861.931	4.724.586	4.869.636	7.291.849
Zenbait arlo	941.650	1.686.625	4.195.191	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>48.807.533</b>	<b>60.761.625</b>	<b>54.779.880</b>	<b>54.225.309</b>	<b>72.918.487</b>

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan, 2010-2011.

**I.2.52. Koadroa. I+G+B funtsen (eurotan) jatorriaren bilakaera**

	2002	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Autonomia Erkidegokoa	17.124.901	11.999.900	15.434.027	15.125.591	17.548.293	17.434.873	15.592.912	36.498.155
Estatukoa	6.804.455	10.592.559	10.195.368	14.037.027	13.964.226	11.265.410	14.580.074	14.461.611
Zuzeneko kontratazioa	6.902.292	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837	12.931.034	11.972.137
Funts propioak (programa kontratua)	5.572.381	4.482.238	5.483.460	5.665.904	12.670.458	8.347.637	8.036.840	5.558.073
Nazioartekoa	1.336.958	1.965.885	5.456.680	743.083	3.699.503	5.760.123	3.184.448	4.428.511
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.740.987</b>	<b>39.006.788</b>	<b>46.562.937</b>	<b>48.807.533</b>	<b>60.761.625</b>	<b>54.779.880</b>	<b>54.225.309</b>	<b>72.918.487</b>

OHARRA: 2002. eta 2003. urteetarako datuak urteko memorietan eskuragarri dagoen informazioa programa-motaren eta finantzabide-iturriaren arabera batuz lortu dira.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan, 2010-2011.

Bestalde, zerbitzuen sektorean, nabarmentzekoa da I+Garen, aholkularitzen eta bestelako jardueren profesional eta teknikoaren arloa, gastuaren % 23,9 hartzen baitu.

**2.2.3. Ikerkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean**

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G+b jardueren eta haien neurriari dagokienez, berariazko funtsen (kanpoko finantzabidea duten proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketarako diru-laguntzak eta ikerkuntzako azpiegiturako inbertsioak) eta funts orokorren artean bereizi behar da. Azkenak irakasleek ikerketa-jardueren emandako denbora eta horrek dakarren kostu orokorra (irakasleei dagozkien gastuak, ondasun eta zerbitzuetako gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk) kalkulatzeko dautza.

Lehenengoetatik ondorioztatzen da UPV-EHUK egindako ikerkuntza-jardueren nabarmen handitu dela 2010. urtean, 54,2 mila eurotik 72,9 mila igaro baita (+% 34,5) 2009tik 2010era bitartean. Dena dela, kontuan hartu behar da 2007. eta 2010. urteetako kopuruetan Eusko Jaurlaritzak ikerkuntza-taldee

emandako diru-laguntzen zenbateko osoa dagoela jasota, nahiz eta diru-laguntzak hainbat urtean erabili, gainerako ekintzen finantzabidea islatzeko erabili diren irizpideekin bat etorritz.

Zatirik handiena, % 36,6 (26,7 milioi euro), ikerkuntza-proiektuei dagokie; ondoren, ikerkuntza-taldeei emandako diru-laguntzak daude, % 32,2rekin (23,7 milioi euro), eta Unibertsitate Antolamenduari buruzko Legeko (LOU) 83. artikularen babesean sinatutako kontratuak, funts guztien % 15,7rekin (11,5 milioi euro). Atzerago daude langile ikertzaileak/teknikoak kontratatzeako funtsak, guztizkoaren % 5,4rekin (3,9 milioi), eta prestakuntzako langileak kontratatzeako funtsak, guztizkoaren % 5,1ekin (6,6 milioi).

Arlo zientifikoaren arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientzia esperimentalei eta irakaskuntza teknikoari dagokie.

Zehazki, 2010. urtean, zientzia esperimentalak, 42,3 milioi euroekin, guztizkoaren % 58 dira (guztizkoaren % 39,6 2009an), eta teknikoak, berriz, 12,4 milioi euroekin,

**I.2.53. Koadroa. Bestelako emaitzak. Argitalpen eta patente erregistratuak**

	Produktzio zientifikoa*			Patenteak					
	Zientzia esperimentalak, teknikoak eta osasun arlokoak	Gizarte eta giza zientziak eta zientzia juridikoak	Guztira	Espainiakoak	Europakoak	**PCT: (Berriak eta luzapenak)	Ameriketakoak	Bestelakoak	Beste eskabide batzuk
2005	903	58	961	9	—	5	2	—	16
2006	1.076	78	1.153	12	2	9	4	—	27
2007	1.240	116	1.341	16	8	5	6	1	36
2008	1.438	237	1.653	6	8	12	5	11	42
2009	1.546	210	1.735	18	13	6	5	15	57
2010	1.555	252	1.776	18	8	15	4	11	56

\*Science Citation Index, Social Science Citation Index eta PubMed-en erregistratutako argitalpen zientifikoak. \*\*PCT: Patent Cooperation Treaty.  
Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan, 2010-2011.

guztizkoaren % 17 dira (guztizkoaren % 28 2009an). Nabarmenezkoa da giza zientzietan izandako igoera; izan ere, 7,3 milioi euroekin, guztizkoaren % 10 dira (2008an % 9).

Funtsen jatorriari dagokionez, zatirik handiena Eusko Jaurlaritzatik dator (% 50,1), eta horien ondotik daude estatu-funtsak (% 19,8), zuzeneko kontratazioa (% 16,4), funts propioak (% 5,6) eta nazioarteko iturriak (% 6,1). Nabarmenezkoa da aurrera egin dela finantzabide autonomikoaren ildoan, Eusko Jaurlaritzak ikerkuntza-taldeei diru-laguntzak ematearen ondorioz.

Bukatzeke, patenteei dagokionez, emaitzak urriak dira oraindik ere, baina ugartzen ari dira. Hala, 2010ean 56 patente eskatu ziren, eta ez dago onartutakoei buruzko informaziorik. Bestalde, argitalpen-kopurua pixkanaka handituz joan da, eta 2010ean 1.776 izan dira. Guztizkoaren zatirik handiena zientzia esperimentalen, teknikoaren eta osasun-zientzien arloetan erregistratutako argitalpen zientifikoek dagokie (1.555).

**2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn****Etxeetan**

Eustaten Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak agertzen duenez (2011ko lehenengo hiru hilabeteak) IKTen ekipamendu zabalduenak honako hauek dira: sakelako telefonoa (familia inkestak % 90,1ek diote ekipamendu hori badutela), telebista teletestuduna (familien % 89,2), DVDa (% 70,1) eta ordenagailua (% 62,4).

Nolanahi ere, ekipamenduen araberako analisia eginez gero, agerian geratzen dira horien artean dauden aldaketak, ordezko ondasunak egonkortzearen ondorioz. Hori da bideoaren kasua, pisua galtzen ari baita, DVDa zabaltzearen ondorioz.

Familia-motaren arabera, bere hartan dirau aurreko urteetan sumatutako joerak, eta seme-alabak dituzten familiek jarraitzen dute ekipamendu gehien izaten. Bigarrenik, seme-alabarik gabeko familiek daude, eta ondoren pertsona bakarreko etxeak.

Eurostatekin konparatzeko, beharrezkoa da analisia *gutxienez 16-74 urteko kide bat duten* etxeen portzentajearekin egitea. Hala, esate baterako, ikusiko dugu gutxienez 16-74 urteko kide bat duten eta Interneteko sarbidea duten etxeen portzentajea % 65,8koa izan dela 2011. urtean. Bestalde, 2010. urtean, EB-27n % 70ekoa izan zen eta Estatuan % 59koa. Ondorioz, EAE Europako batez bestekotik zertxobait beherago dago, eta eredu herrialdeetan agertzen diren balioetatik urrun: Herbehereak (% 91), Luxenbugo (% 90), Suedia (% 88), Danimarka (% 86), Alemania (% 82), Finlandia (% 81) eta Erresuma Batua (% 80).

**I.2.54. Koadroa. Familiak, etxeko IKT ekipamenduen arabera I. Hiruhilekoa (%)**

	2009	2010	2011	
Guztira (milakotan)	825,2	834,7	846,3	
IKT ekipamenduak	Ordenagailua	60,0	61,4	62,4
	Internet	51,9	54,9	57,0
	Sakelako telefonoa	89,0	90,1	90,1
	Helbide elektronikoa	—	—	55,1
Telebista-ekipamenduak	Bideoa	56,7	48,7	43,3
	DVDa	—	—	70,1
	Teletestua	83,0	90,0	89,2
	Kable bidezko TB	—	—	28,4
	Ordainpeko TB	12,0	10,3	13,3
Internet TB	0,0	3,8	3,3	

Iturria: EUSTAT, ESIF

**I.2.55. Koadroa. Etxean interneteko sarbidea duten familiak urteko batez bestekoa (%)**

	2007	2008	2009	2010	2011
EB-27	54	60	65	70	—
Alemania	71	75	79	82	—
Austria	60	69	70	73	—
Belgika	60	64	67	73	—
Bulgaria	19	25	30	33	—
Zipre	39	43	53	54	—
Danimarka	78	82	83	86	—
Eslovakia	46	58	62	67	—
Eslovenia	58	59	64	68	—
Espainia	45	51	54	59	—
Estonia	53	58	63	68	—
Finlandia	69	72	78	81	—
Frantzia	49	62	63	74	—
Grezia	25	31	38	46	—
Herbehereak	83	86	90	91	—
Hungaria	38	48	55	60	—
Irlanda	57	63	67	72	—
Italia	43	47	53	59	—
Letonia	51	53	58	60	—
Lituania	44	51	60	61	—
Luxenbugo	75	80	87	90	—
Malta	54	59	64	70	—
Polonia	41	48	59	63	—
Portugal	40	46	48	54	—
Erresuma Batua	67	71	77	80	—
Txekiar Errep.	35	46	54	61	—
Eurumania	22	30	38	42	—
Suedia	79	84	86	88	—
EAE	50,7	55,9	59,6	62,9	65,8

\* 16-74 urteko biztanleak

Iturria: Eurostat eta Eustat, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI-Familia).

**15 urte edo gehiagoko biztanleak. Ordenagailuaren sarrera eta Internet konexioa eta erabilera**

Etxeetan/familietan izandako IKT ekipamenduen sarrerarekin gertatu bezala, IKTak zabaltzen ari dira oraindik 14 urtetik gorako biztanleen artean, bideoaren kasuan izan ezik.

PCaren eremura eta Internet konexiora mugatuta, ikusten da 2010eko lehenengo hiruhilekoaren eta 2011ko lehenengoaren artean ordenagailuaren sarrera puntu bat igo dela eta biztanle horien artean % 71,2ra iritsi dela. Bestalde, etxean Interneterako sarbidea duten 15 urte edo gehiagoko biztanleen portzentajea handitu egin da, % 63,9tik % 65,7ra. Aurreko urteetan bezala, generoaren, adinaren, ikasketa-mailaren eta lan-egoeraren arabera azterlanetik ondorioztatzen da oraindik ere badirela desberdintasunak hala sarreran nola erabileran. Beraz, oraindik ere bada taldeen arteko arrakala digitala, eta horrek gizarte-taldeen ongizatea bera ere baldintza dezake.

**Sarrera, generoaren arabera:** Ordenagailuaren sarrera-tasa gizonetan zein emakumeetan handitu da 2011n. Eta halaxe gertatu da Internet konexioaren sarrera-tasari dagokionez ere. Konparazioz, sarrera-tasak handiagoak dira gizonezkoetan emakumezkoetan baino, eta arrakala handiagoa da 2010ean erregistratutakoa baino. Hain zuzen, 2010. urtean, aldea, ordenagailuaren sarrerari dagokionez, 5,6 puntukoa zen, eta 2011n 6,4koa. Internet konexioari dagokionez, 2010. urtean 5,3 puntukoa zen aldea, eta 2011. urtean ere 6,4 puntuetara iritsi da.

**Interneten erabilera, generoaren arabera:** Tasa bi generoetan handitu da, eta bien artean dagoen aldea areagotu egin da, 2010. urtekoarekin alderatuz. Hain zuzen, erabilera-tasa % 60,9koa izan da gizonezkoen kasuan, eta % 52,9koa emakumezkoen kasuan. Beraz, bi generoen arteko aldea, 2010ean 7,7 puntukoa zena, 8,0 puntura iritsi da 2011n.

**Sarrera, adinaren arabera:** Ordenagailua eta Internet konexioa duten biztanleen portzentajea gutxitu egiten da adinarekin (nahiz eta tasak, zenbaki orokorretan, hobetzen doazen urtez urte adin-taldearen arabera). Hala, oso handiak dira 15-24 urtekoen adin-tartean, hurrenez hurren % 97 eta

**I.2.56. Koadroa. 15 Urte edo gehiagoko biztanleak, etxean dituzten ikt ekipamenduen arabera (%)**

		2009ko I. hiruhilekoa	2010eko I. hiruhilekoa	2011ko I. hiruhilekoa
Guztira (milakotan)		1.838,7	1.883,5	1.885,4
IKT ekipamenduak	Ordenagailua	68,2	70,2	71,2
	Internet	59,4	63,9	65,7
	Sakelako telef.	93,1	94,0	94,3
	Email	—	—	64,0
Telebista-ekipamenduak	Bideoa	60,6	52,5	47,0
	Teletestua	87,0	91,8	90,9
	Ordainpeko TB	13,6	11,3	14,6
	Kable bidezko TB	—	—	31,2
	Internet TB	0,0	4,1	3,6

Iturria: EUSTAT, ESIF

% 93,8. 25 eta 44 urte bitarteko taldea bigarren lekuan dago; zehazki, sarrera-ratioa % 86tik gorakoa da ordenagailuari dagokionez, eta % 78koa Interneti dagokionez. Eta 45 urte edo gehiagoko adin-tadean, sarrera oraindik ere txikiagoa da, hurrenez hurren % 57,1 eta % 52.

**Interneten erabilera, adinaren arabera:** Erabilera-ratioak ere gutxitu egiten dira adinarekin, baina kasu honetan nabarmenagoak dira adin txiki eta handieneko taldeen arteko aldeak. Hala, 15 eta 24 urte bitarteko EAEko biztanleen % 96,3 erabilzaileak dira, eta 45 urtetik gorakoaren artean % 33,6.

**Sarrera, ikasketa-mailaren arabera:** Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, handiagoa da ordenagailuaren sarrera eta Internet konexioa eta handitu egiten dira tasak aurreko urteetako aldean. Hala, goi-mailako ikasketak dituzten 15 urtetik gorako biztanleen % 92,6k dute ordenagailua, portzentajea % 81,9ra jaisten da bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen kasuan, eta % 37ra lehen mailako ikasketak baizik ez dituztenen kasuan. Internet konexioari dagokionez, portaera antzekoa da,

**I.2.57. Koadroa. 14 Urte edo gehiagoko biztanleak, etxean dituzten IKT ekipamenduen arabera (%)**

		Ordenagailua etxean					Internet									
							Internet konexioa etxean					Erabilera				
		2010 I	2011 I	2010-11 dif.	Dif. 2010-eko batez bestekoa-rekin	Dif. 2011ko batez bestekoa-rekin	2010 I	2011 I	2010-11 dif.	Dif. 2010eko batez bestekoa-rekin	Dif. 2011ko batez bestekoa-rekin	2010 I	2011 I	2010-11 dif.	Dif. 2010eko batez bestekoa-rekin	Dif. 2011ko batez bestekoa-rekin
15 urteko eta gehiagoko biztanleria		70,2	71,2	1,0	0,0	0,0	63,9	65,7	1,8	0,0	0,0	52,6	—	—	0,0	—
Sexua	Gizonezkoak	73,1	74,5	1,4	2,9	3,3	66,6	69,0	2,4	2,7	3,3	56,6	60,9	4,3	4,0	—
	Emakumezkoak	67,5	68,1	0,6	-2,7	-3,1	61,3	62,6	1,3	-2,6	-3,1	48,9	52,9	4,0	-3,7	—
Adina	15-24	94,9	97,0	2,1	24,7	25,8	92,6	93,8	1,2	28,7	28,1	94,4	96,3	1,9	41,8	—
	25-34	86,6	86,0	-0,6	16,4	14,8	79,5	80,8	1,3	15,6	15,1	78,0	85,4	7,4	25,4	—
	35-44	83,8	86,2	2,4	13,6	15,0	73,8	78,1	4,3	9,9	12,4	71,8	79,0	7,2	19,2	—
	45 eta gehiago	55,7	57,1	1,4	-14,5	-14,1	50,2	52,0	1,8	-13,7	-13,7	30,1	33,6	3,5	-22,5	—
Ikasketa-maila	Lehen mailakoa	35,0	37,0	2,0	-35,2	-34,2	30,6	32,5	1,9	-33,3	-33,2	6,7	9,5	2,8	-45,9	—
	Bigarren mailakoa	81,6	81,9	0,3	11,4	10,7	74,2	75,9	1,7	10,3	10,2	64,0	69,5	5,5	11,4	—
	Goi-mailakoa	91,3	92,6	1,3	21,1	21,4	84,8	86,9	2,1	20,9	21,2	87,0	90,3	3,3	34,4	—
Jarduera-rekio erlazioa	Ikaslea	97,9	97,4	-0,5	27,7	26,2	94,8	94,1	-0,7	30,9	28,4	96,2	97,0	0,8	43,6	—
	Lanean	85,5	87,6	2,1	15,3	16,4	78,5	81,3	2,8	14,6	15,6	70,4	76,3	5,9	17,8	—
	Ez-aktibo/lanik gabe	46,8	47,4	0,6	-23,4	-23,8	40,7	42,4	1,7	-23,2	-23,3	23,2	26,6	3,4	-29,4	—

Iturria: Eustat "IGI-Familiak".



baina portzentajeak txikiagoak dira: goi-mailako ikasketak dituztenen taldean % 86,9koa, bigarren mailako ikasketak dituztenen taldean % 75,9koa eta % 32,5koa soilik lehen mailako ikasketak dituztenen taldean.

**Interneten erabilera, ikasketa-mailaren arabera:** Aurreko kasuan bezala, zenbat eta ikasketa goi-mailakoagoak izan, handiagoa da Internet konexioa eta tasak handitu egiten dira aurreko urteetakoan aldean.

**Sarrera, lan-egoeraren arabera:** Ikasten eta/edo lanean ari diren biztanle-taldean artean daude, berriro ere, ordenagailu-zuzkiduraren eta Internet konexioaren tasarik handienak, eta tasa horiek nabarmen gutxitzen dira pertsona ez-aktiboak eta/edo langabeak direnean. Hala, ikasleen artean ordenagailuaren sarrera-ratioa % 97tik gorakoa da eta Internet konexioarena % 94koa; ez-aktiboan/langabeen artean ez dira iristen, hurrenez hurren, % 27ra eta % 43ra.

**Interneten erabilera, lan-egoeraren arabera.** Aurrez azaldutakoaren antzeko egoera ikusten da Interneten erabilera ere; ikasten ari diren pertsonen % 97k erabiltzen duten Internet, eta soilik lanik gabe edo aktibo ez dauden % 26,6k. Bereziki nabarmentzekoa da ikasleen erabilera-ratioa konexioarena baino handiagoa dela oraindik ere (% 97 vs % 94,1); horren arrazoa da etxetik kanpo sartzen direla.

### **Oinarrizko IKTen hornidura (PC, posta elektronikoa, Internet eta sakelako telefonoa) enpresetan**

Enpresetan egindako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak (IGI-enpresak) erakusten du oraindik ere hazten ari dela euskal enpresetan IKT ekipamenduak txertatzeko prozesua.

Ekipamendurik zabalduena sakelako telefonoa da oraindik ere, eta horren ondotik daude ordenagailu pertsonala, Interneterako sarbidea eta posta elektronikoa. Hala, establezimenduei dagokienez, langileen eskura sakelako telefonoa ipintzen dutenen portzentajea % 82,8ra iritsi da. Ordenagailu pertsonala dutenen portzentajea % 77,2 da. Internet dutenen portzentajea % 72,4 da, eta helbide elektronikoa dutenena % 70,7. Jarduera-sektorearen arabera, berriro ere argi nabarmentzen da industria gainerako sektoreen artean, nahiz eta ostera ere deigarri den sakelako telefonoaren sarrera eraikuntzan nola zabaldu den.

Bestalde, enpleguari dagokionez: Langileen % 63,8k dute ordenagailu pertsonala, % 55,3k helbide elektronikoa eta % 54,3k Internet. Jarduera-sektorearen arabera, beste urte batez, aurreko kasuan ez bezala (establezimenduen %), zerbitzuen sektorea nabarmentzen da. Horren arrazoa hauxe da, funtsean: zerbitzuen sektorean halako ekipamenduak sartzeko eta erabiltzeko joera handiagoa duten jarduerak

### **I.2.58. Koadroa. IKT ekipamenduen bilakaera EAE-ko establezimenduetan, jarduera-sektorearen arabera (establezimenduen %)**

	Industria				Eraikuntza				Zerbitzuak				GUZTIRA			
	PCa	Helbide elek.	Internet	Sakelako tel.	PCa	Helbide elek.	Internet	Sakelako tel.	PCa	Helbide elek.	Internet	Sakelako tel.	PCa	Helbide elek.	Internet	Sakelako tel.
2007	79,5	68,6	71,2	80,3	68,0	49,0	56,3	91,4	70,3	58,0	61,5	72,6	70,7	57,6	61,6	75,8
2008	80,8	73,1	74,5	84,8	73,9	58,1	65,1	92,2	74,4	63,5	65,8	76,3	74,8	63,5	66,4	79,2
2009	82,9	76,0	77,0	85,5	74,1	62,8	66,8	91,1	75,7	66,8	69,5	77,1	76,0	66,9	69,6	79,8
2010	83,0	77,6	78,7	89,1	76,3	64,8	67,9	91,0	75,9	68,2	69,5	79,1	76,5	68,3	69,9	81,7
2011	83,8	78,6	79,1	88,9	74,4	67,5	71,0	94,4	77,1	70,5	72,0	80,0	77,2	70,7	72,4	82,8

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

### **I.2.59. Koadroa. Enpresetako IKT ekipamenduen bilakaera (IKTak dituzten langileen %)**

	Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			GUZTIRA		
	PCa	Helbide elek.	Internet	PCa	Helbide elek.	Internet	PCa	Helbide elek.	Internet	PCa	Helbide elek.	Internet
2007	43,9	36,3	32,4	43,3	35,8	37,5	67,3	54,9	57,5	59,1	48,4	49,2
2008	46,5	36,4	32,1	41,8	35,8	38,5	68,5	56,3	57,5	60,5	49,5	49,5
2009	49,8	39,0	35,1	42,1	38,0	37,6	70,0	60,0	61,2	62,5	52,8	52,7
2010	51,3	40,6	36,6	46,2	41,0	42,2	71,2	62,1	61,6	64,1	55,0	53,8
2011	50,4	40,1	36,5	48,4	45,7	46,5	70,2	61,4	61,1	63,8	55,3	54,3

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

### **I.2.60. Koadroa. Enpresetako IKT ekipamendua, tamainaren arabera (IKTak dituzten establezimenduen edo langileen %)**

	Ordenagailu pertsonala				Helbide elektronikoa				Internet			
	Establ. gainera %		Enpl. gainera %		Establ. gainera %		Enpl. gainera %		Establ. gainera %		Enpl. gainera %	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Guztira	76,5	77,2	64,1	63,8	68,3	70,7	55,0	55,3	69,9	72,4	53,8	54,3
0tik 2ra	66,6	66,0	60,0	59,4	57,3	58,8	50,0	51,2	59,0	61,2	52,3	54,5
3tik 9ra	87,2	89,2	64,5	62,9	79,4	82,4	53,7	53,3	81,3	83,4	55,3	54,6
10etik 19ra	96,2	97,1	61,3	63,9	94,0	95,1	54,5	56,7	93,8	95,1	54,5	57,3
20tik 49ra	99,2	98,9	60,9	60,9	97,9	98,1	53,8	53,5	97,2	97,1	52,9	52,7
50etik 99ra	99,6	100,0	65,6	66,8	98,5	100,0	56,9	59,1	98,2	100,0	54,4	57,3
≥ 100	99,1	99,7	66,3	65,6	99,0	99,7	57,6	56,6	98,9	99,7	52,7	51,9

Iturria: EUSTAT IGI enpresak .

daudela. Horien artean aipatzekoak dira teknologia berriei, finantza-bitartekaritza eta enpresentzeko zerbitzuei loturikoak.

Enplegu-mailaren araberako analisiak lehenik eta behin erakusten du IKT ekipamenduak zabalduago daudela establezimenduaren tamaina handitu ahala. Bigarrenik, enplegu-tamaina handitu ahala, hobekuntza-marjina txikia denez gero, ekipamendu-gehikuntza txikiagoa dela; hain zuzen, zertxobait behera egiten du, ostera ere, enplegu-maila jakin batzuetan. Eta, hirugarrenik, bi alderdi horiek gehiago ikusten direla establezimenduetan enpleguan baino. Arrazoia, besteak beste, hauxe da: establezimendu txikiak garapen handiagoa izan dutela, eta establezimendu handietan langile guztiak ez dutela ekipamendu horiek erabiltzeko aukerarik. Joera hau Europa mailan ere igartzen da. Bertan, EUROSTATen datuen arabera, Interneten sarrera saturazio puntura iritsi da, bai enpresa handien artean (% 100era iritsi da ia), bai ETEen

artean (% 96 ingurukoa EB15en eta % 94koa EB27n), eta baita sektoreen zati handienean ere.

#### ***IKTen erabilera enpresan: Interneten erabilera***

Euskal enpresek Interneti emandako erabilera motari dagokionez, lehenik eta behin dokumentazio bilaketa dago (% 97,6); bigarrenik, bankuetako informazioa edo finformazio finantzarioa eskuratzea (% 75,8); hirugarrenik, bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitea (% 65,8); eta laugarrenik, Administrazio Publikoko izapideak egitea (% 61,8). Bigarren taldea honako hauek osatzen dute: prestakuntza: prestakuntza-materialetarako sarbidea (% 50,7); hornitzaile-bezeroen datu-baseetarako sarbidea (% 42,7) eta produktu digitalak jasotzea edo jaitea (% 41). Kasu guztietan, dinamismo handiagoa ikusten da tamaina handiagoko enpresen taldean, hau da, 9 lanpostu baino gehiagokoetan.

#### **I.2.61. Koadroa. Interneterako sarbidea duten establezimenduen % EAE-n, erabilera-motaren arabera**

	Establ. guztien gaineko %			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			9 lanpostu baino gehiago		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011
Dokumentuen bilaketa	96,2	97,1	97,6	97,9	97,2	98,7	96,0	95,0	97,9	96,1	97,6	97,5	98,1	97,8	97,1
Hornitzaile-bezeroen datu-baseetarako sarbidea	43,7	40,7	42,7	47,3	45,4	46,4	42,3	37,6	42,5	43,6	40,8	42,4	53,6	53,5	55,6
Prestakuntza: prestakuntza-materialetarako sarbidea	51,1	45,0	50,7	48,5	40,3	45,1	41,5	32,8	41,8	53,1	47,9	53,0	58,4	60,8	67,2
Zerbitzuak eta ondasunak erostea	19,9	19,6	19,5	21,4	22,2	19,8	12,4	7,1	10,6	21,1	21,9	21,2	19,8	20,9	20,7
Zerbitzuak eta ondasunak saltzea	4,9	4,9	5,3	6,9	6,9	7,8	1,5	0,4	1,8	5,3	5,6	5,7	8,3	8,3	8,7
Administrazio Publikoko izapideak egitea	59,8	61,4	61,8	63,2	62,9	61,9	56,0	60,6	63,6	60,1	61,5	61,4	82,2	84,9	85,2
Bankuko edo finantza arloko informazioa lortzea	75,9	76,2	75,8	85,2	84,1	85,5	80,4	78,1	78,4	74,1	74,9	74,3	84,1	84,2	84,7
Lehiatzaileen analisisa	32,4	28,3	30,7	40,0	33,8	36,8	25,2	17,5	24,2	32,9	29,9	31,3	45,5	47,3	48,8
Langileak biltzea	18,3	17,4	18,7	17,2	17,3	20,3	11,8	10,5	13,9	19,6	18,9	19,4	35,6	38,0	39,6
Saldu ondoko zerbitzuak lortzea	24,2	22,0	25,1	22,7	21,3	22,3	11,3	16,0	19,3	26,7	23,3	26,5	32,8	34,5	36,3
Produktu digitalak jasotzea edo jaitea	41,7	35,9	41,0	44,1	40,9	40,2	35,6	26,5	34,6	42,6	37,3	42,3	52,8	52,9	57,7
Banku/finantza transakzioak egitea	66,0	65,6	65,8	75,4	70,5	76,3	70,9	67,0	69,6	64,1	64,8	64,0	77,7	75,0	76,6

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

#### **I.2.62. Koadroa. Establezimenduak, sektorearen eta enplegu-mailaren arabera eta webgunerik baduten edo ez kontuan hartuta**

	GUZTIRA			Norberarena			Ostatatua		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011
<b>GUZTIRA</b>	<b>32,4</b>	<b>33,9</b>	<b>37,3</b>	<b>14,1</b>	<b>16,9</b>	<b>14,1</b>	<b>18,3</b>	<b>17,0</b>	<b>23,2</b>
Jarduera-arloak									
Industria	42,9	44,6	49,3	14,6	20,5	16,6	28,3	24,0	32,7
Eraikuntza	17,1	21,8	26,6	5,3	7,1	4,8	11,8	14,7	21,8
Zerbitzuak	34,3	35,3	38,1	15,7	18,5	15,6	18,6	16,8	22,6
Enplegu-mailak									
0tik 2ra	18,2	19,8	21,9	6,9	9,6	7,9	11,3	10,2	14,1
3tik 9ra	47,1	46,8	50,8	22,2	23,7	18,9	24,8	23,2	31,9
10etik 19ra	60,0	64,0	71,1	26,7	34,2	29,7	33,3	29,8	41,4
20tik 49ra	74,2	77,4	81,5	30,6	40,7	37,3	43,6	36,7	44,2
50etik 99ra	87,1	89,1	92,6	33,7	39,0	37,4	53,4	50,1	55,2
100 eta gehiago	90,0	92,2	93,2	43,2	46,1	45,2	46,7	46,2	48,0

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak.

**I.2.63. Koadroa. Azken hiru hilabeteetan internet erabili duten eta elektronikoki erosi duten pertsonak**

	2009		2010		2011	
	Estatua guztira	EAE	Estatua guztira	EAE	Estatua guztira	EAE
Azken hiru hilabeteetako Internet erabiltzaileak guztira	20.741.237	1.017.520	22.207.773	1.078.127	23.196.058	1.144.754
Azken hilabeteetan erosi duten pertsonen %	14,3	16,3	15,5	17,1	17	19
Duela hliabete baino gehiago eta hiru baino gutxiago erosi duten pertsonen %	11,9	13,9	11,5	14,1	12	13
Duela hiru hliabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	11,9	13,1	10,8	14,4	12	14
Duela urtebete baino gehiago erosi duten pertsonen %	7,3	9,6	7,3	9,5	7	7
Internet bidez erosi ez duten pertsonen %	54,7	47,1	54,8	44,9	53	47

Iturria: INE.

Enpresak teknologia berrien erabilerari dagokionez zein lekutan dauden aztertzeko orduan beste adierazle garrantzitsu bat da Interneten zer presentzia duten, izan zerbitzari propio batean egindako web orri baten bidez, izan beste zerbitzari batean ostatatutako orri baten bidez. Eustatek emandako azken datuek erakusten dutenez, 2010etik 2011ra bitartean 3,4 puntu igo da. Hala, web orria dute Internet konexioa duten establezimenduen % 37,3k. Horietatik % 23,2k kanpoko zerbitzari batean daukate ostatatua, eta % 14,1ek zerbitzari propioa dute.

Portzentaje horiek handitu egiten dira establezimenduaren tamainarekin (0-3 lanpostu dituzten establezimenduen % 21,9tik hasi eta 100 baino gehiagoko % 93,2ra —% 45,2k ostatatze propioa dute—), eta aldatu egiten dira, jarduera-sektorearen arabera, industrian eta zerbitzuetan web orri erabilgarri gehixeago dagoela nabarmentzen den neurrian.

**2.2.5. Komertzio elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak****Familiak eta erabiltzaileak**

INEn datuen arabera, EAEn, inkestaren erreferentzia-aldian zeuden Interneteko erabiltzaile guztiak kontuan hartuta (16-74 urte), ikusten da ugaritu egin direla azken hilabeteetan Internet bidez erosi dutenak, % 17,1eko ratiotik % 19ra igaro baitira 2010etik 2011ra bitartean. Portaera hori bera gertatu da Estatuan ere, % 15,5etik % 17ra igo baita.

Internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea aintzat hartuta, ondoriozta daiteke EAEk, % 47rekin, kokaleku ona duela gainerako autonomia erkidegoen aldean; izan ere, hiruk baizik ez dute portzentaje txikiagoa: Balear Uharteek (% 41,2), Nafarroak (% 43,5) eta Kataluniak (% 46).

Nolanahi ere, azken hilabeteetan erosi duten pertsonen portzentajea aztertuta, hiru autonomia erkidego aurkitu ditugu aktiboago: Kantabria (% 20,9), Madril (% 22,7) eta Katalunia (% 20,3). EAE laugarren lekuan dago, lehen adierazi dugun bezala.

EAEn merkataritza elektronikoa ez dago, inondik ere, EBn bezain zabaldua; izan ere, Eurostaten arabera (databasea), 2011. urtean, azken hiru hilabeteetan EB-27n Internet bidez erosi zuten pertsonen portzentajea % 34koa zen, eta eurogunean % 33koa. Eurostatek Estaturako emandako datua % 17koa zen 2010ean eta % 19koa 2011n. Beraz, konparazioa arrazoizkoa da, nahiz eta datuak ez guztiz homogeneoak izan. Era horretako merkataritzarako joera handiena duten herrialdeen artean ondoko hauek daude 2011. urtean: Erresuma Batua (% 64), Danimarka (% 57),

**I.2.64. Koadroa. Azken hiru hilabeteetan internet erabili duten eta internet bidez erosi duten pertsonak eta erosi ez duten pertsonak, 2010**

	Azken hilabeteetan erosi dutenak	Internet bidez erosi ez duten pertsonak
Guztira Estatuan	16,6	52,9
Andaluzia	13,0	61,1
Aragoi	15,5	50,0
Asturias	15,1	53,6
Balearrak	16,0	41,2
Kanariak	13,7	63,2
Kantabria	20,9	49,6
Gaztela eta Leon	13,8	53,4
Gaztela-Mantxa	15,1	58,3
Katalunia	20,3	46,0
Valentzia	11,6	55,4
Extremadura	11,0	61,0
Galizia	18,0	52,2
Madril	22,7	48,8
Murtzia	11,6	59,5
Nafarroa	17,1	43,5
EAE	19,3	46,8
Errioxa	17,6	49,4

Iturria: INE.

Norvegia (% 57), Alemania (% 54), Herbehereak (% 53), Suedia (% 53) eta Luxenburgo (% 52).

2011. urtean, EAEn azken 12 hilabeteetan Internet bidez xede pribatuekin edo etxerako gehien erositako hiru produktuak, INEn datuen arabera, honako hauek izan dira: oporretarako ostatua (hotela, apartamentua eta abar), azken hamabi hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsonen % 55,9k erosi baitute; bidaietarako beste zerbitzu batzuk (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua eta abar); kirol-materiala eta arropa (biak % 44,5); eta ikuskizunetarako sarrerak (zinema, antzerkia, kontzertuak...), % 39,9rekin.

Estatuan, lau eremu hauetan erosi da gehien: ikuskizunetarako sarrerak (azken hamabi hilabeteetan Internet bidez erosi duten pertsonen % 41,6k erosi dituzte halakoak); kirol-materiala eta arropa (% 30,5); oporretarako ostatua (hotela, apartamentua eta abar), % 52,9k erosi baitute; eta bidaietarako beste zerbitzu batzuk (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua), % 49rekin.

**Enpresak**

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki

**I.2.65. Koadroa. Merkataritza elektronikoaren erabilera, xede pribatuekin edo etxerako (portzentaje bertikalak)**

	2010		2011	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Azken hamabi hilabeteen Internet erabili duten pertsonak, guztira	8.454.254	499.090	9.420.707	526.567
Janari-edariak	10,7	10,1	11,7	15,7
Etixerako ondasunak (altzariak, jostailuak eta abar)	19,0	17,3	17,8	27,3
Sendagaiak	1,0	0,6	0,9	1,0
Filmak, musika	9,3	10,0	10,9	10,1
Liburuak, aldizkariak, egunkariak (liburu elektronikoak barne)	18,8	19,7	17,7	24,2
Online prestakuntza-materiala	7,7	7,4	8,2	10,4
Kirol-materiala, arropa	28,3	44,5	30,5	44,4
Ordenagailu eta kontsoletarako jokoaren softwareak eta horien eguneratzeak	9,3	7,0	10,5	9,3
Bestelako ordenagailu-softwareak eta horien eguneratzeak	11,9	11,8	11,5	12,3
Ekipamendu informatikoa (ordenagailuak eta osagarriak)	15,2	16,3	14,2	11,6
Ekipamendu elektronikoa (esate baterako, kamerak)	18,9	23,3	16,9	18,5
Telekomunikazio-zerbitzuak (banda zabaleko harpidetzak, telefono-lineen kontratuak, telefono-txartelak berriz betetzea eta abar).	10,7	8,2	9,4	11,6
Akzioak, aseguru-polizak eta bestelako finantza-zerbitzuak erostea	5,7	6,9	5,6	11,1
Oporretarako ostata (hotela, apartamentua eta abar)	50,5	44,2	52,9	55,9
Bidaietarako beste zerbitzu batzuk (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua eta abar)	50,6	43,7	49,0	44,4
Ikuskizunetarako sarrerak (zinema, antzerkia, kontzertuak...)	39,9	45,9	41,6	39,9
Bestelako produktuak edo zerbitzuak	16,6	17,8	17,0	11,1

Iturria: INE.

**I.2.66. Koadroa. Erosketak eta salmentak, jarduera-arloaren eta enplegu-mailaren arabera (milioiak, eurotan)**

	Erosketak					Salmentak				
	2006	2007	2008	2009	2010	2006	2007	2008	2009	2010
GUZTIRA	2.647,8	3.102,4	3.452,4	4.626,4	5.284,8	5.645,3	6.395,4	7.157,0	7.401,8	8.773,6
Jarduera-arloak										
Industria	1.361,1	1.527,0	1.682,6	1.766,9	1.989,1	3.784,6	4.366,4	4.962,9	4.012,2	5.150,9
Eraikuntza	4,3	25,3	28,2	61,1	87,3	14,8	44,8	68,1	70,4	107,2
Zerbitzuak	1.292,4	1.550,1	1.741,6	2.798,4	3.208,3	1.845,9	1.984,2	2.126,0	3.319,2	3.515,4
Enplegu-mailak										
Otik 9ra	769,5	882,3	1.010,5	1.752,2	1.764,5	678,4	641,6	652,1	1.096,7	1.528,5
10 eta gehiago	1.878,3	2.220,1	2.441,9	2.901,2	3.520,3	4.966,9	5.753,8	6.504,9	6.305,1	7.245,0

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI-Enpresak).

ekonomikoetan handitu da, eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua ere areagotu da.

2010. urtean sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoaren bidez (EDI, datu elektronikoaren trukea eta abar) sortutako negozio-bolumena 8.773,6 milioi eurokoa izan zen, salmenta elektronikoei dagokienez, eta 5.284,8 milioi eurokoa, erosketei dagokienez. Hau da, aurreko urtearekin alderatuz, % 18,5 igo da salmenten arloa eta % 13,5 erosketen arloa.

Jarduera-sektorearen arabera, industriak sortzen du negozio-bolumenik handiena (7.140 milioi euro erosketen eta salmenten artean), eta ondoren zerbitzuak (6.723,7 milioi euro). Eraikuntzak elektronikoki sortutako negozio-kopurua oso txikia da (194,5 milioi).

Merkataritza elektronikoa (zentzu zabalean) egiten duten establezimenduen portzentajea zertxobait handitu da (0,2 puntu): 2009. urtean guztizkoaren % 14,9 zen eta 2010. urtean % 15,1.

Nahiz eta zifra ekonomikoetan salmentak erosketak baino gehiago izan, partaidetzan, produktuak bide elektronikoetatik erosten dituzten establezimenduen kopurua askoz ere handiagoa da saltzen dutenena baino. Hain zuzen, %

15,1eko proportzioa nagusiki erosketak egiten dituzten establezimenduek (% 14,2) ekarri dute, saltzen dutenak % 3,9 baizik ez baitira.

Zenbatesten da halako establezimenduek prozedura elektronikoaren bidez egiten dituzten erosketak beren erosketak guztien % 28,1 direla, eta salmentak, berriz, salmenta guztien % 38,6.

Establezimenduak tamainaren arabera bereizita, ikusten da 9 lanpostu baino gehiagoko enpresen artean merkataritza elektronikoa egiten dutenen portzentajea handiagoa dela, eta % 23,1era ere iristen dela (% 15,1, zenbaki orokorretan, lehen aipatu dugun bezala), eta, bestalde, segmentu horretan handiagoak dira erosketak elektronikoki egiten dituztenak (% 20,3) saltzen dutenak baino (% 8,5).

Eurostaten datuen arabera (databasea, 2010eko datuak, NACE 2. aldizk.), online (Internet bidez, EDI bidez edo beste sare batzuen bidez) saldu zuten 9 lanpostu baino gehiagoko enpresen portzentajea % 15ekoa da EB-27n, % 16koa EB-25en eta % 16koa EB-15en. Eta online erosi zuten enpresen portzentajea: EB-27n % 37koa, EB-25en % 39koa eta EB-15en % 41ekoa.

**I.2.67. Koadroa. Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera (%)**

	Establezimenduak guztira					10 langile edo gehiagokoak				
	2006	2007	2008	2009	2010	2006	2007	2008	2009	2010
Merkataritza elektronikoa	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1
Erosketak	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3
Salmentak	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5
Erosketen gaineko % (*)	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6
Salmenten gaineko % (*)	24,4	20,7	26,9	32,5	38,6	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4

(\*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa/salmenta guztien gaineko erosketa/salmenta elektronikoen batez besteko %.  
Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak.

# 3. Ingurumenaren egoera EAEn

## 3.1. EAE-ko 2002-2020ko ingurumen estrategiaren jarraipena. Ingurumen adierazleak

### (a) Airearen kalitatea eta atmosfera kutsatzaileen isuriak

Kalitate indizea ateratzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago, puntako teknologiko analizagailu eta sentsoreak dauzkana, europar zuzentarauak gaiaz markatzen dituen kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituen, batez ere sufre dioxidoa (SO<sub>2</sub>), nitrogeno oxidoak, ozono troposferikoa (O<sub>3</sub>), karbono monoxidoa (CO) eta esekitako partikulak.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolleko Zuzendaritzak hamaika zona eta indizearen 6 maila hartzen ditu kontuan (aire kalitate ona, onargarria, moderatua, txarra, oso txarra eta arriskutsua). Horrela, zonetako bakoitzak kontrol estazio zenbait dauzka, sentsore edo analizagailu automatikoekin, indizea kalkulatzeko neurtzen diren kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituztenak.

Estazio mugikorrek unean uneko kutsadurako gune zehatzak eta balizko kokapen berriak aztertzen dituzte. Gainera, kutsatzaile tradizionalak, konposatu organikoak edo metal astunak neurtzen dituzte, besteak beste.

Emisioen sentsoreek, industria kutsatzaile nagusien tximinietan ipinita daudenak, zaintzen dute altzairu-fabrikek, planta termiko edo kimikoek eta gas plantek ez ditzatela gaintitu jarduerarako ezarritako legezko mugak.

Bulego nagusiak datu horiek egunero jasotzen ditu, modem baten bidez. Talde informatiko batek datuak begiratzen ditu, eta gero informazioa Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren webgunean iraultzen da.

Airearen kalitate indizeak esleitutako balio bat izango du, eta balio hori zenbat eta handiagoa izan, gune horretako airearen kalitatea txarragoa izango da. Eguneroko indizea da. Hau da, egunetik egunera indizearen balioa aldatzen da, eta beraz, zona egokiaren aireko kalitateari buruzko informazioa aldatzen da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako informazioaren arabera, esan dezakegu airearen kalitatea ona dela edo gutxienez onargarria dela azpizona guztietan 2011. urtean. Halere, 2010. eta 2011. urteen artean, 11 laginketa estazioetan airearen kalitate oso txarra edo txarra duten egunak %0,1etik %0,4ra gehitu dira, egun guztien aldean; balio absolutuetan, 4 egunetik 16 egunera gehitu da. Bestalde, aire kalitate moderatuaren portzentajea ere gehitu egin da, %0,8tik %1,8ra, zenbaki absolututan 31 egunetik 71ra.

Zehazki, 2011. urtean hauek nabarmendu dira: Urola Goiena (36 egunez aire kalitate moderatua, 13 egunez txarra eta egun 1ez oso txarra); Oria Goiena (10 egunez kalitate moderatua eta 1ez txarra); eta Nerbioi Behera (6 egunez kalitate moderatuarekin eta 1ez txarrarekin).

Datu hauek eta aurreko urtekoak erkatzen baditugu, nabarmena da Urola Goienean airearen egoeraren okertzea (+%50 egun kalitate moderatuarekin eta +%250

### Lurraldearen zonakatzea

1. Hegoaldeko Araba	7. Urola Goiena
2. Arabako lautada	8. Ibaizabal - Debagoiena
3. Arabako Errioxa	9. Nerbioi Garaia
4. Kostaldea	10. Enkarterri
5. Donostialdea	11. Nerbioi Behera
6. Oria Garaia	

### 1.3.1. Koadroa. Airearen kalitatea EAEn (egunetan neurtua)

	2011							Txarra edo oso txarra		Moderatua	
	Ona	Onargarria	Moderatua	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua	GUZTIRA	2010	2011	2010	2011
Hegoaldeko Araba	146	216	3	0	0	0	365	0	0	2	3
Arabako lautada	227	136	2	0	0	0	365	0	0	0	2
Arabako Errioxa	187	177	1	0	0	0	365	0	0	0	1
Kostaldea	203	159	3	0	0	0	365	0	0	0	3
Donostialdea	270	94	1	0	0	0	365	0	0	0	1
Oria Garaia	198	156	10	1	0	0	365	0	1	3	10
Urola Goiena	127	188	36	13	1	0	365	4	14	24	36
Ibaizabal - Debagoiena	221	136	7	0	0	0	365	0	0	1	7
Nerbioi Garaia	269	96	0	0	0	0	365	0	0	0	0
Enkarterri	232	128	0	0	0	0	365	0	0	0	0
Nerbioi Behera	212	144	8	1	0	0	365	0	1	1	8
<b>EAE GUZTIRA (egunak)</b>	<b>2.292</b>	<b>1.630</b>	<b>71</b>	<b>15</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>4.009</b>	<b>4</b>	<b>16</b>	<b>31</b>	<b>71</b>
<b>EAE GUZTIRA %</b>	<b>57,2</b>	<b>40,7</b>	<b>1,8</b>	<b>0,4</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>	<b>100%</b>	<b>0,10</b>	<b>0,4</b>	<b>0,77</b>	<b>1,8</b>

Jasangarritasun adierazlea: "Aire kalitate ona" + "Onargarria" egun kopurua \* 100 / urteko egun kopuru osoa  
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

egun kalitate txar edo oso txarrekin). Kalitate moderatuko airea izan dute urteko hamar egunetik batean (hau da, ia astero) eta kalitate txar edo oso txarreko airea izan dute urteko hogeita sei egunetik batean (hilean behin). Badirudi joera antzekoa dela Deba Goienean eta Nerbioi Beherean. Guztira, EAEn, kalitate txarreko edo oso txarreko airea dago nonbait gutxi gorabehera hiru astean behin, eta kalitate moderatuko airea dago bost egunean behin.

### **(b) Klima aldaketa: berotegi-efektuko gas isuriak (BEG)**

1992an, herrialderik gehienek bat egin zuten nazioarteko itun batekin (Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparrua), atmosferaren berokuntza murrizteko zer egin daitekeen pentsatzen hasteko. 1997an, Alderdien Hirugarren Biltzarrean (Kyotoko CP3, 1997ko abenduaren 11), gobernuek erabaki zuten itunari eranskin bat gehitzea, Kyotoko Protokoloa izena jaso zuena.

EB-ak Kyotoko Protokoloa bereganatu zuen (Kontseiluaren 2002ko apirilaren 25eko 2002/358/CE erabakia), eta 2008-2012 denboraldian BEG emisioak mugatzeko konpromisoa ezarri zen, 1990. urtean emisio maila batez beste %8 murrizteraino. Konpromiso hori modu ezberdinean banatu zen estatu kideen artean. Espainiari egokitu zitzaion gehienez %15 gehitzea oinarritzko urtearen aldean.

Autonomi erkidegoek ez daukate juridikoki lotesleak diren BEGak murrizteko helbururik. Baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012ko Euskal Planean ezarri zen helburu boluntarioa EAEko emisioak denboraldi horretan mugatzea da, oinarritzko urtekoak %14 baino gehiagotan ez gairidituzeko moduan.

Azkenik, esan behar dugu Durbango Gailurrean (2011ko abenduan), onetsi zela Kyotoko Protokoloan ezarritako konpromisoak luzatzea. Horrek esan nahi du garatutako herrialdeetako batzuek atmosferara igortzen diren gas kutsagarrien emisioak murriztu behar dituztela. Hala eta guztiz ere, gailurrak erabaki zuen Kyotoko Protokolo berria indarrean egongo den denboraldia birdefinitzea hurrengo urterako uztea, indarrean dagoen epea datorren urtean amaituko delako.

EAEari dagokionean, BEGen emisioen inbentarioko azken datuak 2009. urtekoak dira. Informazio hori gure Memoria Sozioekonomikoaren 2010eko edizioan jasota dago. Irakurleari hori irakurtzea gomendatzen diogu, ikuspegi sakonagoa bereganatzeko.

### **(c) Ur-masen kalitatea Lurrazaleko ur-masak**

Uraren Esparru Zuzentarauak<sup>1</sup> azaltzen du lurrazaleko ur-masak ibai, laku, trantsizio-ur eta kostaldeko ur kategorietan sailkatzen direla. Haien izaeraren arabera ur natural, artifizial edo oso aldatu gisa sailkatu ahal dira. Legegintzazko ikuspegi berria ere ezarri zuen, "egoera" terminoa zentzu ekologikoan sartzen duena. Horrela, egoera ekologiko onaren ingurumen helburua planteatzen da, egoera kimiko onaren helburuaz gain.

Plangintza Hidrologikoaren Araudiaren 26. artikulua arabera<sup>2</sup>, lurrazaleko ur-masen egoera egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren balio txarrenak zehaztuko du.

- Lurrazaleko uren egoera ekologikoa oso ona, ona, moderatua, eskasa edo txarra izan daiteke. Ur artifizialen eta oso aldatuen kasuan, potentzial ekologikoa bikaina, ona, moderatua, eskasa edo txarra izango da.

Lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa sailkatzeko, kalitate elementu biologikoak, hidromorfologikoak eta fisiokimikoak izango dira kontuan, parametro jakin batzuekin bat etorritik.

- Lurrazaleko uren egoera kimikoa ona edo egoera onera iristen ez dena izango da.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiak (2002-2020) eta II Ingurumen Esparru-Programak<sup>3</sup> proposatutako konpromisoa honakoa da: 2012rako azaleko ur-masen %80k "egoera" ekologikoa eta kimikoa ona edo oso ona izatea; eta ur artifizial eta oso aldatuen masen %80k ahalmen ekologikoa ona eta egoera kimikoa ona izatea.

### **Ibaien egoera**

Azken urteetako zuzeneko balorazioak dauzkagun ibai kategoriako (urtegiak ez) 94 ur-masak kontuan izanik, EAE osorako esan dezakegu 2007-2009 denboraldirako emaitzen nolabaiteko egonkortasuna diagnostikatu zela, 2010. urtean hobetzeko joera argia sortu zuena.

2010.ean, ibai kategoriako ur-masa naturalen %45,6ak egoera ekologikoa onaren edo oso onaren ingurumen helburuak betetzen dituzte (2007an %25,4 ziren). Ur-masa oso aldaraziei dagokienez, 2009an eta 2010ean oso aldatutako ur-masak identifikatzen hasi ziren (urtegiak ez), potentzial ekologikoa goreneko edo oneko ingurumen helburuak betetzen zituztenak. 2007an eta 2008an, berriz, batek ere ez zituen helburuak betetzen.

Egoera edo potentzial ekologikoko helburuak ez betetzea adierazle biologikoei (egoera biologikoa) lotutako egoeraren isla dira, eta ez baldintza fisiokimiko orokorrei lotuak. Baldintza fisiokimiko orokorrek (IFQ-R indizea) adierazten dute ur-masa naturalen %75 inguruk, eta ur-masa oso aldatuen kasuan %55 inguruk, ingurumen helburuak betetzen dituztela, hau da, neurri handi batean, ingurumen helburuekin bat datozen komunitate biologikoak garatu ahal izateko baldintza fisiokimiko orokorrek betetzen direla. Egoera kimikoari dagokionez, ur naturalen masen %22 eta oso aldatuen %20 ez dira egoera kimikoa onera iristen 2010eko kanpian. Aztertutako lau urteetan egoera egonkorra izan dela esan dezakegu. 2010. urtean, atzemandako arazok berunarekin, nikelarekin, merkurioarekin eta kadmioarekin zerikusia zuten uraren matrizean, merkurioarekin espezieen matrizean.

Oro har, EAEko ibaien egoerari kalte egiten dioten eragileak honakoak dira: arazketa eta saneamendua ez dira nahikoak, kutsadura puntuala dago (industri efluentek), nekazaritza jardueren ondorioz kutsadura lausoa, ibaietako habitatean aldakuntzak (nekazaritzaren eta hirigintzaren presioen

<sup>1</sup> 2000/60/CE Zuzentaraua, Ur Politikaren eremuan jarduketara esparru komunitarioa ezarri zuena.

<sup>2</sup> 907/2007 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, Plangintza Hidrologikoaren Araudia onartzen duena.

<sup>3</sup> Ingurumeneko II. Esparru Programaren (2007-2010) helburuak mantentzen dira, nahiz eta III. Programa 2011. urteko amaieran onartu zen, sail eskudunak hala egiten baitu.

### I.3.2. Koadroa. EAEko ibai kategoriako ur-masak (urtegiak izan ezik). Egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren bilakaera, 2007-2010. %

		Egoera ekologikoa						Egoera kimikoa		
		Ur-masak guztira	Oso ona	Ona	Moderatua	Eskasa	Txarra	Ur-masak guztira	Egoera kimiko ona	Ez da iristen
Naturala	2007	79	1,3	24,1	34,2	20,3	20,3	80	97,5	2,5
	2008	79	3,8	26,6	34,2	27,8	7,6	80	86,3	13,8
	2009	78	3,8	30,8	28,2	19,2	17,9	80	85,0	15,0
	2010	79	3,8	41,8	26,6	20,3	7,6	80	77,5	22,5
MAMM	2007	15	0,0	0,0	6,7	13,3	80,0	15	80,0	20,0
	2008	15	0,0	0,0	26,7	20,0	53,3	15	80,0	20,0
	2009	15	0,0	13,3	6,7	26,7	53,3	15	73,3	26,7
	2010	15	0,0	6,7	40,0	33,3	20,0	15	80,0	20,0

Iturria: URA. Uraren Euskal Agentzia.

ondorioz), baliabideak oker erabiltzea, eta komunitateen aldakuntza (espezie aloktonoak sartzeagatik).

Etorkizunari begira gure ibaien egoerari itxaropentsu iritzi behar zaio oraindik. Hiri eta industriako hondakin-uren saneamendu kontuetan egindako ahalegin handiak emaitza onak eman ditu, eta hurrengo urteetan hobetu beharko dute. Hala ere, oraindik ere badaude egoera txarreko zati handiak, batez ere Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oriaren arroetan.

Dena dela, EAEko Saneamendu Gida-Planean bukatzeke edo birmoldatzeke dauden saneamenduek, ibaiertzak berreskuratu eta babesteari buruzko aurreikuspenak apurka egikaritzearekin, kutsadura murrizteko berariazko programak gauzatzearekin, eta abarrekin batera, ibaien egoera pixkanaka hobetzea ahalbidetuko dute etorkizunean.

#### Lakuen eta barnealdeko hezeguneen egoera

Ingurumeneko II. Esparru Programaren (2007-2010) denbora-mugan planteatutako helburuen gaur egungo betetze mailari dagokionez, eta laku eta hezegune eta kategoriako ur-masen egoera ekologikoari dagokionez,

dauzkagun emaitzetan oinarrituta adieraz daiteke eboluzio positiboa dagoela baina oraindik ere ez dela nahikoa. 2001/2002 ziklo hidrolotikotik aztertu diren 14 hezeguneetatik, lehenengo zikloan %8ak bakarrik betetzen zituen ingurumen helburuak. Halere, azken zikloetan, hezeguneen %21 eta %29aren artean betetzen dituzte ingurumen helburuak. Aztertu diren azken ziklo hidrolotikotik emaitzek nolabaiteko egonkortasuna daukate.


Laku eta hezegune kategoriako lau ur-masetako batek ere ez ditu ingurumen helburuak betetzen 2009/2010 ziklo hidrolotikotik.

#### Trantsizio uren (estuariaok) eta kostaldekoen egoera

Ingurumeneko II. Esparru Programaren denborazko eremuan (2007-2010) planteatutako helburuen betetze maila gaur egun, trantsizio-uren kategoriaren ur-masen egoera ekologikoari dagokionez, txikia da oraindik ere. Ur hauen balorazio orokorraren analisisan hauek izan behar dira kontuan:

- Egoera/potentzial ekologikoa. 2010.ean, ur-masa naturalen %30ak egoera ekologiko onaren edo oso

### I.3.1. Grafikoa. Trantsizio-uren kategoriako ur-masei lotutako kontrol estazioen egoera



Iturria: URA Agentzia. Uraren Euskal Agentzia.



onaren ingurumen helburuak betetzen dituzte (2007an %70 ziren). Ur-masa oso aldatuen kasuan, 2010ean, haien %25ak potentzial ekologiko bikaineko edo oneko ingurumen helburuak betetzen zituzten, eta 2007an ez ziren helburuak batera betetzen.

- **Egoera kimikoa.** Ur-masa naturalen %20ak inguru ez dauka egoera kimiko ona. Lau ur-masa oso aldatutatik hiruk ez daukate egoera kimiko ona 2010.ean.

### **Kostaldeko urak**

Azken urteetan zuzeneko balorazioak dauzkagun kostaldeko uren kategoriako 4 ur-masak kontuan izanik, EAE osorako adierazi behar dugu 2007-2010 denboraldian emaitzak nahiko egonkorak direla; horrek esan nahi du oro har ingurumeneko helburuak ondo betetzen direla egoera ekologikoari dagokionez. 2010ean, kostaldeko uren kategoriako lau ur-masek ingurumen helburuak bete zituzten egoera ekologikoari dagokionez.

Egoera kimikoari dagokionez, esan dezakegu, emaitzak haztatu ondoren, EAEko kostaldeko ur-masa guztiek egoera kimiko ona daukatela.

### **Bainurako uren kalitatea**

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 zuzentaraua argitaratuta eta hura, *bainurako uren kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren* bidez lekualdatuta, zehaztu beharreko parametro mikrobiologikoak aldatu dira eta urteko ebaluazioa araudi berriak xedatzen duenez egingo da, argitaratu ondorengo lau sasoiaren eta gutxieneko laginketa kopuru baten arabera.

Trantsizio aldiko laugarren sasoi honetan, 1341/2007 EDko parametroen balioei ezarritako 734/1988 EDko irizpideen bidez sailkatu da.

Balio horien bidez hondartzentzako hiru sailkapen maila ezarri dira:

- 2. mailako hondartzak: parametro guztietarako derrigorrezko balioak eta gida balioak betetzen dituzte, arestian aipatu Errege Dekretuan xedatutako baldintzen arabera.
- 1. mailako hondartzak: derrigorrezko balioak bai, baina gida balioak ez dituzte betetzen.
- 0 mailako hondartzak: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

Ondorengo sasoiaren bainurako uren sailkapena *gutxiegi, nahikoa, ona eta bikaina* izango da parametro mikrobiologikoentzat lortutako datuen ebaluazioaren arabera.

Araudi berriak honako helburua xedatu zuen: agintari eskudunek behar diren neurri guztiak ezartzea, 2015eko bainu sasoiaren bukaeran, bainurako ur guztiek kalitate nahikoa izan ditzaten.

Bainu guneen errolda 2009ko bainu sasoi hasi aurretik aldatu zen: KARRASPIOKo bainu gunea bainu gune bitan banandu zen. Horren ondorioz, beste laginketa gune bat (LG) sortu da; laginketa gune zaharrari ESKUINALDEA deritzo eta laginketa gune berriari EZKERRALDEA.

2010. urtean egindako analisiak, aurrekoa kontuan izanik<sup>4</sup>, erakusten du 5 bainu eremu hobetu direla, 1. kategoriatik 2. kategoriara igaroz, eta 4 okertu direla, 2. kategoriatik 1.ra igaroz. Oro har, kalitatea ona da, bainu-eremurik gehienek parametroen nahitaezko balioak eta gida-balioak betetzen dituztelako (2. motako sailkapena).

Hondartzaren inguruko eremuari dagokionez, Bizkaian eremu guztiak 2010. urtean ontzat sailkatu dira. Gipuzkoan, 5 hobetu dira, 3 txarretik hobegarrira igaroz eta 2 hobegarririk onera. Gainerako ontzat eman dira. Azkenik, Araban, hondartza inguruko 5 eremu on gisa katalogatu dira.

### **(d) Baliabide naturalen kontsumoa: Ur gezatako baliabideak: ur bilketa eta kontsumoa**

EINek egindako ur hornidura eta tratamenduari buruzko inkestaren arabera, 2009an EAEn horniketa publikorako ur-bilketa<sup>5</sup> 194,9 Hm<sup>3</sup>koa izan zen. Horrek, 2008aren aldean, jaitsiera dakar berriz ere, %12,9koa.

Kaptazio horiei dagokionez, eta lurrazaleko eta lurpeko urak bereiztuz gero, lurrazaleko urak %13,5 gutxitu ziren, eta osotasunean duten pisua jaitsi zen: %97,3tik %96,6ra. Bestalde, lur azpiko ur-bilketak %8,6 hazi dira.

Ur erabilgarri guztia 193,4 Hm<sup>3</sup> da. %100a jatorri propiokoa da, hau da, ez da inori erositia.

Bestalde, EAEn hornidura publikorako kontrolatutako eta banatutako uraren bolumen osoa 2009. urtean 187,9 Hm<sup>3</sup> izan zen. Hau da, %7,9ko beste beherakada bat, 2008. urtearen aldean. Horietatik, 97,9 Hm<sup>3</sup> (guztiaren %52,1) etxeak hornitzeko erabiltzen dira; 60,4 Hm<sup>3</sup> (%32,1)

<sup>4</sup> Urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua, bainatzeko uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua transposatzen duena. Araudi berriaren lehentasunezko helburuak hauek dira:

- Bainurako urek bete behar dituzten osasun irizpideak ezartzea, haien kalitatea bermatzeko, giza osasuna babesteko xedez. (Derrigorrezko azterketa parametroei buruzko aldaketak sartzen ditu).
- Ingurumenaren kalitatea zaintzea, babestea eta hobetzea, Uren Legearen testu bategina osatuz.
- Jendeari bainurako uren kalitateari buruz emandako informazioa kontrolatzeko, sailkatzeko, kudeatzeko eta emateko gutxieneko xedapenak ezartzea.
- Bainurako urei buruzko informazio sistema berria –NAYADE- sortzea. Sistema hori Internet bidez kontsultatu ahal da eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak kudeatuko du. Sistemak nazio eta Europa mailan erroldatutako itsaso eta kontinenteko hondartza guztiei buruzko informazioa jarriko du herritarren eskura.

<sup>5</sup> Ura hartzea diogunean, ura naturatik ateratzeaz edota biltzeaz eta gero erabiltzeko gordetzeaz ari gara. Hemen, ura biltzeko eta arteria eta hodi primarioetan behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrantea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrantea duten uren artean ubide naturaletako urak (ibaiek eta errekek) eta ubide artifizialekoak (ureztatze bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira.

Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

## I.3.3. Koadroa. Bainatzeko uren kalitatea EAEn, itsasoko urak

Herraldea	Udalerrria	Bainu gunea	Laginketa gunea	Bainurako uren sailkapena			Hondartza inguruko eremuaren sailkapena (*)		
				2008	2009	2010	2008	2009	2010
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(1)Eskuin.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(2)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(3)Ezker.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereagako hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereagako hondartza	(2)Ezker.	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Arrigunaga hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Aizkorriko hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Areetako hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Sopela - Getxo	Solandotes hondartza	(2)Eskuin.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopela - Getxo	Solandotes hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(1)Eskuin.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(2)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(3)Ezker.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Plentzia	Plentziako hondartza	(1)Erdialdea	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(1)Eskuin.	1	1	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(2)Erdialdea	1	1	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(3)Ezker.	1	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Bakio	Bakioko hondartza	(1)Erdialdea	2	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Bermeo	Aritxatxu hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Mundaka	Laidatxu hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sukarrieta	Toña hondartza	(1)Erdialdea	0	0	0	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Sukarrieta	San Antonioko hond.	(1)Erdialdea	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laida hondartza	(1) Itsasoa	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laida hondartza	(2) Itsasad.	1	2	1	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laga hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laga hondartza	(2)Eskuin.	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Ea	Eako hondartza	(1)Erdialdea	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ispaster	Ogeia hondartza	(1)Ezker.	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Lekeitio	Isuntza hondartza	(1)Eskuin.	1	1	1	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(1)Eskuin.	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(2)Ezker.	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ondarroa	Arrigorri hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Mutriku	Saturran hondartza	(1)Erdialdea	1	0	0	Txarra	Txarra	Hobeg.
Gipuzkoa	Mutriku	Mutrikuko hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	Txarra	Txarra	Hobeg.
Gipuzkoa	Mutriku	Ondarbeltz hondartza	(1)Erdialdea	2	2	1	Txarra	Txarra	Hobeg.
Gipuzkoa	Deba	Debako hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Itxurun hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Santiago hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	Hobeg.	Hobeg.	Ona
Gipuzkoa	Getaria	Gaztetape hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Hobeg.	Ona
Gipuzkoa	Getaria	Malkorbe hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(1)Eskuin.	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(2)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(3)Pasealek.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Antilla hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Ondarreta hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Ondarreta hondartza	(2)Ezker.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Kontxa hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Kontxa hondartza	(2)Ezker.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Kontxa-Nautikoko hondartza	(3) Nautikoa	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Gros/Zurriolako hondartza	(1)Eskuin.	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Gros/Zurriolako hondartza	(2)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia	Gros/Zurriolako hondartza	(3)Ezker.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiko hondar.	(1)Eskuin.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiko hondar.	(2)Erdialdea	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(1)Eskuin.	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(2)Ezker.	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Zuhatza uhartea)	(1)Eskuin.	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(1)Eskuin.	1	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(2)Ezker.	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona

(\*) Hondartza inguruko eremuaren sailkapena hondartza osoari buruz egiten da, guneen arabera bereizi gabe, uraren kasuan bezala. Horregatik, hondartza bateko gune guztiak izango dute maila bera, haien artean aldeak egon arren.

Iturria: Eusko Jaurilaritzako Osasun Saila.

**I.3.4. Koadroa. EAEn hornidura publikorako kontrolatutako eta banatutako ur bolumena**

	2006	2007	2008	2009	aldak. %a 08/09
<b>ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m<sup>3</sup>)</b>					
GUZTIRA	218.272	206.858	223.644	194.880	-12,9
Lurrazaleko urak	211.781	200.943	217.568	188.281	-13,5
Lur azpiko urak	5.569	5.915	6.076	6.599	8,6
Gatzgabetzea	0	0	0	0	0
Bestelako baliabide hidrikoak	922	0	0	0	0
<b>EDATEKOA BIHURTU GABEKO GUZTIZKO UR ESKURAGARRIA (mila m<sup>3</sup>)</b>					
GUZTIRA	218.272	204.669	223.644	193.376	-13,5
Enpresak berak egindako guztizko ur-bilketa	218.272	206.858	223.644	194.880	-12,9
Beste unitate batzuei erositako ur bolumena	0	0	—	—	—
Beste enpresa batzuek hornitutako ur bolumena	0	2.189	—	—	—
<b>UR BANAKETA ERABILTZAILER TALDE HANDIEN ARABERA (mila m<sup>3</sup>)</b>					
Horniketa publikorako zaindu eta banatutako guztizko ur bolumena	189.224	195.794	203.974	187.875	-7,9
Sektore ekonomikoak	58.632	55.497	61.016	60.347	-1,1
Etxeak	100.174	96.623	108.694	97.852	-10,0
Udal kontsumoak eta BESTELAKOAK	26.347	43.674	34.264	29.676	-13,4
Banaketa sarean galdutako ura (a)	27.597	36.037	36.007	34.380	-4,5
Edateko bihurtu gabeko guztizko ur eskuragarria (b)	218.272	204.669	223.644	193.376	-13,5
Banaketa sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	12,6	17,6	16,1	17,8	10,4
Banatutako uraren zenbatekoa guztira (mila euro)	85.635	97.223	113.344	107.541	-5,1
Horniketa zerbitzuetako inbertsioaren zenbatekoa guztira (mila €)	3.165	4.636	6.570	7.048	7,3

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

**I.3.5. Koadroa. Hondakin uren bilketa eta tratamendua EAEn (m<sup>3</sup> egunean)**

	2006	2007	2008	2009	% aldak. 08/09
Tratatutako hondakin-uren bolumena	657.062	575.885	616.474	851.532	38,1
Ur berrerabiliaren bolumena guztira	143	27.548	47.493	13.405	71,8
Hondakin-urak bildu eta tratatzeko inbertsioko gastuen zenbatekoa guztira (mila €)	36.986	625	13.179	13.179	0,0
Saneamendu eta arazketa kuoten zenbatekoa guztira (mila €)	79.472	72.323	77.837	77.837	0,0

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

sektore ekonomikoetarako; eta 29,7 Hm<sup>3</sup> (%15,8) udal kontsumoetarako eta bestelako erabileretarako.

Banaketa sarean 34,4 Hm<sup>3</sup> ur galtzen da (galera errealak), hots, 2008 eta 2009 artean %10,4 hazi da eta eskuragarri dagoen guztiaren %17,8 da. Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren %16,8 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdu zen.

Bestalde, 2008 eta 2009. urteen artean, tratatzen den hornidura-ura %38,1 gehitu da, 851,5 Hm<sup>3</sup>raino. Hondakin-urak bildu eta tratatzeko jarduerak 13.179 mila euroko inbertsioa dakarte.

Per capita ur kontsumoa txikiagoa da EAEn estatuko batezbestekoa baino: 126 eta 149 litro pertsona eta egun bakoitzeko, hurrenez hurren. Gainera, 2008 eta 2009. urteen artean, estatuan dagoena baino beherakada handiagoa ikusten da (%9,4, eta estatuan %3,2).

Bestalde, uraren aleko balioa (koziente hau honela kalkulatu da: ura hornitzeko tasen zenbatekoa gehi hondakin uren saneamenduko tasak edo kanonak, zati kontsumorako banatutako ur bolumena) EAEn, 2009. urtean, 1,08 euro/m<sup>3</sup> izan zen, hau da, %14,9ko gehikuntza berri bat lehenagoko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da, 1,42 euro/m<sup>3</sup>. Horrek esan nahi du %8,4 garestitu dela aurreko denboraldiaren aldean.

**(e) Hondakinaren sorkuntza eta kudeaketa. Hiri hondakinak eta industriako hondakinak**

EINen Sektore industrialeko hondakinaren sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, euskal industriak sortutako hondakin guztietatik (1.651,4 mila Tm), erkidegoko araudiaren arabera 168,4 mila Tm sailkatzen dira hondakin arriskutsu gisa eta 1.483 mila Tm ez arriskutsu gisa.

Eboluzio terminoetan, EAEn hondakin ez arriskutsuen sorkuntza 2008 eta 2009. urteen artean %22,9 murriztu da, eta industriako hondakin arriskutsuena, %18. Halere, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen hirugarren erkidegoa da (168,4 tona). Lehenengoa Katalunia da, 393,1 tonarekin eta bigarrena Valentzia, 183,8rekin. Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak %19,6 jaitsi dira.

Hiri-hondakinei dagokienez, EINren *Hiri-hondakinaren bilketa eta tratamenduari buruzko inkestak* erakusten du 2009an hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek EAEn 1.239 mila Tm hiri-hondakin bildu zituztela, aurreko urtean baino %7,9 gutxiago. Jaitsiera horren azalpen nagusia gaika batutako murrizpena da (-%20), nahasiak ere gutxiagotu diren arren (-%4,6). Estatuan murrizpenak joera bera du, hurrenez hurren, -%16,3 eta -%3,3.

## I.3.6. Koadroa. Uraren batez besteko kontsumoa eta aleko balioa etxeetan

	Batez best. Kontsumoa (litro/biztanle/egun)					Batez besteko prezioa (€/m³)				
	2006	2007	2008	2009	% ald. 08/09	2006	2007	2008	2009	% ald. 08/09
Andaluzia	176	158	157	156	-0,6	0,96	1,11	1,12	1,25	11,6
Aragoi	150	143	150	148	-1,3	1,04	1,46	1,18	1,27	7,6
Asturias	184	185	177	165	-6,8	0,78	0,92	0,94	1,10	17,0
Balearrak	150	136	139	127	-8,6	1,61	1,85	1,89	2,00	5,8
Kanariar Uharteak	141	154	157	141	-10,2	1,74	1,69	1,70	1,90	11,8
Kantabria	201	189	188	180	-4,3	0,71	0,93	0,89	1,18	32,6
Gaztela eta Leon	147	154	153	162	5,9	0,83	1,11	1,94	1,07	-44,8
Gaztela-Mantxa	166	163	155	146	-5,8	0,87	0,89	0,99	1,15	16,2
Katalunia	150	151	139	132	-5,0	1,11	1,56	1,59	1,76	10,7
Valentziar komunitatea	185	186	189	174	-7,9	1,30	1,62	1,52	1,54	1,3
Extremadura	183	187	158	163	3,2	0,84	1,09	1,11	1,21	9,0
Galizia	159	143	146	139	-4,8	0,71	0,72	0,75	0,93	24,0
Madril	148	150	144	145	0,7	1,27	1,28	1,57	1,67	6,4
Murtzia	166	166	159	166	4,4	1,53	1,95	1,87	1,84	-1,6
Nafarroa	128	126	131	135	3,1	1,25	1,41	1,23	1,23	0,0
EAE	129	125	139	126	-9,4	0,87	0,87	0,94	1,08	14,9
Errioxa	148	152	151	131	-13,2	0,93	1,06	0,97	0,93	-4,1
Ceuta eta Melilla	140	135	133	126	-5,3	1,01	0,94	1,38	1,40	1,4
Estatua	160	157	154	149	-3,2	1,08	1,29	1,31	1,42	8,4

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

## I.3.7. Koadroa. Hiri eta industri hondakinen sorrera (\*) (milaka tonatan)

	Estatua					EAE				
	2006	2007	2008	2009	2008-09 ald.	2006	2007	2008	2009	2008-09 ald.
Hiri-hondakinak (HH)	28.418,6	28.240,5	26.322,4	24.758,1	-5,9	1.373,6	1.333,8	1.345,9	1.239,0	-7,9
HH nahastuak	21.861,8	21.925,9	21.045,6	20.341,7	-3,3	1.030,2	1.036,4	1.055,1	1.006,2	-4,6
Selektiboki bildutako HH	6.556,7	6.314,6	5.276,7	4.416,4	-16,3	343,5	297,4	290,7	232,6	-20,0
Industria hondakinak	59.253,8	60.692,7	49.957,1	40.156,9	-19,6	2.917,8	2.839,3	2.129,1	1.651,4	-22,4
Ez arriskutsuak	57.122,1	58.530,1	48.280,4	38.773,8	-19,7	2.536,3	2.536,9	1.923,7	1.483,0	-22,9
Arriskutsuak	2.131,6	2.162,6	1.676,7	1.383,1	-17,5	381,5	302,4	205,4	168,4	-18,0

Iturria: EIN: Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta eta Industria sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkesta. (\*) Zerbitzu sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestak ez du autonomi erkidegoen arabera sailkapenik egiten.

## I.3.8. Koadroa. Bildutako hiri hondakinak, motaren eta denboraldiaren arabera (biztanleko eta urteko kiloak)

	2006		2007		2008		2009	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Hondakin nahastuak (1)	488	500	487,9	493	493,4	468,8	471	443,9
<b>BILKETA SELEKTIBOIA (2)</b>								
Papera eta kartoia	39,3	22,1	41,1	25,3	39,0	24,0	35,0	23,5
Beira	19,7	12,6	22,8	14,0	24,4	14,9	25,7	15,0
Ontzi mistoak	36,0	18,6	33,2	18,2	52,7	28,4	24,8	19,1

(1) Hondakin nahastuak: Honela definitzen dira: etxe partikularretan, denda, bulego eta zerbitzuatan, bide publikoetan eta etxeko tresnerian sortutako etxeko hondakinak.

(2) Selektiboki bildutako hondakinak: baliogarri bihurtzeko daitezkeen hondakinak materialak bereiztea ahalbidetzen duen bilketa bereziaren emaitza dira.

Iturria: EIN. Prentsa-oharra.

Per capita aztertuta, EINren inkesta beraren arabera, EAEn, 2009. urtean, nahastutako hiri hondakinen 471 kilo jaso ziren biztanle bakoitzeko; kopuru hori estatuko batez bestekoaren gainetik dago (443,9) eta aurreko urtean izandako kopuruaren gainetik ere (493,4). Autonomi erkidegoen arabera, Kantabria (528,4), Nafarroa (523,2), Balear Irlak (490,1), Gaztela-Mantxa (484,4) eta Kanariar Irlak (478,9) izan ziren pertsonako baliorik handienak izan zituztenak.

Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak. Hondakinak bereiztuz gero, ikusiko dugu paper eta kartoiaren bilketa murriztu dela (biztanle eta urte bakoitzeko 39 kilo izatetik 35 kilo izatera), ontzi mistoena ere bai (biztanle eta urte bakoitzeko 52,7 kilo izatetik 24,8 kilo izatera), eta beirarena gehitu dela (urte eta biztanle bakoitzeko 24,4 kilotik 25,7 kilora).

**(f) Energiaren produkzioa eta kontsumoa**


Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoaren artean. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegitratzeagatik, banaketagatik...) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

“Euskadi Energia 2010. Energiari buruzko datuak” izeneko txostenak, Energiaren Euskal Erakundeak 2011. urtean argitaratu zuena, agerian uzten du 2010. urtean lehen mailako energiaren produkzioa %4 areagotu zela, 399 ktep-tik 415era igaroz. Egun, ekoizpen hori, funtsean, energia berriztagarrietan oinarritzen da (iturri propio nagusia) eta energi mota hori 2009 eta 2010. urteen artean %3,3 gehitu zen (382 Ktep-etik 395era).

Bestalde, energiaren barne kontsumo gordina edo eskaria %2,8 gutxitu da, 7.107 Ktep-eraino. Amaierako kontsumoa 5.360 Ktep-ekoa izan zen, %1,9 gehituz. Gehikuntza horretan industriak, nekazaritzak, arrantzak eta zerbitzuek lagundu dute.

Lehen mailako energiako norberaren produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren %5,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (7.107 Ktep). Ondorioz, EAEk kanpoaldearekiko duen energia mendetasuna %94,2,7an kokatzen da.

Lehen sektorearen portaera alde batera utzita, azken kontsumoaren gehikuntzaren (%1,9) arrazoa batez ere industriaren eta zerbitzuen sektoreen kontsumoaren gehikuntza da (%5,1 eta %3,2). Industriaren sektoreak, kontsumoan eragin handiena daukanak alegia (kontsumo osoaren %45,3), bere kontsumoa 2.254 Ktep-etik 2.428 Ktep-era gehitu du. Bestalde, garraioak, kontsumoan

**I.3.2. Koadroa. Lehen mailako energiaren ekoizpena (Ktep)**

Iturria: EEE.

eragin handiena duen bigarren sektoreak, kontsumoa %1,2 murriztu du: 1.784 Ktep-etik 1.763 Ktep-era.

Energia motaren arabera amaierako kontsumoari dagokionez —oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina izateagatik— ikus daiteke petrolio eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %37,5arekin. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %3,7koa hain zuzen. Garrantziaren aldetik atzetik ditu energia elektrikoa (kontsumoaren %27,3 hartuz eta aurreko urteko kopuruaren aldean %4,9ko gehikuntzarekin) eta gas naturala (eskariaren %25,1 da eta %5,6ko hazkundea bizi izan du aurreko urtearen aldean). Distantzia handian atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatz)

**I.3.9. Koadroa. EAEn energia balantzea**


	2010							2009-10 bariazioa						
	Erregai solidoak	Petrolio eta eratorriak	Gas naturala	Energia eratorriak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	GUZTIRA	Erregai solidoak	Petrolio eta eratorriak	Gas naturala	Energia eratorriak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	GUZTIRA
Lehen mailako energia produkzioa	0	0	0	21	395	0	415	0,0			20,6	3,3		4,0
Barne kontsumo osoa eskuragarri (eskaera)	190	2.765	2.959	21	488	685	7.107	1,1	-5,6	-14,1	20,6	12,2	129,7	-2,8
Transformazio sarrerak	203	10.210	1.564	21	77	0	12.075	2,9	-0,2	-25,6	20,6	0,3		-4,3
Transformazio irteerak	89	9.942	0	177	0	838	11.045	13,7	-0,3		-10,6		-28,4	-3,3
Amaierako energia kontsumoa	65	2.012	1.345	133	340	1.464	5.360	13,3	-3,7	5,6	-11,5	16,1	4,9	1,9
Industria	65	156	995	120	206	886	2.428	13,3	-4,6	5,6	-14,1	3,2	9,7	5,1
Garraioa	0	1.646	0	0	101,5	16	1.763	0,0	-3,6			66,4	-0,6	-1,2
Nekazaritza eta arrantza	0	74	0	4	0	5	82	0,0	640,0		-5,0		-8,0	333,7
Zerbitzuak	0	32	111	9	2	307	460	0,0	1,9	9,1	24,3	110,0	0,5	3,2
Bizitegia	0	105	239	0	30	251	626	0,0	-1,8	4,2		1,3	-4,4	-0,6

Iturria: EEE. ENERGIA 2010 eta 2009.

**I.3.10. Koadroa. Eraldaketa irteerak zentral mota gorabehera EAE-n**

	Ktep			2010, % bertikala	% ald.
	2008	2009	2010		
Guztira	11.131	11.418	11.045	100,0	-3,3
Findegiak	9.747	9.972	9.942	90,0	-0,3
Zentral termoelektrikoak	864	951	610	5,5	-35,9
Kogenerazioa	429	417	405	3,7	-2,9
Kokea lortzeko fabrikak	91	78	89	0,8	13,7

Iturria: EEE.

**I.3.3. Koadroa. Energiaren intentsitatearen bilakaera**

Iturria: EEE.

eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa –kogenerazioa adibidez– biltzen ditu). EAEko energi ekoizpena guztira (transformazio irteerak izenekoak) 2010ean %3,3 murriztu zen, batez ere zentral termoelektrikoen jarduera murriztu zelako (-%35,9).

Azkenik, BPGren unitate bakoitzeko amaierako kontsumo gisa neurtutako intentsitate energetikoaren analisiak adierazten duenez, 2010ean intentsitatea 2000. urtekoaren %90 da eta, aurreko urtearekin alderatuta, 2 portzentaje-puntuz gutxitu da.

Sektoreka banatuta, industriako energi intentsitatea ehuneko 7 puntu okertu da 2010ean, energiaren kontsumoan gorakada izan arren industriako BPGan puntu 1 galdu baita. Garraio sektorearena, berriz, 1,4 puntu hobetu da; eta zerbitzuena %5,4 okertu da.

**3.2. Enpresa industrialia eta ingurumena****3.2.1. Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean**

EINk egindako Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuari buruzko inkestako azken datuen arabera, 2009an EAEn aipatu enpresek ingurumen babesean izandako gastua (inbertsioa barne) guztira 206,5 milioi eurokoa izan zen. Hori 2008an baino %11,3 gutxiago da.

206,5 milioi euro horietatik, 67 milioi euro, hots, %32,4, inbertsioetako gastuari (%33,4 2008an) dagozkio eta %67,6 gastu korronteei.

Gastua BPGaren portzentaje bezala neurtuta, 2009an beste murrizketa bat ikusten da, %0,32an geratuz. Horrela, EAE zazpigarren posizioan dago, hauen atzetik: Asturias (%0,53), Kantabria (%0,51), Aragoi (%0,39), Nafarroa (%0,36), Gaztela-Mantxa (%0,36) eta Gaztela eta Leon (%0,33), eta Galiziaren maila berean (%0,32).

**3.2.2. Ingurumena eta industriako enpresa EAEn**

Epigrafe honetako informazioa, EAEn 2011ko Ekobarometro Industrialean jasoa (2011ko urrian argitaratua), inkesta prozesu batetik aurrera eskuratu zen, lhobek EAEko 593 industri enpresen lagin erakusgarri bati egina. Errore estatistikoko marjina  $\pm$ %4,76 zen eta konfiantzarako tarte  $\pm$ %95,5 (ausazko laginketa soila eginez gero, baldin eta  $p=q=0.5$ ), teknikak nahasiz. Unibertsoa EAEko 10 langiletik gorako 4.715 enpresa industrialek osatzen dute.

**I.3.11. Koadroa. Ingurumena babesteko industri enpresen gastua eta inbertsioa**

	Gastua, guztira (€)				BPGren gaineko ehunekoak			
	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009
Andaluzia	278.872.489	313.010.499	333.706.017	319.597.574	0,21	0,22	0,22	0,22
Aragoi	86.645.466	143.620.364	152.715.582	126.819.753	0,29	0,44	0,45	0,39
Asturias	182.993.115	215.247.165	203.592.138	119.890.531	0,86	0,94	0,86	0,53
Balear Uharteak	18.209.920	34.066.011	15.926.230	11.967.058	0,07	0,13	0,06	0,05
Kanariar Uharteak	34.051.981	35.108.376	37.648.101	43.506.247	0,09	0,08	0,09	0,11
Kantabria	47.792.877	64.195.561	60.171.683	68.062.157	0,39	0,48	0,43	0,51
Gaztela eta Leon	194.264.504	264.475.089	299.968.059	185.273.761	0,37	0,47	0,52	0,33
Gaztela-Mantxa	111.221.225	113.100.200	138.824.580	127.241.776	0,34	0,32	0,38	0,36
Katalunia	629.136.214	659.082.537	679.930.605	604.809.446	0,34	0,33	0,34	0,31
Valentzia	252.257.387	263.224.457	281.986.018	224.121.489	0,26	0,26	0,27	0,22
Extremadura	18.225.467	20.852.402	33.739.426	26.372.435	0,11	0,12	0,19	0,15
Galizia	218.480.110	310.964.170	339.158.902	177.151.529	0,43	0,57	0,60	0,32
Madril	150.627.230	170.127.122	153.948.869	201.936.810	0,09	0,09	0,08	0,11
Murtzia	77.493.768	72.009.557	66.781.317	58.194.751	0,31	0,27	0,24	0,21
Nafarroa	76.206.491	70.688.291	75.287.814	65.811.746	0,46	0,40	0,41	0,36
EAE	220.916.516	230.180.351	232.735.174	206.511.412	0,36	0,35	0,34	0,32
Errioxa	19.394.534	32.032.363	22.734.686	18.786.049	0,27	0,41	0,28	0,24

Iturria: EIN.

Laginketa hau egiteko zundaketaren oinarria, aurreko Ekobarometro Industrialetan bezala, CIVEXen (Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa) datu-basea izan da. Zehazki, unibertso hauentzat %10eko errore estatistikoko marjina daukaten laginketa bereziak egin dira: 254 IPPC enpresa<sup>6</sup>; 226 ErP enpresa; I+G+b egiten duten 390 enpresa<sup>7</sup>; 1.400 SGMA<sup>8</sup> enpresa.

EAEko Ekobarometroaren 2011ko datuen arabera, euskal enpresek uste dute produktu eta zerbitzu berdeen garrantzia areagotzen ari dela eta ingurumenaren hobekuntza horrek batez ere kanpoko faktoreak dituela: ingurumen legeria eta bezeroak, batez ere.

Halere, teknologia garbietarako finantzazioko baldintza mesedegarrik ez dagoenez gero, gaur egun oztopo garrantzitsua dago ingurumeneko hobekuntzak egiteko.

#### **Bezeroen betekizunak eta ingurumenaren legeria, ingurumena hobetzeko motorra**

Euskal enpresek uste dute ingurumenaren hobekuntza lehiakorrek kanpo faktoreak dituela batez ere: ingurumen legeria (inkestatutako enpresen %41ak aipatua), eta enpresa bezeroen, bezero publikoen eta azken kontsumitzailearen ingurumeneko betekizunak (%39). Barne-faktore motibatzaileak ez dira hain garrantzitsuak, hala nola, lehengaien kostuan aurrezteak (%19), benetako eraginaren aldean balio gutxiegi ematen omen zaiena, eta zuzendaritzaren ingurumenarekiko konpromisoa (%13), Ekobarometro Industrialaren beste edizio batzuen aldean argi eta garbi atzeratu dena.


#### **Ingurumenarenganako jarrera eta konpromisoa: Produktuak eta zerbitzuak berdetzearen garrantzia gehitu da**

Gaur egun, euskal enpresen %40 baino gehiagok baieztatzen dute ingurumeneko hobekuntzak egin dituztela beren produktuetan azken hiru urteetan. Ekobarometro Industrialaren aurreko ikerketetan, berriz, %12 izan ziren. %31k dio bere zerbitzuak berdetu dituela. Ekoizpen prozesuetako ingurumen hobekuntzak, %55 enpresa proaktiboak izanik, garrantzitsuenak dira oraindik ere baina aurreko urteko mailen antzekoetan daude.

IPPC araudiaren eragina jasotzen duten enpresen, I+G+b-n inbertitzen duten enpresen eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria duten enpresen (Emas, ISO 14006 edo Ekoscan) kasuan, ingurumenarekiko duten konpromisoa gainerako enpresena baino handiagoa da.

Horrela, produktuei buruz neurriren bat hartu duten IPPC, I+G+b eta ErP enpresen proportzioa %57-%58 bitartean dago. Ekoizpen prozesuei buruzko neurri dagokienez, neurriren bat hartu duten ErP enpresen proportzioa %67 da, I+G+b enpresetan, %79koa, eta IPPC enpresetan, %83. Eta zerbitzuei buruzko neurrietan, ErP enpresetan,

#### **I.3.4. Grafikoa. Azken 3 urteetan ekoizpen prozesuetan, produktuetan edo zerbitzuetan beren ingurumen eragina murrizteko neurriren bat hartu dutela baieztatzen duten enpresak (%)**



Iturria: Ekobarometro industrial. Ihobe 2011.

proportzioa %38koa da; IPPC enpresetan eta I+G+b enpresetan, berriz, %40koa da.

SGMA bat daukaten enpresen artean, ekoizpen prozesuen inguruko nahiz produktuen inguruko neurriak enpresarik gehienek hartu dituzte: %79 eta %60, hurrenez hurren. Horrelako ziurtagiririk ez daukaten enpresetan, portzentajeak askoz ere txikiagoak dira: %49ak ekoizpen prozesuei buruzko neurriak hartu dituzte, eta %36ak produktuei buruzkoak.

Oro har, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko neurriren bat hartu dutela dioten enpresa industrialen portzentajea azken urteetan gehitu da. Horrela, 2006an guztien %57 ziren eta 2011n portzentaje hori %65eraino gehitu da.

IPPC enpresetako gehiengo zabalak (%89ak) adierazi du ingurumen eragina murrizteko neurriren bat hartu duela. Halere, 2006an erregistratutako portzentajearen aldean gutxikuntza txiki bat izan da (%94).

#### **Bezeroen ingurumen betekizunen gehikuntza**

Enpresa industrialen %36ak uste du azken urteetan ingurumen betekizunen exijentzia asko (%6) edo nahiko (%30) gehitu dutela beren bezeroek.


ErP enpresen kasuan, proportzio hori %39koa da. IPPC enpresentzat %43 da. I+G+b enpresak dira, berriz, merkatuan ingurumen betekizunen exijentzia igo dela gehien nabaritzen dutenak (%53).

<sup>6</sup> IPPC enpresak. Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legeak ukitutako euskal enpresak dira; haien instalazioak potentzialki kutsagarriak direnez gero zenbait neurri aplikatzen zaizkie. Lege hori IPPC (Integrated Prevention Pollution and Control) Europar Zuzentaraua antolamendu juridikoari egokitzearen ondorio da.

<sup>7</sup> I+G+b egiten duten enpresak. Ikerketa eta Garapen proiektuak egin dituzten euskal enpresak dira. Laginketa aukeratzeko egin den zundaketaren oinarria azken hiru urteetan produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak jaso dituzten enpresa industrialak izan dira (EHAAn argitaratuak), Eusko Jaurlaritzaren Gaitetik eta Etorgai programen barnean. Oinarri horren barruan, 10 langiletik gorako enpresa industrialak aukeratu dira.

<sup>8</sup> ErP enpresak. ErP (Energy Related Products) Ekodiseinuko Zuzentarauak ukitutako euskal enpresak dira, energia zuzenean erabiltzen duten produktuei aplikatzen zaizkienak (motorrak, etxeko tresna elektrikoak, galdarak etab) eta energiaren kontsumoan zeharka eragiten duten produktuei aplikatzen zaizkienak (txorrotak, leihoak, isolamenduak etab). Lagina aukeratzeko erabili den zundaketaren oinarria ukitutako eta 10 langiletik gorako 226 enpresen zerrenda izan da, lhobek egina.

### I.3.5. Grafikoa. Azken 3 urteetan, zure ustez zein neurritan gehitu da ingurumen betekizunen exijentzia maila zure bezeroen aldetik?



Iturria: Ekobarometro industriala. Ihobe 2011.

Era berean, ikusi da “SGMA ziurtatua (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) daukaten enpresek jarduten duten merkatuetan honelako betekizunen exijentziak eragin handiagoa duela ingurumen ziurtagiri homologaturik ez daukaten enpresek jarduten duten merkatuetan baino”. Lehenengoan artean, %53ak adierazi du exijentzia hauek nabarmen gehitu direla (gainerakoetan, %32 dira).

#### **Ingurumen hobekuntzarako oztopoak, enpresen eskaera nagusiak, eta ingurumen inplikazioaren aintzatespen publikoaren garrantzia**

EAEko enpresa industrialetan ingurumen hobekuntzak sartzeko oztopo nagusia teknologia garbietarako finantzazio baldintza mesedegaririk ez egotea da (ingurumen inpaktu txikiagoarekin eta eraginkorrakoak). Horrela, %41ak uste du gai honek asko (%16) edo nahiko (%25) oztopatzen duela.

Hala eta guztiz ere, euskal enpresen artean Teknologia Garbien Zerrenda nahiko ezezaguna da. Haietako %79ak ez daki zerrenda horretan sartutako teknologien inbertsioek kenkari fiskaletarako eskubidea ematen dutela (kuotaren gainean %30).

Ingurumen hobekuntzak sartzeko lehen oztopo horren atzetik, hauek datoz garrantzi ordenan: langileek ingurumen gaietan prestakuntza eta gaikuntza txiekia izatea (%26ak uste du oztopagarria dela: %3arentzat

oso eta %23arentzat nahiko), aholkularitza eta babes zerbitzuen gabezia ingurumen gaietan, eta teknologia berri ez hain kutsagarriari eta eraginkorragoei buruzko informazio ez izatea (%23ak uste du oztopagarria dela: %4arentzat oso eta %19arentzat nahiko), ingurumen exijentziak dituzten merkatu berriei buruzko informazio eza (%18ak uste du oztopagarria dela: %2arentzat oso eta %16arentzat nahiko), eta azkenik ingurumen legeriari buruzko informazio eza planteatzen da (%16ak onartzen du oztopagarria dela: %3arentzat oso eta %13arentzat nahiko).

Enpresen %26ak prestakuntza gehiago eskatzen du, %23ak orientazio teknologiko eta eko-eraginkor gehiago, eta %18ak merkatuen ingurumen betekizunei aurrea hartzea. Horrek argi eta garbi erakusten du enpresei ingurumen orientazio independentea eta zorrotza eskaini behar zaiela. Hain zuzen ere, merkatuaren ingurumen eskaeren aurreko zalantzazko azken ezaugarri hori da europar enpresabururik gehienek (%67) eko-eraginkortasunerako eta eko-berrikuntzarako oztopo handientzat jotzen dutena.

Azkenik, euskal enpresen %42ak uste dute garrantzitsua dela eta balioa emango diela beraien ingurumen konpromisoa eta inplikazioa jendaurrean aitortzea. Kopuru horiek %68 dira IPPC enpresen kasuan eta %58 ingurumen kudeaketako sistema duten enpresen kasuan.



# 02

EKONOMIA EAE-n



**MEMORIA**  
EAEko sozioekonomikoa  
2011

# 1. Kanpoko ingurune ekonomikoa

## 1.1. Faktore ekonomiko nagusiak

2011. urte hasieran iritzi-adierazleek azaltzen zutenaren arabera, munduan 2010eko azken hiruhilekoan gertatutako hazkunde ekonomikoa jarraitu egingo zuen 2011. urteko lehen hiruhilekoan. Hala ere, ezusteko zenbait gertakariren ondorioz (Japoniako lurrikara, ekonomia aurreratu nagusietako benetako errentengan eragina izan zuen lehengaien prezioen gorakada, etab.), munduko ekonomiak bizitasuna galdu zuen 2011ko lehen seihilekoan.

Hala eta guztiz ere, hazkundearen erritmoa apur bat desberdina izan zen lurraldeen arabera. Ekonomia aurreratuetan, sektore publikoko zein pribatuko balantzeen onbideratzeak eta lan- eta etxebizitza-merkatuen ahultasunak hazkundera mugatzen jarraitu zuten. Ekonomia berrietan, aldiz, hazkunderak nahiko indartsua izaten jarraitu zuen, baina zertxobait moteldu zen urteko azken hilabeteetan, eta horrek gehiegi berotzeagatiko presioa arintzen lagundu zuen.

2011ko bigarren seihilekoan beste gertakari batzuk jazo ziren (euroguneko zor subiranoaren krisiak eta AEBko zorraren mugari buruzko eztabaidek finantza-merkatuetan eragindako tentsioak...), eta horiek ere ahuldu egin zuten hazkunde-erritmoa.

Gauzak horrela, NDFaren arabera, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera munduko BPG haztatua % 3,9 hazi zen urte osoan (aurreko urtean, 2010ean, % 5,3 hazi zen). Ekonomia aurreratuak %3,2 hazi ziren: AEBko BPG % 1,6 hazi zen, eurogunekoa % 1,4, eta Japoniakoa % 0,7 txikitu zen. Garatzeko bidean dauden ekonomiak, batez ere Asiakoak, India eta Txina buru dituztela, % 6,2 inguruko tasaraino hazi ziren. Txina eta India % 9,2 eta % 7,2 hazi ziren, hurrenez hurren.

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin bat etoriz, munduko merkataritzak 2010eko azken hiruhilekoan izandako benetako gorakadak jarraitu egin zuen 2011ko lehen hiruhilekoan, baina ahuldu egin zen urteko bigarren seihilekoan. Urtean, oro har, eta aurreko urtearekin alderatuta, munduko merkataritza % 5,8 hazi zen.

Prezioen bilakaerari dagokionez, petroleoarenak bere horretan eusteko gaitasuna erakutsi zuen, nahiz eta urtean zehar finantza-merkatuetako gorabeherak indartuz joan. Baliorik altuena apirilean jaso zen, Brent upela 123 dolarretan kotizatzen iritsi baitzen. Horretarako arrazoi nagusia merkatu fisikoetan egondako egoera tirabiratsua izan zen, horien ondorioz petroleo izakinak murriztu egin baitziren, izan ere, bi faktore nahastu ziren: eskaintzak izandako etenak eta petrolio gordinaren eskariaren sendotasunari buruzko datuak. 2010 eta 2011 bitartean Brent upelaren batez besteko prezioa % 6,7 hazi zen, upel bakoitzeko 111,3 dolarretik upel bakoitzak 118,8 \$ balio izatera.

Energetikoak ez diren lehengaien prezioei dagokienez, aldiz, zor subiranoko zenbait merkaturtan jazotako tirabiren eta horiek munduko eskarian izandako ondorioen eragina jasan zuten bai elikagaiak baita oinarritzko metalek ere.

### II.1.1. Koadroa. Aldagai ekonomiko nagusiak

	2010	2011
BPG (urteko bilakaera ehunekoetan)		
Mundukoa	5,3	3,9
Ekonomia aurreratuak (1)	3,2	1,6
AEB	3,0	1,7
Japonia	4,4	-0,7
Eurogunea	1,9	1,4
Beste ekonomia aurreratu batzuk (G7 eta euroguneko herrialdeak salbu)	5,8	3,2
Garapen bideko ekonomiak	7,5	6,2
Latinoamerika eta Karibe	6,2	4,5
Brasil	7,5	2,7
Mexiko	5,5	4,0
Estatu Independenteen Erkidegoa	4,8	4,9
Errusia	4,3	4,3
Errusia izan ezik	6,0	6,2
Asiako garapen bideko herriak	9,7	7,8
Txina	10,4	9,2
India	10,6	7,2
ASEAN-5	7,0	4,5
Erdialdeko eta ekialdeko Europa	4,5	5,3
Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea	4,9	3,5
Sahara azpiko Afrika	5,3	5,1
Hegoafrika	2,9	3,1
Ondasunen eta zerbitzuen munduko merkataritza (ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazio eta inportazioen urteko aldakuntzaren % batez bestekoa)	12,9	5,8
Langabezia-tasa (%)		
Ekonomia aurreratuak	—	7,9
Kontsumitzailearentzako prezioak (urteko bilakaera ehunekoetan)		
Ekonomia aurreratuak	1,5	2,7
Garapen bideko ekonomiak	6,1	7,1
North Sea Brent petrolioaren prezioa (\$/upel, urteko batez bestekoa)	111,3	118,8
Lehengaien prezioak (€) (2005 = 100 indizea)		
Elikagaiak	169,9	196,7
Produktu industrialak (ez metalak)	214,4	179,7
Produktu industrialak (metalak)	161,4	155,2
Esku hartzeko interes tipoa (aldiaren amaieran)		
BEM	1,00	1,00
AEB – gordailu federalen tipo objektiboa	0,25	0,25
Japonia – Call Money (2)	0,10	0,10
Euroaren truke-tasa (moneta-unitateak euroko)		
Dollarrak euroko	1,327	1,392
Libera esterlinak euroko	0,858	0,868
Yen japoniarrak euroko	116,46	111,02
Burtsa: kotizazio-indizea (abendutik abendurako aldakuntza ehunekoetan)		
Dow Jones (New York)	15,0	5,5
Nikkei	-4,0	-17,3
Euro Stoxx zabala	0,2	-18,0
Ibex 35	-17,0	-13,1

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, Asiako ekonomia industrializatu berriak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Asiako ekonomia industrializatu berriak: Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur.

(2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes tipoa.

Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2012ko apirila) eta Ekonomia Ministerioa "Adierazle ekonomikoaren laburpena".

Kopuru erantsietan, energetikoak ez diren lehengaien prezioen indizea (Estatu Batuetako dolarretan) urte hasierako maila baino % 14 beherago zegoen abendu hasieran.

Testuinguru horretan, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak 2010 (eta 2009) amaieran izan zituzten esku-hartze tasak mantendu zituzten 2011n ere: % 0,25 lehenengoaren kasuan eta % 0,1 bigarrenaren kasuan. Bestalde, Europako Banku Zentralak birritan igo zuen (% 1,25era apirilean eta % 1,5era uztailean) eta beste birritan jaitsi zuen (% 1,25era azaroan eta % 1era abenduan).

Diru merkatuko interes-tasei dagokienez, horiek areagotu egin ziren epe guztietan. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,86 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 1,24an amaitu zen laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra % 1,09tik % 1,5era igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeterako Euriborrak % 1,73an hasi zuen urtea eta % 2,05ean amaitu.

Azkenik, truke eta burtsa merkatuei dagokienez, dibisen merkatuan AEBko dolarraren benetako truke-tasa erreala tokia galdu zuen eta, ondorioz, euroak balio pixka bat irabazi zuen. Europako dibisak libera esterlinaren aurrean ere irabazi du balioa, baina balioa galdu du yenaren aurrean.

Urteak aurrera egin ahala, itxaropenak krisi aurreko garaietara itzultzen zirela ikusi zuten munduko burtsa-merkatuek. Gauzak horrela, IBEX 35 % 13,1 erori zen urtetik urtera (2011ko abendua 2010eko abenduarekin alderatuta), Nikkei indizea % 17,4 jaitsi zen, Dow Jones, aldiz, % 5,5 aurreratu zen (% 15 2010ean), eta Euro Stoxx zabalak % 18 erori zen (aurreko urtean, aldiz, % 0,2).

## 1.2. Bilakaera ekonomikoa guneen arabera

NDFk eta Europako Banku Zentralak (EBZ) emandako datuen arabera, 2011n, guneka, munduko ekonomiak honako bilakaera izan du:

### **Estatu Batuak**

Estatu Batuetako ekonomia hazi egin zen 2011n, baina 2010ean baino astiroago: BPG % 1,7 hazi zen (urtebete lehenago % 3 hazi zen). 2011ko lehen seihilekoan hazkundera geldoa izan zen gastu publiko txikiagoaren eta arestian aipatutako faktore negatiboen eraginez. Urteko bigarren seihilekoan ekonomia berriro suspertu zen kontsumo pribatua hazi egin baitzen nahiz eta kontsumitzaileen konfiantza-maila baxua izan eta errenta eskuragarriaren hazkundera ahula izan. Gainera, badirudi etxebizitzaren inbertsioa leheneratzen hasi dela eta horrek eragin positiboa izan duela 2011ko bigarren seihilekoaz geroztik BPGk izandako hazkunderan.

Lan-merkatuari dagokionez, enpleguak izandako hazkundera ez zen nahikoa izan 2008an eta 2009an izandako galerak berreskuratzeko eta langabezia-tasa nabarmen murrizteko (tasa hori % 8,9koa izan zen, batez beste, 2011n eta % 9,6koa 2010ean).

Inflazio orokorra altua izan zen 2011n, bereziki elikagaien eta energiaren kostuak gora egin zuelako. 2011n KPIren arabera neurtutako urte arteko inflazioa % 3,1ekoa izan zen, eta urtebete lehenago % 1,6koa izan zen.

Zerga-politikari dagokionean, aurrekontu federalaren defizita zertxobait murriztu zen 2011n (BPGaren % 8,7, eta aurreko urtean % 9koa izan zen). Horrenbestez,

publikoaren esku zegoen zor federalak berriro ere gora egin zuen 2011 amaieran (BPGaren % 68, eta 2010 amaieran % 63 izan zen).

### **Japonia**

Japoniak martxoan jasandako lurrikarak eta haren ondoriozko hondamendi nuklearrak eragin handia izan zuten herrialdearen hazkunde ekonomikoarengan. Ekoizpenak eta esportazioek beherakada nabarmena izan zuten eta barne-eskari pribatua ere asko ahuldu zen, beraz, 2011ko lehen seihilekoan BPG nabarmen erori zen. Lurrikarak eragindako eskaintza-murrizketak hasieran uste zena baino lehen konpondu ziren, eta ondorioz jarduera ekonomikoa gorakada izan zuen hirugarren hiruhilekoan. Hala ere, urteko azken hiruhilekoan BPG erreala murriztu egin zen berriro munduko eskaria ahuldu egin zelako eta Tailandiako uholdeek Asiako merkataritzan distortsioak eragin zituztelako.

Yenak balioa irabazi izanaren ondorioz esportazioek izandako ahultasuna eta lurrikararen ostean inportazioek izandako gorakada batuta, merkataritzaren balantzak saldo defizitarioa erakutsi zuen lehenengo aldiz 1980az geroztik.

Ekonomiak deflazio-ingurunean sartuta jarraitu zuen. KPIk neurtzen duen inflazioa negatibo mantendu zen 2011ko zatirik handienean.

Gertatutako ezbeharren ondoren, Japoniako Bankuak larrialdiari aurre egin ahal izateko epe motzerako likidezia eman zuen berehala, aktiboak erosteko programa zabaldu zuen eta kaltetutako inguruetako finantza-erakundeentzako kreditua laguntzeko programa bat jarri zuen abian.

2011. urtean zehar, Japoniako Bankuak moneta-politika moldakorra aplikatzen jarraitu zuen ekonomia sustatzeko eta deflazioari aurre egiteko, eta bere horretan mantendu zuen % 0 eta % 0,1 arteko tipo ofizialei buruzko helburua. Gainera, Japoniako agintariek dibisa-merkatuetan esku-hartzen zuten noizean behin yenak berehalako balio-igoerarik izan ez zezan.

Zerga-politikari dagokionez, Gobernuak 20,7 bilioi yeneko (BPGaren % 4,4 inguru) lau aurrekontu osagarri onartu zituen, gehienak laguntzan eta berreraikuntzan egindako ahaleginak babesteko.

### **Asiako garapen bideko ekonomiak**

2010ean izandako gorakada eta gero, hazkunde ekonomikoa beherakada izan zuen 2011n kanpoko zein barneko faktoreak direla medio. Izan ere, BPGaren urte arteko hazkundera % 7,8koa izan zen, eta aurreko urtean, aldiz, % 9,7koa.

Hazkunde ekonomikoa ez da handia izan mundu osoan, beraz, esportazioen hazkundera nabarmen murriztu zen urteko bigarren seihilekoan. Gainera, etorkizunean munduko ekonomiak izango zuen bilakaerari buruzko ziurgabetasunak finantza-merkatuen hegazkortasuna bultzatu zuen eta urte amaierarako kapital ugari eskualdetik ateratzea ekarri zuen.

Zenbait ekonomiatan (esaterako Indian) barne-faktoreek ere izan zuten zeresana desazelerazioan, enpresenganako konfiantza txartu izanak inbertsioa ahuldu baitzuen eta moneta-politika gogortu izanak kreditua garestitu baitzuen. Tailandiak jasan zituen uholdeek nabarmen mugatu zuten herrialde horren hazkundera urteko azken hiruhilekoan, eta inguruko ekonomiengan ere eragin negatiboa izan zuten (adibidez Japoniakoarengan).

Barne-eskaria hazi egin zen, eta nahiz eta moteldu egin zen pizgarrien politikak apurka-apurka kentzen joan zirelako, esportazioak moteldu izanak hazkundean izandako lasta efektua orekatzeko balio izan zuen.

Eskualdeak inflazio-presio handiak izaten jarraitu zuen. Inflazio-tasak areagotu egin ziren lehenengo bi hiruhilekoetan, hasiera batean elikagaien eta beste lehengai batzuen prezioen gorakadaren ondorioz egin ere. Hala ere, hirugarren hiruhilekoan inflazioa urteko gehiengora iritsi zen, eta orduruz geroztik moteldu egin ziren bai inflazio inportatua, bai barne-eskariaren presioak.

Inflazioa moteldu egin zela eta hazkunde handirik espero ez zela ikusita, laugarren hiruhilekoan banku zentralak amaitutzat eman zuten 2010eko bigarren seihilekoan hasi zuten moneta-politika gogortzeko zikloa. Hala ere, gehiegi berotzeagatik presioak nabarmen leundu arren, urte amaieran oraindik desagertzeke zeuden.

### **Txinako kasua**

Txinako ekonomiari dagokionez, benetako BPGaren hazkundera % 10,4tik % 9,2ra murriztu zen 2010 eta 2011 artean. Hazkunderaren faktorerik erabakigarriena barne-eskaria izan zen eta kanpo-eskariaren ekarpen garbia, aldiz, negatiboa izan zen. Inflazioa altua izan zen urte osoan zehar, bereziki lehengaien prezio altuen ondorioz eta elikagaien eskaintzak jasandako etenduren ondorioz, baina urte amaiera aldera % 3,1era jaitsi zen. Hazkunde-itxaropena okertu egin zenez, 2011ko abenduan agintariak ehuneko puntu erdi murriztu zuten mailegu-erakundeei eskatzen zitzaizen erreserba-koefizientea, eta zerga- zein moneta-neurriak hartu zituzten enpresa txiki eta ertainei laguntze aldera. Munduko hazkundera ahuldu egin zenez urteko bigarren seihilekoan esportazioen hazkundera murriztu egin zen, eta inportazioen hazkundera, ordea, mantendu egin zen barne-eskariaren sendotasunari esker; hori guztia dela eta, merkataritza-balantzaren superabita murriztu egin zen. Txinako yuanaren balioa % 5,5 handitu zen 2011n benetako termino nominaletan.

### **Estatu Independenteen Erkidegoa**

Petroleoaren eta lehengaien prezioen sendotasunari esker, eskualde honen hazkundera garrantzitsua izaten jarraitu zuen 2011ko bigarren seihilekoan, izan ere, 2010eko lehortearen ondotik nekazaritza-ekoizpenak gorakada izan zuen hainbat ekonomiatan (Armenia, Bielorrusia, Kazakhstan, Errusia) eta barne-eskari handia egin zen.

Hala ere, eskualdeak euroguneko arazoetako batzuen kutsadura jasan zuen. Euroguneko atzeraldia hasi zenean eskualde honetako esportazioak ahuldu egin ziren eta eskualdeko ekonomiarik handienetako industria-ekoizpena ere moteldu egin zen. Era berean, 2011. urte amaieran finantza-arazoak areagotu egin ziren eta inbertsiogileak aukera seguruagoen bila hasi zirenez hainbat kapital atera ziren Errusiatik, zordunek ez ordaintzeko arriskuagatik *swap* deritzenen diferentziala areagotu egin zen (bereziki Ukrainiaren kasuan) eta hainbat eskualdetako dibisek balioa galdu zuten (adibidez errusiako errubloak).

Elikagaien eta erregaien prezioak altuak zirenez (eta zenbait ekonomiatan eskariaren presioak gehiegizkoak zirenez), inflazioa igo egin zen 2011 erdi aldera, baina EIEko ekonomia askotan moteldu egin zen urteko bigarren seihilekoan. Hainbat izan ziren hori gerta zedin eragin zuten faktoreak: uztia onak (elikagaien prezioen

inflazioa murriztu zuten), jarduera ekonomikoa moteltzea eta zenbait ekonomiatan moneta-politika murriztaileak aplikatzea.

### **Latinoamerika eta Karibea (LK)**

Jarduera ekonomikoak hazten jarraitu zuen 2011ko lehen seihilekoan, baina 2010ean baino geldoago. BPG errealdaren hazkundera txikiagoa izatea eragin zuen faktore nagusia eskualdeko herrialde gehienetan moneta-politika gogortu izanaren ondorioz barne-eskariak zabalkunde geldoagoa izan zuela da. Bilakaera hori orekatu zuena zera izan zen, kanpoko eskariak egindako ekarpen ez horren negatiboa.

Herrialdeko berariazko eboluzioa kontuan hartuz gero, ikus daiteke lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeak izan zirela, beste behin, dinamikoak.

Eskualdeko hazkunde ekonomiko sendoa eta elikagaien prezioen gorakada direla eta, inflazio-presioek gora egin zuten orokorrean. Inflazio orokorra % 6,7koa izan zen 2011ko lehen seihilekoan (2010ean baino ehuneko 0,3 puntu gehiago), eta ondorioz hainbat banku zentralak igo egin behar izan zituzten beren interes-tasa ofizialak.

2011ko bigarren seihilekoan kanpo merkatuak azkar egin zuen behera finantza-merkatuen arteko tentsioak okertu egin baitziren eta munduko ekonomia leheneratzeko aurreikuspenak oso baxuak baitziren. Testuinguru horretan, eskualdetik kanpoko kapital-fluxuak berrikusi ziren eta ondorioz truke-tipoek balio-galera handiak izan zituzten; burtsako kotizazioak eta zor subiranoaren diferentzialak bezalako finantza-adierazleek ere okerrera egin zuten. Bilakaera horrek ekonomia ahuldu egin zuen eskualdeko herrialde gehienetan eta inflazio-presioak altu mantendu ziren.

Ziurgabetasun horren ondorioz, eskualdeko herrialde gehienek bertan behera utzi behar izan zituzten ordura arte aplikatutako moneta-politika murriztaileak.

### **Ekialde Ertaina eta Afrikako iparralde (EEAI)**

Herrialde bakoitzaren berezko faktoreak direla eta, EEAI eskualdearen hazkundera joera orokorra baino txikiagoa izan zen 2011n. Petroloea esportatzen duten herrialdeetan, petrolio gordinaren prezio altuei esker, % 4ko hazkundera egin zen 2011n nahiz eta Irango Errepublika Islamikoak izandako bilakaera horren ona ez izateak hazkunde hori moteldu. Petroleo esportatzaileen artean hazkundera % 2koa izan zen Siriako Errepublika Arabiarrari dagozkion datuak kanpoan utzi arren.

Hazkunde ahul horren eragilea gizartean izandako tirabirak izan dira batez ere, eskualdean kutsadura-efektua izan baitute bereziki turismoari eta kapitalen fluxuari dagokienez (eskualde osoan txikitu dira).

Munduko faktoreek eta Europako gertakariak ez dute orain arte eragin handirik izan eskualde honetan.

### **Sahara azpiko Afrika**

Sahara azpiko Afrikako eskualdeak emaitza sendoak izan zituen 2011n ere, % 5 inguruko zabalkundera izan baitzuen. Emaitza ona lortu zen nahiz eta euroguneko atzeraldiaren eta bestelako faktoreen ondorioz Hegoafrikako ekonomia moteldu egin zen eta nahiz eta ekialdeko eta mendebaldeko Afrikak pairatzen duen lehortea zein Boli Kostako gatazka zibilak eskaintzarengan eragin txarra eduki zuen.

**II.1.2. Koadroa. BPG erreala, kontsumitzailearentzako prezioak eta kontu korronteko saldoak (NDF)**

	BPG errealaren urteko bilakaera ehunekoetan		KPIren urteko bilakaera ehunekoetan		Kontu korronteko saldoa BPGaren % gisa	Langa-bezia-tasa
	2010	2011	2010	2011	2011	2011
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	3,2	1,6	1,5	2,7	-0,2	7,9
AEB	3,0	1,7	1,6	3,1	-3,1	9,0
Japonia	4,4	-0,7	-0,7	-0,3	2,0	4,5
Eurogunea	1,9	1,4	1,6	2,7	-0,3	10,1
Asian berriki industrializatutako ekonomiak (4 herrialde: Korea, Taiwan, Hong Kong eta Singapur)	8,5	4,0	2,3	3,6	6,5	3,6
<b>Garapen bideko ekonomiak</b>						
Asiako garapen bideko herriak	9,7	7,8	5,7	6,5	1,8	—
Txina	10,4	9,2	3,3	5,4	2,8	4,0
India	10,6	7,2	12,0	8,6	-2,8	—
ASEAN-5 (Indonesia, Thailandia, Filipinak, Malaysia eta Vietnam)	—	4,5	—	5,9	2,8	—
Latinoamerika eta Karibe	6,2	4,5	6,0	6,6	-1,2	—
Argentina	9,2	8,9	10,5	9,8	-0,5	7,2
Brasil	7,5	2,7	5,0	6,6	-2,1	6,0
Mexiko	5,5	4,0	4,2	3,4	-0,8	5,2
Hego Amerika	—	4,8	—	7,8	-1,0	—
Erdialdeko Amerika	—	4,7	—	5,6	-6,9	—
Karibe	—	2,8	—	7,2	-3,5	—
Europako ekonomia berriak (Erdialdeko eta Ekialdeko Europa)	4,5	5,3	5,3	5,3	-6,0	—
Turkia	9,0	8,5	8,6	6,5	-9,9	9,9
Polonia	3,9	4,3	2,5	4,3	-4,3	9,6
Errumania	-1,6	2,5	6,1	5,8	-4,2	7,2
Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde + 1)	4,8	4,9	7,2	10,1	—	—
Errusia	4,3	4,3	6,9	8,4	5,5	6,5
Errusia izan ezik	6,0	6,2	7,9	14,0	—	—
Energia esportatzaile garbiak	—	4,7	—	8,5	6,2	—
Energia inportatzaile garbiak	—	5,7	—	18,2	-8,0	—
Sahara azpiko Afrika	5,3	5,1	7,4	8,2	-1,8	—
Petrolio esportatzaileak	—	6,2	—	10,2	5,6	—
Sarrera ertaineko ekonomiak	—	3,9	—	5,4	-3,8	—
Sarrera txikiko ekonomiak	—	5,8	—	10,6	-9,7	—
Ekialde Ertaina eta Afrikako iparralde	4,9	3,5	6,9	9,6	13,2	—
Petrolio esportatzaileak	—	4,0	—	10,3	16,9	—
Petrolio inportatzaileak	—	2,0	—	7,5	-5,3	—

Ekonomia aurreratuak (34 herrialde): AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asiako ekonomia industrializatu berriak. Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herri + 1): Sobietar errepublika ohiak, 13 Mongolia sartuz gero. Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2012ko apirila).

Eskualdeak irauteko duen gaitasuna hainbat faktoreen arabera da, besteak beste, eurogunetik datozen finantza-kutsadura efektuetatik nolabait bakartuta egotea. Europarekiko dituen finantza-lotura urriek eskualdea 2011. urte amaieran izandako gorabeheretatik babesteko balio izan zuten, Hegoafrikaren kasuan salbu; herrialde horretan randak balioa galdu zuen eta akzioen prezioak oso aldakorrak izan ziren.

Bestalde, esportazioak hazkunde azkarreko merkatu berrietara dibertsifikatu izanak murriztu egin du Europak eskualde honengan izan duen eragina. Izan ere, laurogeita hamarreko hamarkadan eskualdeko esportazioen bi bosten eurogunera egiten baziren ere, egun eskualdeko esportazio guztien bosten bat bakarrik egiten da eurogunera. Lehengaiak prezio altuak izan zituzten eta hori onuragarria izan zen eskualdean produktuok esportatzen dituztenentzako, eta gainera, baliabide naturalen erazketarako inbertsioa sustatu zuen.

**1.3. Europar batasuna. Eurogunea**

2010ean izandako leheneratzea eta gero, BPG errealaren hazkundea moteldu egin zen 2011. urtean. Gauzak horrela, 2011ko urte arteko aldakuntza % 1,5ekoa izan zen (% 1,9koa 2010ean), eta beheranzko joera izan zuen hiruhilekoek aurrera egin ahala: % 2,4 lehenengo hiruhilekoan, % 1,6 bigarrenean, % 1,3 hirugarrenean eta % 0,7 laugarrenean.

Eskariari dagokionez, 2011ko bigarren sei hilekoan hazkundeak izan zuen beherakada nahiko orokorra izan bazen ere gastuaren osagai guztietan, inbertsioa eta esportazioak izan ziren hazkundearen profileen eraginik handiena izan zuten osagaiak, eurek izan baitzuten beherakadarik handiena: inbertsioak % +3,2ko aldakuntza-tasarekin hasi zuen urtea eta % +0,8ko tasarekin amaitu zuen; esportazioek % 9,9ko hazkunde-tasarekin hasi zuten urtea eta laugarren hiruhilekoaren amaieran % 3,6ko hazkundeak izan zuten.

Sektoreka aztertuz gero, 2011n produktu-hazkunderik handiena industriak izan zuen. Batez beste, sektore horretako (eraikuntza kanpo utzita) balio erantsia % 3,8 hazi zen urtetik urtera, eta 2010ean hazkunde hori % 6,7koa izan zen. Hala ere, urteak aurrera egin ahala hazkunde hori ahuldu egin zen (lehen hiruhilekoa % 6,2ko tasarekin hasi zuen eta laugarrena % 0,6koarekin amaitu). Epe luze batez moteltzen joan ondoren, eraikuntzaren sektoreko ekoizpena txikitu egin zen 2011n ere. 2010ean % 4,2ko atzerakada izan ondoren, 2011n eraikuntzako balio erantsia % 1 murriztu zen, batez beste, urtetik urtera. Tarte berean, merkatuko zerbitzuen balio erantsiaren urte arteko hazkunde-tasa % 1,2koa izan zen batez beste, hau da, 2010ean baino zertxobait txikiagoa (orduan % 1,4koa izan zen).

Enplegua leheneratzen hasia zegoen 2010 amaieran eta hazkunde positiboa izan zuen 2011ko lehen sei hilekoan, baina moteldu egin zen hirugarren hiruhilekoan eta % 0,2ko aldakuntza-tasa negatiboa izan zuen laugarrenean. 2011. urtean langabezia-tasa % 10,2koa izan zen, aurreko urtean baino ehuneko hamarren bat gorago.

2011n KPIBek neurtutako inflazio orokorra hazi egin zen (batez beste % 2,7); aurreko urteetan emaitzak baxuagoak izan ziren: % 0,3 2009an eta % 1,6 2010ean. 2010. urte amaieratik urte arteko inflazio-tasak % 2 baino nabarmen handiagoak izan dira, bereziki lehengaien nazioarteko prezioen gorakaden ondorioz energiaren eta elikagaien prezioek urte artean izandako hazkunde-tasa altuak direla eta.

Jarduera nabarmen moteldu zen 2011ko bigarren hiruhilekotik aurrera eta, beraz, lanaren produktibitatea 2010ean izandakoa baino tasa txikiagoan hazi zen (% 1,4 eta % 2,4 hurrenez hurren).

Estatu kide bakoitzari dagokionez, EUROSTATen arabera egoera honakoa da. 15EBren baitan ikus daitekeenez, 2010ean honakoak izan ziren, EAPen<sup>1</sup> arabera neurtuta, 15EBko batez bestekoa (110) baino askoz per capita BPG handiagoa izan zuten herrialdeak (MSEko kapitulu hau amaitzerakoan ez zegoen datu berriagorik): Luxenburgo (271), Holanda (133), Irlanda (128), Danimarka (127), Austria (126), Suedia (123), Belgika (119) eta Alemania (118). Batez bestekoaren azpitik Frantzia, Italia, Espainia, Grezia eta Portugal daude.

27EBn BPG errearen aldakuntza-tasa % 1,5koa izan zen 2011n. Hazkunde-tasarik altuenak Estonian (% 7,6), Lituanian (% 5,9), Letonian (% 5,5), Polonian (% 4,3), Suedian (% 3,9), Eslovakian (% 3,3), Austrian (% 3,1), Alemanian (% 3), Finlandian (% 2,9), Errumanian (% 2,5) eta Maltan (% 2,1) eman ziren. Tasa neurritsuagoak izan zituzten honako herrialdeek: Belgika (% 1,9), Bulgaria, Txekiar Errepublika, Frantzia, Hungaria (% 1,7 kasu guztietan), Luxenburgo (% 1,6), Holanda (% 1,2), Danimarka (% 1), Irlanda, Espainia eta Erresuma Batua (% 0,7 hiruren kasuan), Zipre (% 0,5), Italia (% 0,4). Tasa negatiboak izan zituzten Greziak (% -6,9), Portugalek (% -1,6) eta Esloveniak (% -0,2).

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia-tasak bi digituak gainditzen ditu zenbait herrialdetan: Espainia (% 21,7), Grezia (% 17,7), Letonia eta Lituania (% 15,4), Irlanda (% 14,4), Eslovakia (% 13,5), Estonia (% 12,5) eta Bulgaria (% 11,2). Tasarik txikienak, aldiz, herrialdeotakoak izan dira: Austria (% 4,2), Holanda (% 4,4), Luxenburgo (% 4,8) eta Alemania (% 5,9).

Aipatu denez, Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren arabera, urteko batez besteko inflazioa % 2,7koa izan da eurogunean, aurreko urteko ratioa baino % 1,1 gehiago.

### II.1.3. Koadroa. Euroguneke adierazle ekonomiko nagusiak

	2010		2011			
	BATEZ BESTEK.	BATEZ BESTEK.	I	II	III	IV
<b>Urte arteko aldakuntza-tasak (q/q-4) Serie desestazonalizatuak</b>						
Merkatuko prezioetako BPG	1,9	1,5	2,4	1,6	1,3	0,7
Barneko eskaria						
Gastua azken kontsumo pribatuan	0,9	0,2	0,9	0,3	0,2	-0,7
Gastua azken kontsumo publikoan	0,5	-0,0	0,3	0,1	-0,1	-0,4
KFEGd	-0,7	1,5	3,2	1,1	0,8	0,8
Kanpoko eskaria	9,8	1,1	0,9	1,0	1,0	1,4
Esportazioak	11,1	6,4	9,9	6,4	5,6	3,6
Inportazioak	9,4	4,0	8,1	4,2	3,3	0,4
BEG erreal						
Nekazaritza	1,8	1,6	0,7	1,6	2,2	1,7
Industria	6,7	3,8	6,2	4,6	3,8	0,6
Eraikuntza	-4,2	-1,0	-0,2	-2,0	-1,8	0,0
Merkatuko zerbitzuak	1,4	1,2	1,5	1,2	1,1	0,9
<b>Enplegua eta langabezia</b>						
Enplegua (urte arteko aldakuntza-tasa)	-0,5	0,1	0,2	0,4	0,2	-0,2
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren gaineko %)	10,1	10,2	10,0	10,0	10,2	10,6
<b>Prezioak eta lan-kostuak. Urte arteko aldakuntza-tasa</b>						
Inflazioa (KPIB) Indize orokorra (urteko batez bestekoa)	1,6	2,7	2,5	2,8	2,7	2,9
Soldatapeko bakoitzeko lansaria	1,6	2,3	2,2	2,3	2,3	2,2
Lan-produktibitatea	2,4	1,4	2,2	1,3	1,1	0,9

Iturria: Espainiako Bankua (Estatistikak, Adierazleen laburpena. Eurogunea. Adierazle ekonomiko orokorrak. 2012 maiatzaren 7).

<sup>1</sup> EAP: eroste ahalmenaren parekotasuna.

## II.1.4. Koadroa. Europar Batasuneko bilakaera ekonomikoa

	per capita BPG (1)		BPG errealearen hazkundera			Langabezia-tasa (2)		Enplegu-tasa		Inflazioa (KPIB) (urteko batez bestekoak)		Produktibitatea / langileko		aldak. %a Lan-kostuaren indizea (3)	
	2009	2010	2010	2011	2012 Aur.	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
27EB	100	100	2,0	1,5	0,0	9,7	9,7	64,1	64,3	—	—	2,5	1,1	1,7	2,7
15EB	110	110	2,0	1,4	0,5	9,6	9,7	65,4	65,5	—	—	2,3	1,0	—	—
Eurogunea (17)	109	108	1,9	1,5	-0,3	10,1	10,2	64,1	64,2	1,6	2,7	2,4	1,2	1,5	2,8
Belgika	118	119	2,2	1,9	-0,1	8,3	7,2	62,0	61,9	2,3	3,5	1,4	0,5	3,3	2,8
Bulgaria	44	44	0,4	1,7	1,4	10,2	11,2	59,7	58,5	3,0	3,4	5,3	6,1	9,3	10,7
Txekiar Errep.	82	80	2,7	1,7	0	7,3	6,7	65,0	65,7	1,2	2,1	4,5	1,4	1,8	3,7
Danimarka	123	127	1,3	1	1,1	7,5	7,6	73,3	73,1	2,2	2,7	3,6	1,5	3,1	2,8
Alemania	116	118	3,7	3	0,6	7,1	5,9	71,1	72,5	1,2	2,5	3,2	1,6	0,6	3,4
Estonia	64	64	2,3	7,6	1,2	16,9	12,5	61,0	65,1	2,7	5,1	7,4	0,6	-2,0	4,6
Irlanda	128	128	-0,4	0,7	0,5	13,7	14,4	60,1	59,2	-1,6	1,2	4,0	:	-0,6	-1,7
Grezia	94	90	-3,5	-6,9	-4,4	12,6	17,7	59,6	55,6	4,7	3,1	-1,7	-0,2	-1,0	:
Espainia	103	100	-0,1	0,7	-1,0	20,1	21,7	58,6	57,7	2,0	3,1	2,6	2,8	0,7	2,8
Frantzia	108	108	1,5	1,7	0,4	9,8	9,7	63,8	63,8	1,7	2,3	1,3	1,1	3,1	3,4
Italia	104	101	1,8	0,4	-1,3	8,4	8,4	56,9	56,9	1,6	2,9	2,5	0,1	2,1	2,2
Zipre	100	99	1,1	0,5	-0,5	6,2	7,8	69,7	68,1	2,6	3,5	1,1	-0,1	1,9	1,7
Letonia	51	51	-0,3	5,5	2,1	18,7	15,4	59,3	61,8	-1,2	4,2	4,7	2,0	-3,0	3,3
Lituania	55	57	1,4	5,9	2,3	17,8	15,4	57,8	60,7	1,2	4,1	6,9	3,8	-4,7	2,8
Luxenburgo	266	271	2,7	1,6	0,7	4,6	4,8	65,2	64,6	2,8	3,7	0,8	-1,1	2,2	2,9
Hungara	65	65	1,3	1,7	-0,1	11,2	10,9	55,4	55,8	4,7	3,9	0,9	1,4	-0,7	5,5
Malta	82	83	2,3	2,1	1,0	6,9	6,5	56,1	57,6	2,0	2,4	0,0	-0,3	1,0	3,5
Holanda	132	133	1,7	1,2	-0,9	4,5	4,4	74,7	74,9	0,9	2,5	2,0	0,9	2,0	2,1
Austria	125	126	2,3	3,1	0,7	4,4	4,2	71,7	72,1	1,7	3,6	1,4	1,6	1,2	4,0
Polonia	61	63	3,9	4,3	2,5	9,6	9,7	59,3	59,7	2,7	3,9	3,4	3,3	1,2	4,4
Portugal	80	80	1,4	-1,6	-3,3	12	12,9	65,6	64,2	1,4	3,6	3,0	-0,1	1,4	-0,3
Errumania	47	46	-1,6	2,5	1,6	7,3	7,4	58,8	58,5	6,1	5,8	-0,2	2,0	5,2	7,0
Eslovenia	87	85	1,4	-0,2	-0,1	7,3	8,2	66,2	64,4	2,1	2,1	4,0	1,6	2,4	2,1
Eslovakia	73	74	4,2	3,3	1,2	14,4	13,5	58,8	59,5	0,7	4,1	5,8	1,5	1,3	5,5
Finlandia	115	115	3,7	2,9	0,8	8,4	7,8	68,1	69,0	1,7	3,3	4,9	1,7	0,6	2,6
Suedia	119	123	6,1	3,9	0,7	8,4	7,5	72,7	74,1	1,9	1,4	5,0	1,7	2,0	2,8
Erres. Batua	111	112	2,1	0,7	0,6	7,8	8,0	69,5	69,5	3,3	4,5	1,9	0,2	2,1	1,5

(1) EAP kontuan hartuta. 27EB=100 (2), 15 eta 74 urte artean. (3) Industria eta Zerbitzuak (Administrazio Publikoa eta Komunitaterako Zerbitzuak izan ezik). Iturria: Eurostat

Langile bakoitzeko produktibitatearen hazkundera dagokionez, hazkunderik handienak Bulgarian (% 6,1), Lituaniar (% 3,8), Poloniar (% 3,3), Espainiar (% 2,8) eta Letoniar eta Errumaniar (% 2 kasu bietan) gertatu dira. 27EBko batez bestekoa % 1,1ekoa da, eta 17en eurogunekoa, aldiz, % 1,2koa.

Zerga-egoera zailagoan dauden eta hazkunde txikiagoa duten euroguneko herrialdeen zor publikoaren gaineko ziurgabetasuna hazi egin zen 2011n, eta horrek tirabirak eragin zituen berriro. Bereziki bi herrialdek eragin zuten ziurgabetasuna: Portugalak eta, berriro, are intentsitate handiagoarekin, Greziak. Maiatzaren 3an Portugal erreskatatzeko hitzarmena sinatu zen EB, EBZ eta NDFarekin, eta urri amaieran EB eta NDFak Greziari bigarren erreskatea emateko baldintzak adostu zituzten. Gauzak horrela, kutsatzeko arriskua benetako arrisku bihurtu zen eta Espainiako eta Italiako zor subiranoaren interes-tipoak izugarri igo ziren, beraz, inoizko mailarik altuenetara iritsi ziren Alemaniako zorraren interes-tipoekiko diferentzialak eta arrisku saria. Belgikako eta Frantziako bonoek ere egoeraren eragina nabaritu zuten, eta horrek moneta bakarreko eremu osoaren gaineko presioa areagotu zuen.

2011n Estatu kide guztiek izan zituzten gehiegizko defizit prozedurak Estoniak, Luxenburgok, Finlandiak eta Suediak izan ezik. Finlandiako kasuan, prozedura ECOFIN Kontseiluaren 2011ko uztailaren 12ko erabaki bidez indargabetu zen, EUROSTATen datuen arabera herrialdeak 2010ean izandako defizita BPGaren % 3ren azpitik mantendu baitzen. Bulgaria, Hungaria eta Maltaren kasuan, Administrazio Publikoen defizita zuzendu eta BPGaren % 3ko erreferentzia-balioaren azpian uzteko epea 2011 amaierarako ezarri zen; Belgika, Italia, Zipre, Letonia, Lituania, Errumania eta Poloniaren kasuan, aldiz, epea 2012a da; eta gehiegizko defizitaren ondoriozko prozedurak abian dituzten gainerako herrialdeen kasuan (EBren eta NDFaren programa aplikatzen ari direnak barne) ezarritako epea 2013a eta ondorengo urteak dira. Hala ere, gehiegizko defizitaren ondoriozko prozedurak abian dituzten euroguneko zenbait herrialdetan eskatutakoa baino txikiagoa izan zen 2011n egindako egitura-doiketa.

EUROSTATEko datuen arabera, BPGaren gaineko zor publikoa Estatu guztietan areagotu zen Bulgarian, Alemanian, Estonian, Letonian, Luxenburgon, Hungarian eta Suedian izan ezik. Egonkortasun Itunean ezarritako

## II.1.5. Koadroa. EB-ko finantza publikoak

	Gobernuak BPG gainean daukan zor publikoaren %		BPG gaineko defizit/ superabit publikoaren % (moneta nazionalan)	
	2010	2011	2010	2011
27EB	80,0	82,5	-6,5	-4,5
Eurogunea (17)	85,3	87,2	-6,2	-4,1
Belgika	96,0	98,0	-3,8	-3,7
Bulgaria	16,3	16,3	-3,1	-2,1
Txekiar Errepub.	38,1	41,2	-4,8	-3,1
Danimarka	42,9	46,5	-2,5	-1,8
Alemania	83,0	81,2	-4,3	-1,0
Estonia	6,7	6,0	0,2	1,0
Irlanda	92,5	108,2	-31,2	-13,1
Grezia	145	165,3	-10,3	-9,1
Espainia	61,2	68,5	-9,3	-8,5
Frantzia	82,3	85,8	-7,1	-5,2
Italia	118,6	120,1	-4,6	-3,9
Zipre	61,5	71,6	-5,3	-6,3
Letonia	44,7	42,6	-8,2	-3,5
Lituania	38,0	38,5	-7,2	-5,5
Luxemburgo	19,1	18,2	-0,9	-0,6
Hungaria	81,4	80,6	-4,2	4,3
Malta	69,4	72,0	-3,7	-2,7
Holanda	62,9	65,2	-5,1	-4,7
Austria	71,9	72,2	-4,5	-2,6
Polonia	54,8	56,3	-7,8	-5,1
Portugal	93,3	107,8	-9,8	-4,2
Errumania	30,5	33,3	-6,8	-5,2
Eslovenia	38,8	47,6	-6,0	-6,4
Eslovakia	41,1	43,3	-7,7	-4,8
Finlandia	48,4	48,6	-2,5	-0,5
Suecia	39,4	38,4	0,3	0,3
Erresuma Batua	79,6	85,7	-10,2	-8,3

Iturria: Eurostat.

% 60ko muga Belgikan (% 98), Alemanian (% 81,2), Irlandan (% 108,2), Grezian (% 165,3), Espainian (% 68,5), Frantzian (% 85,8), Italian (% 120,1), Zipren (% 71,6), Hungarian (% 80,6), Maltan (% 72), Holandan (% 65,2), Austrian (% 72,2), Portugalen (% 107,8) eta Erresuma Batuan (% 85,7) gainditu zen. Eurogune osoan BPGaren gaineko zor publikoa % 85,3koa izan zen.

Defizitari dagokionez, Egonkortasunari eta Hazkundeari buruzko Hitzarmenean finkatutako BPGaren % 3ko muga gainditu ez zuten Estatu bakarrak hauek izan ziren: Suedia (% 0,3, superabitdun Estatu bakarra), Finlandia (% -0,5), Luxemburgo (% -0,6), Alemania eta Estonia (biek % -1), Danimarka (% -1,8), Austria (% -2,6) eta Malta (% -2,7). Euroguneko defizit publikoa BPGaren % 4,1eko mailan kokatu zen.

Defizit handienak Irlandan (% 13,1), Grezian (% 9,1), Espainian (% 8,4), Erresuma Batuan (% 8,3), Eslovenian (% 6,4) eta Zipren (% 6,3) gertatu ziren.

#### 1.4. Espainiako ekonomia

2012ko otsailean argitaratutako INEren Hiru Hilez Behingo Kontabilitate Nazionalaren (HHBKN) datuen arabera, Espainiako ekonomiak 2011ko laugarren hiruhilekoan sortutako BPGk % 0,3ko hazkundea izan zuen aurreko urteko epealdi berean sortutakoarekin alderatuta, hau da,

aurreko epealdirako espero zena baino bost hamarren gutxiago. Gauzak horrela, urteko laugarren hiruhilekoan Espainiako ekonomiren hazkundea moteldu egin zen.

Oro har, 2011 urte amaieran BPGaren urteko batez besteko hazkundea % 0,7koa izan zen (urtebete lehenago % 0,1eko hazkunde negatiboa izan zuen).

Gastuaren ikuspegitik, barne eskariak BPGaren hazkundean izandako ekarpena -1,8 puntukoa izan zen 2011. urtean, eta aurreko urtean, aldiz, -1 puntukoa. Hori azaltzen duten hainbat faktore daude: alde batetik, azken kontsumo pribatuaren aldakuntza-tasa % 0,7 izatetik % -0,1 izatera igaro zen, eta bestetik, Administrazio Publikoen eta kapital finkoko inbertsioen azken gastua murriztu egin zen (aldakuntza-tasa % 0,2 izatetik % -2,2 izatera igaro zen Administrazio Publikoen kasuan eta % -6,3 izatetik % -5,1 izatera inbertsioaren kasuan).

Bestalde, INEren datuen arabera, kanpoko eskariak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena positiboa izan zen (2,5 puntu). Hala ere, deigarria da 2010 eta 2011 artean esportazioak urtetik urtera batez beste % 9 hazi izana eta inportazioak % 0,1 murriztu izana, aurreko urtean biek egin baitzuten gora (% 13,5 eta % 8,9 hurrenez hurren).

Eskaintzaren aldetik, azpimarratzekoa da industriako adar erantsien hazkunde positiboa (2011n % 1,9, aurreko urteko % 0,6aren aldean) eta zerbitzuena (% 1,1ekoa, aurreko urtean % 1,4koa izan bazen ere). Halaber, azpimarratzekoa da eraikuntzaren (% -3,8) hazkunde negatiboa. Nolanahi ere, industriako eta zerbitzuen sektoreko jarduera asko moteldu zen urteko laugarren hiruhilekoan. Industriak aldakuntza-tasa positiboa izan zuen lehenengo hiru hiruhilekoetan (% 3, % 2,3 eta % 2,8), baina joera negatiboa izan zuen urteko azken hiruhilekoan (% -0,4). Zerbitzuen kasuan, aldiz, joera astiroago moteldu zen eta ez zen negatibo bihurtu. Gauzak horrela, sektoreak % 1,4ko gorakada izan zuen lehen hiruhilekoan, hazkundea % 1era jaitsi zen hurrengo bi hiruhilekoetan, eta azkena amaitzerako hazkundea % 0,9koa izan zen.

Bilakaera horrekin batera enplegu-maila jaitsi egin da berriz ere, baina 2010ean baino gutxiago, izan ere, 2010ean % 2,3 jaitsi zen lanaldi osoko lanpostuen kopurua, baina 2011n beherakada % 1ekoa izan zen. Soldatapekoen murrizketa % 0,8koa izan zen. Bestalde, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia-tasa % 1,5 hazi dela, alegia, % 20,1etik % 21,6ra.

BPGaren eta lanaldi osoan okupatutako enpleguaren aldakuntza batera hartuta, ondorioztatzen da ekonomiaren lan faktorearen itxurazko produktibitatea % 3,3ko erritmoan hazi zela.

Bukatzeko, 2011ko abenduko Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren (KPIB) datuek, Estatu osorako, % 2,4ko hazkundea adierazten dute 2010eko abenduaren aldean, aurreko urtean baino puntu erdi gutxiago, eta euroguneko tasa baino 3 hamarren gutxiago (haren indizea aurreko urtearen aldean puntu erdi jaitsi zen). 27EB osoan, bestalde, prezioak % 3 hazi ziren, 2010eko abenduan baino 3 hamarren gehiago.

Ordainketa-balantzari dagokionez, eta kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, Espainiako ekonomiak finantza egoera hobetu du gainontzeko munduarekiko. Ekonomiaren finantzazio premia (defizita; ekonomiako sektoreek sortutako aurrezkoa egindako inbertsioari aurre egiteko nahikoa ez denean sortzen da eta kalkulatzeko Kontu Korronteko Balantzaren saldoak,



**II.1.6. Koadroa. Estatuko egoera makroekonomikoa. 2008ko oinarria<sup>2</sup>**  
**Urtetik urterako aldakuntza-tasak. Kateatutako bolumena.**  
**Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak**

	2010	2011	2010				2011			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Barneko eskaria (*)	-1,0	-1,8	-2,4	0,1	-0,7	-0,9	-0,8	-1,9	-1,4	-2,9
Gastua azken kontsumoan	0,6	-0,7	0,1	1,4	0,7	0,4	0,4	-0,8	-0,6	-1,8
Etxeen kontsumo pribatua	0,7	-0,1	-0,1	1,5	0,8	0,8	0,4	-0,3	0,5	-1,1
Kontsumo publikoa	0,2	-2,2	0,6	1,0	0,2	-0,9	0,6	-2,1	-3,6	-3,6
Kapital finkoaren eratze gordina	-6,3	-5,1	-9,8	-4,3	-5,5	-5,4	-4,9	-5,4	-4,0	-6,2
Aktibo finko materialak	-6,4	-5,4	-10,0	-4,5	-5,4	-5,4	-5,3	-5,6	-4,3	-6,5
Eraikuntza	-10,1	-8,1	-12,2	-9,4	-9,5	-9,3	-9,2	-8,1	-7,0	-8,2
Ekipamendu-ondasunak eta aktibo landuak	5,1	1,4	-3,4	11,7	7,3	5,4	5,5	1,0	2,2	-2,7
Aktibo finko immaterialak	-4,8	0,0	-5,4	-0,5	-7,8	-5,4	1,5	-3,1	2,0	-0,3
Kanpoko eskaera										
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	13,5	9,0	11,9	15,3	11,8	14,9	13,1	8,8	9,2	5,2
Ondasunak eta zerbitzuak inportatzea	8,9	-0,1	6,3	14,5	7,0	8,0	6,0	-1,3	0,9	-5,9
<b>Merkatuko prezioetako BPG</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,7</b>	<b>-1,3</b>	<b>0,0</b>	<b>0,4</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>	<b>0,8</b>	<b>0,8</b>	<b>0,3</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-1,1	0,6	-1,1	-1,3	-1,5	-0,3	1,1	0,5	0,4	0,3
Industria	0,6	1,9	-1,6	2,3	0,6	1,3	3,0	2,3	2,8	-0,4
Eraikuntza	-7,8	-3,8	-8,9	-8,7	-7,6	-5,9	-4,9	-3,2	-3,2	-3,7
Zerbitzuak	1,4	1,1	0,3	1,2	2,0	2,2	1,4	1,0	1,0	0,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,2	1,7	-1,1	-0,6	-0,9	-2,2	1,2	2,5	1,3	2,0
<b>Lan-merkatua</b>										
Lanaldi osoaren pareko lanpostuak										
Landunak	-2,3	-1,0	-3,6	-1,4	-1,9	-2,4	0,8	-2,1	-0,9	-1,7
Soldatapekoak	-2,3	-0,8	-3,7	-1,2	-1,8	-2,4	1,2	-1,9	-0,7	-1,6
Langabezia-tasa (BAI)	20,1	21,6	20,1	20,1	19,8	20,3	21,3	20,9	21,5	22,9
Langile bakoitzeko produktibitatea	2,7	2,8	3,0	3,0	2,4	2,2	2,6	2,2	2,8	3,7

(\*) Merkatuko prezioetako BPGari egindako ekarpena. Iturria: INE (Hiru Hilez Behingo Kontabilitatea eta BAI).

Kapitalarena eta kanpoko egoiliarren inbertsioak batu behar dira) 2010ean BPGaren % 4 izatetik 2011n % 3,4 izatera igaro zen, hots, 36.226 milioi euro, aurreko urtean baino 5.542 milioi gutxiago.

Espainiako Administrazio Publikoek 91.420 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2011. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2010 eta 2011 artean BPG % 9,3tik % 8,5era igaro zela.

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek, tokiko korporazioek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, % 3, % 4,7, % 0,8 eta % 0,1eko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak.

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren "Adierazle Ekonomikoen Laburpena, 2012ko otsaila" izeneko Egoera Ekonomikoari buruzko Hiruhileko Txostenean aipatzen den legez, defizit horren ondorioz BPG ehuneko 2,5 puntu desbideratu da 2011-2014 epealdirako Egonkortasun Programaren Eguneratzean ezarritako helburutik, % 6,0koa izatea aurreikusen baitzen.

Aurrekontua Administrazio Publikoaren maila guztietan desbideratu zen, bereziki Autonomia Erkidegoetan,

2011n horien defizita (BPGaren % 4,7) % 1,4 desbideratu baitzen hasierako helburutik (BPGaren % 3,3). Administrazio Zentralak % 3ko defizita izan zuen, beraz, ehuneko 0,7 puntuan gainditu zuen helburu gisa ezarritako % 2,3ko defizita; Gizarte Segurantzako Administrazioek, aldiz, BPGaren % 0,1eko defizita izan zuten nahiz eta aurreikuspena % 0,4ko superabita edukitzea izan. Azkenik, Tokiko Korporazioak ez ziren helburutik desbideratu, BPGaren % 0,4ko defizita izan baitzuten.

Diru-sarrerei dagokienez, zerga nagusien bilketa % 1,3 hazi zen 2011n (autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen ekarpenak ere kontuan hartuta). Hazkunde hori zerga zuzenek gora egin zutelako gertatu zen (% 3,1: PFEZ % 4,2 hazi zen, Sozietateena % 2,5 eta "bestelakoak" saila % 13,7 txikitu zen), zeharkako zergek % 0,9 egin baitzuten behera (zerga bereziak % 4,2 txikitu ziren, BEZ % 0,5 hazi zen eta "bestelakoak" saila % 1,2 txikitu zen).

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %12 txikitu ziren. Beherakadarik nabarmenenak kapital-transferentzien arloan (% -42,3) eta inbertsioen arloan (% -23,6) gertatu ziren.

<sup>2</sup> Espainiako Kontabilitate Nazionalaren (EKN) 2008ko oinarri berriak dakarren berrikuntza teknologikoa jardueren eta produktuen sailkapenen aldaketa da; horrela, oinarriko eragiketa estatistikoek erabiltzen dituztenekin, bai estrukturalak bai kointuralak, bateragarri egin dira.

Gainera, sisteman aktibo finkoen sailkapen bat sartu da (produktuka sailkatu beharrean), kapital finkoaren formakuntza gordinaren datuen hedapenean eragina izango dutenak.

+Arauen aldaketa hori zeharlerroa da Europar Batasuneko estatu kide guztietan, Batzordearen 2010eko abuztuaren 10eko 715/2010 Araudia aplikatzearen ondorioz. Araudi horrek Kontseiluaren 2223/96 Araudia (CE) aldatu zuen, kontu nazionalen egokitzapenei dagokienez, jardueren ekonomikoen nomenklatura estatistikoa berrikusi eta gero (NACE, rev. 2) eta produktuen jardueraren arabera sailkapen estatistikoa (PJS) berrikusi eta gero+.

**II.1.7. Koadroa. Espainiako ekonomiaren ordainketa-balantza (milioi euro)**

	2009	2010bb	2011bb
BPG bb	1.047.831	1.051.342	1.073.383
Finantzazio gaitasuna/premia	-49.513	-41.768	-36.226
BPG gainean (%)	-4,7	-4,0	-3,4
<b>Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa</b>	<b>-46.315</b>	<b>-41.138</b>	<b>-32.278</b>
Kontu korrontea	-50.539	-47.427	-37.766
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-41.611	-47.779	-39.701
Zerbitzuak (zerbitzuen balantza)	25.032	27.514	33.997
Errentak	-25.931	-19.849	-26.134
Transferentzia arruntak	-8.030	-7313	-5.928
Kapital kontua	4.224	6.289	5.487
<b>Finantza-saldoa</b>	<b>51.982</b>	<b>43.174</b>	<b>33.846</b>
<b>Guztira, Espainiako Bankua salbu</b>	<b>41.517</b>	<b>27.478</b>	<b>-75.307</b>
Inbertsio zuzena	-1.917	1.827	-6.428
Zorroko inbertsioa	44.824	27.671	-23.948
Bestelako inbertsioak	4.665	-10.610	-47.437
Finantza-deribatuak	-6054	8.589	2.505
<b>Espainiako Bankua</b>	<b>10.464</b>	<b>15.696</b>	<b>109.153</b>
Erreserbak	-1.563	-814	-10.010
Eurosistemari aurre egiteko aktibo garbiak	6.146	9.788	124.056
Bestelako aktibo garbiak	5.882	6.722	-4.893
<b>Akatsak eta jaulkipenak</b>	<b>-5.667</b>	<b>-2.036</b>	<b>-1.567</b>

pt: behin-behinekoa: Espainiako Bankua. Adierazle ekonomikoak.

**II.1.8. Koadroa. Ordainketa-balantza**

<b>Kontu korronteko balantza (KKB)</b>
Merkataritzako balantza (ondasunena)
Zerbitzuen balantza (turismoa eta beste batzuk)
Errenten balantza
Transferentzia korronteen balantzak
<b>Kapitalaren balantza (Kapital b.)</b>
Kapital transferentziak (EGEF, Kohesio Funtsa...)
Finantzaz kanpoko aktibo ez produktiboen eskuratzea eta besterentzea (lurra, lur baliabideak, aktibo ukiezinak, egile eskubideak...)
Errenten balantza
<b>Kanpoko aurrezki eskaera = Finantzazio ahalmena (premia)</b>
<b>KKB + alantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.</b>

berbera edo handiagoa izan zuten: Kanariar Uharteak (% 2,1), Balear Uharteak (% 1,8), Nafarroa (% 1,5), EAE eta Gaztela eta Leon (biek % 1,3), Madril (% 0,9) eta Katalunia eta Errioxa (biek % 0,8). Autonomia Erkidego bakarrik izan zuen hazkunde negatiboa, Extremadurak alegia (% -0,3), eta Gaztela-Mantxak, aldiz, hazkunde nulua izan zuen.

Hiru Autonomia Erkidego bakarrik hazi ziren 27EBko batez bestekoa bezainbeste edo gehiago: Kanariar Uharteak, Balear Uharteak eta Nafarroa.

Per capita BPG nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 31.288 euroko BPGarekin, batez bestekoa baino % 34,5 gehiago. Haren atzetik datoz Nafarroa, 29.731 euroko per capita BPGarekin, Madril (30.068 euro per capita), Katalunia (27.430 euro biztanleko), Errioxa (26.129), Aragoi (25.920) eta Balear Uharteak (24.585). Guztiak ere estatuko batez bestekoaren gainetik daude, hura 23.271 eurokoa baita.

Kontrako egoeran daude Extremadura (16.149 euro), Andaluzia (17.587) eta Melilla (18.454).

Aipagarria da nola, INEren arabera, biztanle bakoitzagatiko estatuko batez besteko BPG gaintitzen duten zazpi

**1.5. Autonomia erkidegoak**

INEren Eskualdeko Kontabilitateari buruzko datu ofizialen arabera, 2011n estatuan BPGk izandako hazkunde errealak % 0,7koa izan zen. Zortzi Autonomia Erkidegok hazkunde

**II.1.9. Koadroa. Saldo publikoa agenteen arabera\* (milioi euro)**

	Milioi €				BPG %			
	2008	2009	2010 bb	2011 a	2008	2009	2010 bb	2011 a
<b>Administrazio Publikoen Finantzazio gaitasuna (+) / premia (-) EKNren arabera</b>	<b>-48.870</b>	<b>-117.088</b>	<b>-98.218</b>	<b>-91.420</b>	<b>-4,5</b>	<b>-11,2</b>	<b>-9,3</b>	<b>-8,5</b>
Administrazio zentralak								
Administrazio Zentrala (Estatua eta erakunde autonom.)	-32.909	-97.991	-52.886	-31.711	-3,0	-9,4	-5,0	-3,0
Gizarte Segurantzak	7.5856	8.096	-2.069	-995	0,7	0,8	-0,2	-0,1
<b>Lurraldeko erakundeak</b>								
AAEE	-18.212	-21.343	-36.776	-50.472	-1,7	-2,0	-3,5	-4,7
Tokiko Korporazioak (TTKK)	-5.335	-5.860	-6.507	-8.242	-0,5	-0,6	-0,6	-0,8

bb: behin-behinekoa; a: aurrerapena (\*) Finantzazio gaitasuna/premia Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera. Iturria: Espainiako Bankua.

**II.1.10. Koadroa. Estatuko zerga-bilketa (Autonomia erkidegoek eta tokiko korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)**

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateak	Beste batzuk	Guztira	BEZ	Bereziak (1)	Beste batzuk	Estatua	AAEE eta TTKK	Guztira
2008	102.024	71.341	27.301	3.382	70.671	48.015	19.570	3.086	113.325	59.370	172.695
2009	87.521	63.857	20.188	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	160.881
2009-10 aldakuntza	-0,7	4,9	-19,8	7,5	29,1	46,2	2,4	9,6	34,2	-21,0	10,9
2010-11 aldakuntza	3,1	4,2	2,5	-13,7	-0,9	0,5	-4,2	-1,2	-20,8	52,7	1,3

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Ekonomia Adierazleen Laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2012ko apirila.

**II.1.11. Koadroa. Aurrekontuaren betearazpena: Estatuak onartutako obligazioak (milioi euro)**

	Langileria	Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia arruntak	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2008	25.384,7	4.553,9	15.929,0	84.217,7	18.164,2	10.675,7	158.925,1
2009	26.666,9	4.965,0	17.651,7	107.511,9	11.840,0	10.624,8	179.260,3
2010	26.991,4	4.451,9	19.641,1	102.697,4	13.662,7	8.069,7	175.514,2
2011	27.409,6	4.041,3	22.195,4	86.707,7	7.877,8	6.162,7	154.394,5
Variación 2010-11	1,5	-9,2	13,0	-15,6	-2,3	-23,6	-12,0

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Ekonomia Adierazleen Laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2012ko apirila.

**II.1.12. Koadroa. Autonomia Erkidegoetako BPGaren hazkundera, enplegua eta langabezia-tasak**

	Landun pertsonen kopuru. aldakuntza		Langabeen kopuru. aldakuntza		Langabezia-tasa		BPG bolumenaren aldakuntza (2)		Per capita BPG		
	2009-10	2010-11	2009-10	2010-11	2009-10	2010-11	2009-10	2010-11	2010 a		€ per capita
									Estatua = 100	Estatua = 100	
Guztira	-2,3	-1,9	11,6	7,9	20,06	21,64	-0,1	0,7	100	100	23.271
Andaluzia	-2,2	-2,9	11,9	9,1	27,97	30,39	-0,9	0,2	76,4	75,6	17.587
Aragoi	-4,1	-2,3	13,0	16,2	14,77	17,09	-0,4	0,3	111,0	111,4	25.920
Asturias	-3,8	-2,4	18,0	11,6	15,97	17,85	0,0	0,3	94,1	94,4	21.976
Balear U.	-1,8	-2,1	14,4	7,1	20,37	21,87	-0,6	1,8	105,7	105,6	24.585
Kanariar U.	-2,9	0,8	10,1	5,8	28,7	29,69	-0,3	2,1	84,5	85,1	19.806
Kantabria	-3,8	-1,2	13,9	10,7	13,87	15,29	-0,2	0,7	97,8	98,8	22.981
Gaztela eta Leon	-1,9	-1,3	14,9	5,8	15,78	16,73	0,9	1,3	98,0	99,5	23.146
Gaztela-Mantxa	-2,2	-0,8	12,2	11,0	20,99	22,93	-1,1	0,0	80,4	79,8	18.568
Katalunia	-1,6	-1,8	9,4	8,4	17,75	19,25	0,3	0,8	116,9	117,9	27.430
Valentziako Erkidegoa	-4,3	-2,3	7,8	4,3	23,3	24,49	-0,6	0,4	88,8	88,4	20.583
Extremadura	-1,5	-2,9	14,1	8,7	23,04	25,1	-0,3	-0,3	70,2	69,4	16.149
Galizia	-4,4	-1,6	20,7	14,0	15,4	17,41	0,1	0,3	90,8	90,7	21.112
Madril	-1,5	-2,0	15,6	2,7	16,08	16,73	0,1	0,9	128,6	127,8	29.731
Murtzia	-1,6	-2,9	14,7	8,6	23,35	25,41	-0,4	0,0	83,6	82,3	19.144
Nafarroa	-1,5	-0,8	8,3	9,9	11,85	12,94	1,2	1,5	128,0	129,2	30.068
EAE	0,7	-0,8	-4,2	14,8	10,55	12,01	0,9	1,3	132,1	134,5	31.288
Errioxa	-3,4	-3,4	9,8	18,8	14,27	17,01	-0,1	0,8	111,0	112,3	26.129
Ceuta	-6,8	-3,6	25,8	26,9	24,12	29,35	0,7	0,4	88,4	86,1	20.045
Melilla	3,3	6,3	1,5	10,1	23,75	24,43	1,1	0,2	81,6	79,3	18.454

a: aurrerapena. z: zenbatespena.  
Iturria: INE Eskualdeko Kontabilitatea.

erkidegoetatik sei (EAE, Nafarroa, Madril, Katalunia, Errioxa eta Aragoi) 27EBko batez bestekoaren gainetik ere badaudela (batez bestekoa 25.134 eurokoa izan zen). Lan-merkatuari dagokionez, estatu osoko langabezia-tasa % 21,64koa izan zen 2011n. Tasarik baxuenak izan zituzten erkidegoak EAE (% 12,01), Nafarroa (% 12,94), Kantabria (% 15,29) Gaztela eta Leon eta Madril (biak % 16,73) izan ziren. Estatuko batez bestekoaren gainetik

daude Andaluzia (% 30,39), Balear Uharteak (% 21,87), Kanariar Uharteak (% 29,69), Gaztela-Mantxa (% 22,93), Valentziako Erkidegoa (% 24,49), Extremadura (% 25,1), Murtzia (% 25,41), Ceuta (% 29,35) eta Melilla (% 24,43). Enpleguari dagokionez, 2011n galerarik handienak Ceutan (% -3,6), Errioxan (% -3,4), Andaluzian, Extremaduran eta Murtzian (hiruretan % -2,9), Asturiasen (% -2,4) eta Valentzian eta Aragoian (bietan % -2,3) gertatu ziren.

## 2. EAE-ko abagune ekonomikoa

### 2.1. Bilakaera orokorra

Euskal ekonomiak jardueraren hazkunde-tasa aurreko urteetakoa baino nabarmen txikiagoa zuela itxi zuen 2008. urtea.

2009. urtean, ekoizpena areago jaitsi zen; hain zuzen, BPGaren % 4,7 ere gutxitu zen hirugarren hiruherilekoan, urtebete lehenagoko aldi berarekin alderatuz. Ordutik aurrera, jaitsierak txikiagoak izan ziren, eta 2010eko bigarren hiruherilekotik aurrera aldakuntza positiboak erregistratzen hasi ziren; 2010eko laugarren hiruherilekoan iritsi ziren gorenera, urtetik urterako hazkunde % 0,8ra iristean. Alabaina, 2011. urtean, lehenengo hiruherilekoan % 0,9ko igoera izan ostean, hazkunde-tasak geldotu egin ziren, eta laugarren hiruherilekoan aldakuntza-tasa aurreko urtean baino % 0,2 gehiago zela amaitu zen urtea.

Eustaten 2012ko otsaileko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen datuen arabera, EAEko ekonomian urtetik urterako hazkunde % 0,6koa izan zen 2011. urtean, kopuru errealean. Aurreko urtean hazkunde % 0,3koa izan zen. Horrez gain, BPGa, kopuru korranteetan, 66.898,3 milioi eurora iritsi zen.

INEren Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen % 1,3ko hazkunde-tasa erregistratu dute euskal ekonomiarako 2011n. Zenbatespen hori, bigarren urtez jarraian, urrun dago Eustatek otsailean emandako balioetatik.

Hain zuzen, euskal erakundeak urtetik urterako % 0,6ko aldakuntza ematen du, eta estatuko haren homologoak % 1,3raino igotzen du EAEko BPG erreala; aldea zapzi hamarrenekoa da, eta iaiz gertatutakoa errepikatu da ia-ia (Eustaten arabera % 0,3, eta INEren arabera % 0,9).

2011. urtean izandako hiruherileko arteko tasak aztertuz gero, ikus liteke BPGaren hazkunde geldotu egin

dela urtean zehar, eta lehenengo hiruherilekoan % 0,3ko aldakuntza positiboa izan badu ere % 0,2ko aldakuntza negatiboa izan duela laugarrenegokoan.

Espainiako ekonomiako BPGak, bestalde, % 0,7ko batez besteko urteko aldakuntza-tasa eduki du kopuru errealean, eta aurreko urtean % 0,1eko hazkunde erregistratu zen.

Eurostaten arabera, EB27n, EB25en eta eurogunean hazkunde % 1,5ekoa izan zen, eta EB15en, berriz, % 1,4koa.

Eskariaren aldetik, BPGaren hazkunde hori, nagusiki, kanpoko sektorearen portaerarengatik azaltzen da. Bertan, esportazioak % 9 hazi ziren eta inportazioak % 7,4. Horrek eragina izan du kanpoko eskariak BPGaren hazkundera ekarpena egitean, % 0,8koa hain zuzen, eta barne eskariaren % 0,1eko ekarpen negatiboarekin orekatu da.


Hala ere, barne eskaera aurreko aldi bako bako gutxiago jaitsi da (-% 0,1 eta % 0,5).

Barne eskariaren bilakaera ondoko faktore hauek baldintzatu dute: etxeetako kontsumoan izandako gastuaren hazkundeak (% 0,6), eta, horrekin batera, administrazio publikoen gastu-uzkurdurak (-% 0,8) eta inbertsioaren bilakaera negatiboak (-% 1,5ekoa, nahiz eta ez duen izan 2010. urtean bezain portaera negatiboa).

Nabarmenezkoa da administrazio publikoek urterik urterako aldakuntza-tasa negatiboarekin itxi dutela urtea, halakorik ez baita gertatu aurreko urteetan.


Estatuan, INEren datuen arabera, eskari nazionalak BPGaren hazkundera egindako ekarpena -1,8 puntukoa izan zen.

II.2.1. Grafikoa. EAEko BPGd. Aldakuntza tasak bolumen kateatuan



Iturria: Eustat. HKE.

II.2.2. Grafikoa. Barne eta kanpo eskariak BPGaren hazkundera egindako ekarpena



Iturria: Eustat. HKE (a: aurrerapena).

**II.2.1. Koadroa. EAE-ko testuinguru makroekonomikoaren bilakaera (Urtetik urterako aldakuntza-tasa)**

	2007	2008	2009	2010 (a)	2011 (a)	I	II	III	IV
<b>BPG erreala merkatuko prezioetan</b>	4,2	1,3	-3,9	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2
Eskaria									
Barne Eskaria (hazkundera)	4,3	0,7	-5,6	-0,5	-0,1	0,3	0,2	0,2	-1,0
Barne eskariaren ekarpena (1)	4,5	0,7	-5,9	-0,5	-0,1	—	—	—	—
Gastua azken kontsumoan	4,1	1,9	-2,0	1,2	0,3	0,9	0,5	0,3	-0,4
Kontsumo pribatua	3,6	0,6	-3,9	0,9	0,6	0,8	0,3	0,9	0,5
Kontsumo publikoa	6,4	7,0	5,0	2,3	-0,8	1,3	1,3	-2,0	-3,6
Kapitalaren Eraketa Osoa	4,6	-2,2	-15,2	-6,0	-1,5	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8
Kapitalaren Eraketa Osoa	5,9	-3,2	-14,1	-7,0	—	—	—	—	—
Izakinen aldakuntza	—	—	—	—	—	—	—	—	—
<b>Aurreko saldoaren ekarpena (1)</b>	-0,3	0,6	1,8	1,1	0,8	—	—	—	—
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	5,4	0,0	-13,2	7,6	9,0	13,3	3,2	12,4	7,3
Estatua	0,1	-3,4	-9,6	2,1	—	—	—	—	—
Atzerria	11,4	3,4	-16,6	13,2	—	—	—	—	—
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	5,4	-0,8	-14,9	5,5	7,4	11,6	2,1	11,1	4,9
Estatua	5,3	-0,4	-7,4	2,5	—	—	—	—	—
Atzerria	5,6	-1,2	-25,4	11,4	—	—	—	—	—
<b>Eskaintza</b>									
Lehen sektorea	0,0	-6,1	-5,5	24,7	-7,6	-13,9	-16,0	-21,6	16,9
Industria	3,1	-0,6	-12,7	1,8	2,0	3,7	3,3	1,5	-0,2
Eraikuntza	11,3	-5,8	-7,4	-9,8	-5,3	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8
Zerbitzuak	4,1	3,3	-0,1	0,6	0,9	0,8	1,0	1,3	0,6
Merkatuko zerb.	3,9	2,5	-0,9	0,1	0,9	0,8	1,0	0,9	0,8
Merkatukoak ez diren zerb.	4,8	6,9	3,9	2,8	1,1	1,1	0,9	2,9	-0,3
Oinarritzako prezioei erantsitako balio osoa	4,4	1,2	-4,3	0,1	0,7	1,0	0,9	0,6	0,1
Zerga garbiak produktuen gainean	2,8	2,3	-0,2	2,0	0,2	0,0	-0,5	0,3	0,9
<b>BPG nominala merkatuko prezioetan</b>									

(a) aurrerapena, (1) BPGaren hazkunderari egindako ekarpenaren portzentajezko puntuak (2) ez dago lanaldi osoko enpleguari buruzko informaziorik. Iturria: Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2012ko otsaila).

Eskaintzaren aldetik, industriaren eta zerbitzuen sektoreetan soilik hazi da balio erantsia (% 2 eta % 0,9, hurrenez hurren). Zerbitzuen sektorearen barruan, hala merkatukoek nola merkatuko ez direnek bilakaera positiboa izan dute, hurrenez hurren % 0,9an eta % 1,1ean zenbatetsia. Aldiz, balio erantsiaren bilakaera negatiboa izan da 2011. urtean, hala eraikuntzaren sektorean (-% 5,3) nola lehen sektorean (-% 7,6). 2011. urteko multzoan zerga garbiek produktuen gainean izan duten ondorioa positiboa izan da; hain zuzen, % 0,2ko hazkundera izan da.

Oro har, EAEko ekonomiaren balio erantsia % 0,7 hazi da 2011. urtean.

Hiruhileko arteko profila aztertuz gero, ikusten da 2011. urtean pixkanaka moteltzen joan dela industriako BEGaren hazkundera, eta lehenengo hiruhilekotik bigarregora hiruhileko arteko aldakuntza-tasa +% 1,3koa izan dela, bigarregotik hirugarrenera -% 0,6koa izan dela eta laugarrenengan aurreko hiruhilekoarekiko % 1,6 gutxitu dela. Eraikuntzako BEGak hiruhileko arteko -% 2,7ko aldakuntza-tasarekin hasi du urtea, eta ordutik aurrera geldotu egin da beherakada; izan ere, hirugarren hiruhilekotik laugarren hiruhilekora % 1,3ko aldakuntza-tasa duela bukatu du urtea. Bestalde, zerbitzuetako BEGa bigarren hiruhilekoan hasi da beherantz egiten; izan ere, lehenengo hiruhilekoarekiko % 0,2ko igoera izan du, eta laugarren hiruhilekoa hirugarren hiruhilekoan baino % 0,2 gutxiagorekin amaitu du.

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, lanpostuetan neurtuta, Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoan

**II.2.2. Koadroa. Euskal ekonomiaren hiruhileko arteko bilakaera (hiruhileko arteko aldakuntza-tasak, zenbaki errealetan, egutegiaren ondorioak zuzendu ostean)**

	2010a				2011a			
	I	II	III	IV	I	II	III	IV
Industriako BEG	-0,1	1,7	1,1	0,2	0,7	1,3	-0,6	-1,6
Eraikuntzako BEG	-6,1	-0,9	-1	0	-2,7	-2	-1,5	1,3
Zerbitzuetako BEG	0	0,3	-0,4	0,5	0,3	0,4	0	-0,1
<b>BPG</b>	<b>0,2</b>	<b>0,3</b>	<b>0,2</b>	<b>0,1</b>	<b>0,3</b>	<b>0,2</b>	<b>0</b>	<b>-0,2</b>

Iturria: Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2012ko otsaila).

arabera, negatiboa izan da; hain zuzen, 2011. urtean zenbatetsitako jaitziera % 0,6koa izan da. Zerbitzuen sektorea izan da urtean zehar lanpostuak sortu dituen bakarra, % 0,9ko enplegu-hazkunderarekin. Lehenengo sektorean, industriaren sektorean eta eraikuntzarenean, gutxitu egin dira enplegu-mailak, hurrenez hurren -% 3,9ko, -% 1,9ko eta -% 7,8ko aldakuntzekin.

Prezioei eta produktibitateari buruzko azterketa xehatuago bat egin nahi izanez gero, «Prezioak, kostuak eta errentak» kapitulua irakurtzea gomendatzen dugu.

**2.2. Barne eskaria**

lehen aipatu dugun bezala, EAEn, jarduera ekonomikoaren hobekuntza, nagusiki, kanpoko sektorearen portaeragatik gertatu bada ere, egia da modu berean barne eskaera aurreko urtean baino gutxiago erori dela (% -0,1, aurreko urteko % -0,5aren aldean).

**II.2.3. Koadroa. Barne eskaerari agregatutakoen bilakaera erreala. Urtetik urterako tasak Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak**

	Gastua azken konts. (GAK)	GAK Etxeak	GAK Adm. Publikoak	Inbertsioa	Barne eskaria
2009t1	-1,6	-3,9	6,7	-13,6	-4,9
2009t2	-2,5	-4,5	5,3	-16,0	-6,1
2009t3	-2,6	-4,4	4,1	-16,9	-6,5
2009t4	-1,4	-2,8	4,0	-14,4	-4,9
2010t1	-0,1	-0,6	1,8	-9,7	-2,4
2010t2	1,7	1,5	2,7	-6,8	-0,3
2010t3	1,8	1,5	3,0	-4,0	0,4
2010t4	1,4	1,3	1,5	-3,1	0,2
2011t1	0,9	0,8	1,3	-1,8	0,3
2011t2	0,5	0,3	1,3	-1,0	0,2
2011t3	0,3	0,9	-2,0	-0,2	0,2
2011t4	-0,4	0,5	-3,6	-2,8	-1,0

Iturria: EUSTAT. HKE.

Nolanahi ere, barne eskariaren aldakuntzaren hiruhilekoko profilak, urtebete lehenago epealdi berean izandakoaren aldean, ahultze progresibo bat erakusten du: urtea % 0,3ko igoerarekin hasi zen lehen hiruhilekoan, eta % 1eko jaitsierarekin amaitu zen laugarrengoa.

Eskariaren osagaien arabera bereizita, etxeko kontsumoan gastuak gorabeherak izan ditu hiruhileko batetik bestera, eta % 0,5eko igoerarekin amaitu da urtea. Bestalde, administrazio publikoetako gastuak, zeinak azken urteetan ez baitu hazkunde-tasa negatiborik izan, -% 2 erregistratu du hirugarren hiruhilekoan, eta laugarrengoa areago gutxitu da (-% 3,6).

Inbertsioari dagokionez, nahiz eta lehenengo hiru hiruhilekoetan ondoz ondo izandako beheraldiak geldotu egin diren eta hirugarren hiruhilekoan -% 0,2ko ratoria iritsi den, laugarrengoa okertze bat sumatzen da, aldakuntza-tasa -% 2,8ra jaitsi baita.

Eustatek emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren egoeraren arabera, kontsumo adierazle nagusiek ahultze ekonomikoa berresten dute.

Hala, nahiz eta Industria Produkzioaren Indizearen urtetik urterako aldakuntza-tasa % 2,2 hazi den kontsumo-ondasunei dagokienez, Barne Merkataritzaren Indizea % 2,7 jaitsi da 2011. urtean.

Saltoki handietako salmentak, bestalde, okertu egin dira, aldakuntza-tasa -% 0,5etik -% 6,1era igaro baita, eta autoen matrikulazioa, ostera, % 24,5 jaitsi da; urtebete lehenago, hau da, 2010. urtean, beherakada % 2,9koa izan zen.

Paraleloki, hoteletan igarotako gauak (EAEko berezkoak kanpo utzita) ugaritu egin dira, baina aurreko aldi baino gutxiago; izan ere, % 7,9 igo da, eta 2010. urtean, ostera, % 13,8 erregistratu zen.

Inbertsio-adierazleei dagokienez, inbertsio-ondasunen Industria Produkzioaren Indizea % 5,2 igo da (aurreko aldi % 2,6 gutxitu zen). Kargako ibilgailu industrialen matrikulazioa % 17,3 jaitsi da; iaz jaitsiera % 0,8koa izan zen. Azkenik, ekipamendu-ondasunen inportazioaren balioa % 1,4 igo da, eta aurreko aldi, ostera, % 4,7 hazi zen.

**II.2.3. Grafikoa. Kontsumitzailearen konfiantza-indizearen bilakaera**



Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

**II.2.4. Koadroa. Barne eskariaren adierazle batzuen bilakaera (urtetik urterako aldakuntza-tasa)**

	2008	2009	2010	2011
<b>Kontsumo Publikoaren adierazleak</b>				
Administrazio publikoetako kontsumo-gastua (HKEren arabera)	7,0	5,0	2,3	-0,8
<b>Kontsumo pribatuaren adierazleak</b>				
IPI Kontsumoko ondasunak	-7,0	-14,6	1,0	2,2
Autoen matrikulazioa (joera-zikloaren datuak)	-22,6	1,7	-2,9	-24,5
Barne Merkataritzaren Salmenten Indizea (p. korr.)	-4,3	-9,1	2,8	-2,7
Salmentak saltoki handietan (p. korr.)	-5,0	-0,2	-0,5	-6,1
<b>Beste batzuk</b>				
Hoteletan igarotako gauak (EAEko berezkoak kanpo utzita)	-4,9	-1,4	13,8	7,9
<b>Inbertsioaren adierazleak</b>				
IPI inbertsio-ondasunak	-1,0	-23,2	-2,6	5,2
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	-41,2	-39,6	-0,8	-17,3
Ekipamendu Ondasunen inportazio-balioa	-1,1	-30,7	4,7	1,4

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaria.

**II.2.5. Koadroa. Kontsumitzaileak EAE-n duen konfiantzaren itxaropen-indizea: osagaiak**

		KKI	Etxebizitzako egoera ekonomikoaren itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Egoera ekonomiko orokorraren itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Aurrezki-itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Langabezia-itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)
2008	I	92	93	81	109	83
	II	80	90	77	92	59
	III	75	86	65	93	57
	IV	71	79	48	106	50
	Batez bestekoa	80	87	68	100	62
2009	I	70	79	54	103	45
	II	67	80	63	86	39
	III	72	86	63	94	43
	IV	93	94	88	108	81
	Batez bestekoa	76	85	67	98	52
2010	I	81	89	74	99	60
	II	82	89	75	89	74
	III	81	93	83	85	63
	IV	89	95	83	107	72
	Batez bestekoa	83	92	79	95	67
2011	I	91	96	89	98	80
	II	81	91	74	83	75
	III	74	87	66	83	61
	IV	74	88	66	87	57
	Batez bestekoa	80	91	74	88	68

Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

Amaitzeko, ikusi da ziurgabetasuna izugarria dela, nahiz eta atzerriko merkatuek oraindik ere agertzen duten halako ikuspegi positibo bat.

Hain zuzen, egoera horrekin bat, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioko Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak (KKI) bilakaera negatiboa agertzen du: 2010ean, urteko batez bestekoa 83 puntuan zegoen, eta 2011. urtean 80an. Horrek erakusten du euskal kontsumitzaileen konfiantza galdu egin dela. Egoera hori sumatzen da EBN ere; izan ere, 87ko batez bestekotik 85era igaro dira 2010etik 2011ra. Ezkortasunaren igoera hori ez da sumatzen Estatuan, konfiantza-indizea 79tik 82ra igo baita.

2011ko hirugarren hiruhilekoko datuek erakusten dute jarduera ekonomikoa moteldu egin dela. Konfiantza-indizea 81etik 74ra igaro da bigarren hiruhilekotik hirugarrengora eta balioa errepikatu egin da laugarrengora; hala, aurreko hiruhilekoetako aldakuntza positiboetatik urrun kokatu da. Euskal kontsumitzaileen konfiantza-galeraren jatorria enpleguaren bilakaeraren balorazioa eta ekonomia orokorrean izandako atzeraldia dira, bai eta etxeko ekonomia bilakaeraren gaineko itxaropen negatiboak berretsi izana ere. Horiek aurrezki-itxaropena berreskuratzearekin konpentsatu dira. Indizearen balioa 2008ko eta 2009ko hirugarren hiruhilekoan lortutakoaren antzekoa da, baina desberdintasuna da emaitza lauagoetan oinarritzen dela; hala, binaka, lau indizeak elkarren oso hurbil daude, eta, beraz, kontsumitzaileek ez dute ikuspegi baikorrik alderdi bakar baten gainean ere.

Hala, ekonomia orokorraren itxaropen-indizeak errepikatu egiten du balioa (66 hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan); izan ere, kontsumitzaileen erdiek baino gehiagok (% 60) uste dute datorren urtean egoera okerragoa izango dela, eta ia ez dago hobekuntzarik izango dela uste duen talderik (% 4). Bestalde, langabeziaren itxaropenak negatiboak dira (57 laugarren hiruhilekoan, eta 61 aurreko hiruhilekoan); izan ere, kontsumitzaileen % 63k uste dute areagotu egingo dela eta % 31k uste dute berdin jarraituko duela. Oro har, bi adierazleek erakusten dute, kontsumitzaileen

iritziz, testuinguru ekonomikoa hobetzetik oso urrun dagoela, eta areago, luze gabe agertoki okerrago bat izango dela uste dute.


Bestalde, aurrezki-itxaropena zertxobait hobetu da (87 laugarren hiruhilekoan eta 83 aurreko hiruhilekoan), pertsona gehiagok uste baitute aurreztuko dutela (% 45, +3 puntu). Aldi berean, agertokia txarra izango dela sumatzen bada ere, kontsumitzaileek etxeko egoeraren balorazioari bere hartan eusten diote (88 laugarren hiruhilekoan eta 87 hirugarrengora); izan ere, bi herenek uste dute berdin jarraituko duela (% 65, -1 puntu), eta zertxobait gora egin du hobeto egongo direla uste dutenen kopuruak (% 6, +1 puntu).

Laburbilduz, Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak eta haren itxaropen-osagaiak oraindik ere agertzen dute euskal kontsumitzaileek pertzeptzio ezkorra dutela egoera orokorraren inguruan. Testuinguru horretan, kontsumitzaileek aurrekusi dute kontsumoari eutsiko zaiola eta aurrezteko zailtasunak izango dituztela, nahiz eta kasu honetan beren aurreikuspenen gainetik etengabeko ahalegin bat agertzen ari diren. Errenta, kontsumo eta aurrezkiaren magnitudeen eta adierazleen oraintsuko bilakaera ez da itxaropentsua, ez eta lan-merkatuaren bilakaera-adierazleena ere. Ingurune horretan, euskal kontsumitzaileen itxaropenei buruzko datuak itxaronaldi gisa interpreta litezke.

### 2.3. Kanpoko eskaria

2012ko otsailean argitaratutako Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoek, Estatuari eta munduko gainerako tokiei egindako ondasun eta zerbitzu salmentei dagokienez, adierazten dute esportazioa urtean batez beste % 9 handitu zela kopuru errealean (aurreko aldian % 7,6 hazi zen). Halaber, inportazioa % 7,4 handitu zen (aurreko aldian % 5,5). Bi aldagaiek hiruhilekoko bilakaeraren antzeko profila ageri dute. Esportazioek lehenengo hiruhilekoa % 13,3ko igoerarekin hasi dute; hazkundera moteldu egin da bigarrengora, % 3,2rekin; ostera ere

**II.2.4. Grafikoa. Kanpo sektorearen bilakaera EAE-n. Bolumen-indizearen aldakuntzaren urteko urterako tasa. Datu zuzenduak**



Iturria: Eustat. HKE.

% 12,4ra igo dira hirugarrenengan; eta hazkundera berriro gutxitu da laugarrenengan (+% 7,3). Bestalde, inportazioak lehenengo hiruhilekoa % 11,6ko igoerarekin hasi dute; igoera gutxitu egin da bigarrenengan, +% 2,1 aldatuta; ondoren, hazkundera % 11,1era handitu da; eta laugarren hiruhilekoa % 4,9ko igoerarekin amaitu da. Euskal ekonomiaren irekiera-maila (Estatuarekiko eta atzerriarekiko harremanak) murriztu egin da, % 126,7tik

**II.2.6. Koadroa. Kanpo merkataritzaren bilakaera (urteko aldakuntza-tasak, eurotan)**

	Esportazioak			Inportazioak		
	Guzt.	Energ.	Energ. ez direnak	Guzt.	Energ.	Energ. ez direnak
2006	16,4	51,4	14,1	20,2	32,9	14,6
2007	14,6	12,5	14,7	8,2	-3,2	14,1
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-26,3	-30,5	-25,9	-38,9	-40,1	-38,2
2010	19,6	22,7	19,3	25,5	24,6	26,0
2011	17,9	51,0	14,7	10,9	13,2	9,7

Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika, Aduanen Erregistroetan oinarritua.

138,5a igaro baita. Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak esportazioarekin duen estaldura-maila ehuneko puntu bat igo da, % 93,5etik % 94,5era igaro baita.

Atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzaren datuek, Aduanetako Erregistroetan oinarrituta Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskainitakoak, adierazten dute esportazioen balio arrunta % 17,9 txikitu egin zela 2011. urtean. Energiakoek % 51ko hazkundera izan zuten, eta energiakoak ez direnak (guztien % 88,8) % 14,7koa. Bestalde, inportazio osoek % 10,9 egin zuten gorantz. Bertan, energia-inportazioen balioak, guztiaren % 35,1, % 13,2 hazi ziren, eta energiakoak ez direnen kasuan % 9,7koa izan zen hazkundera.

Datu horiek oinarri hartuta, euskal ekonomiaren irekiera-maila (atzerriarekiko harremanak<sup>1</sup>) % 50,9tik 57,1ra

**II.2.7. Koadroa. EAE-k atzerriarekin duen ondasun eta zerbitzuen kanpo merkataritza (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen arabera sailkapena)**

MUGA-ZERGAKO TALDEAK	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK					SALDOA		
	2009	2010	2011 b.b.		10-11 Ald	2009	2010	2011 b.b.		10-11 Ald	2009	2010	2011 b.b.
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Guztira	14.945,4	17.875,5	21.076,7	100,0	17,9	12.294,5	15.430,5	17.110,2	100,0	10,9	2.650,9	2.445,0	3.966,6
Energiakoak (Energiako produktu eta mineralak)	1.278,8	1.569,1	2.369,3	11,2	51,0	4.256,7	5.304,1	6.001,8	35,1	13,2	-2.977,9	-3.735,1	-3.632,5
Energiakoak ez direnak	13.666,6	16.306,5	18.707,5	88,8	14,7	8.037,7	10.126,4	11.108,4	64,9	9,7	5.628,9	6.180,1	7.599,1
Nekazaritzako produktuak	561,5	588,9	699,4	3,3	18,8	821,3	858,8	896,7	5,2	4,4	-259,8	-269,9	-197,2
Produktu kimikoak	316,3	429,9	450,7	2,1	4,8	419,7	564,2	751,0	4,4	33,1	-103,4	-134,3	-300,3
Plastikoak eta kautxua	1.140,0	1.418,4	1.893,8	9,0	33,5	614,1	878,6	1.131,1	6,6	28,7	525,9	539,8	762,7
Papera	418,4	478,8	502,3	2,4	4,9	276,3	366,4	427,6	2,5	16,7	142,1	112,4	74,6
Metal komunak eta haien manufakturak.	3.646,5	4.818,2	5.413,9	25,7	12,4	2.395,2	3.435,2	3.869,6	22,6	12,6	1.251,3	1.383,0	1.544,2
Ekipamendu-ondasunak	6.698,0	7.586,5	8.661,2	41,1	14,2	2.657,2	3.005,2	2.993,4	17,5	-0,4	4.040,8	4.581,3	5.667,8
Makinak eta gailuak	3.321,3	3.461,6	3.968,3		14,6	2.112,8	2.386,2	2.355,1		-1,3	1.208,5	1.075,4	1.613,2
Garraio-materiala	3.376,8	4.124,9	4.693,0		13,8	544,4	619,0	638,3		3,1	2.832,4	3.505,9	4.054,7
Beste manufaktura batzuk	788,2	861,8	919,7	4,4	6,7	834,4	990,7	1.013,1	5,9	2,3	-46,3	-128,9	-93,4
Sailkatu gabe	97,8	123,9	166,5	0,8	34,3	19,6	27,3	25,9	0,2	-5,1	78,2	96,6	140,6

b-b: behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

<sup>1</sup> Irekiera-maila: (Esportazioak+Inportazioak prezio arruntetan)/BPG prezio arruntak \*100



**II.2.8. Koadroa. EAE-ko energiakoak ez diren ondasunen kanpoko merkataritza, eremu geografikoak gorabehera (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen arabera sailkapena)**

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2009	2010	2011 b.b	Ald. 2010-11	2009	2010	2011 b.b	Ald. 2010-11	2009	2010	2011 b.b
GUZTIRA	13.666.589	16.306.453	18.707.472	14,7	8.037.717	10.126.380	11.108.365	9,7	5.628.872	6.180.073	7.599.107
UE27	8.709.752	10.504.626	12.446.328	18,5	5.491.390	6.877.235	7.347.866	6,8	3.218.362	3.627.391	5.098.462
UE25	8.630.372	10.423.165	12.342.949	18,4	5.451.897	6.811.178	7.284.372	6,9	3.178.475	3.611.987	5.058.577
UE15	8.019.608	9.631.914	11.449.057	18,9	5.187.551	6.470.537	6.939.463	7,2	2.832.057	3.161.377	4.509.594
EBKB (EBko kide berriak)	690.144	872.711	997.272	14,3	303.838	406.699	408.402	0,4	386.306	466.012	588.870
Eurogunea	7.116.298	8.534.236	10.086.049	18,2	4.686.924	5.664.905	6.159.439	8,7	2.429.374	2.869.331	3.926.610
ELGA	10.193.019	12.277.910	14.506.514	18,2	6.235.970	7.794.662	8.368.702	7,4	3.957.049	4.483.248	6.137.812
EBtik kanpoko ELGA	-1.613.808	1.878.468	2.197.267	17,0	816.936	1.017.358	1.101.423	8,3	796.872	861.110	1.095.844
EEEH - Europa Erdialdeko eta Ekialdeko Herrialdeak.	105.111	142.097	191.225	34,6	50.351	90.786	96.415	6,2	54.760	51.311	94.810
EIE - Estatu Independenteen Erkidegoa.	134.140	192.950	272.372	41,2	235.273	348.717	456.331	30,9	-101.133	-155.767	-183.959
MAH - Mediterranear Arroko Herrialdeak	1.219.036	1.180.928	1.016.056	-14,0	155.587	240.642	251.430	4,5	1.063.449	940.286	764.626
MAGREB - Magrebeko herrialdeak	585.013	585.004	429.899	-26,5	60.267	78.375	80.197	2,3	524.746	506.629	349.702
IAMAI - Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Ituna	748.525	881.779	1.056.309	19,8	317.377	354.976	376.537	6,1	431.148	526.803	679.772
Mercosur - Hego Amerikako Merkatu Komuna.	342.801	495.283	734.787	48,4	83.900	106.715	143.553	34,5	258.901	388.568	591.234
AED - Asiako Ekonomia Dinamikoak	455.102	481.791	276.109	-42,7	209.590	268.370	358.414	33,6	245.512	213.421	-82.305
HIB - Asiako Herrialde Industrializatu Berriak	389.074	389.939	170.290	-56,3	153.736	160.488	231.049	44,0	235.338	229.451	-60.759

b.b. AEDren behin-behineko datuak: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malaysia eta Thailandia). Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

igaro zen, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin<sup>2</sup> duen estaldura-maila % 115,8tik % 123,2ra igaro zen.

EAEko energiakoak ez diren esportazioak muga-zergen taldeak gorabehera aztertuz gero, ikus daiteke berriro ere nabarmen ageri direla, lehenik eta behin, ekipamendu-ondasunak, hain zuzen ere esportatu den guztiaren % 41,1 (makinen eta gailuen artean banatuta 3.968,3 milioi euro, eta garraio-materiala 4.693 milioi euro). Esportazioa % 14,2 hazi da, hala garraio-materialaren esportazioagatik (+% 13,8) nola makina eta gailuenarengatik (+% 14,6). Bigarrenik, metal komunak eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 25,7arekin. Horien esportazioa % 12,4 handitu da. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa da azpimarragarria, hain zuzen ere kopuru osoaren % 9. Haren aldakuntza-tasa % 33,5koa da.

Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturek.

Horiek inportazio guztien % 22,6 hartzen dute, eta % 12,6 hazi dira. Bigarrenik, ekipo-ondasunak inportazio guztien % 17,5 dira, baina % 0,4 gutxitu dira, makina eta gailuen inportazioa jaitsi dela eta (-% 1,3).

Kanpoko saldoa 3.966,6 milioi eurokoa da, BPGaren % 5,9.

Energiakoak diren eta energiakoak ez diren ondasun eta produktuak bereiziz, ondorioztatzen da energiaren saldoak defizita duela (-3.632,5 milioi euro). Aldiz, energiakoak ez diren produktuenak superabita izan du, 6.078,5 milioi euro, eta BPGaren % 11,4 hartu du. Ratio hori aurreko urtean izandako kopurua (% 9,4) baino ehuneko 2 puntu gehiago da.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen destinoko eremu geografikoen arabera, ELGara bideratutakoak eta eremu horren barruan EB-15era bideratutakoak dira, berri ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 61,2 dira, eta % 18,2ko hazkunde-tasa ageri dute. Bereiziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz,


<sup>2</sup> Estaldura maila: Esportazioak eguneko prezioetan/inportazioak eguneko prezioetan\*100.

**II.2.9. Koadroa. EAE-ko energiakoak ez diren ondasunen kanpoko merkataritza, eremu geografikoen eta herrialdeen arabera (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen araberako sailkapena)**

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2009	2010	2011 b.b	Ald. 2010-11	2009	2010	2011 b.b	Ald. 2010-11	2009	2010	2011 b.b
<b>GUZTIRA</b>	13.666.589	16.306.453	18.707.472	14,7	8.037.717	10.126.380	11.108.365	9,7	5.628.872	6.180.073	7.599.107
<b>ELGA</b>	10.193.019	12.277.910	14.506.514	18,2	6.235.970	7.794.662	8.368.702	7,4	3.957.049	4.483.248	6.137.812
<b>EB-15</b>	8.019.608	9.631.914	11.449.057	18,9	5.187.551	6.470.537	6.939.463	7,2	2.832.057	3.161.377	4.509.594
Alemania	2.044.385	2.446.133	3.033.109	24,0	1.339.501	1.641.938	1.924.674	17,2	704.884	804.195	1.108.435
Austria		172.281			103.174	129.968	135.212	4,0		42.313	
Belgika	514.609	595.706	723.619	21,5	339.783	344.941	413.711	19,9	174.826	250.765	309.908
Frantzia	2.325.475	2.769.683	3.300.204	19,2	1.212.830	1.586.532	1.672.618	5,4	1.112.645	1.183.151	1.627.586
Italia	837.406	1.097.071	1.188.653	8,3	863.977	853.657	871.513	2,1	-26.571	243.414	317.140
Luxenburgo		19.163	22.309	16,4	12.243	14.187	19.299	36,0		4.976	3.010
Portugal	675.498	799.958	849.002	6,1	196.598	264.915	302.697	14,3	478.900	535.043	546.305
Erres. Batua	784.371	979.410	1.159.195	18,4	360.339	589.929	593.633	0,6	424.032	389.481	565.562
Suedia	131.756	145.601	248.334	70,6	118.876	192.539	189.664	-1,5	12.880	-46.938	58.670
<b>EBKB</b>	690.144	872.711	997.272	14,3	303.838	406.699	408.402	0,4	386.306	466.012	588.870
<b>EB-25</b>	8.630.372	10.423.165	12.342.949	18,4	5.451.897	6.811.178	7.284.372	6,9	3.178.475	3.611.987	5.058.577
Polonia	265.126	299.455	358.130	19,6	77.529	108.911	98.723	-9,4	187.597	190.544	259.407
Txekiar Errepublikak	189.557	308.119	263.521	-14,5		63.177	95.935	51,9		244.942	167.586
<b>EB-27</b>	8.709.752	10.504.626	12.446.328	18,5	5.491.390	6.877.235	7.347.866	6,8	3.218.362	3.627.391	5.098.462
<b>EB ez den ELGA</b>	1.613.808	1.878.468	2.197.267	17,0	816.936	1.017.358	1.101.423	8,3	796.872	861.110	1.095.844
Kanada	54.342	63.858	87.578	37,1	24.652	36.887	43.394	17,6	29.690	26.971	44.184
AEB	460.816	580.811	643.056	10,7	264.114	286.970	305.247	6,4	196.702	293.841	337.809
Japonia	25.718	37.423	48.264	29,0	115.728	122.029	138.955	13,9	-90.010	-84.606	-90.691
Mexiko	233.367	237.111	325.673	37,4	28.611	31.119	27.896	-10,4	204.756	205.992	297.777
Turkia	391.426	356.480	389.333	9,2	59.138	78.139	81.480	4,3	332.288	278.341	307.853
<b>MERCOSUR</b>	342.801	495.283	734.787	48,4	83.900	106.715	143.553	34,5	258.901	388.568	591.234
Argentina			115.296				51.845				63.451
Brasil	250.566	384.683	605.396	57,4	60.805	85.705	88.103	2,8	189.761	298.978	517.293
Txina	260.423	406.159	469.160	15,5	709.209	878.635	895.725	1,9	-448.786	-472.476	-426.565
India	158.975	213.928	179.787	-16,0	41.913	67.226	118.069	75,6	117.062	146.702	61.718
Errusia	110.858	165.325	210.961	27,6	178.594	285.958	365.731	27,9	-67.736	-120.633	-154.770

b.b. EBKBren behin-behineko datuak.: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Komuna. EEMH: Europa Erdialdeko eta Ekialdeko Herrialdeak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malaysia eta Thailandia). Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

**II.2.5. Grafikoa. EAEko Kanpo Merkataritzaren bilakaera, eduki teknologikoen arabera**



p: behin-behineko datuak. Iturria: Eustat.

Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak; EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 75,8 dira. Estatu kide berriei zuzendatutako esportazioari dagokionez, oraindik ere pisu nabarmena dute Poloniar eta Txekiar Errepublikari zuzendurikoak. ELGaren arloan, baina jadanik EBtik kanpo, garrantzitsuak dira AEBrako, Turkiarako eta Mexikorako esportazioak, eta Kanadara (+% 37,1), Mexikora (% 37,4) eta neurri txikiagoan Japoniara (+% 29) zuzendutakoen hazkundera nabarmentzen da. ELGatik kanpo, berriro ere Brasiler eta Txinara bideratutako esportazioak nabarmentzen dira, duten pisuagatik. Aldi berean, azpimarragarriak dira Asiako Ekonomia Dinamikoetara (AED) bideratutako esportazioak. Inportazioei dagokienez, haietako gehienak ELGatik datoz eta, zehazki, EB-15eko herrialdeetatik, funtsean, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik, EB-15etik egindako inportazio guztien % 64,4 hartuz. Neurri txikiagoan ageri dira Erresuma Batua eta Belgika. ELGaren eremuan, baina EBtik kanpo, azpimarragarriak dira AEBtik eta Japoniatik etorritakoak.

**II.2.10. Koadroa. Kanpoko merkataritzaren bilakaera EAE-n, maila teknologikoa gorabehera**

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011p
<b>X guztira (milioi €)</b>	13.935	16.201	18.508	19.691	14.513	17.413	20.494
Altuen X %a kopuru osoaren gainean	2,7	2,4	2,7	2,6	2,6	2,8	2,2
Ertain eta altuen X %a kopuru osoaren gainean	48,6	45,6	44,1	43,2	43,8	40,5	41,3
Ertain eta baxuen X %a kopuru osoaren gainean	40,5	44,4	45,8	46,8	45,2	49,1	49,1
Baxuen X %a kopuru osoaren gainean	8,3	7,6	7,4	7,3	8,4	7,6	7,3
<b>M guztira (milioi €)</b>	9.859	11.744	13.701	13.320	8.474	10.405	11.439
Altuen X %a kopuru osoaren gainean	4,7	4,6	4,1	5,0	5,9	6,0	4,9
Ertain eta altuen X %a kopuru osoaren gainean	38,2	34,7	32,8	33,1	33,6	32,4	33,1
Ertain eta baxuen X %a kopuru osoaren gainean	42,8	48,0	51,0	49,6	44,7	46,9	48,4
Baxuen X %a kopuru osoaren gainean	14,4	12,8	12,1	12,3	15,8	14,7	13,6

b.b. Behin-behineko datuak. X: esportazioak. M: Inportazioak. Iturria: EUSTAT.

Azkenik, EAEko energiakoa ez den kanpoko saldoa hobetu egin da, 6.180 milioi euroko superabit batetik 7.599,1era igaro baita 2010. eta 2011. urteen artean.

Bestalde, energiakoak ez diren ondasunen estaldura-tasa areagotu egin da, 2010. eta 2011. urteen artean % 161etik % 168,4ra igaro baita.

Bestalde, bestelako sailkapen mota bati erreparatuz gero, hau da, maila teknologikoaren arabera, ikus daiteke 2010. eta 2011. urteen artean maila ertaineko eta altuko esportazioek pisua irabazi zutela kopuru osoaren gainean; izan ere, % 40,5 izatetik % 41,3 izatera igaro dira. Bestalde, maila ertainekoak eta baxukoak % 49,1ean jarraitu dute. Inportazioen kasuan: Maila teknologiko ertain eta altukoaren pisua igo da (% 32,4tik % 33,1era), baina maila ertaineko eta baxukoaren ere igo da (% 46,9tik % 48,4ra).

## 2.4. Atzerriko inbertsioa

### Atzerriko inbertsioa EAEn

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn % 244,6 areagotu da 2010. eta

2011. artean, atzerriko balioak dituzten enpresak (ABDE) kenduta. Guztira, EAEk 522,6 milioi euro jaso ditu, eta EAEk estatuko guztizkoaren gainean duen proportzioa % 1,3tik % 2,3ra handitu da 2010etik 2011ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa kentzen badugu, portzentajea % 5,2koa da, eta % 2,3tik % 5,2ra igo da 2010. urtetik 2011. urtera.

Hala, 2011. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu du inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (12.520 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (3.022 milioi euro jasotzen baititu). 2010. urtean, EAEk bosgarren postua bete zuen inbertsio-bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Balearren atzetik.

Alde batera utzita energia elektriko, gas, lurrun eta airearen horniduraren sektorean egindako inbertsioak —EAEko inbertsioaren % 72 hartzen dute eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 35,5 dira—, bereziki azpimarragarriak dira arlo hauetan egindakoak, guztizkoaren gainean duten pisuagatik:


- Ilbilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa EAEko inbertsioaren % 9 da eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 48,7.

**II.2.11. Koadroa. Atzerriko inbertsio gordina\* Autonomia Erkidegoaren arabera (Euroak, milaka)**

	2007	2008	2009	2010	2011
<b>GUZTIRA</b>	29.179.896,90	29.524.076,40	12.430.915,30	12.103.789,80	22.480.032,40
<b>EAE</b>	1.350.598,60	326.311,40	77.410,50	151.646,00	522.565,70
Andaluzia	249.478,49	225.323,33	315.305,19	1.218.543,86	469.352,77
Aragoi	208.783,06	99.623,41	133.658,05	47.478,87	37.939,98
Kantabria	59.369,52	72.852,51	12.104,43	3.666,98	16.788,99
Gaztela eta Leon	23.419,55	46.197,48	74.797,11	12.927,64	182.712,02
Gaztela-mantxa	22.233,75	110.402,49	178.255,72	55.367,19	500.600,97
Katalunia	2.621.612,87	2.346.506,39	1.556.177,50	4.011.999,39	3.021.957,47
Ceuta eta Melilla	2.614,15	629,90	727,05	2,65	35,66
Madril	22.297.931,89	23.912.523,12	8.119.460,72	5.221.380,19	12.520.139,26
Valentzia	1.741.570,19	279.434,19	450.061,20	126.288,81	350.687,96
Extremadura	3.663,43	4.944,48	28.635,00	30.399,87	26.293,72
Galizia	51.190,67	27.190,47	167.465,30	47.370,56	276.437,73
Balearrak	167.143,36	545.646,03	417.818,20	166.609,63	361.339,59
Kanariar Uharteak	127.889,18	20.843,65	76.686,81	113.937,81	76.291,54
Errioxa	2.822,40	1.018,11	3.595,54	36.414,21	1.999,46
Nafarroa	10.788,97	23.114,88	27.823,04	109.841,81	49.302,33
Asturias	11.889,87	6.974,29	6.344,83	29.323,33	18.164,80
Murtzia	42.374,51	189.679,74	11.675,67	23.957,15	71.643,03
<b>ESLEITU GABE</b>	184.522,50	1.284.860,48	772.913,43	696.633,87	3.975.779,39

\* ABDE deskontatuta. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.

**II.2.6. Grafikoa. Atzerriko inbertsio gordina\* EAEn**




\* ADBeak kenduta.  
Iturria: Kanpo Inbertsioen Erregistroa.

- Makineriaren eta ekipamenduen fabrikazioak (beste inon ez da jasotzen) EAEko inbertsioaren % 6,9 hartzen du eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 60.
- Garraioa eta biltegiatzea EAEn inbertsioaren % 3,4 da eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 0,4.
- Handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketak EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 1,8 hartzen du, eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 1,4.

Lurralde ikuspegitik begiratuz gero, inbertsioaren azken titularrak ELGAko herrialde batean bizi da kasuen % 65etan, eta EB15en % 31,8etan (guztira 166 milioi euro). EB15eko herrialde inbertsiogile nagusiak Herbehereak (69,5 milioi), Frantzia (50,7 milioi euro), Erresuma Batua

**II.2.7. Grafikoa. EAEk atzerrian egindako inbertsio gordina\***



\* ADBeak kenduta.  
Iturria: Kanpo Inbertsioen Erregistroa.

(24,5 milioi) eta Portugal (11,1 milioi) dira, eta Espainiako Estatuaren gainerako lurraldeek gure erkidegoan egin duten inbertsioa 2,1 milioi euro izan dira. Bereziki nabarmentzekoa da AEBtik, Arabiar Emirerri Batuetatik eta paradisu fiskaletatik datozen inbertsioak areagotu direla; izan ere, 2011n, hurrenez hurren EAEn izandako atzerriko inbertsioen % 32,9, % 34,4 eta % 34,8 dira<sup>3</sup>.

**Euskal Inbertsioa atzerrian**

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kanpo utzita, hazi egin da 2010. urtetik 2011. urtera bitartean, 1.975 milioi eurotik 4.827 milioi eurora. Estatu osokoa, ordea, txikiagotu egin da, 28.674,1 milioi eurotik 25.300,7ra igaro baita.

**II.2.12. Koadroa. Atzerrian egindako inbertsio gordina\* Autonomia Erkidegoaren arabera (euroak, milaka)**

	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Guztira</b>	<b>97.801.481,82</b>	<b>36.824.972,78</b>	<b>19.603.564,16</b>	<b>28.674.057,35</b>	<b>25.300.733,71</b>
<b>EAE</b>	<b>28.363.028,08</b>	<b>4.857.621,06</b>	<b>1.418.994,52</b>	<b>1.974.737,13</b>	<b>4.826.767,54</b>
Andaluzia	489.551,79	975.103,08	408.682,36	685.228,15	538.864,86
Aragoi	157.125,34	224.037,12	48.374,94	152.960,63	74.292,68
Kantabria	21.215.040,18	5.210.299,74	4.572.903,35	1.462.202,81	4.357.868,50
Gaztela eta Leon	99.428,34	133.949,28	205.334,67	82.476,26	25.626,51
Gaztela-Mantxa	159.305,39	97.669,84	22.339,01	1.424,31	61.846,51
Katalunia	7.164.039,00	6.325.850,96	2.233.137,61	1.989.159,82	2.422.451,33
Ceuta eta melilla					
Madril	34.856.337,03	13.366.966,04	7.739.764,18	19.242.577,02	11.938.504,20
Valentzia	1.924.861,50	1.523.924,83	1.606.063,99	1.603.984,48	336.740,97
Extremadura	131.118,81	4.925,50	870,95	2.202,43	163,33
Galizia	1.548.461,81	1.495.166,41	666.164,83	813.633,10	402.519,52
Balearrak	1.503.078,67	1.471.628,72	38.169,08	425.650,73	27.369,54
Kanariar u.	14.638,82	65.905,91	48.247,21	6.557,11	1.697,89
Errioxa	1.346,61	1.105,52	154,75	4,81	600,00
Asturias	16.405,22	865.452,46	540.992,79	223.584,71	208.123,13
Murtzia	107.381,63	133.407,95	19.213,64	2.886,87	53.631,54

\* ABDE deskontatuta. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.

<sup>3</sup> Ikus guztizkoa 100 baino gehiago dela. Horrek esan nahi du badirela Arabiar Emirerri Batuetako lurraldeetan kokaturiko paradisu fiskaletatik datozen inbertsioak.

**II.2.13. Koadroa. Inbertsio osoa\* EAE-n sektorea eta herrialdea gorabehera (euro milakoetan) (CNAE-09)**

	2009	2010	2011	Estatua 2009 b-b	EAE banaketa	Estatuaren gaineko %	%09-10	%10-11	
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,0	3,4	0,0	67.387,0	0,0	0,0			
B. Erauzketa-industriak	3,1	0,0	0,0	75.817,1	0,0	0,0			
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	30,0	76.000,0	2.138,9	732.685,5	0,4	0,3	252.896,0	-97,2	
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,2	0,0	50.796,1	0,0	0,0			
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	16.113,1	0,0	0,0			
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu.	0,0	0,0	50,0	32.829,1	0,0	0,2			
C. C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	15,9	58.885,1	0,0	0,0			
C. Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	228.595,1	0,0	0,0			
C. Ind. kimikoak eta kautxu eta plastiko transf.	0,0	0,0	0,0	246.748,1	0,0	0,0			
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	11.000,0	0,0	94.161,5	0,0	0,0			
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	1.739,9	18.649,6	3.819,6	1.329.542,0	0,7	0,3	971,9	-79,5	
C. Prod. informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	0,0	178,7	30,0	66.640,2	0,0	0,0		-83,2	
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	0,0	1.200,0	240,0	236.811,5	0,0	0,1		-80,0	
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	2.084,5	269,9	36.031,0	60.047,6	6,9	60,0	-87,1	13.251,2	
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio mat. batzuen fabrik.	2.627,6	0,0	46.949,1	96.421,1	9,0	48,7	-100,0		
C. Altzari fabrik.	816,4	100,0	100,0	6.537,3	0,0	1,5	-87,8	0,0	
C. Beste manufaktura batzuk	96,8	0,0	8.600,0	926.132,5	1,6	0,9	-100,0		
C. Makineria instalaz. konponketa	0,0	0,0	0,0	7.563,3	0,0	0,0			
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura	27.362,3	6.285,0	375.843,7	1.120.856,4	71,9	33,5	-77,0	5.880,0	
E. Ur hornidura, saneam. jard., hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	0,0	99,3	585,0	16.881,0	0,1	3,5		489,2	
F. Eraikuntza	165,8	69,7	907,5	869.446,8	0,2	0,1	-57,9	1.201,8	
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	21.315,2	431,6	12.326,3	906.164,2	2,4	1,4	-98,0	2.756,2	
H. Garraioa eta biltegitratzeak	570,0	2.307,8	18.002,3	4.431.238,1	3,4	0,4	304,9	680,1	
I. Ostalaritza	0,0	0,0	0,0	317.678,9	0,0	0,0			
J. Informazioa eta Komunikazioak	9.924,5	1.175,6	2.009,8	5.211.166,8	0,4	0,0	-88,2	71,0	
K. Finantza eta aseguru alorretako jarduerak	0,0	4.589,5	3.479,6	2.774.997,0	0,7	0,1		-24,2	
L. Higiezin-jarduerak	10.218,7	15.391,1	140,0	1.409.819,6	0,0	0,0	50,6	-99,1	
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	426,4	9.215,8	5.745,1	536.729,1	1,1	1,1	2.061,4	-37,7	
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	1,5	2.054,8	5.551,5	245.358,9	1,1	2,3	134.197,4	170,2	
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	3,1	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	2.621,3	0,0	314,9	0,0	0,0		-100,0	
Q. Osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak	0,0	0,0	0,0	22.673,1	0,0	0,0			
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	27,9	3,0	0,0	270.843,7	0,0	0,0	-89,2	-100,0	
S. Beste zerbitzu batzuk.	0,0	0,0	0,5	12.147,9	0,0	0,0			
T. Etxeetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
<b>Inbertsioa guztira</b>	<b>77.410,5</b>	<b>151.646,0</b>	<b>522.565,7</b>	<b>22.480.032,4</b>	<b>100,0</b>	<b>2,3</b>	<b>95,9</b>	<b>244,6</b>	
Inbertsioaren azken titularren bizitokia dagoen herrialdea	ELGA	73.543,5	136.508,8	339.753,6	21.161.576,5	65,0	1,6	85,6	148,9
	15-EB	51.793,0	121.253,8	165.984,8	18.709.596,4	31,8	0,9	134,1	36,9
	27-EB	51.892,6	121.601,8	165.995,7	18.773.152,7	31,8	0,9	134,3	36,5
	Ipar Amerika	54,7	46,3	171.831,7	1.474.033,3	32,9	11,7	-15,4	371.106,9
	Kanada	0,0	3,0		30.046,3	0,0	0,0		
	AEB	54,7	43,3	171.831,7	1.443.987,0	32,9	11,9	-20,8	396.373,6
	Latinoamerika	6.468,8	26.571,3	2.883,8	246.485,7	0,6	1,2	310,8	-89,1
	Argentina	1.647,0		818,1	6.854,7	0,2	11,9	-100,0	
	Brasil	3,0	12.535,0	3,0	21.060,0	0,0	0,0	414.966,2	-100,0
	Txile	394,3			5.033,3	0,0	0,0	-100,0	
	Mexiko	2.961,0	13.911,8	107,4	43.406,0	0,0	0,2	369,8	-99,2
	Asia eta Ozeania	4.231,3	1.204,9	180.262,2	777.124,1	34,5	23,2	-71,5	14.860,6
	Txina			18,0	59.196,2	0,0	0,0		
	Arabiar Emirerri Batuak	0	1,51	180.000	411.140,74	34,4	43,8		11.920.429,8
	India	0,0			26.344,9	0,0	0,0		100,0
	Japonia	4.224,8	1.200,0	240,0	191.118,9	0,0	0,1	100,0	-80,0
Afrika	3,0		3,0	10.652,1	0,0	0,0	-100,0		
Zerga Paradisuak	253,4	2.137,9	181.900,0	901.703,6	34,8	20,2	743,7	8.408,3	

(\*) Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.

**II.2.14. Koadroa. EAE-ren inbertsio osoa\* atzerrian, sektorea eta herrialdea gorabehera (mila €tan) (CNAE-09)**

	2009	2010	2011 b.b.	Estatua 2011 b.b.	EAE banaketa	Estatuaren gaineko %	%09-10	%10-11	
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	6.847,0	2.036,0	0,0	44.500,2	0,0	0,0	-70,3	-100,0	
B. Erauzketa-industriak	47.828,6	0,0	0,0	432.857,2	0,0	0,0	-100,0		
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	6.213,6	546,2	0,0	165.603,2	0,0	0,0	-91,2	-100,0	
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	25.181,9	0,0	0,0			
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	85,0	0,0	0,0			
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
C. C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	50.151,4	0,0	0,0			
C. Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
C. Ind. kimikoak eta kautxu eta plastiko transf.	13.868,5	779,0	1.009,0	207.858,2	0,0	0,5	-94,4	29,5	
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	13.083,0	0,0	0,0			
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	63.276,5	4.395,0	32.762,1	1.324.387,8	0,7	2,5	-93,1	645,4	
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	0,0	0,0	0,0	22,8	0,0	0,0			
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	19.084,2	5.020,8	6.181,6	105.349,7	0,1	5,9	-73,7	23,1	
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	590,2	4,7	27.187,9	27.616,7	0,6	98,4	-99,2	577.138,6	
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik.	77608,92	14713,55	45513,7	226834,43	0,9	20,1	-81,0	209,3	
C. Altzari fabrik.	0,0	0,0	0,0	20.826,2	0,0	0,0			
C. Beste manufaktura batzuk	3.727,3	2.670,7	2.000,0	446.434,3	0,0	0,4	-28,3	-25,1	
C. Makineria-instala. konponk.	0,0	0,0	0,0	1.430,9	0,0	0,0			
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura	234.413,0	51.396,4	30.277,5	2.380.487,8	0,6	1,3	-78,1	-41,1	
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	1,5	0,0	1,2	25.398,6	0,0	0,0	-100,0		
F. Eraikuntza	10.774,2	74.913,2	12.099,7	2.004.093,1	0,3	0,6	595,3	-83,8	
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	25.516,0	12.101,6	3.558,9	1.858.262,7	0,1	0,2	-52,6	-70,6	
H. Garraioa eta biltegiak	6.214,8	0,0	0,0	3.902.138,5	0,0	0,0	-100,0		
I. Ostalaritza	0,0	0,0	8.984,5	46.992,7	0,2	19,1			
J. Informazioa eta Komunikazioak	4.056,7	2.009,5	30.365,6	114.326,9	0,6	26,6	-50,5	1.411,1	
K. Finantza eta aseguru alorretako jarduerak	856.485,1	1.785.739,1	4.575.690,1	11.108.623,9	94,8	41,2	108,5	156,2	
L. Higiezin-jarduerak	0,0	2.116,5	20.895,1	159.465,1	0,4	13,1		887,2	
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	42.351,2	15.412,9	30.198,1	469.518,5	0,6	6,4	-63,6	95,9	
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	107,9	882,0	17,6	80.841,8	0,0	0,0	717,3	-98,0	
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	1.248,2	0,0	0,0			
Q. Osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	29,4	0,0	25,0	54.105,5	0,0	0,0	-100,0		
S. Beste zerbitzu batzuk.	0,0	0,0	0,0	3.007,7	0,0	0,0			
T. Etxeetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
U. Lurraldetik kanpoko erakundearen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
<b>Inbertsioa guztira</b>	<b>1.418.994,50</b>	<b>1.974.737,10</b>	<b>4.826.767,50</b>	<b>25.300.733,70</b>	<b>100,0</b>	<b>19,1</b>	<b>39,2</b>	<b>144,4</b>	
Inbertsioaren berehalako herrialdea	ELGA	1.210.292,27	737.971,37	4.513.359,14	19.163.235,60	93,5	23,6	-39,0	511,6
	Turkia	4.565,74	5.203,46	4.161.440,23	4.458.383,14	86,2	16,4	—	—
	15-EB	146.635,80	151.104,50	243.200,84	7.228.733,16	5,0	3,4	3,0	60,9
	27-EB	175.651,54	156.092,65	292.274,10	11.547.238,22	6,1	2,5	-11,1	87,2
	Ipar Amerika	967.463,63	571.999,09	2.531,52	1.935.933,45	0,1	0,1	-40,9	-99,6
	Kanada	0,00	566,67		46.838,96	0,0	0,0		-100,0
	AEB	967.463,63	571.432,42	2.531,52	1.889.094,49	0,1	0,1	-40,9	-99,6
	Latinoamerika	108.392,29	37.502,76	316.317,39	6.280.262,79	6,6	5,0	-65,4	743,5
	Argentina	2.267,64	1.901,19	3.823,89	115.809,66	0,1	3,3	-16,2	101,1
	Brasil	44.977,70	15.013,15	5.274,84	4.010.312,15	0,1	0,1	-66,6	-64,9
	Txile	1.269,49		46,50	162.879,01	0,0	0,0	-100,0	
	Mexiko	57.331,56	2.115,31	33.107,51	1.091.577,36	0,7	3,0	-96,3	1.465,1
	Asia eta Ozeania	92.225,88	1.198.632,48	51.656,95	538.239,13	1,1	9,6	1.199,7	-95,7
	Txina	38.699,46	1.190.285,56	11.362,48	120.492,35	0,2	9,4	2.975,7	-99,0
	Hego Korea	5.425,04		23.635,94	40.124,82	0,5	58,9	—	—
	Arabiar Emirerri Batuak	21,11	82,52		915,06	0,0	0,0	290,9	-100,0
	India	907,84	2.136,23	0,80	44.054,38	0,0	0,0	135,3	-100,0
	Japonia	0,00			718,12	0,0	0,0		
	Taiwan	0,00	0,00	15.836,62	16.045,96	3,3	98,7	—	—
Afrika	64.256,52	2.069,03	2.297,35	154.660,61	0,0	1,5	-96,8	11,0	
Zerga Paradisuak	53.631,45	3.163,08	151,27	308.461,84	0,0	0,0	-94,1	-95,2	

(\*) Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak.  
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.

Atzerrian egindako inbertsioaren alorrean, EAEk bigarren tokoa betetzen du autonomia erkidegoen hurrenkeran. Madrilek bakarrik gainditzen du, 11.938 milioirekin.

Hori horrela, EAEk atzerrian egindako inbertsioa Estatuakoen kopuru osoaren % 6,9 izatetik (Madril kenduz gero % 20,9) % 19,1 izatera (Madril kenduz gero % 36,1) igaro da 2010. eta 2011. urteen artean.

Sektore aldetik, finantza eta aseguru jarduerak alde batera utzita, EAEn kanpoko inbertsioaren % 94,8 baitira eta Estatuak kanpoan sektore horretan egindakoaren % 41,2, honako hauek nabarmentzen dira:

- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa EAEn inbertsioaren % 0,9 da eta Estatuak kanpoaldean eta sektore honetan egindakoaren % 20,1.
- Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa EAeko inbertsioaren % 0,7 da eta Estatuak sektore honetan egindakoaren % 2,5.
- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa EAEn inbertsioaren % 0,66 da eta Estatuak kanpoaldean eta sektore honetan egindakoaren % 26,6.

- Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura: EAEn inbertsioaren % 0,6 eta Estatuak kanpoaldean sektore honetan egindakoaren % 1,3.
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 0,6 da, eta Estatuak kanpoan eta sektore honetan egindakoaren % 6,4.
- Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa EAEk kanpoan egindako inbertsioaren % 0,6 da, eta Estatuak kanpoan eta sektore honetan egindakoaren % 98,4.

Herialdearen arabera, EAEn kanpoko inbertsioaren helmuga nagusia 2011. urtean Turkia izan da (EAEk atzerrian egindako inbertsioaren % 86,2, 4.161.440,23 mila euro). Hori, ia osorik, BBVAk Garanti Bank bankuaren % 25a erosi izanari dagokio.

Inbertsio hori alde batera utzita, herrialde nagusiak honako hauek dira: Portugal (151.111,9 mila euro), Hungaria (39.663,7 mila euro), Mexiko (33.107,5 mila euro) eta Grezia (30.277,5 mila euro).

# 3. Prezioak, kostuak eta errentak

## 3.1. Kontsumo ondasun eta zerbitzuen prezioak


2011n, prezioek beheranzko joera izan zuten (urte arteko datuei dagokienez). Joera hori nabarmenagoa izan zen ekitaldiaren azken zatian, neurri handi batean energiaren prezioen gorakada erlatibo txikiagoari esker. Hala ere, urteko batez bestekoa (%3,1) 2010ekoa baino askoz txikiagoa da (%1,7), urte hasieran egondako gorakada handiaren ondorioz. Zehazki, inflazioak apirilean izan zuen baliorik handiena, %3,7, eta harrezkero urte arteko tasak etengabe egin zuen behera (irailean denbora labur batean gora egin zuen arrear), abenduan %2,4an geratu zen arte. Inflazioaren zuzenketa petrolioak nazioarteko merkatuetan duen prezioari oso lotuta dago. Izan ere, bere kotizazioa apirilko 123\$-etatik abenduko 108\$-etara jaitsi zen (Brent upelaren prezioa). Horrekin batera nabarmendu behar da barneko kontsumoak (publikoak eta familienak) 2011ko azken hilabeteetan izan duen beherakadak hazkunde erlatiboa moteltzen lagundu duela.

Gainera, kontsumo-prezioen jaitsiera nabarmenagoa izaten ari da euskal ekonomian eurogune osoan baino, eta horregatik, diferentziala gure Erkidegoaren aldekoa da. 2011ko abenduko urte arteko datuaren jaitsieran gehien eragin duten produktu-taldeak Edari alkoholdunak eta tabakoa eta Garraioa izan dira. Lehenengo taldeari dagokionez, urteko arteko %3,9ko tasa du, tabakoaren prezioek urte amaieran izan zuten egonkortasunagatik, aurreko ekitaldian izandako gorakaden aldean. Garraioaren taldeak, bere aldetik, bere urte arteko tasa %4,7an izan du, aurreko datua baino 2,1 puntu beherago, erregaien eta errekinen prezioek hazkunde txikiagoa izan dutelako. Beste muturrean, prezioek behera jarraitzen dute Medikuntzan (-%2,2), sendagai generikoen zabalkundeari esker, eta Komunikazioetan (-%1,6). Aldi berean, Jantziak eta oinetakoak eta Aisialdia eta kultura atalek urte arteko gorakada oso mugatuak izan dituzte (+%0,3 eta +%0,6 hurrenez hurren), eskari ahuleko egoera bati dagokion moduan.

Azkenik, Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren<sup>1</sup> (KPIH) Estatu osorako 2011ko abenduko datuek adierazi egiten dute %2,4ko hazkunde egon dela 2010eko abenduko datuaren aldean, aurreko urtean gertatutakoaren azpitik puntu erdia, eta eurogunerako erregistratu dena baino 3 hamarren gutxiago (haren indizeak gora egin zuen puntu erdia aurreko urteko abenduaren aldean). 27-EBren multzoak, aldiz, %3ko prezio hazkunde ezagutu zuen, 2010eko abenduan baino 3 hamarren gehiago.

2011n, Europako Batasuneko herrien artean, 2010ean inflazio-tasa neurritsuak izan arren azken urte honetan prezioen gorakada nabarmena izan duten herrien taldea

II.3.1. Grafikoa. Kontsumoko prezioen indizea: urte arteko aldakuntza tasak. EAE eta Estatuak.



Iturria: INE.

II.3.1. Koadroa. Kontsumoko prezioen indizearen banakapena: Batez besteko aldakuntza tasak eta ekarpenak.

	2007	2008	2009	2010	2011
Inflazio osoa (%100)	2,8	4,1	0,3	1,7	3,1
Azpiko inflazioa (%82,6)	2,8	3,2	1,1	0,7	1,8
Landutako elikagaien KPIa (%13,6)	4,0	6,6	1,2	0,7	3,8
Industriako ondasunen KPIa (%27,7)	0,7	0,6	-1,9	-0,2	0,7
Zerbitzuen KPIa (%41,3)	3,9	3,9	2,5	1,4	2,0
Hondar inflazioa (%17,4)	3,0	8,5	-3,6	6,6	9,5
Landu gabeko elikagaien KPIa (%6,9)	4,2	5,0	0,2	0,2	1,5
Energiaren KPIa (%10,5)	1,9	11,6	-7,3	11,5	15,3

Iturriak: INE eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ buletina.

bereizten da (besteak beste Zipre, Austria, Eslovakia); eta beste talde bat, berriz, bere inflazio mailak modu nabarmenean leundu dituena (Bulgaria, Grezia, Malta edo Espainia bera).

## 3.2. Kostuak

### a) Lan-kostuak

EAEko lan-kostuen adierazle batzuek zein besteek adierazten dutenez, azken urtean motelaldia egon da, Estatuan eta EB osoan bezala:

<sup>1</sup> Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeenoa hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar). 2006an oinarriko urtea aldatu zen, 1996. urtetik 2005. urtera igaroz.



**II.3.2. Ko adroa. KPIH: urte arteko aldakuntza tasak. 2005eko oinarria**

	2009 Abe.	2010 Abe.	2011 Abe.
EB	1,5	2,7	3,0
BEM	0,9	2,2	2,7
Belgika	0,3	3,4	3,2
Bulgaria	1,6	4,4	2,0
Txekiar Errep.	0,5	2,3	2,8
Dinamarka	1,2	2,8	2,4
Alemania	0,8	1,9	2,3
Estonia	-1,9	5,4	4,1
Irlanda	-2,6	-0,2	1,7*
Grezia	2,6	5,2	2,2
Espainia	0,9	2,9	2,4
Frantzia	1,0	2,0	2,7
Italia	1,1	2,1	3,7
Zipre	1,6	1,9	4,2
Letonia	-1,4	2,4	3,9
Lituania	1,2	3,6	3,5
Luxenburgo	2,5	3,1	3,4
Hungaria	5,4	4,6	4,1
Malta	-0,4	4,0	1,3
Holanda	0,7	1,8	2,5
Austria	1,1	2,2	3,4
Polonia	3,8	2,9	4,5
Portugal	-0,1	2,4	3,5
Errumania	4,7	7,9	3,2
Eslovenia	2,1	2,2	2,1
Eslovakia	0,0	1,3	4,6
Finlandia	1,8	2,8	2,6
Suedia	2,8	2,1	0,4
Erresuma Batua	2,9	3,7	4,8*

Iturria: Eurostat.

\* Azaroko urte arteko datua.

- Adierazleetatik lehenengoa indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata hazkunderi buruzkoa da, eta berrikusitako soldata hazkundera erakusten dute<sup>2</sup>, %3,73koa 2011. urtean gure erkidegoan, 2010eko datua baino 1,9 puntu gehiago eta Estatuaren multzoan itundutakoak baino puntu bat gehiago, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren datuak gorabehera.
- Beste adierazle bat Soldatapekoek<sup>3</sup> lanpostuko eskuratzeko ordainsaria<sup>4</sup> da. EUSTATEN Kontu Ekonomikoetan eta INEren estatistikan oinarrituta kalkulatzen den adierazle horrek erakusten duenez, ordainsari hori gure Erkidegoan %2,2 igo zen 2009an, eta %2,8, berriz, 2010ean (behin-behineko datuak). Estatu osoan, aldiz, 2010ean ez zen igo, eta 2011n, berriz, %0,8 igo zen (Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren behin-behineko datuen arabera). Beste alde batetik, EUROSTATek EBrako eman dituen 2010eko datuek erakusten dutenez, lanpostuko ordainsariak 2009an behera egin zuen, eta 2010ean, berriz, gora. Zehazki, 27-EBn %3,2 igo da (-%15 2009an). Eurogunean, aldiz, %1,6 egin zuten gora (-%0,1 2009an).
- Lan-kostuen hirugarren adierazleak egoeraren arabera izaera du: Hiruhilekoko Lan Kostuaren Inkesta da<sup>5</sup>. Horrek, gainera, osagai ezberdinen arteko xehaketa egiteko aukera ematen du. Inkestako datuek adierazi egiten dute 2011. urterako, EAEn, langile bakoitzeko lan-kostuek %0,6 egin zutela gora (2010ean baino 8 hamarren gutxiago eta Estatuan baino 6 puntu gutxiago). Langile bakoitzeko urteko azken aldakuntza hori, azken bost urteetan egondako txikiena da. Jarduera-sektoreen arabera, kostuen aldakuntza txikiagoa da zerbitzuetan

**II.3.3. Koadroa. Kontsumoko prezioen indizea. EAE eta Estatu.**

	EAE						Estatu	
	Urteko batez bestekoa			Abendua (urte artekoa)			2010 Abe.	2011 Abe.
	2009	2010	2011	2009	2010	2011		
Indize orokorra	0,3	1,7	3,1	1,0	2,8	2,4	3,0	2,4
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	-0,1	-0,7	2,2	-1,3	0,4	2,5	0,7	2,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	8,4	10,6	9,7	12,1	14,6	3,9	15,2	4,2
Jantziak eta oinetakoak	-1,4	-0,1	0,3	-0,5	0,6	0,3	0,6	0,3
Etxebizitza	1,9	3,1	7,8	0,6	5,1	7,0	5,7	5,8
Etxeko tresneria eta zerbitzuak	1,8	0,9	1,5	1,0	1,3	1,3	1,0	1,1
Osasun zerbitz. eta zerbitzu medikoak	-0,2	-0,1	-0,6	-0,7	-0,4	-2,2	-1,2	-2,8
Garraioa	-5,3	6,5	7,7	3,8	8,9	4,7	9,2	4,9
Komunikazioak	-0,6	-0,7	-0,8	-0,3	-0,7	-1,6	-0,7	-1,6
Aisialdia eta kultura	0,3	-0,9	0,3	-0,7	0,3	0,6	-1,1	1,3
Irakaskuntza	4,2	2,2	1,3	2,2	2,3	1,3	2,3	2,8
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	2,4	1,7	1,7	1,8	2,1	1,1	1,7	1,2
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2,5	2,1	2,7	1,8	2,6	2,4	2,8	2,7

Iturria: INE.

<sup>2</sup> "Babes klausulagatik" soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata hazkundera eranstearren emaitza. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela, izan ere, batetik, azken urteotan batez besteko hazkundera horiek adostu dituzten hitzarmenek soldatapekoen % 50 inguru estaltzen dute eta, bestetik, "ohiko" ordainsari hazkundera helduz, hau da, ez dute aintzat hartzen ezohiko orduen ordainketaren eragina, ezta lan egindako ordu kopurua ere, eta soldatakoak ez diren beste kostu batzuk ere ez ditu hartzen.

<sup>3</sup> Langileek euren zerbitzuak emateagatik jasotzen duten ordainketa osoa. Barnea hartzen ditu ekoizleek beren behargin eta enplegatuei egiten dizkieten soldata eta ordainsarien ordainketa guztiak, eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak ere bai. Beste hainbat kontzepturen artean barnean hartzen ditu hobariak eta aparteko orduen, primen, gabonsarien, haborokinen eta kalte-ordainen ordainketak.

<sup>4</sup> Datu zuzena soldatapekoena izan beharko litzateke, baina EUSTATEN Hiruhileko kontabilitateak lanpostuen kopuru zehatza besterik ez du ematen, eta ez lanaldi osoko balioak. INEren informazioan oinarrituta Estaturako kalkulatutako datua da zuzena.

<sup>5</sup> Inkesta hau oinarri hartuta, Lan Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

**II.3.4. Koadroa. Lan-kostuaren adierazle makroekonomikoak**

	EAE <sup>1</sup>			Lanpostuko ordainsaria (Aldak. %)				Hitzarmenetako soldata-gehikuntzak <sup>4</sup>	
	Soldatapekoen ordainsaria (milioi €)	Lanpostuak	Lanpostuko ordainsaria (€)	EAE <sup>1</sup>	Estatua <sup>2</sup>	27-EB <sup>3</sup>	BEM <sup>3</sup>	EAE (aldak. %)	Estatua (aldak. %)
2006	29.779	987.058	30.169	4,3	4,0	3,1	2,5	4,74	3,59
2007	31.888	1.015.038	31.416	4,1	4,8	3,5	2,4	4,18	4,21
2008	33.727	1.018.153	33.126	5,4	5,3	0,8	3,2	4,81	3,60
2009	33.264	982.182	33.867	2,2	4,3	-1,5	-0,1	2,58	2,24
2010	33.896	973.204	34.829	2,8	0,0	3,2	1,6	1,83	2,14
2011*	:	:	:	:	0,8	:	:	3,73	2,73

Iturriak: (1) EUSTATEN Hiruhilekoko kontuak. (2) INEren kontabilitate Nazionala. (3) EUROSTAT. (4) Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa. (\*) Behin-behineko datuak.

**II.3.5. Koadroa. Lan-kostuaren indizearen bilakaera. EAE-Estatua konparazioa.**


	Kostua langile bakoitzeko (€ urteko)						Kostua ordu bakoitzeko (€ orduko)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK
2007	27.263	20.120	17.175	31.519	23.394	20.223	16,8	12,4	10,8	20,5	15,2	13,1
2008	28.685	21.153	18.383	33.323	24.780	21.493	17,7	13,0	11,3	21,7	16,1	14,0
2009	30.202	22.296	19.334	34.721	25.949	22.494	19,0	14,0	12,2	23,3	17,4	15,1
2010	30.324	22.503	19.386	35.215	26.476	22.973	19,1	14,2	12,5	23,4	17,6	15,3
2011	30.681	22.738	19.569	35.420	26.516	23.104	19,6	14,5	12,9	23,6	17,6	15,4
<b>Aldakuntzaren %a</b>												
2008	5,2	5,1	5,2	5,7	5,9	6,3	5,0	4,9	5,1	5,6	5,8	6,2
2009	5,3	5,4	5,2	4,2	4,7	4,7	7,7	7,8	7,5	7,5	8,0	8,0
2010	0,4	0,9	0,3	1,4	2,0	2,1	0,6	1,1	0,5	0,6	1,2	1,3
2011	1,2	1,0	0,9	0,6	0,2	0,6	2,2	2,1	2,0	0,7	0,2	0,6

KO: Kostu osoa; OKO: Ordainsarien Kostu Osoa; OOK: Ohiko Ordainsari Kostua\*.

Iturria: INEK egindako Hiruhilekoko Lan Kostuaren Inkestako datuekin egina.


(\*) Lan-kostu osoak (KO) lana ematen duenak lanaren faktorea erabiltzeagatik gain hartzen dituen kostu guztiak biltzen ditu, soldatokoak nahiz soldatetik kanpokoak. Ordainsari kostu osoak (OKO) oinarritzko soldata, osagarriak, ezohiko orduak, haborokinak eta gauzatan emandako ordainsaria hartzen ditu (kalte-ordainak eta dietak kanpo) eta kopuru osotan neurtzen da (atxikipenak edo Gizarte Segurantzari langileak egindako ordainketak baino lehen). Ordainsariaren Ohiko Kostuak (OOK) kanpoan uzten ditu ezohiko haborokinak (ezohiko ordainsariak, mozkinetan parte hartzea, primak, eta abar) eta atzeratutako ordainketak.

**II.3.2. Grafikoa. Lan-kostuen hazkundera sektoreen arabera EAEn. Kostua orduko €-tan**



Iturria: INEK egindako Hiruhilekoko Lan-Kostuaren Inkesta erabiliz egina.

**II.3.3. Grafikoa. Lan-kostuen bilakaera, lan egindako ordu bakoitzeko. EAB, Estatua eta EAE. urteko aldakuntza %tan**



Iturria: INEren eta EUROSTATen datuekin landutakoa.

(+%0,3). Industrian eta eraikuntzan, aldiz, batez bestekoaren gainetik igo dira, %1,6 eta %2,3 hurrenez hurren. Balio absolutuetan, 2011n langile bakoitzeko kostu osoaren batez bestekoa 35.420 €-koa da, Estatuko batez bestekoa baino %15,4 gehiago.

Bestalde, EAEn lan egindako ordu bakoitzeko guztizko kostuak %0,7 hazi ziren 2011n, 2010ean baino hamarren bat gehiago eta Estatuko batez bestekoa —%2,2— baino gutxiago. Sektoreka, industriari %0,5 behera egin zuten; zerbitzuak, aldiz, %1,2 igo ziren, eta eraikuntza %1,7.

Eurogunean, azkenik, lan-kostuak areagotu egin ziren 2010ean (informazioa dagoen azken urtea), %1,6 aurreko urteko %2,7aren aldean. Aldiz, 27-EBn %1,7 areagotu zen (2009an %2,5), EUROSTATen “Eskulanaren Kostuaren Indizearen” arabera.

### b) Produktibitatea


Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datzan kontzeptua da, eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da; aitzitik, kalkulua konplexua da, faktore erabakigarriak ugariak direlako (lan egiten duen biztanleriaren kualifikazioa, kapital ondasunen zuzkidura, baliabide hauen erabilera eraginkorra eta hura erakundeak, legezkoak, eta abarrekoak diren beste faktore batzuekin konbinatuta erabiltzea). Hori dela eta, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuaren bitartez hurbilketa egiten da, hura ikuspegi ezberdinen bitartez neurtua.

Lehenik eta behin, laneko itxurazko produktibitatea, BPGdaren bilakaeraren (2011. urtean %0,6 igo zen) eta enpleguarenaren —lanpostuetan neurtuta— arteko bilakaera gisa kalkulatu<sup>6</sup> (EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen arabera %0,7 murriztu zena azken urtean), %1,3 hazi zen kopuru errealean 2011n, hau da, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago<sup>7</sup>. EAE 2010-2011 aldian 2009ko jaitzieraren ostean laneko itxurazko produktibitatea egonkortzeko arrazoia honako honetan datza: eraikuntzaren produktibitatea suspertu egin zen, %2,7 igo baitzen aurreko ekitaldian izandako jaitzieraren (-%3,1) ostean. Zerbitzuen produktibitatea, aldiz, ia ez zen aldatu (+%0,1) eta industriarena ere igo zen (+%4), aurreko urtean baino gutxiago izan bazen ere.

EAEko produktibitate errealaren bilakaera hori Europar Batasun osoan (bai 27-EBn bai eurogunean, 2010eko emaitzak %2tik gorakoak izan ondoren, produktibitatea %1,1 eta %1,2 igo baitzen, hurrenez hurren) baino handiagoa izan zen, eta espainiar Estatuak, aldiz, tasa erreal askoz handiagoa lortu du, +%2,8, behin-behineko datuen arabera, urte honetan egon den enplegu galera handiaren ondorioz.

EAEk testuinguru europarrean duen kokaleku lehiakorra alderatzeko aintzat hartu dezakegun beste produktibitate

### II.3.4. Grafikoa. Lanaren produktibitate errealaren hazkundearen bilakaera EAEen. %.



Iturria: EUSTAT. CET.

adierazle bat laneko produktibitatea da, BPGdaren (erosketa ahalmenaren parekotasuna gorabehera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatu. Informazio erabilgarritasuna aintzat hartuta, alderaketak egiteko erraztasuna ageri du abantaila gisa, nahiz eta kasu honetan azterketa maila gorabehera egiten den eta ez bilakaera gorabehera. Ratio hori aintzat hartuta, ikus daiteke EAE EBk 2010. urtean zuen batez bestekoaren gainetik dagoela %30,9an (2009arekin alderatuta -%1,5), Irlandaren mailaren parean, eta Luxenburgok bakarrik gaintitzen du Batasunean (%171,6ko balioa dauka). Postu hori estatu espainiarrekoa baino askoz ere altuagoa da. Azken hori EBko batez bestekoaren %10,4 gainetik dago, Austria, Italia eta Erresuma Batua bezalako herrien antzeko mailetan.

Era berean, adierazle horrek erakusten du EAEren posizio erlatiboak EBren barruan hobera egin duela aurreko urtean aldean (1995-2003 denboraldiko batez bestekoari erreparatu gero, produktibitate erlatiboa EBren batez bestekoaren %125,7 zen), azken urtean puntu erdi jaitsi den arren.

### II.3.6. Koadroa. Laneko itxurazko produktibitatearen bilakaera EAEen

	Benetako produktibitatea (kateatutako bolumena)					Produktibitate nominala (prezio korranteak)				
	Guztira	Lehen sektore	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Lehen sektore	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	2,1	-0,9	3,7	0,8	1,4	5,4	1,8	5,2	4,9	5,0
2007	1,3	4,4	1,3	5,6	0,9	4,5	6,3	3,6	11,4	4,7
2008	0,9	-6,1	1,4	-0,9	1,1	1,9	-11,4	3,2	2,9	4,3
2009	-0,4	-2,2	-3,5	0,6	0,5	-1,9	-9,2	-10,5	-2,5	2,4
2010*	1,2	26,0	5,6	-3,1	-0,2	2,8	19,6	7,6	-3,0	0,2
2011*	1,3	-2,9	4,0	2,7	0,1	2,9	5,4	7,3	3,4	2,0

Iturria: EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak oinarri hartuta egindakoa.

(\*) Behin-behineko datuak.

<sup>6</sup> Lanaldi osoaren baliokide den lanpostu kopuru osoa izan beharko balitz ere, datu hau ez dago eskura.

<sup>7</sup> Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatu.

**II.3.7. Koadroa. Laneko produktibitatea langile, herrialde eta urte bakoitzeko (27-EB =100)**

	2008	2009	2010
27--EB	100,0	100,0	100,0
Alemania	106,5	104,5	105,1
Austria	114,1	111,5	115,4
Belgika	125,9	124,9	128,2
Bulgaria	37,2	37,2	41,5
Zipre	87,3	88,7	88,6
Dinamarka	101,1	100,6	109,2
Eslovakia	79,3	78,9	82,7
Eslovenia	84,8	82,0	81,1
Espainia	103,4	110,8	110,4
Estonia	64,0	64,4	69,2
Finlandia	112,0	107,1	113,4
Frantzia	121,4	102,5	115,1
Grezia	102,3	102,0	95,8
Holanda	114,7	110,9	113,7
Hungaria	71,3	70,2	70,1
Irlanda	130,3	135,2	136,7
Italia	109,5	109,7	108,5
Letonia	52,0	49,9	54,9
Lituania	62,2	55,8	63,3
Luxenburgo	175,9	167,9	171,6
Malta	88,0	88,0	91,2
Polonia	62,0	65,2	66,7
Portugal	73,6	73,9	77,3
Erresuma Batua	109,9	110,1	107,6
Txekiar Errep.	72,0	71,8	75,9
Errumania	50,2	47,1	47,5
Suedia	112,4	111,5	113,3
EAE	130,3	132,4	130,9
Estatu batuak	137,7	140,8	143,9
Japonia	95,1	92,9	96,3


Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

**c) Unitateko lan-kostuak**

Behin produktibitatearen eta lan-kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko Lan-Kostuak<sup>8</sup> (ULK) aztertuko ditugu. 2011rako behin-behineko datuek adierazten dute gure ekonomian, aurreko urtearen aldean, Unitateko Lan-Kostu (ULK) korranteak jaitsi direla (-%0,7, 2010eko +%0,2ren aldean). Murriztapenak izan dira industrian (-%2,4) eta gutxiago eraikuntzan (-%0,4). 2010ean, aldiz, industriak behera egin zuen, baina eraikuntzak ratio positiboan iraun zuen. Zerbitzuek, bestalde, ULK korranteen hazkundera eduki dute, %0,2koa, aurreko urtean %1,6ko hazkundera izan zuten bitartean.

Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatzen direnak, areagotu egin ziren 2011. urtean %1,2 (27-EB) eta igo egin dira proportzio berdinean eurogunean (%1,1 aurreko urtean), aurreko urtean egon ziren +%0,6ko eta -%0,7ko aldakuntzen aldean. ULK errealek aintzat hartuz gero, 2011ko datuak negatiboak dira Batasunaren multzoarentzat (-%0,4) nahiz eurogunearentzat (-%0,3).

**II.3.5. Grafikoa. Laneko produktibitate errealearen bilakaera EAEn, Estatuan eta Europar Batasunean**




Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin landutakoa.

**II.3.8. Koadroa. Unitateko lan-kostuak EAE-n: urteko aldakuntza**

	Lan-kostuen aldak.		Produktibitatearen aldak.		ULK korranteen aldak.		ULK errealeen aldak.	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Total	1,4	0,6	1,2	1,3	0,2	-0,7	-1,4	-2,3
Industria	2,3	1,6	5,6	4,0	-3,3	-2,4	-5,3	-5,7
Construcción	-0,3	2,3	-3,1	2,7	2,8	-0,4	2,7	-1,1
Servicios	1,4	0,3	-0,2	0,1	1,6	0,2	1,8	0,1

Iturria: EUSTATen eta INEren datuekin landutakoa.

**II.3.6. Grafikoa. Unitateko lan-kostu errealek: Soldatapekoen ordainsariaren bidez kalkulatutako urteko aldakuntza**



Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin landutakoa..

<sup>8</sup> Unitateko Laneko Kostu (ULK) korrantea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa. ULK *realea* zatidura berdín hori da, nahiz eta deflatoarea aplikatzearen bitartez "prezioen eragina" ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle hauen urteko aldakuntza da, Estatu eta Europako batez bestekoen aldean.

Bitartean, Estatuan, 2010ean %3ko aldakuntza negatiboa egon da, eta -%3,2koa 2011n, behin-behineko datuekin. Datu errealak aintzat hartuz gero, ratioak -%2,6 eta -%1,9 dira hurrenez hurren, 2010. eta 2011. urteetarako.

Emaitza hauek alderatzen baditugu ULK errealekin gure Erkidegoko soldatapekoen Ordainsaritik abiatuz, eta 2011rako daturik ez dagoen arren, 2008an ikusi zitekeen jada balio positiboko joera aldaketa (+%3,5), eta %3,8 2009an, grafikoan ikusten den bezala. Hala ere, 2010ean, behin-behineko datuekin, adierazle horrek nabarmen egin du behera, %0ra arte.

### 3.3. Errentak


#### a) Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sortutako balio erantsia banatu egiten da hasiera batean hura soldatapeko lanaren ordainsari

gisa, soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren Ustiapenaren soberakin oso gisa, urte osoan zeharreko produktibitate taldearen balio galeraren balioagatiko Kapital Finkoko Kontsumo gisa eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari dagozkion zerga gisa —Administrazio Publikoari dagozkionak— sortzen lagundu duten faktore produktiboen artean. Bigarren maila batean, errenta hori banatu egiten da pertsona eta familia ezberdinen artean, faktore produktibo hauetako partaidetza eta eskuratutako errenta ezberdinak gorabehera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, 2010eko %1,9ko prezio korranteetako BPGdaren igoera erreferentzia hartuta (behin-behineko datuak), ikusten da zerga garbiak %13,3 igo zirela, eta soldatapekoen errenta, ordea, %1,9. Kapital finkoko kontsumoa, aldiz, %6 igo zen, eta ustiapeneko soberakin garbia %2,7 jaitsi zen.

#### II.3.7. Grafikoa. Eragileen errenten ehuneko banaketaren bilakaera EAEn



Iturria: EUSTAT: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

#### II.3.9. Koadroa. Errentaren banaketa EAEn, Estatuan eta Eurogunean

	Euroak, milioika				% bertikala			% urteko aldakuntza		
	2007	2008	2009	2010P	2008	2009	2010	07/08	08/09	09/10
<b>EAE</b>										
1. Soldatapekoen ordainsaria	31.888	33.727	33.264	33.896	49,7	51,8	51,8	5,8	-1,4	1,9
2. Ustiapenaren soberakin garbia	21.354	21.960	19.544	19.014	32,3	30,4	29,1	2,8	-11,0	-2,7
3. Kapital finkoaren kontsumoa	5.943	6.103	5.862	6.214	9,0	9,1	9,5	2,7	-3,9	6,0
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	7.243	6.135	5.554	6.294	9,0	8,6	9,6	-15,3	-9,5	13,3
BPGd merkatuko prezioak	66.427	67.925	64.225	65.419	100	100,0	100,0	2,3	-5,4	1,9
<b>Estatura</b>										
1. Soldatapekoen ordainsaria	504.148	533.622	519.955	506.791	49,1	49,6	48,2	5,8	-2,6	-2,5
2. + 3. Ustiapeneko soberakin osoa / Errenta misto osoa*	441.171	462.622	450.788	451.868	42,5	43,0	43,0	4,9	-2,6	0,2
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	107.842	92.013	77.088	92.683	8,5	7,4	8,8	-14,7	-16,2	20,2
BPGd merkatuko prezioak	1.053.161	1.087.749	1.047.831	1.051.342	100,0	100,0	100,0	3,3	-3,7	0,3
<b>Eurogunea</b>										
1. Soldatapekoen ordainsaria	4.229.936	4.428.064	4.435.218	4.484.068	48,3	49,7	49,0	4,7	0,2	1,1
2. + 3. Ustiapeneko soberakin osoa / Errenta misto osoa*	3.624.047	3.702.513	3.504.740	3.642.984	40,4	39,3	39,8	2,2	-5,3	3,9
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	1.089.229	1.032.919	976.280	1.019.570	11,3	10,9	11,1	-5,2	-5,5	4,4
BPGd merkatuko prezioak	8.943.212	9.163.496	8.916.238	9.146.622	100,0	100,0	100,0	2,5	-2,7	2,6

Iturria: Eustat "Kontu ekonomikoak (2000ko oinarria)", INE "Espainiako Kontabilitate Nazionala. 2000ko oinarria" eta Eurostat.


\* Ustiapeneko soberakin gordina edo Errenta Misto Gordina suma del Soberakin garbiaren eta Kapital finkoaren kontsumoaren arteko batura da. EAEn kasurako, EUSTATEk aldagai biak ematen ditu -EUROSTATEk eta INEk, aldiz, ez- eurogunerako eta Estaturako.

Bilakaera hori kusita, soldatapeko laneko errentak 2010ean BPGdaren %51,8 dira, aurreko urtearen proportzio berdina. Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %29,1 da (BPGdaren gaineko pisua 1,3 puntu galdu du) eta kapital finkoaren kontsumoa %9,5, aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago. Horrela, Ustiapeneko soberakin gordina, magnitude bi horien batura, BPGdaren %38,6 da. Ekoizpenari eta inportazioari jarritako zergen kasuan, ken produkzio sektoreei emandako diru-laguntzak, gehitu egiten da BPGdan duen proportzioa eta %9,6ra iristen da, aurreko urtean baino %1 gehiago.

Errenten bilakaera hau Estatukoek edukitakoarekin alderatuz gero, ikus dezakegu 2010. urtean soldaten errentak %2,5 murriztu direla gure Erkidegoan. Aldiz, ustiapenaren soberakinaren eta errenta mistoaren arteko batura EAEn %0,7 murriztu da, Estatuko kopuruaren +%0,2aren aldean. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokienez, BPGdaren gaineko proportzioak ezberdinak dira (%9,6 EAEn eta %8,8 Estatuan). Hala ere, 2009ko kopuruekiko bilakaera norabide berdinean doa: EAEn %13,3 igo ziren eta Estatuaren multzoan igoera handiagoa izan dute: %20,2. Aurreko bi urteetan, aldiz, EAEn zein Estatuan, modu nabarmenean jaitsi ziren.

Eurogunean, azterketaren xede diren faktoreek bilakaera diferentea jasan dute EAEn eta Estatuaren aldean eta, gainera, BPGdaren aldakuntza nominala handiagoa da, %2,6 (aurreko urtean -%2,7). Soldatapekoen ordainsaria %1,1 igo zen. Ustiapenaren soberakin garbia edo errenta misto garbia, aldiz, %3,9. Bestalde, zerga garbiak EAEn eta Estatuan baino proportzio txikiagoan igo ziren, %4,4.

II.3.8. Grafikoa. Per capita BPGdaren bilakaera (EAP). 27-EB=100.



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

**b) Per capita errenta**

Lehenik eta behin, INEk urtero egiten duen "Espainiako Lurralde Kontabilitateak" erakusten du autonomi erkidegoan eta probintzietan familien errentaren kontuak zeintzuk diren, bai termino erantsietan bai per capita. Horrela, dauzkagun azken datuen arabera (2009koak) EAEko familien errenta gordin erabilgarria, 43.582 milioi

II.3.10. Koadroa. Familien errenta erabilgarri gordina, per capita. Eurotan. 2008ko oinarri berria.

	2008 (P)		2009 (P)		
	Balioa (€)	Espainiako indizea = 100	Balioa (€)	Espainiako indizea = 100	Aldakuntza tasa 2008-09
Andaluzia	12.566	81,3	12.644	81,6	0,6
Aragoi	17.295	111,9	17.269	111,5	-0,2
Asturias	16.164	104,6	15.827	102,2	-2,1
Balearrak	16.018	103,6	15.835	102,2	-1,1
Kanariak	12.974	83,9	12.783	82,5	-1,5
Kantabria	16.027	103,7	15.896	102,6	-0,8
Gaztela eta Leon	15.705	101,6	15.601	100,7	-0,7
Gaztela-Mantxa	12.943	83,7	12.942	83,6	0,0
Katalunia	17.411	112,6	17.661	114,0	1,4
Valentziako e.	14.094	91,2	13.795	89,1	-2,1
Extremadura	11.888	76,9	11.841	76,5	-0,4
Galizia	14.581	94,3	14.554	94,0	-0,2
Madril	18.206	117,8	18.643	120,4	2,4
Murtzia	13.027	84,3	12.882	83,2	-1,1
Nafarroa	19.570	126,6	19.503	125,9	-0,3
<b>EAE</b>	<b>20.569</b>	<b>133,1</b>	<b>20.416</b>	<b>131,8</b>	<b>-0,7</b>
Araba	21.805	141,1	21.567	139,2	-1,1
Gipuzkoa	19.958	129,1	19.896	128,5	-0,3
Bizkaia	21.026	136,0	20.756	134,0	-1,3
Errioxa	16.699	108,0	16.532	106,7	-1,0
Ceuta	14.982	96,9	15.053	97,2	0,5
Melilla	13.936	90,2	13.770	88,9	-1,2
Osoa	15.458	100,0	15.488	100,0	0,2

Iturria: INE. Espainiako Lurralde Kontabilitatea. 2008ko oinarria.

eurokoa dena, estatuko errenta erantsiaren %6,1 da. Gainera, aurreko urtekoa baino %0,9 txikiagoa da.

Halaber, EAEko familiak izan ziren biztanleko errenta gordin erabilgarri handiena eduki zutenak, 20.416 eurokoa, aurreko urtean baino %0,7 gutxiago, eta Estatuko batez bestekoa —15.488 eurokoa— baino %31,8 gehiago. Dena dela, Estatuko batez bestekoak gora egin du %0,2 azken urtean. Gure Erkidegoaren atzetik Nafarroa, Madril eta Katalunia daude, hurrenkera horretan bertan.

Lurreldekoa, errenta gordin erabilgarri handiena per capita Araba eta Bizkaiko familiei dagokie (Estatuko batez bestekoa baino %39 eta %34 gehiago, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, estatukoa baino %28,5 gehiagoko balioa dago, hirugarren postuan, Nafarroako Komunitatea baino apur bat gorago.

Beste alde batetik, EUROSTATEk, per capita BPGdari buruz (PCB) eta erosketa ahalmenari buruz dauzkan estatistiken bidez, EAEk Europar Batasunaren batez bestekoaren barruan eta EBko herrialde eta eskualdeen artean daukan posizio erlatiboa ezagutzeko bidea ematen du.

Gauzak horrela, 2010ean, eta EBko batez bestekoa erreferentzia gisa hartuta, EAEk %133ko per capita BPGda du. Horrek esan nahi du jarraikako 13 urtez hazkundea izan eta gero bigarren erorikoa gertatu dela (bi puntu 2009arekin alderatuta), 1995. urtean izandako %109,6ko baliotik EBren batez bestekoaren aldean. 2010ean lortutako balioarekin, EAE bigarren postuan egongo litzateke Batasunean, Luxenburgoren atzetik, eta Holandarekin berdinduta.

### II.3.11. Koadroa. Per capita BPGD (PCB) herrialdea eta urtea gorabehera (27-EB=100)

	2008	2009	2010
27-EB	100	100	100
Alemania	116	115	118
Austria	124	125	126
Belgika	115	117	119
Bulgaria	43	44	44
Zipre	97	98	97
Dinamarka	123	121	125
Eslovakia	73	73	74
Eslovenia	91	88	86
<b>Espainia</b>	<b>103</b>	<b>103</b>	<b>101</b>
Estonia	69	64	64
Finlandia	119	114	116
Frantzia	106	107	107
Grezia	94	94	89
Holanda	133	131	133
Hungaria	64	64	63
Irlanda	133	128	127
Italia	104	104	100
Letonia	56	52	52
Lituania	61	55	58
Luxenburgo	278	267	274
Malta	78	81	83
Polonia	56	61	62
Portugal	78	80	81
Erresuma Batua	115	113	114
Txekiar Errep.	84	84	82
Errumania	47	46	45
Suedia	123	119	123
<b>EAE</b>	<b>138</b>	<b>135</b>	<b>133</b>

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.

# 4. Sektorre publikoa

Nabarmendu nahi dugu bi urtetan zehar behera egin ondoren 2010ean diru sarrera publikoak bere onera etorri baziren ere, 2011n berriro ere murriztu direla.

Zuzeneko zergen bilketaren hazkundeak ezin izan ditu zeharkako zergen eta finantza sarrerren murrizketak berdindu. Ondorioz, Euskal Sektorre Publikoaren BPGd-aren gaineko diru sarrerak 1,09 portzentaje puntu jaitsi dira: 2010eko %23,65etik %22,56ra (behin-behineko datuak).

Euskal Sektorre Publikoaren guztizko gastua, bere aldetik, %1,1 jaitsi da, aurreko urteko  $-3,3$ ren aurrean. Hortaz, magnitude honek EAEko BPGd-aren gain ordezkatzeko duen ehunekoak 0,77 puntuko beherakada izan du, %23,30etik %22,53ra igaroz. Gastuak bilakaera negatiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan ( $-1,5$ ) baita foru aldundietan ere ( $-3,4$ ). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar gutxiago dauka ( $-1,1$ ), izan ere, diru partidetakoz batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako).

Diru sarrerren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezte publikoak gora egin du %81,4 (BPGd-aren %0,92), defizit publikoa (finantzaketa beharra) %52,7 murrizten den bitartean (2010ean BPGd-aren %2,7 izatetik %1,24 izatera 2011n). Hala eta guztiz ere, ratio honek gora egiten du BPGd-aren %2,52 arte (%2,45 2010ean) EAEko

Ekonomia eta Finantza Berrerekarako 2012-2014 Planean jasotako defizitari buruzko datua kontuan hartzen badugu. Izan ere, honek EAEko Administrazio Orokorrari dagozkion kopuruez gain, bere organismo autonomoei eta LANBIDE eta OSAKIDETZari, dagozkienak ere kontuan hartzen baititu.

Bere aldetik, EAEko sektorre publikoaren zorpetze garbiak (tokiko erakundeak kontuan hartu gabe) gora egin du berriro ere, baina 2009 eta 2010ean baino motelago. 7.648 milioi eurokoa da zor bizia urte amaieran (+%17,8).

## 4.1. Sarrerak

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu betearazpenari buruzko estatistika"ko datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek batera likidatutako guztizko sarrerak (15.093 milioi euro) %2,5eko beherakada izan dute 2011n, aurreko urteko %7,2ko hazkundearen aurrean, zerga bilketaren hazkundeak ezin izan baititu zeharkako zergen ( $-3,4$ ) eta finantza sarrerren ( $-41$ ) erorketak beretzat hartu. Zehatz-mehatz, ezin izan du bereganatu finantza pasiboen erorketa (zorraren jaulkipena), %44,2 murriztu dena aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero.

Hala ere, jaitsiera ez da berdina izan administrazio guztietan: Eusko Jaurlaritzaren kasuan %7,2koa izan zen, foru aldundietan txikiagoa izan zen bitartean, %0,5.


Ondorioz, baieztatu daiteke Euskal Sektorre Publikoaren erkidegoko BPGd-aren gaineko diru sarrerak 1,09 portzentaje puntu jaitsi direla: 2010eko %23,65etik %22,56ra (behin-behineko datuak).

Ratio hau txikiagoa da Eusko Jaurlaritzari dagokionez, %16,01etik %14,53ra igaroz. Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, diru sarrerren beherakada handiagoa izan da aldundietan, BPGd-aren gaineko diru sarrerak %20,66tik %20,12ra pasatu baitira.

Itundutako Zergen araberako diru bilketari dagokionez, horiek eratzeko baitute diru sarrera zuzen eta zeharkakoen multzo handiena eta kopuru osoaren %90 baino gehiago, 2011rako emandako behin-behineko datuek %1,9ko beherakada erakutsi dute. Ratio hau 2010ean lortutako %8,4ko hazkundearen bestelakoa da. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailak uste du<sup>1</sup>, hala ere, "Rover kasu"tik eratorritako eragiketarako kenduko balira eta kopuruak modu homogeneoagoetan alderatuko balira, diru sarrerren aldakuntza onuragarriagoa izango litzatekeela.

Zuzeneko zergak aztertzen hasita, PFEZak hazkunde positiboa izan du berriro ere (%6,3), lan etekinaren, eta bereziki kuota diferentzialaren, gaineko atxikipenen bilakaerari esker. Lehenengoan kasuan, soldatapeko enpleguaren suntsiketa, langabezia prestazioen estaldura

II.4.1. Grafikoa. Euskal sektorre publikoaren magnitude nagusien bilakaera BPGD-ari dagokionez



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egindakoa.

<sup>1</sup> Sailaren balorazioa, "Koiunturaz" aldizkarian azaltzen dena, 2012ko hiruhilekoan. Esan nahi du euskal erakundeek administrazio zentralari 435 milioi euro itzuli behar dizkiotela, Rover-ek 1990 eta 2005. urtean inportatutako autoen BEZari dagozkionak, Auzitegi Gorenaren epaiaren arabera. Lehenengo ordainketa, 145 milioi eurokoa, 2011ko abenduan egin zen, eta gobernuak eta diputazioek ordainketak beren gain hartzen dute, Ekarpenen Legearen arabera diru-sarrerak eta fondoak banatzeko dagoen sistemaren arabera.



**II.4.1. Koadroa. Euskal sektore publikoaren diru sarrerren likidazioa. Euroak milaka**

	2010			2011			2010-11 ald. %		
	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP
Zuzeneko zergak	—	5.321.090	5.321.090	—	5.783.520	5.783.520	—	8,7	8,7
Zeharkako zergak	4.274	6.140.971	6.145.246	3.010	5.931.999	5.935.009	-29,6	-3,4	-3,4
Tasak eta beste sarrera batzuk	189.464	300.221	489.685	210.864	348.449	559.314	11,3	16,1	14,2
Transferentzia arruntak	8.090.883	1.098.148	758.305	8.024.908	788.024	816.810	-0,8	-28,2	7,7
Ondare sarrerak	83.868	12.073	95.941	197.261	19.422	216.683	135,2	60,9	125,9
Inbertsio Errealen besterentzea	713	660	1.374	1.064	2.736	3.800	49,2	314,5	176,6
Kapital transferentziak	196.146	111.388	218.396	272.617	150.023	336.700	39,0	34,7	54,2
Fin. Sarrerak ez direnak guztira	8.565.349	12.984.551	13.030.036	8.709.724	13.024.173	13.651.836	1,7	0,3	4,8
Finantza aktiboen aldakuntza	17.485	39.508	56.993	49.078	60.844	109.923	180,7	54,0	92,9
Finantza pasiboen ald. (zorra)	1.893.000	494.048	2.387.048	960.077	371.600	1.331.677	-49,3	-24,8	-44,2
Fin.Sarrerak guztira	1.910.485	533.557	2.444.042	1.009.155	432.444	1.441.600	-47,2	-19,0	-41,0
Sarrerak guztira	10.475.834	13.518.108	15.474.078	9.718.881	13.456.618	15.093.435	-7,2	-0,5	-2,5
Sarrera/BPGd %	16,01	20,66	23,65	14,53	20,12	22,56			

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontu betearazpenari buruzko estatistika.


maila txikiagoa eta langile publikoen ordainsarien murrizketa orekatzen ditu atxikipen beharreko soldata masa gordinaren hazkunde handiagoak. Sartu beharreko kuota, bere aldetik, %17,7 igo da, etxebizitza eskuratzeagatiko kenkariaren murrizketaren ondorioz likidazio oinarria hazi delako.

Bestalde, sozietateen gaineko zergak hazkunde garrantzitsua izan du (%17,5), pasa den urtean ez bezala. Hala eta guztiz ere, zerga honen ondorioz bildutako kopurua 2009koa baino txikiagoa da. Jarduera ekonomikoaren hazkondeak eta enpresek burututako kostu doikuntzek aukera eman diete emaitza kontuak hobetzeko.

Kontrara, zeharkako zergen bilakaera oso negatiboa izan da (-%11,7), batez ere, BEZa jaitsi delako (-%9,3). Zerga honi kalte egin diote 2010ean zehar azken gastuak izan zuen etengabeko hobekuntzaren etendurak eta aipatutako Rover kasuak. Bere osagai guztiek behera egiteko joera daukate. Balio negatiboak dituztenak kontsumo publikoa eta etxebizitza berrien erosketa izan arren, kontsumo pribatuaren tasak positiboak dira oraindik.

Azkenik, BEZarekin gertatu den bezala, zerga berezien beharreko kontsumo nagusien beherakada areagotzen da 2011n. Hauek guztiek euren bilketa murrizten dute, 2010 urtearekin alderatuz gero.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.481 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPGd arruntaren %17,2 izan da 2011. urtean (2010ean %17,9). Bildutako diruaren %37,6

**II.4.2. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien sarrerren bilakaera BPGd-ari dagokionez (%)**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATEN datuetan oinarrituta egindakoa.

PFEZari dagokio, %35,7 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatiko eta aduanengatiko doikuntza), %10,1 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, %16,6, zenbait zerga bereziri.

**II.4.2. Koadroa. Foru Aldundiak: itundutako zuzeneko eta zeharkako zergengatiko diru sarrerren likidazioa. (Euroak milaka)**

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		FA GUZTIRA	
	Zuzen.	Zehar.	Zuzen.	Zehar.	Zuzen.	Zehar.	Zuzen.	Zehar.
2007	1.056.881	1.142.798	3.619.667	3.525.649	2.041.773	2.288.435	6.718.320	6.956.882
2008	1.003.539	1.019.438	3.523.884	3.077.113	2.073.757	2.022.779	6.601.180	6.119.330
2009	859.496	878.854	2.891.913	2.665.840	1.641.350	1.753.711	5.392.759	5.298.405
2010	855.962	1.048.586	2.823.317	3.213.485	1.579.155	2.069.443	5.258.435	6.331.514
2011	867.029	952.926	3.103.477	2.882.984	1.673.654	1.890.671	5.644.160	5.726.581
09/10 %	-0,4	19,3	-2,4	20,5	-3,8	18,0	-2,5	19,5
10/11 %	1,3	-9,1	9,9	-10,3	6,0	-8,6	7,3	-9,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin egindakoa.

Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2009rako gastu fiskala<sup>2</sup> —urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea—, (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengariak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 6.689.3 milioi eurotara iristen

dira, aurreko urtean baino %5,2 gehiago, hau da, sarrera teorikoen %33,6 (aurrekontuan sartutako sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen %47,5 (3.177.4 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie.

Ekitaldi honetan berebiziko garrantzia du 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen Ondarearen gaineko Zergaren karga ezabatzeak. Horren ondorioz, gastu fiskalen aurrekontutik desagertzen da hau.

#### II.4.3. Koadroa. EAE-ko Foru Aldundietako zerga itunduetatik bildutakoa. (Euroak milaka)

	EAE 2010	2011				2011 aurrek. gn. %	2010-11 aldak. %
		AFA	BFA	GFA	EAE		
Zuzeneko zergak	5.258.435	867.029	3.103.477	1.673.654	5.644.160	102,6	7,3
P.F.E.Z.	4.065.868	694.277	2.233.937	1.393.012	4.321.226	101,6	6,3
Laneko atxik. eta jard. profesionalak	4.308.649	722.684	2.302.590	1.423.140	1.448.414	99,7	3,2
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak	224.646	30.599	115.910	71.335	217.844	93,1	-3,0
Higiezinen kapitalaren atxikipenak	82.630	10.799	47.3962	26.430	85.191	97,3	3,1
Ondare irabazien atxikipenak	18.250	1.361	6.166	7.253	14.780	78,2	-19,0
Profes. eta enpr. ordainketa zatituak	160.245	26.536	67.303	60.682	154.521	90,3	-3,6
Kuota diferentzial garbia	-728.881	-97.703	-305.994	-195.827	-599.524	83,3	17,7
Sozietateak	987.056	154.545	762.956	242.759	1.160.259	111,1	17,5
Ez egoileen errenta. Gn. Zerga	131.328	6.032	67.791	8.276	82.099	69,7	-37,5
Oinordetzak dohaintzak	70.541	11.052	37.228	28.864	77.145	94,9	9,4
Ondarea: zerga iraungia	3.641	1.123	1.566	743	3.432	121,8	-5,8
Zeharkako zergak	6.331.514	952.926	2.882.984	1.890.671	5.726.581	79,7	-9,6
BEZ	4.515.199	687.538	2.057.698	1.352.131	4.097.367	—	-9,3
Berezko kudeaketa	3.478.206	520.134	1.556.683	1.022.910	3.099.727	79,1	-10,9
Doikuntza	1.036.993	167.404	501.015	329.221	997.640	96,5	-3,8
OEZ	194.788	12.887	52.541	33.103	98.531	59,7	-49,4
EJDZ	80.945	8.200	30.596	19.679	58.475	62,9	-27,8
Garraioaren Z.B.	34.339	3.557	12.854	8.342	24.753	60,5	-27,9
FABRIKAZIOKO Z.B.	1.380.929	221.783	663.764	436.165	1.321.712	83,7	-4,3
Hidrokarburoen T.S.Z.	49.266	8.113	24.282	15.956	48.350	89,4	-1,9
Aseguruen primen Z.	76.048	10.846	41.242	25.295	77.383	95,3	1,8
Tasak eta bestelako sarrerak	110.058	11.000	66.754	32.417	110.172	100,8	0,1
Joko tasak	58.794	7.291	31.497	15.311	54.100	—	-8,0
Errekarguak, berandutzak eta zehapenak	51.264	3.709	35.3257	17.106	56.072	—	9,4
Zerga itunduak guztira	11.700.007	1.830.955	6.053.216	3.596.742	11.480.913	91,8	-1,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila.

#### II.4.4. Koadroa. Gastu fiskalak zerga itunduengatik. Euroak milaka

	2007	2008	2009				2008/09 Ald. %
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	
PFEZ	1.953.980	2.129.354	379.073	1.2953.443	816.670	2.491.186	17,0
Ondare z.	155.342	156.524	—	—	—	—	—
Sozietateen z.	587.201	632.112	104.117	271.656	193.644	569.416	-9,9
Zuzeneko zergak guztira	2.696.523	2.917.990	483.190	1.567.099	1.010.313	3.060.602	4,9
BEZ	2.981.758	3.067.810	555.011	1.639.103	1.088.031	3.282.144	7,0
OEZ-EJDZ	144.168	170.524	57.184	29.093	33.574	119.851	-29,7
Garraioen Z.B.	18.495	9.951	1.282	3.913	2.614	7.809	-21,5
Fabrikazioko Z.B.	184.243	172.635	32.898	97.158	64.493	194.550	12,7
Hidrokarburoen salm. Z.	4.877	4.305	194	2.891	383	3.468	-19,4
Aseguruen primen Z.	16.149	17.725	3.534	10.437	6.928	20.900	17,9
Zeharkako z. Guztira	3.349.690	3.442.951	650.103	1.782.595	1.196.024	3.628.722	5,4
Guztira	6.046.213	6.360.940	1.133.293	3.349.694	2.206.337	6.689.324	5,2

Iturria: Zerga koordinazioko organoan oinarrituta egindakoa.

<sup>2</sup> Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definizioerik ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreraren murrizpenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGaren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbideratzea da. Arruntak eta erabilienak zerga oinarriko murrizpenak eta kuotako kenkariak dira.

## 4.2. Gastuak

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, 15.071,5 milioi euroko gastua alegia (tokiko erakundeak kontuan hartu gabe), %1,1 jaitsi da 2011n, aurreko urteko -%3,3ren aurrean. Hortaz, magnitude honek EAEko BPGd-aren gain ordezkatzeko duen ehunekoak 0,77 puntuko beherakada izan du, %23,30etik %22,53ra igaroz.

Gastuak bilakaera negatiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (-%1,5) baita foru aldundietan ere (-%3,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar gutxiago dauka (-%1,1), izan ere, diru partidetakoz batzuk erakundearen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako). Ondorioz, gastu publikoaren ratioa gure erkidegoaren BPGd-aren gainean %20,54tik %19,40ra igaro da foru aldundietan eta %15,79tik %15,21era Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGd-ak EAEn 2011n izan duen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetak aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenengo eta behin, langileriaren gastuak %0,5 murriztu dira elkarren segidako bigarren urtean ere

(-%0,6 2010ean). Funtzionamendu gastuek, berriz, ez dute aldakuntza handirik izan. Bestalde, transferentzia arruntak hazi dira (+%2,3) Eusko Jaurlaritzan ere hazi direlako (+%4,4), izan ere, foru aldundietan %3,8 murriztu dira. Orobat, zorpetzearen ondoriozko gastuek hazkunde nabarmena izan dute, finantza gastuak (interesak) %70,9 igo direlako, finantza pasiboaren aldakuntza (zorraren amortizazioa) %72,9 hazi den bitartean. Tasa hauek oso handiak izan ziren jada aurreko ekitaldian, %79,5 eta %49,2 haziz, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzaren gastuan arreta jarritz, eskuragarri dauden azkenengo datuak 2011ko aurrekontuei dagozkie. Hauek erakusten dute %2,1eko igoera egon dela 2010eko aurrekontu likidazioari dagokionez. Halarik ere, 2009 urte erdira aldera gertatutako legegintzaldi aldaketak eragindako berrantolatetaz zaildu egiten du arlo batzuetako gastu kopuru handien bilakaeraren jarraipena egitea.


Bi sail nagusiak, gastu bolumenari jarraiki, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (kopuru osoaren %25,2) eta Osasun Saila (%32,3) dira oraindik. Lehenengoa %4,4 erori da eta bigarrena %3,8 2010eko kopuruen

### II.4.5. Koadroa. Euskal sektore publikoaren gastuen likidazioa. Euroak milaka

	2010			2011			2010-11 Ald. %		
	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP
Langileriaren gastuak	1.915.485	353.864	2.269.349	1.905.887	351.604	2.257.491	-0,5	-0,6	-0,5
Funtzionamendu gastuak	3.378.409	460.560	3.838.969	3.349.018	495.652	3.844.670	-0,9	7,6	0,1
Finantza gastuak (interesak)	81.413	47.327	128.739	151.705	68.332	220.037	86,3	44,4	70,9
Transferentzia arruntak	3.178.090	11.487.714	6.235.079	3.316.873	11.055.116	6.375.868	4,4	-3,8	2,3
Inbetsio errealak	433.462	556.584	990.047	444.612	414.453	859.065	2,6	-25,5	-13,2
Kapital transferentziak	1.101.892	306.126	1.318.881	730.069	278.918	923.046	-33,7	-8,9	-30,0
<b>FIN. GASTUAK EZ DIRENAK GUZTIRA</b>	<b>10.088.751</b>	<b>13.212.175</b>	<b>14.781.063</b>	<b>9.898.164</b>	<b>12.664.075</b>	<b>14.480.177</b>	<b>-1,9</b>	<b>-4,1</b>	<b>-2,0</b>
Aldakuntza Finan. aktiboak	115.155	115.405	230.560	105.551	82.520	188.071	-8,3	-28,5	-18,4
Finantza pasib. ald. (zor amort.)	123.650	109.551	233.201	169.483	233.800	403.283	37,1	113,4	72,9
<b>FINANTZA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>238.805</b>	<b>224.956</b>	<b>463.761</b>	<b>275.034</b>	<b>316.320</b>	<b>591.354</b>	<b>15,2</b>	<b>40,6</b>	<b>27,5</b>
<b>GUZTIZKO GASTUA</b>	<b>10.327.556</b>	<b>13.437.131</b>	<b>15.244.824</b>	<b>10.173.197</b>	<b>12.980.396</b>	<b>15.071.530</b>	<b>-1,5</b>	<b>-3,4</b>	<b>-1,1</b>
<b>LIKID. GASTUA/BPGd %</b>	<b>15,79</b>	<b>20,54</b>	<b>23,30</b>	<b>15,21</b>	<b>19,40</b>	<b>22,53</b>			

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

### II.4.3. Grafikoa. EAE-ko gastu publikoaren bilakaera BPGD-ari dagokionez



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egindakoa.

#### II.4.6. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera sailaren arabera. 2010 Arteko likidazioak eta 2011rako aurrekontuak. Euroak milaka

	Euroak milaka				2011 Banak. %	Ald. %		
	2008	2009	2010	Aurrek. 2011		08/09	09/10	10/11
Legebiltzarra	30.514	31.745	30.789	30.198	0,3	4,0	-3,0	-1,9
Jaurlaritzako Lehendakaritza	29.427	29.757	41.409	72.739	0,7	1,1	39,2	75,7
Lehendakariordetza	23.562	7.022				-70,2		
Ogasuna eta Herri Administrazioa	196.448	135.283				-31,1		
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	567.700	223.749				-60,6		
Herrizaingoa	669.641	710.297	689.285	703.997	6,7	6,1	-3,0	2,1
Industria, Berrikuntza, Merkat. eta Turismoa	398.206	406.699	436.154	396.096	3,8	2,1	7,2	-9,2
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	280.332	38.625	—	—	—	-86,2	—	—
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	2.589.172	2.824.094	2.783.639	2.660.844	25,2	9,1	-1,4	-4,4
Osasuna eta Kontsumoa	3.240.668	3.508.917	3.542.339	3.406.693	32,3	8,3	1,0	-3,8
Kultura	275.734	299.607	297.384	285.295	2,7	8,7	-0,7	-4,1
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	105.638	34.301				-67,5		
Garraioak eta Herri Lanak	312.373	137.483				-56,0		
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	177.817	54.264				-69,5		
<b>Ekonomia eta Ogasuna*</b>		31.268	58.769	51.951	0,5		88,0	-11,6
Justizia eta Herri Administrazioa*		230.271	292.767	291.888	2,8		27,1	-0,3
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak*		390.923	718.013	706.982	6,7		83,7	-1,5
Lana eta Gizarte Gaiak*		438.962	669.832	997.948	9,5		52,6	49,0
Ingurum., Lur. Antolak., Nek. eta Arrantza*		246.419	291.892	297.082	2,8		18,5	1,8
Plan Bereziak	1.428	273.060	103.579	—	—	—	-62,1	—
Lan Harremanen Kontseilua	2.545	2.622	2.510	2.459	0,0	3,0	-4,3	-2,0
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.792	1.846	1.766	1.729	0,0	3,0	-4,3	-2,1
Kooperatiben Kontseilu Gorena	972	1.001	968	938	0,0	3,0	-3,3	-3,1
Kontuen Euskal Epaitegia	7.045	7.461	7.695	7.490	0,1	5,9	3,1	-2,7
Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.869	1.929	1.837	1.579	0,0	3,2	-4,8	-14,0
Zor Publikoa	191.146	83.647	197.987	325.652	3,1	-56,2	136,7	64,5
Erakundeen baliabide eta konpromisoak	208.412	153.255	158.952	152.840	1,4	-26,5	3,7	-3,8
Zenbait sailen gastuak	4.861	—	—	173.090	1,6	—	—	—
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.317.300</b>	<b>10.304.507</b>	<b>10.327.556</b>	<b>10.549.489</b>	<b>100,0</b>	<b>10,6</b>	<b>0,2</b>	<b>2,1</b>
BPGdmp %	13,7	16,0	15,8	15,8				

Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAeko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.

(\*) 2009ko erdialdetik, legegintza aldaketak eragindako sailen berrantolaketa onorioz.

aldean. 2011rako aurrekontuetan sartu den gastu osoa 10.549 milioi eurokoa izan da, hain zuzen ere aurten gure erkidegoak edukitako BPGd-aren %15,8, behin-behineko datuen arabera.

### 4.3. Aurrekontu saldoa

2011n Euskal Sektore Publikoaren (Jaurlaritza gehi foru aldundiak) sarrera arruntak %3,9 igo direnez izaera bereko gastuak %1,8 jaitzi diren bitartean, %81,4 hazi da aurrezki gordina, hau da, 613,27 milioi euro guztira. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGd-aren %0,92 hartzen du (behin-behineko datuak).

Gainera, defizit publikoa erregistratu da (finantzaketa beharra), 828,34 milioi euro baino gehiagokoa (BPGd-aren %1,24), izan ere, finantzarioak ez diren gastuek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera berdineko sarrerak dituztenak gaintzen dituzte. Aurreko ekitaldian, defizita 1.751 milioi eurokoa izan zen, beraz, %52,7ko murriztapena egon da. Hala eta guztiz ere, BPGd-aren gaineko defizit ratioak gora egin du %2,52 (%2,45 2010ean) EAeko Ekonomia-eta Finantza-berronkarako 2012-2014 Planeko datua kontuan hartzen badugu, izan ere, honek EAeko Administrazio Orokorra, bere organismo autonomoen kopurua, LANBIDE eta OSAKIDETZA barne hartzen baititu.

2012-2014 eperako finkatutako aurrekontu oreka lortzera bideratutako irizpideei jarraiki Eusko Jaurlaritzak Ogasuna eta Herri Administrazioen Ministerioarentzat egindako dokumentu honen arabera, gure erkidegoak 1.687 milioi euroko defizita izan zuen 2011n, behin-behineko datuen arabera, 2010ean baino %4,9 gehiago.

Finantza aldagaia kontuan hartuta, eta batez ere zorpetzeari esker, 2011ko defizita aurrekontu superabit bilakatzen da (21,9 milioi euro, BPGd-aren %0,03), aurreko ekitaldiko 229 milioi euroak baino askoz gutxiago (-%90,4).

### 4.4. Sektore publikoaren zorpetzea


2011ko Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikak erakusten du, lehenengo eta behin, EAeko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia %46,3 murriztu dela aurten, bi urtetan zehar nabarmen hazi ondoren. Zorra (zorpetze gordina ken amortizazioa) 1.156 milioi euro igo da aurten. Hauetatik 1.018 Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainerako 138 milioiak foru aldundiei.

Ondorioz, ekitaldi amaieran Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 7.648 milioi euroko bolumena duen zorra aurkeztu dute, 2010ean baino %17,8 gehiago (urte horretan nabarmen hasi zen: %49,6). Kopuru hau BPGd-aren %11,4 da, behin-behineko datuen arabera (%9,9

**II.4.7. Koadroa. Euskal sektore publikoa: aurrekontu magnitude irmoak. Euroak milaka.**

	2010	2011	11/10 Ald. %
1.- Sarrera arruntak	12.810.266	13.311.335	3,9
2.- Gastu arruntak	12.472.136	12.698.066	1,8
2.1.- Langileen gastuak	2.283.487	2.257.491	-0,5
2.2.- Funtzionamendu gastuak	3.850.148	3.844.670	0,1
2.3.- Finantza gastuak	71.722	220.037	70,9
2.4.- Transferentzia arruntak	6.630.222	6.375.868	2,3
3.- Aurrezki gordina (1-2)	338.130	613.270	81,4
4.- Kapital sarrerak	219.770	340.500	54,9
5.- Kapital gastuak	2.308.927	1.782.110	-22,8
5.1.- Inbertsio errealak	1.000.546	859.056	-13,2
5.2.- Kapital transferentziak	1.334.134	923.046	-30,0
6.- Finantzaketa gaitasuna (+) / beharra (-) (3+4-5)	-1.751.027	-828.340	-52,7
7.- Finantza aktiboen aldakuntza garbia	-173.567	-78.148	-55,0
7.1.- Finantza aktiboen aldakuntza . Sarrerak	51.695	109.923	92,9
7.2.- Finantza aktiboen aldakuntza . Gastuak	434.275	188.071	-18,4
8.- Finantza pasiboen aldakuntza garbia	2.153.847	928.394	-56,9
8.1.- Finantza pasiboen aldakuntza . Sarrerak	1.765.000	1.331.677	-44,2
8.2.- Finantza pasiboen aldakuntza . Gastuak	156.297	403.283	72,9
9.- Aurrekontu superabita / defizita (6+7+8)	229.254	21.906	-90,4
9.1.- Ordaindu gabeko obligazioak	2.294.543	1.698.259	-20,4
9.2.- Kobratu gabeko eskubideak	2.022.907	1.683.914	87,8
10.- Aurrekontu superabita / defizita kutxari dagokionez	1.466.410	36.251	-97,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

**II.4.4. Grafikoa. Aurrezki eta superabit/defizit publikoaren bilakaera (finantzaketa gaitasuna/beharra) EAEn. BPGd-aren gaineko %.**

Iturria: Eusko JaurlaritzaREN datuekin egindakoa.

2010ean). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %75,8; %73,6 aurreko urtean).

Zorpetze gordinak %34,7ko jaitsiera izan du 2011n, 1.559 milioi eurotara helduz. Hauen artetik 1.187 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-%37,3 2010 urtearekin alderatuz gero) eta gainontzeko 371,6 milioiak foru aldundiei (-%24,8).

Beste alde batetik, EUSTATEN "Sektore Publikoaren aurrekontuko estatistika" (eskuragarri dagoen azken

informazioa 2009koa da) txostenari esker foru aldundi bakoitzaren eta udal bakoitzaren zorpetze kopurua ezagut dezakegu, baita EAEko Administrazio osoarena ere (Jaurlaritza + Aldundiak + udalak).


Foru aldundiei dagokienez, 2009an 354 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldiko 213,5 milioien aurrean). Hauen artetik 84 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 82 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 188ak Bizkaikoari. Horrez gain, 95,1 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino %2,6

**II.4.8. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien zorpetzearen bilakaera (euroak milaka)**

	Zorpetze gordina		Amortizazioa (2)	Zorpetze garbia		Zor bizia urte amaieran	
	(1)	Ald. %		(1)-(2)=(3)	Ald. %	Guztira	Ald. %
<b>Eusko Jaurlaritza</b>							
2008	200.000	—	176.869	23.131	-110,7	1.656.900	1,4
2009	1.411.000	605,5	61.150	1.349.850	5.735,7	3.006.750	81,5
2010	1.893.000	34,2	123.650	1.769.350	31,1	4.776.100	58,8
2011	1.187.310	-37,3	169.483	1.017.827	-42,5	5.793.927	21,3
<b>FORU ALDUNDIAK</b>							
2008	213.500	261,9	92.714	120.786	-1.226,0	1.073.199	12,7
2009	354.000	65,8	95.147	258.853	114,3	1.332.052	24,1
2010	494.048	39,6	109.551	384.497	48,5	1.716.549	28,9
2011	371.600	-24,8	233.800	137.800	-64,2	1.854.349	8,0

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoaren eta EUSTATen datuekin egindakoa.

**II.4.5. Grafikoa. EAE-ko administrazioen finantza zorra (euroak milaka).**



Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistika.

gehiago. Amortizatutako kopurutik %84,6 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, %5,8 Arabakoari eta gainerako %9,6 Gipuzkoako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia %24,1 igo da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko harremanean ere hala egin du: 2008an %1,58 izan zen eta 2009an %2,07.

EAEko udalei dagokionez, estatistika honek erakusten du 2009an 226,9 milioi euroko zorra jaulki zutela eta 84,4 amortizatu; horrekin, ekitaldiaren amaieran, ordaintzeke zegoen zorra 143 milioi hazi zen, 729 milioi euroraino.

Beste alde batetik, guztira, EAEko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak gehi aldundiak gehi udalek) 2009an (memoria ixterakoan eskuragarri zeuden azkenengo datuak) 4.678 milioi euroko zorra zeukaten. Diru zenbateko hori urte horretako BPGd arruntaren %7,3 da (2008an, %4,3). Ohartarazi nahi zaituztegu informazio hau zaharkitu dela, zorpetzea hazten jarraitu baitu 2009 eta 2010 urteetan zehar.

Portzentaje hori 90eko hamarkadan egoten zirenetatik oso urrun dago; orduan BPGd-aren %12 gainditzera iritsi zen. Guztizko zorraren %55,9 Eusko Jaurlaritzari dagokio, %19,9 Bizkaiko Foru Aldundiari, %4,7 Arabakoari eta

%3,8 Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gainerakoa, 729 milioi euro, EAEko udaletako finantza zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren %15,6 da (2008an %20).

**4.5. Erakundeen transferentziak**

EAEk bere jardura finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAeren eskumenen banaketaren barruan, zerga bilketa lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete, arrazoi desberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, foru aldundiak eta udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, foru aldundiak Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpunen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin foru aldundiak biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten aldundiak Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru sarreren %90 baino gehiago ekarpen hauetatik datoz). 2011n egindako ekarpenak 7.915 milioi eurokoak dira, 2010ean baino %0,8 gutxiago eta 2009an baino %12,7 gehiago.

2007-2011 denboraldiko berrikuntzen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Besteak beste ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala %70,44tik %70,04ra jaitsi zen, toki erakundearen partaidetza areagotzeko; foru aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundearen artean banatu

**II.4.9. Koadroa. Foru Aldundiek EAE-ko erakunde komunei egiten dizkieten ekarpenen bilakaera (euroak milaka)**

KONTZEPTUA	2007	2008	2009	2010	2011	09-10 ald. %	10-11 ald. %
EK. OROKORRA	8.460.069	7.754.813	6.847.227	7.774.246	7.314.810	13,5	-5,9
BERARIAZKO EK.	140.973	141.316	230.403	203.882	600.619	-11,5	194,6
GUZTIRA	8.601.042	7.896.129	7.077.630	7.978.128	7.915.428	12,7	-0,8
ARABAREN EK.	1.451.855	1.338.394	1.196.827	1.349.101	1.328.209	12,7	-1,5
BIZKAIAREN EK.	4.314.282	3.955.961	3.534.569	4.000.233	3.975.128	13,2	-0,6
GIPUZKOAREN EK.	2.834.903	2.601.775	2.346.234	2.628.793	2.612.091	12,0	-0,6
ARABAREN %	16,88	16,95	16,91	16,91	16,78		
BIZKAIAREN %	50,16	50,10	49,94	50,14	50,22		
GIPUZKOAREN %	32,96	32,95	33,15	32,95	33,00		

Iturria: Kupoaren eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta egindakoa. Ekonomia eta Ogasun Saila. Eusko Jaurlaritzak.

**II.4.10. Koadroa. Eusko Jaurlaritzak likidatutako diru sarrerak jatorriaren arabera. (Euroak milaka).**

	2007	2008	2009	2009 ban. %	07-08 ald. %	08-09 ald. %
<b>1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK</b>	<b>8.601.042</b>	<b>7.896.129</b>	<b>7.077.630</b>	<b>79,3</b>	<b>-8,2</b>	<b>-10,4</b>
Ekarpen orokorra	8.460.069	7.754.813	6.847.227	76,7	-8,3	-11,7
Berariazko ekarpenak	140.973	141.316	230.403	2,6	0,2	63,0
<b>2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU SARRERAK</b>	<b>134.277</b>	<b>171.008</b>	<b>132.176</b>	<b>1,5</b>	<b>27,4</b>	<b>-22,7</b>
Euskadiko erakundeen transferentziak	12.796	22.890	15.466	0,2	78,9	-32,4
Estatuaren transferentziak	25.526	34.981	45.605	0,5	37,0	30,4
Europar Batasunaren funtsak	95.955	113.137	71.105	0,8	17,9	-37,2
EGIF	17.838	13.320	7.041	0,1	-25,3	-47,1
EGEF	301	21.644	3.323	0,0	7.090,7	-84,6
NBBEF-Orientazioa	1.644	985	900	0,0	-40,1	-8,6
LGENF*	—	10.572	2.881	0,0	—	-72,7
NBEUF*	48.949	48.547	50.739	0,6	-0,8	4,5
ABFT	19.237	17.327	3.051	0,0	-9,9	-82,4
Kohesio funtsa	7.443	—	2.560	0,0	-100,0	—
Beste funts batzuk	543	742	610	0,0	36,6	-17,8
<b>3. BESTE BALIABIDE BATZUK</b>	<b>263.250</b>	<b>612.849</b>	<b>1.720.574</b>	<b>19,3</b>	<b>132,8</b>	<b>180,8</b>
Zor Publikoa	0	200.000	1.411.000	15,8	—	605,5
Zeharkako zergak	6.263	5.555	4.641	0,1	-11,3	-16,5
Ondare sarrerak	87.012	180.036	48.974	0,5	106,9	-72,8
Inbertsio errealen besterentzea	528	8.803	386	0,0	1.567,2	-95,6
Beste transferentzia batzuk	7.356	15.464	65.402	0,7	110,2	322,9
Finantza aktiboen aldakuntza	10.530	48.040	20.413	0,2	356,2	-57,5
Tasa eta prezio publikoak	151.561	154.951	169.758	1,9	2,2	9,6
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>8.998.569</b>	<b>8.679.986</b>	<b>8.930.380</b>	<b>100,0</b>	<b>-3,5</b>	<b>2,9</b>

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoan oinarrituta egindakoa.

(\*) 2007ko urtariletik aurrera LGENF (ekitaldi honetan partidarik gabe) eta NBEUF sortu ziren.

beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa %0,75 izatetik %1 izatera igaro zen.


Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daitezke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2002az geroztik, EBtik etorritako funtsen bolumen osoa nabarmen joan da murrizten, 2005ean izan ezik. 2009an, informazioa dagoen azken urtea, %37,2ko beherakada izan zuten, aurreko ekitaldian %17,9 hazi ondoren, eta guztira 71,1 milioi euro izan ziren.

Diru partida nagusia NBEUFI dagokio, 2007an LGENFekin (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) batera sortu zena. Nekazaritzara zuzendutako diru laguntzak kudeatzeko sortu zen. Honen bitartez 50,7 milioi euro jaso ziren 2009an, urte horretan jaso ziren

funts europarren %71,3. Bigarrenik, Europako Gizarte Funtsaren bitartez (lan merkatuan jarduteko sortu zen finantza tresna) 7 milioi euro jaso dira, guztizkoaren %9,8. Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2011. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 414,28 milioi eurokoa da. 2010. urtearen aldean %10,8 hazi da.


Azkenik, estatuari egiten zaizkion ordainketa hauek ez ezik, zenbait diru zenbateko jasotzen da. Jasotzen diren diru zenbateko horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik egiten dena. Doikuntza hori estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra

**II.4.6. Grafikoa. Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egindako ekarpenen bilakaera. Euroak milaka.**



Iturria: Kupoaren eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza..

**II.4.7. Grafikoa. BEZ-agatiko doikuntzaren bilakaera lurraldeka. Euroak milaka.**



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Zergak Koordinatzeko Erakundea.

**II.4.11. Koadroa. EAE-k Estatuari ordaindutako kupoaren bilakaera. Euroak milaka.**

	2008	2009	2010	2011	10/11 ald. %
Sartutako kupoa	1.696.399	852.597	492.567	513.742	4,3
Konpentsazioak*	-95.294	-108.302	-118.768	-99.460	-16,3
<b>ORDAIN. KUPOA</b>	<b>1.601.104</b>	<b>744.295</b>	<b>373.799</b>	<b>414.282</b>	<b>10,8</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila.

(\*) Finantza konpentsazioak Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziengatik.

dagoelako, zerga administrazioek zeinek bere lurraldean jarduten baitute, muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei, zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin-betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2009. urtean, informazioa dugun azken urtean, BEZagatiko doikuntza EAEn 768,9 milioi euro tara iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta %29,6 jaitsi zen. Diru partida honen barnean, aduanetan bildutakoagatiko doikuntzak guztizkoaren %56 ordezkatzen du eta gainerakoa, %44, aurreko operazioei dagokie. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.



# 5. Gizarte-ekonomiaren<sup>1</sup> kontuak EAE-n

Kontabilitate Nazionala bi zati handitan banatzen da: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, "hirugarren sektorea" esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionaleko sistemekin bat etorritik.

Gauzak horrela, Kooperatiba-sozietateek eta Lan-sozietateek eta mutualitateek osatzen dute merkatuko edo enpresako Gizarte-ekonomia. Bestalde, merkatukoa ez den gizarte-ekonomia batez ere elkarrekin eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalan ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomiko ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.


EAEn, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuak arabera, 2007-2008 bi urtekoari dagozkionak, gizarte-ekonomia guztira 2.203 enpresak osatzen dute, EAEn 2.986 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 62.615 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,3) eta 2.928 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren % 4,3)<sup>2</sup>.

2007-2008 biurtekoan sektoreko enplegua suntsitu eta establezimenduak itxi ziren; Estatistika hau abian jarri zenetik hori gertatzen den bigarren aldia da (aurrekoa 2003-2004 biurtekoan izan zen). Hain zuzen, 2008an argi geratu zen EAEko Gizarte-ekonomiaren ekoizpen-ehundurak 2006ra arte izandako hazkundea eten egin zela. Alde batetik, enpleguak % 1,4 egin zuen behera 2006ko datuekin alderatuta (aurreko biurtekoan enplegu tasak % 3,8ko hazkundea izan zuen) eta itxitako establezimenduen tasa garbia % 3,6koa izan zen (2004 eta 2006 artean % 2,1).

Epe luzera begiratu gero, esan beharra dago 1996 eta 2002. urteen bitartean Gizarte-ekonomia euskal ekonomia baino dinamikoagoa izan zela enplegu-sorrera garbiari dagokionez (% +40,4 Gizarte-ekonomian eta ekonomia orokorrean % 24 batez beste), baina 2002 eta 2008

artean joera kontrakoa izan zela: Gizarte-ekonomiak sortutako enplegua % 2,6 izan zen eta ekonomia orokorrak sortutakoa, aldiz, % 9,4. Nolanahi ere, 2008an behera egin zuen Gizarte-ekonomiaren garrantzi erlatiboak: EAEko landun biztanleria kontuan hartuta, gizarte-ekonomiak egindako ekarpena ehuneko lau hamarren jaitsi zen 2002an izandako maximo historikoaren aldean (% 6,7), eta 3 hamarren jaitsi zen 2006ko emaitzen aldean (% 6,3). Sektoreka aztertuz gero, Gizarte-ekonomiak (tradicionalki industriala izan da) hirugarren sektorerantz mugitzeko prozesu etengabea izan du 1994an estatistika-eragiketa hasi zenetik. Prozesu hori azkartu egin zen 2006 eta 2008 artean industriako enpleguak izandako beherakada handiaren ondorioz (% 7,5 murriztu zen). Testuinguru horretan, enpresa industrial txiki eta ertainek, bereziki Lan-sozietateek, ez zuten aurreko biurtekoetan bezainbesteko joera positiborik izan, beraz, 2008an nabarmen egin zuen behera industria-sektoreak Gizarte-ekonomian duen garrantzi erlatiboak. Hirugarren sektoreko enpresek, aldiz,

**II.5.1. Grafikoa. Gizarte-ekonomiak EAE-n izandako garrantziaren eboluzioa**




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren Kontuak.

<sup>1</sup> Gizarte-ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legea gertaera garrantzitsua izan da. Lege horren arabera, gizarte-ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarrekin, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enpleguko zentro bereziak, arrantzaileen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresa-jarduera egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Printzipiook honakoak dira:

- Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkioten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.
- Jarduera ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.
- Erakunde barruko eta gizarterarekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenera, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.
- Botere publikoekiko mendekotasunik eza.

<sup>2</sup> Estatistika honi buruzko informazio nahi izanez gero, Memoria Sozioekonomiko honetako 2010eko edizioa irakur daiteke.


**II.5.2. Grafikoa. Gizarte-ekonomiak enpleguarengan duen garrantzi erlatiboa: Sektorekako garrantzia**



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren Kontuak.

guztirako enplegu-bolumena mantentzea lortu zuten 2008an eta % 5,5 hazi ziren 2006ko datuen aldean (% 5,2ko hazkundea izan zuen 2004 eta 2006 artean). Ondorioz, 2008an garrantzi handiko aldaketa kualitatiboa gertatu zen: hautsi egin zen 2006ra arte Gizarte-ekonomian gailendu zen industria-profila. Lehenengo aldiz, 2008an zerbitzuen sektoreak industria-sektoreak baino garrantzi erlatibo handiagoa izan zuen enpleguari dagokionez. 2006 eta 2008 artean Industriako partaidetza % 51koa izatetik % 47,8koa izatera igaro zen, eta zerbitzuen sektorekoa, aldiz, % 45,3koa izatetik % 48,5koa izatera. Azkenik, Gizarte-ekonomiaren Estatistikaren 2009ko Emaizten Aurrerapenak agerian uzten du Gizarte-ekonomian enplegua galtzeko joera sakontzen ari dela. 2006-2008 aldian enplegua % 1,4 erori bazen ere, 2008. eta 2009.

**II.5.3. Grafikoa. Gizarte-ekonomiako enpleguek eta fakturazioak EAEn izandako eboluzioa**



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren Kontuak.

urteen artean % 4,4ko murriztapena ikusi zen. Horrek 59.385en kokatzen du enplegu-bolumen osoa, 2006ko eta 2008ko kopuruak baino nabarmenki murriztagoa nahiz eta 2002 eta 2004an sektoreak edukitako enplegu datuetatik hurbil geratzen den.

Enpleguaren dinamika negatiboarekin paraleloan, EAeko Gizarte-ekonomia eratzten duten enpresa-establezimenduen aurreikuspenek % 5,7ko erorketa erakusten dute 2008ko kopuruaren aldean fakturazio kopurutan. Horrek 9.205 milioi euroko fakturazio-bolumena erakusten du.

Azkenik, eta gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta Gizarte-ekonomiak gure erkidegoan duen garrantzia jakiteko xedez, Sozietate Kooperatiboetako eta Lan-sozietateetako langileen eta forma hori duten enpersen kopurua aurkeztu dugu Enplegu eta Gizarte Segurantzako

**II.5.1. Koadroa. Sozietate kooperatiboak eta lan-sozietateak. Gizarte segurantzaren altan diren enpresen eta langileen kopurua (4. hiru hilera)**

	Enpresak			Langileak		
	2000	2009	2011	2000	2009	2011
Andaluzia	6.567	8.469	7.465	59.386	74.870	71.786
Aragoi	1.287	1.345	1.259	10.874	8.872	8.423
Asturias	635	787	734	5.931	6.449	5.867
Balear U.	301	369	347	2.908	3.614	3.120
Kanariar U.	1.026	848	733	10.215	8.101	7.533
Kantabria	178	214	195	2.001	2.405	2.117
Gaztela-Mantxa	2.526	2.926	2.591	20.494	18.717	16.941
Gaztela eta Leon	1.964	2.189	1.946	14.993	14.097	12.406
Katalunia	6.992	6.416	5.961	53.236	47.320	44.521
Valentzia	3.809	4.057	3.681	48.739	57.121	52.937
Extremadura	1.108	1.067	964	9.119	7.986	7.273
Galizia	1.428	1.726	1.615	12.409	12.037	11.678
Madril	2.550	2.768	2.519	19.654	25.064	22.892
Murtzia	1.546	2.384	2.238	14.547	23.040	21.804
Nafarroa	713	746	739	8.380	9.454	9.585
<b>EAE</b>	<b>2.334</b>	<b>2.342</b>	<b>2.284</b>	<b>58.116</b>	<b>64.862</b>	<b>63.532</b>
Errioxa	231	187	165	2344	1.724	1.759
Ceuta eta Melilla	74	58	51	587	521	562
<b>GUZTIRA</b>	<b>35.269</b>	<b>38.989</b>	<b>35.487</b>	<b>353.933</b>	<b>386.254</b>	<b>364.736</b>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

Ministerioaren datuak oinarri hartuta (jakin dakigu EAEko kopuruak ez datozela bat Gizarte-ekonomiaren Kontuetako Estatistikan aurkeztutakoekin).

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2011ko laugarren hiruhilekoan EAEn 2.284 enpresa egon dira Gizarte Segurantzaren alta emanda, beraz, Sozietate Kooperatibo eta Lan-sozietate gehien duen seigarren Autonomia Erkidegoa da (2009an 2.342 zituen).

Sozietate Kooperatiboetan eta Lan-sozietateetan lan egiten duten langileen kopuruaren arabera garrantzia neurtuz gero, aldiz, EAE estatuko bigarren Autonomia Erkidegoa da Andaluziaren atzetik (63.532 langile EAEn eta 71.786 langile Andaluzian).

2011ko eta 2009ko datuak alderatuz gero, enpleguak ere behera egin duela ikus daiteke: 2009an 64.862 langile zeuden eta 2011n, aldiz, 63.532.

# 6. Lan merkatua

Hamabost urtez enplegua sortzen etengabe ibili ondoren, 2009an EAEko lan merkatuak beherakada nabarmena izan zuen landunen kopuruan.

Iturri estatistikoak bat datoz landunen beherakada honek 2010ean abiadura moteltzen joan zela esatean.

2011 honetan, gure erkidegoko lan merkatuaren adierazleak ez datoz bat enpleguaren bilakaera baloratzerako orduan. EUSTATen Kontu Ekonomikoen arabera enpleguak %0,6ko beherakada izan arren eta Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua ere jaitsi arren (beherakada aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da bien kasuan), BJAREN landunen kopuruak

bilakaera negatiboa izan du 2010 urtearekin alderatuz gero (EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta). Izan ere, %1,2 jaitsi da urteko batezbestea, aurreko urteko -%0,3aren aurrean. Bilakaera honen eraginez 11.300 enplegu galdu dira.


Aldi berean, BJAREN arabera langabeziak %19ko hazkundea izan du, urteko batez besteko langabezia tasa %10,8 izatera ailegatuz, baina %11,2ra heldu dena laugarren hiruhilabetekoan. Erregistratutako langabezia, bere aldetik, %9,6 igo da batez beste, aurreko urteko %9,9 baino zertxobait gutxiago.

**II.6.1. Koadroa. EAE-ko enpleguaren eta langabeziaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak eta balio absolutuak (milakoak)**

	2009ko BATEZ BESTEKOAK	2010eko BATEZ BESTEKOAK	2011ko BATEZ BESTEKOAK	2011ko HIRUHILEKOAK			
				I	II	III	IV
Landunen aldak. (BJA)	-3,6	-0,3	-1,2	-0,3	-0,8	-2,2	-1,4
Lana dutenen kopurua, bjaren arabera	951,5	948,9	937,6	940,0	943,2	938,6	928,7
Lanpostuen aldak. (HKE)	-3,4	-0,9	-0,6	-0,1	-0,4	-0,7	-1,3
Lana dutenen kopurua, hkeen arabera	983,2	973,2	967,3	969,6	971,0	967,5	961,2
Gizarte segurantzako afiliazioaren aldak.	-3,5	-1,0	-0,6	-0,2	-0,3	-0,8	-1,0
G. Segurantzaren afiliatutakoen kopurua	934,7	925,8	919,6	922,3	923,3	913,4	919,4
Langabeen aldak. (BJA)	118,1	13,9	19,0	23,2	20,9	20,4	12,2
Langabetu kopurua bjaren arabera	84,2	95,9	114,1	113,1	114,9	111,4	116,9
Erregistratutako langabeziaren aldak. (EEZP)	42,4	9,9	9,6	7,1	14,2	9,6	7,8
EEZPn erregistratutako langabetuen kopurua	120,5	132,4	145,1	146,7	148,6	140,9	144,3
Langabezia-tasa (BJA)	8,1	9,2	10,8	10,7	10,9	10,6	11,2

Iturria: Geuk egina EUSTATen eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriaren datuekin.

**II.6.1. Grafikoa. EAEko enpleguaren bilakaera-adierazleak: Urtetik urterako aldakuntza-tasak**



Iturria: Geuk egina EUSTATen, INEren eta Gizarte Segurantzaren datuekin.

## 6.1. Jaurdueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera

### 6.1.1. Jarduera eta okupazioa

Lehenengo eta behin, BJAREN datuek erakusten dutenez, 2011n EAEko biztanleria aktiboak urtean batez beste gora egin du. Horrela, 2010ean lan merkatuan %55,6k parte hartzen bazuen, 2011n %56,2 da, EUSTATen sail historikoko jarduera tasarik handiena. Bilakaera honetan funtsezkoa da emakumeak lan merkatuan sartu izana. Emakumeen jarduera tasa urtean batez beste %49,5ekoa da, 2010ean baino 1,2 puntu gehiago. Gizonen tasari dagokion batez bestekora hurbiltzeko joerari eutsi dio, nahiz eta bien arteko aldea oraindik 13 puntutik gorakoa izan. Bestalde, gizon aktiboek biztanleriak behera egin du, 2010eko %64tik 2011ko %63,2ra igaroz. Batez ere lan aukeren faltak izan du eragina beherakada honetan. Kaltetuenak gazteak dira eta urteak aurrera egin ahala, lan merkatutik aldentzen joan dira. Horrela, lehenengo hiruhilabetekoan euren jarduera tasa %31,8koa bazen, ratioa %28,1era erori da laugarren hiruhilabetekoan. Halarik ere, talde honen urteko batezbestekoa %30,3 da, 2010ean baino 1,6 puntu gutxiago.

Orobat, BJAREN datuek diotenez, 2011n gure erkidegoan erregistraturiko enpleguaren galerak 20 eta 64 urte bitarteko okupazio tasa edo enplegu tasa kokatzen du % 67,2an, Europako Batzordeak 2020rako finkatutako helburua (%75) baino 7,8 puntu gutxiago. Europako batezbestekoa %68,6 da, gure erkidegoko datua baino 1,4 puntu gehiago.

EUROSTATen datuek erakutsi dutenez, azken urtean 14 herritan hazi dira batez besteko enplegu tasak (Baltikoko hiru herrialdeak bi portzentaje puntu baino gehiago, Malta eta Suedia puntu bat baino gehiago); Europako batezbestekoak ez du aldaketarik izan eta EAEkoak 8 puntuko jaitsiera izan du. Estatuko ratioak (%61,6) 9 hamarreneko erorketa izan du 2010eko datuekin alderatuz gero.

EAEn 2010eko abenduaren eta 2011ko abenduaren artean gertatutako okupazioaren murrizketa %1,3koa izan da. Horrela, 13.400 lanpostu inguru galdu dira. Gizonen lanak izan du bilakaerarik txarrena, azken urtean 19.600 lanpostu galdu baititu. Aldiz, emakumeen lanak gora egin du 6.200 enplegutik. Horrez gain, 25 urtetik beherako lanak behera egin du %6,3 eta 25-44 urte bitartekoan

### II.6.2. Koadroa. 20 eta 64 urte bitarteko okupazio-tasa: "Europa 2020" estrategiaren xedea betetzearen arabera bilakaera

	2010	2011	Aldakuntza 2010-11	% 75era arteko dif.
27-EB	68,6	68,6	0,0	6,4
BEM	68,4	68,5	0,1	6,5
Belgika	67,6	67,3	-0,3	7,7
Bulgaria	65,4	63,9	-1,5	11,1
Txekiar E.	70,4	70,9	0,5	4,1
Danimarka	75,8	75,7	-0,1	-0,7
Alemania	74,9	76,3	1,4	-1,3
Estonia	66,7	70,4	3,7	4,6
Irlanda	65,0	64,1	-0,9	10,9
Grezia	64,0	59,9	-4,1	15,1
Espainia	62,5	61,6	-0,9	13,4
Frantzia	69,1	69,1	0,0	5,9
Italia	61,1	61,2	0,1	13,8
Zipre	75,4	73,8	-1,6	1,2
Letonia	65,0	67,2	2,2	7,8
Lituania	64,4	67,2	2,8	7,8
Luxenburgo	70,7	70,1	-0,6	4,9
Hungaria	60,4	60,7	0,3	14,3
Malta	60,1	61,5	1,4	13,5
Holanda	76,8	77,0	0,2	-2,0
Austria	74,9	75,2	0,3	-0,2
Polonia	64,6	64,8	0,2	10,2
Portugal	70,5	69,1	-1,4	5,9
Errumania	63,3	62,8	-0,5	12,2
Eslovenia	70,3	68,4	-1,9	6,6
Eslovakia	64,6	65,1	0,5	9,9
Finlandia	73,0	73,8	0,8	1,2
Suedia	78,7	80,0	1,3	-5,0
E. Batua	73,6	73,6	0,0	1,4
EAE	68,0	67,2	-0,8	7,8

Iturria: EUROSTAT eta LANBIDEn datuekin geuk egindakoa.

lanak %3,3. Berriz, 44 urtetik gorako pertsonen lanak %1,6ko hazkundea izan du.


Urteko batez besteko balioak kontuan hartzen baditugu, 2011n galdu ziren 11.300 lanpostuen artean gizonek 14.500 lanpostu galdu zituzten eta emakumeek 3.200

### II.6.3. Koadroa. Lana duten eta langabezia dauden biztanleak, sektoreka. 2010-2011

	BATEZ BESTE (milakotan)		IGOERA (milakotan)		Urte arteko aldakuntza-tasa (%)	
	2010	2011	09-10	10-11	09-10	10-11
Landunak - BJA	948,9	937,6	-2,6	-11,3	-0,3	-1,2
Lehen sektorea	8,7	7,9	-0,2	-0,8	-2,2	-9,2
Industria	225,0	223,6	-0,3	-1,4	-0,1	-0,6
Eraikuntza	72,5	67,3	-5,3	-5,2	-6,8	-7,2
Zerbitzuak	642,7	638,8	3,3	-3,9	0,5	-0,6
Langabezia - BJA	95,9	114,1	11,7	18,2	13,9	19,0
Lehen sektorea	0,9	0,5	0,8	-0,4	800,0	-44,4
Industria	20,4	19,9	-0,7	-0,5	-3,3	-2,5
Eraikuntza	14,3	18,7	2,7	4,4	23,3	30,8
Zerbitzuak	55,8	67,3	8,6	11,5	18,2	20,6
1. Lanpostua bilatzen ari direnak	4,5	7,7	0,5	3,2	12,5	71,1

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

**II.6.3. Grafikoa. Aldi baterako kontratuak eta "kontraturik gabe eta bestelakoak" egoeran dauden soldatapeko guztien artean duten garrantziaren bilakaera, sexuka, EAE-n**



Iturria: EUSTAT. BJA.

irabazi. Ondorioz, enpleguaren feminizazio tasak 9 hamarreneko igoera izan du, %45,6ra ailegatuz. Sektorearen araberako datuak aztertzen baditugu ikusiko dugu, 2010ean eraikuntza izan bazen gehien jaitsi zena (urteko batez besteko balioak), bai lanpostuei dagokienez (-5.300) baita ehunekoei dagokienez ere (-%6,8), 2011n ere lanpostu gehien galdu dituen sektorea eraikuntza izan dela (-5.200), baina lehenengo sektorea izan dela portzentaje puntu gehien galdu dituen (-%9,2) eta atzera egiteko joerarekin jarraitzen duela. Industriak 1.400 lanpostu garbi galdu ditu eta zerbitzuak 3.900 lanpostu garbi. Biak %0,6 jaitsi dira. Behin-behinekotasun maileri helduz, BJAren datuek erakusten dute 2011ko urteko batezbestekoa aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa izan zela (%20,1 %20,2ren aurrean). Urte honetan suntsitutako lanpostuek bai enplegu finkoa baita aldi baterako enplegua duten langileak kaltetu dituzte. Hala ere, kaltea nabariagoa zain da azken hauen kasuan (-%0,9 eta -%1,6, hurrenez hurren). Honek erraztu du behin-behinekotasunaren neurritasuna. Behin-behinekotasunaren bilakaera desberdina izan da sexuaren arabera: 2011n gizonen artean hazi da (%17,4tik %17,7ra igaroz), emakumeen artean jaitsi den bitartean (2010eko %23,4tik 2011ko %22,7ra). Ondorioz, behin-behinekotasunari dagokionez sexuen artean dagoen aldea murriztu da gure erkidegoan 2011n, %5, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago. Gure erkidegoak daukan %20 inguruko behin-behinekotasun portzentajeak Europako zenbait herrialdeetakoekin aldera ditzakegu. Hala nola, Holanda (%18,4) eta Portugal (%22,2). Aldiz, Europar Batasun osoaren batezbestekoa %14,1 da eta euro gunearena %15,8. Behin-behinekotasun ratorik handienak Espainian (%25,3) eta Polonian (%26,9) gertatzen dira. Beste alde batetik, kontraturik gabeko egoerak eta bestelako egoerak (emakumei eragiten dizkiete hauek batez ere) biltzen dituen tasa mantendu da %2,4an: %4,4

emakumeen kasuan eta %0,6 gizonen kasuan. Aurreko urteko ratio berak dira hauek. Adin talde bakoitzari dagokionez, oraindik ere aldi baterako kontratuak eta kontraturik gabekoak dituztenen ratorik altuenak adinez gazteenak direnak osatzen dituzte, urtebete aurrerago baino gutxiago badira ere. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumeen %50,4k (2010ean baino 11,7 puntu gutxiago ehunekoetan) eta gizonen %58,5ek (aurreko urtean baino 1,4 puntu gutxiago) aldi baterako kontratua dute. Adin talde horretan "kontraturik gabeko egoera eta beste batzuk" dituzten soldatapeko pertsonen tasak %10,2 eta %4,4 dira, hurrenez hurren (aurreko urtearekin alderatuta, emakumeen tasak gora egin du 3 portzentaje puntu eta gizonena 2,4 biderkatu da). Aurreko baieztapenak argitze aldera, komeni da kontuan hartzea 16 eta 24 urte bitarteko pertsonen %23k baino ez duela lan merkatuan parte hartzen. Azkenik, eta 2011ko abenduan dagoen Gizarte Segurantzako afiliarioari dagokionez, afiliazio kopurua %1,1 jaitsi da aurreko urteko abenduko kopuruarekin alderatuta (-%2 estatuko batezbestekoa). EAE izan da

**II.6.4. Koadroa. Enpleguaren adierazleak Europar Batasunean 2009-2010**

	Langabezia tasa		Gazteen langab. T.		Behin behinekotasun T.	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011
27-EB	9,7	9,7	21,1	21,4	14,0	14,1
BEM	10,1	10,1	20,9	20,8	15,7	15,8
Belgika	8,3	7,2	22,4	18,7	8,1	9,0
Bulgaria	10,2	11,2	23,2	26,6	4,5	4,1
Txekiar Errep.	7,3	6,7	18,3	18,0	8,9	8,5
Danimarka	7,5	7,6	14,0	14,2	8,4	8,8
Alemania	7,1	5,9	9,9	8,6	14,7	14,7
Estonia	16,9	12,5	32,9	22,3	3,7	4,5
Irlanda	13,7	14,4	27,8	29,4	9,4	9,9
Grezia	12,6	17,7	32,9	44,4	12,4	11,6
Espainia	20,1	21,7	41,6	46,4	24,9	25,3
Frantzia	9,8	9,7	23,6	22,9	15,0	15,3
Italia	8,4	8,4	27,8	29,1	12,8	13,4
Zipre	6,2	7,8	16,7	22,4	13,5	13,6
Letonia	18,7	15,4	34,5	29,1	6,8	6,5
Lituania	17,8	15,4	35,1	32,9	2,4	2,8
Luxenburgo	4,6	4,8	15,8	15,6	7,1	7,1
Hungaria	11,2	10,9	26,6	26,1	9,7	8,9
Malta	6,9	6,5	13,1	13,7	5,7	6,6
Holanda	4,5	4,4	8,7	7,6	18,5	18,4
Austria	4,4	4,2	8,8	8,3	9,3	9,6
Polonia	9,6	9,7	23,7	25,8	27,3	26,9
Portugal	12,0	12,9	27,7	30,1	23,0	22,2
Errumania	7,3	7,4	22,1	23,7	1,1	1,5
Eslovenia	7,3	8,2	14,7	15,7	17,3	18,2
Eslovakia	14,4	13,5	33,6	33,2	5,8	6,6
Finlandia	8,4	7,8	21,4	20,1	15,5	15,6
Suedia	8,4	7,5	25,2	22,9	15,8	16,4
E. Batua	7,8	8,0	19,6	21,1	6,1	6,2
EAE	9,2	10,8	25,0	24,1	20,2	20,1

Iturria: EUROSTATen (2012ko maiatzaren 14an jasota zeuden datuak) eta EUSTATen datuak oinarri hartuta egindakoa, BJA.

**II.6.5. Koadroa. EAE-n 16 urte edo gehiago eta soldatapeko lana duten biztanleen bilakaera, kontratu motaren eta sexuaren arabera**

		2009	2010	2011	09-10 %	10-11 %	2010	2011
Guztira	Guztira	787,7	784,0	775,9	-0,5	-1,0	100,0	100,0
	Gizonak	425,1	415,5	407,1	-2,3	-2,0	100,0	100,0
	Emakumeak	362,5	368,6	368,8	1,7	0,1	100,0	100,0
Mugagabea-finkoa	Guztira	622,1	607,2	601,5	-2,4	-0,9	77,4	77,5
	Gizonak	355,0	341,1	332,5	-3,9	-2,5	82,1	81,7
	Emakumeak	267,0	266,1	269,1	-0,3	1,1	72,2	73,0
Aldi baterakoa	Guztira	146,5	158,3	155,7	8,1	-1,6	20,2	20,1
	Gizonak	68,2	72,1	72,1	5,7	0,0	17,4	17,7
	Emakumeak	78,3	86,1	83,6	10,0	-2,9	23,4	22,7
Kontraturik gabe eta bestelakoak	Guztira	19,1	18,7	18,7	-2,1	0,0	2,4	2,4
	Gizonak	1,9	2,3	2,5	21,1	8,7	0,6	0,6
	Emakumeak	17,2	16,4	16,2	-4,7	-1,2	4,4	4,4

Iturria: EUSTAT, BJA.

afiliazio gutxien galdu dituen bigarren erkidegoa Madrilen atzetik (-%0,7).

Lurraldeari dagokionez, Arabak ezin du bilakaerarik txarrean afiliazioak %1,2 erori ostean. Berriz, Bizkaiak %1,1eko beharakada izan du eta Gipuzkoak %1ekoa. Sexuari dagokionez, gizonezkoen afiliazioa %2,3 murriztu da eta emakumeena %0,5 hazi.

Jarduera sektoreen arabera, eraikuntza sektorea izan da kaltetuena (-%9). Izan ere, galera handiak izan dituzte osatzen duten hiru mailek: eraikinen eraikuntza (-2.350 afiliatu), ingeniariak zibila (-425) eta eraikuntza bereziko jarduerak (-3.645).

Zerbitzuen sektorean, saldo positiboa duen sektore bakarra (+%0,4), bilakaera positiboena izan duten jarduera mailak honakoak dira: hezkuntza (+1.614), osasun jarduerak (+1.206) eta janari zerbitzuak (+903).

Azken urtean industriak %2,9ko beharakada bizi izan du. Sektore honen barnean erorketa handiena bizi izan duten jarduerak ondorengo hauek ditugu: metalezko produktuen fabrikazioa (-1.503) eta kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa (-538).

Beste alde batetik, EAEn 2011ko abenduan Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzeritarren batez besteko datua 52.625ekoa da, gure erkidegoan afiliatutakoaren %5,7. Atzeritarren afiliazioak %1eko hazkuntza izan du azkenengo urtean, bertako afiliatuen zenbatekoak %1,2 jaitsi arren. Atzerriko emakumeen afiliazioak bizi izandako bultzadari esker gertatu da hau, izan ere, %4,2 hazi da azkenengo urtean. Gizonena, berriz, %1,4 jaitsi da.

Jatorriaren arabera bereizketa eginez, %68,4 EBetik kanpo dator eta gainontzeko %31,6 erkidegoko herrialdeetatik. Errumania, Portugal eta Frantzia dira jatorri herrialde ohikoenak Europar Batasunetik datozen pertsonen artean. Aldiz, batasunetik kanpo datozen

**II.6.6. Koadroa. Jarduera- eta langabezia-tasen bilakaera sexu eta adin talde bakoitzeko. Urteko batez bestekoak**

	Jarduera-tasa			Langabezia-tasa		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
>16 biztanleria	55,6	55,9	56,2	8,1	9,2	10,8
16-24	32,0	31,9	30,3	23,0	25,0	24,1
25-34	87,5	87,0	87,1	11,0	11,9	13,8
35-44	87,7	87,5	88,2	7,0	7,6	10,6
45-54	79,8	80,9	82,8	5,6	7,2	8,6
55-64	43,7	47,1	48,6	3,2	4,9	5,5
+64	0,8	1,2	1,0	0,0	0,0	0,0
<b>Gizonak GUZTIRA</b>	<b>64,0</b>	<b>64,0</b>	<b>63,2</b>	<b>8,4</b>	<b>9,6</b>	<b>11,3</b>
16-24	34,8	32,9	30,0	26,8	28,8	26,0
25-34	90,3	89,9	88,2	12,2	14,0	14,9
35-44	94,9	94,7	93,6	6,5	7,5	10,6
45-54	90,7	90,8	92,1	5,3	6,5	9,2
55-64	57,0	60,2	60,1	3,5	5,5	6,0
+64	1,0	1,6	1,3	0,0	0,0	0,0
<b>Emak. GUZTIRA</b>	<b>47,6</b>	<b>48,3</b>	<b>49,5</b>	<b>7,8</b>	<b>8,6</b>	<b>10,3</b>
16-24	29,1	30,7	30,5	18,2	20,6	22,0
25-34	84,5	84,0	85,8	9,5	9,5	12,6
35-44	80,2	80,0	82,4	7,5	7,7	10,7
45-54	69,3	71,2	73,7	5,9	8,1	7,8
55-64	30,9	34,5	37,6	2,7	3,9	4,8
+64	0,7	0,9	0,8	1,4	0,0	0,0

Iturria: EUSTAT, BJA.

pertsonen artean Kolonia, Bolivia, Maroko eta Ekuador dira ohikoenak. Krisia gorabehera, eraikuntza, ostalaritza eta merkataritza dira atzerriko afiliatu gehien duten jarduerak.

**II.6.7. Koadroa. Gizarte segurantzako afiliazioa, jarduera sektorearen eta lurralde historikoaren arabera abenduko hilabeteak.**

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2010eko abe.	2011ko abe.	ALD. %-tan	2010eko abe.	2011ko abe.	ALD. %-tan	2010eko abe.	2011ko abe.	ALD. %-tan	2010eko abe.	2011ko abe.	ALD. %-tan
Lehen S.	12.172	11.854	-2,6	4.305	4.228	-1,8	4.881	4.757	-2,5	2.986	2.869	-3,9
Industria	196.790	191.259	-2,9	40.308	39.292	-2,5	80.997	78.075	-3,6	75.665	73.892	-2,3
Eraikuntza	71.652	65.232	-9,0	10.021	8.959	-10,6	39.181	35.553	-9,3	22.450	20.720	-7,7
Zerbitzuak	646.937	649.204	0,4	97.810	98.121	0,3	343.998	345.441	0,4	205.129	205.642	0,3
Guztira	927.731	917.549	-1,1	152.444	150.600	-1,2	469.057	463.826	-1,1	306.230	303.123	-1,0

Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

**II.6.8. Koadroa. EAE-ko biztanleria langabea. Aldagai nagusien bilakaera**

	Pertsona kopurua			Aldea		Aldakuntza %		Langabezia-tasa	
	2009	2010	2011	2009-10	2010-11	2009-10	2010-11	2010	2011
Guztira	84.200	95.900	114.100	11.700	18.200	13,9	19,0	9,2	10,8
Gizonak	48.600	56.000	64.800	7.400	8.800	15,2	15,7	9,6	11,3
Emakumeak	35.600	39.900	49.300	4.300	9.400	12,1	23,6	8,6	10,3
Adina: 16-24	13.000	13.800	12.400	800	1.400	6,2	-10,1	25,0	24,1
Adina: 25-44	52.800	56.300	70.400	3.500	14.100	6,6	25,0	9,6	12,1
Adina: +45	18.400	25.700	31.300	7.300	5.600	39,7	21,8	6,4	7,5
Lehen mailako ikasketak	6.800	8.900	9.800	2.100	900	30,9	10,1	8,7	10,2
Erdi mailako ikasketak	60.400	67.200	79.400	6.800	12.200	11,3	18,2	11,4	13,2
Goi mailako ikasketak	16.900	19.800	24.900	2.900	5.100	17,2	25,8	5,6	7,0
Inoiz lan egin dute	80.200	91.400	106.400	11.200	15.000	14,0	16,4		
Lehenengo lana bilatzen ari dira	4.000	4.500	7.700	500	3.200	12,5	71,1		

Iturria: EUSTAT, BJA.

**6.1.2. Langabezia**

Enpleguaren jaitzieraren eta populazio aktiboaren hazkundearen ondorioz, langabeziak gora egin du 2011n, eta 2010ean baino gehiago. BJAren langabezia tasa orokorra urtearen amaieran %11,2koa da eta %10,8koa, lau hiruhilekoen batez bestekoa. Datu horiek ez dira lortu 2001eko hasieratik eta EBeko batezbestekotik hurbilago daude (%9,7 EB-27ko eremuan eta %10,1 euroaren eremuan).

Europar, langabezia balioak oso bestelakoak dira herri batzuen eta besteen artean. %20tik gorako balioak dituzten herrialdeak daude, Espainia esaterako (%21,7); eta %5 edo hortik beherako balioak dituztenak, hala nola, Austria, Holanda edo Luxenburgo. Adibide batzuk aipatzearren, AEBen langabezia tasa %8,9koa da, Japonena %4,6, Frantziak eta Poloniak Europako batezbestekoaren antzeko ratioak dituzte eta Alemaniak 3,8 puntu gutxiago ditu.


2011n langabezian dauden pertsonen kopurua igo da gure erkidegoan ondoz ondoko laugarren urtez. Adinez nagusiagoak direnak dira kaltetuenak, izan ere, biztanle

gazteenen artean (25 urtetik beherakoak) jardura tasa jaistean, ikusi dugun moduan, 2010ean baino 1.400 langabetu gutxiago kontabilizatu dira; hortaz, euren langabezia ratioak behera egin du ia portzentaje puntu bat, urteko batez besteko %24,1ean kokatuz. Europar, gazteen langabezia tasa %20tik gorakoa izan da Batasun osorako, baina herri baltikoetan, Portugalen eta Eslovakian, besteak beste, %30etik gorakoa izan da, eta Grezia eta Espainian %40tik gorakoa. Beste muturrean Holanda eta Austria kokatzen dira, %8 inguruko ratioekin. Langabezia, batez ere, 25 eta 44 urte arteko taldean hazi da, bai termino absolutuetan (+14.100) baita erlatiboetan ere (+%25). Horrela, urteko batez besteko kopuruetan arreta jarriz, talde horri dagokio EAEn langabezian dauden pertsonen %61,7, aurreko urtean ratioa %58,7 izan zen bitartean.

Sexuari dagokionez, langabetuen %57 gizonak dira eta %43 emakumeak. Hala ere, emakumeen artean igo da langabezia gehiago (+%23,6) gizonen artean baino (+%15,7). Guztiarekin ere, gizonen langabezia tasa (%11,3) emakumeena (%10,3) baino handiagoa da. Sektoreka, langabetuen % 59 zerbitzuen sektorekoak dira. Sektore horretan langabezia %20,6 hazi da (2010eko +%18,2aren aurrean). Orobat, eraikuntzan langabezia %30,8 hazi da (batez bestekoa den +%19 kopuruaren gainetik). Aldiz, industrian %2,5 jaitsi da langabetuen kopurua (-500 pertsona garbi). Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 3.200 gehiago dira, 7.700 urtean batez beste.


Halaber, lehenengo mailako ikasketak dituzten pertsona langabeak 9.800 dira, %10,1 haziz eta horrela %10,2ko langabezia tasara helduz. Bestalde, erdi mailako ikasketak dituztenak 79.400 dira (guztira %69,6). %18,2ko hazkundea izan dute eta batezbestekoa baino langabezia tasa handiago izatera ailegatu dira: %13,2. Azkenik, goi mailako ikasketak dituzten pertsona langabeek ere hazkundea jasan dute batezbestekoaren gainetik (%25,8). Hala ere, langabezia tasa txikiena daukate, %7. Lurraldeen arabera, zenbait desberdintasun antzeman daiteke langabezia tasen maila eta bilakaeretan: Arabak urteko batez beste %7,9ko tasa dauka, tasarik txikiena (gainera 2,1 puntuko jaitziera izan du 2010ari dagokionez). Gipuzkoak ere EAeko batezbestekotik beherako tasa dauka, %8,2ko langabezia (baina aurreko urteko %7,4aren aurrean hazi da). Bizkaiari dagokionez, tasarik altuena duena (%13,3 batez beste), ehunekoetan 3,3

**II.6.3. Grafikoa. Iturria: EUSTAT eta EUROSTATen datuekin egindakoa**



Iturria: EUSTAT eta EUROSTATen datuekin egindakoa.



**II.6.4. Grafikoa. Langabezia-tasaren bilakaera Lurralde Historikokoa**

Iturria: EUSTAT. BJA.

**II.6.9. Koadroa. EAE-ko Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia (abendua)**

	2009ko abe.	2010eko abe.	2011ko abe.	2009-10 %	2010-11 %
Guztira	128.201	135.961	145.394	6,1	6,9
Gizonak	65.085	67.330	71.255	3,4	5,8
Emakumeak	63.116	68.631	74.139	8,7	8,0
Adina: < 25 urte	11.852	11.129	11.935	-6,1	7,2
Gainerako adinak	116.349	124.832	133.459	7,3	6,9
Atzeritarrak	13.939	17.331	20.646	24,3	19,1

Iturria: LANBIDE.

puntuko hazkundera izan du 2010eko batezbestekoarekin alderatuz gero.

Bestalde, LANBIDEk -Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak-erregistraturiko langabezia BJAtik gora kokatzen dela egiaztatu da. 2011ko abenduan LANBIDEn 145.394 langabetu erregistratu ziren (+%6,9 aurreko urtearekin alderatuta) eta EUSTATen biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak 116.900 langabetu kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan, izan ere, inkesta horretako langabetuen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzailer gisa izena eman duten hainbat pertsona<sup>1</sup>.

Aurreko urteko bilakaerarekin erkatuz gero, hazkundera zertxobait handiagoa nabarmentzen da (+%6,9, 2010eko abenduko urte arteko +%6,1en aurrean). 2010ean gertatu bezala, erregistratutako emakumeen langabezia gehiago igo da (+%8) gizonena baino (+%5,8), izan ere, azken hau orekatuz doa industria jardura indarberritzeaz batera. Horrez gain, iraupen luzeko langabeziak ere gora egin du urte honetan. Horrela, iraupen luzeko langabeen batezbestekoa %29,2 bazen 2009an eta %34,4koa 2010 urte amaieran, 2011ko abenduan %39,1era heldu da.

Beste alde batetik, egiaztatzen da langabeziak arin hazten jarraitzen duela atzerriko biztanleen artean (+%19,1), bertako biztanleen artean baino. Hori dela eta, atzerriko langabetuen zama gero eta handiagoa da. Egun guztizko kopuruaren %14,2 dira, 2010eko abenduan baino 1,5 portzentaje puntu gehiago.

**6.2. Lan merkatuko sarrera eta irteera fluxuak****6.2.1. Kontratazioaren egoera**

Kontratazioa hazi zen 2011n aurreko urtearekin alderatuz gero (guztira %1,9 eta hasierako kontratuak %2,2). Hala

**II.6.10. Koadroa. EAE-n egindako lan-kontratuen bilakaera**

	Kontratu kop.			Urtearteko aldakuntza %				
	2009	2010	2011	2007	2008	2009	2010	2011
Lanaldi osoko mugagabeak	18.481	17.136	14.838	31,3	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4
Obra edo zerbitzukoak	135.728	146.751	152.614	0,7	-11,4	-21,1	8,1	4,0
Behin-behinekoak	157.780	175.256	170.103	5,1	-9,4	-28,0	11,1	-2,9
Lanaldi partzialekoak	223.769	234.992	246.635	3,3	-1,3	-9,7	5,0	5,0
Heziketarakoak*	4.833	5.224	5.367	-4,2	-13,0	-37,7	8,1	2,7
Gainerakoak	111.524	109.358	114.595	4,8	7,9	-6,6	-1,9	4,8
Kontratu berriak	652.115	688.717	704.152	4,1	-5,2	-17,8	5,6	2,2
Aldaketak**	21.892	10.336	19.668	-29,2	-9,3	-26,4	-52,8	90,3
Kontratuak guztira	674.007	710.042	723.820	2,3	-5,3	-18,1	5,3	1,9
Atzeritarrei egindako kontratuak	87.932	88.284	86.029			-18,0	0,4	-2,6

\* Heziketarako kontratuen barruan sartzen dira lanaldi partzialeko praktikaldiko kontratuak.

\*\* Mugagabera aldatutako kontratuak eta gizarte-laguntzako adskripzioak.

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

<sup>1</sup> Bi eragiketa horien arteko ezberdintasun metodologikoak oso garrantzitsuak dira eta ez dute konparazioetarako tarterik uzten. Izan ere, langabetuen sailkapenez gain, LANBIDEn zifrak erregistroetatik datozen arren, BJArekin lagin jakin batean egindako inkestatik datoz. Gainera, kontuan izan behar dugu Europako Batzordearen 1897/2000 Araudiaren arabera, urte horretatik aurrera, BJAk langabetzat jotzen ditu enplegu soldatadunak edo independenterik ez daukaten eta lan bila ibili eta lanerako prest egoteaz gain aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat egin dutenak, araudi horretan "aktibotzat" jotzen direnetakoak. Ordea, ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berrizatzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin harremanetan jartzea. Horrenbestez, LANBIDEn "langabetu" gisa ageri diren pertsona asko kontzeptu horretatik kanpo uzten ditu EUSTATen inkestak.

**II.6.11. Koadroa. EAE-ko lan-kontratu mugagabeen bilakaera. Kontratu berri guztien gaineko portzentajea**

	2009		2010		2011	
	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%
Mugagabe arruntak	13.945	2,14	12.499	1,81	11.870	1,69
Mugagabe berriak	4.365	0,67	4.431	0,64	2.793	0,40
Gainerako lanaldi osoko mugagabeak	171	0,03	206	0,03	175	0,02
Lanaldi osoko mugagabeak	18.481	2,83	17.136	2,49	14.838	2,11
Lanaldi partzialeko mugagabeak	11.075	1,70	10.566	1,53	9.170	1,30
Mugagabeak guztira	29.556	4,53	27.702	4,02	24.008	3,41
Kontratu berriak guztira	652.115	100,0	688.717	100,0	704.152	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Koiunturaz aldizkaria, 78. alea. 2012ko I. hiruhilekoa, EEZPren datuekin.


ere, hazkunde hau 2010ean izandakoa baino zertxobait txikiagoa izan da, BPGd hiru hamarren hasi bada ere; orduan, guztizko kontratazioa %5,3 hazi baitzen eta hasierako kontratuak %5,6. Kontratu mugagabeek %13,3ko beherakada izan dute eta urtean zehar sinatutako hasierako kontratuen %3,4 besterik ez dute ordezkutzen eta guztizko kontratuen %4 (hasierakoak gehi bihurtuak). Horrez gain, beherakada honek eragina dauka lanaldi osoko kontratuetan (%13,4 gutxiago 2010 urtearekiko) eta baita lanaldi partzialeko kontratuetan ere (-%13,2).

EEZPen datuek erakusten dute 2011n guztira 723.820 lan kontratu erregistratu zirela (kontratu berriak eta bihurtuak kontuan hartuz), aurreko urtean baino %1,9 gehiago (+13.778).

Horietatik %50,7 emakumeek sinatu dituzte (aurreko urteko %51,5ekin alderatuta), izan ere, 2011n kontraturikoen %44,9 emakumeak dira.

Lurraldeka, Gipuzkoak bere gain hartzen du kontratuen %28,9 (2010ean %29,3), hazi den Bizkaiak %54 (2010ean %53,6) eta %17,1 Arabak (aurreko urteko zama bera).

**II.6.5. Grafikoa. EAEko kontratazioaren bilakaera jarduera-sektoreka**



Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

**II.6.12. Koadroa. Kontratazioa EAE-n (kontratu berriak gehi kontratu-aldaketak) sexuaren eta jardueraren arabera (CNAE 2009)**

	2010	2011ko KONTRATUAK				09/10 aldak. %	10/11 aldak. %
		GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	% bertikala		
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	12.827	11.492	1.360	12.852	1,8	18,0	0,2
Erauzketa-industriak	89	91	18	109	0,0	-22,6	22,5
Manufaktura-industria	57.789	46.284	14.006	60.290	8,3	19,7	4,3
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren hornikuntza	57	44	23	67	0,0	-20,8	17,5
Uraren hornikuntza, hondakinen kudeaketa	3.808	3.320	428	3.748	0,5	-10,2	-1,6
Eraikuntza	47.488	39.794	2.160	41.954	5,8	-6,6	-11,7
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	62.480	22.247	43.952	66.199	9,1	13,3	6,0
Garraioa eta biltegiak	26.800	19.381	8.755	28.136	3,9	3,6	5,0
Ostalaritza	70.657	24.830	50.509	75.339	10,4	10,4	6,6
Informazioa eta komunikazioak	19.627	12.563	8.518	21.081	2,9	1,5	7,4
Finantza eta aseguru alorretako jarduerak	4.069	1.239	2.339	3.578	0,5	-5,9	-12,1
Higiezin alorreko jarduerak	1.022	556	427	983	0,1	16,7	-3,8
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	28.138	10.450	18.730	29.180	4,0	7,4	3,7
Administrazio-jarduerak	217.235	117.500	100.284	217.784	30,1	14,2	0,3
Administrazio publikoa	11.309	3.992	5.890	9.882	1,4	6,1	-12,6
Hezkuntza	30.141	8.929	21.938	30.867	4,3	4,7	2,4
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	74.363	12.731	65.749	78.480	10,8	-4,1	5,5
Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak	25.886	15.964	11.631	27.595	3,8	9,4	6,6
Bestelako zerbitzuak	15.625	5.264	9.631	14.895	2,1	6,0	-4,7
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	625	401	393	794	0,1	4,9	27,0
Lurraldeez kanpoko erakundeak eta organismoak	7	2	5	7	0,0	75,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>710.042</b>	<b>357.074</b>	<b>366.746</b>	<b>723.820</b>	<b>100,0</b>	<b>5,3</b>	<b>1,9</b>

Iturria: LANBIDEko datuekin eginda EEZPren datuak oinarri hartuta.

2011n estatuan 14.437.298 kontratu erregistratu dira, 2010ean baino %0,1 gehiago. Aldiz, 2010ean +%2,8ko hazkundea izan zen aurreko urtearekin alderatuz gero.

Sektoreka, industriak kontratuen %4 irabazi du eta zerbitzuek %2,9. Berriz, eraikuntzak kontratuen %11,7 galdu du. Hala eta guztiz ere, hirugarren sektoreak erregistratutako kontratuen %83,6 hartzen du, aurreko urtean baino zortzi puntu gehiago: industriak %8,9 (+ 2 hamarren), eraikuntzak %5,8 (9 hamarren galdu ditu) eta lehen sektorea %1,8an mantendu da.

Bestalde, EEZPen datuek erakutsi dutenez, 2011n gure erkidegoan sinatutako kontratu guztietatik, 86.029 atzerritarrek sinatu dituzte, kontratu guztien %11,9 eta 2010ean baino %2,6 gutxiago. Hortaz, 2010-11 epean, oro har, gertatutako kontratazioaren berreskuratze joera arina, 2009an %18ko beherakada garrantzitsuen ondoren, ez da proportzio berean leheneratu atzerritarren kasuan. Atzerritarrek sinatutako kontratu guztietatik, %26k EBeko pertsonak sinatu zituzten eta gainontzeko %74 EBetik kanpoko herrietakoak.


Bukatzeko, lan txandakatzeari buruzko datuek (sinatutako kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsonen arteko zatidura) jaitziera handia erakutsi dute 2011n, ratioa urte osoan pertsona bakoitzeko 1,39 kontratukoa baita, 2010ean baino 0,44 gutxiago. Bilakaera hori sexu bietan gertatu da, txandakatzea gizonentzat (1,71 kontratutik 1,24ra igaro da) eta emakumeen artean ere (2010eko 1,95 kontratutik 2011ko 1,57ra) murriztu baita.

### 6.2.2. Iraizpen indibidualen eta kolektiboen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko bakarkako kaleratzeak autonomia erkidegoko lan administrazioari eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren ordezkariarekin) egindako adiskidetzeeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita lan arloko epaitegien bidez izapidetutakoak ere. Kaleratze horiek Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Beste alde batetik, taldekako kaleratzeak enpresa batek enplegua erregulatzeko aurkeztutako espediente


### II.6.6. Grafikoa. Lan-txandakatzearen bilakaera, sexuka, EAEn



Iturria: EEZPen datuekin egindakoa.

baten bidez burutzen dira (langileen legezko ordezkariaren adostasuna izan ala ez), lan-harremanak amaitzea eskatzeko (lanaldia eteteko edo murrizteko ere eska daiteke), arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamenduari edo ekoizpenari lotutako arrazoiak direla-eta, edo ezinbesteko kasu bategatik edo enpresariaren nortasun juridikoa amaitzeagatik, eta eskuduna den lan administrazioari agintaritzak ebazten du kasu guztietan. Agintaritzak hori Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren Lan Zuzendaritza da, arlo horretako eginkizunak baititu. Edonola ere, kontuan izan behar da Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak gai horren inguruan argitaratutako estatistikek ez dituztela kaleratze guztiak jasotzen. Horren arrazoiak zera da, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendu arrazoiak edo ekoizpenekoak direla eta kaleratzeko ez da behar administrazioaren baimenik taldekako kaleratze gisa ezarritako langile

### II.6.7. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzak baimendutako EEEn bilakaera hilabeteka: espedienteak eta kaltetutako langileak



\* Ezinbestekoa denean izan ezik.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila.

### II.6.13. Koadroa. Enplegua erregulatzeko EAE-n baimendutako espedienteak: kalteturiko langileak eta haien kopurua (Eusko Jaurlaritza)

	2009	2010	2011	% Var. 09/10	% Var. 10/11
Espedienteak	2.565	1.993	1.560	-22,3	-21,7
Kalteturikoak	68.722	35.426	22.072	-48,5	-37,7
<b>Espediente mota</b>					
Murrizketa	1.170	1.051	2.203	-10,2	109,6
Etetea	65.568	32.349	17.991	-50,7	-44,4
Amaitzea	1.984	2.026	1.878	2,4	-7,3


Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza.

kopurua baino gutxiago kaltetzen direnean<sup>2</sup>. Halaber, enplegua erregulatzearen ondoriozko erretiro aurreratuak adosturiko kontratuaren amaieratzat jotzen dira estatistiketan, eta ez kaleratze gisa.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak ere EAEn baimendutako enplegua erregulatzeko espedientei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Eusko Jaurlaritzaren eta Lan Ministerioaren datuak bat etorri ez arren (Ministerioarenak gehiago dira erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak erregistratu dituelako, langile euskaldunengan eragina izatera helduz), interesgarria da biek egindako estatistikaren azterketa; logikoki, bilakaera norabide berean doa. Iturri honek guztira 1.560 EEE erregistratu ditu 2011n. Hauek 22.072 langileengan dute eragina (-%37,7 aurreko urtearekin konparatuz gero). Hauen artean %81,5 behin-behineko etete espedienteak dira (2010ean %91), %10 lanaldi murrizketak (2010ean %5,7) eta gainerako %8,5 amaitze espedienteak (%3,3 aurreko urtean). EEE kopuruaren %21,7ko jaitsiera hau aurreko urteko jaitsierari (-%22,3) gehitu behar zaio. Kopuru hauek 2009an erregistratutako kopuruaren oso bestelakoak dira, urte horretan gertatu baitziren lan doikuntza gehienak, izan ere, espediente kopurua boskoiztu baitzen urte horretan.

Bestalde, Enplegu Ministerioa iturritzat hartuta (estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen denarekiko konparazioa

### II.6.8. Grafikoa. Kaleratuen bilakaera EAEn



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Lan-estatistiken Buletina.

ahalbidetzen du honek), EAEn guztira erregistratutako kaleratzeei -2002 eta 2007 urteen artean behera egiteko joera izan zuten hauek- 89.154 gehitu behar zaizkie 2009an (+%355,5 2008rekin alderatuz gero). Aldiz, kopuru hau ia erdira murriztu zen 2010ean (-%45,4) eta 2011n berriro ere jaitsi da (-%31,2).

Estatuak alderantzizko joera izan du. Hemen kaleratzeek gora egin dute (+%7,4). Guztizkoaren gain EAEn gertatutako kaleratzeen zama, 2010ean %12,3tik %11ra jaitsi zena, berriro ere murriztu da 2011n %7,1ean kokatuz. EAEko kaleratze kopuruaren jaitsiera EEETan gertatu da batez ere, guztizkoaren %85 direnak (%35,1 jaitsi dira aurreko urtearekin alderatuz gero). Bestalde, bitartekotza, arbitraje edo adiskidetzeek kalteturiko langile kopuruak %66,2ko beherakada izan du, gizarteko gai judizialen barnean daudenen kopurua %6,9 hazi den bitartean. Kaleratzeengatik kalte ordain gisa adostutako zenbatekoei dagokienez, 2011ko guztizko batuketara 71,7

### II.6.14. Koadroa. Kaleratuen bilakaera EAEn (enplegu eta gizarte segurantzako ministerioa)

	Balio absolutuak			Aldakuntza %	
	2009	2010	2011	09/10	10/11
Kalteturiko langileak GUZTIRA	89.154	48.694	33.496	-45,4	-31,2
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	1.691	1.018	955	-39,8	-6,2
Gizarteko gai judizialak	4.123	3.787	4.049	-8,1	6,9
Enpleguaren erregulazioa	83.340	43.889	28.492	-47,3	-35,1
<b>Adostutako kaleratzeen banakako adiskidetzeetan erabakitako kopuruak:</b>					
Zenbatekoa guztira (mila €)	78.916	82.520	71.736	4,6	-13,1
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	74.087	56.875	41.447	-23,2	-27,1
Gizarteko gai judizialak	4.829	25.645	30.289	431,1	18,1
Batez besteko zenbatekoa (€)	13.573	17.174	14.336	26,5	-16,5
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	43.813	55.869	43.400	27,5	-22,3
Gizarteko gai judizialak	1.171	6.772	7.481	478,3	10,5

Iturria: EGSM. Lan-estatistiken buletina.

<sup>2</sup> Iraizpen kolektiboa da 5 langiletik gorako plantilla osoan eragina badu, enpresaren jardueraren behera uztearen ondorioz, edo laurogeita hamar eguneko denboraldi batean, gutxienez 10 soldatadun 100 langiletik beherako enpresetan, plantillaren %10 100 eta 300 langile artean dituzten enpresetan, edo 30 langile 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legearen 51. artikulua).

milioi eurotara heltzen da, 2010ean baino %13,1 gutxiago. Kalte orainen batez besteko kopurua 14.336 eurokoa da, hots, %16,5 murriztu da.

### 6.3. Laneko osasuna

OSALANen, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Institutuan erregistraturiko EAEko laneko ezbeharrei buruzko datuek erakusten dute 2011n laneko 35.040 istripu gertatu zirela, 2010ean baino %10,5 gutxiago (ezbeharra izan eta bajan dauden langileen kopurua kontuan hartuz, lanaldiko eta "in itinere" ezbeharrek eta laneko gaixotasunak barne). Aldiz, estatuan, %11,8ko beherakada eman da, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera hau 2009an aurreko urtearekin alderatuz gero gertatutako beherakada handiari gehitu behar zaio (-%20,5) eta neurri apalagoan 2010ean gertatutakoari (-%2,8).

Lanaldian istripua izan duten pertsonen helduta, azken urtean larritasun txikienekoak murriztu dira: %10,2 istripu arinak eta %11,6 istripu larriak. Aldiz, istripu hilgarriak %2,8 areagotu dira. Lanaldian erregistraturiko 37 heriotzetatik 19 traumatikoak izan dira; horietatik 3 industria sektorean, 5 eraikuntzan, 8 zerbitzuen sektorean eta 3 lehen sektorean. Horrez gain, sektorearen arabera azterketak erakusten du ezbehar kopurua nabarmen jaitsi dela eraikuntzan (-%24,2) eta industrian (-%8). Hauen ondoren, zerbitzuen

sektorea dator (-%7,2) eta neurri apalagoan nekazaritza (-%0,3).

Kopuru hauek harremanetan jartzen baditugu sektore bakoitzak duen lan bolumenarekin, bilakaera antzekoa da: istripu indizeak gora egiten du 32,7 mila langileko (milako 35,9 2010ean, beraz, %8,9 gutxiago). Jaitsierarik handiena eraikuntzan (-%18,5) eta industrian. Azken honen kasuan, %7,5 jaitsi da, sektoreko mila langileko 51,2 istripuak arte. Aitortutako laneko gaixotasunei dagokienez, 2011n laneko ezbehar guztien %2,93, azken urteetako bilakaeraren azterketa jakinarazpen sisteman ezarritako aldaketek baldintzatzen dute; hortaz, 2008an aurreko urtearekiko erregistratutako +%113,1 kontuz hartu behar da. Horren ondoren, 2009an %31 jaitsi ziren eta 2010ean %2,4. Azken urtean guztira 1.028 lan gaixotasun erregistratu dira, aurreko urtean baino %1,2 gutxiago.

Autonomia Erkidego bakoitzeko Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak kalkulaturiko lanaldiko istripu kopuruak<sup>3</sup> erakusten du 2011n Balear Uharteek eta ondoren Asturiasek zituztela kopuru handienak. EAEko indizea 3.716 da (-%10 aurreko urtearekin alderatuz gero). Termino absolutuetan estatuko batezbestekoaren gaitetik kokatzen da. Hala ere, ehunekoetan izan duen jaitsiera (-%8,6) estatukoa baino handiagoa da.

Beste alde batetik, kontratu motaren arabera lan istripuen datuek adierazten dute ezbehar kopurua ia bikoitza dela


#### II.6.15. Koadroa. Laneko ezbeharren bilakaera EAE-n: laneko baja duten langile kaltetuak

	Lanaldiko istripuak								In itinere	Gaix. Prof.	Guztira
	Guztira	Larritasuna			Sektoreak						
		Arinak	Larriak	Heriotzak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2007	43.934	43.548	335	51	916	17.956	7.963	17.099	4.783	726*	49.443
2008	44.437	44.115	275	47	896	18.327	7.659	17.555	4.656	1.547	50.640
2009	35.200	34.932	233	35	718	12.996	6.274	15.212	4.008	1.067	40.275
2010	34.110	33.849	225	36	667	12.455	5.770	15.218	4.002	1.041	39.153
2011	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.372	14.124	3.384	1.028	35.040
09/10 aldak. %	-3,1	-3,1	-3,4	2,9	-7,1	-4,2	-8,0	0,0	-0,1	-2,4	-2,8
10/11 aldak. %	-10,2	-10,2	-11,6	2,8	-0,3	-8,0	-24,2	-7,2	-15,4	-1,2	-10,5

Iturria: OSALAN.

(\*) Gaixotasun profesionalak jakinarazteko sistema berria zorrotzagoa da: egun mutualitateek egiten dute (lehen, aldiz, enpresek eurek).

#### II.6.9. Grafikoa. 1.000 langileko gertatzen diren istripuen indizea jardura-sektoreka. EAE



Iturria: OSALAN eta EUSTATen datuekin egindakoa.

<sup>3</sup> Istripu kopurua 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzaren lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutakoaren kopuruaren arteko zatidura bezala kalkulatzen da.

**II.6.16. Koadroa. Autonomia Erkidego bakoitzean lanaldian bajaran egotea eragin duten istripuen indizea**

	2008	2009	2010	2011*	09/10 ald.	10/11 ald.
Estatua	5.069	4.131	3.765	3.440	-8,9	-8,6
Andaluzia	5.132	4.041	3.592	3.326	-11,1	-7,4
Aragoi	4.743	3.492	3.361	3.103	-3,8	-7,7
Asturias	5.963	5.166	4.837	4.362	-6,4	-9,8
Balear Uharteak	6.614	5.270	4.937	4.672	-6,3	-5,4
Kanariar Uharteak	5.616	4.653	4.304	4.081	-7,5	-5,2
Kantabria	4.977	3.825	3.393	3.176	-11,3	-6,4
Gaztela-Mantxa	6.370	4.943	4.466	4.044	-9,7	-9,4
Gaztela-Leon	5.244	4.262	3.897	3.407	-8,6	-12,6
Katalunia	4.943	4.202	3.760	3.403	-10,5	-9,5
Valentziar Erk.	4.671	3.660	3.368	3.094	-8,0	-8,1
Extremadura	4.659	3.849	3.423	3.029	-11,1	-11,5
Galizia	5.613	4.714	4.254	3.695	-9,8	-13,1
Madril	4.444	3.677	3.427	3.180	-6,8	-7,2
Murtzia	4.676	3.908	3.555	3.337	-9,0	-6,1
Nafarroa	5.096	4.143	3.812	3.580	-8,0	-6,1
<b>EAE</b>	<b>5.449</b>	<b>4.441</b>	<b>4.129</b>	<b>3.716</b>	<b>-7,0</b>	<b>-10,0</b>
Araba	6.072	4.819	4.540	4.004	-5,8	-11,8
Gipuzkoa	5.361	4.226	3.905	3.585	-7,6	-8,2
Bizkaia	5.289	4.444	4.126	3.697	-7,2	-10,4
Errioxa	5.129	4.311	3.927	3.645	-8,9	-7,2
Ceuta	5.653	5.151	4.798	3.403	-6,9	-29,1
Melilla	4.534	4.201	3.749	3.626	-10,8	-3,3

Iturria: Lan eta Giz. Seg. Ministerioa, Lan istripuen estatistikak.  
(\*) Datuen aurreratzea.

aldi baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino.

Hori erakusten dute 2010 urteari dagozkion Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren azken datuek. Zehatz-mehatz, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbehar indizea %35,1ekoa da; aldiz, aldi baterako kontratua duten pertsonen gertakari tasa %65,1ekoa da. Edonola ere, sektore, adin talde bakoitzeko eta okupazio motaren arabera gertatzen diren istripuen banaketa ezagutu behar da behin-betiko ondorioak ateratzeko.

**6.4. Lan harremanak**

**6.4.1. Lan gatazkak**

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2011n zehar guztira 240 greba erregistratu dira EAEn. Greba hauek 18.640 parte-hartzaile izan dituzte eta guztira lan egin ez diren 83.935 lanaldi eragin dituzte. Kopuru hauek erakusten dute urte arteko jaitsiera gertatu dela, %19,5, %51,1 eta %53,2, hurrenez hurren. Kopuru hauei dagokienez, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) ohartarazi du datu hauek ez dutela barne hartzen 2010eko eta 2011ko greba orokorren datuak, ezta sektore publikoak zein 2010ean Gipuzkoako metalaren sektoreak deitutako grebak, hauei buruzko informaziorik ez dutelako.

Datu hauek kontuan hartuz, EAEko lan gatazken murrizketa ez da gertatu modu homogeneoan erkidegoko hiru probintzietan. Horrela, Bizkaian eta Gipuzkoan grebak murriztu dira, Araban kontrakoa gertatu den bitartean. Lurraldeen arteko aldakuntzak partaide kopuru eta greba

**II.6.17. Koadroa. Kontratuaren arabeko ezbeharren bilakaera EAE-n**

	2007	2008	2009	2010	08/09%	09/10%
<b>Kontratu mugagabeak</b>						
Soldatapekoak (BJA)	611.300	630.000	622.000	607.200	-1,3	-2,4
Bajadun istripuak	24.565	25.221	21.823	21.291	-13,5	-2,4
Ezbehar tasa (milakoetan) (A)	40,2	40,0	35,1	35,1	-12,3	-0,1
<b>Aldi baterako kontratuak</b>						
Soldatapekoak (BJA)	169.200	167.300	146.500	158.200	-12,4	8,0
Bajadun istripuak	18.735	16.988	11.183	10.306	-34,2	-7,8
Ezbehar tasa (milakoetan) (B)	110,7	101,5	76,3	65,1	-24,8	-14,6
B / A	2,75	2,54	2,17	1,86		

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren "Lan istripuen estatistika" eta EUSTAT "BJA"ren datuekin guk egindakoa.

**II.6.18. Koadroa. Greba kopurua, kaltetutako langileak eta galdutako lanegunak EAE-n**

		2008	2009	2010	2011*	2009/10 %	2010/11 %
Araba	Grebak	54	55	59	67	7,3	13,6
	Partaideak	4.793	2.626	2.392	4.755	-8,9	98,8
	Lanegunak	8.910	14.185	10.361	10.095	-27,0	-2,6
Bizkaia	Grebak	107	141	144	104	2,1	-27,8
	Partaideak	27.182	16.342	20.092	9.462	22,9	-52,9
	Lanegunak	41.998	60.498	85.960	44.235	42,1	-48,5
Gipuzkoa	Grebak	71	84	95	69	13,1	-27,4
	Partaideak	9.208	8.149	15.606	4.423	91,5	-71,7
	Lanegunak	22.861	51.501	83.198	29.605	61,5	-64,4
EAE	Grebak	232	280	298	240	6,4	-19,5
	Partaideak	41.183	27.117	38.090	18.640	40,5	-51,1
	Lanegunak	73.769	126.184	179.519	83.935	42,3	-53,2

Iturria: LAN HARREMANEN KONTSEILUA.  
\* Behin-behineko datuak.

lanegunen araberakoak dira: Bizkaian eta Gipuzkoan nabarmen murrizten dira, Araban murrizketa oso txikia den bitartean.

Beste guztien artean lan hitzarmenari buruzko desadostasunak nagusitu dira aurten berriro ere (greben %35, partaideen %47,1 eta lan egin gabeko lanegunen %56), "beste arrazoi batzuk" izenaren pean bildutako grebak eragin dituzten arrazoiek garrantzi gero eta handiagoa izan arren, batez ere krisi ekonomikoko egoerari eta enplegu erregulazioari (greben %27,8) eta soldatak ez ordaintzeari (%14,6) lotutakoak.


Estatu osoan ere greben kopurua murriztu da 2011n. Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren datuen arabera, gatazkak (guztira 777) %21 murriztu dira eta parte hartzaileen kopurua %34,9. Halaber, lan egin gabeko lanegun kopurua, guztira 485.054 izanik, %27,8 jaitsi da. Kontuan hartu behar da, hala eta guztiz ere, EAERI dagokion informazioarekin gertatu bezala, datu hauen barnean ez dagoela herri administrazioaren sektoreak deitutako grebari, unibertsitateaz kanpoko bitarteko irakasleen grebari eta 2010eko irailaren 29ko greba orokorrari buruzko informaziorik.

#### 6.4.2. Negoziazio kolektiboa: Soldata igoera eta lansaila

2011ri buruzko LHKen "Negoziazio Kolektiboaren Balantzea"ren arabera, urte horretan zehar gure erkidegoko langileen %76,6ri eragiten dioten hitzarmen kolektiboak berriztatu behar lituzketen. Portzentaje hau 2010eko bano zertxobait txikiagoa da (%77,1). Orobat, aurten ere negoziazio prozesuak zailak izan dira, izan ere, hamabi hilabeteetan zehar langileen %17,3rentzako hitzarmenak baino ez dira erregistratu, hau da, negoziatu behar zenaren laurdena baino gutxiago.

Hitzarmen kolektibo berriturik lortu ez duten negoziazio kolektiboaren mendeko langileak %59,3 izan dira urtearen amaieran (2010ean %60,6). Halarik ere, LHKak ohartarazi du indarrean dauden eraginkortasun mugatuko hitzarmenak kontuan hartuko balira, langileen %9,6an eragina izan dezaketena, portzentaje hau %49,7 arte murriztuko litzatekeela.

#### II.6.10. Grafikoa. EAEko lan-gatazken bilakaera




Iturria: LHKren datuekin egindakoa.

Beste alde batetik, 2011ko abendura arte eraginkortasun mugatuko 5 hitzarmen sartu ziren, berariazko iraunaldia 2011 izanik (metala, osasun establezimendu pribatuak eta Bizkaiko anbulantziak eta okindegiak eta Gipuzkoako adinekoentzako egoitzak) eta estatuz kanpoko enpresa itun bat, Basauriko Sidenor enpresarena (Bizkaia). Hitzarmen eta itun hauek guztiek 56.854 pertsona ingururengan lukete eragina, hitzarmen kolektiboaren mendeko langileen %9,6 inguru.

2008tik hona, negoziazio kolektiboa ia geldiarazi da. Milioi erdi pertsona inguru daude hitzarmenik gabe Euskadin, estatuko hitzarmenetara eta sektore publikora atxikitakoak barne. Horrez gain, 300.000 langile baino gehiagok urte bete edo gehiago daramatzate lan baldintzak erabaki barik.

Laburbilduz, 2011 urtearen amaieran, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera (2011/12/31ra arte erregistraturiko hitzarmenak), berritutako 498 hitzarmen

#### II.6.11. Grafikoa. EAEn egindako hitzarmenen mendeko pertsonak. Datuak ehunekoetan



Iturria: LHK.

daude guztira, 241.943 pertsonengan eragina dutenak (horietatik %71,1 sektoreko hitzarmenen mende daude eta gainerako %28,3 enpresako hitzarmenen mende). Gainera, beste 578 hitzarmen daude berritzeke, 352.464 langileri eragiten dizkietenak.

Guztira, 2011rako adostutako batez besteko soldataren igoera %3,16 da (%3,63 gure erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetan eta %2,13 EAE-n eragina duten estatuko hitzarmenetan). Halaber, enpresetako hitzarmenetan soldataren igoera %2,78 izan da eta sektoreen hitzarmenetan %3,30. Oro har, goranzko bilakaera nabarmena ikusi da 2011rako adostutako soldata igoeretan aurreko urtearekin alderatuz gero (%3,16, %2,12ren aurrean), EAEko hitzarmenetan nagusiki aurreko urteko KPI hartu zelako erreferentzia (2011ko abenduko urtetik urterakoa %2,8 izan zen, 2009ko %1aren aurrean). KPIren bilakaeraren arabera soldatak bermatzeko edo berrikusteko klausulen egokitzapenei dagokienez, batez beste 0,26 puntuko eragin positiboa kalkulatu da.

Beste alde batetik, EAEko herri administrazioen zerbitzura dauden funtzionario publikoen soldatek %2ko jaitsiera izan du 2011n, 2010ean onartutako gastua murrizteko neurrien eraginez. Bukatzeko, berritzen ari diren hitzarmenek azken urteetan lanaldia murrizteko joera arinki alderantzikatu dute. Lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea, esanguratsua bada ere (%16,8), 2010ekoa baino handiagoa da (%14,4). EAE-n eragina duten berritutako hitzarmen guztietan, urtero batez beste 0,8 ordu gutxiago adostu dira (2010ean 0,6), EAE-n eskusiboki erregistratutako hitzarmenetako balio berak. Horren ondorioz, EAEko lan hitzarmenetatik hartutako datuek (EAE-n eragina duten hitzarmenez ari

gara, gure erkidegoan erregistratuta egon barik) batez beste urtean 1.690 orduko lanaldia ezarri dute, eta EAE-n erregistratutako hitzarmenei dagozkienek, 1.683 ordukoak, 2010eko kopuru berak.

## 6.5. EAE-ko soldatak

### 6.5.1. 2009ko Soldata egiturari buruzko inkestaren emaitzak

EINen "Soldata egiturari buruzko urteko inkesta" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen arabera soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa, soldata egituraren inkesten bidez hain zuzen, eta gainera, 10 edo langile gehiagoko enpresena baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturriren administrazio erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo zerga agentziak, eta baita EINen beraren lan kostuari buruzko hiru hilez behingo inkestaren zati bateko informazioa ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinak dira, hau da, PFEZaren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko zergak kendu gabe.

Inkesta honen arabera, 2009an EAE-n urteko batez besteko irabaziaz 26.162 € ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta %2,4 hazi zen (2007 eta 2008 urteen artean +%6,9). Kopuru hori estatuko batezbestekoa baino %16,2 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondotik Madril dago. Soldata gordin hori 28.890 eurokoa zen gizonezkoentzat eta 22.502 eurokoa emakumezkoentzat, hortaz, generoen artean %28,4ko aldea dago. Alde honek 1,5 puntuko jaitsiera izan du azken urtean (2008an %29,9koa zen), izan ere, gizonen soldata emakumeena baino gutxiago hazi da (+%2,2 eta +%3,4, hurrenez, hurren).

Jardueren sektoreetako soldatei dagokienez, altuenak industriaren jardueran ematen dira, EAE-n zein Estatu osoan, Soldaten egiturari buruzko inkestak erakutsi

### II.6.19. Koadroa. 2010 eta 2011 urteetarako EAE-n adostutako soldaten igoerak

	Igoera berrikuspen klausularik gabe		Berrikuspen klausulen eraginak		Soldaten igoera guztira	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Araba	1,81	2,49	0,93	0,65	2,74	3,14
Bizkaia	1,84	3,80	0,41	0,14	2,24	3,94
Gipuzkoa	1,51	3,50	0,02	0,00	1,53	3,50
Lurralde artek.	0,35	1,29	0,01	0,03	0,36	1,32
EAE-n erregistr.	1,62	3,47	0,30	0,16	1,92	3,63
Estatua	1,21	1,63	1,27	0,50	2,48	2,13
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>1,47</b>	<b>2,90</b>	<b>0,65</b>	<b>0,26</b>	<b>2,12</b>	<b>3,16</b>

Iturria: LHK.

### II.6.20. Koadroa. EAE-n adostutako lanaldiaren murrizketa. Orduak/urteko.

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Araba	4,2	3,9	1,6	1,1	0,3	0,7
Bizkaia	3,2	3,1	1,5	0,7	-0,2*	0,7
Gipuzkoa	3,4	1,1	1,6	1,6	1,1	0,5
Lurralde artek.	7,1	3,3	9,7	1,5	2,9	2,9
EAE-n erregistr.	3,6	2,5	1,8	1,2	0,6	0,8
Estatua	1,2	1,1	0,6	0,9	0,5	0,8
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>2,9</b>	<b>2,2</b>	<b>1,5</b>	<b>1,2</b>	<b>0,6</b>	<b>0,8</b>

Iturria: LHK.

\* E-mailza horrek adostutako lanaldiaren urteko 0,2 orduko hazkundea eragin zuen Bizkaian.

### II.6.21. Koadroa. Urteko batez besteko irabaziaz langile bakoitzeko (euroak). 2008-09

	2008	2009	08/09 ald.
Estatua	21.883	22.511	2,9
Andaluzia	20.139	20.906	3,8
Aragoi	21.594	22.134	2,5
Asturias	21.806	22.598	3,6
Balea Uharteak	20.388	21.070	3,3
Kanariar Uharteak	18.467	18.926	2,5
Kantabria	20.378	20.870	2,4
Gaztela-Leon	20.218	21.037	4,1
Gaztela-Mantxa	19.736	20.229	2,5
Katalunia	23.376	23.851	2,0
Valentziar Erkidegoa	19.794	20.490	3,5
Extremadura	18.265	19.100	4,6
Galizia	19.156	19.807	3,4
Madril	25.270	25.861	2,3
Murtzia	18.912	20.430	8,0
Nafarroa	23.343	23.658	1,3
<b>EAE</b>	<b>25.547</b>	<b>26.162</b>	<b>2,4</b>
Errioxa	20.674	21.180	2,4

Iturria: EIN. Soldata egiturari buruzko inkesta.



**II.6.22. Koadroa. Sektoreka langile bakoitzaren urteko batez besteko irabaziak, EAE eta Estatuak (euro/urteko).**

	Sexu biak			Emakumeak			Gizonak		
	2008	2009	Ald. %	2008	2009	Ald. %	2008	2009	Ald. %
<b>EAE</b>									
Sektore guztiak	25.547	26.162	2,4	21.766	22.502	3,4	28.264	28.890	2,2
Industria	28.670	28.585	-0,3	24.062	24.502	1,8	29.781	29.469	-1,0
Eraikuntza	25.376	25.346	-0,1	23.139			25.729	25.770	0,2
Zerbitzuak	24.248	25.324	4,4	21.377	22.260	4,1	27.785	29.213	5,1
<b>Estatua</b>									
Sektore guztiak	21.883	22.511	2,9	18.911	19.502	3,1	24.203	25.001	3,3
Industria	24.036	24.453	1,7	19.343	20.028	3,5	25.652	25.915	1,0
Eraikuntza	20.707	21.775	5,2	19.873	20.011	0,7	20.845	22.067	5,9
Zerbitzuak	21.557	22.171	2,8	18.820	19.430	3,2	24.621	25.369	3,0
<b>EAE/Estatua %</b>									
Sektore guztiak	116,7	116,2	-0,4	115,1	115,4	0,2	116,8	115,6	-1,0
Industria	119,3	116,9	-2,0	124,4	122,3	-1,7	116,1	113,7	-2,1
Eraikuntza	122,5	116,4	-5,0	116,4			123,4	116,8	-5,4
Zerbitzuak	112,5	114,2	1,5	113,6	114,6	0,9	112,9	115,2	2,0

Iturria: EIN. Soldata egiturari buruzko inkesta..

**II.6.23. Koadroa. Urteko batez besteko irabaziak sexuaren eta kontratu motaren arabera, EAE eta Estatuak 2008-09**

	Sexu biak			Emakumeak			Gizonak		
	2008	2009	Ald. %	2008	2009	Ald. %	2008	2009	Ald. %
<b>EAE</b>									
Guztira	25.547	26.162	2,4	21.766	22.502	3,4	28.264	28.890	2,2
Iraunaldi mugagabea	27.477	27.705	0,8	22.759	23.217	2,0	30.794	30.997	0,7
Iraunaldi mugatua	19.234	20.806	8,2	18.684	20.118	7,7	19.658	21.347	8,6
Iraunaldi mugag./mugat. %	42,9	33,2		21,8	15,4		56,7	45,2	
<b>Estatua</b>									
Guztira	21.883	22.511	2,9	18.911	19.502	3,1	24.203	25.001	3,3
Iraunaldi mugagabea	23.544	23.980	1,8	20.008	20.383	1,9	26.329	26.961	2,4
Iraunaldi mugatua	16.204	16.701	3,1	15.069	15.997	6,2	17.063	17.279	1,3
Iraunaldi mugag./mugat. %	45,3	43,6		32,8	27,4		54,3	56,0	

Iturria: EIN. Soldata egiturari buruzko inkesta.

bezala. Zehazki, sektorearen urteko batez besteko irabaziak 28.585 eurokoak dira gure erkidegoan (2008 urteari dagokionez  $-0,3$ ), batez beste 29.469 € gizonezkoentzat eta 24.502 emakumezkoentzat. Industriako batez besteko soldata hori estatu osokoa baino %16,9 altuagoa da. Estatuan ere generoen arteko aldeak daude.

Ondoren, eraikuntzaren sektoreko soldatak dira altuenak (urtean batez beste 25.346 € EAEn, 2008an baino %0,1 gutxiago), gainera, estatuko batezbestekoa baino altuagoak dira hauek ere, %16,4 zehatz-mehatz. Azkenik, zerbitzuen sektoreko batez besteko soldata 25.324 eurokoa da (+%4,4 aurreko urtearekiko). Estatuko batezbestekoetatik hurbilago daude balio hauek (%14,2 gainetik).

Beste alde batetik, langile bakoitzaren batez besteko irabaziak kontratu harreman motaren arabera ere aldatzen dira. Gauza logikoa da, enpresako antzinatasunagatik jasotzen diren ordainsariek gora egiten dutelako. Zehazki, urteko batez besteko soldata gordina %33,2 altuagoa da kontratu mugagabea duten langileentzat, aldi baterako kontratua duten langileentzat baino. Aldea, gainera, gizonen artean altuagoa da (%45,2) emakumeen artean baino (%15,4).

**6.5.2. Lan kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak, 2010**

“Lan kostuari buruzko urteko inkesta” langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINen bigarren estatistika da. “Lan kostuaren hiru hilez behingo inkesta”ren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzera ahalbidetzen du. Horien artean, “lansarien eta soldaten” partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata egituraren inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko zergak kendu aurretik. 2010eko lan kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan kostu gordina 36.057 € dira; horietatik %73,53 “lansariei eta soldatei” dagokie, hau da, 26.513 €. Batez besteko soldata hori estatuko batez bestekoa baino %17,6 handiagoa da eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da. “Lansarien eta soldaten” partida 2002tik etengabe hazi da. 2010ean aurreko urtearekin alderatuta %2 hazi zen, estatuko batezbestekoaren aurrean, +%0,9.

**II.6.24. Koadroa. Lan kostua langile eta urte bakoitzeko, datuak Erkidego Autonomoen eta kostuaren osagaien arabera. 2010.**

	Kostu godina	Lansariak eta soldatak	Ezinbesteko kotizazioak	Borondatezko kotizazioak	Zuzeneko gizarte prestazioak	Beste batzuk (1)	Diru laguntzak eta dedukzioak	Kostu garbia	Soldaten % guztira
Estatua	30.820	22.541	6.807	217	323	932	278	30.541	73,14
Andaluzia	28.409	20.641	6.416	170	310	873	260	28.149	72,66
Aragoi	29.821	21.779	6.784	172	275	810	286	29.535	73,03
Asturias	30.718	22.620	6.995	311	271	522	323	30.395	73,64
Balearr Uharteak	29.109	21.241	6.473	164	255	976	235	28.874	72,97
Kanariar Uharteak	26.015	18.656	6.005	141	262	950	245	25.770	71,71
Kantabria	28.501	20.704	6.616	141	356	685	270	28.232	72,64
Gaztela-Leon	28.363	20.588	6.485	192	287	713	240	28.123	72,94
Gaztela-Mantxa	27.440	19.997	6.279	151	275	738	194	27.246	72,88
Katalunia	32.952	24.169	7.227	205	325	1.025	291	32.661	73,35
Valentziar Erkidegoa	27.578	20.103	6.324	151	231	769	299	27.279	72,90
Extremadura	26.185	19.199	5.999	127	208	653	327	25.858	73,32
Galizia	27.409	19.986	6.255	186	298	684	287	27.121	72,92
Madril	35.505	26.122	7.237	332	402	1.412	268	35.237	73,57
Murtzia	28.557	20.918	6.486	137	330	685	227	28.330	73,25
Nafarroa	32.422	23.725	7.550	168	324	656	357	32.065	73,18
EAE	36.057	26.513	7.997	386	492	669	377	35.680	73,53
Errioxa	28.840	21.162	6.591	204	292	592	254	28.586	73,38

(1) Beste batzuk: Kaleratzeengatik kalte ordainak, lanbide heziketaren eta garraioaren gastuak, gastu sozialak, kontratuaren amaierako kalte ordainak, konpentsazio ordainketak, erremintak, laneko arropa eta beste gastu batzuk biltzen ditu. Dietak eta bidaiak gastuak kanpo uzten ditu.  
Iturria: IEIN: Lan kostuen urteko inkesta 2010.

**6.6. Enplegu politikak**

**6.6.1. Enplegu politika aktiboak**

Lan politiken barruan honakoak sartzen dira: atal honetan landuko ditugun politika aktiboak, langabetuek lana lortzera eta daukatenek hari eustera daude zuzenduta; politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikora zuzenduak, eta hauek EAEko Memoria Sozioekonomikoko argitalpen honetan landuko ditugu Lan merkatuari buruzko kapituluaren lehendabizikoz (6.6.2.), izan ere, "Gizarte babesia EAEn" kapituluaren zatia izan ohi da.


**(a) Arau berriak**

Lehenengo eta behin, nabarmendu nahi dugu lan esparruko legeek agindu bezala, 2011ko urtarrilaren 1ean zenbait funtzio eta zerbitzu transferitu zitzaizkion EAEko Autonomia Administrazioari, hau da, enplegua eta enplegua lortzera bideratutako lanbide heziketari dagozkion eskumenak transferitu zitzaizkion eta eginkizun hauek LANBIDEK-Euskal Enplegu Zerbitzuak hartu zituela bere gain.

Kontzertu ekonomikoko erregimenarekin bat etorritik, hitzarmen honek estatu mailan kontzertuari lotutako kargaren balorazioa dakar berekin, hau da, 472 milioi euro. Hitzarmen honetan, egozte indizea (gaur egun %6,24 dena) ezartzeko mekanismoak aurreikusten dira, baita hobarien bitartez antolatzen diren transferitutako jarduera eta programa publikoen finantzaketa autonomikoa ere. Langileei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministeriotik 491 lanpostu transferitzea dakar honek. Lanpostu hauen artean, 18 Itsasoko Gizarte Institutuari dagozkio eta gainerakoak EEZPei (garai bateko EIN). Zehazki, ondorengo gaiei lotutako betearazpen funtzioak transferitu dira:

1. *Laneko bitartekaritza*: Funtzio hauen helburua lan eskaintzak eta lan eskatzaileak harremanetan jartzea da,

**II.6.12. Grafikoa. Lan-kostuen "lansariak eta soldatak" kontusaileko zenbatekoa langileka eta urteka. EAE-Estatua konparaketa**



Iturria: INE, Lan-kostuari buruzko Urteko Inkesta.

azken hauek lan munduan sartze aldera. Eginkizunen artean hauek bereiz ditzakegu: eskatzaileen inskripzioa eta erregistroa egin eta EAEn mugatzen diren lanpostu agentzien baimen eta funtzionamendua.

2. *Enpleguarekiko sustapen eta babesia*: Hitzarmen honen bitartez, EAEko Administrazioak honako egitekoak bere gain hartzen ditu: enplegurako politika aktiboaren programak garatu, helburu horretarako diru laguntzak eta laguntzak oro har esleitu, ezgaitasunen bat duten pertsonen laneratzeari, Enplegu Zentro Berezien kalifikazioa eta eskola-tailerren, lanbide etxeen eta enplegu tailerren programak gauzatu.

Atal honen barnean, gizarte kuoten hobari erregimenaren bitartez egindako kontratazioarako pizgarriak ere transferitu dira, EAEn kokatutako lantokietako langileei eta langile autonomoei lotutako estatuko legegintzak aurreikusitakoarekin bat etorritik. Gizarte Segurantzaren printzipioak ezarriz, erkidegoak Gizarte Segurantzari berdinduko dio aipatutako hobarien kostua.

**3. Lanerako lanbide prestakuntza:** Transferitu dira eskola-tailer, lanbide etxe eta enplegu tailerren eraketa eta zuzendaritza, baita dagozkien profesionaltasun ziurtagiriaren homologazio eta ziurtagiriak egitea. Langabetuei zuzendutako prestakuntza programak eta enplegu-prestakuntza programa publikoak ere hartzen ditu EAEk bere gain.

Era berean, EAEn kokatutako lantokiei dagokienez lanbide heziketa kuotetan enpresei ezarritako hobarien bidez finantzatutako eskaera prestakuntzaren jarraipena ere transferitu da.

Beste alde batetik, estatuko testuinguruan nabarmendu behar dugu 2011ko urrian onartu zen *“Espainiako Lan Estrategia 2012-2014”*, estatu osoan enplegu politika aktiboak koordinatzeko eta gauzatzeko marko arauemaile berria. Honen ezarpena EEZPeK eta autonomia erkidegoek burutuko dute. Marko honen bitartez, efikazia eta eraginkortasuna lortzera bideratutako helburu komunak eta koordinazio prozedurak ezartzen dira. Honi esker, estatu osoko pertsona guztiei emango zaien arretaren batasuna, EPArako sarbidean berdintasuna, gizarte kohesioa eta merkatu batasuna bermatuko da, beti ere lurralde bakoitzaren aniztasuna errespetatuz.

Honen helburuak *“Europa 2020”* Estrategiarekiko koherentzia gordez finkatu dira. Helburuak honakoak ditugu: lan merkatuan partaidetza sustatzea eta langabezia murriztea, lanaren behin-behinekotasuna eta segmentazioa murriztea, lanaldi partziala eta enpresen barneko malgutasuna sustatzea, gaitasun profesionalak hobetu eta merkatuaren beharrei egokitzea, pertsonentzako lan merkaturako sarbide azkar eta egokia sustatzea eta lanean genero berdintasuna bultzatzea. Horretarako arreta pertsonalizatu eta bereziko eredia diseinatu da. Honen bitartez, lehentasunezko arreta jasoko duten taldeak finkatuko dira eta lurralde mailan koordinatu beharreko ekintza eta neurriak ezarriko dira. Aurreikusi da parametro haiei jarraiki estatu mailan urtean batez beste 9,4 milioi pertsoneri eskainiko zaiela arreta eta 24.400 milioi euro eskainiko zaizkiola Estrategia honi, urtean 8.156 milioi euro batez beste.

Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak 2011ko abenduan *“Enpleguaren Euskal Estrategia 2011-2014”* onartu zuen, enpresen lehiakortasuna eta enplegarritasuna hobetzeko, gazteen lana sustatzeko eta hezkuntza-lana trantsizioa hobetzeko. Estrategia honen beste helburu batzuk dira ondorengoak: gizarte kohesioa eta lurraldeen arteko kohesioa indartu talderik ahulenak laneratzeko lagunduz; baliabide teknologikoak, antolamendu, azpiegitura eta prestakuntza baliabideak hobetu, enplegurako zerbitzu eraginkorragoa eskaintzeko; eta enplegu politika aktiboen kontrola eta ebaluazioa bermatu. Honetarako aurrekontu orokorra 1.300 milioi eurokoa izango da eta hauen artean ia 100 milioi zuzenduko dira enplegurako baliabide eta zerbitzuak hobetzera.

Estrategia honen mendean daude zenbait plan zehatz, hala nola LANBIDEren Plan Operatiboa 2012. Plan honen


jarraipena egingo du Memoria honek bere ondorengo argitalpenetan.

### b) EPAren kopuruak

Ez daukagu gure erkidegoko enplegu politika aktiboen kudeatzaile gisa LANBIDEren jardueraren lehenengo urteko balantzearen daturik (2010era arte eskumen legala estatuarena bazen ere, Eusko Jaurlaritzak hainbat funts bideratzen zuen enplegu eta prestakuntza ekimen eta programei eta LANBIDEk enplegurako bitartekaritza, informazio eta orientazio eginkizunak burutzen zituen). Hala ere, ezagunak dira EEZPen Lanbideen Behatokiak egindako *“Espainiako lan merkatuari buruzko txostenak 2012”*an argitaratutako datuak eta hauen arabera, 2011n EAEn 114.700 pertsona baino gehiago izan ziren bitartekaritza eta aholkularitza jardueren onuradun Enplegu Politika Aktiboen atalean, estatu osoaren %3,4. Pertsona hauen %13,8 Arabakoak dira, %52,8 Bizkaikoak eta gainerako %33,4 Gipuzkoakoak. Hala eta guztiz ere, dokumentuak berak ohartarazten du kopuruak gutxi gorabeherakoak direla eta osatu gabe egon daitezkeela. Zerbitzu hauen erabiltzailearen profil eredian (estatuari buruzko datuak, erkidegoen araberrakoak ez daude eskuragarri) gizon eta emakumeen arteko banaketa orekatua nabarmentzen da. Horrez gain, 25 eta 45 urte bitarteko adin tartekoak dira nagusi, hots, zerbitzu motaren bat hasi edo burutu duten pertsonen %59. Bestalde, 25 urtetik beherakoek zerbitzuen %17,6 burutu dute eta 45 urtetik gorakoek zerbitzuen gainontzeko %23,4.

Orobat, txosten honen arabera, 2011n 6.477 pertsona izan ziren enplegurako prestakuntza ekintzen onuradunak gure erkidegoan. Kopuru hau estatu osoaren %3,1 da. Pertsona hauen %18,2 Araban bizi dira, %63 Bizkaian eta gainerako %18,8 Gipuzkoan. Estatu osoan garatutako prestakuntza jardueretatik, gehienak administrazioaren eta kudeaketaren lanbide taldeari dagozkio (%20,24), jarraian informatika eta komunikazioak kokatzen dira (%16,43) eta azkenik zerbitzu soziokulturalak eta gizartearen mesederako zerbitzuak (%9,25).

**II.6.13. Grafikoa. EAEko EPAei lotutako zerbitzuen pertsona erabiltzaileak. 2011**



Iturria: EEZPen datuekin egindakoa.  
Oharra: Gutxi gorabeherako datuak. Izan ere, ez da Hirutariko Fundazioaren eta EEZPeK zehazten ez dituen gainerako erakundeen informaziorik sartzen.

Enplegurako prestakuntza jardueren erabiltzaileen profila ere antzekoa da. Bitartekaritza eta aholkularitza jardueretan parte hartzen dutenen artean, sexu eta adinaren arabera banaketari dagokionez honakoa esan daiteke: sexuaren arabera banaketa orekatua da eta tarteko adineko pertsonak, 25 eta 45 urte artekoak, dira gehiengoa. Prestakuntza mailari dagokionez, EEZPen txostenak nabarmentzen du pertsonen %45ak derrigorrezko bigarren hezkuntzaren mailako edo maila baxuagoko ikasketak dituela, %14ak batxilergo ikasketak, %25ak lanbide heziketak ikasketak ditu eta %16ak unibertsitateko ikasketak motaren bat egina du.

Beste alde batetik, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak daukan lurraldeen arabera estatistiken datu basetik abiatuta, "enplegua sustatzeko" gastua ezagutu daiteke autonomia erkidego bakoitzeko. Gastu hau aurrekontuen likidazioaren barneko partida generiko gisa azaltzen da.

Informazio honi jarraiki, 2011n Euskadi izan zen prestakuntza, orientazio eta laneratze programei diru bolumen handiena zuzendu zion autonomia erkidegoa termino erlatiboetan (2.883 euro pertsona langabetu bakoitzeko, abenduko langabeziari buruzko datua kontuan hartzen badugu). Kopuru hauek erakusten dute EAEk, estatuan erregistratutako langabeziaren %3,8 duena, funtsen %7,6 erabili zuela (Estatuan 5.500 milioi euro baino gehiago izan ziren). Hortaz, langabetu bakoitzeko gastutako kopurua Espainiako batezbestekoaren ia bikoitza da, hots, 1.464,7 euro pertsona langabe bakoitzeko.

### (c) Etengabeko prestakuntza

Indarrean den araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorio gisa, langileei zuzendutako etengabeko prestakuntza jarduerak EAEn kudeatzen dira Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta estatuko Enplegurako Prestakuntzaren

Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez. Ekintza horien finantzazioa Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik eratorritako funtsen kargura egiten da batez ere, bai administrazio zentralarenak (EEZPei emandakoak) zein Eusko Jaurlaritzarenak, HOBETUZen kasuan.

Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ<sup>4</sup>, EAEn lana duten pertsonen etengabeko prestakuntzaren kudeaketa bere gain hartzen duen organismoa) bidez burutzen diren etengabeko prestakuntza jardueren kasuan, 2010ean (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datu irmoa) 323 espediente kudeatu zituen guztira (ez dira enpresentzako planak burutu), 36.713 langileen prestakuntza ahalbidetuz (2009an baino %45 gutxiago). Horretarako 19,91 milioi euroko diru laguntzak eman ziren (2009an baino %25 gutxiago).

2011ko datuak aurreratzen baditugu, ikusiko dugu 1.417 espediente kudeatu direla enpresen, enpresaburuen eta sindikatuen elkarte eta prestakuntza zentroyen esparruan eta 28,75 milioi euroko diru laguntzak eman direla.

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak sustaturiko langileen etengabeko prestakuntza jardueri dagokionez (enpresa planentzat, sektoreen arteko prestakuntza planentzat, sektoreko prestakuntza planentzat, gizarte ekonomiarentzat eta langile autonomoentzat), 2010ean 149.816 parte hartzaile egon ziren, aurreko urtean baino %19,9 gehiago, 16.246 prestakuntza enpresei esker (2009an baino %28,1 gehiago). Enpresa hauek lan prestakuntzarako erabilgarri zeuden funtsetatik 27 milioi euro erabili dituzte eta beharrezko kuotak ordaindu dizkiote Gizarte Segurantzari. Horrela, prestakuntza ekimen honen prestakuntza estaldura EAEko sektore pribatuko soldatapekoen %22,4 da (BAIren datuekin kalkulaturik), estatuko %22,6ko batezbestekoaren aurrean. Enpresen artean, estaldura tasa %24,1ekoa da (%24,6koa estatuan).

### II.6.25. Koadroa. Autonomia Erkidegoek egindako gastua enplegua sustatzeko 2011.

	ZENBATEK. (euroak milioitan)	Erreg. langabezia 2011 abe.	GASTUA (€/langabetu bakoitzeko)
ESTATUA	5.547,72	3.787.550	1.464,73
Andaluzia	1.139,04	969.152	1.175,3
Aragoi	143,11	101.982	1.403,3
Asturias	145,93	90.537	1.611,9
Balear Uharteak	93,30	98.087	951,2
Kanariar Uharteak	324,02	265.569	1.220,1
Kantabria	67,83	49.273	1.376,3
Gaztela-Leon	294,09	208.475	1.410,7
Gaztela-Mantxa	297,18	225.842	1.315,9
Katalunia	797,10	614.244	1.297,7
Valentziar Erkidegoa	494,21	535.036	923,7
Extremadura	237,16	135.398	1.751,6
Galizia	326,35	258.234	1.263,8
Madril	529,07	488.709	1.082,6
Murtzia	120,10	142.921	840,3
Nafarroa	91,04	46.946	1.939,4
EAE	419,17	145.394	2.883,0
Errioxa	29,02	25.381	1.167,2

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuekin egindakoa.

<sup>4</sup> Enpresa eta sindikatu erakundeen ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzak osatua.

**II.6.26. Koadroa. Hobetuz: 2010eko deialdiaren balantzea behin betiko datuak.**

		Plan mota	Espedienteak	Emandako diru lag. (€)	Partaideak
Langil.	Sektoreen arteko sektore planak	Erakunde sinatzaileak	22	8.155.888	11.929
		Erak. Sinatzailearen sek.	4	577.878	1.304
		Erak. Sinatzaileen sek. Artekua	18	7.578.009	10.625
	Prestakuntza erakunde-autonomo-gizarte ekonomia eta ez sinatzaileen planak	Prestakuntza erakundearen sektorekoa	19	260.274	3.402
		Ez sinatzaileen sek.	34	795.830	2.357
		Modulu kataloagoa	75	6.517.969	7.461
		Gizarte ekonomia	2	231.947	152
		Autonomoak	6	371.050	352
		Prestakuntza erakundearen sek. Artekua	165	3.580.979	11.060
		Guztira	323	19.913.938	36.713

Iturria: Hobetuz.

**II.6.27. Koadroa. EPHF: Enplegurako prestakuntza EAE-n: 2007-2010 Ekitaldietako bilakaera.**

	2007	2008	2009	2010	09/10 ald. %
EAE-N PRESTATUTAKO PARTE HARTZAILEAK	102.744	117.964	124.998	149.816	19,9
Batez besteko prestakuntza orduak	25,7	26,40	28,0	25,8	-7,9
FINANTZAKETA: Erabilitako kreditua (€ milaka)	9,38	12,43	24,57	27,00*	9,9
Enpresa formatzaileak	4.412	7.744	12.687	16.246	28,1
Enpresen estaldura tasa*	6,5	11,30	18,3	24,1	31,7
Langabetuen estaldura tasa ***	15,3	17,50	19,2	22,4	16,7

(\*) Datu estimatua.

(\*\*) GSDOn izena emanda duten enpresa kopuruan oinarrituta kalkulaturiko estaldura tasa, sektore publikoa izan ezik.

(\*\*\*) Langile guztien (sektore publikoa izan ezik) kopuruan oinarrituta kalkulaturiko parte hartzaile prestatuak, BAiren arabera (EIN).

Iturria: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN. HIRUTARIKO FUNDAZIOA.

Parte hartzen duten enpresen profilari dagokionez, 1-9 langile arteko mikroeteak dira. Horrez gain, EAEko enpresa formatzaileek batez beste %35,9 langile dituzte (estatuko batezbestekoa %28,4 da). Bestalde, enpresa bakoitzeko 9 langile prestatzen dira. Prestatutako langileei dagokienez, parte hartzaileen %57,3 gizonak izan dira (%42,7 emakumeak) eta batez besteko adinari dagokionez, gizonena 39,3 urtekoa izan da eta emakumeena 36,5 urtekoa.

Enpresek prestatu dituzte lehenengo eta behin, administrazioko ofizialak (%17,5) eta lehenengo eta bigarren mailako ofizialak (%17) eta bigarrenik, ingeniari eta lizentziatuen taldea nabarmentzen da (gutziokoren %15). Beste alde batetik, kalifikaziorik gabeko langileen prestakuntza parte hartzaileen %6,4ra murrizten da. Hala ere, ratio hau %18ra heltzen da atzerriko langileen kasuan. Prestakuntzaren edukiei dagokienez, enpresen prestakuntza batez ere honako gaiekin lotzen da: administrazioa eta kudeaketa (partaideen %21,5), segurtasuna eta ingurumena (%20,6) eta merkataritza eta marketina (%13). Enpresek gehien eman duten prestakuntza edukia honakoa izan da: Lan arriskuen prebentzioa. Batez beste 22 orduko prestakuntza jaso duten 23.918 langilek hartu dute parte prestakuntza honetan.

**6.6.2. Enplegu politika pasiboak**

Langabeziako prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta horren ondorioz lana galtzen dutenak edo soldatak modu antzekoan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Ordaindutakoaren arabera prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko diru laguntza) daude.

Kontingentzia honengatik langileek eta enpresariak Gizarte Segurantzaren kotizatutakoaren bitartez finantzatutako ordaindutakoaren arabera prestazioen zenbatekoa langabetuaren kotizazio oinarriaren %70ekoa da lehenengo 6 hilabeteetan zehar (gainerako hilabeteetan %60), langabetu bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait mugekin.

Langabeziagatiko diru laguntza familia egoeraren arabera IPREM-en (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2011rako IPREM hileko 532,51 eurotan ezarri zen, aurreko urtean bezala.


**(a) Prestazioen jasotzaileak eta langabeziako estaldura**

2011n langabeziagatiko prestazioen onuradunen batez besteko kopuruak gora egin zuen, EAEn 81.847 pertsona izan ziren, aurreko urtean baino %4,1 gutxiago. Kopuru honek behera egiten duen lehenengo urtea da, jasotzaile kopurua hamar urtez jarraian hazi ondoren, 90. hamarkadan nabarmen murriztu eta gero. Estatuan jasotzaileen taldeak hazten jarraitu du: urtean %4,8 batez beste. Hortaz, estatuko pertsona jasotzaileen artean EAEn duen partaidetza murriztu da %2,6tik %1,9ra.

81.847 pertsona jasotzaileen artean, %46,9 emakumeak dira (hauen kopurua batezbestekoa baino gutxiago jaitzi da, %1,5) eta gainerako %53,1 gizonak (2010 urtearekin alderatuz -%6,3).

Arreta pertsona jasotzaileen hileko bilakaeran jarriz gero, konturaturiko gara tasarik baxuena maiatz-ekainean erregistratu dela. Ondoren, abuztura arte hazi da, hilabete honetan erregistratu baita urteko gehieneko. Azkenengo lauhilekoan tasa orekatu egiten da, joera positibo arin

**II.6.14. Grafikoa. EAEn langabezia prestazioen jasotzaile kopuruaren hileko bilakaera (milakotan) eta erregistratutako langabeziarekiko estaldura tasa**



Iturria: EGSMaren datuekin egindakoa.

batekin. Abenduan 82.820 jasotzaile erregistratu dira, aurreko hilabetean baino %1 gehiago eta 2010eko abenduan baino %0,1 gutxiago.

Aipatutako 2011ko abenduko datuei dagokienez, EAeko pertsona jasotzaileen %62,5ak ordaindutakoaren araberako prestazioak jaso zituen, %34,6k diru laguntzak eta gainerako %2,9k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa. Bestalde, estatuko ordaindutakoaren araberako prestazioen jasotzaile ratioa %47,5ekoa zen, %40,1ekoa diru laguntza eta %7,4 Gizarteratzeko Errenta Aktiboarena. Horrez gain, %7,4k Aldi baterako Nekazaritza Subsidioa jasotzen zuen.

Erregistratutako langabeziaren datuak kontuan izanik, 2011ko abenduan EAeko 100 langabetutik 43k ez zuten inolako prestaziorik jaso (2010ean 39). Bai ordea, ehunetik 57k, eta horien artean 36k ordaindutakoaren araberako prestazioa jaso zuten, 20k subsidioa eta batek bakarrik Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Erregistratutako langabeziarekiko prestazioen estaldura tasak autonomia erkidego bakoitzeko ezberdinak dira. Nabarmentzekoa da Balear Uharteen kasua, non, eskuragarri dauden datuen arabera, langabetu guztiek jasotzen dute nolabaiteko prestazioren bat eta, aldiz, Ceutan eta Melillan langabetuen erdiek baino gutxiagok jasotzen dute prestazioren bat. 2011ko abenduko datuen arabera, estatuko batezbestekoa %66,2 izan

zen (2010eko abenduarekin alderatuta -%7,3). Horrekin alderatuta, EAeko datua baxuagoa da (hilabete horretan erregistraturiko langabetuen %57).

2011ko abenduan ordaindutakoaren araberako langabeziagatiko prestazioen batez besteko zenbatekoa 945,20 euro zen EAEn (urtebete aurrerago baino %0,4 gehiago). Kopuru hori estatu osoko batezbestekoa baino gehiago da (864,70 €, 2010eko abenduarekin alderatuta +%1,3). Beste era batera esanda, onuradun bakoitzeko gastua estatu osokoa baino %10,4 gehiago izan zen EAEn. EAE, Nafarroa, Katalunia eta Balear Uharteak datu horren zerrandan lehenak dira.

**(b) Langabeziaren babeseko gastua eta diru sarrera**

Behin-behineko datuen arabera, EAek 2011n langabezia prestazioei zuzendutako gastua 1.149,63 milioi eurokoa izan zen, 2010ean baino %2 gehiago. Zenbateko hau EAeko BPGd-aren %1,72 da, aurreko urteko ratio bera. Horrez gain, estatuko gastu osoaren %3,8 da, aurreko urteko portzentaje bera. Tasa hau murriztuz joan da 1995etik 2008ra arte, %5,8 zenean. 2009an hazi zen eta 2010 eta 2011n mantendu. Guztizko gastuaren %15,1 Arabako lurraldeari dagokio. Bizkaiari %52,3 dagokio eta Gipuzkoari %32,7, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioak argitaratutako hileko datuen agregatuaren

**II.6.28. Koadroa. Langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen batez besteko kopurua EAE-n**

	ORDAINDUTAKO. ARABERA. PRESTAZIOAK			LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK GUZTIRA*		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
2007	14.982	14.973	29.955	6.521	8.606	15.127	21.503	23.579	45.082
2008	19.053	16.742	35.795	6.427	9.648	16.075	25.480	26.390	51.870
2009	33.011	22.947	60.958	9.938	12.459	22.397	42.949	35.406	78.355
2010	31.011	22.720	53.731	15.397	16.257	31.654	46.408	38.977	85.385
2011	28.632	22.357	50.989	14.841	16.016	30.857	43.473	38.374	81.847
09/10 ald. %	-6,1	-1,0	-11,9	54,9	30,5	41,3	8,1	10,1	9,0
10/11 ald. %	-7,7	-1,6	-5,1	-3,6	-1,5	-2,5	-6,3	-1,5	-4,1

(\*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.

Iturria: EEZP (Prestazioen Zuzendariordeztza) eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

**II.6.29. Koadroa. Autonomia Erkidego bakoitzeko, langabeziagatiko prestazioen gastuaren eta estalduraren adierazleak. Abenduko hilabeteak.**

	Estaldura tasak*			Onuradun bakoitzeko ordaindutakoaren arabera prestazioen batez besteko zenbatekoa (€/hilabeteak)		
	2009	2010	2011	2010	2011	% Var 10/11
Andaluzia	86,8	82,2	73,1	820,5	834,5	1,7
Aragoi	78,4	73,6	64,7	866,4	877,0	1,2
Asturias	72,8	69,2	62,1	866,8	882,1	1,8
Balear Uharteak	111,3	114,6	106,4	896,0	912,5	1,8
Kanariar Uharteak	73,1	69,4	62,7	771,3	785,3	1,8
Kantabria	70,7	67,7	61,3	844,3	843,7	-0,1
Gaztela-Mantxa	68,5	66,3	58,5	812,1	835,2	2,8
Gaztela-Leon	62,9	64,3	59,0	838,2	839,9	0,2
Katalunia	86,0	81,6	73,1	911,1	919,2	0,9
Valentziar Erk.	69,3	65,1	57,5	831,0	843,7	1,5
Extremadura	89,6	88,2	78,8	732,6	760,1	3,8
Galizia	68,1	64,6	60,8	815,6	825,9	1,3
Madril	70,9	66,2	60,4	877,8	882,9	0,6
Murtzia	70,2	67,9	60,6	800,6	829,4	3,6
Nafarroa	77,9	71,3	64,9	953,9	956,5	0,3
EAE	66,8	61,0	57,0	950,2	954,2	0,4
Errioxa	74,7	69,1	60,3	879,2	885,7	0,7
Ceuta	54,8	50,5	45,0	859,8	867,7	0,9
Meliilla	46,4	42,5	36,5	814,0	795,4	-2,3
GUZTIRA	77,3	73,5	66,2	853,2	864,7	1,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin egindakoa.

(\*) Hilabeteak azken egunetan altan zeuden prestazioen onuradunen kopuruan oinarrituta kalkulatu dira estaldura tasak.

**II.6.30. Koadroa. Langabeziagatiko prestazioak EAE-n. 2011ko abendua.**

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Estatua	EAE / Estatua %
Ordaindutakoaren arabera prestazioa	7.829	27.598	16.368	51.795	1.389.973	3,73
Subsidioa	4.447	15.025	9.153	28.625	1.173.916	2,44
Gizarteratzeko Errenta Aktiboa	276	1.327	797	2.400	216.518	1,11
Onuradunak guztira	12.552	43.950	26.318	82.820	2.927.098	2,83
Prestazioen hilabeteko gastua (euroak milaka)	14.243	31.455	51.323	97.021	2.583.948	3,75
Onuradun bakoitzeko ordaindutakoaren arabera prestazioen batez besteko zenbatekoa (€/hileko)*	948,8	967,1	948,1	945,2	864,7	109,31

Iturria: EEZPen datuetan oinarrituta guk egindakoa. EGSM.

(\*) Estatuaren datuek Aldi baterako Nekazaritza Subsidioa barne hartzen dute.

**II.6.31. Koadroa. Langabezia gastuaren eta eezp-en diru sarreraren bilakaera gizarte kotizazioen arabera EAE-n (euroak milioika)**

	2008	2009	2010	2011*	% Var. 10	% Var. 11
Ordaindutakoaren arab. prest. gordinak	424,05	757,23	737,48	679,16	-2,6	-7,9
Langabetuaren ardurapeko Giz. Seg. (-)	20,86	42,15	40,67	36,04	-3,5	-11,4
PFEZaren atxikipean (-)	2,09	2,45	3,39	3,18	38,4	-6,2
Ordaindutakoaren arab. prest. garbiak	401,10	712,63	693,42	639,94	-2,7	-7,7
Langabezia subsidioaren arabera prest.	79,58	110,12	164,90	161,81	49,7	-1,9
EEZPen kotizazioak Giz. Segurantzari	193,31	317,75	325,21	308,66	2,3	-5,1
EEZPen ardurapeko ordaindutako. arab.	168,15	289,81	293,70	279,92	1,3	-4,7
EEZPen ardurapeko laguntzakoak	25,16	27,94	31,51	35,34	12,8	12,2
Langabezia gastua guztira	696,94	1.185,10	1.127,59	1.149,63	-4,9	2,0
EEZP-ENTZAT BILDUTAKO KUOTAK	1.187,94	1.125,88	1.127,62	..	0,2	..
Saldoa	491,00	-59,22	0,03	..		
Diru sarrera / gastua	1,70	1,0	1,0	..		

Iturria: EEZPen eta GSDOaren datuekin egindakoa. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.


\*2011ko kopuruak behin-behinekoak dira..

arabera (beraz, behin-behineko datuak dira, finkatzeke daudenak).

Beste alde batetik, enpresek eta soldatapekoek ordaindutako EEZPentzako kotizazioen arabera diru sarrerak, EAEn Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bildutakoak, 2010ean (eskuragarri dagoen


azken datua) 1.127,62 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean baino %0,22 gehiago. Hortaz, EAEn langabezia kontingentzia estaltzeko sarrera eta gastuen arteko aldea, 2009an negatiboa izan zena prestazioen gastua nabarmen hazi zelako (%70 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta), 2010ean zero saldora igaro da (+30.000 euro, ozta-ozta).

**II.6.15. Grafikoa. Langabeziagatiko prestazioak EAEn: Jasozaile kopuruaren eta gastuaren bilakaera**



Iturria: EEZPen datuekin egindakoa.

**II.6.16. Grafikoa. Langabeziagatiko prestazioen gastua eta diru sarrerak EAEn**



Iturria: EEZP eta EUSTATen datuekin egindakoa.



# 03

BIZI-KALITATEA EAE-n



**MEMORIA**  
EAEko sozioekonomikoa  
2011

# 1 Familiak eta lana, norberaren bizimodua eta familia bateratzeko premiak

## 1.1. Familia-sistemaren bilakaera EAEn

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Jarraian garrantzitsuenak nabarmenduko dira, eta horretarako, kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren "2008ko Familiei buruzko Inkestaren" emaitzak. Datu horiek "Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana" egiteko aurretiazko lan gisa egindako Diagnostikorako erabili dira. Plan hori aurrerago jorratuko dugu. Gai horiei buruz eskuragarri dagoen informaziorik berriena da, eta oso aztergai estrukturala denez, informazio hori erabat indarrean dagoela esan daiteke.

### (a) Familia moten aniztasun handiagoa

2008an EAEn guztira 794.387 familia erregistratu ziren, lau urte lehenago baino %7 gehiago. Euren tipologia aztertuz gero, agerikoa da gunea duen familia etxeak, familien %76,9ak, %6,3 gora egin duela 2004 eta 2008 artean, guztira 610.560 egin arte. Mota horren barruan, garrantzirik handiena mendeko seme-alabak dituzten senar-emazteen familiak dauka, gunea duten familien %46,6, eta familia guztien %35,9. Eta gainera, mota horretako familien kopuruak %9,3 gora egin zuen azken laurtekoan.

Beste alde batetik, 2004 eta 2008 artean lehen oso ohikoak ez ziren zenbait familia-moduk gora egin dute. Lehenengoz, bizi itxaropena luzatzearen ondorioz ezkon-bizitza luzatu egin da eta guraso izandako familien

kopurua handitu da, bestela esateko, seme-alabak emantzipatu eta etxetik kanpo dituzten heldu-bikoteen kopurua, gunea duten familien artean dagoena. Mota horretako familiek 2004rekin alderatuta %25,2 gora egin zuten. 2008an guztien %15,7 ziren; 2004an, berriz, %13,4.

Halaber, %9,4 gora egin du pertsona bakarreko familien kopuruak (familia guztien %18,2 izan ziren 2008). Askotan, 70 urtetik gorako emakume alargunek edo bananduek osatzen dituzte halako familiak.

Bestetik, **familia-loturarik gabeko kide anitzeko familien kopuruak ere egin du gora (+ %17,5)**, hau da, euren artean ahaidetasun-harremanik ez duten bi lagunek edo gehiagok osatutakoena (dena dela, 2008an familia guztien %1,4koa zen euren kopurua). Mota horretako familiak batez ere, immigrazioa areagotzean sortu dira. Euren arteko ahaidetasun-harremanik ez duten lagunek osatutako familietan bizi direnen %39 etorkinak dira, eta ehuneko hori bat dator bi familia-gune edo gehiago dituzten familietan bizi diren atzeritarren ehunekoarekin (%32).


### (b) Familien batez besteko tamaina txikiagoa

EAEko familien batez besteko tamaina 2,68 lagunekoa da 2009an, Eusko Jaurlaritzaren urte hartako "Lan Merkatuko Erroldako" datuekin. Zalantzarik gabe, "familia guztien batez besteko tamaina txikiagotu" egin da modu nabarmenean (kide anitzeko ez-familiarretan izan ezik), seme-alaben batez besteko kopuruak behera egin

III.1.1. Koadroa. EAEko familiak motaren arabera. 2004 eta 2008 arteko bilakaera

Familia motak	2004	2008	% 2004-08 hazkundera	2008ko batez besteko tamaina	Erreferentziako pertsonatzat emakumea dutenak 2008an
1. Kide bakarrekoa	132.184	144.598	9,4	1,00	67,8
2. Kide anitzeko ez-familiarra	9.375	11.011	17,5	2,56	48,3
3. Familiarra gunerik gabe	13.857	13.259	-4,3	2,21	56,7
4. Familiarra gunearekin	574.106	610.560	6,3		
Guraso izan aurretiko ezkontza-familia	53.941	47.080	-12,7	2,11	30,5
Mendeko umeak dituzten gurasodun ezkontza-familia	260.467	284.791	9,3	3,74	23,4
Mendeko umerik ez duten gurasodun ezkontza-familia	89.545	88.486	-1,2	3,38	20,6
Guraso izan osteko ezkontza-familia	99.370	124.377	25,2	2,07	22,1
Mendeko seme-alabak dituen ezkontza osteko familia	34.740	24.724	-28,8	2,87	85,0
Mendeko seme-alabarik ez duen ezkontza osteko familia	30.719	38.814	26,4	2,36	79,5
Mendeko seme-alabak dituen ezkontzarik gabeko familia	4.648	1.522	-67,3	2,74	80,1
Mendeko umerik ez duen ezkontzarik gabeko familia	675	766	13,5	2,36	79,6
5. Gune anitzekoa	13.231	14.949	13,0	5,41	39,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>742.753</b>	<b>794.378</b>	<b>7,0</b>	<b>2,73</b>	<b>37,4</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. 2008ko Familiei buruzko Inkesta, "EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren Diagnostikoaren barruan.

**III.1.1. Grafikoa. EAEko familien banaketaren bilakaera (%), pertsona nagusiaren adinaren arabera**

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta, 2008

duelako eta jaiotza-tasa jaitsi egin delako. Izan ere, nahiz eta 2001etik aurrera suspertu egin zen, ez da nahikoa izan familien batez besteko tamaina ez txikitzeko. Gainera, familien tamaina txikiagotzen duten egiturazko aldaketek ere badute eraginik beherakada horretan —bikote batek osatutako familien edo guraso bakarreko familien kopurua—.

**(c) Familietako erreferentziako kideen ezaugarrien aldaketak**

Eusko Jaurlaritzaren txostenak, lau urterik behin egiten diren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesten datuekin, agerian jarri du 1996 eta 2008 artean gora egin duela 45 urtetik beherako erreferentzia-kidea duten familien proportzioak. 2008an familien %29,8n baino ez da burua 45 urtetik beherako norbait; 1996an, aldiz, %28,2 zen ratio hori. Halaber, euskal familien %32n 65 urtetik gorako norbait da burua. Tasa horrek ere gora egin du, 1996an %28,5 baitzen. Zehazki, bakarrik bizi diren pertsona gehienek (kide bakarreko familiak) 65 urtetik gora dituzte (ia %56); eta %22k, 80 urtetik gora. Hala ere, burua 45 eta 64 urte arteko pertsona bat duten familien proportzioak behera egin du; aldi horretan, %43,3tik %38,2ra jaitsi da (ehuneko 5,1 puntu galdu ditu).

Beste alde batetik, gaur egun oraindik ere gizonak dira familiako erreferentziako pertsonak. Izan ere, erreferentziako pertsonatzat emakumea dutela dioten familiak %37 dira. Hala ere, kontuan hartu behar da egitate horrek ezkontza-oinarriko familiekin daukala zerikusi handiagoa, gainerako familietan emakumeen protagonismoa antzekoa edo are handiagoa delako kide bakarreko familietan (%67,8) edo guraso bakarreko familietan, mendeko seme-alabak dituztenean nahiz ez dituztenean (%80,1 eta %79,6 hurrenez hurren).

Gainera, immigrazioaren ondorioz, familia-buru atzerritarra duten familien kopurua handitu da. Alde horretatik, nabarmendu egin behar da euskal familien %6,4 atzerrian jaiotakoek osatzen dituztela (10etik 8 Europar Batasunekoak ez diren estatuetan jaio dira).

**III.1.2. Koadroa. EAEko adineko pertsonaren bat duten familien ehunekoak. 2008**

Familia motak	65 urtetik gorakoa	80 urtetik gorakoa
1. Kide bakarrekoa	55,9	22,3
2. Kide anitzeko ez-familiarra	20,0	17,1
3. Gunerik gabeko familiarra	59,2	22,1
4. Familiarra gunearekin	:	:
Guraso izan aurretiko ezkontza-familia	2,2	0,0
Mendeko umeak dituzten gurasodun ezkontza-familia	8,6	2,8
Mendeko umerik ez duten gurasodun ezkontza-familia	44,9	11,3
Guraso izan osteko ezkontza-familia	64,7	20,0
Mendeko seme-alabak dituen ezkontza osteko familia	24,7	7,1
Mendeko seme-alabarik ez duen ezkontza osteko familia	76,0	31,5
Mendeko seme-alabak dituen ezkontzarik gabeko familia	22,5	10,7
Mendeko seme-alabarik ez duen ezkontzarik gabeko familia	20,0	0,0
5. Gune anitzekoa	60,4	25,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>35,5</b>	<b>12,3</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. 2008ko Familiei buruzko Inkesta.


**(d) Familietan dauden adingabeen proportzioaren beherakada**

65 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin duen neurrian, EAEko adingabeen ehunekoak behera egin du. 2008an, familien %16,1ek 16 urtetik beherako kideak dituzte (127.100 familia dira, guztira). Horien artean, 3 urtetik beherako adingabeak dituztenak %7,9 dira (63.038 familia). Adingabe gehienak, gainera —zehazki, haien %89,2—, mendeko seme-alabak dituzten gurasodun familietan bizi dira.

**(e) Familietako mendetasun-egoeren gorakada**

Aurreko paragrafoetan azaldu denez, 65 eta 80 urtetik gorako pertsonak gero eta gehiago ageri dira euskal familietan. 2008an, familien %35ek 65 urtetik gorako kideren bat dute; eta %12k, 80 urtetik gorako kideren bat. Pertsona horien agerpena nabaria da mendeko seme-alabarik ez duten familia dibortziatuetan edo hildako bikotekide bat duten familietan (mendeko umerik ez duen ezkontza osteko familietan), emantzipatutako seme-alabak dituzten ezkontza-familietan (guraso izan osteko ezkontza-familietan), gune anitzeko familietan (etxe berean bizi diren bi familia-guneko edo gehiagoko familietan) edo gunerik gabeko familiarretan (bi ahaide edo gehiagoko familietan, baina euren arteko seme-alabatasunik eta ezkontzetan ez dagoenean). Gainera, adina edozein dela ere, euskal biztanleen %6,4k laguntzaren bat behar dute ohiko jarduerak egiteko, osasun-arazoak, ahaldun-urratasuna edo adin handia dutelako (%1,8, zainketa iraunkorra; %2,2, zenbait jardueratarako laguntza; eta %2,4, unean uneko laguntza). Euskal familien %15,7k osasun-arazoengatik arreta behar duen kideren bat dute (gaixotasuna, ahaldun-urratasuna, substantzia psikoaktiboek kontsumoa, adin handia, etab.). Ia ia familia horien erdiak lagun bakar batek osatzen

### III.1.2. Grafikoa. Europako familien batez besteko tamaina. 2009



Iturria: EUROSTAT eta Eusko Jaurlaritza.

ditu (%25), edo emantzipatutako seme-alabak dituzten ezkontza-familiak dira (%22).

#### (f) Guraso bakarreko familien kasua

2008an EAEn guztira guraso bakarreko 65.826 familia daude. Beraz, familia guztien %8,3 dira horrelakoak. Era horretako familien kopuruak behera egin du 2001az geroztik —urte horretan, familia guztien %11,7 ziren horrelakoak—. Hala ere, pisu kuantitatibo handia dute, eta, batez ere, arreta berezia merezi duen eragin kualitatibodun errealitatearen adierazgarri dira. Emakumezko profildun familiak dira. Horien artean, kasuen %80 baino gehiagotan

erreferentziako kidea emakumea da. Hori datu esanguratsua da, familien joera nagusia gizonezko erreferentzia-kidea edukitzea dela kontuan hartuta.

Guraso bakarreko familia horien %40k mendeko seme-alabak dituzte (26.246 familia). Mendeko seme-alabak dituzten familia horien batez besteko tamaina 2,74koa da ezkontza-harremanpean ez dauden familietan; eta 2,87koa, dibortziatuta dauden familietan edo hildako bikotekide bat duten familietan. Mendeko seme-alabarik ez dagoenean, ordea, familiaren batez besteko tamaina 2,36koa da.

Aldi berean, deigarria da mendeko seme-alabarik ez duten guraso bakarreko familietan biztanle atzerritarren proportzioa %63koa izatea. 2008an, guraso bakarreko 10 familiatatik 3k 16 urtetik beherako biztanleak dituzte. Bestetik, EAeko 16 urtetik beherako adingabeen %6 guraso bakarreko familietan bizi dira (%93, dibortziatuta dauden familietan edo hildako bikotekide bat duten familietan).

Gainera, guraso bakarreko 2.091 familiak (horiek guztiak dibortziatuta dauden familiak edo hildako kide bat duten familiak dira) 3 urtetik beherako kideak dituzte. Guraso bakarreko familietan bizi diren 3 urtetik beherako ehunekoak %3,3 da.

Mendeko seme-alabarik ez duten familia dibortziatuak edo hildako bikotekide bat duten familien artean, 10 familiatatik ia 8k 65 urtetik gorako kideren bat dute; eta 10etik 3k, 80 urtetik gorakoren bat. Guraso bakarreko gainerako familietan, 65 urtetik gorako pertsonak gutxiago dira (10etik 2tan, gutxi gorabehera), baita 80 urtetik gorakoak ere (10etik batean ere ez daudelako).

Azkenik, osasun-arazoengatiko arreta (gaixotasuna, ahalmen-urritasuna, substantzia psikoaktiboen kontsumoa, adin handia, etab.) behar duen kideren bat duten familia guztien %12,8 guraso bakarreko familiak dira (8.400 familia inguru). Hain zuzen ere, %64 mendeko seme-alabarik gabeko familiak dira, eta dibortziatuta daude edo hildako bikotekideren bat dago bertan.

### 1.2. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeko beharrianak


Azken urteetan, familien osaerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatatu dute, dakartzan ondorioak direla eta. Ugaltzeko joera duten adinekoen artean laneratze eta igoerekiko kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten

### III.1.3. Koadroa. EAeko guraso bakarreko familiak motaren, biztanleen, batz besteko tamainaren eta erreferentziako kidearen arabera. 2008

Familia motak	Familiak		Populazioa		Batez besteko tamaina	Erreferentziako pertsonatza emakumea dutenen ehunekoak
	Absolutua	%	Absolutua	%		
Mendeko seme-alabak dituen ezkontza osteko familia	24.724	3,1	70.972	3,3	2,87	85,0
Mendeko seme-alabarik ez duen ezkontza osteko familia	38.814	4,9	91.682	4,2	2,36	79,5
Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarreko familia	1.522	0,2	4.178	0,2	2,74	80,1
Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarreko familia	766	0,1	1.806	0,1	2,36	79,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>65.826</b>	<b>8,3</b>	<b>168.638</b>	<b>7,8</b>	<b>2,58</b>	<b>81,1</b>

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2008ko Familiei buruzko Inkesta.

### III.1.3. Grafikoa. EBko herritarrak etxeko lanak egiteko nekatuegi egoten diren maiztasuna, asteko lanorduen arabera



Iturria: EUROFUND.

gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

Emakumeak lan-merkatuan sartzea azken hamarkadetako aldaketarik garrantzitsuenetako bat izan da: 2009an euskal familietako %47k emakume landunak<sup>1</sup> zituzten. Ehuneko hori 1996an %29 zen. Familiako kideen zeregin eta iguripenei, familia antolamenduari edo familia-gunea osatzen duten pertsonen zaintzari zuzenean eragiten dien aldaketa kulturala da, tradizioan emakumeek beren gain hartu dituzten eginkizunak izan direlako.

Inguruabar horiek arazo berriak sortzea eragin dute elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrezanaren inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

EUROFUNDen (Bizi eta lan baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa) *“Bizi Kalitatearen Europako II. Inkestak”* (2007) jakinarazi zuen Europar Batasuneko langileen %48 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen direla astean hainbat alditan. Gainera, grafikoan ageri denez, ordaindutako lanorduak zenbat eta gehiago izan, gero eta handiagoa maiztasun hori. Horrenbestez, astean 48 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonen %20 soilik esaten du aipatu nekea “inoiz ere ez” edo “oso gutxitan” jasaten duela. Halaber, %29k familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lana dela eta, eta %12k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta. Ehuneko

horiek asko aldatzen dira herrien arabera, eta aztertutako hiru adierazleetan Espainian Batasuneko batez bestekoa baino nahiko handiagoak dira (%57, 38 eta 16ko ratioak, hurrenez hurren).

Gizon eta emakumeen enpleguari eta lan ordutegiari lotutako egoerari begira, dirudinez, herrialde askotan gizonak, eta batez ere emakumeek, euren lan hautaketak norberaren egoeretara egokitzen dituzte (adibidez, lanaldi osoko edo partzialeko lanaren artean hautatuz). Ordaindutako ordu gehien lan egiten duten pertsonak diotenez arazo handiagoak dauzkate bizitza eta lana bateratzeko. EBko langileen laurdenek baino gehiagok uste dute denbora gehiegi ematen dutela lanean; hori maizago gertatzen da gizonen artean emakumeen artean baino.

Orokorrean, europarrak asetasun txikiagoa dute familiari emandako denborarekin lanean emandako denborarekin baino, eta egokituago dago familia bizitza lan eskakizunei lan antolakuntza familiar baino. Alde handiak daude herrien artean. EUROFUNDen inkestaren arabera, iparraldeko herrietan, Beneluxen eta Frantzia, nahi den oreka lortzeko ezintasunaren arrazoia denbora falta da. Erdi eta ekialdeko Europako herrietan eta Batasunaren kide berrietan, batez ere lanaldi luzeek eragindako nekeak kaltetzen du lanaren eta familia bizitzaren arteko oreka. Ematen du hori errazago lortzen dutela herri anglosaxoietan eta aleman hizkuntzakoetan; azalpena izan daiteke proportzioz gutxiago direlako bikotekide biek diru-sarrerak dauzkaten bikoteak eta ama ezkongabe langileak.

EAEen, EUSTATEk inkesta berri bat jarri du abian, *“EAEen bizi diren familia landunek lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeko”* dituzten aukerak aztertzeko. Urtero egiten den Lana, familia eta norberaren bizitza batera uztartzeari buruzko inkestak duela gutxi bere lehenengo emaitzak aurkeztu ditu, 2010ari buruzkoak.

Lehenengoz, nabarmena da emakumeek seme-alaba adingabeen eta mendeko pertsonen zaintzan ematen dituzten orduak gizonak ematen dituztenak halako bi direla ia-ia. Alde honetan, emakumeen ustez zailtasun txikiagoa dago ordaindutako lana familiarekin eta eremu pertsonalarekin lotzeko eta behar bada horregatik, egunean gizonen ia ordu kopuru bikoitza igarotzen dute seme-alabak eta mendeko pertsonak zaintzen. Gizonak egunean 2,8 ordu ematen dituzte adingabeen zaintzan; emakumeek, aldiz, 4,7. Alde hori nabarmenagoa da mendeko pertsonen zaintzaren kasuan. Jarduera horretan gizonak egunean 1,9 ordu ematen dituzte, eta emakumeek, aldiz, bikoitza baino gehiago (4,3 ordu).

Halaber, agerian jarri du bakoitzak bere gain hartutako zereginen arteko aldeak (aurreko epigrafean aipatu da alde hori) norberaren bizitzarako, aisiarako edo trebakuntzarako duten denborarekiko gogobetetasun mailan eragina duela; izan ere, emakumeen ia laurdenak —%23,9— denbora horrekin pozik ez dagoela adierazi du, baina bost gizonetik batek —%18,4— bakarrik esan du gauza bera. Gogobetetasun maila hain txikia familia eratzen ari diren adinaren inguruan ematen da, hau da, 35 eta 44 urte bitartean; adin horretatik gora, aldiz, gogobetetasun maila hazten doa. Hala ere, nabarmendu behar da emakume langileen gogobetetasuna handiagoa dela seme-alaben zaintzari dagokionez —%71n gogobetetasun handia

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzaren 2009ko Lan Merkatuko Erroldaren aurrerapena.

### III.1.4. Koadroa. Ordaindutako lana eta uztartzeko alderdiak bateratzeko zailtasunaren batez besteko balorazioa (gehienekoa: 10), hainbat aldagairen arabera 2010

	Seme-alaba adingabeak zaintzea	Mendeko pertsonak zaintzea	Etxeko lanak	Kudeaketa burokratikoekin	Norberaren jarduerekin	Orokorrean
<b>Adina</b>						
16 urtetik 24ra	1,2	—	2,5	2,5	2,9	2,7
25 urtetik 34ra	4,0	4,6	2,9	2,9	3,3	3,1
35 urtetik 44ra	4,1	4,0	3,6	3,3	4,0	3,7
45 eta 54 urte bitartean	3,9	4,9	3,2	3,0	3,5	3,3
55 urte eta gehiago	3,6	4,8	2,7	2,7	3,1	2,8
<b>Sexua</b>						
Gizonak	4,2	4,6	3,3	3,0	3,5	3,3
Emakumeak	3,8	4,6	3,0	3,1	3,6	3,2
<b>Ikasketa maila</b>						
Lehen mailakoak edo hortik beherakoak	4,1	4,5	3,0	2,9	3,2	3,1
Ertainak	3,9	4,2	3,1	3,0	3,5	3,2
Goi mailakoak	4,1	5,4	3,3	3,2	3,8	3,5
<b>Lanbide egoera</b>						
Enplegatzaileak	4,5	7,0	4,1	3,5	4,4	4,1
Autonomoak, famili laguntza eta beste egoeraren bat	5,0	4,1	3,9	3,2	4,2	3,8
Kooperatibetako kideak	4,2	5,9	3,6	2,7	4,1	3,5
Sektore publikoko soldatapekoak	3,4	5,0	2,7	2,9	3,0	2,9
Sektore pribatuko soldatapekoak	4,0	4,4	3,1	3,0	3,5	3,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>4,0</b>	<b>4,6</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>3,5</b>	<b>3,3</b>

Iturria: EUSTAT. Lana, familia eta norberaren bizitza batera uztartzeari buruzko inkesta 2010.

da—, baita mendeko senideen zaintzari dagokionez ere —%66,2 ere handia—, gizon landunena baino. Haien gogobetetasun maila, lehenengo kasuan, %61,6ra arte jaisten da, eta bigarren kasuan %51,9ra.

Beste alde batetik, Euskal Aeko pertsona landunen heren batek baino gehiagok —%35,1— esan du zailtasun handiak dituela lana eta mendekotasuna duten senideen zaintza uztartzeko. Zailtasun handia dute, halaber, pertsona landunen %29,6k ere, seme-alaba adingabeak zaindu behar dituenen. Era berean, landunen bosten batentzat, ordaindutako lanean ematen duten denboraren ondorioz oso zaila da haientzat etxeko lanak egitea; are gehiago, lautik batek —%24,4— esan du aisialdiaz edo trebakuntza bezalako beste jarduera pertsonal batez gozatzeko zailtasun handiak dituela.

Gizonek emakumeek baino apur bat zailtasun handiagoak dituzte lana eta seme-alaba adingabeen zaintza uztartzeko —ertaina edo altua %55,1ek eta emakumeen %50,2k— eta lana eta etxeko lanak uztartzeko —%41 eta %38,6 hurrenez hurren—.

Enplegatzaileek eta autonomoek gainerako landunek baino pixka bat zailtasun gehiago dituzte lana eta familia uztartzeko. Hain zuzen, enplegatzaileen %37,7k eta autonomoen %43,7k esan dute zailtasun handiak dituztela seme-alaba adingabeak artatzeko; eta gutxi gorabehera heren batek esan du zailtasun handiak dituela jarduera pertsonaletan artatzeko edo etxeko lanetan laguntzeko. Seguru asko egoera honengatik enplegatzaileen %34,5ek eta autonomoen %30,8k norberaren bizitzari eskaintzen dion denborarekin oso gogobetetze txikia dutela diote eta bi taldeetako zazpitik batek seme-alaben zaintzari buruz ere gauza bera dio.


Orokorrean, Euskal Aeko landunen ordaindutako lana eta norberaren bizitza eta familia uztartzeko zailtasun maila 3,3

puntuakoa da (gehienez 10ekoa izanik; eta 10 puntu izango lituzke uztartzeko bat ere aukerarik ez duen pertsonak). Landunek uztartzeko zailtasun handiena duten elementua mendekotasuna dutenak zaintzea da (4,6 puntu) eta jarraian seme-alaba adingabeak zaintzea (4 puntu). Esan beharra dago mendekotasuna dutenak zaintzea antzeko arazoa dela gizon eta emakumeentzat (4,6) eta seme-alaba adingabeak zaintzea 4,2 puntuko zailtasuna da gizonentzat eta 3,8koa emakumeentzat. Era berean, arazorik txikieneko alderdia kudeaketa burokratikoak egitea da.


Uztartzeak sortzen dituen balizko aurreiritziei dagokionez, esan beharra dago lana duten lau pertsonatetik baten ustez familiako arrazoiengatik eszedentzia edo lanaldi murriztua eskatzeak eragin handia izango lukeela bere ibilbide profesionalean. Eszedentziak edo lanaldiaren murrizketak eskatuz gero sustapen profesionala kaltetzeko beldurra antzekoa da gizonen eta emakumeen artean; baina gazteak dira beldur handiena dutenak. Amatasunak sustapenerako desberdintasunak sor ditzake bost emakume landunetatik batentzat; baina gizonezkoen %6,4k bakarrik uste dute aitatasunak kalte egin diezaioketela.

Enpresan edo erakundean zenbait baimen eskatzeko zailtasunari dagokionez, landunen %83,6ren esanetan zailtasun txikia du norberaren gaiak konpontzeko lana uzteko.

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzen lagun dezaketen neurriei dagokionez, biztanle landun gehienek lana aldi baterako utz dezakete, eta landunen %69,8k soldatarik gabeko egun libreak eska ditzakete. Gainera, gainerako %60 inguruk esan dute eszedentziak edo lanaldi murrizketak lortzeko arazo gutxi dituztela.

**III.1.4. Grafikoa. EAEko biztanleria landuna, baimenak lortzeko zailtasunaren arabera. 2010**

Iturria: EUSTAT. Lana, familia eta norberaren bizitza batera uztartzeari buruzko inkesta 2010.

**III.1.5. Grafikoa. Biztanleria landunaren gogobetetasuna seme-alaba adingabeen zaintzan emandako denborari buruz. 2010**

Iturria: Lan eta Inmigratio Ministerioa. Laneko bizi-kalitateari buruzko inkesta.

Oro har, sexuaren arabera ez dago alde handirik. Hala ere, emakumeen esanetan gizonek baino (%57,3) zailtasun txikiagoa dute lanaldi murrizketak eskatzeko —%62,3k esaten dute ez dutela arazo handirik horiek lortzeko—; baina, noizbehinka lanera ez joateko baimena eskatu behar denean emakume landunek —%19— gizonek

baino —%14,2— pixka bat zailtasun handiagoak dituzte. Seguruena, gainera, adinak eta lanpostuko antzintasunak murriztu egiten dituzte aipaturiko uztartze neurriak lortzeko zailtasunak.

Autonomoek eta enplegatzaileek beste profesional batzuek baino arazo txikiagoak dituzte noizbehinka lanera ez joateko; baina gainerako neurrietan zailtasun handiagoak dituzte. Enplegatzaileen %78k arazo ugari dituzte egun libre bat hartzeko, eta %64k eszedentziak edo lanaldi murrizketak hartzeko ere arazo ugari dituzte. Autonomoen %72,8rentzat oso zaila da egun batean lanik ez egitea eta %61en ustez zaila da eszedentzia edo lanaldi murriztua hartzea.

Ordutegi motari eta malgutasunari dagokionez, bost pertsonatik batek lanaldia luzatu beharra izaten du ia egunero. Pertsona landunen %18,8k ia beti luzatzen du lanaldia, eta batzuetan lanerako ezarritakoak baino ordu gehiago lan egin behar izaten dituztenen ehunekoa ere antzekoa da. Egoera hau enplegatzaileen eta autonomoen ia bi herenek izaten du (lanaldia luzatu: beti edo batzuetan). Uztartzean laguntzeko beste neurri bat irteteko ordutegi malgua da; bada, lana duten bost pertsonatik bik erabiltzen dute —%42,1—; baina gizonek baino —%45,1— emakumeek gutxiago —%38,4—. Etxean lan egiteari dagokionez, %8,9k etxean egiten dute lan noizean behin, eta %5,6k gutxienez egunen erdian egiten dute lan etxean. Oro har, lana duten zazpi pertsonatik batek aldizka edo sarri etxean egiten du lan.

Azkenik, Lan eta Inmigratio Ministerioaren *Laneko bizi-kalitateari buruzko inkestak* (2010) agerian jartzen duenez, landunek seme-alaba adingabeak zaintzen igarotzen duten denborarekiko gogobetetzearen batez bestekoa alderatzen badugu, EAEn 6,8 puntu ditugu eta Estatu Espainiarreko gogobetetze mailaren apur bat gainera dago, 6,5ekoa baita estatuko gogobetetzea. Seme-alabak zaintzen igarotzen duten denborarekin EAEko landunen artean dagoen gogobetetze maila gaintzen duten bakarrak Kantabria (7,1), Murtzia (7,1) eta Extremadura (6,9) dira. Gogobetetze handiago hau ikusten da azterketan sexuaren aldagaia sartuz gero ere; EAEko gizonek 6,6 puntu ematen dizkiete seme-alabei eskaintzen dien denborari eta Estatukoak 6,4an geratzen dira. Euskal emakumeak 7,1 puntura iristen dira eta autonomia-erkidego guztiak hartuz gero 6,7ra iristen dira.

**1.3. Familiei laguntzeko politika publikoak**

Egoera horiek arintze aldera, Eusko Jauriritzak “Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I. Plana” jarri zuen abian 2002an, familiei seme-alaben kopurua libreki erabakitzea eragozten dieten ekonomia, gizarte eta lan oztopoak gaintzeko. 2006an bigarren Plana jarri zen abian eta 2010 arte izan da indarrean.

Plan horren 2006-2008 aldiko Tarteko Ebaluazio Txostenaren ondorioa hau izan zen: planaren lehentasun nagusietako bat familia arloko arau-esparru zabala lortzea zen, EAEko etorkizuneko gizarte politiken oinarriak ezartzeko, 2020ko Europako konbergentziari begira. Horretarako, 2008an Familiei Laguntzeko Legea onetsi zen. Lege haren funtsezko helburua familia politika osoarentzako esparrua eta oinarri maila juridikorik handiena da, familien eta haien kideen ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko.

Seme-alabak jaio edo adoptatzeagatik laguntza zuzenak eta familia bizitza eta lana bateratzeari dagozkionak

2002an hasi ziren I Familia Plana argitaratu zenean. Harrezkero eta 2010 arte laguntza horien guztizko gastua 311,81 milioi eurokoa izan da<sup>2</sup>. Haietatik, 160,99 milioi (guztien %51,6) jaiotza, adopzio edo adopzio aurreko abegiagatik laguntzak dira eta gainontzeko 150,82 milioi euroak (%48,4) bateratzeko laguntzei dagozkie.

2010ean, bestalde, Familiei Laguntzeko Planaren laguntzak baliatu dituzten familien ezaugarriak jakin ziren, Eusko Jaurlaritzaren *Gizarte premiei buruzko inkestan* oinarrituta. Inkesta horrek dioenez, 2010ean laguntza horiek guztira 65.523 familiak lortu zituzten, EAEn daudenen %8k. Zifra horrek familien kopuruaren %10,2ko beherakada agertzen du, 2006ko familia onuradunekin alderatuta.

Familia horien ezaugarriak kontuan hartuta, nabarmentzen dira gizon bat buru dutenak, guztien %91,4, eta 45 urtetik beherako pertsonak buru dituztenak, adin horietan baitaude laguntza guztien %89,2, %67,9 soil-soilik 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen familiei buruz. 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen familien %26,2k familientzako dauden laguntzetako baten bat eskuratu zuten. Kopuru horrek gaitu egiten du buru gisa 35 urtetik beherako pertsona bat duten etxeei dagokien %18,8a. Proportzio hori %3,2ra arte jaisten da 45 eta 54 urte bitarteko pertsonen familien kasuan, eta %1etik beherako kopuruera 55 urtetik gorako pertsonen familien kasuan.

Familia onuradunen %90,9k buru gisa Espainiar Estatuko herritartasuna daukan pertsona bat dute. Dena dela, laguntzak eskatzeko joera handiagoa da atzerriko nazionalitatea duten pertsonak buru direneko familietan (%16,7, nazionalen familien %7,6ren aldean). Laguntzaren eskurapenaren beheranzko joera, hala ere, bi egoeretan errealitate da, 2006an kopuru horiek hurrenez hurren %22,1 eta %9,8 izan baitziren.

Laguntza horien onuradunak aktibo guztiak okupatuta dituzten etxekoak unitateak dira nabarmendu behar den funtsezko alderdi bat (aintzat hartutako laguntzak jaso dituzten etxekoak unitateen %81,2 dira etxekoak unitate horiek). Gainera, laguntzetara jotzen duten etxekoak unitateen kopurua jaitzi egiten da lan egonkorreko moduetatik gehiago aldatzen diren neurrian. Izan ere, aktibo guztiak landun egonkorrek diren etxekoak unitateetan %12,6k jotzen du laguntza horietara, baina proportzioa %8,7 da aktibo landunak dituzten baina horietakoren bat egoera ezegonkorrean dagoen etxekoak unitateetan, %7,7 langabeak eta landunak dauden (nahiz eta horietakoren bat modu egonkorrean) etxekoak unitateetan, eta %6,9 langabeak eta landun ezegonkorrek dauden etxekoak unitateetan.


Beste alde batetik, 2010ean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak EAEko enpresetan lan-ordutegia aldatzeak izan litzakeen ondorioei buruzko azterlanaren ondorioak aurkeztu zituen, eta honako hau azaldu zen: bateratzea errazten duen lan baldintzen hobekuntzak zuzenean dakar enpresaren produktibitatearen eta lehiakortasunaren hazkundera eta gizarte orekatu eta jasangarriagoa lortzeko, jendeak aisiaz bete-betean gozatu ahal izatea eta bere familiarekin egon eta seme-alabak hezteko denbora izatea erraztu behar dira. Ondorioen artean, Sailak lanaldi europarraren-lanaldi malguaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta mota horretako ekimenak sustatzeko proiektu pilotua abian jarri

### III.1.5. Koadroa. Euskadin inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeagatik alde ebatzitako espedienteak. 2009

	Adingabeak		Mendeko pertsonak	
	Guztira	Emakumeen %	Guztira	Emakumeen %
<b>ESZEDENTZIAK</b>	7.669	97,09	86	91,86
<b>MURRIZKETAK</b>	38.131	93,72	377	80,90
%33-40ko murrizketak	22.421	93,22	214	86,91
%40-45eko murrizketak	2.097	94,47	17	70,58
>%45eko murrizketak	13.613	94,40	146	73,28
<b>GUZTIRA</b>	45.800	94,28	463	82,93

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

### III.1.6. Grafikoa. Seme-alabak jaito edo adoptatzeagatik laguntzak EAEn. Eskabideen eta gastuaren bilakaera, milaka €tan



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

\*2006an lehenengo seme-alaba jaiotzeagatik laguntzak sartu ziren.

### III.1.6. Koadroa. Eusko Jaurlaritzak familiei emandako laguntzen bilakaera

	Jaiotza edo adopzioa		Berdinkatzea	
	Espedienteak	Gastua (milaka euro)	Espedienteak	Gastua (milaka euro)
2008	28.175	25.333	27.005	11.297
2009	29.754	26.185	46.816	18.830
2010	30.021	24.340	48.140	26.834
2011ko urria	..	..	26.713	26.745
09/10 bar. %	0,9	7,0	2,8	42,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

du. Proiektu horretan gure Erkidegoko lau enpresa ari dira parte hartzen.

Ekimen horrek langileen bizi-kalitatea eta enpresen lehiakortasuna hobetzea du xede, 2011n 3 urte

<sup>2</sup> Kopuru horri 2002az geroztiko urteko kredituen konpromisoak gehitu behar zaizkio. Konpromiso horiek oraindik irauten dute urte anitzeko laguntzak direlako, eta guztira 58 milioi euro dira.



**III.1.7. Koadroa. Azken urtean familiei laguntzeko neurrietako bat erabili duten familiak (seme-alabengatiko laguntzak barne direla), familiaburuaren ezugarrien arabera 2006-2010**

		2006		2010	
		Intzidentzia	% bertikala	Intzidentzia	% bertikala
Sexua	Gizonezkoa	12,5	90,3	9,9	91,4
	Emakumezkoa	3,8	9,7	2,6	8,6
Adina	< 35 urte	21,7	22,4	18,8	21,3
	35-44 urte	34,0	65,1	26,2	67,9
	45-54 urte	5,9	11,1	3,2	8,1
	55-64 urte	0,3	0,6	0,6	1,2
	65-74 urte	0,3	0,4	0,4	0,8
	> 75 urte	0,2	0,4	0,3	0,7
Nazionalitatea	Estatua	9,8	93,2	7,6	90,9
	Beste bat	22,1	6,8	16,7	9,1
<b>GUZTIRA</b>		<b>10,2</b>	<b>100,0</b>	<b>8,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte premiei buruzko inkesta 2010.

bitarteko haurtxoen zaintzarako hasi zen familia habien proiektuak bezalaxe. Proiektu hori haurtxoen talde txikiak zaintzailearen etxean zaintzeko ekimen esperimental da. Etxe hori haurtxoak zaindu eta hartzeko bereziki egokituta eta hornituta dago, gainbegiratze pedagogikoarekin eta ordutegimalguekin. Horrela, Familiasustatzeko eta familiako bizitza, pertsonala eta lanekoa bateratzeko programa eta zerbitzuen eskaintza hobetu nahi da.

Azkenik, 2011ko abenduan Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako.

Plan horrek zera ekartzen du: aurreko bi planetatik abiatuz, familia politiken zeharkako ikuspegi batera pasatzea bere sailen artekotasuna bultzatuz, Eusko Jaurlaritzako sail guztiak tartean sartzea familia ikuspegiaren barneraketan, eta erakunde artekotasun handiagoa. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa.

## 2. Bizi-baldintzak

Gizarte bazterkeriaren arazoa egungo gizarteetan jazotzen ari den egoera bat da. Erakundeek eta ikertzaileek urte askotan erabili duten “pobrezia” kontzeptuak ez ditu barne hartzen guztiz gizarte bazterkeriaren egoera eta horrek dakartzan dinamikak. Horregatik, azken bi hamarkadetan adostasun handia dago gizarte arloko ikertzaileen eta kudeatzaileen artean, pobrezia-kategoria “gizarte bazterkeria” kategoriara zergatik zabaldu den azaltzean: pobrezia ekonomikoaren ideia hertsia gainditu delako, eta, batez ere, egungo gizartearen aldaketa sakonak jazo direlako, aurrerapen teknologikoek, bizimodu aldaketek eta bidean diren gizarte arloko aldaketek eraginda.

Honako tesi hau oso hedatua dago: aurreko hazkunde ekonomikoaren urteek ez dituzte herrialde aberatsetako herritarren errenten desberdintasunak leundu, ezta pobrezia tasak murriztu ere. Aitzitik, horietako gehienetan desberdintasuna eta pobrezia ugari egin dira, gutxi bada ere, faktore demografiko, ekonomikoengatik eta, batez ere, politikoengatik. Hori ELGEk berriki egindako txostenaren ondorioa ere bada<sup>1</sup>. Bertan, joera horietan gizarte eta politika eragileek duten jarduteko gaitasuna azpimarratzen da, hain zuzen, birbanatzeko politikak indartuta -alegia, selektiboagoak eginez- eta herritarrei lan merkatuan sartzen lagunduta.

2010. urtean, Europar Batasunean 80 milioi pertsona baino gehiago, alegia, guztizkoaren %16,4, pobrezia-arriskuan zegoen eta %8,4k lana izan arren egoera hori pairatu zuen (Espainian proportzio hori %12,7 da). Gai horri buruz 2009. urtean egindako eurobarometro monografikoari jarraiki, europarrek pobrezia ulertzeko zenbait modu dituzte: europarren laurden baten ustez (%24), pertsonak pobeak dira euren baliabideak mugatuak direnean, hau da, bizi diren gizartearen behar bezala parte hartu ezin dutenean. %22ren iritziz, ordea, pobrezia bizitzeko behar diren funtsezko ondasunak ezin edukitzea da; halaber, %21ek pobrezia karitatearen edo laguntza publikoen mendekotasunarekin lotzen du. Kontuan hartu beharreko gutxiengoak (%18) uste du pertsonak pobeak direla pobrezia-erantzukizunarekin jotzen direnak baino hileko baliabide gutxiago dituztenean. Horrez gain, %84k uste du pobrezia ugari egin dela azken hiru urteetan bere herrialdean eta erdiak baino gehiagok “modu nabarmenean” jazo dela. Egoera horren aurrean, Europako erakundeek “Pobrezia-erantzukizunaren kontrako Europako Urtea” izendatu zuten 2010. urtea, gertaeraz ohartarazteko eta konponbideak biltzeko ahaleginak bateratzeko xedez.

### III.2.1. Koadroa. Pobrezia edo gizarte bazterkeria arriskuan dagoen europako biztanleria, “Europa 2020” estrategiaren irizpideen arabera

	Ehunekoak		Absolutuak (milioiak)	
	2009	2010	2009	2010
27-EB	23,1	23,4	113,8	115,5
Belgika	20,2	20,8	2,1	2,2
Bulgaria	46,2	41,6	3,5	3,1
Txekiar Errepublika	14,0	14,4	1,4	1,5
Danimarka	17,6	18,3	0,9	1,0
Alemania	20,0	19,7	16,2	16,0
Estonia	23,4	21,7	0,3	0,3
Irlanda	23,7	25,7	1,1	1,2
Grezia	27,6	27,7	3,0	3,0
Espainia	23,4	25,5	10,7	11,7
Frantzia	18,4	19,3	11,2	11,8
Italia	24,7	24,5	14,8	14,7
Zipre	22,2	22,2	0,2	0,2
Letonia	37,4	38,1	0,8	0,9
Lituania	29,5	33,4	1,0	1,1
Luxenburgo	17,8	17,1	0,1	0,1
Hungaria	29,6	29,9	2,9	2,9
Malta	20,2	20,6	0,1	0,1
Herbehereak	15,1	15,1	2,5	2,5
Austria	17,0	16,6	1,4	1,4
Polonia	27,8	27,8	10,5	10,4
Portugal	24,9	25,3	2,6	2,7
Errumania	43,1	41,4	9,1	8,9
Eslovenia	17,1	18,3	0,3	0,3
Eslovakia	19,6	20,6	1,1	1,1
Finlandia	16,9	16,9	0,9	0,9
Suedia	15,9	15,0	1,5	1,4
Erresuma Batua	22,0	23,1	13,4	14,2
EAE	12,7	15,5	0,27	0,33

Iturria: Geuk egina EUROSTATen eta INERen datuekin.

Urtea amaitutakoan, EBko Kontseilua<sup>2</sup> pozik azaldu zen, ekimenari esker maiz gutxietsitako edo gaizki ulertutako errealitatea argitu ahal izan baita munduko eskualderik aberatsenetako batean, baita maila guztietako erakundeak eta gizarte eragile guztiak mobilizatzeko ere. Emandako bultzada dela-eta, lehen aldiz ezarri da partekaturiko helburu bat, Estaturikideen eta Batasunaren jarduketara bideratuko duena gizarte bazterkeriaren eta pobrezia-erantzukizunaren kontrako borrokaren arloan: “Europa 2020” Estrategian

<sup>1</sup> “Growing unequal? Income distribution and poverty in OECD countries” (2008) izeneko txostenak ELGEko 30 herrialdeak aztertzen ditu eta agerian jarri du diru-sarreraren inguruko desberdintasuna handitu egin dela 70. hamarkadatik aurrera eta hazkunde horrek herrialde ia guztiei eragin diela. Adibidez, berriki Kanadan eta Alemanian hazkunde nabarmenak jazo dira, beste herrialde batzuetan, aldiz, —hala nola, Mexiko, Grezia eta Erresuma Batua— murrizketak jazo dira. Informazio zabalagoa izateko, irakurleak Memoria honen 2009ko edizioa jo dezake.

<sup>2</sup> Europar Batasuneko Kontseiluaren adierazpena, Pobrezia-erantzukizunaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako Europako Urteari buruz. “Elkarrekin lan egin pobrezia-erantzukizunaren aurka borrokatzeko 2010ean eta ondoren” (2010/C 333/06).

gutxienez 20 milioi europar 2020<sup>3</sup> baino lehen pobrezia eta gizarte bazterkeriaren arriskutik aldentzeko helburua sartzea.

“Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarearen” urteroko lehenengo bileran 38 herritako gobernuetako zein gizarte zibileko ordezkariak parte hartu zuten. Bilera hori 2011ko urrian egin zen, Krakovian, Estrategiak ezarritako helburuekin alderatuta egin ziren aurrerakada eta/edo atzerakadak aztertzeko helburuz. Iritzi orokorra izan zen helburu horiek kolokan daudela modu larrian, krisi ekonomikoaren eta gobernuak ezarritako austeritate neurrien ondorioz.

Izan ere, eskuragarri dauden azken datuak kontuan hartuta, 2010ean EBean 115,5 milioi pertsona zeuden pobrezia edo gizarte bazterkeria jasateko arriskuan, Europa 2020 Estrategiaren parametroen arabera, aurreko urtean baino 1,7 gehiago, eta horrek Europako biztanleriaren %23,4 egiten du. Estatuan proportzio hori %25,5 da. Gure Erkidegoan, aldiz, %15,5 (horrek 330.000etik gora biztanle egiten ditu), eta hori Suedia, Austria edo Herbehereen parekoa da, herri horietan Batasuneko portzentajerik txikiak baitaude.

Jarraian EAEko bizi baldintza eta pobrezia eta gizarte bazterkeriaren egoeraren deskribapen laburra aurkeztuko da, INEren *Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren* 2010eko emaitzetan eta *Eusko Jurlaritzaren Gizarte premiei buruzko inkestaren* gabezia-adierazleetan oinarrituta. Gero, Gure Erkidegoan gizarte zailtasunak dituzten haurren bizi baldintzak deskribatzen dira, ahultasun handikoa izanik interes bereziko kolektiboa direlako.

## 2.1. Bizi-baldintzak: bizi-baldintzei buruzko 2010eko inkestaren emaitzak

INEren Bizi-baldintzei buruzko Inkesta Europar Batasunak Errentari eta Bizi-baldintzei buruz dituen estatistikak bateratzeko prozesuaren barruan sartzen da; “*Statistics*

*on income and living conditions*” (EU-SILC) deritzo inkesta horri. Helburu nagusi horietako bat pobrezia eta gizarte bazterkeria aztertzea ahalbidetzen duen informazioa ematea da. Askotariko informazioa ematen du; etxebizitzari, etxebizitzak dakartzan gastuei, sarrerei, etxeko ekipamenduari, egoera ekonomikoari, helduen jarduerari, osasunari, osasun laguntza eskuratzeari eta hezkuntzari buruzko datuak eta datu biografikoak biltzen ditu.

2010eko inkestaren emaitzek, lehenik eta behin, agerian jartzen dute etxeko batez besteko errenta 2009an EAEn 30.456 eurokoa zela (2008. urtean baino %2,8 gutxiago), Estatu batez bestekoa -26.033 euro- baino %17 handiagoa (Estatuan %1,8 egin du behera 2008arekin alderatuta). Bi erkidegotan baino ez da gainditzen datu hori: Nafarroako Komunitatean (batez besteko sarrerarik handiena duena etxeko, 34.409 eurokoa) eta Madrilgoan (30.468).

Gainera, Inkestaren arabera, pertsonako batez besteko errenta EAEn urtean 12.203 euro izan zen (aurreko urtean baino %2,9 gutxiago), eta berriz Nafarroako Komunitateak bakarrik gainditzen du: Estatu batez bestekoa baino %25,3 gehiago. Rankingaren beste muturrean, bi aldagaietarako eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Kanariak, Murtzia eta Andaluziako erkidegoak daude.

Aurreko urtearekin alderatuta, erkidego gehienetan —gurean barne—, batez besteko errentek behera egin dute, Galizian, Errioxan eta Nafarroan izan ezik. Beste erkidego batzuetan, adibidez bi Gazteletan, ia-ia aldatarik txikiak ere ez dituzte jasan: -%0,3 Gaztela eta Leon eta -%1,5 Gaztela-Mantxa.

Horrez gain, errenta-tarteen arabera etxeen banaketatik ondorioztatzen da 2008an (informazio hori eskuragarri dagoen azken urtean) gure erkidegoko familien %56k


### III.2.2. Koadroa. Urteko batez besteko errentaren bilakaera, etxeko eta pertsonako eta autonomia erkidegoen arabera. 2008-2009. Euroak

	Batez besteko errenta etxeko			Batez besteko errenta pertsonako		
	2008	2009	% Ald.	2008	2009	% Ald.
Estatuko batez best.	26.500	26.033	-1,8	9.865	9.737	-1,3
Andaluzia	22.849	22.754	-0,4	8.100	8.035	-0,8
Aragoi	27.719	26.634	-3,9	10.774	10.422	-3,3
Asturias	27.213	26.285	-3,4	10.676	10.400	-2,6
Balearrak	28.221	25.859	-8,4	10.829	10.164	-6,1
Kanariak	23.371	22.397	-4,2	8.420	8.108	-3,7
Kantabria	27.639	26.630	-3,7	10.036	9.972	-0,6
Gaztela eta Leon	24.971	24.888	-0,3	9.806	9.885	0,8
Gaztela-Mantxa	23.716	23.356	-1,5	8.470	8.565	1,1
Katalunia	28.046	27.834	-0,8	10.770	10.605	-1,5
Valentziako E.	25.381	24.982	-1,6	9.684	9.631	-0,5
Extremadura	20.878	19.858	-4,9	7.551	7.245	-4,1
Galizia	24.429	26.139	7,0	9.098	9.716	6,8
Madril	31.903	30.468	-4,5	11.703	11.332	-3,2
Murtzia	23.686	22.200	-6,3	8.092	7.629	-5,7
Nafarroa	33.559	34.409	2,5	12.701	13.179	3,8
EAE	31.348	30.456	-2,8	12.566	12.203	-2,9
Errioxa	25.054	25.420	1,5	9.572	9.697	1,3

Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta.

<sup>3</sup> “Europa 2020” Estrategiaren ondorioetarako, pertsona bat pobrezia eta gizarte bazterkeriako arriskuan dago langabezia arazoak dituen edo lan intentsitate oso baxua duen familia unitate batean badago, gizarte transferentzien ondoren pobrezia arriskuan badago eta/edo gabezia material larria jasaten ari bada.

### III.2.1. Grafikoa. Familien banaketa (ehunekotan) urteko diru-sarreraren arabera. 2008



Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta. 2009.

urtean 25.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituela. Ehuneko hori azken urtean %1,6 handitu da. Familia horietatik %37,4k urtean 35.000 euro baino gehiago zituen, eta %18,6k 25.000 eta 35.000 artekoak. Gainera, %26,8k 14.000 eta 25.000 arteko diru-sarrerak zituen, eta gainerako %17,3k urtean 14.000 eurotik beherakoak (haietatik %8,5k —aurreko urteko ehuneko berbera— 9.000tik beherakoak).

Estatu osoan, 25.000 euro baino gehiagoko errenta-maila %44,9ri dagokio (2007an baino 1,2 puntu gehiago), %29,5 errentaren erdiko segmentuan kokatuko litzateke eta familien laurdena baino gehiagok —%25,6— urtean 14.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak ditu.

Etxeetako bizi-baldintzak eta errenta maila erakusten dituen beste adierazle bat hilearen amaierara iristeko zailtasunak dituztenen ehunekoari buruzkoa da: egoera horrek 2011. urtean (behin-behineko datuekin) gure erkidegoko familien %39,1i eragiten zion, aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago. Estatuan batez bestekoa %55,1 da, eta ehuneko 3,7 puntu jaitxi da 2010arekin alderatuta.

Gainera, kontuan hartu behar da hilaren amaierara iristeko zailtasunak aitortzen dituzten euskal familien %39,1etik %15ek “zailtasun handiak” dituela, eta %28k soilik “zailtasunak”. Gainerako %57k “zailtasun batzuk”

### III.2.3. Europako familien gabezia materialaren adierazleak. EAErekiko konparazioa. 2009-2010

	Ustekabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna		Gabezia materialaren indizea	
	2009	2010	2009	2010
27-EB	35,1	36,1	17,1	17,4
BEM	32,0	32,4	13,5	13,5
Belgika	23,8	25,4	11,4	12,3
Bulgaria	58,4	65,1	55,5	55,6
Txekiar Errepublika	37,9	37,9	15,6	15,1
Danimarka	25,6	23,7	6,0	6,0
Alemania	34,6	33,7	12,5	11,1
Estonia	29,6	43,6	17,1	22,3
Irlanda	48,6	..	17,1	..
Grezia	26,6	28,2	23,0	24,1
Espainia	33,4	36,3	11,3	13,2
Frantzia	32,5	33,1	13,5	12,6
Italia	33,1	33,3	15,6	15,9
Zipre	39,9	..	21,2	..
Letonia	70,8	77,6	39,7	46,1
Lituania	52,6	62,1	27,0	36,0
Luxenburgo	25,4	24,4	4,0	4,1
Hungaria	75,2	73,9	40,3	39,9
Malta	27,9	26,9	14,8	14,7
Herbehereak	18,7	22,2	5,2	7,2
Austria	24,9	25,0	10,9	10,6
Polonia	50,0	50,6	29,5	28,4
Portugal	27,8	27,2	21,5	22,5
Errumania	41,7	41,6	49,3	49,2
Eslovenia	40,6	45,1	16,2	15,8
Eslovakia	36,0	38,6	24,5	24,9
Finlandia	29,7	28,1	8,2	8,4
Suedia	18,5	15,8	4,8	3,9
Erresuma Batua	31,1	34,7	10,3	13,4
EAE	20,5	19,0	..	6,6*

Iturria: INEren eta EUROSTATen datuekin landutakoa.

\*Gutxi gorabeherako kopurua da, diferentzia metodologiko batzuk daudelako (ikusi testua).

zeuzkan. Banaketa hori oso antzekoa da Estatu osoan, baina zailtasun mailarik handienak eragin handiagoa dauka, %18 ingurukoa baita.

Horrez gain, hainbat gastu eduki ezin dituztela dioten familien ehunekoak kalkulatzeko du inkestak: Euskal familien %25,3k ezin du urtean astebeteko oporraldirik hartu (Estatuan %38,8k) eta %20,9k ezin die ustekabeko gastuei aurre egin (Estatuko batez bestekoa %35,9 da).

Egoera hau Europako datuekin konparatuz gero, ikus daiteke 2010ean Europako familien %36,1ek ezin zuela ustekabeko gastuei aurre egin, %8,9k ezin zuela etxebizitza tenperatura egokian mantendu, eta %11,6k azken urtean etxebizitza nagusiarekin lotutako ordainketei aurre egiteko arazoak izan zituela. Herrialdeen arteko aldeak handiak dira, eta nabarmentzekoa da bizi mailaren okertzea Bulgarian, Portugalen, Letonian eta Hungarian ustekabeko gastuen aldetik, eta Bulgarian —berriro ere—, Grezian eta Errumanian etxearen mantentzean.

Ildo beretik, “gabezia materialaren indizea” zehaztu du EUROSTATEk, bederatzi gastu eta ekipamenduko zerrenda batetik gutxienez hiru ezin eskura ditzaketen pertsonen kopuruak emanda: INEk ematen dituen lau

**III.2.4. Koadroa. Zailtasun materialak dituzten eta/edo zenbait gastu ezin egin dituzten familien ehunekoa. Konparazioa EAE-Estatuko batez bestekoa**

	Oporrik ez gutxienez urtean astebete		Hilaren amaierara heltzeko zailtasunak		Atzerapenak etxebizitza nagusiaren ordainketetan*		Ustekabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
2004	43,9	25,5	60,1	49,0	6,0	3,1	39,2	20,0
2005	40,4	27,2	58,3	48,3	4,7	3,5	33,8	24,0
2006	38,3	22,3	60,1	47,2	4,9	4,9	31,2	18,9
2007	35,8	19,2	56,7	47,0	5,2	4,6	30,5	19,4
2008	33,5	14,6	59,9	41,7	5,4	3,2	28,1	15,8
2009	38,9	20,6	59,0	43,4	7,2	2,4	34,0	20,5
2010	39,7	20,4	58,8	39,3	7,7	3,4	36,7	19,0
2011 <sup>P</sup>	38,8	25,3	55,1	39,1	6,1	4,1	35,9	20,9


\* Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua, gasaren, erkidegoaren, etab.en ordainagiriak,...) atzerapenak izan dituzte azken 12 hilabeteetan.

Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta.

gastu kontzeptuez gain, hipoteka gastuak egunean izatea eta garbigailua, koloreko telebista, telefonoa eta autoa edukitzea sartzen dira. Definizio horren arabera, EBko biztanleen %17,4k ezin balia zitzakeen zenbait gauza 2010. urtean, eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat EBko kide berrien eta gainerakoen artean. Alde batetik, biztanleen %4 baizik ez dago egoera horretan Suedian eta Luxenburgon, eta %10etik behera Europako herrialdeetan eta Holandan (Espainiak %13,2ko ratioa dauka). Bulgarian eta Errumanian, aldiz, biztanleen %50ek gutxi gorabehera ditu gabezia materialak, eta %40 inguruk Hungarian eta Letonian.

INEk, Bizi-baldintzen Inkestako zati gisa, Autonomia Erkidegoen arabera eta lehenengo aldiz 2010erako, antzeko adierazlea kalkulatu zuen. Adierazle horretarako, gastuaren eta ekipamenduaren zazpi kontzepturen gabezia kontuan hartu zen, eta adierazle horren arabera, aipatu urtean, EAEk %6,6ko gabezia indizea zuen (7 kontzeptuetatik 3 gutxienez falta dituzten familiak), eta Estatuko batez bestekoa %13,9 zen —EUROSTATen indizea %13,2 da—. Hortaz, adierazle biak —Europakoa eta Espainiakoa— konparagarritzat jo daitezke, azaldu diren oharrak kontuan hartuta.

Azkenik, Bizi-baldintzen Inkestan, pobrezia buruzko azalpen-azterketa egiten da (hots, moneta pobrezia erlatiboa) eta horretarako, biztanleria pobreak diren eta pobreak ez diren artean sailkatzeko erabilitako metodoa moneta pobrezia erlatiboko lerro bat ezartzean oinarritzen da. Erabilitako pobrezia lerroaren oinarria etxeko kontsumo unitateko sarrera garbiak dira; etxeko guztizko sarrera garbiak (errenta eskuragarria) zati kontsumo unitateen kopurua egin behar da kalkulua egiteko. Hortik abiatuta, %60koa da pertsonen esleituriko kontsumo unitateko sarreraren<sup>4</sup> banaketaren erdikoaren pobrezia lerroa edo pobrezia atalasea. Beraz, kontsumo unitateko atalase horretatik beherako sarrerak dituen pertsona orori deritza "pobre" (halako moldez non familia bereko kide guztiak sailkatuko baitira modu berean: pobreak edo pobreak ez

**III.2.2. Grafikoa. Pobrezia atalasearen azpian dauden pertsonen ehunekoa 2003-2008**

Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta.

direnak). Atalase hori, EB mailan herrialde bakoitzerako kalkulatu da<sup>5</sup> eta, beraz, herrialde bakoitzaren ikuspegi erlatiboa lortzea ahalbidetzen du, baina ez da zuzenean konparagarria haien artean.

Hortik abiatuta, pobrezia atalasearen azpitik dauden pertsonen ehunekoa kalkulatu du Inkestak. Batasuneko

<sup>4</sup> Kontsumo unitateko sarrera edo sarrera baliokidea, familiako sarrera osoa zati "kontsumo unitate" kopuruaren artean ateratzen dena da; dena dela, kontzeptu hori eta per capita sarrerak ez dira gauza bera. Izan ere, lehenengo horretan ez zaie familia bateko kide guztiei sarrera berbera esleitzen. Aitzitik, beste faktore batzuk hartzen dira kontuan, adibidez eskala-ekonomiak. Hau da, familia bateko kide kopurua handitzeak ez du esan nahi sarrerak ere modu proportzional berean handitu behar direnik ongizate maila berberari eusteko, eta gainera kontsumoko jarraibideak ez dira berberak familiako kide bakoitzaren adina kontuan hartuta.

<sup>5</sup> Esan den bezala, pertsonen esleitzen zaizkien kontsumo unitate bakoitzeko sarreraren banaketaren medianaren %60an ezarri da, EBko herrietako bakoitzaren. Beraz, errentaren banaketa herri bakoitzaren barruan aztertzen da, ez Batasun osorako.

datua, 2010ean, sarreran aurreratu dugun bezala, %16,4 zen. Hortaz, 80 milioi europar “pobreak” direla esan daiteke, adierazle horren arabera.

Estatuan, ehuneko hori ia ez da aldatu estatistika egiten den bost urteko epean, eta 2008. urtean (2009ko Inkestak argitaratu zuen bezala, hori dela erabilgarri dagoen azken datua) %19,5eko tasa izan da, aurreko urtekoa baino hamarren bat txikiagoa. Gure Erkidegoan, %9,4koa da “pobre”tzat hartutako pertsonen tasa —egoera hori Nafarroako Erkidegoan baizik ez da hobea—, eta azken urtean ia puntu bat egin du gora. Gainera, pobrezia atalase horretatik beherako sarrerak dituzten pertsonen ratio horrek behera egin du gure Erkidegoan, %16,1 azken bost urteetan.

## 2.2. Pobrezia eta bazterketa: gizarte premiei buruzko 2010eko inkestaren emaitzak: gabezia -adierazleak

Eusko Jaurlaritzak lau urterik behin “Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika” egiten du. Horren barruan, *Gizarte Premiei buruzko Inkestak* EAEko biztanleriaren gizarte beharrianak sakonago ezagutzeko aukera ematen du, beharrian horien eragina aztertzen baita egiaz egindako eskariak kontuan hartuta, eta herritarren bizi-maila eta -kalitateari buruzko hainbat adierazle baloratzen baita. Orain, eta 2010eko Gizarte Premiei buruzko Inkestako Emaitei buruzko Txosten Orokorrean oinarrituta, Pobrezia eta Gabezia sozioekonomiko orokorraren dimentsioa ardatz hartuko dugu, eta zehatzago, mantentze-pobrezia azterketaren ondorioz ateratzen diren gabezia-adierazleak.

Lehenengoz, txostenak 2010eko Inkestatik ondorioztatzen diren datu esanguratsu batzuk nabarmentzen ditu:

- EAEn 61.422 pertsona arazo ekonomikoak direla-eta azken hiru hilabeteetan bigarren eskuko arropetara jo behar izan duten familietan bizi dira, EAEko guztizko biztanleriaren %2,8 (2006an, berriz, %2,3).
- 81.669 pertsona azken neguan berokuntza-sistema egokirik ez zutelako edo energia-gastuak murriztu behar izan dituztelako etxean hotza izan duten —batzuetan behintzat— familietan bizi dira, hau da, guztizkoaren %3,7 (2006an, berriz, %2,6).
- 97.660 pertsona azken hiru hilabeteetan elikadura-arazoak izan dituztela adierazi duten familietan

bizi dira. Pertsona horiek guztizkoaren %4,5 dira, 2006ko %3,4aren gainetik. Igoera hori elikadura-arazo orokorrak (horrekin lotutako gose-arriskurik gabe) dituzten pertsonekin lotzen da batez ere (%2,7tik %3,7ra), eta gosea izateko arrisku-egoerei buruzko adierazleak egonkor jarraitu du (%0,6 2006an eta %0,7 2010ean). 15.965 pertsona arrisku handieneko egoeran dauden familietan bizi ziren 2010ean.

- 97.574 pertsona azken urtean oinarrizko premiei aurre egiteko arazoak izan dituztela adierazi duten familietan bizi dira, hau da, EAEko guztizko biztanleriaren %4,5.
- 167.710 pertsona, EAEko biztanleriaren %7,7, hirugarrenetik betebeharre aurre egiteko eta/edo beren gastu-premiei aurre egiteko azken hiru hilabeteetan zailtasunak izan dituzten familietakoak dira (2006an %5,7).

Ikusi den zailtasun nagusia aisia-gastuak murrizteko premiari lotuta dago; EAEko biztanleriaren %7,3 dago egoera horretan. %5,5 oinarrizko gastuen murrizketari aurre egin dieten familietan bizi da, eta %2,4 hirugarrenetik betebeharren aurrean ordaintzeari utzi dioten familietan. %1,3k oinarrizko hornigaien etenak jasan ditu, eta %0,4k jabetzak saldu behar izan ditu familiako ohiko gastuei aurre egin ahal izateko.

Orain arte aipatutako zailtasun asko pertsona berengan gertatzen dira askotan. Gabezia-egoeren azterketa ahalbidetzeko, biztanleriaren ekonomiari eusteko premiak estaltzarekin lotutako arazoan adierazle sintetikoa aurkeztu du GZEE-GPIak, biziraupenari eta gastuak betetzeari buruzko aldagai nagusiak —estatistikan aztertu direnak— kontuan izanik. Adierazle horri esker, biztanleria hainbat taldetan zati daiteke; txosten honetan, hiru talde handi hartuko dira kontuan oro har: a) oinarrizko premiak estaltzeko arazo dimentsioaniztunen eraginpean daudenak, pobrezia-arrisku handiko taldea; b) antzeko arazoan eraginpean daudenak, baina soilik alderdi partzialetan, ongizaterik ezeko arrisku-egoerei lotuago daudenak; eta c) gabezia-arazorik ez duten edota aisian eta astialdian baino ez dituzten familiak eta pertsonak, ongizate handiagoko posizioan daudenak.

Gabezia dimentsioaniztuneko egoerek, oinarrizko premiak estaltzeari lotutako hainbat alderditan inplikazioak dituztenek, 68.373 pertsona hartu dituzte eraginpean 2010ean, hau da, EAEko guztizko biztanleriaren %3,1.

### III.2.5. Koadroa. Gabezia ekonomikoko berariazko adierazleen bilakaera. 2006-2010. Urteak. Datu absolutuak eta biztanleriaren gaineko eragina, ehunekotan

	2006		2010	
	Abs.	%	Abs.	%
Arazoak premien estaldurari dagokionez (azken 12 hilabeteetan)	ND	ND	97.574	4,5
Elikadura-arazoak (azken 3 hilabeteetan)	72.259	3,4	97.660	4,5
Gose arriskurik gabe	58.353	2,7	81.695	3,7
Gose arriskuarekin	13.906	0,6	15.965	0,7
Bigarren eskuko arropak erabiltzea (azken 3 hilabeteetan)	48.581	2,3	61.422	2,8
Hotz izan dira etxean (azken neguan)	55.840	2,6	81.669	3,7
Betebeharrei eta ohiko gastuei aurre egiteko zailtasunak (azken 3 hilabeteetan)	122.941	5,7	167.710	7,7
Ez ordaintzea edo berandu ordaintzea	34.769	1,6	52.757	2,4
Hornigai eteteak	20.207	0,9	28.302	1,3
Aisia-gastuak murrizteko premia	118.846	5,5	158.683	7,3
Oinarrizko gastuak murrizteko premia	77.451	3,6	119.258	5,5
Jabetzen salmenta	5.861	0,3	9.623	0,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010.

### III.2.6. Koadroa. Biztanleria, familietan gabezia-egoerarik badagoen kontuan hartuta. 2006-2010. Urteak. Datu absolutuak eta ehuneko bertikalak

	2006		2010	
	Abs.	%	Abs.	%
Dimentsioaniztuna	42.269	2,0	68.373	3,1
Partziala oinarrizko alderdietan	107.118	5,0	124.368	5,7
Oinarrizko gabezia	149.387	7,0	192.741	8,8
Partziala aisia-alderdietan	32.200	1,5	24.069	1,1
Gabezia bat ere ez	1.967.443	91,6	1.964.617	90,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.149.030</b>	<b>100,0</b>	<b>2.181.427</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritz. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010.

124.368 pertsona, gainera, premia horiek betetzeari dagokionez gabezia partzialeko egoeran dauden etxekoekin familietan bizi dira, hau da, biztanleriaren beste %5,7. Oro har, 192.741 pertsonak oinarrizko gabeziaren bat jasan dute (biztanleriaren %8,8).

Beste alde batetik, 24.069 pertsona beste gabezia-errealitate esanguratsu batzuk (hain oinarrizkoak ez diren premien estaldurarekin eskusiboki lotuta daudenak, bereziki aisiaz eta astialdiaz gozatzeko testuinguruan) dituzten familietan bizi dira (guztizko biztanleriaren %1,1). Gainerako biztanleriak —%90,1ek— ez du adierazi gabezia-arazorik duenik. Oro har, EAEn bizi den biztanleriaren %91,2k ez du, beraz, oinarrizko gabezia-arazorik.

Aurreko datuen arabera, egoerak okerrera egin du azken lau urte hauetan. Gauzak horrela, 2006 eta 2010 bitartean 1,8 puntu igo da, %7tik %8,8ra, (+43.354 pertsona) oinarrizko premien estaldurari lotutako arazoaren baterako eragina. Bestalde, arazo dimentsioaniztunak, pobrezia-errealitateekin zuzenago lotuta daudenak, igo egin dira EAeko guztizko biztanleria kontuan hartuta (%2tik %3,1era). Zifra absolututan, oinarrizko gabezia-arazo orokorreari dagokionez, eraginpean hartutako pertsona

kopuruaren igoera 17.250ekoa da, eta 26.104koa arazo dimentsioaniztunei dagokienez.

Gabezia-egoeren eragin diferentziala talde demografikoen arabera aztertzen badugu, hau egiazta dezakegu:


- Hasteko, familietako buru den pertsonaren sexua bereizita, oinarrizko gabezia modu desberdinen presentzia handiagoa da emakume bat buru duten familietan bizi diren pertsonen artean: eraginpean hartutako pertsonen %12,4 (gizon bat buru duten familietan, aldiz, %8).

2006 eta 2010 bitartean, ordea, ikus daiteke gizonak buru dituzten familien egoeraren okerragotze diferentziala izan dela. Oinarrizko gabeziaren arazoaren eraginak egonkor jarraitu du, funtsean, emakume bat buru duten familietan, %12tik %12,4ra soilik igo baita, baina igoera hori %5,9tik %8ra bitartekoa izan da pertsona nagusia gizona duten familien kasuan. Aldaketarik deigarriena egoera larrienei dagokie, arazo dimentsioaniztunak agertu diren kasuan: %4,1etik %4,4ra bitartekoa emakumeak buru dituzten familietan bizi diren pertsonen artean, baina %1,5etik %2,8ra bitartekoa pertsona nagusia gizona duten familietan.

- Adinari dagokionez, sendotu egin da gabezia-egoeren eta familiako pertsona nagusia oso gaztea izatearen arteko lotura, eta oinarrizko gabezia-arazoaren eraginak behera egin du pertsona nagusiaren adinak gora egin ahala. 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten familietan bizi den biztanleriaren artean, proportzioa %23,7ra iritsi da, eta eragina handia izan da, halaber, 35-44 urteko pertsonen familietan: %12,1. Adin horretatik aurrera, tasak nabarmen jaitsi dira: %6 inguru 45-64 urteko pertsonak buru dituzten familietan bizi den biztanleriaren kasuan, eta %5,5 inguru 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen familien kasuan. Oinarrizko gabeziari dagokion proportziorik txikiena pertsona nagusiak 75 urte edo gehiago dituen familietan bizi den biztanleriarena izan da: %4,4.

Gazteria, gainera, pobreziarekin zerikusi handiagoa duten gabezia-egoerei lotuta dago. 35 urtetik beherako

### III.2.3. Grafikoa. Oinarrizko gabezia egoeren eraginaren bilakaera, familiako pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 2006-2010. Datuak ehunekotan




Iturria: Eusko Jaurlaritz. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010.

### III.2.7. Koadroa. Oinarrizko gabezia-egoeren eragina, familiaburuaren adinaren arabera. 2006 eta 2010

	2006			2010		
	Dimentsioaniztuna	Partziala	Osoa	Dimentsioaniztuna	Partziala	Osoa
< 35 urte	7,8	7,5	15,4	12,6	11,1	23,7
35 urtetik 44ra	1,8	6,6	8,4	4,3	7,8	12,1
45 eta 54 urte bitartean	1,5	3,9	5,4	1,7	4,4	6,2
55 urtetik 64ra	0,8	4,3	5,1	1,9	4,0	5,9
65 urtetik 74ra	1,1	2,1	3,2	1,3	4,2	5,5
> 75 urte	0,9	5,8	6,7	0,4	4,1	4,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,0</b>	<b>5,0</b>	<b>7,0</b>	<b>3,1</b>	<b>5,7</b>	<b>8,8</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010.

### III.2.4. Koadroa. Oinarrizko gabezia egoeren eraginaren bilakaera, familiako pertsona nagusiaren nazionalitatearen arabera. 2006-2010. Datuak ehunekotan



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010.

pertsonak buru dituzten familietan, biztanleriaren %12,6k oinarrizko gabezia dimentsioaniztuna jasan du; zifra hori %4,3 izan da 35 eta 44 urte bitarteko pertsonak dituzten familietan. Adierazlea %1,3tik %1,9ra bitartekoa izan da 45-74 urtekoen artean, eta %0,4ra iritsi da 75 urtetik gorako pertsonak dituzten familietan.

Aurreko datuek erakusten dute familia gazteetan bizi diren pertsonen egoerak nabarmen egin duela okerrera 2006-2010 aldian. 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten familietan bizi den biztanleriaren kasuan, oinarrizko gabezia duten pertsonen proportzioa %15,4tik %23,7ra igo da 2006 eta 2010 bitartean, eta adierazle hori %7,8tik %12,6ra igo da arazo dimentsioaniztunen eraginari dagokionez. Era berean, gorakada hori deigarria da 35 eta 44 urte bitarteko pertsonak buru dituzten familietan bizi den biztanleriaren artean. Kasu horretan, oinarrizko arazoak dituzten pertsonen proportzioa %8,4tik %12,1era igo da, eta igoera hori %1,8tik %4,3ra bitartekoa izan da arazo dimentsioaniztunei dagokienez.

- Azkenik, pertsona nagusia atzeritarra duten familietan bizi den biztanleriak ditu bereziki oinarrizko gabezia-arazoak. Pertsona nagusia Estatuko herritarra den familietan bizi den biztanleriaren kasuan, gabezia-egoerak %6,1 izan dira; aitzitik, proportzio hori %51,3ra iritsi da pertsona nagusia beste estatu batzuetako herritarra duten familietan. Alde horiek


berdinak dira gabeziarik larrienen kasuan; esaterako, atzeritarren familietan pertsonen %28k ditu arazo dimentsioaniztunak, eta Estatuko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten familietan, berriz, %1,5ek. Alde horiek ikusita, ez da harrizkoa atzeritarren familietan bizi diren pertsonen oinarrizko gabezia arazoaren %35,1 biltzea, guztizko biztanleriaren %6 besterik ez diren arren. Gabezia dimentsioaniztunak aintzat hartzen direnean, berriz, horien proportzioa %54,1eraino iritsi da. Hortaz, gabezia-egoerarik larrienen, eraginpeko bi pertsonatetik bat baino gehiago atzeritarra da. Gainera, krisiak gehiago eragiten diola, atzeritarren familietako biztanleria oinarrizko gabezia-kasuen %25,9 izatetik %35,1 izatera igaro da 2006. urtetik 2010. urtera. Arazo larrienen —dimentsioaniztunen, alegia— kasuan, erreferentziako biztanleriaren proportzioa %49,4tik %54,1era igaro da.

## 2.3. Gizarte zailtasunak dituzten haurren bizi-baldintzak

Agingabeak eskubideak dituzten subjektuak dira, baina, horrez gain, dituzten ezaugarriak direla-eta, egoera bereziki ahulean dagoen sektorea osatzen dute eta bermatu egin behar diren berariazko eskubideak dituzte. Gainera, badira, beren eskubideei dagokienez, arrisku berezian dauden hainbat talde: babesik gabeko haurrak



## III.2.5. Grafikoa. Arau-esparruaren prozesurik esanguratsuenak (21/87 eta 1/96 Legeak)



Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurren babesari buruzko oinarritzko estatistika.

eta nerabeak, bakarrik dauden adingabe atzeritarrak; adingabe lege-hausleak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, etab. Jarraian gure Erkidegoan gizarte zailtasunak dituzten haurren bizi-baldintzei buruzko ikuspegi orokorra eskainiko dugu, Memoria honek aldi-aldi egiten duen moduan, eta 2004, 2006 eta 2008. urteei buruzko edizioetako informazioaren jarraipena eskainiko luke.

Gure herrian, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan aurreikusita dagoen araber, EAEk eskumen eskusiboa dauka gizarte-laguntzan eta adingabeak babestu eta tutoretzapean edukitzeko eta birgizarteratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, araubide eta jardunbidean. Eta EAEn, indarrean dagoen araudiaren arabera, Hiru Lurralde Historikoetako foru organoek daukate haur eta gazteentzako gizarte eta politika laguntzaren eskumena, euren lurraldeen barruan.

Inguruabar horretan, azken urteotan haurren errealitate honek gizartean izan duen bilakaerak legedi berria ontzea eskatzen du, haurrek orain duten leku berri horren arabera legedia, alegia. Hori ikusita, Eusko Jaurilaritzak 2005ean "Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea"<sup>6</sup> onetsi zuen. Lege hau bat dator indarrean dagoen eskumen-ereduarekin, eta EAEko herri administrazioek beren eskumenak erabiltzeko orduan begiratu behar dituzten printzipioak ezartzen ditu, hala edukiaren aldetik nola prozeduraren aldetik begiratu beharrekoak, eta, beharrezko eta bidezko denean, beste lege batzuen aipamena egiten du, kontuan hartzekoak diren zigor arloko, prozedura arloko eta zibileko legeena, alegia. Lege horrek, zehazki, helburu hirukoitza dauka:

1. Hauretanerabeei bermatzeazuzenbide-antolamenduan ezagutzen zaizkien eskubideak erabili ahal izango dituztela (Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten eskubideak, esan nahi da).
2. Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar

diren zedarritzea, familian eta gizartean behar duten garapena bermatzearen.

3. Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eginkizunaren jardute-printzipioak zedarritzea, bai eta eskumenen eta erakundeen esparrua ere; orobat, arau-hausle adingabeekin egin beharreko esku-hartzearen esparrua.

### 2.3.1. Gizarte zailtasunak dituzten adingabeak babesteko figurak


Gaur egungo sistema juridikoaren arabera guraso biologikoek —edo, hala izanez gero, adopziozkoek— dute adingabeen zaintza fisiko eta moralaren ardura, familiaren barruan. Gerta daitekeenez gurasoak falta izatea, gauza ez izatea, euren ahala gaizki erabiltzea edo euren eginkizunak behar bezala ezin bete izatea, antolamendu juridikoan neurri batzuk ezarri dira ezohiko egoera horiek adingabeengan izan ditzaketen ondorioak arintzeko. Hain zuzen ere, adingabeak arrisku-egoerak onbideratzen dira zerbitzu egokien bidez, zaintza ezartzen da eta, babesik gabe daudenean, tutoretzapean jartzen dira legearen aginduz. Halaber, kontuan izan behar da gurasoek, tutoreek eta zaintzaileek behar bezala bete behar dituztela euren eginkizunak eta zerbitzu baliagarriak izan behar direla adingabeen inguruko arlo guztietan.

Arrisku-egoerak ditugu adingabearen garapen pertsonalari edo gizarte garapenari kalte egiten diotenak, legearen ministerioak tutoretzarik bereganatzea eskatzen dutenak —edo eskatzen ez dutenak— baina adingabearentzako kaltea egotea ezaugarri dutenak. Hala ere, kalte hori ez da hura famili gunetik banantzea justifikatzeko bezain handia. Botere publikoen jarduketak edozein kasutan adingabearen eskubideak bermatu behar ditu, eta hark dituen arrisku-faktoreak eta gizarte-zailtasuna urritzeko eta adingabea eta beronen familia babesteko faktoreak sustatzeko izango da.

Hasteko, zaintzaileak adingabea jagon behar du, lagundu, elikatu, hezi eta osoko heziketaz hornitu. Zaintza hori botere

<sup>6</sup> 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko, EHAAr argitaratu zen 2005eko martxoaren 30ean.

### III.2.6. Grafikoa. Haurren gizarte babeseko figura nagusien bilakaera EAEn. Tasak 100.000 Adingabeiko



Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurren babeserako neurriei buruzko oinarriko estatistika.

publikoek beren gain hartzen dute adingabea babesik gabe dagoela sumatzen denean ( tutoretza eta zaintza), guraso edo tutoreek eskatzen dutenean, adingabea inguruabar larriengatik artatu ezin dutela justifikatuz eta beharrezkoa den denboran, edo epaileak erabakitzen duenean (ezkontza deuseztatu edo senar-emazteak banandu edo dibortziazteko prozeduretan, auzi penal batean edo tutoretza arrunta eratu aurretiko aldian,

adingabearen onerako). Zaintza, Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailek beren gain hartu behar dutena, egoitza harreraren bitartez egiten da, zentro propioetan edo besteren zentroetan, edo famili harreretan, besteren familiaren edo familia zabalaren baitan.

Beste alde batetik, adingabearen tutoretza bereganatu beharra dago, baldin eta hura babesik gabe badago. Horrela daude haurrak, baldin eta behar duten laguntza moral edo materialik gabe geratzen badira, adingabeak zaintzeko legeek babesteko ezarritako eginbeharrak ez betetzeagatik edo berauek burutu ezinagatik edo behar bezala ez burutzeagatik. Berehalako ondorioak dira guraso-ahala edo tutoretza arrunta etetea eta zaintza bereganatzea, honakook baliatuz: egoitza-harrera edo famili harrera.


### 2.3.2. EAEn gizarte babesa jasotzen duten adingabeen kolektiboa

Ezin da zehazki jakin zenbat adingabe dauden babesik gabe, egoera horietariko asko ez baitira ezagutzen, neurri egokiak hartu ahal izateko detektatzen ez direlako. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Familiaren Behatokiak egindako "Haurtzaroaren babesari buruzko estatistikak" azaltzen duenez, deigarria da haur eta gazteekin harremanean dauden profesionalak hauxe esatea: 1.000 adingabetik 15ek tratu txar edo arduragabekeria fisiko edo psikikoren bat jasan ahal dute. Nolanahi ere, talde horren guztizkoari dagokionez, Gizarte Zerbitzu arduradunek zati txikia baino ez dute detektatzen, eta, beraz, atal honetako gainerako zatian datu erabilgarriak aurkeztuko ditugu, hau da, gizarte-arriskuko egoeran dauden haurren babesari buruzko estatistikak; estatistika horiek Estatuko beste autonomia erkidego

### III.2.8. Koadroa. Irekitako babes espedienteak, autonomia erkidego bakoitzeko. Tutoretzen eta zaintzen arteko banaketa. 2009ko abenduaren 31ko datuak

	Espedienteak		Tutoretzak		Zaintzak	
	Kop.	Tasak 100.000 Biztanleko	Kop.	%	Kop.	%
Andaluzia	6.416	396,8	6.299	98,2	117	1,8
Aragoi	1.127	535,4	434	38,5	44	3,9
Asturias	..	..	..	..	..	..
Balearrak	1.348	679,6	671	18,5	537	38,8
Kanariak	1.471	379,3	1.381	93,9	90	6,1
Kantabria	402	457,4	205	51,0	197	49,0
Gaztela eta Leon	1.310	364,1	935	71,4	207	15,8
Gaztela-Mantxa	1.211	327,7	1.047	86,5	164	13,5
Katalunia	8.071	616,3	7.845	97,2	226	2,8
Valentzia	4.090	453,3	2.647	64,7	1.443	35,3
Extremadura	663	342,0	581	87,6	82	12,4
Galizia	2.483	647,1	1.507	60,7	976	39,3
Madril	4.590	397,3	3.360	73,2	690	15,0
Murtzia	1.215	404,9	1.215	100,0	0	0,0
Nafarroa	854	784,8	236	27,6	244	28,6
<b>EAE</b>	<b>1.927</b>	<b>589,4</b>	<b>1.357</b>	<b>70,4</b>	<b>570</b>	<b>29,6</b>
Errioxa	534	1.014,9	109	20,4	102	19,1
Ceuta	316	1.846,0	237	75,0	1	0,3
Melilla	333	1.819,1	105	31,5	4	1,2
<b>ESTATUA GUZTIRA</b>	<b>38.397</b>	<b>479,8</b>	<b>30.171</b>	<b>78,6</b>	<b>5.694</b>	<b>14,8</b>

Iturria: OSASUN, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurren babesari buruzko oinarriko estatistika.

**III.2.7. Grafikoa. Exlege tutoretzak: tasak 100.000 biztanleko (abenduaren 31n)**

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurren babeserako neurriei buruzko oinarritzko estatistika.

batzuetakoekin konparatuko dira, hori egiteko aukerarik egonez gero.

Estatistika honek, lehenengoz, irekita dauden espedienteen kopurua aurkezten du babes neurrien pean zenbat haur dauden jakiteko erreferentzia gisa, haur bakoitzarentzat espediente bakarria irekitzea espero delako. Dena dela, aintzat hartzen du Autonomia Erkidegoek protokolei dagokienez funtzionamendu diferentea dutela eta, horregatik, balitekeela datuak guztiz konparagarriak ez izatea. Horrela, EAEn 2009an guztira 1.927 espediente ireki zitzaizkien adingabeei, babes neurriren baten ondorioz. Beraz, 100.000 haurretatik 589,4 babes neurriren baten pean daude. Estatuan tasa hori 100.000 haurretatik 479,8 da. Tasarik txikiena Gaztela-Mantxakoa da (327,7), eta Ceutakoa, aldiz, handiena (1.846).

Arreta jasotzen duten adingabeen ezaugarriak dagokienez, ARARTEKOak, Legebiltzarrarentzako urteko txostenetan, arreta deitu drogak egunero kontsumitzen dituzten eta euren gurasoek arau edo mugak ezartzeko ezintasuna sentitzen duten 13 eta 17 urte bitarteko nerabeen kopuru gero eta handiagori buruz. Horrekin batera eskola-absentismoa gertatu ohi da, eta bestalde, gero eta gehiago dira beste kultur kode batzuk dituen biztanle immigranteak, guraso bakarreko familiak, familia barruko indarkeriari eta emakumeen aurkako tratu txarrei lotutako arriskuak...

**(a) Ex lege tutoretzak**

Gure Erkidegoan, Foru Aldundiek urtero 250 adingaberen tutoretza hartzen zuten beren gain (244 alta 2004an), gurasoek euren ardura egoera normalean hartu ezin izan zutelako, baina 2006an datu hori bikoiztu egin zen, 500 alta baino gehiago egon zirelako, eta 2009an —eskuragarri dagoen azken datua— 569 erregistratu ziren. Horrek 100.000 adingabeko 174 alta egiten ditu, Estatuko<sup>7</sup> 101 alten aldean.

Erakundeek haurren arloan duten politikaren baldintzatariko bat haurrak guraso biologikoekin egotea da; hala ere, muturreko egoera batzuetan hori ezinezkoa izaten da. Oro har, udal Gizarte Zerbitzuek detektatzen

dituzte halako egoerak, kasurik gehienetan ikastetxeetatik, auzotarrengandik edo Udaltzaingotik iristen zaien informazioari esker.

Familiei laguntzeko teknikarien ustez, seme-alabak zaintzeko ezintasuna duten familiek profil argirik eduki ez arren, gehienetan familia horietan zenbait faktore biltzen dira, esate baterako langabezia, gizarte-bazterkeria, droga-mendekotasunak eta/edo gaixotasun mentalak. Guztiarekin ere, eta hurrengo atalean ikusiko denez, aintzat hartu behar da bakarrik dauden gazte atzerritarren kopuruak gora egiteak eragina duela Administrazioaren laguntza duten adingabeen kopuruaren hazkunde

**III.2.9. Koadroa. Egoitza-harrera: tasak 100.000 Adingabeko. Abenduaren 12ko datuak**

	2007	2008	2009
Andaluzia	181,7	172,1	172,9
Aragoi	154,7	155,7	143,0
Asturias	363,6	332,1	305,2
Balearrak	70,1	171,7	172,8
Kanariak	316,4	296,3	272,6
Kantabria	197,5	180,6	196,9
Gaztela eta Leon	150,4	161,9	137,0
Gaztela-Mantxa	129,0	127,8	132,3
Katalunia	196,7	195,6	200,1
Valentziako E.	171,8	173,7	129,4
Extremadura	248,8	268,7	192,4
Galizia	231,6	208,5	278,6
Madril	167,4	157,4	153,2
Murtzia	92,3	72,1	85,6
Nafarroa	132,0	173,8	127,7
<b>EAE</b>	<b>338,1</b>	<b>380,3</b>	<b>361,8</b>
Errioxa	190,0	153,8	134,9
Ceuta	904,5	1.048,4	812,0
Meilla	..	2.146,6	..
<b>ESTATUA GUZTIRA</b>	<b>194,1</b>	<b>194,8</b>	<b>183,0</b>

Iturria: OSASUN, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurren babesari buruzko oinarritzko estatistika.

<sup>7</sup> Urteko alten adierazlea ez da nahastu behar abenduaren 31n egoera batzuetan eta besteetan dauden adingabeei buruzko datuekin.

### III.2.10. Koadroa. EAEko adingabeentzako egoitza-baliabideen sarea: Sare orokorra eta bakarrik dauden adingabee atzerritarrentzako berariazko sarea. 2009

	Sare orokorra		Adingabe atzerritarrak		Guztira	
	Zentroak	Plaza kop.	Zentroak	Plaza kop.	Zentroak	Plaza kop.
Araba	12	122	6	105	18	227
Bizkaia	28	381	18	325	46	706
Gipuzkoa	22	217	13	182	35	399
EAE GUZTIRA	62	720	37	612	99	1.332

Iturria: ARARTEKOA (2011): Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak.

handian. Guztira, Foru Aldundiek 2009ko abenduaren 31n 1.357 adingabe zituzten euren tutoretzapean, eta horrek 100.000 adingabetatik 415eko tasa egiten du —aurreko urtearen antzekoa—.

Datu horiek Estatuan gertatzen denarekin konparatzen baditugu, agerian geratzen da EAEn datuak (100.000ko 415) gora egin duela nabarmen azken urteetan, eta Estatuko batez bestekoa baino handiagoa dela azken bi urteetan, grafikoan ageri denez. Hain zuzen ere, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak egindako azterketen arabera, urtean zehar tutoretzapeko haurren kopuruak etengabeko hazkundera izan du orokorrean; horrela, alta kopurua nahiko egonkorra izan arren, urte bakoitzaren amaieran tutoretza duen haur kopurua gero eta handiagoa da, eta horrek aditzera ematen du baja kopurua alta kopurua baino askoz ere txikiagoa dela.

#### (b) Egoitza- eta familia-harrera

Babesgabeziako egoeran dauden adingabeen egoitza-harrera Aldundien zentroetan edo horiekin hitzartutako beste batzuetan egin daitezke<sup>8</sup>. Aldi baterako egoera horien xedea, oro har, adingabea familia biologikoari itzultzea, familia-harrera egitea edo seme-alabatzen hartzea da, epailearen erabakiz auzi penalean neurri hori hartzen denean izan ezik. Mota horretako harrera Foru Aldundiaren zaintzapeko adingabeentzat da gehienbat, nahiz eta inoizka adinez nagusiak izan, batez ere neba-arrebak direnean. Horrelako kasuak onartu aurretik zentroak eta Sailak azterketa eta balorazioa egiten dituzte. Bestalde, adin nagusitasunera heldu baino lehenagotik Aldundiaren zaintzapean dauden gazteak adin nagusitasunera heldu eta hurrengo 24 hilabeteetan ere onuradun izan daitezke, Foru Aldundiak baimena emanaz gero.

18 urtera heltzen direnean harrera-egoeran dauden adingabeek dagokienez, arreta deitu du une honetan dituzten arazoei buruz, adin nagusitasunera heltzeko une horretatik aurrera laguntzako mekanismo gutxi baitaude. Horrek pobrezia eta gizarte bazterkeria ekar ditzake, gazte horiek eragozpenak izan baititzakete lana aurkitzeko, ez dutelako familia-loturarik, etab.

Egoitza-harreraren altak adingabearen guraso-ahalaren titularrek eskatu ahal dituzte (borondatezko zaintza-neurriak dira), ex lege tutoretzaren ondorioz edo ebazpen judizialaren bidez, batik bat; baja, berriz, adingabea berriro familian sartzen delako edo familia-, administrazio- edo judizio-harrerara igarotzen delako gertatzen dira.


Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuek erakusten dutenez, EAEn egoitza-harreraren urteko altek behera egin dute azken urtean, baina goranzko joera mantentzen dute, Estatuko batez bestekoa baino handiagoa dela. Urte amaieran egoitza-harreraren

dauden adingabeen guztizko kopuruari dagokionez, gure Erkidegoan 1.183 daude. Horrek 100.000ko 361,8ko ratioa ematen du, Estatuko batez bestekoa den 100.000ko 183ren aldean. Erkidegoz Erkidego, alde handiak ikusten dira, Murtziako 100.000ko 85,6tik Ceutako 100.000ko 812ra.

ARARTEKOak 2011n “Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak” izeneko aparteko txostena aurkeztu zuen, Foru Aldundien emandako informazioan oinarrituta. Txosten horren datuek diotenez, gure Erkidegoak adingabeentzat 99 egoitza-zentroko sarea du (2009ko datuak), eta zentro horietatik 37 berariak bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat dira. Zentro horiek guztira 1.332 plaza dituzte, eta horietatik erdia baino gehiago (706) Bizkaiko egoitzetan daude, horren atzetik Gipuzkoa doa (399 plaza 35 zentrotan) eta Araba (227 plaza 18 egoitzetan).

Aldundien mendeko egoitzetan dauden adingabeen ezaugarriak dagokienez, ikusten da gehienak gizonezkoak direla (3rentzako 7ko ratioa) eta batez besteko adina handia dela, 10etatik 6k 16 edo 17 urte dituztelako, eta %6 eskasak 6 urtetik beherakoak direla. Estatu osoko batez besteko daturik ez dagoen arren, ezaugarri horiek

### III.2.8. Grafikoa. EAEn babes-neurrien pean hartutako adingabeen banaketa, adin-taldean arabera (2009)



Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurren babeserako neurri buruzko oinarritzko estatistika.

EH: Egoitza-harrera.

FHA: Familia-harrera administratiboa.

FHJ: Familia-harrera judiziala.

<sup>8</sup> Halaber, ondorio horietarako, zentroen antzekotasunak jotzen dira tutoretzapeko etxebizitzak, etxe funtzionalak, miniegoitzak, etab.

## III.2.11. Koadroa. Familia-harrera: tasak 100.000 Adingabeko. Abenduaren 12ko datuak

	Judiziala*			Administratiboa		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Andaluzia	143,1	118,0	109,5	126,2	121,8	123,9
Aragoi	36,8	36,4	36,1	56,7	61,1	59,4
Asturias	217,9	215,1	229,5	174,6	195,5	239,2
Balearrak	55,1	61,8	48,1	51,1	218,9	217,5
Kanariak	83,1	87,1	76,6	254,7	276,2	279,5
Kantabria	92,3	100,7	93,3	111,2	98,4	103,6
Gaztela eta Leon	67,0	45,3	44,2	85,1	87,8	87,8
Gaztela-Mantxa	117,4	101,6	102,0	93,4	94,4	93,4
Katalunia	..	..	..	301,2	296,4	315,1
Valentziako E.	209,4	208,8	..	330,8	352,3	205,6
Extremadura	..	9,7	12,4	..	181,7	199,6
Galizia	362,7	355,9	365,9	367,4	398,1	396,1
Madril	95,5	107,9	130,5	92,3	84,2	83,4
Murtzia	440,9	104,1	118,6	259,1	179,2	186,3
Nafarroa	92,5	85,5	85,5	227,5	213,2	138,8
EAE	103,9	95,7	108,9	108,9	102,2	104,9
Errioxa	74,0	77,9	95,0	166,0	177,2	159,6
Ceuta	..	152,3	93,5	..	..	344,7
Melilla	..	..	0,0	671,4	517,2	464,3
ESTATUA GUZTIRA	154,9	128,8	117,7	191,9	194,9	182,6

Iturria: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. Haurren babesari buruzko oinarritzko estatistika.

\* Agindu judizialaren bidezko familia-harrerarako, urtearen amaieran aktibo dauden ebazpenen datua hartzen da kontuan.

beste Erkidego batzuen antzekoak direla ikusten da, sexuari dagokionez —informazio hori duten guztietan mutilak gehiago dira neskak baino-, baina EAE, Melilla eta Nafarroarekin batera, nabarmendu egiten da artatutako adingabeen “zahartze” erlatiboarengatik.

Familia-harrerak, bestalde, adingabeak familian erabat integratu behar izatea dakar; etxekoek zaindu egin behar dute, eurekin eduki behar dute, elikatu egin behar dute, hezi egin behar dute eta prestakuntza integrala eman behar diote. Hainbat modalitate bereizten dira, espedientearen jatorriaren arabera (administratiboa edo judiziala, kontuan hartuta harrera erabaki judizial baten ondoriozkoa den —gurasoek edo tutoreek onartu ezean— edo erakunde publikoak, harreragileek, adingabeek eta haren senideek adostasuna ematen duten) eta lortu nahi diren helburuen arabera. Horri dagokionez, harrera bakuna (iragankorra, bai gerora familia biologikoarengana itzultzea aurreikusten delako, bai babes-neurri egonkorragoren bat hartu arte), iraunkorra (adingabearen eta horren familiaren adina eta egoera aintzat hartuta komenigarria denean) edo adopzioaren aurrekoa (adopzioaren aurreko fasea) izan daiteke.

Modalitate horretan hartutako adingabeen kopuruei dagokionez, gure Erkidegoak, 2009ko amaieran, guztira 343 egon ziren. Horrek 100.000ko 104,9ko ratioa egiten du, Estatuko batez bestekoa den 182,6ren aldean. Maila horiek egonkor samarrak dira, bi kasuetan, denborazko serie osoan.

Erkidegoz Erkidego, nabarmentzekoak dira Galiziako familia-harreraren maila handiak, Ceuta eta Melillaz gain. Aragoi, aldiz, tasarik txikiena erregistratzen da, 100.000ko 59,4.

Azkenik, agindu judizialaren bidezko familia-harrerak kontuan hartuta, mota horretako familia-harreraren ratioak EAEn administrazio bidezko harreraren ratioen antzekoak dira, 100.000ko 100 adingabe inguru harreran: 2009ko

abenduaren 31n, guztira 356 adingabe egon dira mota horretako harreran, edo beste modu batean esanda, 100.000ko 108,9 (Estatu batez bestekoa 100.000ko 117,7 da).

### 2.3.3. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasua


Bakarrik dauden adingabe atzerritarren presentzia fenomeno nahiko berria da gure Erkidegoan, eta erronka handiak planteatzen dizkie adingabeen babesaren arloan eskumena duten administrazioei. Esku hartzearen premiak eta beharrak zaildu egin dute, halako egoeren berritasunaren eraginez, beharrezko baliabideen planifikazioa. Gainera, adingabe atzerritarrekiko esku-hartzearen arloan aurretiazko esperientziarik ez dagoenez, beharrezkoa da lorpenak eta zailtasunak etengabe baloratzea, eta esku-hartzean ezinbesteko egokitzapen guztiak egitea.

2009an, Foru Aldundiek bakarrik zeuden gazte atzerritarren 587 espediente berriren altak eman zituzten, aurreko urtean baino %27,2 gutxiago; horietatik %59 Bizkaian erregistratu ziren, %20 Gipuzkoan eta gainerako %21 Araban. Beste alde batetik, urtean 1.275 adingabe egon dira harreran. Horrek adierazten du talde horretan mugikortasuna handia izan dela, adingabe asko beren kabuz joaten direla eta asko ere berriro sartzen direla. Hala eta guztiz ere, urte horretako abenduaren 31n Aldundiek 576 adingabe atzerritar zenbatu zituzten egoitza-baliabideetan, 2008an baino %11,9 gutxiago.

Arartekoaren “Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak” txostenak (2011) azken urteotan Lurralde bakoitzean egon den bilakaera diferentia nabarmen du:

- Bizkaian, bakarrik dauden adingabe atzerritar gehien dagoen Lurraldea izanik, datuetan nolabaiteko egonkortasuna lortu da (urtean 400 sarrera berri eta

### III.2.9. Grafikoa. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak: Harreren urteko altak



Iturria: ARARTEKO, Foru Aldundien datuekin.

urte amaieran 350 harreran). 2009an 346 alta berri egon ziren, eta abenduaren 31n 359 adingabe atzerritar zeuden harreran erregistratuta.

- Araban, —bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopururik txikiena izan ohi duen lurraldea—, hala ere, igoera ikusgarria izan da 2007tik 2008ra. Horrenbestez, sarrera berriak 3,5 aldiz handiagoak dira, eta abenduaren 31n harreran dauden kopurua 2,4 aldiz handiagoa. 2009an 122 alta berri egon ziren, eta abenduaren 31n 101 adingabe atzerritar zeuden harreran erregistratuta.
- Gipuzkoan ere igoera nabarmena gertatu da, baina ez hain proportzio handian: Aurreko urtean baino 69 sarrera gehiago, edo harrerako 75 adingabe gehiago abenduaren 31n. 2009an 119 alta berri egon ziren, eta abenduaren 31n 116 adingabe atzerritar zeuden harreran erregistratuta.

Beste alde batetik, kontuan hartzen badugu 2009an —Ministerioaren datuekin, Foru Aldundiek emandako informazioan oinarrituta— EAEn guztira adingabeen egoitza-harrerako 892 alta egon zirela eta horietatik 587 atzerritarrak izan zirela, ikus dezakegu atzerritarren ratioa %65,8 dela. Horrek immigrazioari lotutako arazo horren garrantziaren berri ematen digu. Izan ere, aztertutako adierazle guztiek adierazten dute EAeko erakundeek artatzen dituzten adingabeen artean gehienak atzerritarrak direla.

Hala ere, ARARTEKOak bere txostenean agerian jarri duenez, datuek auzitan jartzen dute biztanleen artean oso arrunta den iritzi bat: talde hori etengabe handitzen

ari dela, alegia. Zehazki, 2009ko datuek erakusten dute azken urteetako joera egonkortu dela eta are gehiago, 2008ko kopuruekin alderatuta jaisi dela (hala, adibidez, abenduaren 31n harreran dauden adingabe atzerritarren kopurua %11,9 murriztu da 2008 eta 2009 artean), Arabako lurraldean izan ezik (urte amaieran harreran zeuden adingabe atzerritarren kopurua, aurreko urtearekin alderatuta egonkorra den arren, 2,5 aldiz handitu da azken bi urteetan).

Babesik gabe dauden adingabeen talde hori ez da homogenea, eta bertan, profil oso anitzak daude. Hainbat iturrik dioenez, gainera, gazteen profila aldatzen ari da apurka, gero eta adin txikiagoak direlako. Hori ARARTEKOak pertsona horien migrazio-proiektuaren aldaketa gisa interpretatzen du; izan ere, duela zenbait urte “ia helduak” ziren eta migrazio-proiektu argia zuten pertsonen emigrazioa sumatzen zen. Pertsona horiek lan egiteko, bizi baldintzak hobetzeko eta jatorriko familiari laguntzeko emigratzen zuten. Gaur egun “nerabeen” emigrazioa da, proiektu definiturik ez duten pertsonena. Denboraren joan-etorrian bere horretan mantentzen dena, ordea, nesken aldean mutilen gehiago harrigarria da: batez beste, hiru Lurraldeetan mutilak artatutako adingabe atzerritar guztien %95 izan dira.

“Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak” txostenak funtsezko alderdi baten jarraipena egiten du: adingabe horiek administrazio alderdian erregulatzea. Berebiziko auzi horrek baldintzatu egiten ditu pertsona horiek gizarteratzeko edo laneratzeko aukera guztiak, bereziki adin heldura heltzen direnean. Aurkikuntzarik azpimarragarrienak honako hauek dira: hasteko, aintzat hartutako tutoretzen kopurua asko aldatzen da urtearen eta, bereziki, lurraldearen arabera, eta araudiak honi buruz ezartzen duena gorabehera, egoitza-baimena kasu gutxitan lortzen da 9 hilabetetan.

Gainera, kontuan hartzen badugu erregularizazio-prozesua egoitza eta lan baimenarekin amaitzen dela, gutxi batzuk iristen dira horretara, aurkeztutako eskabideen kopuruaren eta lortutako baimenen kopuruaren arteko proportzioa era berean oso handia dela onartzen den arren. Horrek zera esan nahi du: aurretiazko dokumentazio osoa lortzen eta eskabidea aurkeztzen duenak, baimen biak lortzeko aukera asko ditu.


Ikerketa honek, azkenik, hainbat erakunderi zuzendutako gomendio batzuk egiten ditu. Horien artean nabarmentzekoa da inplikaturako agente guztien artean oinarritzko akordioa lortzeko eta hiru lurraldeetarako baterako harrera-protokoloa eskura edukitzeko beharrezkoa. Halaber, babes juridikorako eskubidea behar bezala bideratzea gomendatzen du, bereziki

### III.2.12. Koadroa. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren adierazleen bilakaera EAEn 2005-2009

	Urtean zehar hartutako gazte “berrien” kopurua	Urtean hartutako adingabeen kopuru osoa	Abenduaren 31n hartutako adingabeen kopurua	Abenduaren 31n emantzipazio-baliabideetan zeuden adingabeen kopurua
2005	541	670	206	122
2006	662	866	379	58
2007	639	1.020	518	82
2008	806	1.325	654	75
2009	587	1.275	576	203

Iturria: ARARTEKO, Foru Aldundien datuekin.

### III.2.10. Grafikoa. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoitza-harrera EAEn: Hartutako adingabeen altak eta guztizko kopurua. Urtean hartutako adingabeen guztizko kopuruarekiko konparaketa



Iturria: ARARTEKOaren eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuekin egina.

babes-erakundeen erabakien eta adingabeen euren interesen artean gatazka-egoerak gertatzen direnean.

#### 2.3.4. Adingabeak pobrezian

Gizarte aurreratuetan adingabeen babesgabezia egoerak eta alderdi ekonomikoko ongizatearen gabezia ez daude zertan lotuta egon behar. Hala ere, kontua da praktikan bi arazoak lotuta daudela, eta normalean gizarte arazoak dituzten adingabeek lehenengoz pobrezia egoerak jasaten dituztela euren familia-ingurunean, beste arazo batzuekin batera, adibidez tratu txarrak, droga-mendekotasunak edo ezgaitasunak.


Pobrezia eztabaidaren protagonista diren gaien artean, auzi gehienak sortzen dituen haurren egoera-aldaketa da. Hainbat azterlanek agerian jarri duenez, herri aberatsetan haurren pobrezia nabarmen egin du gora azken bi hamarkadetan, eta haurrek talde bereziki ahula osatzen dute. Gainera, egiaztapen horrek dakartzen ondorioak nabarmenak dira epe laburrean zein luzean. Izan ere, zailtasun ekonomikoak eta gizarte zailtasunak dituzten familietan hazteak ondorioak dakartza, ez soilik gaur egungo egoeran, baizik eta euren garapenean eta etorkizuneko aukeretan ere bai.

Europar Batasunean, haurren %26,9k pobrezia edo gizarte bazterkeria jasateko arriskua dauka, Europako Batzordeak arazo horien jarraipena egiteko "Europa 2020" Estrategiaren zati gisa hartutako adierazlearen arabera —adierazle hori lehenago ikusi da kapitulu honetan—, biztanleria osoaren %23,4ren aurrean. Herri batzuetan, Bulgaria eta Errumania, kasu, haurren %40 baino gehiagok pobrezia egoera hori jasaten du eta gabezia larriak pairatzen ditu, eta herri horietako gehienetan (hain zuzen ere, guztietan lautan izan ezik: Finlandian, Suedian, Danimarkan eta Eslovenian izan ezik) haurrek pobrezia jasateko aukera handiagoak dituzte biztanleria orokorrak baino. Arrazoi horregatik, bai Batasunak bai Batasuneko kide diren Estatuak haurren pobrezia aurkako borroka lehenetsun handien artean jarri dute.

2008 aldean, Europako Batzordeak, Gizarte Babeseko Lantaldearen bitartez, gai horri buruzko txostena<sup>9</sup> egin zuen. Txosten horrek, besteak beste, ondorio hauek aurkeztu zituen:

- Lehenengoz, nabarmendu egin zen familia-ezaugarriak, gurasoen lan-egoera eta gobernuaren esku-hartzearen eraketa Europar haurren pobrezia dagokionez hiru faktore erabakigarriak direla. Hainbat datu aurkeztu ziren, adibidez honako hauek: Europako haur pobreen %22 guraso bakarreko familietan bizi dira, %25 familia ugarietan, eta immigranteek edo talde minoritarioek osatutako familietan hazten diren haurrek ere beste haurrek baino zailtasun gehiagori egin behar diete aurre.

### III.2.11. Grafikoa. Haurren (0 eta 17 urte bitartean) eta biztanleria osoaren pobrezia eta bazterkeria arriskuko tasa (2010)



Iturria.-EUROSTAT.ROPE 2010.  
Oharra: Ez dago daturik CY eta Ilerako.

<sup>9</sup> THE SOCIAL PROTECTION COMMITTEE (2008): Child poverty and well-being in the EU. Current status and way forward. European Commission.

### III.2.13. Koadroa. Pobrezia eta prekariedade egoeren bilakaera, familia talde motaren arabera. 1996-2008 (Familia-etxebizitzetako biztanleria, % bertikaletan)

	Mantentze-pobrezia				Metatze-pobrezia				Pobrezia erreala				Erabateko ongizaterik ez			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Talderik ez	6,7	18,9	19,9	17,0	7,3	7,7	7,2	8,3	7,2	11,4	16,3	11,7	7,4	11,6	11,9	16,0
Seme-alabarik gabeko bikotea	11,7	12,7	13,7	14,1	10,2	8,7	8,0	7,1	6,3	8,7	9,1	8,1	12,7	10,8	14,2	16,0
Seme-alabak dituen bikotea	61,2	49,8	42,0	43,5	68,1	65,9	39,4	51,6	68,0	60,3	36,8	51,9	70,4	65,7	57,9	52,9
Guraso bakar.	20,4	15,0	23,5	24,1	14,4	17,7	44,6	33,0	18,4	16,4	36,8	26,7	9,5	10,3	14,7	13,6
Beste mota bat	:	3,6	0,8	1,3	:	0,0	0,8	0,0	:	3,3	1,0	1,7	:	1,7	1,3	1,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. TGDI 2008.

Halaber, 30 urte baino gutxiagoko gurasoak dituzten haurrek pobrezia arrisku askoz handiagoa dute (%27 amak 30 urte baino gutxiago dituenen, %19, berriz, 30 eta 39 urte bitarteko adina duenean, eta %16 40 baino gehiago baditu). Gauza bera gertatzen da kualifikazio eskaseko gurasoak dituzten haurrekin (haur pobreen kasuen %30ean gurasoetako batek ere ez du bigarren hezkuntzako titulaziorik). Eta, lan egoerari dagokionez, egiaztatu da langabezia dauden eta seme-alabak dituzten familien %62 pobrezia jasateko arriskuan daudela.

- Txostenak, halaber, egiaztatu du Estatu kideek hainbat politika eta ekimen garatzen dituztela egoera horiek arintzeko, eta uste du efikazena haur guztientzako laguntza unibertsalak eta talde ahulenentzako berariazko neurriak bateratzen dituztenak direla. Halaber, txostenak dioenez, gurasoen laneratzea hobetzeko ekimenetan, funtsezkoa da haurrak zaintzeko kalitatezko zerbitzuak edukitzea, eta halaber, lan ordutegi malguak ezartzea eta lanean baimenak arinago ematea. Haurren garapenerako laguntzari dagokionez, laguntza goiztiarra, eskola uztearen aurkako borroka eta laguntza sanitarioko nahiz etxebizitzako zerbitzuen hobekuntza lehentasunezko jarduketara ardatzak dira haurren eskubideak bermatzeko eta bereziki ahula den talde horren pobrezia aurka ekiteko.

Gure Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren 2008ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak lehenengoz egiaztatu zuenez, guraso bakarreko familien pobrezia arrisku diferentzial handiagoaren ondorioz, baina horrez gain, batzuetan, arazo horrek seme-alabak dituzten bikoteengan duen eragin erlatibo handiagoaren ondorioz (pobrezia errealeko %2,6, seme-alabarik ez duten bikoteen %1,5aren aldean), erreferentzia-urtean, 14 urtetik beherako haurrak dauden etxeetan pobrezia eta prekariedadearen arazoek eragin handiagoa dute.

Hala, adingaberik gabeko etxeetan bizi diren pertsonen %17,6ko kopuruen aldean, 14 urtera bitarteko seme-alaba

bat edo gehiago dituzten etxeetan prekariedade arazoaren eragina %27,6koa da. Pobrezia errealearen tasa ere handiagoa da 14 urtetik beherako adingabe bat edo gehiago dituzten etxeetan, %5,7rekin. Ratio hori adingaberik ez dagoen etxeen %1,8a baino askoz handiagoa da.

2008ko Inkestak, hala ere, 2004ra arte behatutakoarekin alderatuta hobekuntza nabarmena egon dela erakutsi du: seme-alabak dituzten etxeetan bizi diren biztanleen prekariedade-tasak %40 eta %45 bitartekoak ziren 2004ra arte, eta pobrezia erreala %7 eta %8 bitartekoa zen. Alde nabarmena da adingaberik ez dagoen etxeetako tasekin, horien joera beheranzkoa baita. 2004 eta 2008 artean, aldiz, jaitsiera garrantzitsua gertatu da adingabeak dituzten familietan, prekariedade-tasa %41,4tik %27,6ra jaitsi baita, eta pobrezia errealearena, %7,1etik %5,7ra. Hala ere, jaitsiera hori, nahiko txikiagoa da adingaberik ez duten familietako pertsonena baino. Izan ere, famili horietan %3tik %1,8rako jaitsiera egon da azken lau urteetan.

Pobrezia-adierazleei dagokienez, pobrezia eta prekariedadeak 14 urtetik beherako haurrak dituzten familietan duen eragin handiagoak arrisku larriagoko egoera sortzen du adin horietako adingabeen multzoan. Ongizatea lortzeko zailtasunak dituzten 14 urteko edo gehiagoko pertsonen %20,1aren aldean, 2008an proportzioa %27,5ekoa zen 14 urtetik beherakoaren artean. Ildo beretik, 14 urtetik beherakoaren pobrezia errealeko tasa gainerako biztanleriari dagokiona halako bi da ia-ia: %5,4, %2,8ren aldean.

Epe luzean joera beheranzkoa den arren, diferentzial handiagoa mantentze-pobrezia dagokio. Hain zuzen ere, haurren kasuan %6,1 da, eta 14 urte edo gehiagoko biztanleriaren kasuan, aldiz, %3,8. Metatze-pobrezia dagokionez, aldiz, aldea askoz txikiagoa da: %1 eta %0,6, hurrenez hurren. Azken urteotan ikusitako prozesurik positiboetako bat hain zuzen ere metatze-pobrezia haurren artean izan duen beherakadarekin lotuta dago:

### III.2.14. Koadroa. Pobrezia eta prekariedade egoeren eraginaren bilakaera, 14 urtetik beherakoaren artean familian. 1996-2008

	< 14 urte				> 14 urte			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Mantentze-pobrezia	14,2	9,1	8,9	6,1	8,7	6,0	5,7	3,8
Metatze-pobrezia	2,8	4,6	4,9	1,0	1,7	2,3	1,9	0,6
Pobrezia erreala	9,1	7,6	8,0	5,4	5,4	4,0	3,8	2,8
Erabateko ongizaterik ez	43,9	39,6	41,5	27,5	40,8	32,4	31,5	20,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza. TGDI 2008.




1996ko %2,8tik 2004ko %4,9ra arte etenik gabe igo ondoren, tasa %1ra arte murriztu da 2008an.

2004 eta 2008 bitartean erregistratu zen joera-aldaketa prekariedade-kopuruetan ere ikusten da. 1996tik 2004ra %40 inguruan egon ondoren, tasak behera egin zuen %41,5etik %27ra aipatu laurtekoan, 14 urtetik gorako biztanlerian erregistratutakoa baino intentsitate askoz handiagoarekin. Biztanle horien kasuan, hala ere, 2004 eta 2008 bitartean ikusitako %31,5etik %20,1erako jaitsierak 1996az geroztik jada ikusi zen %40,8tik honako beherakada luzatu du.

Ondorio gisa esan daiteke joera berriek, nolana ere, haurren biztanleriak, 2004 eta 2008 bitartean, bat egin duela pobrezia-adierazleek EAEko gainerako biztanleen artean urte batzuetatik hona izandako bilakaera positiboarekin. Dena dela, ez dakigu gaur egungo egoera ekonomikoak zein neurritan eragingo dien egoera horiei (bai biztanleriari, orokorrean, bai haurrei), ez baitago informazio berriagorik gure erkidegoko pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruz. Hala ere, gure gizartea aurrekaririk gabeko krisiaren eraginpean dagoenez, litekeena da bizi-baldintzek okerrera egitea, bereziki talderik ahulenentzat.

### III.2.12. Koadroa. Pobrezia errealeko egoeren eraginaren bilakaera, familiako 14 urtetik beherako haurren kopuruaren arabera. 1996-2008



# 3. Osasun eta osasun sistema

## 3.1. Osasun egoera

### 3.1.1. Bizi itxaropena

Jaiotze uneko bizi itxaropena (BI) biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da. Osasun maila ez ezik, adierazleak leku jakin bateko gizarte, ekonomia eta osasun maila islatzen ditu. X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren arabera berariazko heriotza tasetan egungo joerek iraenez gero. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Neurri hipotetikoa da, ez baitu bizirauteko benetako probabilitaterik neurtzen. Egungo heriotza tasen arabera kalkulatu da eta, jakina, tasa horiek denboran alda daitezke. Abantaila nagusia honakoa da: zenbait eskualde edo herri erkatzeko eta denboran izandako bilakaera aztertzeko erabil daiteke, erkatutako erkidegoetako adin egituren arteko aldeak eragiten ez diotelako.

Estatistika-iturri guztiek erakusten dutenez, EAEko jaiotze uneko bizi itxaropenak (BI) gorako joera izan du, bai emakumezkoen artean, bai gizonezkoen artean. Adibidez, EINen datuek erakusten dute 2003 eta 2009. urteen artean BI 80,3 urtetik 81,9 urtera igaro dela. Gizonen kasuan 76,8 urtetik 78,5 urtera pasa da (+1,7 urte) eta emakumeen kasuan 84,1 urtetik 85,6 urtera (+1,4 urte).

Bestalde, EUSTATEk 2020. urtera arte egindako bizi itxaropeneko aurreikuspenek erakusten dute euskal biztanleria are urte gehiago biziko dela. Emakumeak 87,3 urteraino eta gizonak 81,2 urteraino biziko dira. Beraz, bizi itxaropenean, bi sexuen arteko aldea 6,1 urtera murriztuko litzateke.

Bizi itxaropenaren gehikuntzak biztanleriaren egituren aldaketa dakar. Egitura berrian adineko pertsonen protagonismo handia izango dute. Aldaketa honek ondorio garrantzitsuak izango ditu osasunean eta gizartearen, besteak beste: gaixotasun kronikoengatik erikortasuna gehitzea, ezindutako eta mendeko pertsonen gehikuntza, eta gizarte-osasuneko arreta gehiago eskatzea.

Testuinguru honetan, osasun-adierazle klasikoak, hilkortasunean bakarrik oinarritzen direnak, mugatuak dira biztanleriaren osasun egoeraren bilakaera deskribatzeko. Beharrezkoa da jakitea hilkortasunaren murrizpenarekin batera biztanleriaren osasun maila gehitu den, edo erikortasun eta ezintasun handien kontura gehitu den. Horretarako, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik erikortasun edo ezintasun esperientzia aintzat hartzen dituzten osasun adierazleak erabiltzea beharrezkoa da.

Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak egiteak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) —hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua—, gaixotasun kronikorik gabeko bizi itxaropena (GKGBI) edo osasun oneko bizi itxaropena (OOBI), egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.

X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu.

X adineko OOBIk x adin horretako pertsona bati hil arte osasun egoera onean bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Osasun oneko bizi itxaropenaren (OOBI) eta EGBIren arteko aldea honakoan datza: bizi urteak subjektuek euren osasun egoeraz daukaten pertzepzio subjektiboaren arabera kalkulatu direla, ezintasunaren arabera kalkulatu beharrean.

Honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 2009ko eta 2010eko memorian adierazle hauen azterlan xehea dago.

### 3.1.2. Hilkortasuna

#### *Hilkortasuna. Hiltzeko arrazoi nagusiak*

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

EUSTATEn Heriotzen Estatistikaren datuen arabera, 2010. urteko heriotzen behin-behineko kopurua 18.768 izan zen. Haietatik 9.710 gizonak izan ziren eta 9.058 emakumeak. Hortaz, 2009an baino 856 heriotza gutxiago gertatu ziren, hots, %4,4 gutxiago. Jaitsiera hori, beste neurri batean bada ere, sexuaren ikuspegitik ere errepikatzen

#### III.3.1. Koadroa. Heriotzak sexuaren arabera

	Guztira			Urtebetez azpikoak		
	Guztira	Urtebetez azpikoak	Guztira	Urtebetez azpikoak	Guztira	Urtebetez azpikoak
2006	18.507	9.810	8.697	66	29	37
2007	19.252	10.021	9.231	88	47	41
2008	19.437	10.118	9.319	62	32	30
2009	19.624	10.232	9.392	64	39	25
2010 (b-b)	18.768	9.710	9.058	54	28	26
2009-2010 ezb.	-856	-522	-334	-10,0	-11,0	1,0
aldak % 09-10	-4,4	-5,1	-3,6	-15,6	-28,2	4,0

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

**III.3.2. Koadroa. EAEko heriotzak, betetako adinaren arabera**

	<1	1-9	10-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	≥100
2006	66	16	28	116	249	659	1.230	1.949	4.660	6.348	3.058	130
2007	88	23	33	92	258	628	1.318	2.019	4.618	6.864	3.145	167
2008	62	21	24	97	216	626	1.265	1.990	4.601	7.124	3.247	164
2009	64	16	33	76	236	618	1.214	2.104	4.312	7.402	3.348	201
2010	54	25	24	60	176	557	1.189	1.892	3.974	7.263	3.398	156

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

**III.3.3. Koadroa. Heriotzak, kausaren arabera**

	EAE								
	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010 (b-b)	
								n	%
Guztira	19.305	18.684	19.425	18.507	19.252	19.437	19.624	18.768	100,0
Tumoreak	5.548	5.479	5.462	5.580	5.812	5.811	5.896	5.894	31,4
Zirkulazio-sistema	5.891	5.775	5.891	5.615	5.710	5.692	5.806	5.450	29,0
Arnas sistema	2.066	1.788	2.214	1.739	1.854	1.941	1.797	1.640	8,7
Digestio sistema	1.041	1.013	950	949	990	979	925	868	4,6
Kanpoko kausak	806	745	776	697	734	711	677	601	3,2
Beste gaitz guztiak	3.953	3.884	4.132	3.927	4.152	4.303	4.523	4.315	23,0
Hiltzeko arrazoi ohikoenen arteko portzentajeak banaketaren bilakaera									
Tumoreak	28,7	29,3	28,1	30,2	30,2	29,9	30,0		31,4
Zirkulazio-sistema	30,5	30,9	30,3	30,3	29,7	29,3	29,6		29,0

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

da. Horrela, emakumezkoen artean 334 heriotza gutxiago egon ziren, hots, %3,6 gutxiago, eta gizonezkoen artean 522 gutxiago (-%5,1).

Heriotzetako asko adin handienetako tartetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira. Horrela, 70-79 urteko taldean 3.974 heriotza gertatu dira, 80-89 urtekoan 7.263, 90-99 urtekoan 3.398, eta 99 urtetik gorakoan 156. Horrela, izan diren heriotzen ia %80a 70 urtetik gorako pertsonena izan dira.

70-100 urte tartean, eta aurreko urtearekin alderatuta, 80-100 urte tartean heriotzen proportzio handiagoa gertatzen da, eta 70-79 urteen artean txikiagoa; 80-89 urte arteko pertsonen heriotzak ia %50 dira.

Bestalde, haurren heriotza tasa (urtebetez azpikoak) murriztu egin da 2009. urtearen aldean; 64 heriotzatatik 54ra, baina mutilen artean baino ez (39tik 28ra), nesken artean mantendu delako (25etik 26ra).

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan legez, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira. Bihotz-hodietako gaixotasunak eta minbizia heriotza guztien hiru bostenen errudunak dira.

EUSTATen datuen arabera, 2007tik gertatutako heriotza gehienak tumoreengatik gertatu dira (2010ean %31,4) eta bigarren tokian zirkulazio-sistemaren gaixotasunak kokatzen dira (%29). Aurreko urteetan zirkulazio-sistemaren gaitzek eragin zituzten heriotza gehien.

**Hilkortasun goiztiarra. Bizi urte potentzial galduak (BUPG)**

Adierazle hau, irizpide bateratu batzuk bilduta etorkizuneko epidemiologia azterketa bat osatzen duen pertsona talde

batentzat, garaia baino lehenago (70 urte bete baino lehenago) hil diren pertsonen bizi ez dituzten urte guztiak (hiltzeko adinaren eta 70 urteen arteko aldean batuketa metatua) oinarri hartuta eraten da. Horrela, bizi urte potentzial galduak (BUPG) osasun publikoan neurri ona dira biztanleria gazteenarengan hilkortasunak izandako eragina islatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2009an emakumezkoen hilkortasun goiztiarrerako arrazoi nagusiak, ordenaren arabera, honakoak izan ziren: bularreko tumore gaiztoak; trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak; gaizki zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak; suizidioak eta norik bere buruari eragindako zauriak; obarioko tumore gaiztoak; garuneko hodian gaixotasunak; koloneko tumore gaiztoak; eta urdaileko tumore gaiztoak.

Gizonen kasuan, EAEko BUPGen kausa nagusiak hauek izan ziren: trakeako, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta autolesioak; motordun ibilgailuekin trafiko istripuak; zirrosiak eta gibekeko gaixotasun kronikoak; gaixotasun zerebro-baskularrak; gaizki zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak; koloneko tumore gaiztoak; eta psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak.

**3.1.3. Osasun egoera: atzemandakoa edota aitortutakoa**

Osasun Inkesta<sup>1</sup> biztanleriak atzematen dituen osasun arazoak detektatzeko, osasunaren inguruko bizi-estiloak osatzen dituzten ohitura eta portaerak baloratzeko, eta biztanleriak osasun zerbitzuen erabilera neurtzeko eta

<sup>1</sup> Osasun Inkesta 5 urtean behin egiten du Osasun Sailak. Azken datuak 2007. urtekoak dira.

## III.3.4. Koadroa. Balizko bizi-urte galduak, sexuaren eta kausa nagusien arabera

	BUGP	T. gordina*	T. estandar.*	BUGP	T. gordina*	T. estandar.*
	Gizonezkoak 2009			Gizonezkoak 2008		
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	4.503	4,9	4,2	5.060	5,6	4,8
Kardiopatia iskemikoa	3.428	3,8	3,1	3.153	3,5	2,9
Suizidioa eta autolesioak	2.373	2,6	2,3	2.260	2,5	2,2
Ibilgailu motordunetako trafiko istripuak	1.873	2,1	2,1	2.183	2,4	2,5
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	1.498	1,6	1,4	1.543	1,7	1,4
Gaixotasun zerebro-baskularrak	1.265	1,4	1,2	1.125	1,2	1,0
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	1.205	1,3	1,2	960	1,1	0,9
Koloneko tumore gaiztoa	1.175	1,3	1,1	985	1,1	0,9
Psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak	1.028	1,1	0,9	905	1,0	0,8
Esofagoko tumore gaiztoa	943	1,0	0,9	775	0,9	0,7
Gibeleda eta gibel barruko behazun bideetako tumore gaiztoa	838	0,9	0,8	643	0,7	0,6
Ehun linfatikoaren, organo hematopoietikoen eta antzeko ehunen tumore gaiztoak, leuzemia izan ezik	805	0,9	0,8			
Urdaileko tumore gaiztoa	775	0,9	0,7	895	1,0	0,8
Entzefaloko tumore gaiztoa	758	0,8	0,8			
Istripuzko erorikoak	730	0,8	0,7	1.122	1,2	1,2
	Emakumezkoak 2009			Emakumezkoak 2008		
Bularreko tumore gaiztoa	2.073	2,3	1,9	2.230	2,5	2,1
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	1.940	2,2	1,8	1.868	2,1	1,8
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	810	0,9	0,8	673	0,8	0,7
Suizidioa eta autolesioak	608	0,7	0,6	840	0,9	0,8
Obulutegiko tumore gaiztoa	605	0,7	0,6	570	0,6	0,5
Gaixotasun zerebro-baskularrak	570	0,6	0,5	648	0,7	0,7
Koloneko tumore gaiztoa	548	0,6	0,5	510	0,6	0,5
Urdaileko tumore gaiztoa	510	0,6	0,5			
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	503	0,6	0,5	375	0,4	0,4
Ehun linfatikoaren, organo hematopoietikoen eta antzeko ehunen tumore gaiztoak, leuzemia izan ezik	465	0,5	0,5			
Ibilgailu motordunetako trafiko istripuak	465	0,5	0,6	677	0,8	0,9
Kardiopatia iskemikoa	463	0,5	0,4	570	0,6	0,5
Pankreako tumore gaiztoa	460	0,5	0,4	353	0,4	0,4
Psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak	383	0,4	0,3			

\*Milako tasa gordina eta europar biztanleria estandarrekin estandarizatutako tasa adinaren arabera.  
Iturria: Heriotzen erregistroa. Osasun plangintza eta antolamenduaren zuzendaritza.

## III.3.5. Koadroa. Biztanleria (%) osasun-nahasmenaren, denboraldiaren eta edukitzearen arabera

	1999		2004		2009	
	Badauka	Ez dauka	Badauka	Ez dauka	Badauka	Ez dauka
Nahasmenen existentzia	6,0	94,0	5,1	94,9	5,5	94,5
Ikusmenaren akats larria	0,9	99,1	1,3	98,7	1,7	98,3
Gor-mututasuna	0,4	99,6	0,2	99,8	0,7	99,3
Akats fisikoa	3,5	96,5	3,0	97,0	2,8	97,2
Adimen ezintasuna	0,7	99,3	0,6	99,4	0,6	99,4
Adimen-nahasmenak	0,6	99,4	0,4	99,6	0,5	99,5

Iturria: EUSTAT, Bizi-baldintzen inkesta 2010.

aztertzekeo iturri baliotsua da. Horrela, osasun arloko jarduketak planeatu eta ebaluatu ahal dira. Gainera, informazio iturri osagarria da, ohiko erregistroetan ezkatututa gera daitezkeen joerak argitzen lagundu ahal duena.

Azken datuak, 2007. urtekoak, erakusten dute gizonen %83ak eta emakumeen %77ak esan zutela osasun bikaina, oso ona edo ona dutela.

Bestalde, Bizi Baldintzen Inkestak, besteak beste, euskal biztanleriaren osasun baldintzak ezagutu nahi ditu biztanleriak bere osasun egoeraz duen pertzepziotik abiatuta, mendetasun egoerak eta kronikotasun maila handiagoa sortzen dituzten arazoei arreta berezia emanik, hala nola: gorputz, adimen eta zentzumen ezintasunak, bestalde eremu guztietan garrantzi pertsonal eta sozial handiagoak dituztenak.

Bizi-baldintzen inkestaren<sup>2</sup> azken emaitzek, osasun egoerari dagokionez, inkestatutako biztanleriaren osasun egoera ona erakusten dute. Horrela, aipatu diren osasun arazoetatik (nahasmenak egotea, ikusmenaren akats larria, gor-mututasuna, akats fisikoa, adimen ezintasuna eta adimen nahasmenak) batek ere ez dauka %6 baino prebalentzia handiagoa.

### 3.1.4. Ospitaleko erikortasuna

Erikortasun terminoa populazio batean, toki eta denboraldi jakin batzuetan, gaixotasun baten efektuez aritzeko erabiltzen da. Biztanleria batean gaixotasun jakin batek dauzkan presentzia eta ondorioak aztertzea eta kuantifikatzea biztanleriak bere osasun egoeraz egiten duen autobalorazioaz neurtu ahal da. Autobalorazio horri atzemandako erikortasuna esaten zaio, eta haren datuak osasun inkestan jasotzen dira, edo osasun zentroan arreta eta tratamendua eman zaizkion biztanleriaren gaixotasunen erregistroan, ospitaleko laguntzaren kasuan Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika dena.

Ospitaleko Erikortasun Estatistika, Heriotza Estatistikaren atzetik, gaixotasunen portaera aztertzeko erabiliena da herrialde gehienetan. Ospitale publiko eta pribatuetan alta jaso duten gaixoen kopuruaz informazioa jasotzen du, diagnostiko nagusiaren arabera.

Estatistika helburuekin eta joerak aztertzeko, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak (GNS) daukan patologia-zerrenda luzea nolabaiteko agregazio mailarekin taldekatzen da. Beraz, ohikoa eta normala da diagnostiko (edo patologia) talde handiak aipatzea ospitaleko erikortasunaz hitz egitean. EUSTATEN datuen arabera, EAEko akutuen ospitaleetan (publikoak eta pribatuak) 318.194 ospitale-alta erregistratu ziren 2010ean (2009an baino %0,5 gehiago). Alen %74 ospitale publikoak izan ziren eta %26 pribatuak.

Haurdunaldi, erditze eta puerperioagatiko ingresoak baztertuta, ospitaleratzeko bi kausa nagusiak EAEn, 2010ean, nerbio sistemako eta zentzumenen organoen (hauen arean begi-lausoa nabarmendu behar dugu) gaixotasunak izan ziren, gaixo guztien %12,1eraino, eta mila biztanleko 17,6 kasuko tasarekin, zirkulazio aparatuen gaixotasunekin batera (%11,5; 16,8 kasu 1.000 biztanleko). Hirugarrenik digestio aparatuko gaixotasunak ditugu (%11,1, 1.000 biztanleko 16,2 kasu), eta laugarren eta bosgarren lekuetan, tumoreak (%9,1, eta 1.000 biztanleko 13,3 kasu), eta osteomuskularrak eta lokomotoreak (%8,6, eta 12,6 kasu 1.000 biztanleko)

Gaixotasun osteomuskularrak, zahartzeari lotuak, hala nola osteoartrosia, arnasketa aparatuen aurretik jarri ziren. Azken horiek, era berean, %8,3 jaitsi ziren 2009. urtearen aldean, gripe eta pneumonia kasuen beherakadagatik. Gripe kasuak, batez ere, abenduan izan ziren, eta beraz, 2009. urtean zenbatzen dira.

Tumoreen kokapen ohikoak prostata, puxika, bularra eta umetokia izan ziren. Tumoreak ospitaleetako heriotza kausa nagusiak dira oraindik ere (%24,6). Trakeako, bronkioetako eta birikako minbizia nabarmentzen dira minbizietan. Kausa horretako heriotzaren batez besteko adina 67 urte izan zen.

Datuen iturri berberaren arabera, ospitaleko batez besteko egonaldia 6,1 egunekoa izan zen. Adimen nahasmenduak

kontuan izan gabe, gaixotasun perinatalak dira egonaldi luzeenak izan zituztenak (12,3 egun), eta gero gaixotasun infekziosoak eta tumoreak (9,1 egun eta 8,4 egun, hurrenez hurren).

Ospitaleratzeko pertsona guztietatik %51,7 emakumeak izan ziren. Emakumeek gizonak gaitzen dituzte, haurdunaldiagatik eta erditzeagatik izaten diren ingresoengatik. Bestalde, ospitaleratzeko adinik ohikoena 76 urte izan zen.

Haurdunaldiagatik egiten diren ingresoengatik ez balitz (emakumeak ospitaleratzeko kausa nagusia dena (%15,8) bi sexuak bat etorriko liriteke hiru gaixotasun talderik ohikoenetan, ordena ezberdinean izanik ere.

Begi-lausoak, 65 urtetik gorako emakumeen artean patologia nahiko ohikoa denak (12.613 alta), nerbio sistema eta zentzumenen organoak ingresoen bigarren kausa gisa kokatu zituen emakumeen artean (%13,4). Hirugarren posizioa zirkulazio aparatuentzat izen zen (%9,4). Bertan, barizeak eta bihotz-gutxiegitasuna gaixotasunik ohikoak izan ziren. Laugarrenean, digestio aparatua (%9), eta besikulako harria izan zen gaixotasunik ohikoena.

Gizonetan, zirkulazio aparatuen gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeko kausa nagusia, ingresoen %13,8arekin, zenbat eta zaharragoak orduan eta ohikoagoak. Haien artean arteroeskleroosi koronarioa eta bihotz-gutxiegitasuna nabarmendu ziren. Atzetik, digestio aparatuan eragina dutenak daude (%13,3), zeinetan iztai-etena nabarmentzen den, eta nerbio sistema eta zentzumenen organoak (%10,6), begi-lausoaren nagusitasun argiarekin.

### Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak

Osasun publikoaren eginkizunetako bat gaixotasun transmitigarriak kontrolatzea da.

Bizi baldintzen hobekuntzak eta EAEko osasun sistemaren garapenak infekzio-gaixotasun askoren ondorioak murriztu badituzte ere, oraindik osasun arazo handia dira, aldian-aldian agertzen diren gaixotasunak daudelako eta horrek ezinbesteko bihurtzen duelako jagoletza epidemiologiko egokiari eustea.

Jagoletza epidemiologikoko sistemaren eginkizuna informazio azkar eta fidagarria ematea da, EAEn gaixotasun transmitigarriak eta agerraldiak zaindu eta prebenitu ahal izateko.

EUSTATEN datuen arabera, 2010. urtean, bereziki azpimarragarriak dira, detektatutako kasuen kopuru absolutuagatik eta 10.000 biztanleko tasengatik, gripea (409,5 kasu 10.000 biztanleko, eta aurreko urtean 2.745,6 kasu, lehen esan dugunez gehienak abenduan gertatu baitziren eta beraz, 2009an sartzen dira kontaketa egiterakoan) eta barizela (406,9 kasu 10.000 biztanleko); eta neurri txikiagoan: tuberkulosia (11,5), infekzio gonokozikoa (5,4), sifilia (5), legionelosisia (5), parotiditisia (2,8) eta A hepatitisia (2,3).

### 3.2. Osasunaren determinante ez-medikoak: bizi-ohiturak eta substantzia adiktiboaren kontsumoa

Pertsonen osasunaren eragina izan dezakete beren bizi-ohiturek, hau da, beren portaera eta jarrerak, osasuntsuak diren edo ez diren neurrian. Ohitura ez

<sup>2</sup> Bizi-baldintzen inkesta 5 urtean behin egiten du EUSTATEk. Azken datuak 2009. urtekoak dira.

## III.3.6. Koadroa. Alta jaso duten gaixoak, diagnostikoaren eta sexuaren arabera

		2009		2010					
		Guztira		Guztira		Gizonak		Emakumeak	
		Altak	Senda-ag./1.000 bizt.	Altak	Senda-ag./1.000 bizt.	Altak	Senda-ag./1.000 bizt.	Altak	Senda-ag./1.000 bizt.
GNS-9. AK	Guztira	316.559	158,4	318.194	145,9	153.691	144,2	164.503	147,4
001-139	Infekzio-eritasunak	3.583	1,6	3.667	1,7	2.100	2,0	1.567	1,4
011	Birikako tuberkulosia	132	0,1	154	0,1	100	0,1	54	0,0
042	HIES	302	0,1	351	0,2	262	0,2	89	0,1
070	Hepatitis birikoa	190	0,1	156	0,1	98	0,1	58	0,1
140-239	Tumoreak	28.862	13,3	29.055	13,3	15.514	14,6	13.541	12,1
153	Koloneko neoplasia gaiztoa	1.860	0,9	1.917	0,9	1.209	1,1	708	0,6
162	Trakea, bronkio eta birikako neoplasia gaiztoa	1.375	0,6	1.436	0,7	1.124	1,1	312	0,3
174	Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa	1.785	1,6	1.818	1,6	—	—	1.818	1,6
185	Prostatiko neoplasia gaiztoa	1.455	1,4	1.664	1,6	1.664	1,6	—	—
188	Puxikako neoplasia gaiztoa	1.985	0,9	2.145	1,0	1.768	1,7	377	0,3
240-279	Gaitz endokrino eta metabolikoak	4.362	2,0	4.322	2,0	1.814	1,7	2.508	2,2
250	Diabetes mellitusa	1.665	0,8	1.575	0,7	898	0,8	677	0,6
280-289	Odolaren gaitzak	3.334	1,5	3.383	1,6	1.589	1,5	1.794	1,6
290-319	Buruko gaixotasunak	4.750	2,2	4.806	2,2	2.634	2,5	2.172	1,9
320-389	Nerbio-sistemaren eta zentzumen organoen gaix.	37.469	17,2	38.385	17,6	16.318	15,3	22.067	19,8
360-379	Begi trastornoak eta hari lotutakoak	27.441	12,6	27.905	12,8	11.902	11,2	16.003	14,3
366	Begi-lausoa	21.617	9,9	21.471	9,8	8.858	8,3	12.613	11,3
380-382	Otitisa	1.007	0,5	1.025	0,5	536	0,5	489	0,4
390-459	Zirkulazio-aparatuaren gaix.	37.076	17,0	36.695	16,8	21.158	19,9	15.537	13,9
401-405	Hipertentsioa	1.694	0,8	1.625	0,7	737	0,7	888	0,8
410	Miokardioko infartu akutua	2.520	1,2	2.420	1,1	1.750	1,6	670	0,6
460-519	Arnas gaixotasunak	28.236	13,0	25.881	11,9	15.511	14,6	10.370	9,3
480-486	Pneumonia	5.240	2,4	4.627	2,1	2.833	2,7	1.794	1,6
490-491	Bronkitisa	3.418	1,6	2.929	1,3	2.341	2,2	588	0,5
493	Asma	1.783	0,8	1.708	0,8	679	0,6	1.029	0,9
500-519	Pneumokoniosia, beste batzuk	8.256	3,8	7.493	3,4	4.303	4,0	3.190	2,9
520-579	Digestio gaixotasunak	35.726	16,4	35.321	16,2	20.454	19,2	14.867	13,3
531-534	Urdaileko ultzerak	677	0,3	686	0,3	473	0,4	213	0,2
540-543	Apendizitisa	2.549	1,2	2.521	1,2	1.413	1,3	1.108	1,0
550-553	Sabelaldeko barrunbearen hernia	8.521	3,9	8.242	3,8	6.004	5,6	2.238	2,0
574	Kolelitasia	5.062	2,3	5.085	2,3	2.128	2,0	2.957	2,7
580-629	Aparatu genitourinarioaren gaix.	18.753	8,6	18.635	8,5	7.878	7,4	10.757	9,6
580-584	Nefritisa	822	0,4	941	0,4	561	0,5	380	0,3
592	Giltzurrun- eta ureter-kalkulia	1.365	0,6	1.405	0,6	889	0,8	516	0,5
630-679	Haurdunaldia eta erditzea	25.967	23,3	25.924	23,2	—	—	25.924	23,2
650	Erditze arrunta	2.496	2,2	1.961	1,8	—	—	1.961	1,8
670	Puerperioko infekzio larria	16	0,0	20	0,0	—	—	20	0,0
680-709	Azal eta larruzalpeko gaix.	5.243	2,4	4.551	2,1	2.580	2,4	1.971	1,8
680-686	Azal eta larruzalpeko infekzioak	2.293	1,1	2.165	1,0	1.348	1,3	817	0,7
690-698	Azal eta larruzalpeko beste hantura batzuk	213	0,1	196	0,1	97	0,1	99	0,1
710-739	Hezur-muskulu eta lokomozio gaix.	27.690	12,7	27.412	12,6	13.808	13,0	13.604	12,2
715	Osteoartrosia	5.447	2,5	5.426	2,5	2.280	2,1	3.146	2,8
722	Ornoarteko diskoaren trastornoa	1.828	0,8	1.749	0,8	947	0,9	802	0,7
740-759	Sortzetiko anomaliak	2.411	1,1	2.196	1,0	1.272	1,2	924	0,8
760-779	Anomalia perinatalak	1.836	0,8	2.209	1,0	1.184	1,1	1.025	0,9
773-774	Fetoaren gaix. hemolitikoa/Min hori perinatala	367	0,2	509	0,2	273	0,3	236	0,2
780-799	Txarto zehaztutako gaixotasun egoerak	14.026	6,4	13.242	6,1	7.445	7,0	5.797	5,2
800-999	Zauriak eta pozoitzeak	22.958	10,6	23.049	10,6	12.917	12,1	10.132	9,1
820	Femur lepoaren haustura	2.464	1,1	2.527	1,2	670	0,6	1.857	1,7
V01-V84	V kodeak	14.242	6,5	19.406	8,9	9.486	8,9	9.920	8,9

(1) GNS-9. AK= Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 9. Aldaketa Klinikoa.

(2) Datuak EAEko akutuentzako ospitaleei (publikoak eta pribatuak) dagozkie.

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleko erikortasunaren estatistika.

**III.3.7. Koadroa. EAEn nahitaez aitortu behar diren gaixotasunak**

	Kasuak			Tasak 10.000 Biztanleko	
	2009	2010	2009-10 EZB	2009	2010
Botulismoa	0	0	0	0	—
Kolera	0	0	0	0	—
Disenteria	17	22	-5	0,8	1,0
Sukar tifo-paratifikoa	2	2	0	0,1	0,1
Trikinosia	0	0	0	0	—
Meningokoko gaixotasuna	67	32	35	3,2	1,5
Gripea	58.462	8.720	49.742	2.745,6	409,5
Legionelosisia	111	106	5	5,2	5,0
Meningitis tuberkuloso	1	7	-6	0,1	0,3
Tuberkulosia	279	244	35	12,7	11,5
Barizela	9.694	8.665	1.029	455,3	406,9
Infekzio gonokozikoa	95	114	-19	4,5	5,4
Sifilia	112	107	5	5,3	5,0
Difteria	0	0	0	0	—
Parotiditisa	111	60	51	5,2	2,8
Poliomelitisia	0	0	0	0	—
Errubeloa	0	0	0	0	—
Elgorria	0	1	-1	0	0,1
Tetanoa	2	2	0	0,1	0,1
Kukutxeztula	16	4	12	0,8	0,2
A hepatitisa	170	49	121	8,0	2,3
B hepatitisa	29	35	-6	1,4	1,6
C hepatitisa	6	8	-2	0,3	0,4
Bestelako hepatitis birikoak	1	0	0	0,1	—
Bruzelosisia	2	0	0	0,1	—
Amorrua	0	0	0	0	—
Sukar horia	0	0	0	0	—
Paludismoa	31	24	7	1,5	1,1
Izurritea	0	0	0	0	—
Tifus exantematikoa	0	0	0	0	—
Legenarra	1	1	0	0,1	0,1
Sortzetiko errubeola	1	0	0	0,1	—
Sortzetiko sifilia	0	0	0	0	—
Jaioberriko tetanoa	0	0	0	—	—

Iturria: EUSTAT.

osasuntsuen artean hauek daude: substantzia toxikoen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk, elikadura desegokia eta ariketa fisiko eza).

EAEn, estatistika ofizialaren barruan, hiru informazio iturri daude, gure gizarte eta osasun errealtatearen ezaugarriak aztertzen dituztenak, eta bost urtean behin argitaratzen dira. Honakoak dira: Osasun Inkesta, Bizi Baldintzen Inkesta, eta Denbora Aurrekontuen Inkesta. Hala eta guztiz ere, epigrafe honetan interesatzen zaigun osasun alderdia haietako lehenengoan neurri eta xehetasun handiagoz aztertzen da.

Horri buruzko ikuspegia edukitzeko, irakurlari gure memoriaren 2008ko eta 2009ko edizioak aztertzeke gomendatzen diogu. Bertan, 2007ko Osasun Inkestaren

emaitzak aztertu dira, elikadura, obesitate eta ariketa fisikoaren ohiturei buruzkoak.

Bestalde, 1992. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak bi urtean behingo kontsulta egiten du, bai EAEn zenbait substantzia adiktiboren kontsumoaren hedapena jakiteko, patroia nagusiak identifikatzeko eta eboluzioa baloratzeko, baita euskal herritarren drogen fenomenoari buruz eta gaian aplikatzen diren politika publikoei buruz duten iritzia jakiteko ere.

Horrela, *Euskadi eta Drogak* txostena analisi epidemiologikoko serieetan osatuenetako eta erregularrenetako bat da gure inguruko herrialdeen artean. Azkenak, 2010. urteko inkestaren<sup>3</sup> emaitzak jasotzen ditu, baita eboluzioaren datu nagusiak seriearen hasieratik.

Hauexek dira txostenaren emaitza nagusiak: legez kanpoko kontsumoaren adierazleetan beherakada nabarmena (kasu askotan hamarkada honen hasieran erregistratutako mailalara jaitsi dira); legezko drogen kontsumoaren adierazleetako asko mantentzea, beheranzko joera txiki batekin (batez ere alkoholaren kasuan); drogarik gehienetan (legezkoak edo ez) kontsumoaren intentsitatea jaitsi da eta erabilera gero eta noizbehinkakoagoa da; gizonen eta emakumeen kontsumoen arteko aldeak murrizteko prozesua gelditu da, eta kontsumorik gehienak batez ere gizonen ohitura gisa finkatu dira. Azkenik, esan behar dugu legez kanpoko drogen kontsumoan gazteen kontsumoak gero eta pisu txikiagoa daukala.

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, murrizteko joera txikia dago, batez ere emakumeen eta gazteen artean. 2006 eta 2010. urteen artean, 15 eta 34 urte arteko pertsonen kontsumoa %79tik %64ra igaro da. Gehiegizko kontsumoan eta asteburuko arriskuan ere beherakada ikusi da. Gaur egun biztanleriaren %9,6an du eragina. Edaleen artean, kontsumoak murriztu dituztenen portzentajea gutxitu da (2004ko %31tik 2010eko %50era), eta pertsona gazteen artean kalean alkohola edateko ohitura ("litroak" egitea) apur bat murriztu da. Halere, gazteenek alkohol kontsumoa murriztu duten neurrian, substantzia honen erabilerearen ondorioz arazoak dauzkaten gazteen portzentajea ere murriztu da.

Tabakoan, kontsumoa utzi duten pertsonen tasa gehitu da eta kontsumoen intentsitatea murriztu da. Halere, 20 eta 30 urte arteko pertsonen kontsumoa (gizonetan nahiz emakumeetan) oso handia da oraindik, eta sortzen dituen kalteen inguruko pertzepzioa txikiagoa da beste belaunaldi-talde batzuetan baino. Horrek erakusten du eremu honetan ematen diren prebentzioko eta heziketako mezuak ez direla batera eraginkorrak. Adin guztietako biztanleriari buruzko datu positiboetako bat da erretzaileen erdiak esan duela uzteko prest daudela.

Kannabisari dagokionez, 2010ean kontsumo tasarik txikiena atzeman da 2000. urteaz geroztik. Era berean, eguneroko kontsumoa asko jaitsi da, batez ere gazteen artean: 15 eta 24 urte arteko gazteen artean, eguneroko kontsumoa %10etik %4ra jaitsi da. Esan dezakegu, beraz, kannabisaren kontsumoaren beherakada azken inkesta horretan finkatu dela, baina EAE EB-aren lehenengo postuetan dagoela substantzia honi dagokionez.

<sup>3</sup> Etxez etxeko inkesta da. EAeko 15 eta 74 urte arteko 2.016 herritarrek parte hartu zuten. Galdetegiak hiru zati dauzka, eta 70 galdera dauzka. Lehenengo bederatziak euskal gizarteak drogen kontsumoari buruz eta gaian hartutako politikari buruz duten pertzepzioa ezagutzera emateko dira. Galdetegiko zati mardulenak 51 galdera dauzka, tabakoaren, alkoholaren, psikofarmakoei eta legez kanpoko drogarik hedatueneren eraginari eta kontsumo-pautari buruzkoak. Azken bederatziak elkarriketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoak jasotzen dituzte.

## III.3.8. Koadroa. EAEko medikuak

	2005	2006	2007	2008	2009
Medikuak ospitalez kanpoko laguntza jardueran (KLJ) (publikoa)	2.773	2.795	2.815	3.015	3.049
Medikuak ospitaleko laguntza jardueran (OLJ) (publikoa eta pribatua)	4.284	4.330	4.459	4.678	4.771
Populazioa	2.115.383	2.130.996	2.147.754	2.162.944	2.169.038
KLJko medikuak 100.000 biztanleko	131,1	131,2	131,1	139,6	140,6
KOLJko medikuak 100.000 biztanleko	202,5	203,2	207,6	216,3	220,0

Iturria: EUSTAT.

Legez kanpoko gainerako legeei buruz esan dezakegu oso jaitsiera garrantzitsua dagoela, baita erabileraren maiztasunari buruz ere. Azken urteetan, laurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdetik gertatzen ari zen prebalentziaren gehikuntzari buelta eman zaio, eta mailak berriro ere 2000ko hamarkadaren hasierakoetara itzuli dira. Lagin gisa esan dezakegu 2004. urteaz geroztik kokainaren kontsumoa %50 jaitsi dela, eta anfetaminena %60.

Bestalde, legez kanpoko drogen kontsumoak, kannabisarena barne, gero eta zerikusi gutxiago dauka gazteekin. Adin-tarte horretako kontsumo tasak handiak dira oraindik ere baina adin handieneko gazteen pisua eta helduen pisua gero eta handiagoak dira kontsumitzaile guztien artean.

Euskal biztanleriak drogei eta droga mendetasunari buruz daukan pertzepzioaren emaitzei buruz, 2010ean ikusi da kalteak murrizteko neurrien aldeko eta legez kanpoko drogak (kannabisa barne) legeztatzearen aldeko babesa murriztu dela. Bestalde, neurri txikiagoan bada ere, legez kanpoko drogen kontsumoen "sartuta" dauden pertsonen (edo droga horiek kontsumitzen dituzten pertsonen, edo kontsumitzaile asko ezagutzen dituzten pertsonen) portzentajea ere murriztu da. Aitzitik, honelako kontsumoetatik kanpo dauden pertsonen portzentajea hazi da, hau da, zuzeneko esperientziarik ez daukaten pertsonen eta horrelako esperientziak dauzkaten pertsonak ezagutzen ez dituzten pertsonen portzentajea hazi da.

Aztertutako substantzietan esleitzen zaien arriskuaren pertzepzioaz, alkohola da oraindik ere iritzirik onenak jasotzen dituen droga. Biztanleriaren ia %40ak adierazten du EAEn droga honen kontsumoa apur bat edo zerbait larria dela. Esan behar dugu gazteen artean portzentaje hori %50ekoa dela. Droga kontsumoen larritasunaren pertzepzioa, oro har, txikiagoa da EAEn estatuan baino, gehitzeko joera duen arren. Azkenik, legez kanpoko drogen kontsumoan sortu diren aldagetak gorabehera, biztanleriarik gehienak uste du kontsumoari lotutako fenomenoaren ikusgarritasuna (droga esnifitzen edo injektatzen duten pertsonak edo kalean xiringak botata ikustea adibidez) ez dela murriztu azken urteetan.

### 3.3. Osasun sistema eta prestazioak

Osasun laguntza ospitaleko edo ospitalez kanpoko jarduera izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetza eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUROSTATeko datuak.
- EUSTATEk emandako datuak, ospitaleko (Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika) eta ospitalez kanpoko (Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika) sektoreei dagokienez. Lehenengo kasuan, informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri dagoen bitartean, bigarrenari dagokionez (ospitalez kanpoko), sektore publikorako baino ez dago.
- Osakidetza ospitalekoari zein ospitalez kanpokoari buruz emandako informazioa.

#### 3.3.1. Sarrera

Lurralde bateko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko baliabide adierazlerik onartuenen artean ospitale kopurua, ohe kopurua, eta langile medikoak, erizaintzako langileak... daude.

EUROSTATen osasun baliabideei eta langilei buruzko datuen arabera:

- EAEn, 100.000 biztanleko doktore eta psikiatra kopurua handiagoa da EB-ko beste herrialde batzuetan eta estatuko autonomi erkidegoetan ikusten dena baino. Halere, 2009. urtean, jaitsiera garrantzitsua izan da. Zentzu horretan esan behar dugu EUROSTATen datuak kontuz hartu behar direla, estatistika organismoak berak adierazitako serieen haustura dela-eta. Hain zuzen ere, EUSTATEN datuen arabera (zeinaren metodologiak ospitaleko osasun laguntza jarduera —publikoa eta pribatua— eta ospitalez kanpoko —publikoa— bereizten dituen, eta zeinetan biak agregatu ezin diren), esan dezakegu hazkuntzarako joera dagoela medikuen kopuruan, baina ezin dugu zehatz-mehatz hazkuntza errealaren berri eman.
- 100.000 biztanleko haginlari kopurua ere hazi da estatu kideetan, salbuespenak salbuespen. Adierazlea, EAEn, txikiagoa da EBko zenbait herrialdeetan erregistratuta baino, baina gainerako autonomi erkidegoetako baino handiagoa.
- Ospitaleko ohe kopuruak beheranzko joera dauka EBn eta EAEn, eta uste da murrizketa horren zati handi baten zioa egonaldiaren laburtzea izan dela. Zehazki, EUROSTATen datuen arabera, EAEn, 2007 eta 2008. urteen artean, 100.000 biztanleko ohe kopurua 378,9tik 374,9ra igaro da. Balio horretatik gora daude Nafarroa (388,9), Aragoi (386,8) eta Katalunia (420,8). Bestalde, Europako herrialderik gehienek gure erkidegoan erregistratutako balioak baino balio handiagoak daukate.



## III.3.9. Koadroa. Osasun baliabideak (100.000 biztanleko tasak)

	Psikiatrak eta doktoreak				Haginlariak				Oheak			
	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009
Belgika	287,6	289,4	290,9	291,3	73,2	72	71,3	70,6	672,7	665,7	660,1	653,4
Bulgaria	366,1	365,3	361,3	370	84,8	84,2	82,7	85,8	621,4	638,1	650,8	661,6
Txekiar Errep.	355,7	354,6	352,7	355,5	67,4	66,9	66,6	67,5	741,2	727,3	715,8	710,1
Danimarka	337,9	339,3	341,6		84,7	83,5	80,1		379,8	370,1	358,2	350,1
Alemania	345,5	350,5	356,2	364,1	76	76,6	77,4	78,6	829,1	823,4	820,3	822,9
Estonia	319,3	325,9	333,4	326,7	88,9	86,8	92,3	89,2	565,3	557,3	571,5	543,9
Irlanda									534	519,9	495,1	
Grezia									482,7	482,4	478,4	485,8
Espainia	365,4	368,3	352,2	354,8					334,2	330,2	324,5	319,3
Galizia	415,7	418,5	310,8	310,3	51,5	53,5	56	58,8	363,7	363,5	362,7	
Asturiasko Printzerria	387,4	311,9	292,7	453,3	52,4	54,4	56,8	59,2	362,6	362,8	356	
Kantabria	376,9	443,6	420,6	277,6	44,7	45,6	46,1	47,4	365,9	374,4	362,8	
EAE	492,2	419	467,6	285,6	66,2	68,8	71,1	71,7	380,9	378,9	374,9	
Nafarroako Foru Erkidegoa	441,9	503,2	313,4	423,1	47,1	47,8	47,2	47,8	361,7	388,9	388,6	
Errioxa	398,9	685,7	384,9	411,8	48,7	49,4	49,7	51,6	315,8	309,5	301,5	
Aragoi	373,4	493,8	608,8	502,4	42,5	43,8	44,5	45,7	400	385,7	386,8	
Madrilgo Erkidegoa	357	376,7	376,5	441,6	78,4	81,6	85,1	90	317	311,2	313,2	
Gaztela eta Leon	302,8	297,6	295,8	362,5	37,9	39,3	41,1	42,4	398,1	360,9	358	
Gaztela-Mantxa	348,7	331,6	338,8	370,8	31,5	31,8	32,3	34	262,9	265,6	266	
Extremadura	261,4	195,5	241	259,2	30,3	32,2	33,8	35,1	344	355,4	362,8	
Katalunia	383,5	381,1	378,6	344,3	54,1	55,1	56,8	59,2	439	430,9	420,8	
Valentziako Erkidegoa	357,7	355,1	331,1	310,5	48,5	50,5	52	54,4	252	256	247	
Balearr Uharteak	446,4	315,5	306,2	439,2	49	49,4	50,9	53,5	323,5	335	327,7	
Andaluzia	328,5	333,4	297	328,8	48,8	50,7	52,6	53,7	256	254	243,2	
Murtziako Eskualdea	344,5	496,1	446,3	374,1	53,8	54,3	55,2	58,4	316,2	320,9	318,2	
Kanariar Uharteak	280,1	419,2	694,6	689,1	26,6	23,6	28,9	31,7	254,9	254,3	273,7	
Frantzia									704,7	700	684,6	660,5
Italia									395,2	386,1	374,1	364,3
Zipre				336,2	91,8	91,6	93,2		373,7	374,5	377,2	
Letonia	250,4	271,5	285,6		63,2	64,4	67	67,2	758,6	755,4	744,5	638,3
Lituania	294,5	304,5	311,3	300,4	63,8	68,9	65,9	70,5	690,7	690,2	685,3	682,4
Luxenburgo	366,2	372,8	370,6	366,2	76,2	78,8	79,8	80,5	569,4	571,4	562,4	551,4
Hungaria	255,8	267,3	269,7	268,9	49,6	39,9	50,5	49,1	792,1	719,3	711	715
Malta	303,7	280,6	309,3	302,3				43,3	752,3	778	731,4	482,6
Holanda				304,4					478,4	474,9	471	466,9
Austria					53,9	54	54,4	55,2	764,9	773,1	766,2	765
Polonia	444,2	452,5	458,5	467,1	33	35	34,2	31,9	647,5	642,5	661,8	665
Portugal	218	219,1	216,1	217					345,9	341,3	336,8	334,9
Errumania					49,1	53,9	55,1	58	674,8	654,4	657,4	662,6
Eslovenia	215,8	212,3	221,5	225,9	59,8	61,4	59,8	60,4	477,5	468,3	476,9	462
Eslovakia	235,8	239,5	238,8	240,1		49,9			670,9	674,9	655	649,7
Finlandia		300			78,9	78,4	75,6		699,9	674,5	653,8	623,1
Suedia	268,7	269,5	272,7		82,7	82,3	80,5		289,8	287,4	281,6	277,1
Erresuma Batua	358,2	364,7	371,5			48,1	49,7	50,9	356,8	341,9	336,6	330,2
Kroazia	244,1	247,8	255,9	265,9	72,7	73,6	74,2	74,4	545,5	548,3	547,3	536,8

Iturria: EUROSTAT. Database.

**3.3.2. Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jardura****a) Ospitalez kanpoko jardura publikoa**

Ospitalez kanpoko laguntza-jardura publikoak igotzen jarraitzen du. 2009. urtean, ospitalez kanpoko 472 zentro publikoek guztira 14.477 mila kontsulta izan zituzten, 2008. urtean baino %0,5 gehiago. Gehikuntza hori enplegatutako langile guztien hazkuntza baino handiagoa izan zen (%0,4koa 2008 eta 2009. urteen artean).

Guztira enplegatutako langileak 8.061 lagun dira. Haietatik, %77,2 osasun langileak dira (3.049 mediku, aurreko urtean baino %1,1 gehiago, eta erizaintzako eta bestelako 3.177 langile) eta %22,8 osasunaz kanpokoak. 2009. urtean ikusi zen %1,9ko beherakada izan zela espezialisten kopuruan.

Ospitalez kanpoko eremuan egindako osasun kontsulten %83 lehen mailako arretari dagokio: medikuntza orokorra/familiakoa (10,3 milioi) eta pediatria (1,8 milioi). 2009an, espezialitate biek areagotu dute kontsulta bolumena

aurreko urtearen aldean, %0,3 medikuntza orokorrak eta %2 pediatriak. Gainontzeko osasun kontsulten %17,1 ambulatorioetan, osasun mentaleko zentroetan eta lan istripuetako mutuen laguntza zentroetan emandako arreta espezializatuari dagozkie. Espezialitaterik eskatuena traumatologia (392.530 kontsulta), psikiatria (325.514), tokoginekologia (289.274) eta oftalmologia (228.776) izan ziren.

Mediku kopurua handituenez gero, medikuntza orokorrean mediku bakoitzeko biztanle kopurua jaitsi egin da baina ez da gauza bera gertatu pediatrian. Lehenengo kasuan 1.258 biztanletik 1.235 biztanlera igaro da mediku bakoitzeko, eta bigarrean, 805etik 811ra.

2009an mediku bakoitzeko batez beste 4.810 kontsulta egon ziren (aurreko urtean baino gutxiago, 4.853 izan baitziren). Medikuek orokorrak (5.832 kontsulta) eta pediatriak (5.377) batez besteko horren gainetik daude, eta gainontzeko medikuei dagokionez, ordea, batez bestekoa txikiagoa da: dermatologoak (4.584), traumatologoak (3.774), oftalmologoak (3.575), eta 3.400 kontsulta ingururekin, urologoak eta endokrinologoak.

Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,7koa izan zen batez beste. Batezbesteko hori txikiagoa zen medikuntza orokorrean (4,7 kontsulta biztanleko) eta antzekoa

pediatrian (14 urtetik beherakoak beren osasun zentrorara joan ziren, pediatriarengana, 6,6 aldiz batez beste).

#### b) Ospitaleko jardun publikoa eta pribatua

EUSTATen Ospitaleen estatistikako datuen arabera, 2008 eta 2009 artean, ospitale kopuruak egonkor iraun du, 44: 18 sare publikoan eta 26 pribatuan. Sare pribatuan ospitale gehiago badaude ere, publikoak dauka baliabide gehien: oheen %69,6, inkubagailuen %84,8, ebakuntza-gelen %62,8, erditzeko gelen %70,2, kanpoko kontsultetarako gelen %65,5, langileen %78,3, medikuen %69,6, erizaintzako langileen %83,4, OLT eta EUDen %84,9, eta laguntzaz kanpoko langileen %75,8.

2008 eta 2009 artean, oheen, inkubagailuen eta erditze gelen kopurua izan ezik, aztertutako beste aldagai guztiak hazi egin dira. Oheen eta inkubagailuen erabateko gutxikuntza sare publikoan eta pribatuan izandako murrizpenaren ondorioa da, baina gutxikuntza handiagoa da pribatuan. Bestalde, erditze gelak publikoan mantendu dira eta pribatuan urritu.

Zehazkiago, langileria dagokionez, guztizkoa berriz hazi da, batez beste %4,9, 23.061 pertsonaraino. Sare publikoaren eta pribatuaren artean bereizita, sektore publikoan %6,4 hazi da eta pribatuan egonkor mantendu

### III.3.10. Koadroa. Ospitalez kanpoko laguntza-jarduera publikoa EAEn

	2006	2007	2008	2009	Δ 2008-2009 (%)
<b>Errekurtsoak</b>					
Zentro kopurua	465	467	472	472	0,0
Langileria guztira	7.499	7.592	8.032	8.061	0,4
Medikuak	2.795	2.815	3.015	3.049	1,1
Medikuntza orokorra	1.508	1.537	1.713	1.759	2,7
Pediatria	297	301	320	327	2,2
Espezialistak	990	977	982	963	-1,9
Beste osasun langileria guztira	2.960	3.008	3.151	3.177	0,8
Osasunaz kanpoko langileria guztira	1.744	1.769	1.866	1.835	-1,7
<b>Laguntza jarduera (milatan)</b>					
Kontsultak guztira	13.375	13.807	14.399	14.477	0,5
Medikuntza orokorra	9.415	9.752	10.232	10.258	0,3
Pediatria	1.603	1.642	1.723	1.758	2,0
Erradiografiak	555	755	729	780	7,0

Iturria: EUSTAT, Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

### III.3.11. Koadroa. EAEko ospitalez kanpoko adierazle nagusiak

	2006	2007	2008	2009
<b>Egitura adierazleak (biztanleak/medikuko)</b>				
Medikuak guztira	762	763	715	713
Medikuntza orokorra	1.413	1.397	1.258	1.235
Pediatria (0-<14 urte)	834	844	805	811
<b>Jarduera adierazleak (kontsultak 100 biztanleko)</b>				
Osasun kontsultak	628	643	668	666
Medikuntza orokorreko konts.	442	454	475	472
Pediatriako kontsultak	647	646	669	663
<b>Kontsultak mediku bakoitzeko</b>				
Osasun kontsultak	4.853	4.974	4.838	4.810
Medikuntza orokorreko konts.	6.243	6.345	5.973	5.832
Pediatriako kontsultak	5.397	5.456	5.385	5.377

Iturria: EUSTAT, Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

da. Mailen arabera (medikuak, erizaintza, etab.), osasun langileria %4,7 hazi da sare publikoan eta %3,8 murriztu pribatuan; erizaintzako langileria sare bietan hazi da (%9,1 sare publikoan eta %2,8 pribatuan); OLT eta EUDak %9,2 gehitu dira publikoan eta %3,1 pribatuan; eta laguntzaz kanpoko langileria %4,8 hazi da publikoan eta %0,2 murriztu pribatuan.

Laguntza jarduerari dagokionez, zenbait jardueratan murrizpenak izan dira: %2,2 izpietan, %0,6 OTA kopuruan, %3,2 erresonantzia magnetikoetan, %1,3 premiazko ebakuntzetan eta %2,7 erditzeetan.

Ospitaleetan 242.764 ebakuntza egin ziren (%62,5 publikoetan eta %37,5 pribatuetan), hots, aurreko urtean baino %0,7 gehiago (%0,5 sare publikoan eta %0,9 pribatuan). Ebakuntza guztien %88 programatutakoak ziren.

Hartutako erditze guztiei dagokienez (20.884), aurreko urtearen aldean %2,7 gutxitu direla ikusten da. Haietako gehienak, %88,1, ospitale publikoetan gertatu ziren. Baginaren bidezko erditzeak %85,6 izan ziren eta zesarea bidezkoak %14,4. Guztien %2,3 erditze multipleak izan ziren. %76an anestesia epidurala erabili zen.

Ospitaleko egitura adierazleak aztertuta ondorioztatzen da 100 oheko mediku kopuruak gora egiten jarraitzen duela, bai ospitale publikoetan bai pribatuetan; 2009an 100 oheko 56 mediku zeuden lehenengoetan eta 24,7

bigarrenetan. Era berean, 100 oheko erizaintzako langileak ere areagotu dira, bai sare pribatuan bai publikoan.

Ospitaleek 7.916 ohe (aurreko urtean baino 102 gutxiago) eduki zituzten, hots, 3,6 ohe 1.000 biztanleko, aurreko urteetan baino batez besteko apur bat txikiagoa. Jarduerari buruzko gainontzeko ospitaleko adierazleei dagokienez, 1.000 biztanleko egonaldi kopurua, ingresoak, larrialdiak eta ebakuntzak murriztu dira, eta kanpoko kontsultak areagotu dira.

Funtzionamenduaren adierazleei dagokienez, okupazioko indizeak, batez besteko egonaldia, txandaketa indizeak, ingresatutako larrialdiak eta nekropsiak 1.000 heriotza bakoitzeko murriztu dira; eta larrialdien presioa gehitu da. Bestalde, batez besteko egonaldia 7,8 egunetik 7,7ra igaro da, eta 4,8koa da akutuentzako ospitaleetan, 3,6koa kirurgian eta espezialitateetan, 4,2koa traumatologian eta ortopedian, 11,7koa neonatologian, 2,8koa ginekologian, 14,8koa psikiatrian (akutuen unitatea) eta 8,8koa psikiatrian (egonaldi luzea) eta 38,6koa errehabilitazioan.

### c) Osakidetzako ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduera

#### Baliabideen erabilera

Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzak emandako datuen arabera, Osakidetza sarearen batez

### III.3.12. Koadroa. Ospitaleetako laguntza-jardueraren eboluzioa EAEn

	2007			2008			2009			2008-09 aldakuntza		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
<b>Dabiltzan baliabideak</b>												
Ospitale kop.	44	18	26	44	18	26	44	18	26	0,0	0,0	0,0
Oheak	8.048	5.615	2.433	8.018	5.565	2.453	7.916	5.513	2.403	-1,3	-0,9	-2,0
Inkubagailuak	91	76	15	96	81	15	92	78	14	-4,2	-3,7	-6,7
Ebakuntza-gelak	197	120	77	204	128	76	207	130	77	1,5	1,6	1,3
Erditzeko gelak	37	26	11	38	26	12	37	26	11	-2,6	0,0	-8,3
Kanpoko kontsultetarako gelak	935	622	313	946	626	320	967	633	334	2,2	1,1	4,4
Langileria guztira	21.279	16.441	4.838	21.975	16.982	4.993	23.061	18.067	4.994	4,9	6,4	0,0
Medikuak	4.459	2.981	1.478	4.678	3.170	1.508	4.771	3.320	1.451	2,0	4,7	-3,8
Erizaintza	6.103	5.064	1.039	6.247	5.155	1.092	6.748	5.625	1.123	8,0	9,1	2,8
OLT eta EUD	5.595	4.731	864	5.709	4.806	903	6.179	5.248	931	8,2	9,2	3,1
Laguntzaz kanpoko langileria	4.063	3.026	1.037	4.178	3.127	1.051	4.325	3.276	1.049	3,5	4,8	-0,2
<b>Laguntza jarduera</b>												
X izpietako plakak	3.533.133	2.796.693	736.440	3.527.569	2.789.138	738.431	3.449.386	2.727.263	722.123	-2,2	-2,2	-2,2
Ekografiak	287.327	200.783	86.544	280.354	203.998	76.356	305.094	216.170	88.924	8,8	6,0	16,5
OTA	200.675	169.591	31.084	231.676	185.714	45.962	227.972	182.301	45.671	-1,6	-1,8	-0,6
Erresonantzia magnetikoa	60.227	19.569	40.658	72.777	18.519	54.258	70.472	18.360	52.112	-3,2	-0,9	-4,0
Kirurgia ebakuntzak	233.742	145.753	87.989	241.190	150.984	90.206	242.764	151.749	91.015	0,7	0,5	0,9
Programatuak	204.554	123.997	80.557	211.562	128.902	82.660	213.535	129.294	84.241	0,9	0,3	1,9
Larrialdietakoak	29.188	21.756	7.432	29.628	22.082	7.546	29.229	22.455	6.774	-1,3	1,7	-10,2
Erditzeak	20.874	18.134	2.740	21.472	18.769	2.703	20.884	18.403	2.481	-2,7	-2,0	-8,2
Baginaren bidez	17.782	15.866	1.916	18.400	16.470	1.930	17.880	16.072	1.808	-2,8	-2,4	-6,3
Zesarearen bidez	3.092	2.268	824	3.072	2.299	773	3.004	2.331	673	-2,2	1,4	-12,9
Erditze multipleak	493	483	10	507	485	22	484	471	13	-4,5	-2,9	-40,9
Erditzeak (anestesia epidurala)	15.513	14.974	539	16.529	15.949	580	15.877	15.352	525	-3,9	-3,7	-9,5
Abortuak	2.236	2.220	16	2.127	2.099	28	2.303	2.272	31	8,3	8,2	10,7

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. Datu basea.

## III.3.13. Koadroa. EAEko ospitale adierazle nagusien eboluzioa

	2007			2008			2009			2008-09 aldakuntza		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Egitura adierazleak (langileak funtzionamenduko 100 oheko)												
Medikuak	41,3	49	23,6	44	52,8	24,2	46,5	56	24,7	5,7	6,1	2,1
Erizaintza	72,1	86,2	39,7	74,1	88,3	41,8	81,4	97,6	44	9,9	10,5	5,3
Jarduera adierazleak (1.000 Biztanleko)												
Oheak	3,8	2,6	1,1	3,7	2,6	1,1	3,6	2,5	1,1	-2,7	-3,8	0,0
Egonaldiak	1.136,8	816,4	320,4	1.116,4	795,9	320,5	1.074,3	769,6	304,7	-3,8	-3,3	-4,9
Ospitaleratzeoko maiztasuna (ospitaleratzeak)	140,2	101,9	38,3	144,3	104,0	40,3	140,8	102,3	38,5	-2,4	-1,6	-4,5
Larrialdiak	511,1	426,8	84,3	517,7	423,0	94,7	513,3	420,0	93,4	-0,8	-0,7	-1,4
Ebakuntzak	109,2	68,1	41,1	111,9	70,1	41,9	111,7	69,8	41,9	-0,2	-0,4	0,0
Kanpoko kontsultak	1.121,9	880,9	241,0	1.162,8	922,1	240,7	1.185,1	935,1	250,0	1,9	1,4	3,9
Funtzionamendu adierazleak												
Okupazio indizea (%)	82,8	85,3	77,2	82,2	84,5	77,2	80,8	83,1	75,5	-1,7	-1,7	-2,2
Batez besteko egonaldia	8,2	8,1	8,4	7,8	7,7	8	7,7	7,6	7,9	-1,3	-1,3	-1,3
Errotazio indizea	37	38,6	33,6	38,6	40,1	35,3	38,5	40,1	34,7	-0,3	0,0	-1,7
Larrialdietako presioa	48,8	61,6	14,8	48,1	60,7	15,7	48,6	60,8	16,1	1,0	0,2	2,5
Ospitaleratutakotako larrialdiak	13,4	14,7	6,7	13,4	14,9	6,7	13,3	14,8	6,6	-0,7	-0,7	-1,5
Hilkortasun gordina (%)	3,3	3,8	2	3,2	3,7	2	3,2	3,7	1,9	0,0	0,0	-5,0
Nekropsiak 1.000 heriotzako	41,3	48,7	3,7	45,9	54,9	2,3	45,8	54,2	2,5	-0,2	-1,3	8,7
Bat. best. egonaldia akutu. ospitaleetan (guzt.)	5,1	5,8	3,2	4,9	5,5	3,1	4,8	5,4	3,1	-2,0	-1,8	0,0
Kirurgia eta espezialitateak	3,9	4,7	2,4	3,7	4,6	2,2	3,6	4,4	2,3	-2,7	-4,3	4,5
Traumatologia eta ortopedia	4,5	6	2,9	4,2	5,5	2,8	4,2	5,5	2,8			
Neonatologia	12,4	12,4	3,5	11,1	11,1	2,3	11,7	11,7	2,8	5,4	5,4	21,7
Ginekologia	3	2,9	3,6	2,9	2,7	3,5	2,8	2,6	3,5	-3,4	-3,7	0,0
Psikiatria (akutuen unitatea)	15,6	15,6	3,5	14,4	14,4	.	14,8	15,5	4	2,8	7,6	
Psikiatria (egonaldi luzea)	8,6	8,6	.	8,8	8,8	.	8,8	8,8	.	0,0	0,0	
Errehabilitazioa	43,8	40,5	129,1	38,6	37,7	85,4	38,6	37,7	98,3	0,0	0,0	15,1

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. Datu baseak.

## III.3.14. Koadroa. Baliabide publikoen erabilera, espezialitatearen arabera (Batez besteko egonaldia eta okupazio indizea)

Zerbitzuak	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2006	2007	2008	2009	2010	2006	2007	2008	2009	2010
Osasun zerbitzuak										
Barneko medikuntza	8,9	8,9	8,4	8,1	8,1	105,4	118,6	108,4	97,8	97,2
Kardiologia	5,6	5,7	5,4	5,3	4,9	93,8	107,8	93,4	90,0	80,3
Digestio aparatua	7,6	8,1	7,5	7,2	7,3	108,1	107,8	112,7	119,9	104,6
Hematologia	11,0	10,9	10,4	10,1	10,1	82,1	87,8	92,1	92,9	90,7
Pneumologia	7,1	7,0	6,7	6,6	6,5	83,8	145,9	108,3	91,6	90,1
Psikiatria	14,7	15,0	13,9	15,5	15,1	85,6	86,4	77,7	94,7	90,1
Errehabilitazioa	33,5	33,1	30,6	28,0	29,3	81,2	91,9	91,2	82,7	75,9
Zaintza aringarriak	18,2	18,2	17,8	15,4	15,0	61,3	121,6	92,2	81,6	78,8
Kirurgia zerbitzuak										
Kirurgia orokorra	5,4	5,2	5,1	4,9	4,6	92,2	95,1	81,8	62,7	69,5
Kirurgia plastikoa	5,7	5,0	5,9	5,4	5,3	68,2	64,6	71,6	67,5	66,4
Bihotz-hodietako kirurgia	5,6	5,2	4,6	4,3	3,9	86,5	95,0	95,7	91,2	90,5
Kirurgia baskularra	6,1	5,9	6,1	6,1	5,5	85,0	78,1	72,8	75,8	71,5
Kirurgia torazikoa	4,9	4,8	4,6	4,4	4,7	85,4	87,7	79,0	77,1	79,6
Neurokirurgia	6,8	6,6	6,3	6,5	6,3	80,6	83,2	82,6	89,1	80,9
Traumatologia	5,9	6,0	5,5	5,4	5,0	86,6	91,5	81,8	78,4	75,3
Urologia	4,7	4,6	4,2	4,5	4,2	77,7	80,8	82,5	84,0	79,8
Orokorra	6,7	6,3	6,0	5,8	5,6	83,0	84,4	82,7	81,1	79,6

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.

besteko okupazio orokorraren indizea, 2010ean erori egin da berriro ere (-%1,5 puntu 2009. urtearen aldean), eta %79,6koa da. Aurreko urtean, ordea, %81,1koa izan zen.

%100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gaintik, digestioarekin loturiko espezialitatea dago (%104,6). %100aren azpitik baina batezbestekoaren gaintik zerbitzu mediko guztiak dauzkagu, errehabilitazioa eta zainketa aringarriak izan ezik. Honakoak dira: barruko medikuntza (%97,2), kardiologia (%80,3), hematologia (%90,7), pneumologia (%90,1) eta psikiatria (%90,1), eta kirurgia-zerbitzuetako batzuk ere bai: bihotz-hodietako kirurgia (%90,5), neurokirurgia (%80,9) eta urologia (%79,8).

Batez besteko egonaldia, egunetan, berriro murriztu da, 5,8tik 5,6ra. Oso gaintik daude errehabilitazioa (29,3), zaintza aringarriak (15), psikiatria (15,1), hematologia (10,1) eta barruko medikuntza (8,1).

### Itxaronzerrendak

Kanpoko kontsultei dagokienez, aurreko urtean hazi ondoren, itxaronzerrendako gaixoen guztizko kopurua jaitsi egin da 2010ean, 95.558tik 90.412ra; urte batean hazteko joera apur bat izan du eta bestean jaistekoa.

Zerrendetan gaixo gehien dituzten espezialitateak, 2010ean, hauek ziren: kirurgia orokorra (14.141), traumatologia (14.008) eta digestiboa (10.016).

Anestesiako itxaronzerrenda ez dago aginte-koadroaren datu normalizatuen artean, kirurgia guztien itxaronzerrendaren araberakoa delako.

Atzerapen denborari dagokionez, 2009 eta 2010 artean, 1 hilabetetik gora itxaron behar duen biztanleriaren portzentajea gutxitu da, %39,52tik %30,85era.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, haietako gaixo kopurua murriztu egin da 2009 eta 2010 artean, 16.536 lagunetik 16.377ra, eta batez besteko atzerapen egunak murriztu egin dira (53,2tik 48,2ra). Horren ondorioz,

### III.3.15. Koadroa. Kanpo kontsulten itxaronzerrendak (gaixo gehien dauzkaten espezialitateak)

	Gaixok					Aldakuntzak			
	2006	2007	2008	2009	2010	06-07	07-08	08-09	09-10
Alergologia	1.664	1.658	906	2.117	1.516	-0,4	-45,4	133,66	-28,4
Anestesiologia	4.084	3.805	4.008	—	—	-6,8	5,3	—	—
Kardiologia	2.338	3.328	2.714	3.863	3.288	42,3	-18,4	42,34	-14,9
Dermatologia	8.305	8.649	7.963	11.717	2.865	4,1	-7,9	47,14	-75,5
Digestio aparatua	3.530	4.013	4.157	4.643	10.016	13,7	3,6	11,69	115,7
Endokrinologia	1.578	1.985	1.963	2.876	4.051	25,8	-1,1	46,51	40,9
Neurologia	3.429	3.980	2.833	3.906	2.363	16,1	-28,8	37,88	-39,5
Errehabilitazioa	3.022	3.730	3.145	4.714	3.818	23,4	-15,7	49,89	-19,0
Kirurgia orokorra	3.076	3.089	2.339	3.543	14.141	0,4	-24,3	51,48	299,1
Oftalmologia	18.135	17.026	10.818	11.157	4.754	-6,1	-36,5	3,13	-57,4
ORL-otorrinolaringologia	4.103	5.132	3.862	5.265	3.875	25,1	-24,7	36,33	-26,4
Traumatologia	11.737	11.899	9.693	14.540	14.008	1,4	-18,5	50,01	-3,7
Urologia	2.642	2.560	2.212	2.934	2.486	-3,1	-13,6	32,64	-15,3
Ginekologia	5.673	7.646	6.076	12.497	4.081	34,8	-20,5	105,68	-67,3
Bestelakoak	9.711	10.250	9.818	11.786	19.150	5,6	-4,2	20,05	62,5
Guztira	83.027	88.750	72.507	95.558	90.412	6,9	-18,3	31,79	-5,4

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.

### III.3.16. Koadroa. Kanpo kontsulten itxaronzerrendak atzerapen denbora (%)

	2006	2007	2008	2 kategoria baino ez daude	2009	2010
< hilabete 1	74,6	80,4	80,1	< hilabete 1	60,47	69,15
1 - 3 hilabete	23,2	19,0	17,5	> hilabete 1	39,52	30,85
> 3 hilabete	2,2	0,6	2,4			

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.

### III.3.17. Koadroa. Ebakuntzetarako itxaronzerrendak

	2006	2007	2008	2009	2010
Gaixok	15.944	16.086	14.866	16.536	16.377
Bat. best. atzerap. (eg.)	51,9	53,03	51,86	53,18	48,19
> 3 hilabete gaixo kop.	2.470	2.414	2.050	2.484	1.903
> 3 hilabete gaixoen %	15,5	15,00	13,80	15,00	11,60

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak.

ebakuntza izateko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea jaitsi da, %15etik %11,6ra. Kirurgia prozeduraren arabera itxaronzerrendei buruzko datuei dagokienez, esan behar da 2008ko urriaz gerostik, zuzendaritza nagusiaren erabakiz, haiek jasotzeari utzi zitzaizola.

#### d) Osasun arreta pribatua: Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeak

Aseguru Libreko Erakundeen (aurrerantzean ALE) kopuru osoa, EUSTATEN 2008ko datuen arabera (memoria sozioekonomikoaren kapitulu hau amaitzean argitaratuta dauden azkenak) 15 ziren. Datu horiek 2010eko Memoria Sozioekonomikoan jaso direnez gero, irakurleak hor aurki ditzake zehatz-mehatz.

### 3.4. Osasun-sistemaren gastua eta finantzaketa

#### 3.4.1. Osasun Sailaren gastua

EAEn aurrekontuaren likidazio datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastu partida 3.542,3 milioi eurokoa izan zen 2010ean. Bestalde, Sail honen 2011ko gastuen aurrekontua 3.406,7 milioi euro izan zen. 2010ean likidaturiko osasun partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Osasun Plangintza eta Antolamendua eta Farmazia eta Prestazio Ortoprosesikoa) 3.536,6 milioi eurokoak izan ziren; aldiz, 2011rako aurrekontuan jasotakoak 3.400,2 milioi euro, hau da, bi ekitaldien artean %3,9ko murrizketa egon da.

Hala ere, Osasun Sailak baliabideen portzentajerik handiena izaten jarraitzen du oraindik; baliabide guztien

%32,2 du eta programa nagusia Osakidetzari egindako transferentziak dira.

2011rako aurrekontu gastua BPGaren %5,2 da, aurreko urtekoa baino %5,41 gutxiago.

#### 3.4.2. Gastua osasunean

Eustaten Osasun Kontuaren datuen arabera, EAEn 2009an egin zen osasuneko gastu osoa 5.636 milioi eurokoa izan zen, beraz, aurreko denboralditik %7,5eko gehikuntza izan da. Hori merkatuko prezioen BPGaren %8,8 da, eta 2.602 euroko per capita balioa.

Aipatutako gastuaren finantzazioa kontuan izanik, gastatutako 100 euro bakoitzeko 75,1 osasun publikoak finantzatu zituen, 2009an 4.231 milioitara iritsiz.

Eustatek emandako datuen arabera, BPGaren gaineko osasuneko gastu osoa (esfortzua), 2009. urtean, %8,8koa, txikiagoa da aztertutako ELGAko herrialdeetan erregistratu dena baino. Aitzitik, per capita neurtuta (intentsitatea), EAE, 3.658ko EAPrekin (erosketa ahalmenaren parekotasuna dolarretan) biztanle bakoitzeko, zenbait herrialderen gainetik dago, Finlandia (3.226), Espainia (3.067), Italia (3.137) eta Erresuma Batua (3.487); baina beste batzuen azpitik, EEBB, 7.960 per capita (Ilderria), Norvegia (5.352) eta Suitza (5.144).

#### 3.4.3. Laguntza-jardueraren gastua

Lehen adierazi dugunez, osasun laguntza ospitaleko edo ospitaleaz kanpoko jardura izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jardura publikoa Osakidetzak eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

#### III.3.18. Koadroa. Eusko Jaurlaritzako osasun sailak likidatutako gastuaren banakapena (milaka eurotan)

	2009	2010	2011ko aurrekontua	2010-11 bariazioa
Egitura eta laguntza	16.108	22.101	18.993	17,9
Osasun finantzazioa eta kontratazioa	2.843.264	2.845.223	2.725.179	-4,2
Osasun publikoa	35.647	34.755	34.818	-2,3
Osasun plangintza eta antolamendua	7.261	9.657	6.959	-4,2
Farmazia	635.685	624.898	614.260	-3,4
Osasuna guztira	3.537.965	3.536.634	3.400.209	-3,9
Osasuna eta Kontsumoa guztira	3.508.917	3.542.338	3.406.693	-2,9
GUZTIRA	10.304.507	10.327.556	10.549.489	2,4
BPG	64.568.087	65.419.243	65.419.243	1,9
Osasunaren % GUZTIZKOaren gainean	34,30	34,20	32,20	
Osasunaren % BPGaren gainean	5,48	5,41	5,20	

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta Aurrekontuak, eta geuk egina.

#### III.3.19. Koadroa. Osasuneko gastuaren adierazleak EAEn

	2005	2006	2007	2008	2009	aldak. % 2008/09
Osasuneko gastua guztira (milaka €tan)	3.994.669	4.303.344	4.743.779	5.244.239	5.636.111	7,5
Finantzaketa publikoa	2.889.805	3.115.888	3.475.698	3.900.495	4.230.867	8,5
Finantzaketa pribatua	1.104.864	1.118.456	1.268.081	1.343.744	1.405.244	4,6
Gastu osoa, eurotan, biztanle bakoitzeko	1,93	2,027	2,217	2,433	2,602	6,9
Gastu osoa BPG mp-ren gaineko %tan	6,97	6,97	7,14	7,72	8,78	—
Gastu publikoa AAPPen gastuaren %tan	15,6	15,67	16,01	16,25	16,27	—
BPG mp, milaka eurotan	57.289.143	61.760.620	66.427.468	67.924.490	64.225.605	-5,4
Biztanleria (uztailaren 1ean)	2.109.890	2.123.184	2.139.370	2.155.349	2.165.991	0,5

Iturria: Osasunaren kontua, Eustat.

## III.3.20. Koadroa. Gastu adierazleak herrialdeka, 2009

	Gastu publikoa AAPPen gastuen %tan	Gastu publikoa BPGaren %tan	Gastu publikoa gastu osoaren %tan	Gastu osoa BPGaren %tan	Gastu osoa biztanleko (EAP, US\$)	BPG biztanleko (EAP (\$))
Alemania	18,7	8,9	76,9	11,6	4.218	36.328
Austria	16,2	8,6	77,7	11,0	4.289	38.823
Belgika (d)	15,1	8,2	75,1	10,9	3.946	36.287
Kanada	18,1	8,1	70,6	11,4	4.363	38.230
Danimarka	16,8	9,8	85,0	11,5	4.348	37.706
Espainia	15,2	7,0	73,6	9,5	3.067	32.254
AEB	19,7	8,3	47,7	17,4	7.960	45.797
Finlandia	12,1	6,8	74,7	9,2	3.226	35.237
Frantzia	16,3	9,2	77,9	11,8	3.978	33.763
Irlanda	14,6	7,2	75,0	9,5	3.781	39.652
Islandia	15,5	7,9	82,0	9,7	3.538	36.654
Italia	14,2	7,4	77,9	9,5	3.137	33.105
Norvegia (e)	17,4	8,1	84,1	9,6	5.352	55.730
Erresuma Batua	16,0	8,2	84,1	9,8	3.487	35.656
Suedia	14,8	8,2	81,5	10,0	3.722	37.155
Suitza	19,9	6,8	59,7	11,4	5.144	45.150
EAE	16,3	6,6	75,1	8,8	3.658	42.360

d: Desberdintasunak metodologian.

e: Estimazioa.

EAP: Erosketa Ahalmenaren Parekotasuna e: estimazioa d: Desberdintasunak metodologian.

Iturria: Osasunaren kontua, Eustat.

## III.3.21. Koadroa. EAEko ospitaleez kanpoko sektore publikoko gastua

	2006	2007	2008	2009	aldak. % 2008/09
Jarduera ekonomikoa (mila euro)					
Gastuak guztira	421.365	482.498	536.971	576.554	7,4
Gastu arruntak	408.984	454.732	517.350	560.140	8,3
Langileria-gastuak	346.500	386.275	442.729	477.591	7,9
Beste gastu korronte batzuk	62.484	68.457	74.621	82.549	10,6
Kapital-gastuak	12.381	27.766	19.621	16.414	-16,3
Adierazle ekonomikoa					
Langileria gastua / Guztizko gastua (%)	0,8	0,8	0,8	0,8	—
Kapital gastua / Guztizko gastua (%)	0,0	0,1	0,0	0,0	—
Gastua/biztanleko (euroak)	197,7	224,7	249,1	266,2	6,8
Gastua/BPGd (%)	0,7	0,7	0,8	0,9	—

Iturria: EUSTAT. Ospitaleez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUSTATEk emandako datuak, ospitaleko (Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika) eta ospitaleez kanpoko (Ospitaleez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika) sektoreei dagokienez. Lehenengo kasuan, informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri dagoen bitartean, bigarrenari dagokionez (ospitaleez kanpoko), sektore publikorako baino ez dago.
- Osakidetza ospitalekoari zein ospitaleez kanpokoari buruz emandako informazioa.

**3.4.3.1. Ospitaleez kanpoko jarduera publikoko gastua**

Euskal osasun sistema publikoak 2009. urtean 576.554 milioi euro bideratu zituen ospitaleez kanpoko osasun-laguntzara. Horrek esan nahi du aurreko urtearen aldean %7,4 gehitu zela bideratutako dirua, EAEko ekonomiak urte horretarako izan zuen %5,4ko aldakuntza

negatiboaren gaineratik (BPGaren hazkunde nominalaren terminoetan).

Gastu guztietatik %97,2 (560,1 milioi euro) gastu arruntei dagozkie eta %2,8 (16,4 milioi) inbertsio gastuei. Kopuru hori aurreko urtekoa baino %16,3 txikiagoa da.

Langileriaren gastua %7,9 gehitu da aurreko ekitaldiaz gerostik, eta %82,3 da.

Ospitaleez kanpoko laguntza jarduera EAEko BPGaren %0,9 izan zen eta biztanleko batez besteko gastua 266,2 eurokoa, aurreko urtean baino %6,8 gehiago.

Ospitaleez kanpoko gastu publikoaren finantzazio iturri nagusia orduan ere Osasun Saila izan zen (guztiaren %91: 632,6 milioi eurotik 576).

**3.4.3.2. Ospitaleko jarduera publiko eta pribatuko gastua**

EUSTATEN ospitale estatistikaren datuen arabera, EAEko ospitaleko osasun gastua (publikoa eta pribatua) 2009.

## III.3.22. Koadroa. Salmentak eta sarrerak (euroak, milaka)

	2006	2007	2008	2009
Salmentak eta sarrerak guztira	464.061	514.255	571.574	632.575
Emandako zerbitzuengatikoko sarrerak	449.930	498.123	554.109	614.757
Norbanakoak	152	168	170	203
Aseguru erakunde pribatuak	1.232	1.359	1.381	1.437
Lan istripuetarako mutiak	34.138	35.754	38.653	37.106
Osasun Saila	414.241	460.657	513.722	575.913
Beste erakunde publiko batzuk	162	179	178	73
Emandako zerbitzuengatikoko beste sarrera batzuk	4	7	6	25
Enpresentzat egindako lanak	468	874	1.261	731
Ustiapenerako diru-laguntzak	1.916	1.969	2.371	2.873
Kudeaketako beste sarrera batzuk	1.040	2.121	1.861	2.053
Finantza sarrerak	897	1.869	2.759	773
Beste sarrera batzuk	9.810	9.297	9.213	11.389

Iturria: EUSTAT. Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

## III.3.23. Koadroa. EAEko ospitale sektoreko gastuaren bilakaera

	2005	2006	2007	2008	2009	aldak. % 2008/09
<b>Jarduera ekonomikoa (mila euro)</b>						
Gastua guztira (korrontea+inbertsioa)	1.513.564	1.651.364	1.844.063	2.079.209	2.246.595	8,1
Gastu arruntak	1.459.257	1.590.343	1.750.667	1.954.760	2.125.759	8,7
Langileria-gastuak	922.664	1.007.459	1.122.140	1.259.434	1.375.422	9,2
Beste gastu korronte batzuk	536.593	582.884	628.527	695.326	750.337	7,9
Inbertsioa	54.307	61.021	93.396	124.449	120.836	-2,9
Diru-sarrerak guztira	1.440.098	1.585.618	1.745.731	1.956.902	2.121.629	8,4
Sarrera korrontek	1.406.996	1.552.128	1.712.408	1.922.149	2.082.438	8,3
Salmentak	1.395.618	1.541.772	1.702.646	1.905.818	2.063.628	8,3
Diru-laguntzak	11.378	10.356	9.762	16.332	18.810	15,2
Kapital sarrerak	33.102	33.490	33.323	34.753	39.191	12,8
<b>Adierazle ekonomikoa</b>						
Gastua/biztanleko (euroak)	716	776	861	965	1.034	7,2
Gastua/BPGd	2,6	2,7	2,8	3,1	3,5	

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Ospitaleko estatistika.

## III.3.24. Koadroa. EAEko ospitale sektoreko gastuaren bilakaera (euroak milaka)

	2007			2008			2009			2008-09 aldakuntza		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Gastua guztira (korrontea+inbertsioa)	1.844.063	1.566.257	277.806	2.079.209	1.765.990	313.220	2.246.595	1.927.805	318.790	8,1	9,2	1,8
Salmentak eta gastu korrontek guztira	1.750.667	1.492.932	257.735	1.954.760	1.663.806	290.954	2.125.759	1.825.607	300.152	8,7	9,7	3,2
Erosketak	494.983	405.144	89.840	547.947	447.508	100.439	590.605	487.318	103.287	7,8	8,9	2,8
Langileria-gastuak	1.122.140	995.521	126.619	1.259.434	1.117.471	141.964	1.375.422	1.226.897	148.525	9,2	9,8	4,6
Inbertsioak guztira	93.396	73.325	20.071	124.449	102.184	22.266	120.836	102.198	18.638	-2,9	0,0	-16,3
Salmentak eta sarrerak guztira	1.712.408	1.447.070	265.339	1.922.149	1.629.100	293.050	2.082.438	1.779.511	302.927	8,3	9,2	3,4

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika.

urtean 2.246,6 milioi eurokoa izan zen; hau da, aurreko ekitaldiaz geroztik %8,1 gehitu zen. Ospitaleko laguntza jardueraren 2009ko euskal BPGaren %3,5 izan zen eta biztanleko batez besteko gastua 1.034 eurokoa, aurreko urtean baino %7,2 gehiago. Gastu osotik 2.125,8 milioi (%94,6) gastu arruntetakoak izan ziren, eta 120 milioi inbertsioetakoak.

Titulartasunaren arabera, hots, sare publikoa eta pribatua bereiziz, gastuaren %85,8 gastu publikoa da. Bai gastu publikoa bai pribatua hazi egin dira 2008 eta 2009 artean, %9,2 lehenengoa eta %1,8 bigarrena. Gastu korrontearen hazkundeak %9,7koa da lehenengoari dagokionez eta %3,2koa bigarrenari dagokionez. Bestalde, inbertsioak egonkor mantendu ziren sare



## III.3.25. Koadroa. Osakidetzaren gastuen likidazioa eta aurrekontua (euroak milaka)

	2008			2009			2010		
	Aurrek.	Likid.	Aldea	Aurrek.	Likid.	Aldea	Aurrek.	Likid.	Aldea
Inbertsioa	160.924	140.820	-20.104	170.079	207.074	36.995	137.997	132.723	-5.274
Ustiapen gastua	2.274.953	2.277.682	2.729	2.498.142	2.507.752	9.610	2.554.215	2.539.226	-14.989
Langileria	1.603.876	1.602.115	-1.761	1.760.916	1.750.591	-10.325	1.792.362	1.763.417	-28.945
Hornikuntzak	491.605	462.124	-29.481	519.293	539.763	20.470	540.554	554.975	14.421
Bestelakoak	179.472	213.443	33.971	217.933	217.398	-535	221.299	220.834	-465
<b>Guztira</b>	<b>2.435.877</b>	<b>2.418.502</b>	<b>-17.375</b>	<b>2.705.216</b>	<b>2.544.747</b>	<b>-160.469</b>	<b>2.692.212</b>	<b>2.671.949</b>	<b>-20.263</b>
Gastuaren urteen arteko bilak. (%)	11,8			5,2			5,0		
BPGd gaineko gastua (%)	3,56			3,96			4,08		

Iturria: Norberak egina EAEko Kontu Orokorretatik hartuta.

publikoan eta sare pribatuan murriztu ziren (-%16,3). Sarrerei dagokienez (salmentak eta sarrerak) %9,2 hazi dira sare publikoan eta %3,4 pribatuan.

### 3.4.3.3. Osakidetzaren gastuak bere ospitaleko eta ospitalez kanpoko jardueran

Osakidetzaren aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta egin zena, erakusten du erakunde horrek egindako gastua, 2010ean, 2.672 milioi euro izan zela (2009an baino +%5 gehiago), hau da, BPG nominalaren %4,08. Hazkunde horien azalpena ustiapen

gastuen (langileria, hornikuntza eta beste gastu batzuk) hazkundean datza.

Guztizko likidatutik, %5 inbertsioei dagokie (132.723 mila euro) eta %95 ustiapen gastuei. Azken horretan langileria gastuak nabarmentzen dira, erakundearen gastu guztien %66.

Aurrekontuan sartutako zenbatekoak 2010ean benetan egikaritutakoaren aldean izandako desbideratzeari dagokionez, gastu likidatua aurrekontukoa baino txikiagoa da (-20.263 milioi euro), eta "inbertsioen", "langileri gastuen" eta "bestelako gastuen" desbideratzeari dagokio.

# 4. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin merkatuak 2011n izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak %54,4ko gehikuntza nabarmena izan duela (+%4,9 izan zen 2009-2010 aldian), bilakaera ezberdinak izan direlako salgai dauden etxebizitza libre berrietan (+%20,7), erabiltetan (%64,3), alokairurako etxebizitza libreetan (%31,8) eta salgai dauden etxebizitza babestuetan (+%91,6). Alokairuan dagoen etxebizitza babestua da eskaintzan bere parkea murriztu duen bakarra (-%43,5). Horren aurrean, etxebizitza beharra edo eskaera<sup>1</sup>, daukagun azken datuaren arabera (2010ekoa), %11,6 murriztu da (2009an gora egin zuen %48,6).


Bestalde, etxebizitzetarako egindako hipotekaren kopurua 2011n %23,6 jaitsi da, eta zenbateko osoa %25,2. Aurreko denboraldian, ordea, %10,1 eta %11,6 igo ziren hurrenez hurren. Ondorioz, hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa %2,1 murriztu zen 2011n. Bien bitartean, hipoteka-merkatuko interes-tasek gora egin dute epe guztietan: Urtebeterako Euriborra 1,73tik (urtarrilean) 2,05era (abenduan) igo zen (+32 ehunen). Kreditu entitateek familientzat ematen duten mailegu tasa (UTB), berriz, 2,66tik 3,66ra igo zen denboraldi berean (+1 ehuneko puntu)<sup>2</sup>.

## 4.1. Zorua eta eraikuntza kostuak

### 4.1.1. Lurzorua EAEn

Etxebizitzak etxebizitzaren merkatura iristeko prozesua hasteko, lurzorua erosten da. Gero urbanizazioa,


III.4.1. Grafikoa. Etxebizitza-merkatuaren bilakaera EAEn<sup>1</sup>



Iturria: Eusko Jurlaritzaren eta INEren datuekin egina.

sustapena, eraikuntza eta, azkenik, etxebizitzaren salmenta edo adjudikazioa datoz. Normalean, informazioa izaten dugu prozesuaren azken zatian buruz, eskaintzen den etxebizitza kopurua jakiten dugu, haien ezaugarri batzuk eta salneurria ere bai. Baina aurreko faseei buruz dagoen informazioa oso urria da eta, iturri batetik bestera, kontraesankorra ere bai.

III.4.2. Grafikoa. Hiri lurzorua batez besteko prezioaren hiruhilekoko bilakaera Estatuan eta EAEn (€/m²)



Iturria: Sustapen Ministerioaren datuekin egina.

\* Ez dago daturik 2011ko lehen bi hiruhilekoei buruz.

<sup>1</sup> Grafikoan ageri den eskariak eskuratzeko behar diren etxebizitzaren kopurua biltzen du; eskaintza higiezin sektoreko agente eta estatuzaleek azaltzen dutena da; prezioak eurotan azaltzen dira salgai dagoen etxebizitza librearen (berria zein erabilia) m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko.

<sup>2</sup> Finantza aldagai horien bilakaerari buruzko informazio gehiago izateko, irakurleak Memoria Sozioekonomiko honetako kapitulu honetara jo dezake: "II.2. Ekoizpen egitura eta berrikuntza EAEn".

Sustapen Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuei erreparatuz gero, 2011ko laugarren hiruhilekoan EAEn egin ziren hirilurren transakzioetan batez besteko prezioa 254,80 euro izan zen m<sup>2</sup> bakoitzeko. Beraz, urtebete lehenagoko batez bestekoa baino %25,2 gutxiago, eta laugarren urtez jaisten. Era berean, estatu osoan egindako transakzioen batez bestekoa 182,50 €/m<sup>2</sup> izan zen, 2010eko azken hiruhilekoan izandako batez besteko prezioaren %19,8ko gutxitzea alegia.

Kopuru absolutuetan, Madrilgo Komunitateak dauka estatuko preziorik garestiena (418,40 €/m<sup>2</sup>, 2010eko laugarren hiruhilekoan baino %16,3 gutxiago), eta haren atzetik Balearrek (255,80 €/m<sup>2</sup>) eta EAEk. EAEn izandako bilakaera lurralde historikoen arabera aztertzen badugu, nabarmentzekoa da prezioen jaitsierak Bizkaian izan duen bolumena, -%31,7ko beherakada izan baitu; 2011ko amaieran 281,70 €/m<sup>2</sup>ko batez besteko prezioa izan zuen. Gipuzkoan ere behera egin dute prezioek, batez bestekoa inguru (-%24,8). Aldi berean, Araban jaitsiera askoz txikiagoa izan da (-%8,2).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2011. urtearen amaieran, hurrengo urteetan babes publikoko 13.256 etxebizitza inguru eraikitzekeko lurzoru-ondarea zeukan (Etxebizitza Sailak erosi zuen lur-zatiak eta erosi nahi zituen beste lurzoru batzuk barne). Kopuru horretatik, %81 (10.702 etxebizitza) 2013rako eskuragarri egongo litzateke, eta gainerako %19 epe luzeagoan egongo litzateke: 1.229 2014an eta 1.325 aurrerago. Lurzoru-ondarea gure Erkidegoko gune funtzionaltako biztanleriarekin erlazioatzean, egiaztatzen da eskuragarritasunik handienak Zarautz-Azpeitian, Bilbo Metropolitanarrean eta Gernika-Markinan daudela.


#### 4.1.2. Eraikuntza-kostuen estatistika

EUSTATEN "Eraikuntza Kostuen Indizea"<sup>3</sup> inguruabar izaerako adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energi kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hau sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileri kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez zenbatetsia) indize baten bidez. Jakina, adierazle horrek ez digu uzten ekoizpenaren azken prezioan eragiten duten kostu guztiak neurtzen, enpresa etekinak ez ezik, kapitalari lotutako faktoreak falta direlako.

2011n, eraikuntza-kostuak, beren osotasunean, %1,8 igo dira (abenduko urte artekoa), lan eskuarena %1,5, eta lehengaien kostuak %1,9 gehitu dira, bilakaera ekonomikoaren ondorioz. Aurreko ekitaldian bezala, Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek norabide bereko bilakaerak izan dituzte: Eraikuntzan apur bat igo dira kostuak (+%1,4), eta Obra Zibilean gehiago: %3 igo dira.

Sektorean kontsumitzen diren lehengaien prezioen artean, 2011n inflazio tasarik handienak izan dituztenak hauek dira: Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%20,1), Petrolioaren birfinketa (%15,8) eta Industria kimikoa (%6,7). Kontrako aldean, ondoren ematen diren ataletako

#### III.4.3. Grafikoa. Eraikuntza-kostuen urte arteko (abendua) aldakuntza tasa EAEn. Abiapuntuko urtea: 2005



Iturria: EUSTAT. EKI.

#### III.4.1. Koadroa. Eraikuntza sektorearen magnitude nagusiak. Eguneko prezioak. (Euroak, milaka)

	2007	2008	2009	% 07/08	% 08/09
Lanean ari diren langil.	101.437	103.635	94.354	2,2	-9,0
BEG, fakt kostuan	5.799.692	6.710.745	5.932.017	15,7	-11,6
Ustiapeneko sob. gordina	2.276.497	2.667.364	2.025.584	17,2	-24,1
Egindako inbertsioak	336.036	500.729	497.385	49,0	-0,7
Amortizazioak	281.875	376.519	395.542	33,6	5,1
Negozio kopurua	19.766.324	24.810.267	21.001.878	25,5	-15,4
Ustiapen kontsumoa	12.593.631	19.284.100	14.548.392	53,1	-24,6
Kanpoko zerbitzuak	1.988.964	2.474.818	2.216.520	24,4	-10,4
Langileria kostuak	3.523.195	4.043.381	3.906.433	14,8	-3,4
Zergen aurretiko emaitzak	1.733.896	1.835.193	970.482	5,8	-47,1
Ekitaldiko emaitza	2.015.771	1.666.067	848.637	-17,3	-49,1

Iturria: EUSTAT. Industriako eta eraikuntzako estatistika.

lehengaien prezioak urte batetik bestera gutxitu egin dira edo gehikuntza txikiagoa izan dute: Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (-%0,1), Informatikako eta optikako produktuen fabrikazioa (%0,2) eta Metalurgia (%0,3).

Bestalde, EUSTATEN "Industriako eta eraikuntzako estatistikaren" datuek erakusten dute eraikuntza

<sup>3</sup> Indize honek Eraikuntza obren bi motak bereizten ditu, alde batetik Eraikina (Eraikuntza iraunkorra, bereiz dagoena, eginkizun hauetarako erabiltzeko egina: familia- edo talde-bizilekutzat, nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jardueraren bat egiteko (esaterako: eskolak, siloak, etab.) eta Obra zibila (Eraikina ez den eta kolektiboak edo jendeak oro har erabiltzeko egin den azpiegitura-lana). 2008ko otsailan, EUSTATEk oinarri berri bat egiteari ekin zion. 2000tik 2005era aldatu zuen. Oinarria aldatzean, bada, besteak beste honako hobekuntza egin ahal izan da: EAEko eraikuntzako sektoreko produktu eta lehengai garrantzitsuenak eguneratu egin dira eta, horretarako, horien estaldura pixka bat gehitu da.

sektoreak 2009an (informazioa eskuragarri dagoen azken urtean) atzerakada handia izan zuela, bai sortutako balio erantsiaren aldetik, bai enpleguaren aldetik. Lurraldeei dagokienez, portaera orokorra errepikatu zen, baina bilakaera pixka bat positiboagoa izan zen Gipuzkoan.

Eraikuntzako enplegu kopuruak behera egin du %9. Hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuta 9.300 pertsona landun gutxiago egon ziren. Era berean, negozio-kopuruak %15,4ko beherakada izan zuela eta langileen kostuek %3,4 behera egin zutela kalkulatu da.

Beste alde batetik, Ustiapeneko soberakin gordina %24,1 jaitsi zen. Horrez gain, amortizazioak %5,1 igo zirenez, Soberakin garbia %28,8 jaitsi zen. Azkenik, zergak baino lehenagoko emaitzak %47,1 jaitsi ziren, eta ekitaldiko emaitza —guztira 848,6 milioi euro—, berriz, %49,1.

## 4.2. Etxebizitza-eskaintza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren “Higiezin Eskaintzaren Estatistikaren” datuek<sup>4</sup> adierazten dute, lehenik eta behin, azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta gehi alokairua) %54,4 igo dela (aurreko urtean +%4,9), laugarren hiruhilekoan 44.643 etxebizitzetara iritsi arte. Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %95 salgai eskaintako etxebizitzak dira eta %5 alokairuan eskaintakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik, %29 etxebizitza berriak dira eta %71 erabiliak, eta berrien %55 babes publikoko motaren baten pean dago. Alokairuko etxebizitzetatik, %68 askeak dira eta %32 babestuak.

Datuetatik honako hau ondorioztatzen da: 2004an eskaintza osoaren hazkundera hasi zen, eta hazkunde hori hasi baino lehenagoko joera bi urtez geldiarazi ostean, 2011n, joera horrek berriro gora egin du modu nabarmenean (+%54,4), funtsean salgai dauden etxebizitzetan (+%60,4), baina alokairuko etxebizitza libreetan ere bai (+%31,8). Alokairu babestuaren eskaintza, aldiz, murriztu egin da (-%43,5), 2010ean gertatu zen bezala.

Azken hamarkadako bilakaera ikusita, agerian geratzen da eskaintako etxebizitzaren tipologian gehikuntza proportzionalik handiena etxebizitza erabiltzetan gertatu dela. Horrela, 2011n eskaintako parkearen %70 erabilia da; 2001-2010 aldi osoan, aldiz, %49,9 izan zen.

Beste alde batetik, eskaintako etxebizitzaren multzoan pisu gehiena galdu duen etxebizitza-mota, babes publikoko etxebizitza da. 2011n parke eskuragarriaren %15 zen, eta azken hamarkada osoan %20 izan zen. Joera bi horien emaitzek azaltzen dituzte azken hamarkadan eskaintako etxebizitza tipologien pisan egondako gorabehera gehienak.

Prezioei dagokienez, salgai dauden etxebizitza libreen (berrien nahiz erabilien) batez besteko prezioa m<sup>2</sup>-ko 3.800 eurotik gorakoa da; horrenbestez, %1,5 jaitsi da 2010eko batez bestekoaren aldean; aurreko urtean %1,1 igo zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, prezioak %2,8 jaitsi ziren; bestalde, bigarren eskuko etxebizitzaren zatiarenak %1,3 jaitsi dira. Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %3,9 igo da azken urtean. Alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, %2,7 jaitsi da (prezio horietan metro karratuko eurotan hartu dira). Bestetik, babestutako etxebizitzaren alokairuko batez besteko errenta 279,20 euro da, aurreko urtean baino %36,8 gehiago.

Azkenik, azpimarratu behar dugu higiezin enpresek etxebizitza bat saltzeko behar duten denbora, batez beste, 2011n 8,7 hilabete izan zela, aurreko urtean 9,2 hilabete ziren bitartean. Bitarteko gisa jarduten duten agenzia horiek kalkulatu dutenez, etxebizitza erabilien prezioak batez beste %12,9 merkatu dira salmentak burutu ahal izateko.

### 4.2.1. Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak

#### (a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre eta eraiki berri eskaintza, 2011ko laugarren hiruhilekoan, 5.549 alera iritsi da, 2010ean baino %20,7 gehiago. Ondoko banaketa dauka lurraldez lurralde: Bizkaiak %51,5 hartzen du, Gipuzkoak %32,6 eta Arabak gainerako %15,9a. Banaketa hori aurreko urtekoaren antzekoa da baina, oraingoan, Bizkaiak pisu erlatiboa irabazi du (%6,5).

EAEko etxebizitza libre berrien ezaugarriak dagokienez, gehienak honelakoak dira (2010eko datuak): etxebizitza kolektiboak (%91), eta “jaso”tzat jotzen den akabera (%60), akabera normalaren (%32) eta luxuzkoaren (%8)

### III.4.2. Koadroa. EAEko etxebizitza eskaintzaren bilakaeraren laburpena

	Guztira	Etxebizitzak salgai					Etxebizitzak alokairuan		
		Salgai guztira	Etxebizitza berriak			Etxebizitza erabiliak	Alokairuan guztira	Libreak	Babestuak
			Guztira	Babestuak	Libreak				
2006	18.045	15.913	8.977	5.065	3.912	6.936	2.132	578	1.554
2007	22.048	20.051	9.421	5.093	4.329	10.630	1.997	485	1.512
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
2009	27.560	24.180	10.127	5.010	5.117	14.053	3.380	1.000	2.380
2010	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354
I-2011	32.517	29.998	9.167	4.477	4.689	20.831	2.519	1.292	1.227
II-2011	36.966	34.498	10.485	5.575	4.911	24.013	2.468	1.380	1.088
III-2011	42.328	39.942	12.181	6.969	5.212	27.762	2.386	1.511	875
IV-2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

<sup>4</sup> Datuak 5 etxebizitzatik gorako sustapenak dituzten 156 sustatzaileari eta higiezin 176 agentziari egindako inkesta baten bitartez jaso ziren —2011n laginaren tamaina handitu da—. Beraz, ez da eskaintza guztia ageri. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da.

**III.4.3. Koadroa. EAEko etxebizitza salgaien batez besteko prezioaren bilakaera. €/m<sup>2</sup> erabilgarria**

	Etxebizitza librea				Babestutako etxebizitza**	
	Librea guztira*	Erabilia	Berria	Eredu-etxebizitza	BOE	Soziala
2005	3.715,0	3.935,5	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5
2006	4.046,9	4.272,8	3.646,3	3.153,6	1.285,1	
2007	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9	
2008	4.160,4	4.199,0	4.053,8	3.428,4	1.372,0	
2009	3.846,6	3.778,9	4.032,5	3.338,1	1.468,9	
2010	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3	
2011 I	3.871,3	3.880,1	3.832,1	3.475,4	1.493,4	
2011 II	3.857,8	3.863,8	3.828,0	3.475,4	1.499,8	
2011 III	3.850,1	3.857,9	3.808,5	3.475,0	1.514,9	
2011 IV	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2	

\* Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa

\*\* 2006az geroztik etxebizitza sozial salgaiaren modalitatea desagertu zen.

Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

aurrean. Azalera erabilgarriari dagokionez, 76 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera daukatenez guztien %36 hartzen dituzte; apartamentuak, ordea, oso gutxi dira eskaintako lagin osoa kontuan hartzen badugu. Horrela, guztien %12ak soilik dauka 60 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko tamaina.

Etxebizitza libre eraiki berrien batez besteko prezioa, 2011ko laugarren hiruhilekoan, 3.769,5 €/m<sup>2</sup> zen, hau da, 2010eko batez bestekoa baino %2,8 gutxiago. Lurraldez lurralde aztertzen badugu, Araban batez bestekoa txikiagoa da (3.438,4 €/m<sup>2</sup>). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, 3.802,1 €/m<sup>2</sup> eta 3.876,2 €/m<sup>2</sup> da hurrenez hurren. Bilakaerari begira, Gipuzkoak %3,9 egin du atzera, Bizkaian batez besteko prezioa %2,5 murriztu da eta Araban %2,6. Etxebizitza bakoitzeko prezioak aztertuta, batez bestekoa honakoen artean dago: etxebizitza bakoitzeko 325.700 € Gipuzkoan eta 280.300 € Araban. Bizkaia beste bien artean dago: 305.800 euro.

Babestutako merkatuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu 2006an gizarte etxebizitza salgaien eskaintza desagertu zela; etxebizitza horiek alokairurako soilik hasi ziren eskaintzen. Salgai dauden BOEn eskaintza, 2011k laugarren hiruhilekoan, 6.845 unitate zen, aurreko urtean baino %91,6 gehiago. Orduan, ozta-ozta gainditzen ziren 3.500 etxebizitzak.


Saltzeko eskaintako BOEn batez besteko prezioa 1.532,2 €/m<sup>2</sup> zen 2011n, aurreko urtean baino %3,9 gehiago. Lurralde historikoen arabera ez dago ia ezberdintasunik. Bizkaia preziorik altuena dauka (1.569,6 €/m<sup>2</sup>), gero Arabak (1.508,3 €/m<sup>2</sup>) eta azkenik Gipuzkoak (1.504,7 €/m<sup>2</sup>).

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes araubideren bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza hauek babestutako etxebizitza baino zerbeit garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

**(b) Erabilitako etxebizitza**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2011n guztira bigarren eskuko 29.882 etxebizitza eskaintzen direla, aurreko urtean baino %64,3 gehiago<sup>5</sup>. Etxebizitza hauek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %53,6, Araban %18,4 eta Gipuzkoan gainerako %28.


EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 3.841,6 €/m<sup>2</sup> zen 2011n, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino %1,3 gutxiago. Lurraldeka, bilakaera nahiko ezberdina ikus daiteke, izan ere, Gipuzkoan eta Araban prezioek behera egin zuten batez bestekoa baino gehiago (-%6,2 eta -%4, hurrenez hurren). Bizkaian, aldiz, %0,4 igo ziren. Emaitza gisa, prezioak Gipuzkoako 4.395,3 €/m<sup>2</sup> eta Arabako 3.232,8ren artean daude, eta Bizkaia tartean geratzen da, batez beste 3.766,4 €/m<sup>2</sup>rekin. Etxebizitza bakoitzeko prezioetan, EAEn batez bestekoa 340.200 euro da

**III.4.4. Grafikoa. EAEn salgai dauden etxebizitza berrien eskaintzaren bilakaera EAEn, motaren arabera**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

<sup>5</sup> Laginketa-datuak diren arren, informazio horrek erakusten du eskaintzen diren etxebizitza erabilien stockaren gehikuntza dagoela; higiezin-merkatuan jardun motela dagoenean hau gertatu ohi da.

### III.4.5. Grafikoa. Salmentarako eta alokairurako etxebizitza babestuen eskaintzaren bilakaera EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Higiezin eskaintzaren estatistika.  
(\* Modalitate hau 2006an desagertu zen.)

etxebizitza bakoitzeko. Gipuzkoako 379.400 eta Arabako 269.100 euroren artean. Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 344.300 euro etxebizitza bakoitzeko.

Bestalde, etxebizitzaren prezio tarte handien arabera banaketa oso sakabanatuta dago hiru lurraldeetan, baina prezio tarterik altuenetako pilaketa handiagoa da Gipuzkoan beste lurralde bietan baino.

#### 4.2.2. Alokairu araubidea

2011ko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 2.367 etxebizitza eskaini dira alokairurako, aurreko urtean baino %7,8 gutxiago. Zati askea %31,8 hazi zen, 1.215 unitatetik 1.602ra, eta alokairuko etxebizitza babestuenena %43,5 jaitzi zen;

horrela, alokairu babestua 2010ean %53 izatetik 2011n %32 izatera igaro zen.

EAEko alokairuko babestutako etxebizitzaren batez besteko errenta, 2011n, 279,2 euro zen hilean, aurreko urtean baino %36,8 gehiago. Kapitulu hau ixteko unean, ez zegoen jakiterik babes modalitateen arabera banakapena zein zen.

Bestetik, 2011ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskaintako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 1.602 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %50, Araban %26, eta gainerako %24 Gipuzkoan.

Eskaintako etxebizitzaren azalera erabilgarriari dagokionez, Higiezin eskaintzaren estatistikak agerian utzi du alokairuan eskaintako etxebizitza erabilien batez besteko tamaina

### III.4.4. Koadroa. Salgai dauden etxebizitza erabiliak, m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko batez besteko prezioarekin (€) eta batez besteko prezioak (milaka eurotan), lurralde historikokoa

	EAE			Áraba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Kop.	m <sup>2</sup> aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop.	m <sup>2</sup> aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop.	m <sup>2</sup> aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop.	m <sup>2</sup> aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza
2006	6.936	4.272,8	320,5	2.124	3.871,0	307,8	3.722	4.365,3	324,0	1.090	4.748,7	335,2
2007	10.630	4.356,4	350,7	3.031	3.834,6	311,4	6.067	4.490,9	357,3	1.533	4.847,1	404,4
2008	13.395	4.199,0	339,5	4.366	3.591,2	290,3	6.906	4.393,7	352,4	2.123	4.809,0	398,4
2009	14.053	3.778,9	310,1	4.009	3.550,0	295,2	7.378	3.581,7	294,1	2.666	4.686,4	374,3
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4.685,5	398,5
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3.766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Higiezin eskaintzaren estatistika.

### III.4.5. Koadroa. EAEn alokairurako eskaintzen diren etxebizitzaren errentaren bilakaera. (Euroak hilean)


	Babestutako merkatua			Merkatu librea
	BOE	Sozialak	Guztira	
2005	397,5	147,6	278,2	807,4
2006	384,9	141,0	263,2	819,6
2007	325,3	131,7	194,1	890,2
2008	380,3	118,0	233,8	968,9
2009	325,0	121,4	219,8	875,3
2010	277,0	122,7	204,0	921,5
2011	:	:	279,2	896,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Higiezin eskaintzaren estatistika.

**III.4.6. Koadroa. Eskaintzen diren alokairuko etxebizitza libreak eta hileko batez besteko errenta. €**

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2005	511	123	273	116	778,9	850,3	749,3	788,7
2006	578	184	241	153	819,6	866,8	795,7	802,8
2007	485	181	212	92	890,2	908,5	875,4	901,5
2008	603	227	247	130	968,9	895,0	968,8	1.086,5
2009	1.000	395	387	218	875,3	836,7	881,0	941,1
2010	1.215	226	767	222	921,5	827,6	923,8	1.004,9
2011	1.602	413	797	392	896,3	830,7	882,3	993,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Higiezin eskaintzaren estatistika.

**III.4.6. Grafikoa. Alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren eta alokairu librearen batez besteko hileko errentaren bilakaera (€)**

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Higiezin eskaintzaren estatistika.

salgai jarritako etxebizitza tipologia berean ikusitakoa baino askoz txikiagoa dela (80 m<sup>2</sup> eta 88, hurrenez hurren). Batez beste, partikularrenak diren eta higiezin-jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 896,3 euroko batez besteko errenta daukate 2011n, aurreko urtean baino %2,7 gutxiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (993,8 € hilean); gero Bizkaia (882,3 € hilean) eta azkenik Arabak (830,7 € hilean). Bilakaeraren analisia jaitziera handiagoa erakusten du Bizkaian (-%4,5), eta txikiagoa Gipuzkoan (-%1,1). Araban, aldiz, batez besteko errenta apur bat igo da, %0,4.

**4.2.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa Autonomi Erkidegoen arabera**

INE 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle honek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzaren (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPIa Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, beraren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Beraren eremutik kanpo daude, hortaz, babestutako etxebizitzak, haien prezioak

**III.4.7. Koadroa. Etxebizitzaren prezioen indizea: laugarren hiru hilekoen urteko aldakuntza-tasak**

	2008	2009	2010	2011
ESTATU. BATEZ BESTE.	-5,4	-4,3	-1,9	-11,2
Andaluzia	-2,9	-1,7	-2,1	-8,4
Aragoi	-6,7	-6,8	-4,3	-12,5
Asturias	-1,6	-0,5	-1,0	-10,5
Balear Uharteak	-6,3	-5,6	-1,3	-9,8
Kanariak	-2,4	-2,5	-3,2	-7,7
Kantabria	-2,6	-6,0	-7,2	-11,6
Gaztela eta Leon	-2,5	-2,5	-1,3	-10,5
Gaztela-Mantxa	-1,5	-2,1	-0,8	-8,8
Katalunia	-10,3	-7,0	-2,8	-14,3
Valentziako E.	-2,1	-4,9	-3,3	-9,8
Extremadura	-2,0	1,9	1,7	-8,0
Galizia	-0,4	-1,5	-1,4	-7,9
Madril	-8,1	-6,6	1,7	-15,7
Murtzia	-0,8	0,0	-2,6	-7,1
Nafarroa	-5,6	-8,3	-5,9	-10,9
<b>EAE</b>	<b>-8,0</b>	<b>-7,1</b>	<b>-1,4</b>	<b>-12,2</b>
Errioxa	-3,8	-3,1	-6,2	-14,2
Ceuta	-5,7	-1,7	-2,6	-12,9
Meilla	-0,2	3,0	-1,1	-14,2

Iturria: INE. EPI.

araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

EPlak Notariotzaren Kontseilu Nagusiak (Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez) emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio erregistroak erabiltzeak, batetik, biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea ahalbideratzen du. Horrela, ez dago laginketa teknikak erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koiantura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

2011ko emaitzek erakusten dutenez, 2008an eta 2009an gertatu zen etxebizitzaren batez besteko prezioen jaitziera orokorra 2010ean leundu zen, eta horren ostean, orokorrean, 2011n erkidego guztietan jaitziera egon ziren, erkidego askotan %10etik gorakoak, baina merkatuaren egoera eta adierazlearen berritasuna kontuan hartuta, hori goerago hiru hilekoetan erkatu beharko da.

Gure Erkidegoan, 2011ko amaieran, urteko arteko jaitziera %12,2 izan zen, Estatuko batez bestekoaren (-%11,2) aldean. Autonomi erkidegoen arabera, urtean pilatu ziren prezioen beherakadarik handienak Madrilan

## III.4.8. Koadroa. Eraikuntza jarduera EAEn: hasitako eta amaitutako etxebizitzak

		2007	2008	2009	2010	2011
Etxebizitza libreak	Hasita	11.269	6.203	3.855	2.572	4.804
	Amaituta	10.793	9.083	8.782	6.409	5.851
Etxebizitza babestuak	Hasita*	7.310	6.259	3.196	4.966	4.456
	Amaituta	4.631	5.000	4.672	4.991	5.523

Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

\* Babestutako etxebizitzaren figura berriak sartzen dira hemen: etxebizitza tasatuak eta zuzkidura-bizitokiak.

## III.4.9. Koadroa. EAEn hasitako etxebizitza babestuen bilakaera, tipologiaren arabera

	EJ-ren kalifikazioaren pean daudenak			EJ-ren kalifikazioaren pean ez daudenak			GUZTIRA
	BOE	Sozialak	Tasatuak	Zuzkidura-bizitokiak	Udal etxebizitza tasatuak		
					Alokairua	Jabetza	
2006	4.822	392	—	125	—	—	5.339
2007	5.302	590	—	361	100	957	7.310
2008	4.793	847	—	103	—	516	6.259
2009	2.939	91	37	—	—	129	3.196
2010	3.756	846	14	—	—	350	4.966
2011	3.663	391	136	110	—	156	4.456

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren datuekin egina.

(-%15,7), Katalunian (-%14,3) eta Errioxan eta Melillan (biak -%14,2rekin) izan ziren. Ranking horren laugarren postuan gure Erkidegoa egongo litzateke.

## 4.2.4. Eraikuntza jarduera

EAEn hasitako etxebizitza kopuru osoak, 2008an %32,9ko jaitsiera eta 2009an %43,4ko jaitsiera eduki eta gero, zeinua aldatu zuen 2010ean, %6,7 haziz. Hazkunde hori 2011n errepikatu da, %22,8ko igoerarekin. Guztira 9.260 etxebizitza hasi dira; horietatik 4.804 askeak dira (%51,9) eta 4.456 babestuak (%48,1). Azken horietatik 3.663 BOE dira (-%2,5, 2010arekin alderatuta) eta 391 gizarte etxebizitzak dira (-%53,8).

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009 Etxebizitza Plana abian jarri zenetik, babestutako etxebizitzaren merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, zuzkidura-bizitokiak eraikitzen hasi dela 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik tasatutako etxebizitza autonomikoak. Denbora horretan, guztira 699 zuzkidura-bizitoki eraikitzen hasi da, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta 2.108 jabetzarako, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren 187 etxebizitza tasatu.

Bestalde, EAEn 2011n amaitutako etxebizitzak 11.374 dira, aurreko urtean baino %0,2 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%8,7) eta babestutakoen gorakadaren (+%10,7) baturaren emaitza gisa.

2011ko datuek, bestalde, erakutsi dute 2009an aurreko urtearen aldean etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza jardueran duen parte hartzean gertatutako beherakadaren ostean (%35,5etik %34,7ra igaro zen), 2010ean gertatu zen portzentaje horren leheneratzea (%43,8) 2011n sendotu egin dela: amaitutako etxebizitzaren artean babestutako etxebizitzaren garrantzia %48,6ra arte igo da.

Azkenik, EUROSTATek 2010ean Europako egoitza eraikuntzaren erkaketa argitaratu zuen, emandako eraikuntza-baimenei buruzko datuen bidez. Datuotatik ondorioztatzen denez, azken hamarkadan eraikuntza etengabe hazi zen 2001eko amaieratik 2007ko hasiera arte, eta harrezkero jaitsi egin da, zenbait neurritan,

## III.4.10. Koadroa. EBn\* hasitako etxebizitza kopuruaren urteko aldakuntza (%tan), emandako eraikuntza-baimenen arabera

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
27-EB	9,7	4,5	5,9	-9,8	-27,1	-23,4
Eurogunea	9,1	5,3	5,9	-10,3	-25,5	-22,9
Belgika	15,1	14,2	3,3	-12,0	-3,5	-13,2
Bulgaria	102,1	54,6	61,4	20,9	-23,1	-59,3
Txekiar E.	4,7	49	8,7	2,1	0,2	-17,2
Danimarka	8,2	19,3	-1,5	-33,5	-37,0	-52,9
Alemania	-10,4	-10,5	2,4	-27,6	-5,4	3,0
Estonia	174,9	-2,7	40,4	-30,9	-38,7	-61,8
Irlanda	29,5	-2,3	-20,7	7,2	-20,0	-40,1
Grezia	-5,1	69,1	-39,7	-18,8	-23,2	-25,5
Spainia	15,2	11,1	21,9	-15,1	-57,2	-51,0
Frantzia	21,4	11,2	8,2	-4,2	-14,9	-18,5
Zipre	31,6	19,4	0,9	8,2	-2,0	-17,1
Letonia	60,8	63,0	32,3	5,2	-61,0	-40,2
Lituania	36,2	40,4	40,7	16,4	-17,3	-52,6
Luxenburgo	18,2	21,3	-6,0	12,2	-18,7	-8,4
Hungaria	1,4	-9,8	-13,5	-0,3	-0,4	-34,1
Malta	9,2	35,6	14,5	9,2	-40,0	-22,5
Holanda	5,2	9,3	15,7	-8,7	-0,9	-16,7
Austria	5,7	2,4	8,5	-7,8	-13,6	-9,3
Polonia	14,0	9,5	38,6	47,4	-7,0	-23,6
Portugal	-12,9	-1,0	-4,2	-7,2	-27,5	-42,6
Errumania	24,0	27,0	17,3	10,8	7,7	-20,1
Eslovenia	19,9	2,5	18,6	22,1	-18,7	-29,7
Eslovakia	53,9	21,7	3,0	-9,8	59,7	-30,3
Finlandia	-1,1	6,3	-4,1	-7,2	-20,4	-1,5
Suedia	19,5	18,5	39,2	-34,4	-15,6	-13,2
Erres. Batua	9,9	-0,5	1,5	-5,7	-35,2	-24,0

Iturria: EUROSTAT. Statistics in focus 55/2010.

(\*) Ez dago Italiari buruzko daturik.

Batasun osoan. Datu irmoak oraindik eskuragarri egon ez arren, ematen du emandako baimen kopuruaren hazkunde tasa 2009ko bigarren seihilekoan hasi zela leheneratzen; artean zenbateko negatiboak eman zituen, baina txikiagoak.



Datu horiek aztertzerakoan, EUROSTATEk Europako herriei zenbait neurritan eragin dieten eragileak aipatu zituen. Besteak beste, aurreko aldiko gain-produkzioa, kontsumitzaile eta enpresen konfiantzaren jaitsiera, horrek proiektuetan dakarren atzerapenarekin, kredituaren murrizketa eta gastu publikoaren jaitsiera, krisiaren ondorioz.

### 4.3. Etxebizitza-eskaria

#### 4.3.1. Etxebizitzaren beharra eta eskaria

Eusko Jaurlaritzak 2010ean egin zuen "EAEko etxebizitza beharraren eta eskariaren oinarriko inkesta<sup>6</sup>"ren emaitzen arabera, erreferentziarako urtean %11,82 ziren lehenengo etxebizitza eskuratu behar zutela zioten pertsonak. Kopuru absolutuetan zenbatesten dugu beharizan hori adierazten

duten pertsonen kopurua 97.800 familiaraino iristen dela, hau da, aurreko urtean baino %11,6 gutxiago. Eskariari dagokionez, jotzen da 63.254 etxebizitzakoa dela lau urteko epean eta 20.746 etxebizitzakoa urtebeteko epean (epe laburrean). Era berean, EAEko familien %6,73k ohiko etxebizitza aldatu beharra du; hau da, 56.397 etxebizitza behar dira. Eskaerari dagokionez, aurreikuspena 25.810 etxebizitzakoa da 4 urteko epean eta 8.207 etxebizitzakoa epe laburrean (urte bat).

Bestalde, inkestak erakusten du etxebizitzak birgaitu beharra daukaten familien proportzioa 2010ean %16,89tik %9,66ra jaitsi zela, hau da, 80.969 familia. Eskariaren aldetik, familia hauetatik 43.787k uste dute oso edo nahiko probalea dela datozen lau urteetan etxebizitza birgaitu ahal izatea, eta 11.934k urtebeteko epean berrikuntzak egiteko asmoa dute.

#### III.4.11. Koadroa. Familiak, etxebizitza beharraren arabera eta lurralde historikoaren arabera. 2007-2010

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Eskuratzea (1)	Aldatzea	Birgaitzea	Eskuratzea	Aldatzea	Birgaitzea	Eskuratzea	Aldatzea	Birgaitzea	Eskuratzea	Aldatzea	Birgaitzea
2007	82.891	64.393	113.396	12.424	7.559	13.957	46.299	34.255	63.181	24.167	22.584	36.264
2008	74.461	40.894	128.669	10.992	6.813	18.231	39.052	21.714	71.544	24.417	12.367	38.893
2009	110.677	56.652	142.099	11.476	7.676	8.174	66.418	37.936	91.995	32.783	11.040	41.930
2010	97.800	56.397	80.969	15.246	8.512	12.785	54.157	27.294	40.942	28.397	20.591	27.242
Indizeak. Datuak, ehunekotan, familia kopuruari buruz (2):												
	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Eskuratzea (1)	Aldatzea	Birgaitzea	Eskuratzea	Aldatzea	Birgaitzea	Eskuratzea	Aldatzea	Birgaitzea	Eskuratzea	Aldatzea	Birgaitzea
2007	10,37	8,06	14,19	10,92	6,64	12,27	10,77	7,97	14,70	9,45	8,83	14,17
2008	8,98	4,93	15,52	9,25	5,73	15,34	8,77	4,88	16,07	9,21	4,66	14,66
2009	13,38	6,73	16,89	9,66	6,22	56,63	14,92	8,46	20,51	12,37	4,09	15,55
2010	11,82	6,73	9,66	12,83	6,89	10,34	12,16	6,11	9,17	10,71	7,68	10,16

(1) Eskuratzeko kasuetan, 18 eta 44 urte arteko pertsonak eskatzen dituzten etxebizitzak hartu ditugu kontuan.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuekin egina. Etxebizitza beharren eta eskaeraren inkesta.

#### III.4.12. Koadroa. Eskuratu edo aldatu beharra adierazi duten familiek behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak

	ALDATZEA (1)			ESKURATZEA (1)		
	2006	2008	2010	2006	2008	2010
Egoera						
Berria	16,5	21,0	16,6	17,9	17,3	21,5
Erabilia	2,2	4,7	13,4	1,9	2,0	8,6
Berdin dio	77,1	70,2	61,2	79,5	80,2	68,3
Ed/Ee	4,2	4,1	8,8	0,7	0,5	1,5
Azalera erabilgarria						
60 m <sup>2</sup> baino gutxiago	19,4	30,0	18,8	38,8	46,4	28,8
61-75 m <sup>2</sup>	37,3	28,3	22,3	36,5	34,4	33,6
76-90 m <sup>2</sup>	26,8	26,6	28,5	19,4	13,9	26,2
90 m <sup>2</sup> -tik gora	14,7	12,0	21,8	2,4	0,7	2,8
Ed/Ee	1,8	3,1	8,6	2,9	4,5	8,6
Edukitze-araubidea						
Jabetza	73,4	63,5	62,9	66,2	57,6	51,6
Alokairua	12,0	16,9	24,8	7,5	9,2	23,2
Berdin dio	14,6	19,6	12,3	26,3	33,2	25,2

(1) % bertikala (beharrizana duten mota bakoitzeko pertsonen kopuru osoan).  
Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuekin egina. EBEI.

#### III.4.13. Koadroa. Eskuratu beharra duten biztanleen ezaugarriak, sexuaren arabera. 2010. Ehuneko bertikalak, beharra duen kolektibo osoan

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Adina			
18 eta 24 bitartean	21,7	17,4	19,8
25 eta 34 bitartean	66,9	66,3	66,6
35 eta 44 bitartean	11,4	16,3	13,6
Ikasketa maila			
Ikasket. ez / Lehen maila.	18,4	8,8	14,1
Lanbide Ikasketak	37,6	27,3	33,0
Bigarren Maila. Ikasketak	12,4	9,2	11,0
Unibertsitate Ikasketak	31,5	54,8	41,9
Jarduerarekiko haremna			
Bere kontura lan egiten du	7,9	6,7	7,4
Landuna, kontratu finkoa	53,1	45,4	49,7
Landuna, aldi baterakoa	30,5	38,0	33,8
Langabetua	6,2	5,6	5,9
Bestelako egoerak	2,3	4,4	3,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuekin egina. EBEI.

<sup>6</sup> EBEI. Inkesta hau 1994. urteaz geroztik urtero egiten da, EAEko 3.200 familia esanguratsutan.


Lehenbiziko etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen kasuan, ezaugarriak aurreko urtekoen oso antzekoak ziren 2010ean. Hasteko, %60 baino gehiago 25 eta 34 urte artekoak dira, eta erdiak gutxi gorabehera lan-kontratu finkoa daukate. Gainera, emakumeen %54,8k unibertsitate ikasketak daukate; gizonen kasuan %31,5 baino ez dira. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak dagokienez, eskuratzeko zein aldatzeko beharriak dagokienez, pertsona gehienei ez zaie axola behar duten etxebizitza berria edo erabilia izatea (kasi bietan %60ri), eta gehienek tamaina ertaineko etxebizitzak nahiago dituzte, 60 eta 90 metro karratu bitarteko azalera erabilgarria dutenak. Edukitzeko araubideari dagokionez, argi eta garbi jabetza nahiago da alokairua baino (eskuratzeko beharra duten pertsonen %92,9 eta aldatzeko beharra duten familien %51,6), baina alokairuak garrantzia hartu du aurreko urteetako inkesten aldean. Alde horretan, 2010ean, lehenengo etxebizitzaren eskatzaileen %23,2k alokairua aukeratzen du; aldatzeko beharra dutenei dagokienez, %24,8k.

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familien artean, etxebizitzaren tamaina desegokia oraindik ere arrazoirik aipatuena da (%32); bigarrenik, etxebizitzaren egoera txarra dago (%4). Eta hirugarren, igogailurik ez egotea (%13,9).

#### 4.3.2. Familien finantza-ahalegina


EAEko familiek etxebizitza ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak egindako "Etxebizitza politika ebaluatzeko 2010 txostenak", Higiezin Erregistro Estatistikaren datuekin, agerian jarri zuen finantza-ahalegin hori, hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta ordainsari-kostuaren arteko erlazio gisa neurtuta, %31koa dela 2010eko laugarren hiruhilekoan, 2009aren antzera (%32), baina aurreko bi urteetan ikusitakoa baino askoz txikiagoa (%47,5 2008an eta %49,6 2007an). Estatu osoari dagokionez, antzeko ibilbidea izan du, baina azken urtean jaitsiera handiagoa ikusi da (%31, 2009ko %34ren aldean).

#### III.4.7. Grafikoa. Hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta ordainsari-kostuaren arteko harremanaren bilakaera EAE-n eta Estatuan. Datuak ehunekotan




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Higiezin Erregistro Estatistikaren datuekin.

#### III.4.8. Grafikoa. Hipoteka-kredituak indarrean dituzten EAEko familien ehunekoaren bilakaera



Iturria: Eusko JaurlaritzaK Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioaren datuekin egina.

#### III.4.9. Grafikoa. Etxebiden inskribatutako eskaera-espeditenteen bilakaera



Iturria: ETXEBIDE. Eusko Jaurlaritza.

Ateratzen den hileko kuotaren zenbatekoan bi faktore hartu behar dira kontuan: kontratatutako batez besteko hipotekaren bilakaera eta Euriborrak duen noranzkoa. Horrela, 2010ean EAEko batez besteko hipotekaren zenbatekoa 2009an baino apur bat handiagoa da (%0,5 igo da). Estatuan, aldiz, apur bat txikiagoa da (-%0,8). Euriborrari dagokionez, 2010eko bigarren zatian lehenagoko beheranzko joera alderantzikatu da. Urte amaieran %1,526 zen; 2009ko amaieran, aldiz, %1,24.

Faktore horiek biak uztartzean antzeko hipoteka-kuota ateratzen da, eta kontuan hartuta ordainsari-kostua 2010ean %1 eskas igo zela, familiek aurten egin behar izan duten finantza-ahalegina aurreko urtekoaren antzeko samarra da.

Beste alde batetik, aipatu den Etxebizitza Sailaren txostenak, Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioaren datuekin, nabarmendu du 2010ean EAEko familien %32,5ek hipoteka-kreditu bat zuela indarrean, eta proportzio horrek apurka gora egin duela azken urteetan.

### 4.3.3. Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua ebaluatzeko txostenean" agerian jarri duenez, EAEn zerbitzu horretan erregistratuta dagoen etxebizitza babestuaren eskaria jaitsi egin da 2011n, bigarren urtez jarraian. Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroak, 2011ren amaieran EAE osoan inskribatutako 84.376 eskaera zenbatu zituen, aurreko urtean baino %2,9 gutxiago, eskaera indibidualen kopuruaren jaitsieraren ondorioz (-%5,7), eskaera indibidual horiek guztien %69 direla. Izan ere, familia-unitateen eskaeren kopurua %4 igo da. Lurralde lurralde, espedienteen %55 Bizkaiari dagokio, %34 Gipuzkoari eta gainerako %11 Arabari.

Azterketaren ardatz gisa Etxebiden inskribatuta dauden pertsonen kolektiboaren ezaugarriak hartuta, eta haien diru-sarreraren mailari erreparatuta, egiaztatzen da 2011n inskribatutako pertsonen %66,1ek urtean 22.000 euro gordin baino gutxiagoko familiako diru-sarrerak zituzten, %16k urtean 22.000 eta 35.000 euro bitarteko diru-sarrerak zituzten, eta %2k hortik gorako diru-sarrerak, baina baimenduta dagoen urteko 45.500 euro gordineko gehieneko muga gainditu gabe. Gainera, inskribatutakoen %16k ez zituzten diru-sarrerak egiaztatu.

Inskribatutako pertsonen batez besteko diru-sarrera haztatuak 2011n urtean 17.670 euro gordin ziren (-%3,1 2010arekin alderatuta).

Familia-unitatearen kide kopuruari dagokionez, kide bakar batek osatutako familiak, ugaritsuenak izanik ere, gutxitu egin dira apur bat azken hiru urteetan: %68,9 izan dira 2011n eta %70,9 aurreko urtean. Bestalde, eskaeren %15,5 bi lagunek osatu dituzte, eta %15,7 hiru kidek edo gehiagok osatutako familia-unitateak dira.

Etxebizitza babestuaren eskatzaileek nahiago duten etxebizitza motari dagokionez, alokairuko etxebizitzaren eskariak gora egin duela egiaztatu da. Finantzaketa emateko orduan izandako murrizketek jabetza eskuratzeko aukerak mugatzen dituzte eta, ondorioz, gero eta eskatzaile gehiagok egiten dute alokairuaren alde. Hain zuzen ere, 2006an Etxebiden inskribatuta dauden %42,5ek jabetza araubideko etxebizitzak soilik eskatzen zituzten. 2011n, aldiz, proportzio hori guztien %25era arte murriztu da.

### III.4.14. Koadroa. Etxebiden inskribatutako biztanleen ezaugarriak 2008-2010. Ehuneko bertikalak

	2009	2010	2011
Diru-sarrera maila (€)*			
< 3.000	3,0	4,2	4,2
3.000-9.000	11,4	11,6	12,0
9.000-12.000	10,3	8,8	9,0
12.000-22.000	42,5	37,3	40,9
22.000-28.000	13,7	14,6	10,8
28.000-35.000	7,3	9,9	5,2
35.000-45.500	2,1	4,9	2,0
Ez du diru-sarrerarik egiaztatu	9,6	8,8	16,0
Eskatzaileak guztira	100,0	100,0	100,0
Diru-sarrera haztatuaren batez bestekoa	17.082	18.244	17.670
Familia-unitateko kide kop.			
1	72,5	70,9	68,9
2	15,6	15,3	15,5
3	9,9	11,4	13,0
4 edo gehiago	2,0	2,4	2,7
Eskatzaileak guztira	100,0	100,0	100,0

\* Diru-sarrerak inskribatu baino lehenagoko bi urtekoak dira. Iturria: ETXEBIDE. Eusko Jaurlaritza.

### III.4.10. Grafikoa. Etxebiden inskribatutako pertsonen eskatutako etxebizitza motaren bilakaera



Iturria: ETXEBIDE. Eusko Jaurlaritza.


Beste alde batetik, eskatzaileen %38,2k alokairu araubidea baino ez dute aukeratzen bere etxebizitza-arazoa konpontzeko (%23,7 2006an). Aurreko urtearekin alderatuta, mantendu egin da jabetza zein alokairu eskatzen dutenen proportzioa, %39 inguru (%33,7 2006an).

## 4.4. Etxebizitza politika

### 4.4.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren aurrekontu gastua joan den hamarkadan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren %2,8 izan zen. 1997-2001 denboraldian, Sail honek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-gastu osoaren %2,2 izan zuen. 2002ko ekitalditik aurrera, aurrekontu

### III.4.11. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Programaren gastuaren bilakaera, kapituluz kapitulu. Datuak milioika eurotan



Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

### III.4.15. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza programaren gastu likidatuaren bilakaera eta BPGdan duen pisua

	Etxebizitza programaren gastua		EAEko BPGda prezio arruntetan		Programaren % BPGdan
	Mil. eurot.	% gehik	Mil. eurot.	% gehik	
2005	157,43	2,0	57.289	7,5	0,27
2006	171,56	9,0	61.761	7,8	0,28
2007	188,88	10,1	66.427	7,6	0,28
2008	198,81	5,3	67.924	2,3	0,29
2009	207,39	4,3	64.225	-5,4	0,32
2010	182,50	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011*	164,40	-9,9	66.898	2,2	0,25

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta EUSTATEN datuekin egina.  
(\*) Behin-behineko datuak.

mailari dagokionez egoera hau apur bat aldatu zen; horrela, Sail honen aurrekontua osokoaren %3 ingurukoa izatera iritsi da.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan betearazitako gastua, azken urteetan asko hazi ondoren, 2009an gehienekora —207,4 milioi euro— iritsi arte, %12 murriztu zen 2010ean, 182,5 milioi eurora iritsita. Gastu hori

EAEko BPGdren %0,28 izan zen, behin behineko datuen arabera. Tasa horrek ez du ia aldaketarik izan 2002tik. Gainera, 2011ko aurrekontuetan ageri diren gastuak kontuan hartuta %9,9ko jaitsiera egongo da, gaur egungo aurrekontu-murrizketen ondorioz.

Inbertsioen bolumenari dagokionez, 2010ean programa honen baitan egindakoen kopurua ere jaitsi egin da, guztira 134,2 milioi euro zenbatuz (2009ko kopuruaren aldean -%17,7). Edonola ere, programa honen inbertsio izaera mantendu egiten da, gauzatu diren inbertsioak gastuen %88,8 baitira (ratio berbera 1987-2010 aldirako). 2010ean, informazio irmoa dagoen azken urtean, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetara bideratu zen. 2010-2013 aldirako diseinatutako plan zuzentzaile horrek alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren garrantzia areagotzea eta hiri birgaitze eta berritze politika berria bultzatzea du helburu, konponbide eraginkor eta iraunkorra delakoan. Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboa sustatzea du helburu, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea arintzeko eta lurralde banaketa orekatsua lortzeko, etxebizitza-politikaren zerbitzura dauden baliabideen erabilerearen eraginkortasun handiagoa testuinguru izanik. Agiri estrategiko berriak kontuan hartzen du etxebizitza merkatuaren inguruabarrak guztiz aldatu direla: finantza-krisiak eta higiezinaren burbuilaren ezta dandak kreditua eskuratzea oso zail bihurtu dute. Horrekin batera, krisi ekonomikoak eta enpleguaren krisiak merkatua zeharo geldiarazi dute.

2010-2013ko Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailearen aurrekontu-kostua 1.193 milioi eurotik gorakoa da. Kopuru horretatik, 644 milioi 2010 eta 2013 bitartean egin beharreko jarduketek dagozkie, eta beste 549 milioi etorkizunera begira (2037ra arte) aintzat hartuko diren betebeharrei.

2010ko gauzatzei dagokionez, babestutako etxebizitzaren eraikuntzak gora egin zuen: zehazki, 4.966 etxebizitza hasi dira, 2009an baino %55,4 gehiago. Arrazoia BOEek jasandako hazkunde (+%27,8) eta gizarte etxebizitzaren (+%829,7; 846 unitate hasi da, aurreko urtean hasitako 91en aldean) izan da. Babestutako etxebizitzaren figura berriei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuen arabera, 2010ean ez zen zuzkidura-bizitokien eraikuntzarik hasi eta tasatutako 364 etxebizitza hasi ziren, horietako gehienak udaletakoak. Gainera, Sailak eraikitze lurtzoria eskuratzeko egin dituen jarduketak %58 murriztu dira: 1.248 etxebizitza

### III.4.16. Koadroa. Etxebide planaren gauzatzeak (urteko jarduketa kopurua)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Egiten hasi diren babestutako etxebizitzak	4.625	5.273	6.628	7.117	3.196	4.966
Babes ofizialeko etxebizitzak	3.830	4.828	5.302	4.793	2.939	3.756
Gizarte etxebizitzak	795	320	590	847	91	846
Zuzkidura-bizitokiak	—	125	361	997	0	0
Udal etxebizitza tasatuak	—	—	1.057	480	129	350
Etxebizitza tasatu autonomikoak	—	—	—	—	37	14
Lurtzoria eskuratzeko (etxebizitza kopurua)	3.890	3.625	5.483	3.751	2.971	1.248
Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko jarduketak	15.471	13.905	11.798	16.027	20.534	19.496
Erabilitako etxebizitza librea eskuratzeko laguntzak	645	31	11	44	22	24
Etxebizitza hutsa alokatzeko laguntzak eta alokatzeko asmoz erosteko laguntzak (Bizigune)	889	2.619	689	800	1.186	184

Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

**III.4.17. Koadroa. 2010-2013 Etxebizitza plan zuzentzailearen helburuen betetze-maila, etxebizitza motaren arabera, 2010. urtean**

Gauzatzeak etxebizitza motaren arabera	2010-13 EPZren helburua	2010Eko helburua	2010Eko gauzatzea	Betetzea (%)
Alokairua	8.100	750	952	126,9%
ZB	3.500	100	0	0,0%
Alokairuko gizarte-etxebizitza	3.700	550	795	144,5%
Alokairuko BOE itundua	900	100	157	157,0%
Salmenta	11.900	2.700	3.998	148,1%
Saltzeko BOE itundua	9.000	2.300	3.650	158,7%
Erosteke aukera barne hartzen duen alokairuko BOE	1.000	100	0	0,0%
Etxebizitza tasatu autonomikoa	400	100	14	14,0%
Udal etxebizitza tasatua	1.500	200	334	167,0
<b>Guztira</b>	<b>20.000</b>	<b>3.450</b>	<b>4.950</b>	<b>143,5%</b>

Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

**III.4.18. Koadroa. EAEko etxebizitza plan zuzentzailearen maileguak eta diru-laguntzak, helburuaren arabera**

Helburua	2009		2010	
	Etxebizitza kop.	Zenbatekoa (milaka euro)	Etxebizitza kop.	Zenbatekoa (milaka euro)
<b>Maileguak*</b>				
Sustatzailea	4.173	364.600	1.489	130.251
Babestuen eskuratzailerak	1.150	119.461	741	78.020
Erabilien eskuratzailerak	86	8.722	63	6.611
Alokatzeko eskuratzeara	166	8.238	864	34.857
Birgaitzea	690	5.028	761	6.144
Zuzkidura-bizitokiak	271	16.650	88	6.057
Lurzorua eta urbanizazioa				25.000
<b>Guztira</b>	<b>6.536</b>	<b>510.477</b>	<b>4.006</b>	<b>286.940</b>
<b>Diru-laguntzak**</b>				
Eskuratzailerak	22	49	24	80
Birgaitzea	20.534	22.440	19.496	20.647
<b>Guztira</b>	<b>20.556</b>	<b>22.489</b>	<b>19.520</b>	<b>20.727</b>
<b>Batura diru-lag.+Maileguak</b>	<b>27.092</b>	<b>532.966</b>	<b>23.526</b>	<b>307.667</b>

\* Egindako maileguak (subrogatuak + subrogatu gabeak)

\*\* Diru-laguntzak: Ebazpen guztiak.


Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

berri eraikitzeke lurzorua eskuratu da (2009an baino 1.723 gutxiago).

Eskaria eta eskaintza pizteko mailegu eta diru-laguntza gisa ematen diren laguntzei dagokienez, 2010ean laguntzen zenbateko osoan %42,3ko jaitsiera antzematen da, batez ere maileguetarako erabiltzen diren fondoak murriztu direlako (-%43,8) eta, neurri txikiagoan, diru-laguntzak ere murriztu direlako (%7,8 jaitsi dira). Guztira, emandako 308 milioi euroak honela banatu dira: 287 milioi maileguetarako (%93) eta 21 milioi diru-laguntzetarako (gainerako %7). Lehenik eta behin, azken urtean emandako maileguen kopurua %38,7 murriztu da (6.536tik 4.006ra jaitsi da jarduketeki edo etxebizitzetarako dagokienez). Haien batez besteko zenbatekoa, 71.628 euro, %8,3 jaitsi da. Bestalde, diru-laguntzak %5 jaitsi dira espediente kopuruan, eta esan dugu dagoeneko zenbateko osoa %7,8 jaitsi dela. Batez besteko diru-laguntza 1.062 € da, 2009an baino 32 gutxiago.


**4.4.2. Foru aldundien etxebizitza politika**

Eusko Jaurlaritzak garatzen duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea,

**III.4.12. Grafikoa. PFEZko etxebizitzagatiko kenkariaren zenbatekoaren bilakaera eta kenkari guztien gainean duen pisua**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Zergak Koordinatzeko Organoa.

### III.4.13. Grafikoa. PFEZko kenkarien ehuneko banaketa, errenta-tarteen arabera\*. EAE, 2008



Iturria: ZERGA KOORDINATZEKO ORGANOA. 2009ko Urteko Txostena.

\* Kenkarien banaketa: familiarenak eta norberarenak, ohiko etxebizitzarenak eta mezenasgoarenak, kontuan hartu gabe kenkari orokorra eta jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkaria.

Foru Aldundiek etxebizitza gaitan esku hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun daturik berrienak 2008ko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinazioko Organoaren 2009ko "Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua" da.

Hiru Foru Aldundien PFEZko likidazioetan oinarrituta, ondorioztatzen da ohiko etxebizitzaren kenkarien zenbatekoa (alokairua eta inbertsioa), kuantitatiboki

lehenengo kenkaria izan zirenak (kenkari guztien %17,4), 2008an 525,7 milioi euro izan zirela guztira, aurreko urtean baino %2,4 gutxiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Programak urte horretan burututako gastu osoaren (199,81 milioi euro) %264 da, aurreko atalean ikusi dugunez.

Kenkari horiek pisu handiagoa daukate (likidazio-oinarria) 42.000 eta 54.000 euro arteko errentetan; haietan kenkarien zenbateko osoaren %26 dira batez beste (gehienekoa, %26,2, oinarriko 44.400 eta 46.800 €-ren artean dago), eta gero apurka jaisten dira errenta mailak gora egin ahala: %24,3 66.000 euroekin, eta portzentaje txikiagoak errenta maila handiagoetan.

Lurraldez lurralde, kenkari guztien %22,1 izan zen Araban, %17,2 Bizkaian eta %15,5 Gipuzkoan.

### 4.4.3. Udal etxebizitza politika

EAEko Memoria sozioekonomikoaren edizio honetan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2011n Etxebizitzaren Lege Aurreproiektuaren Memoria Ekonomikoa egin zuela baliatuta, EAEko udalerriek etxebizitzan eta hirigintzan egin dituzten gastu eta inbertsioen kopuru nagusiei buruzko azterketa daukagu, 2008ko eta 2009ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioetatik eta 2010eko udal aurrekontuetatik datozen datuekin.

Lehenengoz, datuek erakusten dute 2009an udalek etxebizitzan eta hirigintzan egindako gastua 595 milioi eurokoa izan zela. Hori, udal aurrekontuaren likidazio osoaren %16 da. Zenbateko horrek hazkunde nabarmena agerian jartzen du aurreko urteko gastuarekin alderatuta (+%20); hala ere, gastuaren likidazio osoarekin alderatuta, antzeko mailan dago (%15,2 2008an).


2010eko aurrekontua kontuan hartuta, Udalen etxebizitza-funtzioari dagokion gastuak nabarmen

### III.4.19. Koadroa. Udalen etxebizitza eta hirigintzako inbertsioaren bilakaera, 2008-2010

	2008ko likidazioa		2009ko likidazioa		2010eko aurrekontua	
	Gastua biztanle bakoitzeko (€)	Gastu osoaren gaineko %	Gastua biztanle bakoitzeko (€)	Gastu osoaren gaineko %	Gastua biztanle bakoitzeko (€)	Gastu osoaren gaineko %
Araba	185,2	11,7	202,1	11,0	178,9	10,9
Vitoria-Gasteiz	171,0	10,9	189,8	10,2	159,9	9,7
Amurrio	124,8	8,7	135,2	8,3	205,1	13,1
Iruña Oka	632,8	34,0	598,7	29,6	195,6	14,8
Laudio	232,5	14,3	254,4	14,2	159,7	12,8
Oion	730,6	43,9	505,7	37,1	422,0	32,2
Agurain	170,1	10,0	122,7	6,4	385,8	15,3
Bizkaia	224,5	15,4	266,9	16,2	167,6	12,8
Bilbo	189,5	12,1	246,1	13,8	153,4	10,8
Barakaldo	100,0	8,5	126,7	9,1	78,3	7,1
Galdakao	650,2	41,5	868,1	43,0	180,7	17,6
Gernika	687,7	39,9	432,7	29,9	285,0	23,5
Portugalete	285,4	25,4	390,6	30,2	187,0	18,3
Santurtzi	157,1	13,9	236,3	18,9	146,7	11,0
Gipuzkoa	252,8	16,6	318,8	17,9	190,4	12,8
Donostia	306,5	17,2	312,2	15,2	187,8	10,9
Arrasate	231,2	14,6	441,1	22,5	113,5	7,3
Eibar	68,1	5,0	80,4	5,5	101,5	8,1
Errenteria	268,0	21,7	296,5	22,8	330,7	24,2
Irun	142,6	11,2	137,2	8,9	99,1	8,5
Zarautz	578,4	37,1	804,9	43,9	312,3	22,5
EAEko udalerriak guztira	227,9	15,2	274,2	16,0	176,6	12,5

Iturria: Etxebizitza Sailak EUSTAten datuekin landutakoa.

### III.4.14. Grafikoa. Udalen etxebizitza eta hirigintzako batez besteko gastuaren eta inbertsioaren bilakaera, biztanle bakoitzeko



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritzia.

egin du behera, 383 milioi eurora arte (-%35,6). Aurrekontu-murrizketak aurrekontu orokorretan ere azaldu diren arren, esan behar da jaitsiera etxebizitza-funtzioan handiagoa izan dela, aurrekontu osoaren %12,5 izan baita, aurreko ekitaldiko %16aren aldean.

Lurraldez lurralde, eta 2009ko datuak azterketaren ardatz hartuta, guztien %52 Bizkaiko udalerriei dagokie (307 milioi €), %37 Gipuzkoakoei (223 milioi) eta %11 Arabakoei (64 milioi). Beste alde batetik, Araban etxebizitza eta hirigintzako udal gastu eta inbertsioen %70 Vitoria-Gasteizen biltzen da. Hala ere, bai Bizkaiari, bai Gipuzkoari, udal gastuaren banaketa handiagoa dagokie.

Hain zuzen ere, Bilbok du Lurraldeko etxebizitzako gastuaren %28, eta Donostiak Gipuzkoako udal gastuaren %25.

Udalerriz udalerriz diferentzia handiak ageri dira etxebizitzako gastuak udal gastu osoan duen zatian dagokionez, kontuan hartuta bakoitzaren beharrian eta aurrekontuak. Horrela, udalerriz batzuek 2009ko ekitaldiko udal gastuaren %50 baino gehiago erabili dute etxebizitza eta hirigintzako inbertsioetarako, eta beste batzuek, aldiz, ez dute erabili ezta gastuaren aurrekontu osoaren %10 ere.

Hiriburuei dagokienez, Vitoria-Gasteizek gastu osoaren %10,2 erabili du etxebizitza eta hirigintzarako, Bilbok %13,8 eta Donostiak %15,2. 2009an aurrekontuarekin alderatuta etxebizitza eta hirigintzako gastu eta inbertsio handia izan duten udalerrietako batzuk honako hauek izan dira: Oion (%37) eta Iruña Oka (%30) Araban, Galdakao (%43) eta Portugalete (30%) Bizkaian, eta Zarautz (%44) eta Errenteria (%23) Gipuzkoan.

Biztanle bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEko udalerrien multzorako batez bestekoa 2009an 274 € izan zen, (biztanle bakoitzeko 228 € 2008an). Hala ere, Gipuzkoako udalerrietan biztanle bakoitzeko gastu erlatibo handiagoa egon dela egiaztatu da (biztanle bakoitzeko 319 €), atzetik Bizkaiko udalerririk doazela (biztanle bakoitzeko 267 €), eta azkenik Arabakoak (biztanle bakoitzeko 202 €).

Hiru Lurralde Historikoetan biztanle bakoitzeko etxebizitza eta hirigintzako batez besteko gastua aztertuz ondorioztatzen da 2009an hazkunde nabarmena egon dela, bereziki Gipuzkoako Udaletan. 2010eko aurrekontuen informazioa kontuan hartuta, murrizketa handia da, batez besteko gastua biztanle bakoitzeko 190 € baita Gipuzkoan (-%40 2009arekin alderatuta), biztanle bakoitzeko 179 € Arabako udalerrietan (-%11) eta biztanle bakoitzeko 168 € Bizkaiko udalerrietan (-%36).

# 5. Aisia eta kultura

## 5.1. EAEko biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran

### 5.1.1. Komunikabideen eragina

AIMCK (Hedabideen Ikerkuntzarako Elkarte) «Hedabideen Esparru Orokorra Espainian» izenarekin 2010. urteari buruz egindako txostenean bildu dituen datuen arabera, hedabideen barneratzeak<sup>1</sup> EAEn joera ezberdina ageri du egunkarien eta egunkarietako eranskinen eta gainerako hedabideen artean, lehenengo kontsumoa gutxitu eta besteena handitu egin baita.

Hori horrela, 2011n, telebistaren sarrera % 92,2ra iritsi zen, estatuko % 88,5eko portzentajearen gainetik eta ehuneko 2,4 puntu jaitsiz aurreko urtearen aldean. Irratiak % 67,9 erregistratu du, estatuko % 58,5eko batez bestekoaren gainetik eta 7,7 puntu beherantz eginez aurreko urtearekiko. Egunkarien sarrera biztanleriaren % 49,4koa da, estatuko batez bestekoa baino portzentaje altuagoa (% 37,4) eta ehuneko 2,4 puntu gutxiago aurreko urteko ratioaren aldean. Aldizkariak % 49,7 hartzen dute, estatuko ratioaren azpitik ehuneko 0,8 puntu eta aurreko aldiaren baino % 2,7 gehiago. Eranskinak sarrera murriztu dute, % 43,2tik 39,5era, eta estatuko % 18,2ko batez bestekoaren oso gainetik kokatu dira.

Internetek, beste urte batez, lekua irabazten jarraitu du; izan ere, sarrera-ratioa % 56,2tik % 57,1era igo du (azken 30 eguneko erabilera). Zinemaren sarrera % 2,7tik 2,8ra igo da (zinemara astean behin doazen pertsonak), Estatuan ez bezala, bertan % 3,9tik 3,4ra jaitsi baita. Hala ere, gainerako hedabideak ez bezala, zinemaren sarrera-ratioa oraindik ere handiagoa da Estatuan EAEn baino.

Parametro guztietatik, 2011. urtean 2010. urtean baino emaitza handiagoa izan duena publizitate-jarraipenarena da, % 58,3tik % 69,9ra igaro baita; hala, ehuneko 11,6 puntu hazi da, Estatuan hazi denaren halako bi (+5,5 puntu).

### 5.1.2. Biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran: Aisia

EUSTATEN denbora aurrekontuei buruzko Inkestako azken datuek, 2008ari buruzkoek, erakutsi dute 2003. urtearekin alderatuta, EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleek denbora gehiago erabiltzen dutela aisialdirako eta beste pertsona batzuen zaintzarako eta gutxiago gizarte bizitzarako eta behar fisiologikoak eta zaintza pertsonalak betetzeko. Lanari edota prestakuntzari, etxeko lanei eta joan-etorriari eskainitako denbora antzekoa da.

Aipatutako inkestan aintzat hartu diren jardueren artean aisialdia sartzeko, bai aisialdi aktiboa, bai pasiboa. Aisialdi aktiboaren barruan kirol praktikak, paseoak

eta txangoak, ordenagailuaren eta beste ekipamendu informatiko batzuen erabilera nahiz Interneten erabilera sartzeko dira. Aisialdi pasiboa gisa hedapen eta informazio bideak (irakurketa, telebista ikustea eta irratia entzutea), ezer ez egitea, emankizunetara joatea, jolasak eta arte zaletasunak kokatzen dira.

Datuek agerian uzten dutenaren arabera, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleriak 23 minutu gehiago eskaini zizkion 2008. urtean 2003. urtean baino (4 ordu eta 19 minutu, 3 ordu eta 56 minuturen aldean). Gainera, aisialdi pasiboa nahiago dute, aktiboa baino: 2008. urteko datuek erakutsi dute lehenengoari, egunero, 2 ordu eta 58 minutu eskaintzen zaizkiola batez beste, aisialdi aktiboak hartzen dituen ordubate eta hogeita bat minutuen aldean<sup>2</sup>.

Gizonen eta emakumeen arteko portaera argiro desberdina da kapitulu jakin batzuetan; hala, lanean eta prestakuntzan, gizonak 14 minutu gutxiago ematen dute 2008an 2003an baino, eta emakumeen kasuan, kontrako gertatzen da, 14 minutu gehiago aritzen baitira. Etxeko lanen atalean, gizonak eskaintzen dioten denbora 9 minutu igo da, eta emakumeen kasuan 6 minutu gutxitu da. Gauza bera gertatzen da aisialdi aktiboari eta kirolei eskaintzen dioten denborari dagokionez: Gizonak 2003an baino 11 minutu gehiago eskaintzen diote, eta emakumeek 3 minutu gutxiago.

### 5.1.3. Biztanleriaren kultur ohiturak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Behatokiak egindako eta 2011n argitaratutako «Kultura ohitura, jarduerak eta kontsumoari buruzko Inkesta» lanaren emaitzak kontuan hartuta, gure erkidegoko biztanleen kontsumo kulturala deskriba dezakegu. Lehenik eta behin, inkestak erakusten du euskal biztanleen artean kultur ohiturarik zabalduenak musika grabatua entzutea eta irakurtzea direla. Inkestatutako pertsonen % 77,9k entzun zuten musika azken urtean, eta ia 10etik 7k irakurri zuten aisialdiari loturiko libururen bat.

Esparruren batera joatea eskatzen duten kultur jarduerak ehuneko nabarmen txikiagoak dituzte. Hala, % 54,1 zinemara joan ziren azken urtean, % 29,1ek museoren bat bisitatu zuten eta % 30,2k liburutegiren bat. Azkenik, jende gehien bildu duten zuzeneko ikuskizunak musika-kontzertuak izan dira (% 37,7), ondoren antzerkia (% 21,8); jende gutxien bildu dutenak dantza eta opera izan dira (% 9,3 eta % 7,6 bildu dute, hurrenez hurren).

Inkesta honek konparazio bat egiten du Espainiako eta Europako kultur ohiturekin, Eurostaten eta Kultura Ministerioaren informazioa oinarritzat hartuta, baina ohartarazten du zuhurtziaz irakurri behar dela informazio hori, desberdintasun metodologikoak dituzte gero.

<sup>1</sup> Hedabide jakin bat erabili duten biztanleen ehuneko da. Hedabidearen arabera, irakurle guztiak, teleikusle guztiak, entzule guztiak edo internauta guztiak izango dira.

<sup>2</sup> Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan aisialdiaren inguruan datozen emaitzei buruzko informazio gehiagorako, Memoria Sozioekonomiko honen 2009ko ediziora igortzen dugu irakurlea.



## III.5.1. Koadroa. Komunikabideen sarrera autonomia erkidegoaren arabera (% horiz.)

	> 14 Biztan. (Milakoetan)			Egunkariak			Eranskinak			Aldizkariak		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011
EAE	1.869	1.872	1.868	56,6	51,8	49,4	50,6	43,2	39,5	50,2	46,7	49,7
Estatua guztira	39.462	39.435	39.485	39,8	38,0	37,4	21,9	19,2	18,2	51,3	50,4	48,9
Andaluzia	6.929	6.932	6.973	30,5	28,1	27,8	11,2	9,3	8,4	41,2	40,8	40,5
Aragoi	1.151	1.155	1.150	44,3	42,3	45,7	31,5	27,0	29,2	53,0	52,9	57,2
Asturias	957	953	949	55,7	54,3	53,8	30,1	29,9	26,1	52,5	53,5	43,0
Balearrak	918	918	924	46,7	46,3	43,2	24,7	20,0	19,8	52,5	50,4	41,8
Kanariak	1.796	1.788	1.797	36,5	33,9	33,3	17,0	15,9	14,1	52,2	55,8	55,0
Kantabria	508	5,9	509	46,8	47,5	42,9	35,2	30,8	26,0	49,1	36,9	39,2
G. eta leon	2.236	2.232	2.214	43,2	40,5	40,2	27,5	25,7	25,3	56,2	56,4	55,6
G.-Mantxa	1.740	1.758	1.760	27,2	25,5	25,2	11,9	10,4	11,1	46,7	49,6	46,5
Katalunia	6.246	6.233	6.228	43,6	42,4	42,2	22,8	15,9	18,0	58,8	53,8	51,2
Valentziako E.	4.314	4.310	4.287	31,0	30,6	30,1	15,7	15,8	13,1	50,4	51,7	47,9
Extremadura	935	935	937	31,9	30,9	29,8	14,0	13,0	12,5	46,3	43,5	38,3
Galizia	2.447	2.442	2.436	48,4	46,4	48,1	30,8	27,9	28,3	51,2	49,6	52,3
Madril	5.407	5.375	5.421	43,7	43,1	39,9	22,0	20,9	17,9	56,0	57,8	52,9
Murtzia	1.210	1.216	1.226	32,3	27,0	29,1	16,1	15,3	14,2	49,0	48,9	49,6
Nafarroa	526	531	533	57,8	54,4	57,4	46,2	45,0	41,7	52,3	41,1	52,3
Errioxa	274	275	271	52,9	44,9	49,8	42,8	37,7	29,7	57,3	54,1	54,9

	Irratia (*)			Telebista (*)			Zinea (**)			Internet (***)			Ikusitako publizitatea aurreko egunean		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011
EAE	62,5	60,2	67,9	92,3	89,8	92,2	2,4	2,7	2,8	37,1	56,2	57,1	74,9	58,3	69,9
Estatua guztira	55,3	56,9	58,5	89,0	87,9	88,5	4,3	3,9	3,4	34,3	53,0	60,4	52,9	51,6	57,1
Andaluzia	52,6	53,2	56,1	89,4	87,8	87,8	2,9	2,9	2,2	29,8	48,5	54,3	42,8	43,9	49,0
Aragoi	58,8	59,3	60,3	91,3	90,9	88,6	3,8	3,8	1,8	36,2	54,7	58,9	41,2	46,2	55,3
Asturias	57,5	58,8	57,6	89,4	88,6	88,8	2,6	3,0	4,1	34,5	53,7	50,7	66,2	54,2	48,8
Balearrak	53,3	56,0	58,5	86,3	84,5	85,2	6,8	7,0	7,6	31,4	60,2	56,1	45,4	39,1	45,5
Kanariak	54,0	55,9	55,8	87,8	85,9	86,5	4,3	4,5	4,4	38,6	56,7	59,3	55,8	59,3	59,0
Kantabria	58,4	59,1	60,8	90,8	89,6	92,4	0,0	0,7		30,5	56,3	54,3	66,6	59,0	74,9
G. eta leon	57,1	61,4	61,3	91,1	89,0	91,6	3,9	2,7	3,6	30,5	45,4	47,9	43,2	44,5	56,6
G.-Mantxa	51,6	53,3	55,1	89,1	87,0	88,9	3,9	3,4	2,6	27,9	45,0	52,1	38,0	42,4	52,0
Katalunia	56,1	57,8	59,7	87,0	85,7	87,2	5,7	4,7	3,6	40,0	59,4	65,4	52,2	50,1	56,2
Valentziako E.	52,0	55,2	56,4	89,8	89,3	89,2	5,3	5,8	4,3	32,6	52,1	56,2	62,2	57,8	57,7
Extremadura	52,2	53,0	51,9	92,2	93,0	89,6	2,9	2,9	3,1	26,4	45,9	46,9	33,3	38,2	43,1
Galizia	54,4	57,7	58,9	87,1	87,1	88,4	5,2	3,5	3,0	27,8	44,3	49,6	41,6	35,4	43,9
Madril	59,0	60,0	61,4	88,1	88,2	87,9	4,4	4,4	3,8	42,4	60,3	62,7	64,0	62,0	69,9
Murtzia	50,4	54,2	54,0	89,7	87,3	89,2	5,1	3,2	4,2	24,5	43,9	51,6	68,1	78,4	77,0
Nafarroa	61,3	58,3	59,4	90,4	89,0	90,4	5,1	5,1	2,3	35,3	52,4	59,2	55,3	67,5	61,8
Errioxa	65,4	62,6	56,7	85,4	90,3	88,3	7,9	1,8	5,2	40,5	60,9	52,8	58,7	75,7	67,1

(\*) Egunean pilotutako entzuleak,

(\*\*) Astean behin gutxienez,

(\*\*\*) Azken 30 egunetako erabilera. Biztanleria milaka pertsonatan.

Iturria: AIMC, Hedabideen esparru orokorra, zenbait urte.

## III.5.2. Koadroa. Batez besteko gizarte denbora, aisialdiko jardura motak eta sexua. EAE

	1998			2003			2008		
	GUZTIRA	Giz.	Emak.	GUZTIRA	Giz.	Emak.	GUZTIRA	Giz.	Emak.
Kirol praktikak	0,09	0,13	0,06	0,1	0,13	0,07	0,12	0,18	0,07
Paseoak, txangoak	1,03	1,1	0,57	1	1,04	0,57	0,55	1,02	0,49
Ordenagailuaren eta informatikako beste tresna batzuen erabilera	0	0	0	0,03	0,04	0,02	0,03	0,05	0,02
Interneten erabilera	0	0	0	0,04	0,06	0,02	0,1	0,14	0,07
Aisialdi aktiboa eta kirolak guztira	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Irakurketa, telebista eta irrata	2,26	2,31	2,21	2,05	2,11	2	2,38	2,48	2,28
Jarduerarik gabe	0,09	0,08	0,09	0,19	0,16	0,21	0,07	0,06	0,08
Emankizunak	0,05	0,05	0,04	0,05	0,06	0,05	0,04	0,04	0,03
Jokoak	0,14	0,18	0,1	0,08	0,1	0,05	0,07	0,09	0,06
Zaletasun artistikoak eta bestelakoak	0	0	0	0,02	0,03	0,01	0,02	0,02	0,02
Aisialdi pasiboa guztira	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
Aisialdia guztira	4,06			3,56			4,19		

Unitatea: Biztanleriak jardura baterako erabiltzen duen batez besteko denbora &gt;= 16 (ordu eta minutu eguneko).


Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta.

### III.5.3. Koadroa. Batez besteko gizarte denbora eguneko, jarduerako, lurraldeko, aldiko eta sexuko. EAE

	1998			2003			2008		
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
Behar fisiologikoak	11,34	11,3	11,37	11,5	11,51	11,48	11,41	11,43	11,38
Lana eta prestakuntza	3,21	4,16	2,26	3,23	4,14	2,35	3,23	3,6	2,49
Etxeko lanak	2,25	1,1	3,37	2,23	1,1	3,31	2,24	1,19	3,25
Zaintzak etxeko pertsonei	0,2	0,14	0,26	0,21	0,12	0,29	0,28	0,19	0,36
Gizarte bizitza	1,03	1,08	0,58	0,58	1,04	0,52	0,38	0,41	0,36
Aisialdi aktiboa eta kirolak	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Aisialdi pasiboa	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
Joan-etorriak	1,1	1,15	1,05	1,08	1,14	1,03	1,06	1,09	1,03

Unitatea: biztanleriak jarduerara baterako erabiltzen duen batez besteko denbora >= 16 (ordu eta minutu eguneko, kontuan hartu minutuak batzerakoan)  
Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta.

### III.5.1. Grafikoa. EAEko biztanleen kultur ohiturak. Datuak ehunekotan. 2008



Iturria: Kulturaren euskal behatokia.  
Estatistikak - Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa 2008.  
\* Biztanle elebidunei soilik egin zaie kontsulta.

Hurbilketa gisa hartuta eta 2007rako datuekin, konparazio horrek lehenik eta behin erakusten digu liburuen irakurketak aldeko emaitzak dituela EAERako (% 73,1), hala Europarekin nola gainerako Estatuarekin konparatuz. EAE Europako batez bestekotik zertxobait gorago dago liburuen irakurketan (ratioa % 71koa da); desberdintasun hori nabarmen areagotzen da Espainiako biztanleriarekin alderatuz (biztanleen % 57,7).

Gure erkidegoa Europako eta Espainiako batez bestekoetatik gora dago zinemara joateari dagokionez ere, nahiz eta desberdintasunak ez oso handiak izan; antzerkiari dagokionez, zaletasun handiagoa dago Europan (aldaera horretan, EAE zertxobait gorago dago Espainiako balioa baino, biak Europako batez bestekotik behera); gauza bera gertatzen da liburutegietara joateari dagokionez ere.


Kontzertuetara joateari dagokionez, EAEko datuak Europakoak baino handiagoak dira, eta batez ere Estatuakoak baino handiagoak.

## 5.2. Kultura eta aisialdi jardueren eskaintza EAEn

### 5.2.1. Kultura ekipamenduetan izandako bisitari kopurua

EAE derrigorrean bisitatu behar den tokietako bat bihurtzen ari da nazioarteko testuinguruan, hain zuzen ere dituen kultura ekipamenduen kopuru eta aniztasunagatik. Ekipamendu horiek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren adierazpen-eskaintza

### III.5.2. Grafikoa. Kultur ohituraren adierazlearen konparazioa 2007



Iturria: Kulturaren euskal behatokia.  
Estatistikak - Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa 2008

## III.5.4. Koadroa. Bisitariak kultura ekipamenduetara bertaratzearen bilakaera EAEn

	2006	2007	2008	2009	2010	Haz. %08/09	Haz. %09/10
Arabako Arte Ederren Museoa	32.568	14.513	13.443	15.917	14.737	18,4	-7,4
Artium	97.106	99.500	104.197	105.232	101.115	1,0	-3,9
Eliz Museoa	37.141	37.034	32.951		35.284		
Arabako Arkeologia Museoa	23.843	15.961	8.791	61.406	47.185	598,5	-23,2
Karten Fournier Museoa	39.794	20.585	20.585				
Santa Maria Katedralaren Fundazioa	98.790	103.258	100.967	105.086	108.133	4,1	2,9
Arkeologia Museoa				10.594	7.861		-25,5
Arrantzalearen Museoa	21.896	15.105	13.610	15.900	12.823	16,8	-19,4
Bilboko Arte Ederren Museoa	144.085	164.903	223.197	207.978	191.962	-6,8	-7,7
Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa	70.124	73.455	48.242	61.502	28.545	27,5	-53,6
El Pobaleko Burdinola	13.238	13.921	15.060	15.244	12.718	1,2	-16,6
Euskal Herria Museoa	12.269	10.057	9.612	8.695	14.570	-9,5	67,6
Bilboko Euskal Museoa	54.280	37.996	60.909	45.462	42.576	-25,4	-6,3
Gernikako Bakearen Museoa	25.560	35.111	24.755	26.057	26.948	5,3	3,4
Guggenheim Museoa	1.008.774	1.002.963	951.368	905.048	958.173	-4,9	5,9
Santimamiñe koba			8.816	11.460	11.140	30,0	-2,8
Agorregiko burdinola eta errotak	14.510	12.447	13.788	10.518	9.613	-23,7	-8,6
Chillida Leku Museoa	83.718	78.532	61.854	60.105		-2,8	
Donostiako Aquariuma	300.256	270.098	277.285	310.541	301.771	12,0	-2,8
Igartubeti baserria	6.148	5.765	7.176	9.665	6.999	34,7	-27,6
Burdin Harana	20.522	23.979	20.718	16.497	13.240	-20,4	-19,7
San Telmo Museoa	49.179	12.717	94.391	98.973	104.637	4,9	5,7
Burdinbidearen Euskal Museoa	40.857	14.813	36.175	37.980	38.198	5,0	0,6
Itsas Museoa	10.516	9.365	13.838	11.721	10.595	-15,3	-9,6
Zientziaren Kutxa Espazioa	127.344	117.750	112.734	138.264	134.079	22,6	-3,0
Zumalakarregi Museoa	9.117	17.298	5.482	10.317	2.975	88,2	-71,2

Iturria: BASQUETOURL, Euskal turismo agentzia, Eusko Jaurlaritzaz.

askotarikoaren bitartez gauzatzen dira, bai eta museo, liburutegi eta artxibo aniztasunaren eta aberastasunaren bitartez ere.

Adierazle gisa museo jarduerari hartuz eta, zehazki, Lurralde Historikoetako museo nagusietako bisitari kopurua, ikus daiteke Guggenheim Bilbao Museoa dela oraindik erakargarritasun puntu nagusia, 2010. urtean edukitako 958.173 bisitariekin (urte hori da informazioa eskura duen azken urtea), aurreko urtean baino % 5,9 gehiago, bi ekitalditan bisitari kopuruetan beherakada txiki batzuk izan ostean.

Bigarren taldea, berriz ere, Donostiako Aquariumak, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Donostiako Zientziaren Kutxa Espazioak osatu zuten. Lehenak 301.771 bisitari izan zituen, aurreko urtean izandako bisitari kopurua baino zertxobait gutxiago (-% 2,8), hainbat urtean igoera jarraitua izan ostean.

Bisitarien bolumen aldetik, Bilboko Arte Ederren Museoa jarraitzen dio, 191.962 bisitarirekin (-% 7,7 2009arekiko), eta, ondoren, Zientziaren Kutxaguneak; hain zuzen, beherantz egin du bisitari kopuruan, 2009an 138.264 bisitari izatetik 2010ean 134.079 bisitari (-% 3) izatera igaro baita, aurreko urtean % 22,6 ere igo ondoren.

Hirugarren multzoan, Artium eta Santa Maria Katedrala Fundazioa daude Vitoria-Gasteizen, eta San Telmo museoa Donostian. Kultur ekipamendu horiek, 2010. urtean, hurrenez hurren 101.115 (-% 3,9 aurreko urtearekiko), 108.133 (+% 2,9) eta 104.637 (+% 5,7) bisitari erakarri dituzte.

## 5.2.2. Biltzar eta azoka jarduerari

**Biltzarren jarduerari**

EAEn, 2009 eta 2010. urteen artean egondako biltzarren jarduerak, BASQUETOURL Eusko Jaurlaritzaren Turismoaren Euskal Agentziak emandako datuen arabera, bilakaera positiboa eduki du Lurralde Historiko guztietan. Bilera kopurua % 7 igo da Bizkaian, % 0,9 Araban eta are % 85 Gipuzkoan (hala ere, kontuan hartu behar da, iaz Araban gertatu bezala, lehenago zenbatzen ez ziren eta "bestelakoak" epigrafean jasotzen diren beste ekitaldi batzuk zenbatu direla). Hori horrela, 1.092 bilera egin ziren Bizkaian (2009. urtean baino 71 gehiago), 347 Araban (aurreko ekitaldian baino 3 gutxiago) eta 124 bilera Gipuzkoan (2009an baino 57 gutxiago).

Gipuzkoan, bertaratuen guztizko kopurua % 600 areagotu da aurreko urtearekin alderatuz, 24.977tik 174.551ra igaro baita. Jarduerari dagokionez, berriro ere nagusi izan dira ekonomia eta merkataritza arloko bilerak (% 22,6), medikuntza eta osasun arlokoak (% 20,9) eta teknologiararen sektorekoak (guztizkoaren % 20,2).

Bizkaian egindakoetatik —lurralde horrek buru izaten jarraitzen du—, bilera gehienak (% 81,5) jardunaldi, mintegi eta simposiumak izan dira (890). Bertaratutako ordezkariak guztira 177.976 izan dira, hots, 2009an baino % 13,4 gehiago eta ekitaldiko ordezkarien ratioa 163koa izan da (aurreko urtean baino 9 ordezkari gehiago ekitaldiko). Bileren jarduerari dagokionez, mediku-osasuneko sektorekoak nabarmendu dira (guztien %23,4), eta haien atzean teknologia sektorea (%22,5).

## III.5.5. Koadroa. EAE-ko biltzarren jardueraren bilakaera (2007-2010)

	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa*				Estatua 2009
	2007	2008	2009	2010	2007	2008	2009	2010	2007	2008	2009	2010	
Guztira bilerak	53	349	344	347	1007	981	1.021	1.092	117	84	67	124	22.266
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	25	47	20	27	768	712	801	890	48	22	5	26	12.382
Biltzarrak	23	80	66	23	94	93	116	99	56	51	55	70	3.091
Konbentzioak	2	1	5	3	145	176	104	103	13	11	7	8	6.793
Beste batzuk	3	222	253	294								20	
<b>Ordezkarik guztira</b>	<b>8.745</b>	<b>51.762</b>	<b>154.825</b>	<b>81.273</b>	<b>185.035</b>	<b>192.110</b>	<b>156.981</b>	<b>177.976</b>	<b>27.169</b>	<b>20.143</b>	<b>24.977</b>	<b>174.551</b>	<b>3.464.241</b>
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	3.695	5.133	3.590	3.368	117.922	106.921	99.421	125.013	8.064	3.487	632	4.766	1.491.377
Biltzarrak	4.570	21.542	8.810	5.655	26.856	42.873	26.293	25.607	16.958	13.395	23.450	20.542	1.171.713
Konbentzioak	480	55	908	570	40.257	42.316	31.267	27.356	2.147	3.261	895	1.400	801.151
Beste batzuk	—	25.087	141.517	71.680								147.843	
<b>Ordezkarik/emankizuna</b>	<b>166</b>	<b>148</b>	<b>450</b>	<b>234</b>	<b>184</b>	<b>196</b>	<b>154</b>	<b>163</b>	<b>232</b>	<b>240</b>	<b>373</b>	<b>1.408</b>	<b>156</b>
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	148	109	180	125	154	150	124	140	168	159	126	183	120
Biltzarrak	199	269	133	246	286	461	227	259	303	263	426	293	379
Konbentzioak	240	55	182	190	278	240	301	266	165	296	128	175	117
Bestelakoak		113	559	244									
<b>Jarduera (%)</b>													
Mediku-osasunekoak	ez dago daturik				20,0	19,8	25,7	23,4	28,0	26,2	29,9	20,9	
Zientziaren sektorea					6,0	0,0	0,0	0,0	10,0	8,3	9,0	9,7	
Kulturaren sektorea					12,0	17	14,1	11,7	7,0	7,2	4,5	3,2	
Ekon-merkataritza sektorea					17,0	19,4	11,4	10,1	30,0	22,6	9,0	22,6	
Sektore publikoa					8,0	9,7	10,4	10,1	5,0	4,8	9,0	9,7	
Sektore teknologikoa					28,0	21,6	24,8	22,5	10,0	15,5	23,9	20,2	
Unibertsitatea					6,0	5,3	7,1	6,8	8,0	11,9	4,5	3,2	
Beste batzuk					3,0	7,2	6,5	15,5	2,0	3,6	10,5	10,5	

\* Emankizun tipologiaren arabera bildu diren Gipuzkoako datuak SPAIN CONVENTION BUREAUk ezarritako irizpideak zorrozki jarraituz bildu dira. Iturria: BASQUETOURL, Euskal turismo agentzia, Eusko Jaurlaritza.


Azkenik, Araban guztira 347 egin ziren (kongresuen beharakada itzela nabarmentzen da, 2009arekin alderatuz % 65 egin baitute behera eta 2008arekin alderatuz % 71). Bilera horietara guztira 81.273 ordezkarik bildu dira (2009. urtean baino % 47,5 gutxiago, urte oso positiboa izan baitzen) eta ekitaldiko ordezkarik bateguz bestekoa 234koa izan da.

### Azoken jarduera

Merkataritzako azokak eta erakusketak azken urteotan indar gehien edukitzen ari den sustapen elementuetako bat dira. Ekonomia orokorraren ikuspuntutik, jarduera ekonomikoaren sortzailetzat jo dira; izan ere, produktuak barreiatu eta saltzea erraztu dute, garapen teknikoak suspertu eta nabarmendu dute, eta irudi nazionala eta nazioartekoa hobetzen duten lankidetzako sinboloak ere badira. Enpresen ikuspegitik aukera paregabea dira; izan ere, azoken saio batean erakusmahaiak eta bisitariek zuzenean eta bitartekaririk gabe irudikatzen dute edozein merkataritza sektoreko eskaintza eta eskaria.

Azokek enpresei ematen dizkieten zerbitzuak, erakusteko eta kontratazioa sustatzeko duten gaitasunagatik, eskari garrantzitsu bat ari dira sortzen, eta, eskari horri erantzuteko, inbertsio handiak ari dira egiten azoketan eta horrelako saioen garapenean. Horiek jarduera ekonomikoak sustatu eta bultzatzeko politikaren zati bihurtzen ari dira. Ondorioz, ia ez dago hiriburu garrantzitsurik erakusmahaien erakargarritasun aukerengatik eta hirigintzaren eta teknologiararen aldetik gorentasuna emateagatik nazioartean

### III.5.3. Grafikoa. BEC. Bisitarien bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta BEC.

erreferentziako puntu bihurtu daitekeen azoka esparrurik gabe. Tradizio gehienekoak, adibidez Hannoverrekoa, Birminghamekoa, Milangoa, Madrilgoa, Bartzelonakoa eta Bilbokoa, berrikuntza, zabalkunde edo hobekuntza prozesuetan murgilduta egon dira edota daude gaur egun instalazioei dagokien horretan.

**III.5.6. Koadroa. Bilbao Exhibition Centre, oinarrizko adierazleak**

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Erakusketak	19	20	24	16	21	20	27
Zuzeneko erakusleak	1.978	2.551	3.555	2.354	2.253	1.936	2.565
Azalera garbia	120.865	176.720	152.699	158.436	106.141	119.596	103.562
Bisitari profesionalak	37.143	89.206	84.877	102.202	45.696	70.963	51.633
Jendea, orokorrean	891.313	1.118.166	1.127.188*	1.006.974	1.182.191	1.221.111	956.956

\*Jendea, orokorrean: Arena pabiloian + BEC Konbentzioetan egindako emankizunetara bertaraten direnak biltzen ditu.  
Iturria: BEC.

Azoka Espainiarren Elkarteak (AFE) emandako datuen arabera, BEC-Bilbao Exhibition Centre (2004an Bilboko Nazioarteko Azokaren txanda hartu zuen proiektua) zazpigarren postua betetzen zuen 2008. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtea) Azoka Esparruen hurrenkeran, bertan garatutako saio kopuruaren arabera, 16 azokarekin. Aurretik Madrilgo Azoka (71), Bartzelonakoa (40) eta Valentziakoa (29), Zaragozakoa eta Elxekoa (biak 26rekin) eta Malagakoa (17rekin) izan zituen eta Balear Uharteak parean eduki zituen.

BECek azoken jardueraren bilakaerari buruz emandako datuek agerian uzten dute bi urteko oszilazioa jazotzen aritu dela zuzeneko erakusketarietan, azalera garbian eta bisitari profesionalen kopuruan, Makina-erreminta eta Ferroforma urte bikoitietan egitearen ondorio zuzena<sup>3</sup>. Aitzitik, ahalik eta parte-hartzaile profesional gehien erakartzeko xedez, Ferroformak data aldatu zuen, nazioarteko egutegian toki pribilegiatua betetze aldera. Gauzak horrela, Ferroformaren 17. edizioa ez zen 2006. urtean egin eta, aldiz, 2007. urtera eraman zen.

Erakundearen beraren datuen arabera, 2011n 27 saio egin ziren BECen eta gertakizun-konbentzio multzoak 51.633 bisitari profesional bildu zituen guztira (aurreko urtean baino % 27,2 gutxiago). Jende orokorreko 956.956 pertsona ere bertaratu ziren.

**5.3. Argitaletxeen ekoizpena**

INEn *"Argitaletxeen Ekoizpenaren Estatistikaren"* datuen arabera, EAEk seigarren postua zuen 2010. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtea) argitaletxeen

ekoizpenaren rankingean (postu bat jaitsi du aurreko urtearen aldean), 2.499 izenburu (liburuak eta liburuxkak) argitaratuta, Estatuko kopuru osoaren % 3,3. Aurretik dauzka Madrilgo Erkidegoa (24.999 izenburu, guztizkoaren % 32,8), Katalunia (20.533 izenburu, guztizkoaren % 26,9), Andaluzia (9.303), Galizia (2.788) eta Gaztela eta Leon (2.744). Argitaratutako 2.499 izenburu horiek 2009an baino % 1,8 gutxiago dira. Bestalde, 2010ean argitaratutako ale kopurua 4 milioikoa izan da, aurreko urtean baino % 5,1 gutxiago. Horrek esan nahi du batez besteko argitaraldia (izenburuko aleak) % 3,4 gutxitu direla, 1.658 aletik 1.602ra.

Izenburu guztietatik 2.545 (% 86) liburuak dira eta 456 (% 14) liburuxkak. Liburuen kasuan, titulu-kopurua % 3,2 jaitsi da, eta aleena, berriz, % 0,1 besterik ez da igo. Ondorioz, batez besteko inprimaketa % 3,4 igo da, guztira baita tituluko 1.624 ere. Liburuxkei dagokienez, izenburuak igo egin dira (+% 6,7) eta ale kopuruak (-% 27,9) beherantz egin du; beraz, horien batez besteko alde kopurua % 32,5 jaitsi da.

INEn datuekin bat etorritik eta argitalpenaren hizkuntza kontuan hartuta, 2010. urtean Estatuan argitaratutako izenburu guztien % 1,1 argitaratu dira euskaraz, hau da, 870 liburu eta liburuxka, aurreko urtean baino 3 hamarren gutxiago.

Horietatik % 52,1 "Literatura, Historia eta Kritika literarioa" kategorian argitaratu dira. Horren atzetik daude, garrantziari dagokionez, nahiz eta oso urrun, "Filologia, hizkuntza, hizkuntzalaritza" eta "Historia eta biografiak" kategoriak, biak % 4,8rekin, eta "Natur Zientziak", % 4,7rekin. Beste

**III.5.7. Koadroa. Argitaletxeen ekoizpenaren bilakaera EAE-n**

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	08-09 Ald.	09-10 Ald.
<b>GUZTIRA</b>											
Tituluak	2.329	2.553	2.485	2.460	2.360	2.767	2.813	2.545	2.499	-9,5	-1,8
Aleak (milakoetan)	5.098	5.620	5.366	5.613	5.574	5.456	5.632	4.220	4.003	-25,1	-5,1
Batez besteko inprimaketa	2.189	2.201	2.159	2.282	2.362	1.972	2.002	1.658	1.602	-17,2	-3,4
<b>LIBURUAK</b>											
Tituluak	2.004	2.157	2.024	2.039	1.920	2.283	2.357	2.187	2.117	-7,2	-3,2
Aleak (milakoetan)	4.228	4.510	4.167	4.393	4.456	4.472	4.717	3.436	3.438	-27,2	0,1
Batez besteko inprimaketa	2.110	2.091	2.059	2.155	2.321	1.959	2.001	1.571	1.624	-21,5	3,4
<b>LIBURUXKAK</b>											
Tituluak	325	378	461	421	440	484	456	358	382	-21,5	6,7
Aleak (milakoetan)	870	1.110	1.199	1.220	1.117	984	915	784	565	-14,3	-27,9
Batez besteko inprimaketa	2.677	2.937	2.601	2.898	2.539	2.033	2.007	2.190	1.479	9,1	-32,5

Iturria: INE, Argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

<sup>3</sup> 2004ko argitalpenetik, ohiko sektoreei aparteko boterea zuten eta eurentzako azoka aldarrikatzen ari ziren merkatu berri batzuk gehitu zitzaizkion. Hala, aldi berean, Bricoforma egin zen, Nazioarteko Brikolaje Azoka.

## III.5.8. Koadroa. Argitalpenaren banaketa geografikoa, inskribatutako ISBN-ak gorabehera

	2006	2007	2008	2009	2010		% Ald. 2009-10
					z	%	
Andaluzia	6.307	10.933	11.678	15.439	15.323	13,4	-0,8
Aragoi	1.342	1.556	1.354	1.979	1.538	1,3	-22,3
Asturias	530	575	895	860	704	0,6	-18,1
Balear Uharteak	744	836	757	808	749	0,7	-7,3
Kanariak	985	1.738	1.000	1.314	1.444	1,3	9,9
Kantabria	345	445	349	400	420	0,4	5,0
Gaztela eta Leon	3.173	2.977	3.046	3.491	3.356	2,9	-3,9
Gaztela-Mantxa	591	733	701	803	711	0,6	-11,5
Katalunia	30.608	29.323	34.512	32.081	30.629	26,8	-4,5
Valentziako Erkidegoa	4.635	5.915	5.771	5.798	6.031	5,3	4,0
Extremadura	438	524	537	1.130	2.017	1,8	78,5
Galizia	3.229	3.396	3.690	4.069	4.754	4,2	16,8
Madril	29.429	32.432	33.230	35.496	39.907	34,9	12,4
Murtzia	895	736	682	591	797	0,7	34,9
Nafarroa	973	985	1.262	1.268	2.039	1,8	60,8
EAE	3.307	3.475	4.548	4.327	3.698	3,2	-14,5
Errioxa	188	176	170	282	220	0,2	-22,0
Ceuta	11	9	10	26	122	0,1	76,8
Melilla	10	6	31	43			
GUZTIRA	87.740	96.770	104.223	110.205	114.459	100,0	3,9

Iturria: INE, Argitalpenaren ekoizpenaren estatistika.

## III.5.9. Koadroa. Inskribatu diren ISBN-ak argitaratze hizkuntzaren arabera

	2007	2008	2009	2010		% Ald. 2009-10
				z	%	
Gaztelania	74.002	79.017	86.318	90.939	79,5	5,4
Katalana	9.615	10.750	10.526	10.748	9,4	2,1
Euskara	1.552	2.156	2.040	1.852	1,6	-9,2
Galiziera	198	131	117	2.544	2,2	2.074,4
Valentziera	1.351	1.488	1.397	1.492	1,3	6,8
Beste hizkuntza espainiar batzuk	54	266	87	66	0,1	-24,1
Beste hizkuntza batzuk	204	214	211	3.487	3,0	1.552,6
Eleanitzak	3.594	4.078	3.509	3.331	2,9	-5,1
Guztira	96.770	104.223	110.205	114.459	100	3,9

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, ISBN.

datu esanguratsu batzuk dira euskaraz argitaratutako izenburuen % 24,9k haurrak dituztela xede-publikoa, % 10,7 ikasliburuak direla eta % 7,2 argitalpen ofizialak direla. Gainera, euskaraz argitaratutako 870 izenburu horiek gure erkidegoko argitalpenen % 34,2 dira eta aurreko urtearekin alderatuz % 15,3 egin dute behera.

EAE n 2010. urtean argitaratutako liburu kopurua, Kultura Ministerioak argitaratutako ISBNren datuen arabera<sup>4</sup>, 3.698koa izan zen (INEren kopurua baino altuagoa, ziurrenik azken kasu horretan ez direlako berrinprimatzeak sartzen); hala, % 14,5 egin du beherantz, aurreko urteko kopuruaren aldean.

Autonomia erkidegoek produkzio editorialaren arloan duten hurrenkeran, INEren datuen arabera, seigarren lekuan dago EAE (postu bat galdu du joan den urtearekin

alderatuz). Aurretik ditu Katalunia, Madril, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Galizia.

Kopuru osoan duen parte-hartzea % 3,2koa da. Gainera, tarte garrantzitsua dago lehenengo bi erkidegoen eta gainerakoaren artean. Horiek horrela, Madrilen 39.907 izenburu argitaratu ziren (kopuru osoaren % 34,9), eta Katalunian % 26,8 (30.629 izenburu).

ISBNren arabera, Espainiako Estatuan 2010ean argitaratutako izenburuen % 79,5 gaztelaniaz ziren, % 9,4 katalanez, % 2,2 galizieraz, % 1,6 euskaraz (% 1,9 2009an) eta % 1,3 valentzieraz.

#### 5.4. Kulturako finantzaketa eta gastu publikoa

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bitartez

<sup>4</sup> ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER —argitaletxe jakin baten izenburuak zenbatzeko eta identifikatzeko nazioarteko sistema bat da, softwareari ere aplikatzen zaiona. Identifikazioa esleitu ondoren, zenbaki hori obra horri baizik ezingo zaio aplikatu eta ezingo da berrerabili.

**III.5.10. Koadroa. Administrazio autonomikoek kulturalan likidatu duten gastua, Autonomia Erkidegoen arabera**

	Balio absolutuak (milioi €-tan)		Estatuan, kulturalan, likidatu den gastuaren %		Autonomia erkidegoek guztira likidatutako gastuaren %			BPGaren %			Batez besteko gastua biztanle bakoitzeko (€)		
	2008	2009	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Estatua guztira	2.129	2.046	100	100	1,22	1,21	1,08	0,19	0,20	0,19	44,4	47,0	44,7
Andaluzia	309	334	14,6	16,3	1,0	0,93	0,97	0,2	0,21	0,23	37,9	38,5	41,0
Aragoi	50	45	1,4	2,2	1,0	0,95	0,77	0,2	0,15	0,14	37,9	39,0	34,5
Asturias	71	60	3,4	2,9	1,0	1,72	1,33	0,2	0,30	0,26	38,9	67,6	56,7
Balearrak	17	21	0,8	1,0	0,6	0,49	0,57	0,1	0,07	0,08	18,7	17,0	20,0
Kanariak	63	44	3,0	2,1	0,8	0,84	0,55	0,1	0,15	0,11	26,6	30,9	21,1
Kantabria	33	32	1,6	1,6	1,5	1,41	1,31	0,2	0,24	0,24	55,5	59,0	55,5
Gaztela eta Leon	146	135	6,9	6,6	1,4	1,45	1,26	0,3	0,25	0,24	55,8	58,6	53,8
Gaztela-Mantxa	103	101	4,8	4,9	1,1	1,14	1,01	0,3	0,28	0,28	45,6	52,2	49,9
Katalunia	400	387	18,8	18,9	1,4	1,30	1,10	0,2	0,20	0,20	54,8	55,3	53,1
Valentziako E.	181	199	8,5	9,7	1,4	1,29	1,27	0,2	0,17	0,20	37,4	37,1	39,9
Extremadura	75	79	3,6	3,9	1,4	1,44	1,47	0,4	0,42	0,44	61,8	70,2	73,1
Galizia	167	152	7,9	7,4	1,3	1,42	1,29	0,3	0,30	0,28	51,0	61,3	55,5
Madril	190	179	8,9	8,8	1,2	1,04	0,89	0,1	0,10	0,09	35,4	30,8	28,5
Murtzia	99	53	4,7	2,6	1,7	2,01	1,09	0,3	0,36	0,19	52,1	70,6	36,5
Nafarroa	70	68	3,3	3,3	1,5	1,59	1,55	0,4	0,38	0,37	107,5	115,4	110,5
EAE	112	127	5,3	6,2	1,3	1,21	1,23	0,2	0,16	0,19	50,8	52,5	59,5
Errioxa	17	17	0,8	0,8	1,2	1,39	1,29	0,2	0,22	0,21	48,9	56,8	52,7
Ceuta	10	7	0,5	0,3	3,3	4,37	2,51	0,4	0,63	0,43	96,2	141,6	97,2
Melilla	6	6	0,3	0,3	2,5	3,05	2,44	0,4	0,43	0,39	74,6	91,6	84,6

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa 2011ko Kultur Estatistiken Urtekaria.

egiten da, aurreko urteetan bezala. Zehazki, Kultura Ministerioak argitaratzen duen «Estatistika Kulturalen Urtekariaren» bitartez<sup>5</sup>.

Urtekari horrek Estatuko Administrazio Orokorrek, Administrazio Autonomikoak eta Tokiko Administrazioak (Tokiko Erakundeak: Udalak eta Aldundiak, Kontseiluak edo Kabiloak eta mendeko erakunde autonomoak) kulturalaren esparruan egindako gastu publikoari eta erabilitako finantzabideari buruzko kapitulu bat jasotzen du. Estatuko Administrazio Orokorri buruzko datuak ez dira Autonomia Erkidegoko hehatzen, bai, ordea, beste bien datuak. Datu hauek aurkeztu aurretik, bi ohartarazpen egitea besterik ez da falta: batetik, aintzat hartu behar da Urtekariko ohar metodologikoen argitu egiten dutela Autonomia Erkidegoek eskatutako informazio guztia eman ez dutenean egokituz jotako zenbatespenak egin direla. Bestetik, argitalpenak berak ohartarazten du ezinezkoa dela iturri ezberdinetako datuak bateratzea Autonomia Erkidegokako informazio orokorra emateko.

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du honakoa: *“kulturalari zuzendutako gastu likidatua, administrazio publiko ezberdinek aitortutako betebeharren fasean; ondorioz, finantzazioa egiten duenaren izaera da, eta ez hartzailearena, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finkatzen duena”*. Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuek eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek, kultura erakunde publikoei emandako babesengatik,

dohaintzengatik eta abarrengatik eduki ditzaketen zerga aringarriak ere ez dira gastu gisa sartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2009an, kulturalan likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 127,1 milioi eurokoa izan zen, 2008an baino 14,9 milioi gehiago. Horrek esan nahi du % 13,3 hazi dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek 2009. urtean kulturalan likidatu zuten gastu osoaren % 6,2 hartzen du (% 5,3 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,23 (% 1,21 aurreko urtean). Gainera, gure Erkidegoko BPGaren % 0,19 da, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren ratio berbera. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 59,5 eurora iritsi zen 2009an, 2008an baino 7 € gehiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (44,7 €).

Gastuaren xedeari begiratuta, EAEn, 127 milioi euroen % 26,9, 2009an, kultur ondasun eta zerbitzuetan erabili zen (% 26,8 aurreko urtean); % 18,4 arte plastiko, eszeniko eta musikaletan; % 7,8 liburu eta ikus-entzunezkoetan; eta ez dago informaziorik gainontzeko % 46,9ari buruz. Autonomia erkidego guztien artean, kultura ondasun eta zerbitzuetan % 39,5 erabili da (% 38,6 aurreko urtean); arte plastiko, eszeniko eta musikaletan % 24,3; eta liburu eta ikus-entzunezkoetan % 7,9.

<sup>5</sup> Ikerketa honen esparruan sartutako kultura sektoreak honako hauek dira: ondasun eta zerbitzu kulturalak (monumentuak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, artxiiboak eta liburategiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza, antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta musika grabatua), diziplinariak (sustapen eta hedapen kulturala, administrazioa eta zerbitzu orokorrak, eta hizkuntza-politika).

### III.5.11. Koadroa. Tokiko administrazioek kulturaren likidatu duten gastua, erakunde mota eta xedearen arabera. Milioi eurotan

	Gastua erakunde motaren arabera						Gastua xedearen arabera					
	Toki erakundeak		Udalak		Aldundiak, kontseiluak eta kabiloak		Guztira		Kultura sustatu eta hedatzea		Arkeologia eta ondare historiko artistikoaren babesa	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Estatua guztira	3.886	3.874	3.313	3.212	669	644	3.886	3.874	3.569	3.548	317	326
Andaluzia	513	524	463	452	70	71	513	524	469	485	44	39
Aragoi	125	132	100	96	33	31	125	132	114	123	11	9
Asturias	80	79	80	79			80	79	77	72	3	7
Balearrak	108	101	76	75	33	26	108	101	95	91	13	10
Kanariak	285	228	169	133	120	95	285	228	261	203	24	25
Kantabria	27	33	27	33			27	33	25	32	2	1
Gaztela eta Leon	242	191	211	153	37	38	242	191	217	167	26	24
G.-Mantxa	153	162	133	139	22	23	153	162	145	149	8	14
Katalunia	721	753	614	626	127	120	721	753	664	695	57	58
Valentziako E.	379	404	325	336	68	67	379	404	324	345	55	59
Extremadura	68	70	55	55	14	14	68	70	61	62	7	7
Galizia	203	227	168	179	39	47	203	227	183	200	20	27
Madril	431	388	431	388			431	388	428	381	3	6
Murtzia	98	100	98	100			98	100	91	91	7	8
Nafarroa	48	43	48	42			48	43	48	43	0	0
EAE	383	411	294	295	108	113	383	411	348	383	25	28
Errioxa	23	30	23	30			23	30	21	27	2	2

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa 2011ko Kultur Estatistiken Urtekaria.

Bestalde, Urtekariak EAEn «Tokiko Administrazio» gisa katalogatzen duenak likidatutako kulturako gastua aurkeztu du; 2009. urterako 410,7 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 7,3 gehiago. EAEko Tokiko Administrazioaren barruan, 295 milioi euro udalei dagozkie (kopuru osoaren % 71,9) eta 112,8 milioi Foru Aldundiei<sup>6</sup>. Gastuaren xedeari dagokionez, % 93,2 kultura sustatu eta barreiatzeko erabili da, eta gainerakoa (% 6,8) Arkeologiarako eta Ondare Historiko Artistikoa Babesteko.

#### 5.5. Familien kultur kontsumoaren gastua

Kultura Ministerioaren datuak gorabehera, euskal etxeek kultur ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua 2010. urtean 833 milioi eurokoa izan zen, 2009. urtean baino 15 milioi euro gehiago. Horrek % 1,8ko igoera ekarri zuen. Gastu horrek EAEko ondasun eta zerbitzuetan erabilitako kopuru osoaren % 2,9 hartu du, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren 2 hamarren azpitik (% 3,1). Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Kanariar Uharteak eta Balearrak dira (% 3,7 eta % 3,5 hurrenez hurren).

Etxeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE, 2010. urtean, seigarren lekuan zegoen hurrenkeran, 975,4 euroekin (aurreko urtean baino % 1,65 gehiago). Aurretik zeuden Madril (1.200 €), Balearrak (1.046 €), Asturias (1.005 €), Katalunia (996 €) eta Kantabria (978 €).

Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 392,7 €-ra iritsi zen 2010. urtean, 2009. urtean baino % 1,7 gehiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoan igarritako kopurua baino % 15 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen laugarren

erkidego gisa, Madril (446 €), Balearren (404 €) eta Asturiasen (397 €) atzetik.

EAEko gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipamenduak eta osagarriak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 393 euroetatik % 25,3 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2010. urtean, % 24,4 kultura zerbitzuetarako, % 42,6 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipamendu eta osagarrietarako eta % 7,7 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Horiek horrela, Estatuaren multzoan EAEn baino gutxiago gastatzen da liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (% 17,8) eta, aldiz, gehiago kultura zerbitzuetan (% 45,9) eta informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipamendu eta osagarrietan (% 29,3). Kultura zerbitzuetan egindako gastuaren barruan sartzen da emankizunetan egindako gastua. Azken hori neurtu ahal izateko, Urtekariak etxe bakoitzeko kultura zerbitzuetan egindako batez besteko gastuari buruzko informazioa ematen du (eta ez pertsona bakoitzeko egindakoa). Kultura zerbitzuetan egindako gastu horiek 238,4 eurora iristen dira EAEn, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, 267,5 eurokoa da. EAEn etxe bakoitzeko ikuskizunetan egindako gastua 109 eurokoa izan da 2010. urtean, eta Estatuan, berriz, gastu hori zertxobait txikiagoa izan da, 108,2 euro, etxeko.

Ikuskizunetan etxeko gehien gastatzen duten autonomia erkidegoak Madril (192,3 euro), Aragoi (169,1 €) eta Katalunia (119,8 €) dira.

<sup>6</sup> Ikus litekeenez, Administrazio bi mailen batura ez da «Tokiko Erakundeen» guztizko gastuaren heinekoa, datu bateratuak direnez gero.



**III.5.12. Koadroa. Etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, Autonomia Erkidegoen arabera**

	Balio absolutua (milioi €-tan)		Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu osoaren % (milioi €-tan)		Batez bestekoa etxe bakoitzeko (eurotan)		Batez bestekoa pertsona bakoitzeko (eurotan)	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Estata guztira	16.021	15.631	3,1	3,1	938,7	910,4	350,8	341,2
Andaluzia	2.373	2.402	2,9	2,9	825,2	829,2	291,4	292,9
Aragoi	490	468	3,3	3,3	962,4	922,5	376,1	359,8
Asturias	416	417	3,3	3,2	997,6	1.005,2	396,3	397,2
Balearrak	372	436	3,0	3,5	899,3	1.046,7	348,1	404,8
Kanariak	635	691	3,2	3,7	848,4	912,2	305,7	331,3
Kantabria	228	211	3,4	3,2	1.091,4	978,4	397,5	367,7
Gaztela eta Leon	828	729	3,1	2,8	841,9	739,3	334,1	295,9
Gaztela-Mantxa	511	507	2,6	2,5	697,0	680,3	253,2	250,1
Katalunia	3.249	2.766	3,5	3,1	1.167,3	996,1	448,0	380,0
Valentziako E.	1.711	1.677	3,2	3,2	893,2	872,8	343,1	336,9
Extremadura	222	241	2,3	2,4	563,0	603,0	206,8	224,2
Galizia	810	783	2,8	2,7	799,3	768,2	297,6	287,7
Madril	2.701	2.822	3,3	3,4	1.165,5	1.200,0	430,3	446,3
Murtzia	270	290	2,0	2,1	543,2	578,4	186,8	199,3
Nafarroa	230	213	2,9	2,6	993,0	910,6	377,7	348,8
EAE	818	833	2,9	2,9	960,4	975,4	386,3	392,7
Errioxa	112	108	3,2	3,1	926,5	890,2	358,7	349,7
Ceuta eta Melilla	37	31	2,8	2,4	832,7	714,1	265,0	211,7

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa 2011ko Kultur Estatistiken Urtekaria.

**III.5.13. Koadroa. Etxeek egindako gastua kultura ondasun eta zerbitzuetan, gastu taldearen arabera, Autonomia Erkidegoen arabera (eurotan)**

	Batez besteko gastua pertsona bakoitzeko										Batez besteko gastua etxe bakoitzeko		
	Guztira (euroak)		Liburuak eta aldizkako argitalpenak		Kultura zerbitzuak (emankizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Informazioa tratatzeko ikusentzunezko ekipamenduak eta osagarriak		Bestelako ondasun eta zerbitzuak		Kultura zerbitzuak (2010. urtea)		
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	Guztira	Emankizunak	Beste batzuk
Estata guztira	350,8	341,2	68,8	60,9	101,5	100,3	154,9	156,6	25,7	23,2	267,5	108,2	159,3
Andaluzia	291,4	292,9	49,0	42,4	82,8	91,0	139,0	141,3	20,6	18,1	257,7	88,2	169,5
Aragoi	376,1	359,8	75,0	77,0	113,8	114,4	159,1	151,2	28,2	17,3	293,3	169,1	124,1
Asturias	396,3	397,2	71,1	72,6	135,3	119,6	167,4	183,3	22,5	21,6	302,8	80,7	222,1
Balearrak	348,1	404,8	51,2	107,4	93,0	99,6	182,0	169,6	21,9	28,8	257,6	90,0	167,6
Kanariak	305,7	331,3	41,9	39,7	80,5	101,7	160,9	163,0	22,4	27,0	279,9	62,8	217,1
Kantabria	397,5	367,7	95,5	81,7	113,9	82,3	168,2	188,2	20,0	15,5	219,0	61,8	157,2
Gaztela eta Leon	334,1	295,9	69,9	54,9	91,4	67,4	148,2	153,6	24,6	20,0	168,4	80,6	87,8
Gaztela-Mantxa	253,2	250,1	46,0	36,3	75,6	73,2	116,1	127,7	15,5	12,8	199,1	79,2	120,0
Katalunia	448,0	380,0	93,1	60,3	131,4	109,2	188,2	184,6	35,2	25,8	286,1	119,8	166,4
Valentziako E.	343,1	336,9	50,9	48,7	115,6	118,3	150,5	150,9	26,1	19,1	306,3	114,6	191,7
Extremadura	206,8	224,2	31,4	35,8	50,4	55,8	107,1	120,5	18,0	12,0	150,2	64,3	85,9
Galizia	297,6	287,7	68,2	67,1	83,6	67,4	121,7	131,0	24,1	22,2	180,0	52,0	127,9
Madril	460,3	446,3	91,2	90,3	122,7	140,8	185,8	180,5	30,5	34,8	378,5	192,3	186,2
Murtzia	186,8	199,3	33,4	34,2	52,7	55,5	84,7	84,3	15,9	25,4	161,0	57,1	103,9
Nafarroa	377,7	348,8	111,0	90,9	97,6	84,3	142,2	150,3	27,0	23,4	220,2	96,2	124,0
EAE	386,3	392,7	113,7	99,4	94,4	96,0	151,7	167,4	26,4	29,9	238,4	109,0	129,4
Errioxa	358,7	349,7	67,7	59,7	90,6	92,1	169,4	179,3	31,0	18,5	234,6	116,3	118,3
Ceuta eta Melilla	265,0	211,7	42,4	25,9	70,8	60,1	136,7	112,4			202,7	65,8	136,9

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa 2011ko Kultur Estatistiken Urtekaria.

# 04

GIZARTE BABESA EAE-n



Giza Babeserako Estatistika Sistema Europarrak (ESSPROS) jarraian adieraziko dugun bezala definitzen du Gizarte Babesa: *“zenbait arrisku eta beharrian zehatzek familiengan eta norbanakoengan eragiten duten zama arintzera zuzendutako erakundeen jarduera guztiak, beti ere, aldibereko, elkarrenganako zein banakako hitzarmenik ez badago”*.

Gure erkidegoan Gizarte Babesak barne hartzen dituen arlo nagusien gaineko errepasoa egingo dugu EAEko Memoria Sozioekonomikoko kapitulu honetan. Lehenengo eta behin, berriz ekingo diogu EAEko Gizarte Zerbitzuen egoeraren azterketari, kopuru nagusiak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak bere Sistemari buruz egiten duen balorazioa aurkeztuz. Jarraian, Gizarte Segurantzak

ematen dituen sariak eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean adierazitako pobrezia-aren zein gizarte eskusioaren aurka borrokatzeko tresnak aztertuko dira. Azkenik, EAEko gizarte aurreikuspen sistema osagarrien kopuru handiak aztertuko ditugu.

Beste alde batetik, Europako Batzordearen 458/2007 Araudiak gizarte babesak bere barne hartzen dituen arloen sailkapenean langabeziako prestazioak espezifikoki sartzen baditu ere, hauei buruzko informazioa (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak- EEZPek- kudeatutako Gizarte Segurantzaren prestazioak) Memoria Sozioekonomiko honetako *“Lan Merkatua”* kapituluaz aztertzea erabaki da, enplegu politika aktibo eta pasiboari buruzko ikuspegi osoa eskaintzeko asmoz.

# 1. Gizarte zerbitzuak EAE-n

## 1.1. Gizarte zerbitzuen egoera

Hasteko, EAEko Gizarte Zerbitzuen gastua 2009an (informazioa eskura daitekeen azken urtea) 2.123 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %14,1 gehiago, EUSTATEN "Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika"ren arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren %3,29 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 978,4 euroko gastua, 2008an baino %13,7 gehiago. Herri administrazioen ahalegina 1.591 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %75, eta sektore pribatuak, aldiz, gainerako %25 eman zuen. Erabilitako bost eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Sektoreko enpleguari dagokionez, 2009an gizarte zerbitzu guztietan 1.207 enplegu garbi sortu ziren, 25.890 pertsonari zuzenean enplegua emanez (okupatuen %2,76); horien arten %70 emakumeak dira. Horrez gain, borondatez lagundu zuten langileak, eskuzabal lan egiten dutenak hain zuzen ere, aipaturiko urtean 20.417 izan ziren, hau da, arduraldi osoko 1.840 enpleguren pareko ahalegina.

Gizarte zerbitzu ugariaren artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten arloak, bien artean gastuaren %70 hartzen baitute. Biztanleria osoarentzako baliabideen artean nabarmenak dira familiei egindako transferentziak, zehazki Oinarrizko Errentaren programak —gaur egun Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta izenarekin ezagutzen duguna (265 milioi euro, +%31 aurreko urtearekin alderatuta)— eta gizarte larrialdietarako laguntzak (62 milioi, +%37).

Adineko pertsonari dagokienez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzeko eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen dituzten arreta motak. 2009an 19.533 plaza eskaini ziren egoitzetan, hau da, 65 urtetik gora zituzten 100 pertsonako 4,7 plaza eman ziren. Administrazio publikoak plaza horien %35 eskaini zuen titulartasun publikodun zentroetatik eta beste %30 adostu zuen instituzio pribatuekin.

Adineko pertsonari laguntzeko eguneko zentroetan eskainitako plaza kopurua 3.884 izan zen, 2008an baino %5 gehiago. Administrazio publikoak zuzenean edo sare pribatuarekiko itun bidez eskaini zuen plaza hauen %83. Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak (GZEK)<sup>1</sup> 2011n egindako "EAEko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko bigarren txostena" delakoari esker<sup>1</sup>, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egoera eta sektoreko langileek zelan baloratzen duten ezagut dezakegu. Txosten honetako ondorioetako batzuk hauek ditugu:

- Lehenengo eta behin, azterketak erakusten du prestazio ekonomikoek gora egin dutela zuzeneko arreta zerbitzuen kalterako. Horrela, gure erkidegoko gizarte

### IV.1.1. Koadroa. EAE-ko gizarte zerbitzuak: magnitude nagusien bilakaera

	2008	2009	% 08/09
<b>GASTUA (euroak milaka)</b>	1.861.067	2.122.914	14,1
Gastu arruntak	1.342.916	1.427.917	6,3
Familientzako transferentz.	425.215	576.342	35,5
Kapital gastuak	92.936	118.654	27,7
Gastua / Biztanleak (eurotan)	860,4	978,4	13,7
Gastua / B.P.G.d. (%)	2,72	3,29	—
<b>FINANTZAKETA</b>			
Finantzaketa publikoa	1.346.932	1.591.367	18,1
Finantzaketa pribatua	514.135	531.547	3,4
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>			
Langileak guztira	42.641	46.307	6,1
Norberaren langileak	24.683	25.890	4,9
Borondatezko langileak	18.958	20.417	7,7
<b>BALIABIDE MATERIALAK</b>			
Erakunde kopurua	1.370	1.401	2,3
Zentroen kopurua	2.944	3.088	4,9
Egoitza kopurua	994	1.082	8,9
Egoitzetako plazak	24.081	26.107	8,4

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

### IV.1.2. Koadroa. EAE-ko gizarte zerbitzuak: gastuaren bilakaera eta banaketa biztanle mota bakoitzeko

	2008	2009	%08/09
<b>GASTUA (euroak milaka)</b>	1.861.067	2.122.914	14,1
Biztanleria oro har	715.722	856.847	19,7
Familientzako transferentziak	421.093	571.266	35,7
Haurrak-Gazteak	79.189	91.217	15,2
Egoitzak	58.869	69.192	17,5
Adineko pertsonak	547.685	632.804	15,5
Egoitzak	456.165	507.112	11,2
Pertsona ezinduak	414.423	415.773	0,3
Egoitzak	80.442	90.327	12,3
Okupazio Zentroak eta EZB (1)	258.330	237.014	-8,3
Emakumeak	15.625	16.518	5,7
Gizarte bazterketa	88.423	109.752	24,1


(1) Enplegu zentro bereziak.

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

zerbitzuen sisteman parte hartzen duten pertsonen %69k prestazio ekonomikoren bat jasotzen du (2008ko %61 eta 1999ko %48ren aurrean). Gertakari hau gastuaren ikuspuntutik ere ikus daiteke: baieztatzen da 2008 eta 2009 urteen artean gizarte zerbitzuetan gertatutako biztanle bakoitzeko gastu publikoaren

<sup>1</sup> Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeko 48. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua (Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren ordekoa) sortu zuen eta erakunde horri, besteak beste, honako eginkizuna esleitu zion: "Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren esparruan jasotako datuetan oinarrituta urteko txostena egitea".

**IV.1.1. Grafikoa. EAEko Gizarte Zerbitzuetan egindako gastuaren adierazleen bilakaera**



Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuen Estatistika.

%48ko hazkundera Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Familia Barruko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoaren (Mendekotasun Legetik eratorria) ondorioa dela.

- Halaber, txosten honek adierazten du kezkatzekoa dela euskal gizarte zerbitzuek daukaten komunitate izaera eskasa. Azkenengo hamarkadan, tokian tokiko zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, laguntzeko eguneko zentroak eta okupazio zentroak) laguntza eskaintzaren %26 izatetik %16 izatera pasatu dira. Bere aldetik, 1999 eta 2009 urteen artean egoitza zerbitzuak %26tik %15era pasatu dira eta prestazioak %48tik %69ra. Joera honen arrazoiak prestazio ekonomikoaren estalduraren eta egoitza baliabideen hazkundera izan dira, etxez etxeko laguntza zerbitzuen hazkundera ahularekin batera.
- Bigarren Txosten honetako teknikarien taldean parte hartu duten langileen iritziei dagokienez, ondorio hauek nabarmentzen dira:
  1. %88ak uste du EAEko gizarte zerbitzuen egoera ona edo oso ona dela. Hala ere, erdiak (%49) uste du txarrera egin duela aurreko urtearekin alderatuz gero.

Honen arrazoiaren artean hauek aipatu dituzte: gizarte beharrezanaren hazkundera, langile ratioen murrizketa, aurrekontu partiden murrizketa edo prestazioak eskuratu ahal izateko irizpide murriztatzaileak.

2. Baliabide sareen egokitasunari dagokionez, kalitate maila baxuena duten zerbitzuak aterpetxeak eta etxerik gabeko pertsonentzako ostatuak dira: %58,2ak uste du hauen kalitatea hala-moduzkoa dela eta %16,4ak nahiko txarra edo oso txarra dela. Bestalde, adineko pertsonen laguntzeko eguneko zentroak dira baloraziorik onenak lortu dituztenak: %87,3ak uste du hauen kalitatea oso ona edo nahiko ona dela.
3. Aztergai diren taldeei dagokienez, 2010eko taulan gertatu bezala, langileek uste dute Administrazioak ondoen tratatzen dituenak adineko pertsonak eta pertsona ezinduek direla; berriz, erakundeek gaizkien tratatzen dituztenak etxerik gabeko pertsonak eta mendeko pertsonen zaintzaileak dira.
4. Premiazkotzat jotzen diren hobekuntza estrategiei dagokienez, eremu soziosanitarioarekin lotutakoek (erantzunen %42,3) eta erakunde maila bakoitzaren finantzaketa baliabideen zenbatekoarekin lotutakoek (%36,5) lortzen dute adostasun mailarik handiena.
5. Azkenik, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren eronka nagusiak zeintzuk diren galdetu zaie sektoreko langileei eta ondorengo nabarmendu dute: arauen garapena (bereziki, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen aplikazioa), erakundeen arteko koordinazioa eta sistemaren artikulazioa, lan baldintzak eta lanbide gaitasuna, gizarte zerbitzuen funtzioen azalpena (LANBIDEk, Euskal Enplegu Zerbitzuak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren eskumena hartu duenetik) eta komunitate izaera handiagoa duen eta prebentziora orientatutako gizarte zerbitzuen eredua.

**1.2. Mendekotasunarentzako arreta**


Estatuko arautegiari dagokion Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta Eskaintzeko Legea<sup>2</sup> (Mendekotasun Legea) indarrean sartu zen 2007an honako helburuarekin: "eguneroko oinarrizko ekintzak garatzeko, norberaren autonomia eskuratzeko eta herritar diren aldetik euren eskubideak gauzatzeko laguntza behar duten urrakortasun egoeran dauden pertsonen beharrezanaren ardura hartzea".

**IV.1.3. Koadroa. Gizarte zerbitzuen kalitatearen balorazioa sektoreko langileen aburuz: oso ona edo nahiko ona dela uste duen portzentajea.**

	2010	2011
Adineko pertsonen laguntzeko eguneko zentroak	77,4	87,3
Adineko pertsonentzako egoitzak	76,7	78,2
Jubilatuentzako klub eta etxeak	74,4	80,0
Ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak eta okupazio zentroak	70,7	80,0
Adin txikiko babesgabeentzako egoitza zentroak	45,9	49,1
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	45,1	54,5
Etxeko arreta	44,4	47,3
Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzuak	43,6	52,7
Gizarte arazoak dituzten gazte eta nerabeentzako gizarte hezkuntzako zerbitzuak	40,6	47,3
Etxerik gabeko pertsonentzako edo gizarte eskusio egoeran dauden pertsonentzako aterpetxe eta ostatuak	33,1	20,0

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua. Urteko txostenak.

<sup>2</sup> Estatuko 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzkoa.

**IV.1.2. Grafikoa. Hainbat taldei eskaintako arreta: Herri Administrazioak arreta gutxi edo inolako arretarik ez duela eskaintzen uste duten langileen ehunekoa**

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua. Urteko txostenak.

Lege honek aurrerapen garrantzitsua dakar gizarte politiketara, izan ere, mendekotasun egoeran dauden pertsonak legean bertan aurreikusitako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea onartu eta arautzen baitu eskubide subjektibo berri gisa.

Mendekotasun Legean aurreikusitako prestaziorik gehienak (telelaguntza zerbitzua, etxez etxeko laguntza, eguneko zentro zerbitzua, egoitza arreta zerbitzua...) euskal administrazioek eskaintzen zuten jada. Beste batzuk, esaterako, Familia Ingurunekeo Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa (FIZPE) edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa berriak dira.

Mendekotasun Legearen ezarpenaren ondoriozko kopuruei dagokionez, ez da erraza azterketa kuantitatibo zorrotza egitea, gaur egun ez baitago bateratutako irizpideak darabilen datuak jaso eta esplotatzeko informazio sistema bateraturik.

Datu ofizialik ezean, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteke osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedatzeari jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoa. 2011ko abenduako datuak biltzen dituen azkenengo txostenak erakusten du EAEn garapena beste autonomia erkidego batzuen bano handiagoa dela, bai baloratutako pertsonen portzentajeari dagokionez (irizpenen %3,62, estatuko %3,2aren aurrean) baita emandako prestazioei dagokionez ere (biztanleen %2ari dagokiona).

Emandako prestaziorik gehienak Familia Inguruko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoari dagozkio, beste erkidego batzuetako mailara iritsi ez bada ere. Hala ere, Mendekotasun Legeari jarraiki, prestazio hau salbuespenezko kasuetan bano ez litzateke eman behar. 2011ko abenduan aipatutako prestazioa bano ez jasotzen duten Mendekotasunarentzako Arreta Sistemaren

**IV.1.4. Koadroa. Mendekotasunaren kalifikazioak erkidegoaren arabera: onuradunen ehunekoa eta ebaluazioaren emaitzak. 2011ko abendua**

	ONURADUNEN %		PRESTAZIOAK / ONURADUNAK GUZTIRA %		EBALUAZIOA*	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Gaztela-Leon	1,86	2,35	69,4	41,3	9,0	10,0
EAE	1,69	2,00	54,8	55,7	8,5	10,0
Errioxa	2,37	2,39	77,2	60,3	8,0	9,0
Gaztela-Mantxa	1,76	1,86	57,9	51,5	9,0	8,5
Aragoi	1,89	1,67	82,4	62,1	8,5	8,5
Andaluzia	2,17	2,29	60,8	57,5	7,5	8,0
Kantabria	2,35	2,57	64,7	64,1	6,5	7,0
Katalunia	1,47	1,58	81,4	73,5	6,5	6,5
Nafarroa	1,40	1,28	75,2	58,0	7,0	6,0
ESTATU. BATEZBES.	1,40	1,60	65,8	64,5	5,6	5,9
Galizia	1,18	1,22	63,8	46,8	5,5	5,5
Murtzia	1,53	1,82	87,9	82,9	5,0	5,5
Extremadura	1,56	1,65	73,4	56,5	5,0	5,5
Balear Uharteak	0,83	0,94	77,9	73,9	4,0	4,5
Madril	0,72	1,19	26,9	23,6	2,0	4,0
Ceuta eta Melilla	1,15	1,23	83,8	66,2	3,0	3,0
Asturias	1,19	1,28	59,3	50,1	4,0	2,5
Valentziar Erk.	0,72	0,84	57,7	56,5	2,0	2,0
Kanariar Uharteak	0,41	0,50	51,7	53,0	0,5	0,5

Iturria: Mendekotasunaren Behatokia. 2010eko eta 2011ko abenduako txostenak. Guk egindakoa.

(\* ) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteak Mendekotasunarentzako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilabete behin emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa.

persona onuradunen portzentajea %55,7 da (estatu mailan %64,5).

Beste alde batetik, 2011n ARARTEKOAK aurkeztu du EAEn Mendekotasunarentzako Arretaren gaineko

Legearen aplikazioari buruzko txosten aparta. Honetan, foru aldundiek egindako lana nabarmentzen da eta baita giza baliabideen eta baliabide materialen hornidurari dagokionez egindako ahalegina ere. Aipatutakoa gorabehera, txostenak adierazten du desiragarria litzatekeela koordinazio gehiago lurraldeen arteko desorekak gainditzeko eta baita arintasun gehiago garapen arautegiaren onarpenean.

Adineko Pertsonen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) datuekin, nabarmentzen da 2010eko irailaren 27an gure erkidegoak 80.820 espediente zituela indarrean eta hauetatik 74.682k irizpena jasota jada. Pertsona hauetatik 42.626ri mendekotasun motaren bat egotzi zitzairen eta hauen artetik guztira 34.521 pertsona eman zitzairen prestazioren bat. Ondorioz, prestazioa jasotzeko eskubidea zuten pertsonen %81 onuradunak ziren eta gainerako %19 arretaren zain zegoen. Horrez gain, zenbait pertsonak prestazio baten baino gehiagoren onuradunak izan daitekeenez, emandako prestazioak guztira 39.786 izan ziren (1,15 prestazio pertsona onuradun bakoitzeko. Estatuko batezbestekoa 1,18 da). Esleitutako prestakuntzei dagokienez, %9,6 telelaguntza zerbitzuei dagokie, %11,4 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, %11,6 eguneko/gaueko zentroei laguntza emateari eta %20,7 egoitza arretari. Gainerakoa prestakuntza ekonomikoari dagokie: %2,1 Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoa, %43,3 Familia Ingurunekeo Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa eta %1,3 Asistentzia Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa.

Txostenak emandako gomendio zehatzen artean ondorengoak nabarmentzen dira:

- Informazio sistema bateratua sortzea, lurraldeen arteko desoreken gainditzea bermatuz.
- Tokian tokiko erakundeei finantzaketa nahikoa ematea, Mendekotasun Legea indarrean sartzearen eraginez

**IV.1.5. Koadroa. Mendekotasun legea. 2010/09/27An imsero-an erregistratutako espedienteak lurralde historikoen arabera. Absolutuak eta tasak 1.000 Biztanleko**

	ESPEDIENTEAK	IRIZPENAK	PERTSONA ONURADUNAK
<b>Absolutuak</b>			
Araba	11.761	11.075	5.858
Bizkaia	37.775	33.038	14.026
Gipuzkoa	31.284	30.569	14.637
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>80.820</b>	<b>74.682</b>	<b>34.521</b>
<b>Tasak 1.000 Biztanleko</b>			
Araba	37,48	35,29	18,67
Bizkaia	32,77	28,66	12,17
Gipuzkoa	44,33	43,32	20,74
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>37,21</b>	<b>34,38</b>	<b>15,89</b>

Iturria: Guk sortua ARARTEKOaren EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunari arreta emateko legearen aplikazioa 2011 txostenetik abiatuta.

gertatutako eginkizunen hazkunderari aurre egin ahal izateko. Horrez gain, erakunde hauei protagonismo gehiago ematea gizarte politikak diseinatzerako orduan.

- Mendekotasun egoeran dauden biztanleei eta hauen zaintzaileei zuzendutako gizarte baliabideak, hala nola, zerbitzu, prestazio eta programak, sortu eta mantentzeko zereginarekin jarraitzea.
- Zerbitzu eta prestazio ekonomikoen arteko (eta baita zerbitzu desberdinen arteko) bateragarritasuna ahalbidetzea, mendekotasunarentzako arreta egokia eta autonomia pertsonalaren sustapen eraginkorra bermatzeko.

## 2. Gizarte segurantzaren prestazioak EAE-n

2011n milioi erdi pertsona baino gehiago (513.928 lehenengo hurbilpenaren arabera, finkatutako informazioa falta baita) izan ziren Gizarte Segurantzaren sistemak emandako pentsio desberdinen onuradunak gure erkidegoan. Kopuru honek %1,4ko hazkundea izan du neurri berean hazi zen aurreko urtearekin alderatuz gero. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik da, izan ere, beste modalitateetan, oro har, jasotzaileen kopuruak murrizteko joera izan du. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea %23,6ra heltzen da.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %98 direnak eta gastuaren %99), 2011ko batez besteko pertsona onuradunen kopurua 501.800era heltzen da (+%1,4). Hauetako bakoitzak hilero batez beste 995,70 € jasotzen ditu, %3,1eko hazkundea 2010eko datuekin

konparatuz. Ondorioz, aurreikusten da urteko gastua 6.995 milioi eurokoa dela, 2010ean baino %4,5 gehiago. Labur esanda, EAEn pentsioen guztizko zenbatekoa hazi egin zen 2011n, behin-behineko hasierako hurbilketa eginez, 7.047 milioi eurora ailegatuz, 2010ekin alderatuta %4,5 gehiago. Hortaz, BPGd-aren gaineko portzentajeak gora egin du bi hamarren, 2010ean %10,3 izatetik %10,5 izatera pasa da (EUSTATen behin-behineko datuak oinarri hartuta).

### 2.1. Kudeaketa transferitu gabe duten gizarte segurantzaren prestazioak

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:

- Ordaindutakoaren arabera, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik

#### IV.2.1. Koadroa. Gizarte segurantzaren pentsioak EAE-n motaren arabera. Laburpen koadroa

	2008	2009	2010	2011	%09/10	%10/11
<b>Pertsona onuradunak (urteko batezbestekoa)</b>						
Ordaindutakoaren arabera pentsioak	479.400	487.600	494.800	501.800	1,5	1,4
Ordaindutako. arabera ez diren pentsioak	9.658	9.741	9.949	10.107	2,1	1,6
Laguntzako pentsioak*	1.341	1.341	1.341	1.341	0,0	0,0
Sorospenak LISMI*	680	680	680	680	0,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>491.079</b>	<b>499.362</b>	<b>506.770</b>	<b>513.928</b>	<b>1,5</b>	<b>1,4</b>
Biztanleen %	22,9	23,1	23,4	23,6	1,2	0,9
<b>Gastua (euroak milioika)</b>						
Ordaindutakoaren arabera pentsioak	6.298,43	6.406,17	6.692,37	6.994,99	4,5	4,5
Ordaindutako. arabera ez diren pentsioak*	44,41	45,87	47,32	48,55	3,2	2,6
Laguntzako pentsioak*	2,50	2,41	2,41	2,41	0,0	0,0
Sorospenak LISMI*	1,40	1,40	1,40	1,40	0,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.346,74</b>	<b>6.455,85</b>	<b>6.743,50</b>	<b>7.047,35</b>	<b>4,5</b>	<b>4,5</b>
BPGd %	9,3	10,0	10,3	10,5	2,4	1,9

Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako datuekin egina. Lan estatistiken aldizkaria.

(\*) Eguneratutako daturik gabe. Balioespena.

#### IV.2.2. Koadroa. EAE-n Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoa eta jasotzaile kopurua

	2009	2010	2011	% 2011	2011ko LGSren %	09-10	10-11
<b>Jasotzaile kopurua</b>							
GUZTIRA	487.600	494.800	501.800	100,0		1,5	1,4
Ezintasun iraunkorra	44.600	44.600	44.400	8,8		0,0	-0,4
Erretiroa	297.500	303.600	309.600	61,7		2,1	2,0
Alarguntza	129.800	130.900	132.200	26,3		0,8	1,0
Zurztasuna/familiaren alde	15.800	15.800	15.700	3,1		0,0	-0,6
<b>Batez besteko zenbatekoa (Euro/Hileko)</b>							
GUZTIRA	938,4	966,1	995,7	100,0	155,2	3,0	3,1
Ezintasun iraunkorra	1.070,2	1.090,0	1.112,6	111,7	173,5	1,9	2,1
Erretiroa	1.069,5	1.101,5	1.136,4	114,1	177,2	3,0	3,2
Alarguntza	656,0	674,7	692,6	69,6	108,0	2,9	2,7
Zurztasuna/familiaren alde	418,4	431,0	442,3	44,4	69,0	3,0	2,6

Iturria: Lan eta Inmigratio Ministerioaren "Lan estatistiken aldizkaria" oinarri hartuta egindakoa.



eta Gizarte Babesaren gastu osoaren %50 dira gutxi gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsoneri errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.

- Ordainutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordainutakoaren araberakoak ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

2011n 501.800 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, aurreko urtean baino %1,4 gehiago. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopurua %0,4 hazi da azken urtean; aldiz, erretiroagatiko jasotzaileak %2 hazi dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak %1. Azkenik, zurtasunagatiko kotizaziopeko pentsioen pertsona jasotzaileen kopurua %0,6 jaitsi da.

Pentsio hauen hileko batez besteko zenbatekoa 995,70 eurokoa da. Honek %3,1eko hazkundea dakar 2010 urtearekiko.

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituztenen %61,7k jasotzen duena), nabarmentzekoa da 2011ko batez besteko

#### IV.2.3. Koadroa. Erregimen bakoitzeko batez besteko zenbatekoen eta pentsioen kopurua. EAE-estaturia konparazioa. 2011ko abendua

	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	
		Zenbat. (€)	Estaturaren %
Orokorra	346.765	1.152,46	119,8
Autonomoak	81.647	648,98	114,2
Nekazaritzakoa	1.254	512,70	96,9
Etxekoa	6.047	484,15	100,0
Itsasoa	13.175	1.050,11	120,5
L.I. ETA L.G.	15.026	1.027,53	111,9
SOVI	37.460	363,28	99,3
Ikatzia	243	970,08	68,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>501.617</b>	<b>995,40</b>	<b>122,8</b>

Iturria: GSIN.

zenbatekoa 1.136,40 € dela hileko, 2010ean baino %3,2 gehiago.

Beste alde batetik, 2011n pentsio guztien batez besteko zenbatekoak igo dira intentsitate desberdinarekin: erretiroagatiko eta zurtasunagatiko pentsioak %3,2 eta %2,6 igo dira hurrenez hurren eta ezintasun iraunkorragatiko pentsioa %2,1 eta alarguntzagatiko pentsioa %2,7, hileko 692,60 euroko zenbatekora ailegatuz.


Hala, batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata baino askoz tasa altuagotan hazi da, baita KPIren

#### IV.2.4. Koadroa. EAE-n pentsioen arloko ahaleginaren hurbilketa

Urteak	Kotizaziopeko pentsioak (1)	Batez besteko zenbat., €/hileko (2)	Zenbatekoa guztira, €/hileko (3) =(1)*(2)	Gizarte Segurantzaren afiliatutakoa.(4)	Ahalegina: : €/hileko afiliatu bakoitz. (3) / (4)
2006	464.400	806,1	374.352.840	933.200	401,15
2007	471.900	843,0	397.811.700	957.900	415,30
2008	479.400	898,3	430.630.638	967.900	444,91
2009	487.600	938,4	457.563.840	934.700	489,53
2010	494.800	966,1	478.026.280	925.800	516,34
2011	501.800	995,7	499.642.260	919.600	543,33
Ald.-tan, 10	1,5	3,0	4,5	-1,0	5,5
Ald.-tan, 11	1,4	3,1	4,5	-0,7	5,2

Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin egindakoa

#### IV.2.1. Grafikoa. EAEko diru bilketaren bilakaera Gizarte Segurantzaren kotizazioaren arabera\*.



(\*) Langabezia, LH eta FOGASA gabe.  
Iturria: GSDoren datuetan oinarrituta.

gainetik ere. 1983ko batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata (193,29 €) baino zertxobait baxuagoa zen (157,38 € EAEn eta 138,29 € batez beste estatuan). 2011ko abenduan EAEko batez besteko pentsioa (995,40 €) %2,25 hazi zen 2010eko abenduarekin alderatuta. Aldiz, urte arteko KPIren aldakuntza %2,4 izan da hilabete horretara arte.

Bere aldetik, pentsioen arloan egindako guztizko gastua %4,5 igo da. Alderatzen badugu aipatutako gastuaren bilakaera Gizarte Segurantzaren afiliatutako langile kopuruarekin balioetsi ahal izango dugu pertsona afiliatu bakoitzaren ahalegina zein den (euro/hileko) pentsio hauek ordaintzeko. 2011n 543 euro/hileko, aurreko urtean baino %5,2 gehiago, izan ere, pentsioak ordaintzeko gastua hazi da eta afiliazioa murriztu.

Beste alde batetik, 2010ean (datu ofizialak eskuragarri dauden azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.541 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, 2009an baino %0,7 gehiago, hau da, estatuan guztira bildutakoaren %6,3 (2009an %6,2). Kopuru hau gure erkidegoaren aurtengo BPGd-aren %9,9 da, behin-behineko datuen arabera (%10 aurreko urtean). Bildutako kopuru horretatik 1.093 milioi Arabari dagozkio (%16,7), 2.140 Gipuzkoari (%32,7) eta 3.308 milioi Bizkaiari (%50,6).

Zenbateko horren %90,3 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; aldiz, gainerako %9,7 lan istripuen mutualitateetatik eratorritakoa da. Kuoten % 71,2ren jatorria erregimen orokorrak dira eta 4.658 milioi euro dira guztira (aurreko urtearekin alderatuta +%0,8). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, FOGASari eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.279 milioi euro izan ziren 2010ean, aurreko urtean baino 2 gehiago.

## 2.2. Kudeaketa transferituta duten gizarte segurantzaren prestazioak: kotizazio gabeko prestazioak

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz

kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrezkoan dauden pertsonen ematen zaizkien dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute, hortaz, beharrezkoan dauden egonez gero, estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria abenduaren 20ko estatuaren 26/1990 Legean dago. Lege horrek Gizarte Segurantzaren Babes Ekintza eta Egitura Arrazionalizatzeko presazko neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako berrikuntza osatu zuen. Horren bidez, babeserako kotizazio gabeko prestazio maila antolatzen, lanbide edo kotizazio sistemarako sarbiderik ez duten eta beharrezkoan dauden pertsonen prestazioak ematea ahalbidetuko duena. Hala, adinekoen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte babesaren sistema unibertsala denez, ez da beharrezkoa prestazioa jasotzeko eskubidea baliatzeko aurrez kotizatu izana, eta kotizazio gabekoa denez, estatuaren Aurrekontu Orokorraren Urteko Legeetan zehazten da. Prestazio hori erabat finantzatzea estatuari dagokio, eta Gizarte Segurantzak bertatik jasotzen ditu kasuan kasuko transferentziak, 26/1990 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eta Toledoko Ituneko gomendioekin bat etorriz. Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Kotizazio gabeko prestazio hauek hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta LISMI prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta egoera pertsonalaren arabera ezartzen da.

### 2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak

EAEko foru aldundiek emandako kotizazio gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizazio gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru sarrera nahikorik ez duten pertsonen daude zuzenduta

#### IV.2.5. Koadroa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren kuoten bilketaren bilakaera EAE-n. Euroak milioika

	Euroak milioika				2010 %	Aldakuntzaren %		
	2007	2008	2009	2010		2007-08	2008-09	2009-10
Orokorra	4.475	4.682	4.623	4.658	71,2	4,6	-1,3	0,8
Autonomoak	588	616	618	619	9,5	4,8	0,3	0,2
Nekazaritzakoa*	16	4	3	3	0,0	-75,0	-25,0	0,0
Itsas langileak	30	30	29	28	0,4	0,0	-3,3	-3,4
Etxeko langileak	22	24	26	28	0,4	9,1	8,3	7,7
Ikatz meatzaritzakoa	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI/LG kuotak (Diruzaintza)	6	7	6	6	0,1	16,7	-14,3	0,0
EEZPeko langabetuak	396	418	553	564	8,6	5,6	32,3	2,0
<b>GSDO-REN KUOTAK GUZTIRA</b>	<b>5.533</b>	<b>5.781</b>	<b>5.858</b>	<b>5.907</b>	<b>90,3</b>	<b>4,5</b>	<b>1,3</b>	<b>0,8</b>
LI/LGengatiko mutualitateak	468	479	444	429	6,6	2,4	-7,3	-3,4
KAregatiko mutualitateak	164	189	193	205	3,1	15,2	2,1	6,2
<b>MUTUALITATEAK GUZTIRA</b>	<b>632</b>	<b>668</b>	<b>637</b>	<b>634</b>	<b>9,7</b>	<b>5,7</b>	<b>-4,6</b>	<b>-0,5</b>
<b>GS-AREN SISTEMAREN BILKETA GUZTIRA</b>	<b>6.165</b>	<b>6.449</b>	<b>6.495</b>	<b>6.541</b>	<b>100,0</b>	<b>4,6</b>	<b>0,7</b>	<b>0,7</b>
Langabeziarako bildutako kuotak	1.131	1.188	1.126	1.128	17,2	5,0	-5,2	0,2
FOGASA	29	30	29	29	0,4	3,4	-3,3	0,0
Lanbide Heziketa	117	124	122	122	1,9	6,0	-1,6	0,0

Iturria: GSDOren datuekin guk egindakoa: Urteko memoriak.

(\*)Uztailaren 4ko 18/2007 Legearen bidez, Nekazaritzako Erregimen Bereziko norberaren konturako langileak Langile Autonomoen Erregimen Berezira pasatu dira. Horren ondorioz, 2007 eta 2008 artean izandako Nekazaritzako Erregimenaren bilketak beharrezkoak handia izan zuten.

**IV.2.6. Koadroa. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak EAE-n: adierazle nagusiak**

	ONURADUNAK (URTEKO BATEZBESTEKOAK)			HILEKO ZENBATEOA (€)
	ERRETIROA	EZGAITASUNA	GUZTIRA	
2006	4.618	5.323	9.941	301,55
2007	4.461	5.389	9.850	312,43
2008	4.339	5.318	9.658	328,44
2009	4.301	5.439	9.741	336,33
2010	4.311	5.638	9.949	339,70
2011	4.399	5.708	10.107	343,10
Ald.-ren % 08/09	-0,9	2,3	0,9	2,4
Ald.-ren % 09/10	0,2	3,7	2,1	1,0
Ald.-ren % 10/11	2,0	1,2	1,6	1,0

Iturria: GSMaren datuekin egindakoa. Lan estatistiken aldizkaria.

(diru sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru sarreren batuketak pentsioen urteko zenbatekoa baino baxuagoa izan behar du) eta zenbatekoak urtetik urtera gora egiten du.

Kotizazio gabeko pentsioen zenbatekoak urtero ezartzen dira Estatu guztirako. 2011rako 343,10 € finkatu ziren hileko erretirorako eta %65eko mailako edo maila altuagoko baliaezintasunerako. %75eko mailako edo maila altuagoko baliaezintasuna duten eta beste pertsona baten laguntza behar duten pertsonak jasotako pentsioentzako %50eko osagarria ere aitortzen da. Horrez gain, pertsona onuradunak errentarik edo berezko diru sarrerarik jasoz gero eta hauek pentsioen kopuruaren %25a gaintuz gero, %25a gaintuz duen zenbatekoa kenduko zaio honi. Berezko diru sarrerak ez badute %25a gaintuzten, pentsioa bere horretan mantentzen da.

Zenbateko hauetatik abiatuta, pentsio hauetarako urteko 48,5 milioi euroko gastua ondoriozta dezakegu, 2010ean baino %2,6 gehiago. Hala ere, memoria honen itxieran ez dakigu kopuru honen zenbateko zehatza zein den.

**2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak**

Foru aldundiei transferitutako Gizarte Segurantzaren laguntzako pentsioak banakako laguntza ekonomikoak dira, aldi behingoak eta mugagabeak, adinekoren (65 urtez gorakoak) eta gaizoen edo erabateko ezgaitasun iraunkorra dutenen alde, bizirauteko bitarteko ekonomikorik ez badute (euren urteko diru sarreren batura batez besteko pentsioen urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizazio gabeko pentsioetarako estatuan legez bizitzeko irizpidea eskatzen den bitartean (gutxienez 10 urtez bizi izana -5 urtez ezgaitasunaren kasuan-, haietatik gutxienez bi eskaera egin aurre-aurretik), laguntza hauetan ezartzen den bakarra onuradunak EAEko udalen batean erroldatuta egotea da, erkidegoan bizitzeko baimena duten atzeritarrak, aterpetuak eta aberrik gabeak barne. Prestazio horiek pixkanaka murrizten dira, 5/1992 ELDa indarrean sartu ondoren indargabetuta geratu direlako eta, beraz, harrezkero alta berririk gertatu ez delako; horrela, ordura arte onartutako pentsioei baino ez zaie eutsi, oro har zenbateko handiagoa duten kotizazio gabeko pentsioak jasotzea hautatu ez badute.

Informazio eguneraturik ez dagoenez gero, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak kalkulatu du halako pentsioen jasotzaile kopuruak egonkor iraun duela 2007tik, urtean batez beste 1.341 lagun inguru. Haietatik, 886k "zahartzaroa" kontzeptuagatik eta 255ek "gaixotasuna"

kontzeptuagatik jasotzen dituzte. 2011n laguntzaren zenbatekoa, 2000z geroztik bezala, 149,86 € hilean da, eta pertsona horiek, gainera, ordainketa gehigarri bi dauzkate onartuta urtean; beraz, EAEko foru aldundien Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioen zenbatekoa, 2011n, gutxi gorabehera, 2,8 milioi euro da guztira.

**2.2.3. LISMI prestazioak**

Minusbaliatua Gizarteratzeko 13/82 Legean (LISMI) onartutako prestazioak gutxienez %65eko ezgaitasunak jota dauden 18 urtez gorako pertsonei daude zuzenduta, urtean pertsona bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren %70 baino baliabide gutxiago badaukate (euren ardurapeko pertsonak badauzkate, mendeko bakoitzeko %10 handitzen da). Subsidio horiek 26/1990 Estatu Legea indarrean sartu zenean indargabetu ziren. Lege haren bidez Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioak ezarri ziren. Dena dela, data horren aurretik subsidio horien onuradunak zirenek haien onuradunak izaten jarraitu ala kotizaziopeko pentsioa eskatzea hauta dezakete, baina ez da indargabetutako babes ekintza gehiagorik onartuko. Hori dela eta, Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako prestazioetan gertatu legez, LISMI prestazioen onuradunak urtetik urtera murriztu dira.

Laguntza horiek honako lau motetan jaso daitezke:

1. Gutxieneko diru sarrera bermearen sorospena (GDBS). Prestazio horren onuradunak %65etik gorako ezgaitasuna duten 18 urtez gorako pertsonak dira, haien baliabide pertsonalak Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoaren (IPREM) %70 baino gutxiago badira, edo %100ekoa euren ardurapeko pertsonak badauzkate.
2. Hirugarren pertsona bati laguntzeko sorospena (HPLS). Aldian aldiko prestazioa da, arestiko ataleko baldintzak beteta, %75etik gorako ezgaitasuna duten pertsonentzat.
3. Mugikortasun eta konpentsazio sorospena garraio gastuetarako (MKSGG). Ohiko bizilekutik at joateko sortutako gastuei aurre egiteko da. Pertsonak 3 urtez gorakoak izan behar dute, garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasun handiak eduki, %33tik gorako ezgaitasun maila izan, eta ez dute baliabide ekonomikorik izan behar.
4. Osasun laguntza eta farmaziako prestazioa. Foru aldundiek onartzen dute prestazio hau, baina Osakidetzaren osasun zerbitzuek burutzen dute. Beraz, ez dauka haietzako kostu ekonomikorik.

Prestazioa jasotzeko, pertsonak %33tik gorako ezgaitasun maila izan behar dute eta ez dute Gizarte Segurantza Sistemaren aplikazio eremuan bilduta egon behar. Zehazki, haren helburua onuradunen osasuna zaindu eta leheneratzeko zerbitzuak ematea da, kasu bakoitzean erabakitako osasun errehabilitazio eta farmazia laguntzaren bidez.

2008an (datuak dauden azken urtea) LISMIren 680 onuradunak honela banatu ziren EAEn: 603 lagun GDBSaren prestazioetan, 77 HPLSarenetan eta 28 MKSGGarenetan. Sorospen horien murrizketa garrantzitsua izan da, duela hamarkada bat 5.000 pentsio baino gehiago baitzeuden onartuta. 2008an prestazio horiengatik guztira 1,4 milioi euro ordaindu ziren, 2007an baino %8 gutxiago.

# 3 Txirotasuna eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak EAE-n

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru sarrera maila txikiagoko biztanleria kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera —bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak— marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeria prozesuak. Egun, txirotasunaz mintzatzeak errealitate mosaiko konplexu batera hurbiltzea esan nahi du. Ekonomia desberdintasunetik haratago, errealitate horiek “bazterkeria” kontzeptua biltzen dute, honela ulertuta: “gizarte eskubideak, batez ere lanerako eskubidea, baina baita hezkuntza, prestakuntza, kultura, osasun, etxebizitza duin eta gizarte babeserako eskubideak erabiltzeko ezintasuna edo ezgaitasuna”<sup>1</sup>.

EAE txirotasuna, marjinazioa eta gizarte bazterkeria borrokatzeko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren Aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarritzko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru sarrerak bermatzeko programak dira biak.

Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (txertaketarako enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

2009an Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea sartu zen indarrean. Haren helburuak honakoak dira: alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomoa izanda —haren kudeaketan gizarte eta enplegu zerbitzuek hartzen dute parte eta herri administrazioaren beste arlo batzuek ere laguntzen dute—; bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren funtzionamendu printzipioak eta egitura oinarriak ezartzea eta herritarrek prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskura ditzatela bermatzea, berdintasun eta zuzentasuneko irizpideen arabera, lurralde osoan era homogeneoan aplikatuko dela bermatzeko behar diren neurriak hartuz.

Lege berriak funtsezko berritasun bi dauzka:


1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) oinarritzko irizpideen arabera bereizitako modalitate bitan egituratzen da: elkarbizitza unitatean lanetik datozen diru sarrerak egotea ala ez egotea eta, bestetik, modalitate bakoitzaren txertaketarako hitzarmenaren arteko lotura mota.

2. Bigarren berritasuna Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) da. Haren xedea premia handiena duten pertsoneri —hots, diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrei— etxebizitza lortzea erraztea da. Horrela, prestazio horrek ordura arte Gizarte Larrialdiko Laguntzek (GLL) estaltzen zituzten premietako asko estali zituen, baina azkena ez bezala, eskubide bihurtu da; haiek sartzeak, bestalde, aukera emango du GLLei ezohiko izaera itzultzeko.

Eskumen esparuari lotutako beste elementu azpimarragarria eta funtsezkoa honakoa da: bai DBE bai EPO prestazio subsidiarioak dira eta, behar izanez gero, titularrari edo haren elkarbizitza unitateko edozein kideri legokiokeen indarreko legedian xedatutako baliabide eta prestazio ekonomiko mota guztien osagarriak. Horrela, prestazio horiek azken babes sarea dira eta, horren ondorioz, ezingo dituzte beste prestazio edo laguntza batzuek osatu.

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2011n, 418 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %7,2 gehiago. Honelaxe daude banatuta: 330,1 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentarako (guztizkoaren %79), 17,3 milioi Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (%4,1, behin-behineko datuak badira ere) eta 70,55 milioi euro Etxebizitzaren Prestazio Osagarri berrirako (%16,9), honen bigarren urtean.

IV.3.1. Grafikoa. Diru sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen gastuaren bilakaera (euroak milioika)



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzaren datuetan oinarrituta. Eusko Jaurlaritza.  
\* 2011ko GLLei buruzko datua behin-behinekoa da aurrekontuan sartutako gastuari baitagokio eta ez burututako gastuari.

<sup>1</sup> Gizarte Bazterkeriaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea.

### 3.1. Diru sarrerak bermatzeko sistemaren prestazioak

#### 3.1.1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak aurreko Oinarrizko Errenta izenekoa ordezkatu du. EAEn erroldatuta gutxienez urtebete eman duten pertsonen ematen zaie, oinarrizko premiei eta gizarteratze eta laneratzeko prozesutik datozei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute.

Laguntza hori jasotzeko premia egoeraren ziurtagiria —oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten dute— eta, salpuespenak salbuespen, txertaketarako hitzarmenetan parte hartu behar da, gizarteratzea eta laneratzeko eta premia egoera horretatik irtetea errazteko xedez. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko betekizun orokorren artean, erreferentziako urtean, 23 urtez gorakoa izan behar da eta jasotako zenbatekoa honakoa: hamabi hileko kuotetan lanbideen arteko gutxieneko soldataren %88ko urteko diru sarrerak bermatzeko behar dena, gehi haren %25 bigarren pertsonarentzat eta %10 gehiago pertsona bakoitzarentzat hirugarrenetik aurrera.

2011n 55.660 familiek jaso dute Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); hori aurreko urtean baino %1,2 gehiago da, orduan lagundutako elkarbizitza unitateak 55.020 izan baitziren. Lurraldeka, Bizkaiak dauka jasotzaile gehien, 36.887 guztira, EAeko guztien %66,3; Gipuzkoak, ordea, jasotzaileen %20,2 biltzen du eta Arabak %13,5. Bestalde, 2010ean (datu honi buruzko informazioa dagoen azkenengo urtea) etxebizitza unitate bakoitzeko batez besteko zenbatekoa hileko 456 euro izan zen, 2009an baino %4 gutxiago.

DBEren onuradunen profilari dagokionez, LANBIDEK jakinarazi du gutxi gorabehera %10ak hamar urte baino gehiago daramatzala laguntza hauek jasotzen. Talde honetatik euren pentsioa prestazio honekin osatzen duten pertsona jubilatuak kentzen baditugu, gainontzekoen artean gehienek lan egiteko adina daukate eta lan egiteko egoeran daude. Gainera, hauen %38k 40 urte baino gutxiago dauka eta ia hirutik bi emakumeak dira.

Beste alde batetik, DBE jasotzen dutenen %42k unibertsitateko ikasketak edo Batxilergoa amaitu ditu ala Lanbide Heziketako titulua dauka. Hala ere, LANBIDEK aurreikusitako laguntza hau jasotzen dutenen %12 bakarrik enplegua lortzeko aukera asko daukala eta berehala lan egiteko prest dagoela. Gainera, gehienek, %48, erdi mailako enplegarritasuna daukate.

2011n 330,10 milioi euro ordaindu dira Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta gisa (2010ean baino %4,9 gehiago). Hazkunde hau heterogeneoki banatzen da autonomia erkidegoko hiru lurraldeetan zehar. Horrela, hazkundea handiagoa izan da Gipuzkoan (+%11,4) eta Araban (+%9,3). Bizkaietan, berriz, euskal batezbestekoa baino txikiagoa da hazkundea (+%2,7).

2008-2011 urteen arteko bilakaera aztertzen badugu, gure erkidegoan DBE jasotzen duten pertsonen bolumenta %40 igo dela ikus dezakegu, 40.000 ingurutik 55.000ra pasatuz. Gainera, prestazio honen gastua bikoiztu da: 168tik 330 milioi eurora pasatu da (+%95,8).

#### 3.1.2. Etxebizitzaren Prestazio Osagarria


Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeko sistemaren funtsezko osagai bihurtu du eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko

#### IV.3.1. Koadroa. Diru sarrerak bermatzeko errenta: gastuaren bilakaera lurralde historiko bakoitzean. Euroak milioika

	2008	2009	2010	2011	% Var 09/10	% Var 10/11
Araba	19,43	30,27	40,16	43,88	32,7	9,3
Gipuzkoa	26,08	37,62	46,51	51,82	23,6	11,4
Bizkaia	151,78	194,84	228,15	234,40	17,1	2,7
EAE	168,56	262,72	314,82	330,10	19,8	4,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia.

#### IV.3.2. Grafikoa. EPO jasotzen duten titularren bilakaera hilabeteka eta lurraldearen arabera. 2010-2011



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila.

prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea da, hots, gastu bereziak estaltzera; horrela, beharrak direla eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldiari aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inola esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonen bano ezin esleituko zaizkiola baizik.

EPOren xehetasunak etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 12ko 12/2010 Dekretuak arautzen ditu. Hark xedatzen duenez, haren helburua honakoak estaltzea da: *“etxebizitzari lotutako beharrak, etxebizitza edo ohiko bizilekua alokatzeko gastuak, alokairu, berrakura, alokairukidetzak, ostatu eta gelen alokairuko modalitate guztietan”*.

Indarrean egon den lehen urtean, EPOk 51,107 milioi euroko gastua ekarri du eta 70,551 milioi euroko gastua 2011n (+%38). 2011ko abenduan jasotzaileen guztizko kopurua 18.323 izan da (2010eko abenduan baino %14,2 gehiago). Hauen artean %21,1 Araban bizi da, %56,1 Bizkaian eta %22,8 Gipuzkoan.

### 3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldiari aldikoak eta oinarritako premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta ematen diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horiek honakoei lotutako gastu zehatzei heltzen diete: ohiko etxebizitza edo bizilekua gozatu eta mantentzea, ohiko etxebizitza edo bizilekuaren epe luzerako

bizigarritasuna eta oinarritako ekipamendua (altzariak, linea zuriko etxetresnak, oinarritako instalakuntzak edo haiek egokitu edo konpontzeko gastuak), baita sistema publikoek estaltzen ez dituzten jantziari, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun arretari lotutako lehen mailako premiei lotuta dauden premia berezi, bat-bateko eta ezohikoak estaltzekoak eta, oinarritako gizarte zerbitzuen aburuz, gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko heldu behar zaien antzeko guztiak ere.

EPO abiatu ondoren, GLLek jatorrizko helburua berreskuratu dute eta haien aurrekontu partida asko murriztu da. Horrela, 2010ean (finkatutako informazioa dagoen azken urtea), hasiera batean, 17,3 milioi euro bideratu ziren laguntza horietara. Horiek, erantsitako 6,7 milioiekin batera, 24 milioi euroko gastua batzen dute, aurreko urteko 54,5 milioi euroen aldean. Hasiera batean, EAEko Aurrekontu Orokorretan 17,3 milioi bideratu dira berriro ere GLLetara. Hala ere, memoria ixterakoan ez da ezagutzen azkenik laguntza hauetara bideratutako zenbatekoa.


2010ean guztira GLLen 20.166 jasotzaile egon ziren, 2009an baino %47 gutxiago. Hauen artean 2.544 Araban bizi ziren (%12,6), 5.597 Gipuzkoan (%27,8) eta gainontzeko 12.025ak Bizkaian (%59,6). Pertsona onuradun bakoitzak urtean batez beste 1.202,75 € jaso zituen, 2009an baino %16,1 gutxiago.

## 3.2. Gizarteratzea errazteko programak

### 3.2.1. Hirugarren Sektorearentzako Laguntza Programa

*“649/2009 Dekretua, abenduaren 29koa, zeinen bidez Euskadiko gizarte esku hartzearen eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru laguntzak arautzen baitira”* delakoak eremu horretan ematen ziren diru laguntzak aldatu ditu; izan ere, haren xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei erakunde horiek, euren ekimenez, gizarte esku hartzearen eremuan, burutzen dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko

### IV.3.3. Grafikoa. Gizarte larrialdiko laguntzak: jasotzaile kopuruaren bilakaera lurraldearen arabera



**IV.3.2. Koadroa. Hirugarren sektorearentzako laguntza programa: adierazle nagusiak**

	2010		2011	
	Zenbakia	%	Zenbakia	%
Erakunde eskatzaileak	395	100,0	345	100,0
Diru laguntza jasotzen duten erakundeak	199	49,6	183	53,0
Proposatutako proiektuak	1.098	100,0	935	100,0
Diruz lagundutako proiektuak	444	40,4	404	43,2
1. Pertsonak, familiak, taldeak eta komunitateak	299		240	
2. Elkarrekin sendotu	93		88	
3. Ezagutzaren kudeaketa	52		76	
Eskatutako zenbatekoa (euroak milaka)	34.377	100,0	31.363	100,0
Esleitutako zenbatekoa (euroak milaka)	9.660	28,1	8.740	27,9
Proiektu bakoitzeko batez besteko zenbatekoa	22.000		21.633	

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak emandako datuetan oinarrituta guk egina.

ematen dizkien diru laguntza ekonomikoen esparrua arautzea da.

Diruz lagundu daitezkeen ildoei dagokionez, Dekretu horretan xedatutako diru laguntzak honako ildoetan sartzen diren jarduerak (eta ez langileen egiturei egonkor eusteak edo erakundeen azpiegitura fisikoetan inbertitzeak) jasoko dituzte:

1. Gizarte esku hartzeko jarduerak: pertsonen autonomia eta komunitateko txertaketa sustatu eta babestera zuzendutako jarduerak, batez ere esperimendazioa edo berrikuntza dakartenak eta, edonola ere, halakoak izateagatik, Gizarte Zerbitzuen Legean eta hura garatzeko araudian erantzukizun publiko gisa estandarizatu eta bermatutako prestazio eta zerbitzuen katalogoa osatzen ez dutenak.
2. Borondatezko ekintza eta gizarte esku hartzeko elkarrekin parte hartzea indartzeko jarduerak. Ildo honetan baino ez dira sartzen erakundeek bazkide edo langile gisa lotutako pertsonak hartzaile dituen jarduerak, erakunde horiek, borondatezko ekintzarako eta elkarrekin parte hartzerako bide gisa, berez gizarte balioa dutelakoan.
3. Gizarte esku hartzerako erabilgarria den ezagutza sortu eta eskuratzera zuzendutako jarduerak, hala nola prestakuntza programak, ikerkuntza proiektuak, argitalpenak egin eta hedatzea, dokumentazioari lotutako jarduerak edo gertakizun teknikoak, hala nola ikastaroak eta mintegiak.

2011ko balantzearen arabera 345 erakundek 935 laguntza eskatu zituzten; haietatik 404 proiektu hautatu ziren (guztien %43,2) eta batez beste 21.633 euro (2010ean baino %1,7 gutxiago) jaso zituzten. Guztira laguntzetan 8,74 milioi euro eman ziren (eskatutakoaren %27,9), aurreko ekitaldian baino %9,5 gehiago. Proiektu guztien artetik 240 pertsona, familia talde eta komunitateekiko eskuhartzeetara bideratu ziren, 88 elkarrekin sendotzera eta gainontzeko 76ak ezagutzaren kudeaketari lotutako ekimenetara.

**3.2.2. BETIKOLAN Programa**

Izaera esperimentalak daukan enplegu eta prestakuntza programa da. Etxeko arreta soziosanitario arloan kokatzen da eta 2010ean Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak programan aktiboki sartzera bideratu zen. Programan sartzeko baldintza, beraz, prestazio honen jasotzailea izatea zen, hala ere, emakumeen parte hartzea positiboki diskriminatu da. Hauei kontziliazioko aukera

eskaini zitzaizen kontratazioaren lehenengo hilabetera arte. Pertsona immigranteak ere positiboki diskriminatu dira sektore honetako ezkutuko lanak pertsona hauengan eragin handia baitauka.

Programaren finantzaketari dagokionez eta izaera esperimentalak daukanez, zuzeneko laguntzen bidez antolatu zen pertsona parte hartzaileak laguntzeko erantzukizuna zuten hirugarren sektoreko erakundeekin sinatutako lankidetzak hitzarmenetan babestuta eta parte hartutako gainerako sistemekiko koordinazioaren bidez (gizarte zerbitzuak, LANBIDE, Hezkuntza Saila eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Inklusiorako Zuzendaritza bera). Aurrekontua 1,38 milioi eurokoa izan zen. Bere aldetik, lan kontratuen finantzaketa EAEko Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren pertsona jasotzaileak edo pertsona langabetuak kontratatzeke izaera bereziko diru laguntzak emateko 2009ko azaroaren 25eko Aginduaren bitartez antolatu zen.

Orobat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuaren 2009ko urriaren 13ko Agindua argitaratu zen eremu soziosanitarioko langileei etxez etxeko arretari buruzko berriazko prestakuntza emateko diru laguntza deialdia egiteko helburuarekin. Prestakuntza Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeke Euskal Agentziak ikuskatu zuen. Honen zeregina pertsonen profesionaltasun ziurtagiria eskuratzeko behar bezalako gaitasun maila dutela egiaztatzea da. Deialdi honek 1,02 milioi euroko diru kopurua izan zuen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren aurrekontuaren kontura.

344 pertsonen amaitu zuten prestakuntza teoriko-praktikoa (480 ordu) eta ebaluatutako izan ziren. Azkenik, 321ek kontratazioko sarbidea izan zuten. Hauen artetik 252k lortu zuten guztinez 6 hilabeteko kontratua.

**3.2.3. Laneratzeko programen kudeaketa errazteko indartzeko programa**

Programa honen xedea oinarritzko gizarte zerbitzuetan teknikariak eta laguntzeko langileak kontratatzeke laguntza ekonomikoak ematea da, txertaketarako hitzarmenen eta txertaketarako beste programa batzuen kudeaketa errazteko. 2010ean (informazioa dagoen azken urtea), 192 teknikari eta 131 administrari (aurreko urteko kopuru bera) lanaldi osoan edo lanaldi erdian, EAEko udaletan, mankomunitateetan, koadriletan, partzuergoetan edo udaletako zerbitzu taldeetan kontratatzeke laguntzak



eman ziren. Erakunde horiei —EAEko udal gehienak biltzen dira hemen—, guztira 7,76 milioi euro eman zitzaizkien, aurreko urtean baino %3 gutxiago.

### 3.2.4. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

Azken urteetan, Espainiar Estatuan Laneratze Enpresa asko sortu dira. Alde batetik, hainbat autonomia erkidegok (hauen artean EAE) mota hau arautu dute eta onarpena eta berariazko diru laguntzak eman dizkiote; gainera, enpresa kopurua esponentzialki hazi da<sup>2</sup>.

Laneratze Enpresak definitzeko esan daiteke haien helburu nagusia lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzea dela. Haien ezaugarri nagusia bere gizarte helburu bikoitza da: alde batetik, enpresa eratu den jarduera ekonomikoa burutzea; bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

Gure erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak Laneratze Enpresak sortu eta irauteko laguntzak arautu ditu. Agindu hori laneratze enpresen kalifikazioa arautu, haietan sartzeko prozedura ezarri eta laneratze enpresen erregistroa sortzeko abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko ezarri zen. Aipatutako 305/2000 Dekretua azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak indargabetu zuen, Laneratze Enpresen araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko. Laguntza horien helburua halako enpresei euren ezaugarri eta premia berezietara egokitutako laguntza bideak eskaintzea da, haientzat berriaz diseinatutako laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak xedatuz. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru laguntzak eta laneratze enpresei euren, irauteko, zuzendutako diru laguntzak aurreikusten dira. Tresna horien bitartez, Eusko

### IV.3.3. Koadroa. EAE-ko laneratze enpresentzako laguntza programaren bilakaera. 2003-2009

	ERAKUND.	AURREKONTUA (euroak milaka)	ONURADUNAK
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
<b>GUZTIRA 2003-2010</b>	<b>276</b>	<b>49.485</b>	<b>2.511</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila.

Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide gisa, kontratu baten bidez laneratze enpresa batean sartzea bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago laneratze hitzarmen bat sinatetik eratoritzen da.

2003tik 2010era arte, Eusko Jaurlaritzak, laguntza lerro horren bidez, 49,5 milioi euro banatu ditu, urtean batez beste 35 laguntza eman ditu eta ia 2.500 lagunek jaso dituzte.

2010ean (informazioa dagoen azken urtea) diru laguntzak eman zitzaizkien 42 laneratze enpresei. Honek ahalbidetu du enpresa hauek 525 pertsona kontratatzea, merkatu normalizaturako biderako urrats gisa. 2010erako laguntzak 2,99 milioi eurokoak izan ziren eta 2010-2013 aldirako sinatutako laguntza konpromisoa, guztira, 9,38 milioi eurokoa izan da.

<sup>2</sup> Retolaza et al (2008): "Eficiencia en las empresas de inserción y apoyo público". Zerbitzuan aldizkaria, 2008ko abendua. Eusko Jaurlaritza.

# 4. Gizarte aurreikuspeneko sistema osagarriak EAE-n


EAE-n, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitopenean gizarte aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren %92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako %8 beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pensio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratueta, mutualitateeta, etab. EAEko BGAEei dagokien araudiaren arabera, erakunde horiek, derrigorrezko Gizarte Segurantzza osatzen duten aurreikuspen sistemen esparrutik kanpo, irabazi asmorik gabeko xede nagusia borondatezko eta gizarteko aurreikuspen modalitatea erabiltzea daukate, haien kideak edo ondasunak halabeharrezko edo aurreikusteko moduko inguruabar edo gertaeren aurka babesteko.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pensio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAE-n plan modalitate nagusi bi daude: enplegu edo lanbide aurreikuspenekoak, langileei zuzenduak, eta lan harremanen esparruan Lan Hitzarmen Kolektiboaren tresnaren bidez egituratuak; eta finantza erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, haietara edozein pertsona fisiko bazkideku daiteke. Bestalde, gure legedian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen planak. Haien bazkideak elkarte baten, sindikatu baten... kideak dira eta ez daude hain zabaldua.

## 4.1. Magnitude nagusiak

2010eko datuen arabera, EAEk 182 BGAE dauzka Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko BGAE Erregistroan inskribatuta, 2009an baino bi gutxiago. 1,27 milioi bazkide daukate (Gure erkidegoko biztanleriaren %58,5. Hala ere, kopuru handi honek ez ditu aurreikuspen planak dituzten norbanakoak ordezkatzen, izan ere, pertsona batek plan bat baino gehiago izan dezake BGAE bakar batean edo BGAE bat baino gehiago izan dezake, beraz, estatistika honetan behin baino gehiagotan kontabilizatuta agertuko da); haietatik, %57,8 banakako BGAEen bazkide dira eta %33,6 enplegu erakundeenak. Bere aldetik, ekarpenak 1,34 milioi eurokoak dira, ondarea 19.258 milioi eurokoa den bitartean (BPGd-aren %29,4, behin-behineko datuen arabera). Ondarea lan erakundeen

IV.4.1. Grafikoa. BGAEen bilakaera EAE-n.  
Oinarri urtea: 2002



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egina.

eta banakako bazkideen artean dago banatuta ia zati berdinetan.

Gure erkidegoko BGAEei dagozkien magnitude nagusiek EAE-n gizarte aurreikuspen osagarria ezartzeko prozesua moteltzeko joera daukate, haren forma nagusiari dagokionez, behintzat: BGAEak. Izan ere, 2010 izan da atxikimendu kopura jaitsi den (-%4,7) lehenengo urtea eta ekarpenak behera egin duten (-%6,7) bigarren urtea guztizko segida historikoan. Berriz, gure erkidegoko BGAEen guztizko ondarea %2,5 igo da 2009 urtearen aldean.

2011ko datu ofizialik ez egon arren, Euskadiko BGAEen Federazioak emandako datuek (ez dituzte kontuan hartzen Eusko Jaurlaritzako Erregistroan inskribatutako erakunde guztiak, baina bai gehienak) erakusten dute urte horretan atxikimenduen (+%2) eta ondarearen (+%1,6) hazkunde txikia gertatu zela, baina kuoten beherakada nabarmena (-%10).


Beste alde batetik, aurreikuspen planetan bazkideetutako taldearen adina kontu aipagarria da. Eusko Jaurlaritzaren "Gizarte aurreikuspen osagarria Euskadi 2007an" txostenak adierazten du, oro har, enplegu aurreikuspen planetan parte hartzen duen biztanleria banakako planetan parte hartzen duena baino gazteagoa dela.

IV.4.1. Koadroa. EAE-ko BGAE-en datu irmoak 2010-12-31an (euroak milioika)

	Zkia.	BAZKIDEAK	EKARPENAK	ONDAREA
Enplegu BGAE	51	427.079	522	9.968
Banakako BGAE	48	733.860	810	9.276
Gainerako BGAE	83	109.681	6	14
<b>BGAE GUZTIRA</b>	<b>182</b>	<b>1.270.620</b>	<b>1.338</b>	<b>19.258</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila.

## IV.4.2. Grafikoa. BGAEen bazkideak EAEn: Atxikimenduak eta guztizko biztanleengan duten pisua



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATen datuekin egindakoa.

## IV.4.2. Koadroa. BGAE-en magnitude nagusiak EAE-n

	2007	2008	2009	2010	% Var 07/08	% Var 08/09	% Var 09/10
Bazkideak*	1.241.510	1.332.721	1.333.743	1.270.620	7,3	0,1	-4,7
Ekarpenak (euroak milioika)	1.451	1.404	1.434	1.338	-3,2	2,1	-6,7
Ondarea (euroak milioika)	17.659	17.229	18.791	19.258	-2,4	9,1	2,5
BGAE kopurua	185	187	184	182	1,1	-1,6	-1,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren, Ekonomia eta Ogasun Saila.

(\*) Pertsona bera BGAE bat baino gehiagotan egon daiteke. Bikoiztasunak ezabatuko balira, atxikitako pertsonen benetako kopurua txikiagoa litzateke.

Bazkide guztien artetik 35 urte baino gutxiago dutenak banakako planetako parte hartzaileen (%16,2) ia bikoitza dira enplegu planetan (%30,7). Ondorioz, enplegu planetan 45 urtetik beherako biztanleak nagusitzen dira eta banakako planetan, aldiz, 45 urtetik gorakoak. Sexuari dagokionez, gizonak gehiengo dira pentsio osagarrien sistema pribatuetan; zehazki, BGAEetako bazkideen %60 dira gizonak. Kontrara, emakumeen afiliazioa Gizarte Segurantzaren sistema publikoan %41,3 izan da urte berean.

Sektore publiko eta pribatuari dagokionez, enplegu planetako bazkide gehienak, %72 inguru, sektore pribatuaren egiten dute lan. Hala eta guztiz ere, gizarte aurreikuspen osagarriaren ezarpenak askoz indar handiagoa dauka sektore publikoan enpresa pribatuaren baino. Euskadiko BGAEen Federazioaren arabera, 2011n enpleguko aurreikuspen planak zituzten herri administrazioetako langileak 119.000 baino gehiago ziren, ia langile publiko guztiak. Hori sektoreko lan hitzarmen kolektiboaren emaitza da, eta honakoak sortzea ekarri du: ELKARKIDETZA BGAE toki eta foru erakundearen esparruan, ITZARRI BGAE Eusko Jaurlaritzaren esparruan, eta estatuaren Administrazio Zentralaren Pentsio Plana administrazio zentralaren mendeko langile publikoentzat. Gizarte aurreikuspen mota horretako planak dituzten enpresa pribatuetako langileak, ordea, 300.000 baino gehiago izanda, EAEko ekonomia sektore pribatuko langileen %33 dira, ozta-ozta, Gipuzkoako Lurraldean, sektoreko lan hitzarmen kolektiboaren bidez, GEROA BGAE sortu zen arren. GEROA BGAEk 236.716 bazkide dauka 2011n.

BGAEek ematen dituzten prestazioak Gizarte Segurantzaren emandako prestazioen pentsio osagarriak

dira oinarrian: erretiro pentsioak, baliaezintasun pentsioak, alarguntza pentsioak eta zurtasun pentsioak. 2007ko BGAEei dagokien gastuaren %88 izan ziren, berriz, gaixotasunengatik (ABE) prestazioak %9 izan ziren eta iraupen luzeko langabeziagatik prestazioak %2. BGAEek pentsio gisa ordaindutako 349 milioi euroak Gizarte Segurantzaren 2007an EAEn emandako pentsioen gastuaren %6,1 izan zen. Kontuan izanda BGAEek EAEko biztanleen herena estaltzen dutela eta Gizarte Segurantzaren biztanleria osoa, estaldura berdina izango balitz, portzentaje hau %18 inguru izango litzateke. Azkenik, BGAEen garrantzi makroekonomikoa nabarmentzen da kudeatzen duten aktiboaren bolumena ikusten dugunean. Pentsio funtsekin gertatzen den bezala, finantzaketa sisteman garrantzi handia duten herrialde askotan —pentsioen funtsa handiek berebiziko garrantzia dute nazioarteko finantza merkatuetan ere— BGAEek kudeatutako ondarea garrantzitsua da errenta nazional gisa, 2010eko EAEko BPGd-aren %29,4, behin-behineko datuen arabera. Urte horretan bazkideek ordaindutako kuota BPGd-aren %2 dira eta Gizarte Segurantzaren kuota gisa ordaindutako funtsen %22,6.

## IV.4.3. Koadroa. Bgae-ak EAE-n. Sektorearen dimentsio ekonomikoa.

	2007	2008	2009	2010
BGAE kuota / BPGd %	2,18	2,07	2,23	2,05
BGAE ondarea / BPGd %	26,58	25,37	29,26	29,43
BGAE kuota / Giz. Seg. kuota %	26,22	24,29	24,48	22,65

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren, EUSTAT eta GSDOren datuetan oinarrituta guk egina.

## 4.2. Araubide fiskala

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietakoa bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezpen bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZaren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko). EAEn, zergari buruzko eskumenak Lurralde Historiko bakoitzeko foru aldundiek eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har, zenbakiko bazkideak egindako ekarpenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarritik ken daitezke<sup>1</sup>. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna gertatu aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren osoko errendimendutzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere<sup>2</sup>.

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2009ko bere txostenaren bidez emandako 2008ko PFEZaren likidazio datuen arabera, BGAEei eta gainerako aurreikuspen formulai egindako ekarpenengatik kenketa 1.171 milioi eurokoa izan zen, 2007an baino %2,4 gutxiago —hori EAeko urte horretako BPGd-aren %1,72 da, eta 2007an %1,81 izan zen—, eta aitorleen %44,2.

### IV.4.4. Koadroa. PFEZ-aren likidazioa: zerga oinarri orokorraren kenketa pentsio planetan eta BGAE-etan ekarpenak egiteagatik

	Zenbatekoa (euroak mil.)	Aitortzaileak		Batez besteko kenketa (€)
		Zenbakia	% guztira	
2006	1.173.729	502.393	46,5	2.336
2007	1.199.980	513.222	45,2	2.338
2008	1.171.013	517.456	44,2	2.263
ALD.-REN % 06/07	2,2	2,2	-2,8	0,1
ALD.-REN % 07/08	-2,4	0,8	-2,2	-3,2

Iturria: Zergak Koordinatzeko Erakundearen datuetan oinarrituta guk egina.

Horrek, batez beste, 2.263 euroko kenketa dakar, aurreko urtean baino %3,2 gutxiago, honako balioekin: errenta mailarik baxuenen (30.000 euro arteko oinarri likidagarria) batez besteko ekarpena 1.558 eurokoa izan zen, eta zergapekoen %37,25ek baino ez zituzten ekarpenak egin; 30.000 eta 90.000 € arteko oinarria zuten zergapekoen batez besteko ekarpena 3.300 eurokoa izan zen, eta haietatik %69,5ek egin zituzten ekarpenak; eta errenta mailarik altuenetan batez besteko ekarpena 8.700 eurokoa izan zen, eta zergapekoen %69,7k egin zituzten ekarpenak.

<sup>1</sup> Ondarearen gaineko Ezohiko Zergari dagokionez, bazkidearen eskubide finkatuak soilik zenbatu ahal dira zerga horren aitorpena aurkezteko betebeharra dagoen zehazteko, nahiz eta eskubide salbuetsi gisa jo, eta hortaz, horren zerga-oinarriaren parte ez izan.

<sup>2</sup> Prestazioa kapital gisara hartzen bada ere, % 40ko txikipena du; oster, errenta-izaera badu, zerga-oinarriari integratzen da osorik.

# 05

EAEko JARDUN ARAUGILEA



**MEMORIA**  
EAEko sozioekonomikoa  
2011

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAeren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarritzko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorritz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskurantzari buruzko legeak eta erakunde komunaren eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia erkidegoko erakunde komunaren eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa, aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarrari izendatzen du lege lerruna duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuak, lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorritz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Agintzen du beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokiela arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

Esparru honetan, **Eusko Legebiltzarrak**, bere funtzio legegilea betetz, 2011n 6 lege onetsi zituen guztira, aurreko urteko kopuru bera.

Ekimen legegilea, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, hauen proposamena izan daiteke:

- Legebiltzarreko taldeena, edo legebiltzarkide batena, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Jaurlaritzarena.
- Lurralde historikoak ordezkatzeko dituzten erakundeena.
- Herri ekimen legegilearena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean lege proiektua izena jasotzen du; gainerako kasuetan, lege proposamena da.

Hona hemen **2011n Eusko Legebiltzarrak onetsitako legeen edukiaren laburpena:**

- **1/2011 Legea, otsailaren 3koa, Droga Mendetasunetako Prebentzio, Asistentzia eta Gizarteratzeari buruzko Legea aldatu zuena.**

Euskal Autonomia Erkidegoan, tabakoaren kontsumoa Droga Mendetasunetako Prebentzio, Asistentzia eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Euskal Legean araututa dago; 2006ko urtarriletik aurrera, Tabakismoaren aurkako osasun neurriei buruzko eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Estatuko Legeak arautzen du.

Lege aldaketa honen xedea Eusko Legebiltzarraren 18/1998 Legea eraldatzea da, tabakoarekin zerikusia duten gaietan, Osasunaren Mundu Erakundeak, Europar Batasunak eta estatuaren oinarritzko legeriak osasun publikoaren eremuan planteatzen dituzten exigentziak bete ahal izateko.

Horretarako, hemen ondokoak arautzen dira: tabakoaren kontsumoaren publizitatea eta sustapena mugatzea; tabakoaren hornidura eta salmenta mugatzea; tabako kontsumoen mugapena, besteengan eragina duenean; arau hausteen eta zehapenen araubidea; eta tabakoaren ohitura uztea errazten duten neurriak.

- **2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizari buruzkoa.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, 10.10 artikuluan, adierazi zuen EAeren bakarreko eskumena dela "barne uretako arrantza, itsaski bilketa eta akuikultura, eta ibaietako eta lakuetakoko arrantza eta ehiza".

Lege honen helburua ondokoa da: Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza arautzea, ehiza-espezieak babestea, kontserbatzea eta sustatzea, eta haien aprobetxamendua antolatzea, iraunkortasun irizpideekin, eta ingurune naturalaren gainerako erabilerekin bateragarri izanik, baita ehizaren gizarte-errotzea zaintzea eta garatzea ere, eta ehiztariek ingurune naturalaren kudeaketa iraunkorrean parte har dezatela.

Arauketa honek kontuan izaten du foru erakundeak direla, Autonomia Erkidegoaren Erakunde Erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea dela bide, gai honetan erkide diren erakundearen arauak garatzeko eta gauzatzeko eskumenak dauzkatenak.

- **3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa.**

Lege honek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zuen, administrazio izaerako erakunde autonomo gisa. Lege hau lau ataletan egituratzen da. Haietan, izaera, xedeak eta funtzioak, gobernu organoak, bere langileek bete behar duten araudia, eta erakundearen araubide juridikoa azaltzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek 2010eko ekitaldirako onetsi zituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bigarren xedapen gehigarria

(Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortu zuena) indargabetu zuen.

• **4/2011 Legea, azaroaren 24koa, sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko Legea aldatu zuena.**

Lege honen bidez, aldaketa bat egin zen Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema kudeatzeko ereduari, inklusio aktiboko estrategia integrala ezartzea lortzeko. Estrategia horrek, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko neurriekin batera, benetako laneratzea lortzeko bestelako neurriak artikulatu zituen.

Helburu horrekin, eta prestazioak erakunde bakar batek emateak gobernantzan, eraginkortasunean eta kontrolean eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari bideratu zaizkio eskubidearen prestazio ekonomikoak (hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria) izapidetzeko eta ebazteko eskumenak, baita gizarteratze hitzarmenak egitea, proposatzea, negoziatzea, sinatzea eta jarraipena egitea ere.

• **5/2011 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legea aldatu zuena.**

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzazko Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bat egina onartu zuena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legea erregularizatu, argitu eta harmonizatu zen (maiatzaren 29ko 13/1998 Legea).

Orain, lege honen bidez, aldaketa berriak egin dira, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren konfigurazioaren ondorioz. Era berean, araudia aldatzeko eta eguneratzeko tresnetan eta tasak arautzeko eta berriak sortzeko eragina duten beste aldaketa batzuk egin dira.

• **6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onetsi zituen.**

Euskal EGABek, Eusko Legebiltzarraren kontsulta-erakundea denez, gero, 2011n onartutako legeetako biri buruzko iritzia eman zuen:

• Droga Mendetasun gaietan Prebentzio, Asistentzia eta Gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketako lege-aurreproiektuari buruzko 11/10 Irizpena (1/2011 Legea).

• Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatu zuen lege-aurreproiektuari buruzko 7/10 Irizpena (4/2011 Legea).

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak**, bere ahalmen araugilea erabiliz, 2011. urtean 282 dekretu onartu ditu guztira.

Euskal EGABek, Jaurlaritzaren kontsulta-erakundea den aldetik, 2011n onartutako dekretuetako 6ri buruzko irizpena egin zuen:

• 1/10 Irizpena, funtzionarioak eta lan-kontratadun langileak Osakidetzako estatutu-langile gisa sartzeko prozedura ezarri zuena (martxoaren 29ko 67/2011 Dekretua).

• 9/10 Irizpena, Gizarte Larrialdiko Laguntzak arautu zituen Dekretu Proiektuari buruzkoa (4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa).

• 14/10 Irizpena, Gizarte eta Osasun Arretako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa (apirilaren 5eko 69/2011 Dekretua).


• 15/10 Irizpena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren Dekretu Proiektuari buruzkoa (225/2011 Dekretua, urriaren 26koa).

• Telelaguntzako Zerbitzu Publikoaren Dekretu Proiektuari buruzko 5/11 Irizpena (144/2011 Dekretua, ekainaren 28koa).

• 8/11 Irizpena, Atmosfera modu larrian kutsa ditzaketen jarduerak garatzen diren instalazioak arautzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa (278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa).


2011n ere Euskadiko aurrekontu araubidean indarrean dauden legezkotako xedapenei buruzko testu bat eginaren

**V.1. Grafikoa. Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren jardun araugilea**



Iturria: Geuk egina, EHAA inoarriritua.

**V.2. Grafikoa. Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek onartutako foru arauak**



Iturria: geuk egina, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldirizari ofizialekin oinarrituta.

dekretu legegilea onartu zen. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren fundazio eta partzuergoetan aplikatu beharreko aurrekontu araubidea arautzen du (1/2011 Dekretu Legegilea).

**Lurralde historikoetako Batzar Nagusiei** dagokienez, 2011. urteko araugintza, onetsitako foru arauen arabera neurtuz gero, aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da.

Zehazki, Araban 19 foru arau onartu dira 2011n, aurreko urtean baino gehixeago (aurreko urtean 16 izan ziren). Gipuzkoan ere 7 arau onartu dira, eta 2010ean 5. Baina Bizkaian, 2011. urtean, onartutako arau kopurua nahiko jaitsi da: 5 izan dira, eta aurreko urtean 8.



# 06

LABURPENA ETA GOGOETA OROKORRAK



**MEMORIA**  
EAEko sozioekonomikoa  
2011

# 1. Laburpena

## 1.1. Demografia eta inmigrazioa

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak 2011ko urtarrileko erreferentziari buruz emandako azken datuen arabera, biztanle kopuruak 2000n hasitako goranzko bideari jarraitu dio, hazkundera gero eta txikiagoa bada ere. Zehazki, 2011n, biztanle kopurua 2.184.606 pertsonakoa da (+%0,3, 2010az geroztik), hau da, 6.267 pertsona gehiago aurreko urtean baino eta ia 60.000 gehiago 2005ean baino. Lurralde historikoei dagozkien datuek erakusten dute biztanleria gehiago areagotu dela Araban (+%0,6 azken urtean), eta gutxiago Gipuzkoan (+%0,3) eta Bizkaian (+%0,2).

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, Europar Batasuneko biztanle kopurua 502,5 milioi da 2011ko urtarrilean. Hau da, 2010eko urtarrilean baino 1,4 milioi gehiago. Milako 2,7ko hazkunde honi esker (aurreko urtean milako 2,8koa izan zen), 1960az geroztik dagoen goranzko joera etengabea beste urte batez mantendu da. 1960an gaurko Europar Batasuneko biztanle kopurua 400 milioi zen. Beste urte batez, bilakaera positiboa inmigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren %38 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkunderari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

EAEn, 2010eko behin-behineko datuen arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren aldakuntza, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen arabera, migrazio mugimenduak aintzat hartu gabe) zazpigarren urtez jarraian positiboa izan da; hori gure erkidegoan ez zen gertatu 1986az geroztik: urte horretan 21.159 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino %1,1 gehiago, eta 18.608 heriotza, 2009an baino %5,3 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa +2.551koa izan da, hots, milako 1,1ekoa. EAeko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezear, azkenean ere badirudi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan. 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo positibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an saldirik txikienera iritsi zen, urte hartan EAek 2.000 biztanle gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen.

Beraz, ikusten denez, saldo begetatiboa positiboa izan da 2010ean, jaiotzak apur bat areagotu direlako eta heriotzak gehiago gutxitu direlako: +%1,1 eta -%5,3 hurrenez hurren. Gainera, 2010ean joerak ezberdinak dira lurraldez lurralde: Bizkaiak, saldo positiboak berreskuratzeko atzeratuago egonda, urte horretan 148 biztanle irabazi ditu, behin-behineko datuen arabera, Gipuzkoak eta Arabak beste urte batez euren joera positiboak sendotu dituzten bitartean, hurrenez hurren, 1.210 eta 1.033 biztanle gehiago izanik.

Bestalde, EUSTATen 2010ari buruzko Migrazio Mugimenduen Estatistikak 13.028 laguneko hazkundera zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino %2 gutxiago), eta hamaika urtez jarraian migrazio saldoa positiboa izan da. Lurraldeka, Bizkaiak, 6.562

lagun irabazita, migrazio saldirik handiena dauka zenbaki absolutuetan, baina %11 jaitsi da 2009aren aldean. Bestalde, Arabak 3.902 lagun irabazi ditu (+%6) eta Gipuzkoak 2.564 (+%17). Era berean, azken 20 urteetan hirugarren urtez jarraian EAEn beste erkidegoetatik iritsitako inmigratio gehiago gertatu dira haietarako emigratioak baino, eta horrela Estatuarekiko migrazio saldoa positiboa izan da (+3.686).

Bestalde, Udal Erroldaren datuen arabera, azken urtean EAEn bizilekua duten biztanle atzerritarrek gora egin dute. 2005. eta 2011. urteen artean EAEn erroldatutako atzerritarren bolumena bikoiztu da. 2005ean gure erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren; 2010eko urtarrilaren 1ean udal erroldak 144.551 zenbatu zituen, aurreko urtean baino %3,7 gehiago (2011rako behin-behineko datuekin eta 2010erako behin betiko datuekin). Herritar etorkinen hazkunde hori biztanleria osoan duten pisu gero eta handiagoan islatzen da: 2011n atzerritar biztanleriaren pisua %6,6koa zen EAEn (eta %8koa, atzerrian jaiotako biztanleria kontuan izanez gero, nazionalizatutako pertsonak ere kontuan izanik alegia) eta Estatuan %12,2koa.

Beraz, ikusten dugu EAeko datua Espainiako batezbestekotik oso urrun dagoela oraindik (erroldaren azken eguneraketan 5,7 milioi atzerritar dituen, eta ia 7, herrialdekanpo jaiotakoak kontuan izanik), eta batez ere Balearretatik, Valentziatik eta Madrilatik. Azken hiru erkidego horietan atzerritarrek biztanleriaren oso portzentaje garrantzitsua dira.

Eusko Jaurlaritzaren 2010eko "EAEn bizi diren Atzerritar Etorkinen Inkestaren" arabera, 16 urtetik gorako biztanlerian, atzerritar gehienak, %22,2, 2005 eta 2006. urteen artean etorri ziren gure erkidegora. Beraz, 4 eta 5 urte bitartean daramatzate EAEn. Denbora-tarte hori baino lehen eta beranduago etorritako biztanleriak gero eta pisu txikiagoa dauka, denboran urrundu ahala. Guztira, atzerritarren gune nagusiak, %42,2ak, 2 eta 6 urte bitartean daramatza EAEn. %33,3ak 6 eta 9 urte artean, eta %24,3 inguruk 10 urte edo gehiago. Inkesta egin den erreferentziako datan %4,6ak bakarrik daramatza bi urte baino gutxiago. Horrek azken urteetan atzerritar berriak erakartzeko erritmoaren gainbehera handia berresten du.

## 1.2. Hezkuntza eta hezkuntza sustapena

EUSTATen datuen aurrerapenaren arabera, 2011/2012 ikasturtea EAEn unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan matrikulatutako 349.095 ikasleekin hasi da guztira (helduentzako hezkuntza kontuan izan gabe). Beraz, hezkuntza berria dago, aurten %1ekoa (aurreko ikasturtean baino 3.361 ikasle gehiago), hezkuntza berezia kontuan izanez gero, eta %2,3koa, kontuan izaten ez badugu (347.995 ikasle).

Bigarren kasua kontuan izanik (hau da, hezkuntza berezia kanpoan utzita), gehikuntzaren azalpena da beheko mailak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa

(DBHO) eta irakaskuntza ertainak gehitu direla. Beheko mailen kasuan, 2011-2012 ikasturtean, EUSTATen behin-behineko datuen arabera, 288.119 ikasle zeuden matrikulatuta (+%2), Haur Hezkuntzan 95.563 (+%0,8), Lehen Hezkuntzan 120.284 (+%2,6) eta DBHn 72.272 (+%2,5). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasle kopurua %3,9 igo da. Gehikuntza handienak maila ertaineko LHn (%7) eta goi mailako LHn (%4,1) gertatu dira. Batxilergoa ere gehitu da, baina neurri txikiagoan (%2,5).

2011-12 ikasturtean irakaskuntza ertainetan ikasten duten 59.876 ikasleetatik 29.485ek, hau da, %49,2ak, batxilergoa aukeratzeko dute derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren. %50,8ak lanbide heziketa aukeratzeko dute eta gainerakoek zereginen ikaskuntza.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2009-10 biurtekoan, EAEn unibertsitateko ikasketetan 12.375 pertsona graduatu ziren, EUSTATen datuen arabera. Denetatik, %83,6 1. eta 2. zikloetako ikasketetan graduatu ziren (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniariak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniari teknikoak), %1,2 gradu ikasketetan<sup>1</sup> eta %15,1 gradu ondokoetan (hirugarren zikloa edo doktoregoa, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren (LOU) arabera, eta GHEEtik eratorritako gradu ondoko programa ofizial berriak (master ofizialak eta doktoregoa)).

Zentroen jabetzaren arabera, ikasleen %74 unibertsitate publikoan graduatu da, eta %26a pribatuetan.

Graduazioen %59,6 emakumei dagozkie, eta %40,4 gizonei. Emakumeen graduazio maila handiagoa da ikasketen mota guztietan: lehen eta bigarren zikloak (%59,1 emakumeak dira), gradua (%89,3) eta gradu ondokoak (%60,4).

Graduko ikasketetan graduatutako pertsonen kopurua txikia izan zen (150). Titulazio horiek unibertsitate pribatuetan soilik eskaini ziren. Gradu ondoko ikasketetan graduatutako pertsonen kopurua (masterrak eta doktoregoak) 1.879 izan zen: %60,4 unibertsitate pribatuetan eta %39,4 publikoetan.

Lehen eta bigarren zikloko eta graduiko ikasketei dagokienez, graduatutako pertsona kopuruak gora egin du 2008-09 eta 2009-10 ikasturteen artean, %3,2 (%4,5 gizonetan eta %2,4 emakumeetan). 10.496 pertsona graduatu dira (aurreko ikasturteko 10.170en aldean): 6.249 emakume eta 4.247 gizon.

2009-10 ikasturtean, graduazioaren sakoneko analisia, titulazioen arabera, egiten badugu, ikusiko dugu lehenengo 25ak ondoko hauek izan zirela:

- 300 pertsona baino gehiago graduatuta: enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentziatura (748 ikasle graduatu), enpresa zientzietako diplomatura (682), haur hezkuntzako irakasle eskola (593), lehen hezkuntzako irakasle eskola (401), ingeniari tekniko (399), ingeniari tekniko mekanika espezialitatean (388), erizaintzako diplomatura (380), psikologiako lizentziatura (314), industri antolatutako ingeniari (309), gizarte heziketako diplomatura (308), ingeniari tekniko industria elektronikaren espezialitatean (306).

- 300 pertsona baino gutxiago graduatuta: zuzenbideko lizentziatura (292), ingeniari informatikoa (265), gorputz heziketako irakasle eskola (239), arte ederretako lizentziatura (210), gizarte laneko diplomatura (195), kudeaketa informatikako ingeniari tekniko (187), medikuntzako lizentziatura (184), atzerriko hezkuntzako irakasle eskola (181), kazetaritzako lizentziatura (169), psikopedagogiako lizentziatura (167), arkitektura (163), turismoko diplomatura (163), telekomunikazioetako ingeniari (149), hezkuntza bereziko irakasle eskola (113).

Hezkuntzako adierazleei dagokienez:

- Eskolatzeko itzaropena. Espainiako Hezkuntza Kopurutan, 2012ko Edizioa, MEC txosteneko datuen arabera, 2009-10 ikasturtean, espainiar estatuan sei urteko ikasle batek (beraz, nahitaezko eskolatzeko hasi berri duen ikasle batek) eskolako 14,7 urteko bizi-itzaropena du. Tasarik handienak EAEn eta Gaztela eta Leonen daude: 15,7.

Nazioarteko konparazioa egiteko datuak Hezkuntzaren Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren txostenean jasota daude, Hezkuntzaren adierazleen estatuko sistema (2011), 2009. urteari buruzkoa. Eskolako bizi-itzaropena bost urterekin neurtzen da ELGAKo kide diren edo hari elkartuta dauden Europar Batasuneko herrialdeetan. Espainiak 17,2 urteko eskolako bizi-itzaropena dauka. Beraz, Italia, Irlanda, Erresuma Batua, Austria, Eslovakia eta Frantziaren gainetik dago, eta Hungaria, Alemania eta Txekiar Errepublika baino apur bat beherago. Eskola-bizitzako itzaropenik handiena daukaten herrialdeak Finlandia eta Belgika dira: 21,1 eta 20,1 urte, hurrenez hurren.

- Eskolatzeko tasa garbia bost urterekin (haur hezkuntza). Hezkuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionalaren txostenaren datuen arabera (2011ko hezkuntzaren adierazleen estatuko sistema), 1998-99 eta 2008-09 urteen artean haur hezkuntzako eskolatzeko tasa garbiak gehitu dira. Beraz, bigarren zikloko adin teorikoetan eskolatzeko ia erabatekoa da. Estatuko batezbestekoak hauek dira: hiru urterekin %97,9, lau urterekin %99,2 eta bost urterekin %98,8.

Horren ondorioz, espainiar estatua eta EAE, 2008an, Europar Batasuneko eskolatzeko tasarik handienetako herrialdeen artean zeuden hiru eta lau urteko umeentzat.

- Ikasleak taldearen eta irakaslearen arabera. ELGAK argitaratu dituen azken datuek, 2009ko datuekin, erakusten dute irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEn erregistratutakoak baino handiagoak direla. Haur Hezkuntzan 14,3 eta Lehen Hezkuntzan 16, eta EAEn, EUSTATen arabera, oinarrizko hezkuntzan (haur eta lehen hezkuntza) 12,5 izanik; bigarren hezkuntzan 13,5 (EAEn 9,7), eta goi mailako tertziarioan 15,3 (EAEn 13,5).

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastu partida, 2011ko aurrekontuetan, 2.573 milioi eurokoa da. Horrek %6,5eko gutxikuntza dakar aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Gastu hori EAeko BPGaren %3,93 da, 2010ean izandako portzentajea baino 0,28 puntu gutxiago beraz.

<sup>1</sup> Gogorarazten dugu 2008-09 ikasturtean hasi zirela Goi mailako Hezkuntzako Europako Eremua (GHEE) eraikitzeke erabakietatik eratorritako ikasketak eskaintzen.

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2009koak, hezkuntza administrazioen gastua BPGaren aldean %4,4 da EAEn (%3,6 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,7 unibertsitateko hezkuntzan) eta %4,3 estatuan (%3,2 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,97 unibertsitateko hezkuntzan).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastuaren ratioa, ikasle bakoitzeko (ikasleak guztira, hau da, araubide orokorrekoak nahiz berezikoak (hizkuntzak, musika, dantza, ...)), 2009 eta 2010. urteen artean jaitsi egin da: 6.347 eurotik 6.066 eurora. 2011. urterako datua ez dago eskuragarri, 2011ko unibertsitate matrikulazioari buruzko informaziorik ez daukagulako.
- *Espainiako hezkuntza kopurutan, 2007-08. MEC* txostenaren datuen arabera, ikasle bakoitzeko (publikoa eta hitzartua) gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, lanerako prestakuntza kontuan izan gabe, 2009. urtean, EAEn 7.595 eurokoa da. Beraz, gure erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena da. Estatuko batezbestekoa 5.692 eurokoa da.
- Ikasleen adinaren egokitasuna. Lehenengo adinetan arreta handia ipini behar da, eskolako atzerapenak eta, horrenbestez, desegokitzeak, urteetan zehar gehitzen eta pilatzen direlako, eta eskolako porrota sorrarazi ahal dutelako. MECen Hezkuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionalaren datuen arabera, 2008-09 ikasturtean, lehen hezkuntzako hirugarren eta bosgarren mailetan (8 eta 10 urte) estatuko portzentajetik gorako egokitasun tasa daukaten autonomi erkidegoak hauek dira: Kantabria, Katalunia, Valentzia, Extremadura, Galizia, EAE eta Errioxa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aztertu diren adinetan (12, 14 eta 15 urte), aztertu diren hiru urteetan estatuko batezbestekotik gorako egokitasun tasa duten autonomi erkidegoak hauek dira: Asturias, Kantabria, Katalunia, Galizia, Nafarroa eta EAE. Hala eta guztiz ere, EUSTATen arabera, 2008-09 ikasturtean (dauzkagun azken datuak), erreferentziako biztanleri taldearen adinak gora egin ahala, egokitasun portzentajeak behera egiten du. Horrela, 13 urteko biztanle guztietatik, teoriar dagokien ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleen portzentajea %82,9ra jaitsi da. 17 urteko biztanleria guztitik, teoriar dagokion ikasturtean %59a dago matrikulatuta.
- Eskola behar baino lehen uztea. Europa 2020 Estrategiaren helburu nagusia eskola behar baino lehen uztea %10era murriztea da, beranduenez 2020. urterako. 2009. urtean portzentajea %14,4 zen. EUROSTATEk argitaratutako azken datuen arabera, Espainian eskola uztearen tasa 2009. urtean %28,4 izan zen (aurreko urtean, %31,2). EB15eko herrialdeetan batezbestekoa %15,4 zen. MECeko Hezkuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionalaren hezkuntzako adierazleen estatuko sistemaren txosteneko datuen arabera (2011ko edizioa), estatuko portzentajea 2009. urtean %31,2koa zen, eta 2010ean 2,8 puntu murriztu zen, %28,4raino. Eskola behar baino lehen uzteko portzentaje txikiak, 2010ean, EAEn (%12,6), Nafarroan (%16,8) eta Madrilen eta Asturiasen (%22,3) daude.
- DBHko, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketetako eta goi mailako ikasketetako graduazio tasa gordinak.
- Titulatuena tasa eta eskolako porrotaren kontzeptua DBHko hezkuntza errendimendua baloratzeko modu

orokorrean erabiltzeak helburu espezifiko gisa sartzea gomendatu zuen. Horrela, DBH arrakastaz amaitzen duten ikasleen kopurua gehitzea (edozein adinetakoak izanik ere) lehenetasuna da hezkuntza komunitate osoarentzat.

MECen Espainiako Hezkuntza Kopurutan, 2012ko Edizioa, txostenaren arabera, DBHko graduazioko tasa gordinik handienak daukaten autonomi erkidegoak hauek dira: Asturias (%89,4), EAE (%87,8) eta Kantabria (%86,5).

LHko goi teknikarien tasarik handienak dauzkatenak hauek dira: EAE, %33,2, Galizia, %23,6, Asturias, %22,5, eta Katalunia, %22,2. Diplomatuena tasarik handienak Gaztela eta Leonen (%28,1) eta EAEn (%24) daude. Lizentziatuena tasarik handienak Madrilen (%29,6), Nafarroan (%27,1) eta EAEn (%23) daude.

- Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntzako graduatuak, 20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko.

EAEn etengabeko aurrerapenak estatuko nahiz Europako lehenengo postuetan jartzen du. Horren arrazoia da, neurri handi batean, EAEn goi mailako lanbide heziketa duten pertsona asko dagoela (CINE 5B), estatuko batezbestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa. Hain zuzen ere, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eta unibertsitateko irakaskuntzak bereiztuz gero, ikusiko dugu unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan graduatutako pertsonak (goi mailako prestakuntza zikloak) %10,8 direla, eta unibertsitatekoetan %13,5. Estatuko batezbestekoa, berriz %3,8 eta %8,7 dira.

Sexuen arabera, EAEn Zientzia eta Teknologiako Goi Hezkuntzako graduazio tasa, 2008-09 ikasturtean, %34,2 da gizonentzat, eta %14,1 emakumeentzat. Estatuko batezbestekoa hauek dira hurrenez hurren: gizonen %17 eta emakumeen %7,8.

EAEari dagokionez, eta unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak (goi mailako prestakuntza zikloak) eta unibertsitateko irakaskuntzak banakatuz gero, emakumeen graduazio ratioak (%3,8 eta %10,3) gizonenak baino txikiagoak dira (%17,5 eta %16,7). Goi mailako prestakuntza zikloetako graduazioan dagoen ezberdintasuna bereziki esanguratsua da.

- Helduen ikasketa-maila.

IEaren Hezkuntzako adierazleen estatuko sistemaren txosteneko datuen arabera, 2011ko ediziokoak, 2009. urtean estatuko helduen (25 eta 64 urte artekoak) erdia baino gehiagok nahitaezko ikasketak baino ikasketa handiagoak zeuzkan (%51,8). EAEn portzentaje hori %54,8ra iristen da.

Kontuan izan den populazio osoan, eta 25 eta 34 urte arteko tartean, nahitaezkoak diren ikasketak baino goragokoak bukatu dituzten pertsonen portzentajetik handiena duten autonomi erkidegoak hauek dira: EAE (%81,9), Nafarroa (%79,2) eta Madril (%74,6). Estatuan portzentaje hori %64,1 da.

LGako herrialdeetan, 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %73a gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etapara iritsi da.

### 1.3. I+G+b Jarduerak eta IKTak Ikerketa eta Garapena (I+G)

EUSTATen arabera, I+G jardueretan 2010. urtean egindako gastua 1.360 milioi eurokoa izan da, eta horrek aurreko urteko kopuruaren aldean %6,2ko hazkunde esan

nahi du. Gastu hau BPGaren %2,08 da. Horrela, EAE estatuko batez bestekoaren (%1,38) eta EB27ko batez bestekoaren (%2,01) gainetik dago I+G gaian egindako esfortzuan, 2009ko datuekin, baina gaian erreferentzia diren herrialdeen azpitik.

I+G alorrean enpresek gauzatu dutena EAEn (Euskal Teknologia Sareko zentro teknologikoak kanpo utzita) Estatuan sektore honetan egindakoa baino altuagoa da. EINen arabera, enpresek I+G gaian egindako gastuaren %51,5 gauzatu dute (EAEko datua: %67). Halere, kontuz ibili behar dugu informazio hori interpretatzerakoan, Frascatiren Eskuliburuaren metodologiak talde honetan batez ere finantzazio pribatua daukaten teknologi zentroak sartzen baititu. EB-27an, EUROSTATen arabera, enpresek gastuaren %61,4 egiten dute 2009an, baina lehen azaldutako kautela kasu honetan ere kontuan izan behar da.

I+G gaian egindako gastuaren finantzazioari dagokionez, azken urteetan sektore pribatuak edukitako pisua apur bat galdu dela ikusi bada ere, sektore pribatua da oraindik ere finantzazio iturri garrantzitsua. Sektore pribatuak I+G gaian egindako gastu osoaren %54 finantzatzen du, eta Administrazioak, berriz, %40. Gauzak horrela, EAE Lisboako helburutik 12 puntura dago: I+Gn egiten den gastu osoaren %66 fondo pribatuekin finantza dadila. I+Gn egindako gastuan finantzazio pribatuko ratio altuak edukitzeagatik nabarmentzen dira, besteak beste, Japonia (%78,2), Hego Korea (%72,9), Finlandia (%68,1), EEBB (%67,3), Alemania (%66,1), Danimarka (%60,3) eta Suedia (%58,8).

I+Gko jardueretan lanean hartutako pertsona kopuruak gorantz egiten jarraitzen du. Lanaldi osoko kopuru baliokideetan neurtuta, 2010. urtean lanean zegoen biztanleriaren %18 zen, Estatuan erregistratutakoaren (%12) eta EBn erregistratutakoaren (%11,5) aldean milako horrenbeste altuagoa. Gainera, lurralde dinamikoetan erregistratzen diren balioetatik gertu eta haien gainetik ere kokatzen dira; hona hemen lurralde dinamikoak: Frantzia (%17,7), Alemania (%13), Japonia (%14,1). Bestalde, ikerlariak %11,4 dira, Estatuan %7,3 diren bitartean.

### **Berrikuntza**

EUSTATEk erakusten du 2008-2010 denboraldian, 10 langiletik gorako enpresetan, enpresa berritzaileen portzentajea (berrikuntza teknologikoak eta bestelakoak) %38,9 dela. Estatuan, EINen arabera, aldi berdinerako portzentajea %32,9koa da. EB27n, industriako eta zerbitzuetako enpresen %52ak jarduera berritzaileak izan dituzte (egiten ari diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dauzkaten enpresak barne) 2006 eta 2008. urteen artean. Estatu kideen artean, portzentajerik handienak Alemanian (enpresen %80), Austrian (%52,5), Luxenburgon (%65) eta Irlandan (%57) daude. Espainiak %43,5 dauka. Batezbestekotik urrunen dauden estatuak hauek dira: Letonia, Polonia, Hungaria, Lituania eta Bulgaria.

EUSTATen arabera, 9 langiletik gorako enpresek berrikuntza teknologikorako egindako jardueren gastu osoa gutxitu egin da 2010. urtean, %2,7, eta BPGaren %3,3 hartzen du. Beste urtebetez, gastu honen zati handiena barne I+Gkoa da (BPGaren %1,94) eta makineria erostekoa (BPGaren %0,6).

2010. urtean, EAEko Europako Berrikuntzako Adierazleen Panel berriak 0,45eko balioa dauka. Beraz, EB27ko 15. postuan dago, eta batezbestekotik behera, 0,52. "Berrikuntzan aitzindari diren herrialdeen artean", Suedia (0,75), Danimarka (0,74), eta Finlandia eta Alemania (0,70) daude.

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten den I+G+b jarduerari dagokionez, 2010. urtean nahikotxo gehitu zen, 2009 eta 2010. urteen artean 54,2 mila eurotik 72,9 mila eurora (+%34,5). Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu 2010eko kopuruetan Eusko Jaurlaritzako Ikerkuntza Taldeentzako diru-laguntzak jasotzen direla, beraien zenbateko osoan, nahiz eta zenbait urtetan erabili. Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua arlo berberetan pilatzen da. 2010. urtean, zientzia espermentalak, 42,3 milioi euroekin, guztiaren %58 dira, eta teknikoak, 12,4 milioi euroekin, %17. Fondoan jatorriari dagokionez, gehienak Eusko Jaurlaritzatik datoz (%50,1), gero estatuko fondoetatik (%19,8), zuzeneko kontrataziotik (%16,4), fondo propioetatik (%5,6) eta nazioarteko iturrietatik.

### **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak**

IKTen sarrerari eta erabilerari dagokionez, eta EUROSTATen datuen arabera, etxean Internetera sartzeko aukera duen 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez baduen etxe portzentajea, 2010. urtean, %80 da EB27n eta %59 Estatuan. EAEn, 2011. urtean, ratioa %65,8 zen, EUSTATen arabera. Beraz, gure erkidegoa Europako batezbestekoaren apur bat azpitik dago, eta erreferentziako herrialdeen balioetatik urrun: Holanda (%91), Luxenburgoko (%90), Suedia (%88), Danimarka (%86), Alemania (%82), Finlandia (%81) eta Erresuma Batua (%80).

Bestalde, IKTen sarrerari dagokionez, zabaltzen jarraitzen du 14 urtetik gorako biztanleen artean, bideoaren kasua izan ezik.

Transakzio elektronikoei dagokionez, eta Internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea aintzat hartuta, ondorioztatu daiteke EAEk, %47rekin, kokaleku ona duela gainerako autonomia erkidegoen aldean, izan ere, bik bakarrik dute portzentaje txikiagoa: Balearrak (%41,2) eta Nafarroa (%43,5). Hala eta guztiz ere, datuak erabat homogeneoak ez badira ere, Europarekiko alderaketak merkataritza elektronikoen zabalkunde txikiagoa erakusten du EAEn.

Enpresetako IKT ekipamenduei dagokionez, Enpresetako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak agerian uzten du IKTak euskal enpresetan sartzeko prozesuak gorantz egiten jarraitzen duela.

Enpleguaren estratuen araberrako analisiak erakusten du, lehenik eta behin, IKTen ekipamenduak zabaldutako daudela establezimenduaren tamaina handiagoa den neurrian. Bigarrenik, enplegu gehiago izan ahala, hobetzeko marjina txikiagoa dagoenez gero, ekipamenduen gehikuntzak murriztagoak dira; hain zuzen ere, enpleguaren estratu batzuetan erorketa txikiak gertatzen dira berriro ere. Eta, hirugarrenik, bi alderdi horiek gehiago igartzen direla establezimenduei dagokionez, enpleguari dagokionez baino. Arrazoia, besteak beste, establezimendu txikiak edukitako garapen handiagoa da, eta, halaber, establezimendu handietan langile guztiek ez dutela ekipamendu horietara iristeko aukerarik.

Enpresaren presentzia Interneten aztertzen badugu, norberaren zerbitzarian dagoen webgune baten bidez edo

inoren zerbitzarian dagoen orrialde baten bidez, EUSTATEN azken datuek gehikuntza erakusten dute 2010 eta 2011. urteen artean, zehazki 3,4 puntukoa. Horrela, Interneteko konexioa daukaten establezimenduen %37,3ak webgunea dauka. Horietatik %23,2ak beste zerbitzari batean dute ostatatuta, eta %14,1ak beren zerbitzarian.

Internet bidezko edo bide elektronikoko merkataritzako transakzioei dagokionez, EUSTATEN datuen arabera, gorantz egiten jarraitzen dute sortutako kopuru ekonomikoak dagokionez, eta merkataritza elektronikoa horretan parte hartzen duen enpresa kopurua ere bai. 2010. urtean sortutako negozioaren bolumena, aurreko urtearen aldean, %18,5 gehitu zen salmentetan, eta %13,5 erosketetan. Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentajea 2009. urtean %14,9 zen eta 2010ean %15,1.

#### 1.4. Ingurumenaren egoera

Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, airearen kalitatea “ona” edo gutxienez “onargarria” da aztertutako azpiguine guztietan. Halere, 2010. eta 2011. urteen artean, 11 laginketa estazioetan airearen kalitate oso txarra edo txarra duten egunak %0,1etik %0,4ra gehitu dira, egun guztien aldean; balio absolutuetan, 4 egunetik 16 egunera gehitu da. Bestalde, neurrizko aire kalitatekoen portzentajea ere gehitu egin da, %0,8tik %1,8ra, zenbaki absolututan 31 egunetik 71ra.

Nabarmena da Urola Goienean airearen egoeraren okertzea (+%50 egun kalitate moderatuarekin eta +%250 egun kalitate txar edo oso txarrarekin). Kalitate moderatuko airea izan dute urteko hamar egunetik batean (hau da, ia astero) eta kalitate txar edo oso txarreko airea izan dute urteko hogeita sei egunetik batean (hilean behin). Badirudi joera antzekoa dela Deba Goienean eta Nerbioi Beherean. Klima aldatetari eta berotegi-efektuko gas (BEG) isuriei dagokionez, 2008-2012 aldirako abiapuntu urtearen (1990) aldean isuri zuzenen igoera %15ez mugatzeko konpromisoa ezarri dio Kyotoko protokoloak Espainiako estatuari. Autonomia Erkidegoek ez daukate BEG murrizteko helburu juridikoki loteslerik; baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012 Euskal Planak ezartzen duenez, EAEko isuriak mugatuko dira aldi horretan, ez dezaten abiapuntu urteko kopurua %14 baino gehiago handitu. EAEko BEGen emisio guztia (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitatearekin lotura dutenak barne) 2009. urtean, “EAEko 1990-2009ko berotegi-efektuko gasen emisioei buruzko inbentarioko” datuen arabera, 22,6 milioi tona CO<sub>2</sub> baliokidekoa izan zen. Beraz, 2008ko emisioak baino %10 gutxiago, eta oinarrizko urtean baino %6 gehiago. Horrek planaren helburuaren azpitik 8 puntura kokatzen gaitu.

Uraren kalitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2010ean, ibaietan, ibai kategoriako ur masa naturalen %45,6ak egoera ekologiko onaren edo oso onaren ingurumen helburuak betetze zituzten; 2007an, %25,4 izan ziren. Ur masa oso aldaraziei dagokionez, 2009an eta 2010ean oso aldatutako ur masak identifikatzen hasi ziren (urtegiak ez), potentzial ekologiko goreneko edo oneko ingurumen helburuak betetzen zituztenak. 2007an eta 2008an, berriz, batek ere ez zituen helburuok betetzen. Egoera edo potentzial ekologikoko helburuak ez betetzea adierazle biologikoei (egoera biologikoa) lotutako egoeraren isla dira, eta ez baldintza fisiokimiko orokorrei lotuak. Egoera kimikoari dagokionez, ur naturalen masen

%22 eta oso aldatuen %20 ez dira egoera kimiko onera iristen 2010eko kanpian. Aztertutako lau urteetan egoera egonkorra izan dela esan dezakegu. Lakuen eta hezeguneen kategorietako ur masen egoera ekologikoari dagokionez, dauzkagun emaitzetatik abiatuta esan dezakegu bilakaera positiboa, baina nahikoa ez, gertatzen ari dela. Trantsizioko uren kategoriako ur masen egoera ekologikoari dagokionez, txikia da oraindik ere. Egoera kimikoari dagokionez, ur masa naturalei elkartutako kontrol estazioen %10 inguru ez da iritsi egoera kimiko onera. Aztertutako lau urteetan egoera egonkorra dela esan dezakegu. Masa oso aldarazietan, egoera txarragoa da. Kostaldeko uretan, 2007-2010 denboraldian, emaitzak egonkorak dira. Horrek esan nahi du oro jar ingurumen helburuen betetze maila handia dela, egoera ekologikoari dagokionez. Egoera kimikoari dagokionez, esan dezakegu EAEko kostaldeko ur masa guztiek egoera kimiko ona daukatela. Azkenik, 2010. urtean bainatzeko uren kalitateaz egindako analisiak erakusten du 5 bainu eremu hobetu direla, 1. kategoriatik 2. kategoriara igaroz, eta 4 okertu direla, 2. kategoriatik 1.ra igaroz.

Iraunkortasunaren kontzeptuari erreparatzean, kontuan hartu behar dira baliabidearen kontsumoa eta horien erabileran dagoen eraginkortasun maila. Uraren kasuan, zehazki, EINEk emandako datuen arabera, banaketa sarean galdutako ura %10,4 igo da 2008. eta 2009. urteen artean eta eskuragarri dagoen kopuru osoaren %17,8 osatzen du. Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren %16,8 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdu zen. Bestalde, per capita ur kontsumoa txikiagoa da EAEn estatuko batezbestekoa baino: 126 eta 149 litro pertsona eta egun bakoitzeko, hurrenez hurren. Gainera, 2008 eta 2009. urteen artean, estatuan dagoena baino beherakada handiagoa ikusten da (%9,4, eta estatuan %3,2). Uraren balio unitarioa EAEn, 2009. urtean, 1,08 euro/m<sup>3</sup> da. Beraz, aurreko urteko balioaren %14,9ko gehikuntza izan da. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da, 1,42 euro/m<sup>3</sup>.

Bestalde, energiaren barne kontsumo gordina edo eskaria 2010.ean %2,8 gutxitu da, 7.107 Ktep-eraino. Amaierako kontsumoa 5.360 Ktep-ekoa izan zen, %1,9 gehituz. Gehikuntza horretan batez ere industriak, nekazaritzak, arrantzak eta zerbitzuek lagundu dute.

Energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez —oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina izateagatik— ikus daiteke petrolio eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %37,5arekin. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %3,7koa hain zuzen. Lehen mailako energiaren ekoizpena %4 gehitu da, 399 Ktep-etik 415era. Egun, ekoizpen hori, funtsean, energia berriztagarrietan oinarritzen da (iturri propio nagusia) eta energi mota hori 2009 eta 2010. urteen artean %3,3 gehitu zen (382 Ktep-etik 395era).

Lehen mailako energiako norberaren produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren %5,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (7.107 Ktep). Ondorioz, EAEk kanpoaldearekiko duen energia mendetasuna %94,2,7an kokatzen da.

BPGren unitate bakoitzeko amaierako kontsumo gisa neurtutako intentsitate energetikoak adierazten duenez, 2009an intentsitatea 2010. urtekoaren %90 da eta,

aurreko urtearekin alderatuta, 2 portzentaje-puntuz gutxitu da.

Hondakinak sortu eta kudeatzeari dagokionez, EINen Industria Sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, EAEko hondakin ez arriskutsuen sorkuntza %22,9 jaitsi da 2008. eta 2009. urteen artean eta industria hondakin arriskutsuena %18. Halere, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen hirugarren erkidegoa da (168,4 tona). Lehenengoa Katalunia da, 391,1 tonarekin eta bigarrena Valentzia, 183,8rekin. Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak %19,6 jaitsi dira.

Hiri-hondakinen alorrean eta per capita balioetan, EINen Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkestako datuen arabera, 2009. urtean EAEn 443,9 kg hiri-hondakin nahastu bildu ziren. Hau da, estatutako batez besteko kopurua (471) eta aurreko urtean erregistratutakoa (493,4) baino zenbateko txikiagoa. Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak.

Bestetik, industriako enpresek ingurumena babesteko egiten duten gastuari buruzko EINen inkestaren azken datuek erakusten dute 2009. urtean EAEn enpresa horiek ingurumena babesteko egindako gastua %11,3 gutxitu zela, 2008. urtean erregistratutako datuen aldean. Gastua BPGren portzentaje bezala neurtuta, 2009an beste murrizketa bat ikusten da, %0,32ko portzentajearen geldituz. Horrela, EAE zazpigarren posizioan dago, hauen atzetik: Asturias (%0,53), Kantabria (%0,51), Aragoi (%0,39), Nafarroa (%0,36), Gaztela-Mantxa (%0,36) eta Gaztela eta Leon (%0,33), eta Galiziaren maila berean (%0,32).

EAEko Ekobarometroaren 2011ko datuen arabera (2011ko urriaren argitaratua), euskal enpresek uste dute produktu eta zerbitzu berdeen garrantzia areagotzen ari dela eta ingurumenaren hobekuntza horrek batez ere kanpoko faktoreak dituela: ingurumen legeria eta bezeroak, batez ere.

Halere, teknologia garbietarako finantzazioko baldintza mesedegarrik ez dagoenez gero, gaur egun oztopo garrantzitsua dago ingurumeneko hobekuntzak egiteko.

## 1.5. EAEko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

Munduko haztatutako BPG, eros-ahalmenaren parekidetasunaren arabera, 2011. urtean %3,9 gehitu zen aurreko urtearen aldean, NDFaren kalkuluen arabera. Ekonomia aurreratuek %1,6ko gutxikuntza daukate. AEBen BPG %1,7 gehitu da, euro eremuarena %1,4 eta Japonena %0,7 gutxitu. Ekonomia emergenteak eta garapen bidean daudenak, batez ere Asiakoak, India eta Txina buru dituztenak, %6,2 inguru gehitu ziren. Txina eta India %9,2 eta %7,2 gehitu ziren, hurrenez hurren.

Jarduera ekonomikoaren eboluzioarekin bat etorritik, 2010eko azken hiruhileko munduko merkataritzaren gorakadak, termino errealetan, 2011ko lehen hiruhilekoan jarraitu zuen, baina urteko bigarren seihilekoan ahuldu zen. Urte osoan, aurreko urtearen aldean, munduko merkataritza %5,8 gehitu zen.

Prezioen eboluzioari dagokionez, petrolioaren prezioak (finantza-merkatuetako gorabeherak urtean zehar areagotu ziren arren) erresistentzia-gaitasuna erakutsi

zuen. 2010 eta 2011. urteen artean, Brent upelaren batez besteko prezioa %6,7 gehitu zen, 111,3 \$/upel preziotik 118,8ra. Baliorik handiena apirilean izan zen, Brent upela 123 \$era iritsi zenean.

Bestalde, energiakoak ez diren lehengaien prezioek, bai elikagaienak bai oinarriko metalenak, zor subirauko merkatu batzuetan izandako tentsioen eta munduko eskaeran izandako ondorioen eragina jaso zuten. Horrela, kopuru agregatuetan, energiakoak ez diren lehengaien prezioen indizea (Estatu Batuetako dolarretan), abenduaren hasieran, urte hasieran baino %14 txikiagoa zen.

Testuinguru horretan, 2010. urtean, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak ere beren esku-hartze tasak mantendu dituzte 2010. urtean (eta 2009an) itxi zuten modu berdinean, lehenengoak %0,25arekin eta bigarrenak %0,1arekin. Bestetik, Europako Banku Zentralak birritan igo zuen (apirilean %1,25eraino eta uztailean %1,5eraino), eta gero beste bitan gutxitu zuen (azaroan %1,25eraino eta abenduan %1eraino).

Moneta merkatuko interes tasak epe guztietan gehitu ziren. Horrela, hilabete bateko Euriborra %0,86an kokatzen da urteko lehenengo hiruhilekoan, eta %1,24an amaitzen da laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra %1,09tik %1,5era igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeterako Euriborra %1,73an hazi zen eta %2,05ean amaitu.

Azkenik, kanbio eta burtsa merkatuei dagokionez, dibisen merkaturan EEBBetako dolarraren kanbio tasa erreala gutxitu zen, eta horrenbestez, euroa apur bat apreziatu zen. Europar dibisa libera esterlinaren aldean ere apreziatu zen, baina yenaren aurrean depreziatu zen. Bestalde, munduko burtsa merkatuek, urteak aurrera egin ahala, krisiaren aurreko mailetara itzultzeko itxaropena galdu zuten. Horrela, Espainian, IBEX 35ak urte arteko %13,1eko jaitsiera izan zuen (2011ko abenduan, 2010eko abenduaren aldean), Nikkei %17,4 jaitsi zen, Dow Jones %5,5 gehitu zen (2010ean %15); eta Euro Stoxx zabala %18 gutxitu zen (aurreko urtean %0,2 gehitu zen).

EBarri bagagozkio (eta zehazki euro-guneari), 2010ean izandako susperraldiaren ondoren, BPG errealearen hazkundea moteldu egin zen 2011n. Horrela, urte arteko aldakuntza tasa %1,5ekoa izan zen 2011n, eta 2010ean %1,9koa. Beraz, hiruhilekoko gehikuntza profila beheranzkoa izan zen: %2,4 lehen hiruhilekoan, %1,6 bigarrean, %1,3koa hirugarrenean eta %0,7koa laugarrenean.

Sektoreen ikuspegitik, produktuaren gehikuntzarik handiena 2011n industrian gertatu zen. Batez beste, sektore honen balio erantsia %3,8 gehitu zen, urte arteko tasan. Halere, gehikuntzak indarra galdu zuen urtean zehar (lehenengo hiruhilekoa %6,2arekin hasi zen eta laugarrena %0,6arekin amaitu). Eraikuntzaren produkzioa batez beste %1 murriztu zen 2011ko urte arteko tasan. Denboraldi berean, merkatuko zerbitzuen balio erantsiaren urte arteko hazkuntza tasa, batez beste, %1,2koa izan zen, 2010eko urteko kopurua baino apur bat txikiagoa (%1,4).

EBarri dagokionez, EUROSTATen arabera, BPGaren aldakuntza tasa, termino errealetan, 2011. urtean %1,5 da EB27an. Hazkuntza tasarik handienak Estonia (%7,6), Lituania (%5,9), Letonia (%5,5), Polonia (%4,3), Suedia (%3,9), Eslovakia (%3,3), Austria (%3,1), Alemania (%3), Finlandia (%2,9), Errumania (%2,5) eta Maltan (%2,1) izan

dira. Tasa moderatuak izan dira herrialde hauetan: Belgika (%1,9), Bulgaria, Txekiar Errepublika, Frantzia, Hungaria (denak %1,7arekin), Luxenburgo (%1,6), Holanda (%1,2), Danimarka (%1), Irlanda, Espainia eta Erresuma Batua (guztiak %0,7), Zipre (%0,5), Italia (%0,4). Tasa negatiboak dituzten estatuak hauek dira: Grezia (-%6,9), Portugal (-%1,6) eta Eslovenia (-%0,2).

Langabezi tasak bi digituak gainditzen ditu zenbait herrialdetan: Espainia (%21,7), Grezia (%17,7), Letonia eta Lituania (%15,4), Irlanda (%14,4), Eslovakia (%13,5), Estonia (%12,5) eta Bulgaria (%11,2). Eta tasarik txikienak hemen: Austria (%4,2), Holanda (%4,4), Luxenburgo (%4,8) eta Alemania (%5,9).

Testuinguru honetan, euro-eremuko zenbait herrialderen zor publikoari buruzko kezka areagotu zen eta tentsio une berriak sortu ziren. Urte honetan, kezka gehien Portugalek eta, berriro ere eta intentsitate gehiagoz, Greziak sortu zuten. Maiatzaren 3an Portugalen erreskate akordioa egin zen EB, EBZ eta NDFarekin, eta urriaren amaieran, EB eta NDFak Greziaren bigarren erreskatearen baldintzak adostu zituzten. Egoera horretan, kutsatzeko arriskua errealtate bihurtu zen, eta Espainia eta Italiaren zor subirauren interes tasak izugarri gehitu ziren. Diferentzialak eta arrisku-saria inoiz baino aluago jarri ziren, alemaniar zorraren interes tasekin. Belgikar eta frantziar bonoek ere eragina jaso zuten, eta moneta bakarraren eremu osoan presioa gehitu zen.

Espainiar ekonomian, EINen arabera, 2011. urtearen amaieran, BPG errearen urteko batez besteko gehikuntza %0,7 izan zen. Aurreko urtean, ordea, hazkuntza negatiboa %0,1 izan zen.

Gastuaren ikuspegitik, BPGaren hazkuntzaren barne eskaera, 2010ean, -1,8 puntukoa izan zen, eta aurreko urtean -1 puntukoa izan zen. Horren azalpena azken kontsumo pribatuaren portaera da. Haren aldakuntza tasa %0,7 izatetik -%0,1 izatera igaro zen. Administrazio publikoek azken kontsumoan egindako gastuan gertatutako murrizpenak (aldakuntza tasa %0,2tik -%2,2ra jaitsi zen) eta kapital finkoko inbertsioak izandako murrizpenak (aldakuntza tasa -%6,3tik -%5,1era igaro zen) ere eragina izan zuten.

Bestalde, kanpoko eskaerak BPGaren hazkuntzari egindako ekarpena positiboa izan zen (2,5 puntu). Baina deigarria da esportazioek, 2010 eta 2011. urteen artean, %9ko batez besteko urte arteko hazkuntza izan dutela, eta inportazioak %0,1 gutxitu direla. Aurreko urtean, ordea, biak gehitu ziren: %13,5 eta %8,9 hurrenez hurren. Eskaintzaren alderditik, hazkuntza positiboa nabarmendu behar dugu industriaren adar agregatuan (2011n %1,9 eta urte bat lehenago %0,6) eta zerbitzuenean (%1,1; aurreko urtean %1,4). Eraikuntzaren kasuan, berriz, negatiboa izan zen (-%3,8). Halere, industriek eta zerbitzuek beren jarduerara asko moteldu zuten urteko laugarren hiruhilekoan. Industriaren kasuan, aldakuntzaren tasa, lehen hiru hiruhilekoetan positiboa izan zena (%3, %2,3 eta %2,8) negatibo bihurtu zen azkenengoan (-%0,4). Bestalde, zerbitzuen kasuan, moteltzea mailakatuagoa da eta ez da negatibo bihurtzen. Horrela, sektoreak, lehenengo hiruhilekoan, %1,4ko gehikuntza izan zuen, hurrengo bi hiruhilekopetan %1era murriztu zuen hazkuntza, eta azken hiruhilekoa %0,9ko gehikuntzarekin amaitu zuen.

Jardueraren eboluzio hau enplegu mailaren murrizpen berriarekin etorri da (2010ean izandakoa baino txikiagoa ordea). Horrela, 2010ean lansaio osoan okupatutako

lanpostuen kopuru osoa %2,6 murriztu zen, eta 2011n %2ko gutxikuntza izan zen. Soldatadunen jaitsiera %1,9koa izan zen. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) erakusten du langabezi tasa ehuneko 1,5 puntu gehitu dela 2011n: %20,1etik %21,6ra (4.632 mila langabetutik 4.999 mila langabetura). Langabezi tasa txikiena duten autonomi erkidegoak hauek dira: EAE, %12,01 (127 mila langabetu); Nafarroa, %12,94 (40.000 mila langabetu); Kantabria, %15,29 (43 mila langabetu); eta Gaztela eta Leon eta Madril, %16,73 (198 mila eta 566 mila langabetu hurrenez hurren). Estatu batezbestekoaren gainetik daude hauek: Andaluzia, %30,39 (1.212 mila langabetu); Balearrak, %21,87 (129 mila langabetu); Kanariar Uharteak, %29,69 (329 mila langabetu); Gaztela-Mantxa, %22,93 (229 mila langabetu); Valentziar Komunitatea, %24,49 (613 mila langabetu); Extremadura, %25,1 (124 mila langabetu); Murtzia, %25,41 (187 mila langabetu); Ceuta, %29,35 (10 milioi langabetu) eta Melilla, %24,43 (8 mila langabetu).

Kanpoko sektorearen ekarpen positiboari esker, espainiar ekonomiak finantza egoera hobetu du munduaren aldean. Ekonomiaren finantzazio beharizanari dagokionez (defizita), 2010ean BPGaren %4 izatetik 2011n %3,4 izatera igaro da, hau da, 36.226 milioi euro, aurreko urtean baino 5.542 milioi euro gutxiago.

EAEko ekonomiak, EUSTATEN 2012ko otsaileko datuen arabera, 2011. urtean %0,6ko urte arteko hazkuntza izan zuen termino errealean, aurreko urteko %0,3ko gehikuntzaren aldean. Haren BPG, termino korranteetan, 66.898,3 milioi eurotarra igaro zen.

Eskaerari dagokionez, BPGaren hazkuntza batez ere kanpoko sektorearen portaeraren bidez azaltzen da. Bertan, esportazioak %9 gehitu ziren eta inportazioak %7,4. Horren guztiaren ondorioz, kanpo eskaerak BPGaren hazkuntzari 0,8 puntuko ekarpena egin zion. Barne eskaerak, ordea, ekarpen negatiboa egin zuen, 0,1 puntukoa. Aitzitik, barne eskaera aurreko denboraldian baino gutxiago murriztu zen (-%0,1 eta -%0,5).

Atzeritarrekiko ondasunen kanpo-komertzioari buruzko datuek (Kanpo Komertzioaren Estatistikak eskaintzen dituztenak, Aduanen Erregistroen oinarrituta) azaltzen dute esportazioen balio arrunta %17,9 gehitu zela 2011n; energiazko esportazioetan %51 gehitu zen eta energiazkoak ez direnetan (osotasunaren %88,8 direnak), %14,7. Bestalde, inportazioak guztira %10,9 gehitu ziren; energiazko inportazioen balioa (guztien %35,1) %13,2 hazi zen eta energiazkoak ez direnen balioa %9,7 gehitu zen. Esportazio ez energetikoak muga-zergen taldeen arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu, ekipamendu-ondasunen esportazioa, esportatutako guztiaren %41,1 dena, %14,2 gehitu dela, bai garraio materialaren esportazioaren ondorioz (+%13,8), bai makinaren eta gailuen esportazioaren ondorioz (+%14,6). Bigarrenik, metal arrunten eta haien manufakturen esportazioa nabarmentzen da, guztiaren %25,7 izanik. Haren esportazioa %12,4 gehitu da. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da (osotasunaren %9). Haren aldakuntza tasa %33,5era gehitu da. Energiakozko ez diren inportazioen aldetik, metalak eta haien manufaktura nabarmentzen dira (inportazio guztien %12,6), %22,6 gehitu direnak. Bigarrenik, ekipamendu-ondasunak daude, inportazio guztien %17,5 direnak baina %0,4 gutxitu direnak, makinaren eta gailuen inportazioan gutxikuntza izan delako (-%1,3).



Energiatzkoak diren eta ez diren ondasun eta produktuek bereizten baditugu, esan behar dugu energiatzkoen saldoa defizitarioa dela (-3.632,6 milioi euro). Energiatzkoak ez diren produktuek, ordea, superabita daukate: 7.599,1 milioi euro, hau da, BPGaren %11,4 baino gehiago. Ratio hori ehuneko 2 puntu handiagoa da aurreko urtekoa baino (%9,4).

EAEko energiatzkoak ez diren esportazioen destinoko eremu geografikoen arabera, ELGAri bideratzen zaizkionak (eta eremu horren barruan EB15era) garrantzitsuenak dira berriro ere: guztien %61,2 dira, %18,2ko hazkuntza tasarekin. Bereziki aipagarriak dira Frantziara, Alemaniara, Italiara eta Erresuma Batura egindako esportazioak: EAEtik EB15era egindako esportazioen %75,8 dira. Inportazioei dagokienez, haietako gehienak ELGAtik datoz, zehazki EB15eko kide diren herrialdeetatik, bereziki Alemania, Frantzia eta Italiatik (EB15eko inportazio guztien %64,4), eta neurri txikiagoan, Erresuma Batutik eta Belgikatik.

Eskaintzaren aldetik, Industriaren sektoreak eta Zerbitzuak dira balio erantsia gehitu dutenak (%2 eta %0,9 hurrenez hurren). Aitzitik, balio erantsiaren eboluzioa 2011. urtean negatiboa izan da, bai Eraikuntzaren sektorean (-%5,3) bai Lehen Sektorean (-%7,6).

Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioaren Kanpo Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEko atzerritar inbertsioa 2010 eta 2011. urteen artean %244,6 gehitu da, atzerriko balioak dauzkaten enpresak (ABDE) kontuan izan gabe. Guztira, EAEk 522,6 milioi euro jaso ditu. EAEn proportzioa estatuaren zenbateko osoan 2010eko %1,3tik 2011ko %2,3ra gehitu da. Madrilgo Komunitateak jasotzen duen inbertsioa deskontatuz gero, portzentajea %5,2ra igotzen da; beraz, %2,2tik %5,2ra igo da 2010 eta 2011. urteen artean. Horrela, EAEk hirugarren lekua hartzen du inbertsioen bolumenean, Madrilen atzetik (15.520 milioi euro jaso dituena) eta Kataluniaren atzetik (3.022 milioi euro jaso dituena). Sektorialki, eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta airearen hornidura sektorean egindako inbertsioak alboratuz, bereziki aipagarriak dira ondoko hauetan egindakoak, osotasunean duten pisuagatik: Motordun ibilgailuen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa; makinak eta beste inon sailkatu ez diren ekipamenduak fabrikatzea; garraioa eta biltegiatzea, eta handizkako eta txikizkako komertzioa, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa. Lurralde ikuspegitik, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea, kasuen %65ean, ELGAko herrialde batean dago, eta %31,8an EB15ean (guztira 166 milioi euro). Bereziki nabarmengarria da Estatu Batuetatik, Arabiar Emirerri Batuetatik eta Paradisu Fiskaletatik datozen inbertsioen gehikuntza. 2011. urtean, hurrenez hurren, EAEn egin ziren atzerriko inbertsioen %32,9, %34,4 eta %34,8 izan ziren.

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kontuan izan gabe, 1.975 milioi eurotik 4.827 milioi eurora gehitu da. EAEk bigarren posizioa dauka autonomi erkidegoen artean atzerrian egiten den inbertsioaren arabera; Madrilek bakarrik gainditzen du, 11.938 milioirekin. Sektoreka, Finantza eta aseguru jarduerak baztertuta (EAEko kanpo inbertsioaren %94,8 direnak eta estatuak kanpoan sektore horretan egiten duen inbertsioaren %41,2 direnak, azken hori, ia guztia, jarduera sektore honek Turkian egindako inbertsioari dagokiona, 4.144.180 milioi eurotan, BBVAk Garanti Banken %25a erostean), ondokoak azpimarratu behar ditugu: Motordun ibilgailuen eta bestelako

garraio materialen fabrikazioa; metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa; informazioak eta komunikazioak; energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire egokituaren hornidura; jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak; eta beste inon sailkatu gabeko materialak eta ekipoa fabrikatzea. Herrialdeka, eta Turkian egindako inbertsioa baztertuta, hauek dira herrialde nagusiak: Portugal (151.111,9 mila euro), Hungaria (39.663,7 mila euro), Mexiko (33.107,5 mila euro) eta Grezia (30.277,5 mila euro).

## 1.6. Sektore publikoa

Lehenik eta behin, 2011ko "Aurrekontua Gauzatzearen Estatistikak" erakusten du Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek likidatutako diru-sarrera guztiak (15.093 milioi euro) 2011n %2,5 jaitsi direla, aurreko ekitaldian %7,2 gehitu ziren bitartean; izan ere, zuzeneko zergen bilketagatik izandako hazkuntzak (%8,7) ezin izan du zeharkako zergen gutxipena (-%3,4) eta finantzatuko diru-sarreraren gutxipena (-%41) absorbitu, zehazki, finantza-pasiboetan (zorraren emisioa), aurreko ekitalditik %44,2 murriztu direnak.

Jaitsiera horrek intentsitate ezberdina du administrazioen artean: Eusko Jaurlaritzaren kasuan %7,2ko jaitsiera izan zen, eta foru aldundientzat txikiagoa izan zen, %0,5.

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarreraren gehiengoak dira, eta zenbateko osoaren %90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketaren xehetasunari dagokionez, 2011rako behin-behineko datuek %1,9ko erorketa erakusten dute, 2010ean izandako %8,4ko gehikuntzaren aldean.

Partida handien artean, PFEZek berriro ere hazkuntza positiboak izan ditu (%6,3), laneko etekinen gaineko atxikipenaren eboluzioari esker eta batez ere kuota diferentzialaren eboluzioari esker. Lehenengoei dagokienez, soldatadun enpleguaren suntsipena, langabezi prestazioen estaldura maila txikiagoa eta langile publikoen ordainsarien murrizpenak konpentsatuta daude, atxikipen pean dagoen soldata-masa gordinaren gehikuntza handiagoari esker. Ordaindu beharreko kuota, bestalde, %17,7 gehitu da, oinarri likidagarriaren karga tasak eta etxebizitza erosteagatik kenkariaren jaitsierak bultzatuta. Bestalde, sozietateen zerga, aurreko urtean ez bezala, modu garrantzitsuan gehitu da (%17,5), eta gainerako zerga-figurak gainditu ditu; izan ere, jarduera ekonomikoaren gehikuntzak eta egindako kostuetako doikuntzek enpresen emaitza-kontuak hobetzea ahalbideratu dute.

Aitzitik, zeharkako ezarpenaren eboluzioak oso erregistro negatiboak dauzka (-%11,7), batez ere BEZ jaitsi delako (-%10,9). Osagai guztiek beheranzko joera daukate, baina kontsumo publikoa eta etxebizitza berriaren erosketako gastua dira balio negatiboak daukatenak. Kontsumo pribatua oraindik ere tasa positiboetan dago.

Guztira, bildutako bolumen osoa 11.481 milioi euro da. Zenbateko hori EAEko BPG arruntaren %17,2 da 2011. urtean, behin-behineko datuen arabera (2010ean %17,9). Bildutako diruaren %37,6 PFEZari dagokio, %35,7 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), %10,1 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, %16,6, zenbait zerga bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 15.071,5 milioi eurokoa dena (tokiko erakundeak kanpo) 2011. urtean %1,1 murriztu da, aurreko urteko

–%3,3aren aldean. Gastuaren bilakaera negatiboa izan da Eusko Jaurlaritzan (–%1,5) eta foru aldundietan (–%3,4). Agregatuaren aldakuntza txikiagoa izan da (–%1,1), partidetakoko batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat adibidez).

Era berean, 2011ko “*Aurrekontua Gauzatzearen Estatistikak*” erakusten du EAEko sektore publiko osoaren zorpetze garbia urte horretan %46,3 murriztu dela, bi ekitaldiz gehikuntza handiak izan ondoren. Zorra (zorpetze gordina ken amortizazioa) 1.156 milioi euro gehitu da urte horretan. Horietatik 1.018 Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainerako 138ak foru aldundiei. Emaizta gisa, ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 7.648 milioi euroko zor-bolumena zeukaten, 2010ean baino %17,8 gehiago (urte hartan nahiko gehitu zen: %49,6). Horrela, beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %75,8).

### 1.7. Lan-merkatua

Lehenik eta behin, EUSTATen “Biztanleria Jardueraren Arabera” inkestaren datuek (BJA) erakusten dute 2011n EAEko biztanleria aktiboa gehitu dela urtean batez beste. Horrela, 2010ean lan-merkatuan %55,6ak parte hartzen zuten, eta 2011n kopuru hori %56,2ra iritsi zen, EUSTATen serie historikoko jarduera tasarik handiena alegia. Eboluzio horretan funtsezkoa da emakumea lan-merkatuan sartzea. Emakumeen jarduera tasak %49,5eko batezbestekoa dauka urtean, 2010ekoa baino 1,2 puntu handiagoa, eta gizonen tasari hurbiltzeko joera mantentzen du, nahiz eta oraindik ere bien artean 13 puntuko aldea dagoen. Bestalde, gizonezkoen biztanleria aktiboa murriztu da: 2010ean %64 zen eta 2011n %63,2. Enplegu aukerak murrizteak jaitsiera horretan eragin handia izan du. Jaitsiera horrek batez ere biztanleriarik gazteenarengan izan du eragina, urteak aurrera egin ahala lan-merkatutik aldentu dena; horrela, lehenengo hiru hilabeteetan haien jarduera tasa %31,8 zen eta laugarrenean ratioa %28,1eraino jaitsi zen. Enpleguari dagokionez, 2010eko abendutik 2011ko abendura arte EAEn gertatu den okupazioaren murrizpena %1,3koa izan da; 13.400 lanpostu inguru galdu dira. Gizonezkoen enplegua da bilakaera txarrena izan duena; azken urtean 19.600 lanpostu galdu zituzten. Emakumeen enplegua, berriz, 6.200 enplegutik murriztu zen. Gainera, azken urtean 25 urtetik beherako enplegua %6,3 murriztu zen eta 25 eta 44 urte arteko enplegua %3,3. Berriz, 44 urtetik gorako pertsonena %1,6 gehitu da. Urteko batez besteko balioak kontuan izaten baditugu, 2011n galdu ziren 11.300 lanpostuetatik, gizonek 14.500 galdu zituzten eta emakumeek 3.200 irabazi zituzten. Beraz, enpleguaren feminizazio indizea 9 dezima gehitu zen, %45,6eraino.

Sektoreka, 2010ean eraikuntza izan zen gehien murriztu zena (urteko batez besteko balioak), bai lanpostuen terminoetan (–5.300) bai ehunekotan (–%6,8). 2011n, berriz, lanposturik gehien sektore horretan galdu ziren (–5.200), baina ehunekotan, jaitsiera handiena lehen sektoreak izan zuen (–%9,2), atzeranzko joera estrukturalarekin jarraitzen duena. Industriak, termino garbietan, 1.400 lanpostu galdu zituen. Zerbitzuek, berriz, 3.900. Biak, ehunekotan, %0,6 murriztu ziren.

Aldi baterakotasunaren maila dagokienez, BJAren datuek erakusten digute 2011n urteko batezbestekoa aurreko urtekoa baino apur bat txikiagoa izan zela (%20,1, eta aurreko urtean, %20,2). Enpleguaren suntsipenak

urte horretan eragina izan du kontratu finkoa zeukaten pertsonengan eta aldi baterako kontratua zeukatenengan; halere, eragina sakonagoa izan da azkenen artean (–%0,9 eta –%1,6 hurrenez hurren). Beraz, aldi baterakotasuna mugatu zen.

Gure erkidegoak dauzkan aldi baterakotasunareneko portzentaje hauek, %20aren ingurukoak, konparagarriak dira, Europan, Holandarekin (%18,4) eta Portugalekin (%22,2). Europar Batasuneko batezbestekoa %14,1ekoa da, eta euroaren eremuan, %15,8koa. Aldi baterakotasunaren ratorik handienak herrialde hauetan daude: Espainia (%25,3) eta Polonia (%26,9).

Bestalde, 2011ko kontratazioen analisiak erakusten du aurreko urtearen aldean gehikuntza bat gertatu dela (guztira %1,9, %2,2 hasierako kontratuen kopuruan), baina 2010ean baino askozaz ere txikiagoa, orduan kontratazio osoa %5,3 eta hasierako kontratuak %5,6 gehitu baitziren, nahiz eta BPG hiru dezima gehiago hazi den. Kontratu mugagabeak %13,3 murriztu ziren, eta urtean sinatutako hasierako kontratuen %3,4 eta kontratu guztien (hau da, hasierakoak gehi bihurtutakoak) %4 bakarrik pilatzen dituzte. Gainera, jaitsiera horrek denbora osoko kontratuetan (–%13,4, 2010aren aldean) eta denbora partzialekoetan (–%13,2) dauka eragina.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuek erakusten dute 2011. urtean 723.820 lan-kontratu zeudela (berriak eta bihurtutakoak kontuan izanik). Haietako %50,7 emakumeek sinatu zituzten (aurreko urtean, %51,5). Emakumeak kontratatutako pertsonen %44,9 ziren. Estatuan 14.437.298 kontratu zeuden, 2010ean baino %0,1 gehiago. Urte horretan, aurreko urtearen aldean, +%2,8ko gehikuntza izan zen.

Sektoreka, industriak kontratuen %4 irabazi du eta zerbitzuek %2,9; eraikuntzak %11,7 galdu zuen. Hala eta guztiz ere, sektore tertziarioak erregistratutako kontratuen %83,6 dauzka, aurreko urtean baino 8 dezima gehiago, industriak %8,9 (2 dezima gehiago), eraikuntzak %5,8 (9 dezima galdu ditu) eta lehen sektorea %1,8an mantendu da.

Bestalde, EAEn erregistratutako irazpen kopuru osoa, Enplegu Ministerioa iturri izanik (horrela estatuko beste lekuetan gertatzen denarekin konparazioa egin dezakegu), 2002 eta 2007. urteen artean beheranzko joera izan zuena, 89.154 izan zen 2009an (2008. urtearen aldean +%355,5). 2010ean ia erdira murriztu zen (–%45,4) eta 2011n berriro jaitsi zen, %31,2. Joera hori alderantzizkoa da estatu osoan, irazpenak areagotu baitira (+%7,4). EAEko irazpen kopuruaren jaitsiera batez ere EEETan gertatu da, osotasunaren %85 direnak eta aurreko urtetik %35,1 jaitsi direnak. Bitartekaritza, arbitraje edo adiskidetze gaiak ukitutako langileak %6,2 murriztu ziren, eta lan arloko gai judizialean zerikusia dutenak %6,9 gehitu ziren.

Lan-merkatuaren egoera honetan, enplegu politikak oso garrantzitsuak dira, bai politika aktiboak (langabetuek enplegua lortzeko eta lanean ari direnek lanpostua mantentzeko), bai politika pasiboak (langabetuen babes ekonomikorako). Lehenengoei dagokienez, gure erkidegoak 2011n 400 milioi euro baino gehiago bideratu zituen enplegua sustatzeko ekintzetarako. Hau da, 2.883 euro langabetu bakoitzeko, estatuko ratorik handiena alegia. Enplegu politikak pasiboetan, EAEn langabeziagatik prestazioetarako bideratutako gastu osoa 2011. urtean, SEPEren behin-behineko datuen

arabera, 1.150 milioi eurokoa zen, aurreko urtean baino %2 gehiago alegia.

Bestalde, EAEko lan istripuei buruzko datuek, Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2011n 35.040 lan istripu gertatu zirela, 2010ean baino %10,5 gutxiago (lan istripua izan eta baja eskuratu zuten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta *"in itinere"* gertatuko istripuak eta lanbide-gaixotasunak barne); estatu osoan, ordea, jaitsiera %11,8koa izan da, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera hori gure erkidegoan 2009an aurreko urtearen aldean izan zen jaitsiera garrantzitsuari gehitu behar zaio: -%20,5. 2010ekoa txikiagoa izan zen (-%2,8).

Lansaioan istripuak izan dituzten pertsonen dagokienaz, azken urtean larritasun txikiagoko modalitateak murriztu dira: istripu arinen %10,2 eta larrien %11,6. Istripu hilgarriak %2,8 gehitu dira. Bestalde, kopuru hauek eta sektore bakoitzeko lanpostu kopurua erkatzen baditugu, bilakaera antzekoa da: istripuen indizea 32,7koa da mila okupatu bakoitzeko (milako 35,9 izan zen 2010ean; beraz, %8,9ko murrizpena izan da) eta jaitsiera handiena eraikuntzan izan da (-%18,5), baita industrian ere, %7,5eko murrizpenarekin, sektorean lan egiten duten mila pertsonatik 51,2 istripuetaraino.

Azenik, LHKaren 2011ko "Negoziazio Kolektiboaren Balantzearen" arabera, urte horretan zehar gure erkidegoko langileen %76,6ri dagozkien hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren. Portzentajea 2010ekoa baino apur bat txikiagoa da (%77,1). Era berean, negoziazio prozesuak, urte honetan ere, zailak izan dira. Horren erakusgarri da hamabi hilabete horietan langileen %17,3arentzat soilik lortu direla akordioak, hau da, negoziatu behar zenaren laurdena baino gutxiago.

Urtearen amaieran, negoziazio kolektiboaren eragin pean dauden langileen %59,3 hitzarmen kolektiboak berriztatu gabe zeuden (2010ean %60,6 ziren). Hala eta guztiz ere, LHKak ohartarazi du indarrean dauden eraginkortasun mugatuko hitzarmenak kontuan izanez gero (langileen %9,6arengan eragina izan dezaketena) portzentaje hori %49,7ra murriztuko litzatekeela.

## 1.8. Familiak eta lana eta norberaren bizimodua eta familia bateratzeko premiak

Familia etengabe aldatzen den instituzioa da. Kultur errealitateek gizarteak aldatzen dituzte, eta haiekin batera, familien forma eta funtzioa. Horregatik, gizarte antolaketaren forma ugariak zerikusia dute familien aniztasunarekin. Famili mota asko daude, baina guztien eginkizuna berdintsuak dira: pertsonen lehen mailako harremanak erraztea, errealizazio pertsonalak ahalbideratzea, afektuzko eta emoziozko dimentsioari euskarria ematea, bere kideak gizarteratzeko prestatzea eta gizarteratzea, portaera pautak eta tradizioak transmititzea.

Gaur egun, familien funtzioan ez ezik beraien antolaketa formak eta osagaiak aldatu dira. Lehenik eta behin, famili mota gehiago daude, eta familien batez besteko tamaina murriztu da, 2009an 2,68 pertsonakoa baitzen. Era berean, familietako erreferentziatzko pertsonen profileen aldaketak gertatu dira. Adinekoren eta emakumeen garrantzia areagotu da, baita etorkinena ere. Bestalde, familietan adingabeen presentzia murriztu da, eta mendetasun egoerak areagotu.

Inguruabar horiek, emakumea lan-merkatuan sartzearekin batera, arazo berriak sortzea eragin dute elkarbitzita unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrezan inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

EUSTAten *"Laneko, Norbanakoaren eta Familiako Bizitzak Adiskidetzeko Inkestak"*, zentzu horretan, erakusten du 2010ean EAEko pertsona okupatuaren heren bat baino gehiagok (%35,1ak) zailtasun asko dituela lana eta mendeko senideen zaintza uztartzeko. Zailtasun maila handi hori okupatutako pertsonen %29,6an gertatzen da adingabe seme-alabei arreta egiteari dagokionez. Era berean, langileen bosten baten kasuan, ordaindutako lanari ematen dioten denborak etxeko lanak egitea galarazten die. Lautik batek (%24,4ak) esan du zailtasun handiz bakarrik gozatu ahal dituela bere aisialdia edo bestelako jarduerak pertsonalak (prestakuntza adibidez).

Gainera, gizonen eta emakumeen beren gain hartzen dituzten zamen ezberdintasunek eragina dute bizitza pertsonalerako, aisialdirako eta prestakuntzarako edukitzen den denboran. Izan ere, emakumeen ia laurden batek (%23,9) denborarik ez dutela diote, eta gizonen artean bost gizonetatik bat baino gutxiago dira (%18,4). Denbora ez izate hori familia osatzen den adinen artean izaten da, 35 eta 44 urteen artean; adin horretatik aurrera gutxitu egiten da.

Orokorrean, EAEko pertsona okupatuek ordaindutako lana eta norberaren eta familiako bizitza bateratzeko daukaten batez bestelako zailtasuna 10 puntutik 3,3koa da (10 puntu bateratzeko erabateko ezintasuna litzateke). Okupatutako biztanleriarentzat zailtasun maila handiena dakarren adiskidetzearrekin erlazioatutako elementua mendeko pertsonen zaintza da (4,6 puntu), eta gero adingabe seme-alaben zaintza (4 puntu). Nabarmenezkoa da mendeko pertsonen zaintzak antzeko arazoak ematen dizkietela gizonen eta emakumeen (4,6), baina adingabe seme-alaben zaintzaren zailtasuna 4,2 puntukoa dela gizonentzat eta 3,8 puntukoa emakumeentzat. Era berean, arazo gutxien ematen duena kudeaketa burokratikoak egitea da.

Egoera horiek arintze aldera, Eusko Jaurlaritzak *"Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I. Plana"* jarri zuen abian 2002an, familiei seme-alaben kopurua libreki erabakitzea eragozten dieten ekonomia, gizarte eta lan oztopoak gainditzeko. 2006an bigarren plana hasi zen, 2010. urtera arteko indarraldiarekin. Azkenik, 2011ko abenduan EAEko familiei laguntzeko erakunde arteko III. plana, 2011-2015 denboraldirako, onartu zen. Azken plan hori aurreko bien bilakaera da, famili politiken ikuspegi zeharretakoago baterantz, haien elkar mendetasuna eta erakunde artekotasuna indartuz.

2011ko daturik ez dakigu oraindik, baina Eusko Jaurlaritzak seme-alabak jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik ematen dituen zuzeneko laguntzek eta familiako eta laneko bizitza bateratzeko laguntzek, 2002an I. Familien Planarekin hasi zirenak, 2010. urtera arte, 311,81 milioi euroko gastu orokorra ekarri dute. Haietatik, 160,99 milioi (guztien %51,6) jaiotza, adopzio edo adopzio aurreko abegiagatiko

laguntzak dira eta gainontzeko 150,82 milioi euroak (%48,4) bateratzeko laguntzei dagozkie.

### 1.9. Bizi-baldintzak

Lehenik eta behin, EINen *“Bizi Baldintzen Inkestak”*, Europar Batasunaren Errenta eta Bizi-baldintzen gaineko estatistikak harmonizatzeko prozesuaren parte denak (*“Statistics on income and living conditions”* (EU-SILC) izenekoa), erakusten du EAEko batez besteko errenta jaitsi dela, bai familiena, bai pertsonena (-%2,8 eta -%2,9 hurrenez hurren, azken urtean). Euskal familia askorengan eragiten duten zailtasun materialak eta gabeziak erakusten ditu halaber. Adibidez, %20,9ak adierazi du ezin diela aurreikusi gabeko gastuei aurre egin, %39,1ak hilabetea amaitzeko zailtasunak dauzka eta %25,3ak ezin du urtero astebeteko oporraldia hartu.

Aitzitik, okerrera egin duen arren, EAEko bizi-baldintzen egoera, konparatuta, estatukoa baino hobea da eta, termino orokorretan, Europako batezbestekoa baino hobea. Adibidez, EUROSTAT definitutako gabezia materialeko indizea kontuan izanez gero (EIN ere autonomi erkidegoentzat kalkulatzeko hasi dena), gabezia hori euskal biztanleriaren %6,6arengana iritsiko litzateke, espainiarren %13,2arengana, euro-eremuko biztanleen %13,5eraino eta EB-ko biztanleriaren %17,4raino. Era berean, EAEn biztanleriaren %9,4 pobrezia mugatik behera bizi dela esan dezakegu. Ratio hori %19,5ekoa da estatuan, eta %16,4koa Europar Batasunean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin *“Gizarte Zerbitzuen Eskaperaren Estatistika”* egiten du. Beraren *Gizarte Premien Inkestak* EAEko biztanleriaren gizarte premiak ezagutzeko ahalbideratzen du, haren inpaktua benetako eskaeran neurtzen du, eta herritarren bizi maila eta kalitatearen zenbait adierazle baloratzen ditu. Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan, mantentze pobrezia azterlanetik eratorritako gabezien adierazle azterlanari erreparatu diogu.

EAEko biztanlerik gehienek bizi-kalitate handia daukate (%91,2ak ez du oinarritzeko gabeziarik, estatistika honek aztertutako adierazle arabera). Halere, komeni da gogoraraztea 2010eko emaitzek azaltzen dutela gure komunitateko bizi-maila erlatiboki narriatu dela, pairatzen ari garen aurrekaririk gabeko krisiaren ondorioz, zalantzarik gabe:

- EAEko familietan bizi diren 61.422 lagunek, inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan, bigarren eskuko arropa erosi behar izan dute arazo ekonomikoaren ondorioz. Hori biztanleriaren %2,8 da (2006an %2,8).
- Azken neguan, batzuetan gutxienez, etxean hotz izan diren familietan bizi diren 81.669 pertsona, ez daukatelako berokuntza sistema egokirik edo energiaren gastuak murriztu behar izan dituztelako, osotasunaren %3,7 (2006an %2,6).
- Azken hiru hilabeteetan elikadura arazoak izan dituzten familietan bizi diren 97.660 pertsona. Pertsona horiek guztien %4,5 dira, 2006ko %3,4 baino gehiago. Gehikuntza hori batez ere elikadura arazo orokorrak dituzten pertsonen lotuta dago, elkartzeko gose arriskurik gabe (%2,7tik %3,7ra). Gose arriskuaren pertzepzio egoerei buruzko adierazlea egonkor mantentzen da (2006an %0,6 eta 2010ean %0,7). 15.965 pertsona daude, 2010ean, arrisku goreneko familiei lotuta.

- Azken urtean oinarritzeko premiei aurre egiteko arazoak izan dituzten familietan bizi diren 97.574 lagun, EAEko biztanleriaren %4,5 alegia.
- 167.710 pertsona (EAEko biztanleriaren %7,7a alegia) azken hiru hilabeteetan hirugarrenen aurrean betebeharrak betetzeko edota beren gastu-premiei aurre egiteko arazoak izan dituzten familietako kide dira (2006an, %5,7).

Bestalde, adingabeak eskubideen subjektu dira, baina gainera, dauzkaten ezaugarrien ondorioz, biztanleriako sektore bereziki zaugarria da, bermatu behar diren eskubide bereziak dauzkatena. Gainera, beren eskubideak arrisku berezian dituzten taldeak daude: babestu gabeko haurrak eta nerabeak, lagundu gabeko atzerritar adingabeak, adingabe urratzaileak, hezkuntza beharrez bereziak dituzten ikasleak etab.

Ezinezkoa da zehatz-mehatz jakitea zenbat adingabe dagoen babesik gabeko egoeran, egoera horietako asko ez direlako jakinak, ez baitira detektatzen neurri egokiak hartu ahal izateko. *“Adingabeak babesteko estatistikak”*, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioi Haurren Behatokiak eginak, datu bati buruz arreta deitzen du: haurrekin eta nerabeekin harremanetan dauden profesionalak kalkulatzeko 1.000 adingabekotik 15ek nolabaiteko tratatu txarrak edo arduragabekeria fisiko edo psikikoa jaso dezakete. Estatistika honek, lehenik eta behin, irekitako espedienteen kopurua eskaintzen du, babes-neurrien pean zenbat ume dagoen jakiteko. Horrela, EAEn, 2009an, guztira 1.927 espediente ireki zitzaizkien adingabekoei, babes neurriren baten ondorioz. Horregatik, 100.000 haurretatik 589,4 babes neurriren baten pean daude.

Arreta ematen zaion adingabekoen profilaz, ARARTEKOak arreta deitu du, Legebiltzararentzako urteko txostenetan, 13 eta 17 urte arteko gero eta nerabe gehiago dagoela egunero droga kontsumitzen, eta gurasoek ez dutela beren burua kapaz ikusten mugak edo arauak jartzeko. Horri, askotan, eskolako absentismoa gaineratu behar zaio, kode kultural ezberdinak dakartzaten etorkinen areagotzea, guraso bakarrek familiak, familia barruko indarkeriari lotutako arriskuak eta emakumeen aurkako tratatu txarrak... Haurren gaian, politika instituzionalaren baldintzetako bat da haurrak beren guraso biologikoen ondoan egon daitezela saiatzeko. Baina, kanpoko zenbait inguruabarren ondorioz, batzuetan ezinezkoa da. Normalean Udaleko Gizarte Zerbitzuak dira egoera horiek atzematen dituztenak, kasurik gehienetan ikastetxeetatik, auzokideengandik edo Udaltzaingotik datorren informazioari esker.

Familiei laguntzeko teknikariek uste dute seme-alabak zaintzeko gai ez diren familien artean profil argirik ez dagoela, baina normalean zenbait faktore izaten dituzte denek: langabezia, gizarte bazterketa, droga mendetasunak edota adimen gaixotasunak. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu administrazioak arreta ematen dien adingabe gero eta gehiago egoteak zerikusi handia duela lagundu gabeko atzerritar adingabekoen etorrerarekin. Guztira, foru aldundiek 2009ko abenduaren 31n, 1.357 adingabe zituzten zaintza pean, hau da, 100.000 adingabe bakoitzeko 415eko tasa (aurreko urtekoaren antzekoa).

Lagundu gabeko atzerritar adingabekoei dagokienez, haien presentzia fenomeno nahiko berria da gure erkidegoan eta administrazioei erronka garrantzitsuak planteatzen dizkie.

2009an, Ministerioak Foru Aldundien informazioarekin egin zituen datuen arabera, EAEk adingabekoak egoitzan hartzeko 892 alta jaso zituen. Haietatik 587 atzerritarrak ziren; horrek inmigrazioari lotutako problematikaren garrantziaren tamaina erakusten du. Hain zuzen ere, aztertutako adierazle guztiek erakusten dute atzerritarrak direla EAEko erakundeetan arreta jasotzen duten adingabekorik gehienak.

Aitzitik, ARARTEKOak, "Haur zaugarriak" txostenean (2011) azaldu zuen datu hauek jendeak oso errotuta duen ustea gezurtatzen dutela: kolektibo hau etengabe hazten ari dela. 2009ko datuek, zehazki, azken urteetako joeran egonkortzea erakusten dute, baita jaitsierak ere 2008ko kopuruen aldean. Adibidez, abenduaren 31n hartutako atzerritar adingabekoak %11,9 gutxitu ziren 2008 eta 2009. urteen artean), Araban izan ezik (urte amaieran hartutako atzerritar adingabekoen kopurua, aurreko urtearen aldean egonkorra den arren, 2,5 aldiz biderkatu da azken bi urteetan).

### 1.10. Osasuna eta osasun sistema

EINen datuen arabera, EAEko jaiotze uneko bizi itxaropenak (BI) gorako joera izan du, bai emakumezkoen artean, bai gizonezkoen artean. Hala, BI 80,3 izatetik 81,9 izatera pasa da 2003. eta 2009. urteen artean. Gizonen kasuan 76,8 urtetik 78,5 urtera pasa da (+1,7 urte) eta emakumeen kasuan 84,1 urtetik 85,6 urtera (+1,4 urte).

Bestalde, EUSTATEk 2020. urtera arte egindako bizi-itxaropeneko aurreikuspenek erakusten dute euskal biztanleria are urte gehiago biziko dela. Emakumeak 87,3 urteraino eta gizonak 81,2 urteraino biziko dira. Beraz, bizi-itxaropenean, bi sexuen arteko aldea 6,1 urtera murriztuko litzateke.

Haurdunaldi, erditze eta puerperioagatiko ingresoak baztertuta, ospitaleratzeko bi kausa nagusiak EAEn, 2010ean, nerbio sistemako eta zentzumenen organoen (hauen arean katarata nabarmendu behar dugu) gaixotasunak izan ziren, gaixo guztien %12,1eraino, eta mila biztanleko 17,6 kasuko tasarekin, zirkulazio aparatuen gaixotasunekin batera (%11,5; 16,8 kasu 1.000 biztanleko). Hirugarrenik digestio aparatuko gaixotasunak ditugu (%11,1, 1.000 biztanleko 16,2 kasu), eta laugarren eta bosgarren lekuetan, tumoreak (%9,1, eta 1.000 biztanleko 13,3 kasu), eta osteomuskularrak eta lokomotoreak (%8,6, eta 12,6 kasu 1.000 biztanleko).

Gaixotasun osteomuskularrak, zahartzeari lotuak, hala nola osteoartrosia, arnasketa aparatuen aurretik jarri ziren. Azken horiek, era berean, %8,3 jaitsi ziren 2009. urtearen aldean, gripe eta pneumonia kasuen beherakadagatik. Gripe kasuak, batez ere, abenduan izan ziren, eta beraz, 2009. urtean zenbatzen dira.

Ospitalez kanpoko jarduera publikoari dagokionez, EUSTATEn datuen arabera, ondokoa daukagu:

- Ospitalez kanpoko 472 zentro publikoek, 2009an, 14,5 milioi kontsulta eman zituzten, aurreko urtean baino %0,55 gehiago. Hazkunde hori enpleguaren hazkundera baino handiagoa da, %0,4koa 2008. eta 2009. urteen artean.
- Langile medikoen kopuruaren gehikuntzak ekarri du mediku bakoitzeko biztanle kopurua kopuru osoetan (715 biztanletik 713 biztanlera mediku bakoitzeko) eta medikuntza orokorrean (1.258 biztanletik 1.235 biztanlera mediku bakoitzeko) jaitea, baina ez

pediatrian, espezialitate horretan proportzioa 805 biztanletik 811 biztanlera igo baita mediku bakoitzeko.

- 2008an mediku bakoitzeko batez besteko kontsultak 4.810 izan ziren. Mediku orokorrek eta pediatrek zenbateko hori gainditu zuten, izan ere, 5.832 eta 5.377 kontsulta hartu zituzten, hurrenez hurren. Gainerako medikuen kasuan, batez bestekoa txikiagoa da: dermatologoak (4.584), traumatologoak (3.774), oftalmologoak (3.575), eta 3.400 kontsulta ingururekin, urologoak eta endokrinok.
- Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,7koa izan zen batez beste. Batezbesteko hori txikiagoa zen medikuntza orokorrean (4,7 kontsulta biztanleko) eta antzekoa pediatrian (14 urtetik beherakoak beren osasun zentrorra joan ziren, pediatraren gana, 6,6 aldiz batez beste).

Ospitaleko jardueri (publikoa eta pribatua) erreparatu gero, honako hau agertzen dute EUSTATEn datuek:

- 2008. eta 2009. urteen artean gora egin dute sektore publikoan baliabideen arloko (ospitaleak, oheak, inkubagailuak, ebakuntza gelak, erditzeko gelak, kanpoko kontsulten gelak eta langileak) aldagai guztiek, ohe eta inkubagailu kopuruak (behera egin dute) eta ospitaleen eta erditzeko gelen kopuruak (berdin mantentzen dira) izan ezik. Bestalde, sektore pribatuan behera egin du oheen, inkubagailuen, erditze gelen, medikuen eta laguntzazkoak ez diren langileen kopuruak, ospitaleen kopurua berdin mantendu da, eta gainerako aldagaiek gora egin dute.
- 100 oheko mediku kopuruak gora egiten jarraitzen du, bai ospitale publikoetan, bai pribatuetan; 2009an 100 oheko 56 mediku zeuden lehenengoetan eta 24,7 bigarrenetan. Era berean, 100 oheko erizaintzako langileak ere areagotu dira, bai sare pribatuan, bai publikoan. Hala ere, bi sareen artean ere aldeak daude: sare publikoan 97,6 eta pribatuan 44.
- 1.000 biztanleko ohe kopurua murriztu egin da apur bat eta 3,6 ohe dira.

Osakidetzaren ospitaleko eta ospitalez kanpoko jardueraren inguruan.

- Batez besteko okupazio indize orokorrak behera egin du berriz ere 2010ean (2009arekin alderatuta ehuneko -1,5 puntu) eta %79,6 da. %100 gaintuta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik, digestioarekin loturiko espezialitatea dago (%104,6). %100aren azpitik baina batezbestekoaren gainetik zerbitzu mediko guztiak dauzkagu, errehabilitazioa eta zainketa aringarriak izan ezik. Honakoak dira: barruko medikuntza (%97,2), kardiologia (%80,3), hematologia (%90,7), pneumologia (%90,1) eta psikiatria (%90,1), eta kirurgia-zerbitzuetako batzuk ere bai: bihotz-hodietako kirurgia (%90,5), neurokirurgia (%80,9) eta urologia (%79,8).
- Batez besteko egonaldia, egunetan, berriro murriztu da, 5,8tik 5,6ra. Oso gaintek daude errehabilitazioa (29,3), zainketa aringarriak (15), psikiatria (15,1), hematologia (10,1) eta barruko medikuntza (8,1).

Azkenik, EAEn aurrekontuaren likidazio datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastu partida 3.542,3 milioi eurokoa izan zen 2010ean. Bestalde, Sail honen 2011ko gastuen aurrekontua 3.406,7 milioi euro izan zen. 2010ean likidaturiko osasun partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Osasun Plangintza eta Antolamendua eta Farmazia eta Prestazio

Ortoprotesikoa) 3.536,6 milioi eurokoak izan ziren; aldiz, 2011rako aurrekontuan jasotakoak 3.400,2 milioi euro, hau da, bi ekitaldien artean %3,9ko murrizketa egon da. Hala ere, Osasun Sailak baliabideen portzentajerik handiena izaten jarraitzen du oraindik; baliabide guztien %32,2 du eta programa nagusia Osakidetzari egindako transferentziak dira. 2010erako aurrekontu gastua BPGren %5,2 da, aurreko urtekoa baino %5,41 gutxiago. Osakidetza aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta egin zena, erakusten du erakunde horrek egindako gastua, 2010ean, 2.672 milioi euro izan zela (2009an baino +%5 gehiago), hau da, BPG nominalaren %4,08. Hazkunde horien azalpena ustiapen gastuen (langileria, hornikuntza eta beste gastu batzuk) hazkundera datza.

### 1.11. Hirigintza eta etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren "Higiezin Eskaintza Inkestaren" datuek adierazten dute azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) %54,4 igo dela (aurreko urtean +%4,9), laugarren hiru hilekoan 44.643 etxebizitzetara iritsi arte. 2011. urtean, beraz, eskaintza gehikuntza areagotu da, bi urtez gorantz eboluzionatu arte, baina askoz ere modu leunagoan. Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmendu behar ditugu:

- Etxebizitza libre eraiki berri salgaien eskaintza %20,7 gehitu zen, eta batez besteko prezioa, 2011ko laugarren hiru hilekoan, 3.770 €/m<sup>2</sup> zen, hau da, 2010eko batezbestekoa baino %2,8 gutxiago. Lurralde azterten badugu, Araban batezbestekoa txikiagoa da (3.438 €/m<sup>2</sup>), Bizkaian 3.802 €/m<sup>2</sup> eta Gipuzkoan 3.876 €/m<sup>2</sup>.
- Saltze eskaintza BOEen batez besteko prezioa 1.532 €/m<sup>2</sup> zen 2011n, aurreko urtean baino %3,9 gehiago. Eskaintza 2011ko laugarren hiru hilekoan 6.845 unitatekoa zen, aurreko urtean baino %91,6 gehiago.
- Eskaintza dauden bigarren eskuko etxebizitzaren stockean %64,3ko gehikuntza dago eta haien batez besteko prezioa 2011n 3.842 €/m<sup>2</sup> zen, aurreko urteko batezbestekoa baino %1,3 gutxiago. Lurraldeka, bilakaera nahiko ezberdina ikus daiteke, izan ere, Araban batez besteko prezioa %4 erori da, Gipuzkoan %6,2 eta Bizkaian %0,4 areagotu da.
- Alokairuan eskaintza 2.367 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino %7,8 gutxiago. Etxebizitza libreen zatia %31,8 gehitu da, 1.215 etxebizitzetatik 1.602 etxebizitzetara. Alokairuko etxebizitza babestua, ordea, %43,5 jaitsi da. Horrenbestez, babestutako alokairua 2010ean %53 izatetik 2011n %32 izatera igaro da; beraz, alokairuko eskaintza presentzian ia 21 puntu galdu ditu.
- EAEko alokairuko babestutako etxebizitzaren batez besteko errenta, 2011n, 279,2 euro zen hilean, aurreko urtean baino %36,8 gehiago.
- Azkenik, alokairuan eskaintza libreen laginak 2011n hilean 896,3 euroko batez besteko errenta izan zuen, aurreko urtean baino %2,7 gutxiago. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (993,8 € hilean); gero Bizkaia, 882,3 € hilean eta azkenik Araba (830,7 € hilean).

Bestalde, EAEn hasitako etxebizitza kopuru osoak, 2008an %32,9ko erorketa eta 2009an %43,4ko erorketa eduki eta

gero, zeinua aldatu zuen 2010ean, %6,7 haziz. Hazkuntza hori 2011n errepikatu zen, %22,8ko gehikuntzarekin. Guztira 9.260 etxebizitza hasi da; horietatik 4.804 askeak dira (%51,9) eta 4.456 babestuak (%48,1). Azken horietatik 3.663 BOE dira (-%2,5, 2010etik) eta 391 gizarte etxebizitzak dira (-%53,8). Bestalde, EAEn 2011n amaitutako etxebizitzak 11.374 dira, aurreko urtean baino %0,2 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%8,7) eta babestutako beherakadaren (+%10,7) ondorioz.

### 1.12. Gizarte babesa

Lehenik eta behin, EAEko Gizarte Zerbitzuetako gastua 2009. urtean (informazioa daukagun azken urtea) 2.123 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %14,1 gehiago, EUSTATen "Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintza Estatistikaren" arabera. Gastu hori gure erkidegoaren BPGaren %3,29 da urte horretan, eta biztanle bakoitzeko batez besteko 978,4 euroko gastua, 2008an baino %13,7 gehiago. Administrazio publikoen ahalegina 1.591 milioi eurokoa izan zen, guztia %75ekoa alegia, eta sektore pribatuak gainerako %25a eman zuen. Gastatu ziren bestekuroatik bat erabiltzaileen kuoten bidez eta beste salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Gizarte zerbitzuen aniztasunean, biztanleriari oro har eta adinekoei bideratutako zerbitzuak dira baliabide gehien bideratzen zaizkienak, bien artean gastuaren %70 hartzen baitute. Biztanleria osoari bideratutako baliabideen artean familiei eginko transferentziak daude, zehazki Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak.

Adinekoei dagokionez, haiei ematen zaizen arreta batez ere prestazio hauek dira: egoitza zerbitzuak, laguntza eguneko zentroak, etxe etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza. 2009an 19.533 egoitza plazako eskaintza zegoen. Hau da, 65 urtetik gorako 100 pertsonako 4,7 plaza bete ziren. Administrazio publikoak plaza hauen %35a titulartasun publikoko zentroetatik eskaini zuen eta beste %30 erakunde pribatuekin itundu zuen.

Mendetasunaren Legearen ezarpenari dagokionez, datu ofizialik ez dagoenez gero, Gizarte Zerbitzuen Zuzendarien eta Kudeatzaileen Espainiar Elkartearen kideek osatzen duten "Mendetasunaren Espainiar Behatokiaren" txostenen bitartez, mendetasun arretaren sistemaren abiatzearen jarraipena egin dezakegu, autonomi erkidegoen arabera. Azkenak, 2011ko abenduko datuekin, erakusten du EAEko beste autonomi erkidego batzuek baino garapen handiagoa dutela, bai baloratutako pertsonen portzentajearen (irizpenen %3,62; estatuan %3,2 batez beste), bai emandako prestazioetan (biztanleriaren %2).

Emandako prestaziorik gehienak Famili Inguruko Prestazio Ekonomikoari dagozkie; halere, Mendetasun Legearen arabera, hori kasu berezietan soilik eman beharko litzateke. Oraindik ez gara iritsi beste erkidego batzuen mailara, baina 2011n prestazio hori (eta ez beste laguntza batzuk) jasotzen duten Mendetasunaren Arretako Sistemaren onuradunak %55,7 ziren (estatu osoan %64,5).

Bestalde, 2011. urtean, milioi erdi pertsonatik gora (513.928, lehenengo hurbilketa baten arabera, informazio kontsolidaturik ez) Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioak jaso zituzten, hau da, aurreko urtean baino %1,4 gehiago, nahiz eta proportzio berean gehitu. Azken urteetan gertatu izan den bezala, gehikuntza horren arrazoia ordaindutakoaren arabeko pentsioen onuradunen

kolektiboaren bilakaera da, gainerako modalitateetan, oro har, onuradunen kolektiboa murrizteko joera baitago. Gizarte Zerbitzuaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleak %23,6 dira.

Ordaindutakoaren araberako pentsioei dagokienez (prestazioen %98 eta gastuaren %99 ekarri zituztenak), 2011. urtean onuradunen batez besteko kopurua 501.800 zen (+%1,5) eta hileko batez besteko zenbatekoa, 995,70 €, %3,1 gehitu zen 2010. urteaz geroztik. Beraz, urtean 6.995 milioi euroko gastua kalkulatzeko da, 2010ean baino %4,5 gehiago.

Guztira, EAEko pentsioen gastu osoa 2011n, behin-behineko hurbilketa egiten badugu, 7.047 milioi euro izan zen, 2010etik %4,5eko gehikuntzarekin; horrela, BPGaren gaineko portzentajea bi dezima gehitu da, 2010eko %10,3tik %10,5era (EUSTATen behin-behineko datuekin).

Azkenik, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Sarrerak Bermatzeko Errenta deritzona da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean oinarrituta sortu zena. 2011n. urtean Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen zuten familien kopurua 55.660 zen (abenduko datua). Beraz, aurreko urteaz geroztik %1,2ko gehikuntza izan da, orduan 55.020 bizikidetz-unitatek arreta jaso baitzuten. Sarrerak Bermatzeko Errenta gisa 2011. urtean 330,10 milioi euro ordaindu ziren (2010ean baino %4,9 gehiago). Gehikuntza hori autonomi erkidegoko hiru herrialdeetan modu ezberdinean banatu zen. Horrela, gehikuntza hori handiagoa izan zen Gipuzkoan (+%11,4) eta Araban (+%9,3); Bizkaian, berriz, EAEko batezbestekoa baino txikiagoa izan da (+%2,7).

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema bat artikulatzea da,

biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izateko. Indarrean egon den lehenbiziko urtean, EPOk 51,107 milioi euroko gastua ekarri zuen, eta 2011n 70,551 milioi eurokoa (+%38). 2011ko abenduan, jasotzaileen kopurua, guztira, 18.323 zen (2010eko abenduan baino %14,2 gehiago). Jasotzaileen %21,1 Araban bizi ziren, %56,1 Bizkaian eta %22,8 Gipuzkoan.

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarritzko beharrian espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonen egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2010. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 17,3 milioi euro bideratu ziren. Zenbateko hori, eta gehitu zitzaizkion 6,7 milioi euroak, 24 milioi euroko gastua dira guztira, aurreko urteko 54,5 milioien aldean. EAEko 2011ko Aurrekontu Orokorretan, printzipioz, berriro ere 17,3 milioi euro bideratu ziren Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako, baina memoria hau amaitzeko egunean ez dakigu laguntza horietarako bideratu den benetako zenbatekoa.

Guztira, 2011. urtean, lehen hurbilketan, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 418 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino %7,2 gehiago alegia, honela banatuta: 330,1 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentarako (guztiaren %79), 17,3 milioi Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako (%4,1, behin-behineko datuak diren arren) eta 70,55 milioi euro Etxebizitzaren Prestazio Osagarri berriarentzat (%16,9), bere bigarren urtean. EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioan bilakaera positiboa ikusi dugu berriro ere.

## 2. Gogoetak

### 2.1. Demografia eta inmigrazioa

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere inmigrazioagatik, 2010ean haren ratio garbia berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen. Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarritzko zeregina dute.

2010eko urtarilaren 1ean 32,5 milioi atzerritar bizi ziren, biztanleria osoaren %6,5 izanda. Haietako gehienak, 20,2 milioi, EB-koak ez ziren herrialdeetakoak ziren. Gainerako 12,3 milioi biztanleak EB-ko beste herrialde bateko herritarrak ziren. Baina gainera, atzerriko herrialdeetan jaiotako pertsonen kopurua kontuan izanez gero (atzerriko nazionalitatea dutenak eta bizilekua den herrialdean nazionalizatu diren atzerritarak), kopurua 47,3 milioi lagunetaraino gehituko litzateke, Europar Batasuneko biztanleria osoaren %9,4 alegia.

EBn bizi diren atzerritarren %75 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzia eta Italian bizi dira. Era berean, atzerritar egoiliarren proportziorik handienak Luxenburgon (%43), Letonian (%17,4), Estonia eta Zipren (%15,9), Espainian (%12,3) eta Austrian (%10,5) daude, EUROSTATen datuen arabera.

Inmigrazioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin beriz elkartzea Austrian, Frantzia edo Suedian inmigrazioarako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko inmigrazioaren portzentaje handia dute. Era berean, EInen *"Inmigrazioari buruzko Inkesta Nazionalea"* delakoak agertu zuenez, 2007an EAEn bizi ziren etorkinak gure erkidegora, batez ere, lan hobearen bila (%42,9), familia arrazoiengatik (elkarretaratzea) (%32,1), bizi-kalitatea hobetzeko (%23,9) eta lan faltagatik (%21,8) etorri zirela.

2010eko Atzerritar Etorkinen Inkestak erakusten du atzerriko jatorria duten eta EAEn bizi diren pertsonen %50,1ak erreferentziako datan beren lanen edo errenten etekin ekonomikoak dituztela diru-sarrerara nagusi. Beren diru-sarrera nagusiak nolabaiteko pentsio edo prestaziotan (kontribuziozkoa edo ez) duen biztanleriaren pisua oso mugatua da, aztertutako biztanleriaren %2,1 baino ez baitago egoera horretan. Bestalde, diru-sarrerak bermatzeko errenta kontuan izandako biztanleriaren %9,6aren sarrera iturri nagusia da, eta gero langabezi prestazioa, %7,2ak jasotzen baitu. Gainera, 16 urtetik gorako etorkinen %29,9ak adierazi du ez daukala diru-sarrera iturririk.

Horrenbestez, berresten da gure erkidegoan inmigrazioak motibazio ekonomikoak dauzkala eta, noski, kolektiboko pertsonarik gehienak laneko diru-sarrerekin bizi direla, gaur egungo testuinguruan ere, gure gizartean hedatzen ari diren zenbait iritziren kontra. Ideia hori orain dela gutxi onartu den Eusko Jaurlaritzaren "Herritar Inmigrazioaren eta Kultura arteko Bizikidetzaren III. Planean, 2011-2013" azpimarratzen da. Plan horretan nabarmentzen da kolektibo horren urteko diru-sarrera garbien %80 inguru lanetik datozen diru-sarrera propioetatik datozela.

Plan horrek inmigranteen garrantzi demografiko, sozial eta ekonomikoa azpimarratzen du. Kontseilu hau tesi horren alde dago, geure ekimeneko azterlanean ("Aurreikusitako eboluzio demografikoaren eragin ekonomiko eta soziala EAEn") azaldu dugunez, memoria honen 2010eko edizioan gogoeten atal hau dedikatzen dioguna. Inmigrazioak biztanleriaren bolumen osoa mantentzen lagundu du, demografikoki atzerakoia den gizarte batean. Inmigrazioa gizarte zaharkitu bat gaztetzeko faktorea da.

Gainera, zahartze prozesuan dagoen gizarte batean zeregin-ekarpen erabakigarria da. Inmigrazio Planaren iritzi, etorkizunean litekeena da migrazio fluxuak neurri handi batean motelduko direla, baina ziurrenik, krisiak etxeko eta zaintza lanen sektorean inpaktu txikiagoa izan duenez gero, pentsa dezakegu oraindik ere EAEk etorkin gehiago jaso ditzakeela datozen urteetan.

Zentzu horretan, gure azterlanean azaldutakoa errepikatu behar dugu: integratutako etorkinak behar ditugu, lan-merkatuak balio handiko giza kapital honen etekinak jaso ditzan. Hain zuzen ere, ikusi dugu EUSTATen Migrazio Mugimenduen Estatistikako datu guztiek erakusten dutela gure erkidegoak migrazio saldo positiboak dauzkala prestakuntza maila handiagoa duten pertsonen artean (2.000 lagun inguru 2010. urtean bakarrik). Hau da, data horretara arte erdi eta goi mailako tituludun gehiago iritsi ziren, joan zirenak baino, baina ez dakigu horrek nolako eragina izango duen gaur egungo testuinguru ekonomikoan.

### 2.2. Hezkuntza

EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioan bilakaera positiboa ikusi dugu berriro ere. Izan ere, EUSTATen 2010-11ko datuen aurrerapenaren arabera, hor hezkuntza berezia sartuz gero, %2,3 gehitu da; hezkuntza berezia ez badugu sartzen, %1 gehitu da.. Gainera, matrikulazioa beheko mailetan (haur eta lehen hezkuntzak eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan gehitu da.

LHko matrikulazioaren gehikuntza berriro nabarmendu da (%7 maila ertaineko LHn eta %4,1 goi mailakoan). EAEn irakaskuntza ertainak ikasten dituzten ikasleen %50,8ak LH aukeratzen dute nahitaezko irakaskuntza amaitutakoan (gainera joera hau areagotzen ari da). Hala eta guztiz ere, emakumeek gizonek baino gutxiago parte hartzen dute lanbide ikasketetan, batez ere izaera teknikoa duten lanbide familietan.

Unibertsitateko irakaskuntzari dagokionez (lehen eta bigarren zikloko eta graduiko ikasketetan), pozgarria da graduatutako pertsona kopuruak gora egin duela 2008-09 eta 2009-10 ikasturteen artean, %3,2 (%4,5 gizonetan eta %2,4 emakumeetan). 10.496 pertsona graduatu dira (aurreko ikasturteko 10.170en aldean): 6.249 emakume eta 4.247 gizon.

Hezkuntzaren adierazleei dagokienez:

Nabarmendu behar dugu ikasle bakoitzeko (publikoa eta hitzartua) gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, lanerako prestakuntza kanpo, 2009.



urtean EAEn 7.595 eurokoa dela. Gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gastu handiena duena.

Datu hauek jakitea poztekoa da:

- EAEK, 2009-10 ikasturtean, estatukoa baino eskolatze-itxaropen handiagoa dauka (15,7 EAEk eta 14,7 estatuak).
- EAEn eskola behar baino lehen uztearen tasak beheranzko joera du, eta estatukoa eta Europakoa baino txikiagoa da: EAE, %12,6, 2010ean; estatua, %28,4, 2010ean; eta EB15, %15,4. Zentzu horretan, ahaleginak egiten jarraitzea gomendatzen dugu, Europa 2020 Estrategian eskola behar baino lehen uzten dutenen tasa, 2020. urtean beranduenez, %10 baino txikiagoa izatea dago-eta.
- DBHko graduatze tasa gordina estatuko handienetakoa da (%87,8). Halere, azpimarratu behar dugu tasa hori gehitzen jarraitu beharra dagoela, hezkuntzako komunitateak beharrezkotzat jo duelako DBH "arrakastaz" amaitzen duten ikasle kopurua gehitzea (adina gorabehera).
- EAE ikasketa hauetako graduatze tasa gordin handienak dituzten autonomi erkidegoen artean dago: DBH (%87,8), LHko goi ikasketa teknikoak (%33,2), diplomaturako ikasketak (%24) eta lizentziaturako ikasketak (%23).
- Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntzako graduatuak, 20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko, EAE aurrera egiten ari da etengabe, eta horregatik estatuko nahiz Europako lehenengo postuetan gaude. Gure erkidegoan goi mailako graduako lanbide heziketa (CINE 5B) daukaten pertsonen kopuruari zor zaio hori, neurri handi batean: estatuko batezbestekoa hiru aldiz eta Nafarroaren ia bikoitza (Nafarroa da goi mailako lanbide heziketako indize altuena duen bigarren autonomi erkidegoa).

Eta ondoko hauek direla-eta arreta deitu behar dugu:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari bideratutako aurrekontu partida 2011. urtean %6,5 gutxitu da aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Gastu hori EAEko BPGaren %3,93 da, 2010ean izandako portzentajea baino 0,28 puntu gutxiago beraz.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2009. urterako argitaratutako datuen arabera, hezkuntza administrazioen gastua, BPGaren gainean, antzekoa da estatuan eta EAEn. Halere, unibertsitateko hezkuntza eta unibertsitatetik kanpoko hezkuntza bereiztuz gero, nabarmena da EAEk portzentaje txikiagoa duela lehenengoan (EAE: %3,6 unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan eta %0,7 unibertsitatekoan; estatua: %3,2 unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan eta %0,97 unibertsitatekoan).
- Egokitasun tasen eboluzioa ez da egokia; denboran asko gehitzen dira.
- 2009an, 25 eta 64 urte arteko EAEko biztanle helduen erdia baino gehiagok nahitaezkoak baino ikasketa handiagoak dauzka (%54,8ak). Aitzitik, ELGAko herrialdeetan, 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %73a gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etaparen mailara iritsi da.
- Sexuen arabera, EAEn Zientzia eta Teknologiako Goi Hezkuntzako graduazio tasa, 2008-09 ikasturtean, %34,2 da gizonentzat, eta %14,1 emakumeentzat. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak (goi mailako

prestakuntza zikloak) eta unibertsitateko irakaskuntzak banakatuz gero, emakumeen graduazio ratioak (%3,8 eta %10,3) gizonenak baino txikiagoak dira (%17,5eta %16,7). Goi mailako prestakuntza zikloetako graduazioan dagoen ezberdintasuna bereziki esanguratsua da.

Gogorazi behar dugu, ildo honetan, berrikuntza eta ikerkuntza zientifikoa berrizatu behar diren ondorioz EBk berebiziko garrantzia eman diola Matematiketan, Zientzian eta Teknologian graduatutako pertsonen tasaren gehikuntzari. Sexuaren desoreka ikusita, gizonen eta emakumeen artean karrera zientifiko eta teknologikoetako titulazioak orekatzeko helburua ezarri da.

Horrek denak erakusten du Hezkuntzan egiten den ahalegina garrantzitsua izanik ere eta emaitzak onak izanik ere, komenigarria dela eremu honetan arreta handia ematen segitzea, une hauetan alderdirik txarretan sakontzen jarraitu ahal izateko.

Ikasle batzuek daukaten hezkuntzako desabantaila egoeraren jatorria inguruabar pertsonal edo soziokulturaletan egon ohi da sarritan, askotan beren inguruko arrisku edo bazterketa egoerei lotuak. Eta ez dugu ahaztu behar hezkuntza gero eta gehiagotan erantzukizun kolektiboa dela, bizitza osoan zehar garatua eta bizi den lurralde eta gizarte testuinguruaren eragin handiarekin.

Etorkizuna, neurri handi batean, Jakintzaren Gizarterantz aurrera egiten jarraitzeko dugun gaitasunaren emaitza izango da. Erronka hezkuntza sistema egokia garatzeko bitartekoak eskuratzea da. Hezkuntza sistema honek oinarriko eta lanbide gaitasunak irakasteko gai izan behar du, sistema bidezkoa eta parekidea izan behar du, bazterketa arriskurik sortzen ez duena, jakintza mota eta modu guztiak (hau da, jakintza zientifikoa, humanistikoa, ekonomikoa, artistikoa etab) eskuratzea erraztu behar du, ikasteko modu ezberdinak bultzatu behar ditu (hezkuntzako zenbait ibilbide egon behar dira, hezkuntza eta enpresa sistemen artean pasabideak egon behar dira etab), eta bizitza osoan zehar ikaskuntza bultzatu behar du.

### 2.3. I+G+b jarduerak eta IKTak

EUSTAT, EUROSTAT eta EINen datuen arabera, I+G+b adierazle nagusiek EAE estatuko autonomi erkidego dinamiko eta berritzaileen artean kokatzen dute. Are gehiago, adierazle batzuetan Europako batezbestekoaren gainetik dago. Aitzitik, oraindik ere bidea daukagu egiteko gai hauetan erreferenteak diren herrialdeen mailara iristeko. Hala,

- I+Gko ahaleginak EAE EB27ko batez besteko balioaren gainetik ipintzen du (%2,08 eta %2,01 hurrenez hurren; EAEko 2010eko datua eta EB-ko 2009ko datua).
- Pozgarria da I+G jardueretan lanean hartutako pertsona kopuruak gora egiten jarraitzea eta Estatuan eta EBn erregistratutako balioen gainetik kokatzea, eta baita gaian dinamikoaren diren lurraldeetatik gertu ere. DOBen neurtua, 2010. urtean lanean zegoen biztanleriaren %18ra iritsi zen. Estatuan %11,2koa da eta EBn %11,5koa.
- I+G gaian egindako gastuaren finantzazioari dagokionez, azken urteetan sektore pribatuak edukitako pisua apur bat galdu dela ikusi bada ere, sektore pribatua da oraindik ere finantzazio iturri garrantzitsuena. Sektore

pribatuak I+G gaian egindako gastu osoaren %54 finantzatu du, eta Administrazioak, berriz, %40.

- Enpresa berritzaileen (berrikuntza teknologikoak eta ez teknologikoak) portzentajea (9 langiletik gorakoak) %38,9ra iritsi da. Estatuan, EINen arabera, aldi berdinerako portzentajea %32,9koa da. CIS 2008ren arabera (CIS6), EB27an, industriako eta zerbitzuetako enpresen %52ak jarduera berritzaileak izan dituzte (egiten ari diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dauzkaten enpresak barne) 2006 eta 2008. urteen artean. Estatu kideen artean, portzentajerik handienak Alemanian (enpresen %80), Austrian (%52,5), Luxenburgon (%65) eta Irlandan (%57) daude. Espainiak %43,5 dauka. Batezbestekotik urrunen dauden estatuak hauek dira: Letonia, Polonia, Hungaria, Lituania eta Bulgaria.

Europako Berrikuntzaren Adierazle Panel berriaren arabera, 2010. urtean, EAE ondoko hauetan nabarmentzen da:

- Hirugarren mailako hezkuntza (unibertsitatea edo goi mailako lanbide heziketa) daukaten pertsonen portzentajea, 30 eta 34 urte artean: %41 da, eta Europako batezbestekoa %32,3 da.
- 20 eta 24 urte arteko biztanleria, gutxienez bigarren hezkuntza amaitu dutenak: %78,3, Europako batezbestekotik hurbil (%78,6).
- Berrikuntzara zuzendutako enpresa inbertsioa, bai I+G bai antzeko gastuak. BPGaren gaineko I+G gastu pribatuaren portzentajea nabarmentzen da. EAEn %1,51 da eta Europan, batez beste, %1,25.
- Sektore pribatuko enpresen arteko eta enpresa pribatuen eta sektore publikoaren arteko harremanak eta lankidetzak maila: lortutako emaitzak Europako batezbestekoaren oso antzekoak dira.

Era berean, eta gainerako dimentsioetan lortutako puntuazioa Europako batezbestekoa baino txikiagoa den arren, zenbait adierazle aipa ditzakegu, zeintzuetan EAEk Europako Batasunaren antzeko emaitzak dituen, adibidez:

- Nazioarteko zientzi argitalpenak elkarlanean.
- EBtik kanpoko doktoreak.
- EBko marka komertzialak, BPGko bilioi bakoitzeko.
- Produktuan edo prozesuan berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak.
- Jakintza intentsiboko jardueretako lanpostuak.
- Teknologia ertain eta altuko esportazioak.
- Jakintza maila handiko zerbitzuko esportazioak.

Aitzitik, tokia dago hobetzen jarraitzeko, izan ere:

- Sektore publikoak I+Gn egindako gastuaren ondorioz lortutako balioak, BPGaren portzentajearen, eta arrisku-kapitalaren erabilgarritasunean lortutako balioak europar batezbestekotik behera daude.
- Merkaturako edo enpresarako produktu berriak saltzeagatik lortutako negozio-zifra txikiagoa da europar batezbestekoa baino; berdin gertatzen da PCT patente eskaerekin (Patent Cooperation Treaty: PCT, munduko patenteak) BPG bilioi bakoitzeko.
- Azkenik, marketingean edo antolaketan berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainen portzentajea ere azpitik geratzen da.

Etxeetako edota biztanleriaren IKT ekipamenduei dagokienez, esan behar dugu zorionez EAEk hazten jarraitzen duela. Aitzitik, Europako batez bestekoen azpitik gaudela ikusi dugu pixka bat. Gauzak horrela, Internetarako sarbidea duen 16 eta 74 urte arteko kide

bat gutxienez duen etxebizitza portzentajea %80koa da EB27n 2011. urtean, EAEn %65,8koa den bitartean.

Nabarmendu behar dugu Internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea estatuan dauden txikienetako bat dela. Horrela, EAE, %47arekin, leku onean dago, hiru autonomi erkidegok bakarrik baitute portzentaje txikiagoa. Balearrak (%41,2), Nafarroa (%43,5) eta Katalunia (%46). Enpresetan dauden IKTen ekipamenduei dagokienez, ikusi dugu horiek barneratzeko prozesuak hazten jarraitu duela eta, enplegu tamaina handiagoa eduki ahala, hazkunde murriztagoak daudela, izan ere, hobetzeko tarte eskasa da. Enpresen transakzio komertzialei dagokienez (Interneten bidez edo bide elektronikoz egina), atsegin handiz jakin dugu gehitu egin direla sortzen dituen zifra ekonomikoak eta merkataritza ekonomikoan parte hartzen duten enpresen kopurua. Hala eta guztiz ere, ohartarazi behar dugu ezberdintasuna dagoela europar batezbestekoei dagokienez; horrek erakusten du honelako transakzioak bultzatzen dituzten ekintzak beharrezkoak direla.

## 2.4. Ingurumenaren egoera

Azken urte hauetan zehar, ingurumenaren egoera orokorra hobetu egin da, gizartearen kontzientziazio orokorraren eta garapen iraunkorra lortze aldera gauzatutako jarduera publiko eta pribatuen ondorioz.

Horrenbestez, bilakaera positiboa egon da honako alor hauetan:

- Airearen kalitatea ona edo gutxienez onargarria da aztertutako azpigune guztietan.
- EAEn, 2008. eta 2009. urteen artean, berotegi-efektuko gas isuri osoa (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitateari lotutakoak barne) %10 jaitsi da eta, abiapuntu urtearekin alderatuta, hazkundera %6koa da, hots, Planean ezarritako helburua (%14) baino baxuagoa.
- Uren kalitatea.
- Ibaiena itxaropentsua da.
- Lakuetan eta barnealdeko hezeguneetan bilakaera positiboa antzeman da, nahiz eta oraindik ez den nahikoa.
- Trantsizio uretan oraindik ere arazoak dira.
- Kostaldeko uretan egoera ona da, eta helburuak maila handi batean bete dira.
- Bainatzeko uretan, 2010. urtean egindako analisiak erakusten du 5 bainu-eremu hobetu direla, 1. kategoriatik 2.era, eta 4 okertu direla, 2. kategoriatik 1.ra. Oro har, kalitatea ona da, bainu-eremurik gehienek parametroen nahitaezko balioak eta gida-balioak betetzen dituztelako (2. motako sailkapena).
- Industriako hondakin ez arriskutsu eta arriskutsuen sorkuntza murriztu egin da 2008 eta 2009. urteen artean: %22,9 lehenengoetan eta %18 bigarrenetan.
- Uraren per capita kontsumoa, %9,4 murriztu dena 2009. urtean, eta 126 litro dena egun eta pertsona bakoitzeko.
- Hala ere, honakoak nabarmentzekoak dira:
- Uraren balio unitarioa %14,9 gehitu da 2008aren aldean, eta %24,1, 2009aren aldean. 1,08 euro/m<sup>3</sup> da.
- Banaketa sarean galtzen den ura %10,4 areagotu da 2008 eta 2009. urteen artean, eta dagoen ur guztiaren %17,8 da.

Eta kezka pizten diguten joerak honakoak dira:

- Energiaren amaierako kontsumoa %1,9 gehitu da eta kontuan hartu beharrezkoa da, gure mendetasun

energetikoa eta lehen mailako energiaren euskal ekoizpen urria direla medio (415 Ktep, eskariaren %5,8; horietatik 395 Ktep energia berriztagarrietakoak dira). Gainera, aintzat hartu behar da EBk 2009ko apirilaren 21ean Politika Energetikoa onartu zuela, 2020an iturri berriztagarrietatik energia ekoizpenaren %20 lortzeko, energiaren kontsumoa %20 murrizteko eta BEG isuriak %20 murrizteko (Kyotoko Protokoloan planteatutakoa baino anbizio handiagoko helburua: %15eko murrizketa Espainiaren kasuan, 2012rako).

- Intentsitate energetikoa 2010ean 2000. urtekoaren %90 da eta, 2009aren aldean, 2 portzentaje-puntuak okertu da.

EAEko Industriako Ekobarometroaren 2011ko datuen arabera (2011ko urrian argitaratua), inkesta egin zaien enpresen %26ak informazio gehiago eskatu dute, %23ak orientazio teknologiko eta eko-eraginkorra eskatu dute eta %18ak merkatuen ingurumen betekizunei aurrea hobeto hartzeko eskatu dute. Horrek argi eta garbi erakusten lehentasuna izan behar dela enpresei ingurumen orientazio independente eta zorrotza eman beharra. Hain zuzen ere, merkatuaren ingurumen eskaeren aurreko zalantzazko azken ezaugarri hori da europar enpresabururik gehienek (%67) eko-eraginkortasunerako eta eko-berrikuntzarako oztopo handientzat jotzen dutena.

Era berean, euskal enpresen %42ak uste dute garrantzitsua dela eta balioa emango diela beraien ingurumen konpromisoa eta inplikazioa jendaurrean aitortzea. Kopuru horiek %68 dira IPPC enpresen kasuan eta %58 ingurumen kudeaketako sistema duten enpresen kasuan.

Ondorioz, ahaleginak ez dira ahuldu behar, kontrakoa baizik. Eta, hori lortze aldera, Euskal EGABen ustez ezinbestekoa da herritarrak sentsibilizatzeko eta hiru aldagaien (ingurumena, gizartea eta ekonomia, hau da, teknologiaren berrikuntza babesteko ildoak) integrazio egokia helburu duten ekoizpen prozesu garbiak martxan jartzeko lan egiten jarraitzea, horretarako talde desberdinetan ingurumen sentsibilizaziorako ekintzak babestuz, dauden teknologia garbier berri emanez eta teknologia horiek ipintzeagatik dauden zerga pizgarrien berri emanez, eta abar.

## 2.5. EAEko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

2011. urtearen hasieran, iritzi adierazleek azaltzen zuten munduko ekonomiaren hazkuntzaren erritmoa, 2010eko azken hiruhilekoan ikusi zena, 2011ko lehenengo hiruhilekoan mantenduko zela. Halere, aurreikusitako ezinezko zenbait gertaera kaltegarriren ondorioz (Japongo lurrikara eta lehengaien prezioen gehikuntza, ekonomia aurreratu nagusien errenta erreala moderatzeko efektua izan zutenak), munduko ekonomiak dinamismoa galdu zuen 2011ko lehenengo seihilekoan.

Era berean, 2011ko bigarren seihilekoan, gertakizun berriek (finantza merkatuetako tentsio gero eta handiagoak, euro-eremuko zor subirauren krisiaren aurrean, eta EEBBetako zorraren sabaiari buruzko eztabaidak eta zalantza gero eta handiagoa) hazkunde erritmoa berriro ahuldu zuten.

Jarduera ekonomikoren moteltze horrekin batera (urteko benetako hazkuntza %3,9 izan zen, eta aurreko denboraldikoa %5,3koa), munduko komertzioa urteko

bigarren seihilekoan ahuldu zen, baina urtean batez beste %5,8 hazi zen.

Prezioei dagokienez, nabarmentzekoa da finantza merkatuetako gorabeherak urtean zehar gero eta biziagoak izan ziren arren petrolioaren prezioek erresistentziarako gaitasuna erakutsi zutela eta asko gehitu zirela. Horren arrazoa izan zen, batez ere, merkatu fisikoen egoera erlatiboki tentsioa zela, petrolio izakinak murriztu zituztenak, bi faktoreen konbinazioaren ondorioz: eskaintzaren aldaketak eta petrolio gordinaren eskaeraren sendotasunari buruzko datuak.

Munduko eboluzio ekonomikoarekin bat etorritik, Europar Batasunak jarduera ekonomikoko gero eta txikiagoaren aldakuntza errearen hiruhilekoko profila erakutsi zuen: %2,4 lehen hiruhilekoan, %1,6 bigarrenean, %1,3koa hirugarrenean eta %0,7koa laugarrenean.

Eskaeraren aldetik eta 2011ko bigarren seihilekoan erregistratutako hazkuntzaren kontrakzioa gastuaren osagai guztietan nahiko orokorra izan zen arren, jardueraren moteltzearen azalpena, batez ere, inbertsioan eta esportazioetan bilatu behar dugu, hazkuntzaren profilean eragin handiena izan zuten osagaiak direnak, desazelerazio sakonenak izan baitzituzten: inbertsioak urtea +%3,2ko aldakuntza tasarekin hasi zuen eta +%0,8arekin amaitu. Esportazioak %9,9ko tasara hazten hasi ziren eta laugarren hiruhilekoa %3,6ko gehikuntzarekin amaitu zuten.

Bestalde, enplegua, 2010eko amaieran suspertzen hasi zena eta 2011ko lehenengo seihilekoan hazkuntza positiboa izan zuena, hirugarren hiruhilekoan hazkuntza moteldu zuen eta laugarrenean %0,2ko aldakuntza negatiboko tasa izan zuen. 2011. urte osorako langabezi tasa %10,2 izan zen, aurreko denboraldian erregistratutakoa baino ehuneko dezima bat gehiago.

Bestalde, 2011n, IAPCak neurtutako inflazio orokorra batez beste %2,7raino gehitu zen 2009ko %0,3tik eta 2010eko %1,6tik. 2010eko amaieratik, urte arteko inflazio tasak argi eta garbi %2aren gainetik mantendu dira, batez ere energiaren eta elikagaien prezioen urte arteko hazkuntza tasa handiek bultzatuta, lehengaien nazioarteko prezioen gorakadaren ondorioz.

Testuinguru honetan, egoera fiskal zaila eta hazkuntza txikia dituzten euro-guneko herrialdeen zor publikoari buruzko zalantzak 2011. urtean gehitu ziren, tentsio une berriak sortuz. Horrela, 2011. urtean, estatu kide guztiak, Estonia, Luxenburgo, Finlandia eta Suedia izan ezik, gehiegizko defizitaren prozeduren mende egon ziren. Finlandiaren kasuan, prozedura ECOFIN Kontseiluaren 2011ko uztailaren 12ko erabakiz indargabetu zen, EUROSTATen datuek erakutsi zutenean herrialdearen defizita 2010ean BPGaren %3tik behera mantendu zela. Bulgaria, Hungaria eta Maltaren kasuetan, administrazio publikoen defizita zuzentzeko eta BPGaren %3ko erreferentziako balioaren azpitik kokatzek epea 2011ren amaieran finkatu zen. Belgika, Italia, Zipre, Letonia, Lituania, Errumania eta Poloniarentzat 2012.a da epe hori; gehiegizko defizita daukaten prozeduren mende beste herrialdeentzat (EB-aren eta NDFaren programa aplikatzen ari direnak barne) epea 2013an eta hurrengo urteetan jarri da.

Hala eta guztiz ere, gehiegizko defiziteko prozedurak dauzkaten euro-guneko zenbait herrialdetan, 2011ko egokitzapen estrukturala exijitutakoa baino txikiagoa izan zen.

Hain zuzen ere, EUROSTATen datuen arabera, BPGaren gaineko zor publikoa estatu guztietan gehitu zen, Bulgaria, Alemania, Estonia, Letonia, Luxenburgo, Hungaria eta Suedian izan ezik. Egonkortasunaren itunean ezarritako %60ko muga herrialde hauetan gertatu zen: Belgika (%988), Alemania (%81,2), Irlanda (%108,2), Grezia (%165,3), Espainia (%68,5), Frantzia (%85,8), Italia (%120,1), Zipre (%71,6), Hungaria (%80,6), Malta (%72), Holanda (%65,2), Austria (%72,2), Portugal (%107,8) eta Erresuma Batua (%85,7). Euro-gunean, guztira, BPGaren gaineko zor publikoa %85,3 izan zen.

Defizitari dagokionez, Egonkortasun eta Hazkuntza Itunean ezarritako BPGaren %3ko muga gainditu ez zuten estatu bakarrak hauek izan ziren: Suedia (%0,3, superabita zeukan estatu bakarra), Finlandia (-%0,5), Luxenburgo (-%0,6), Alemania eta Estonia (biak -%1), Danimarka (-%1,8), Austria (-%2,6) eta Malta (-%2,7). Euro-gunean, oro har, gobernuaren defizita BPGaren %4,1eko mailan kokatu zen.

Defizit handienak herrialde hauetan izan ziren: Irlanda (%13,1), Grezia (%9,1), Espainia (%8,4), Erresuma Batua (%8,3), Eslovenia (%6,4) eta Zipre (%6,3).

Espainiar ekonomiar dagokionez, EINen datuen arabera, espainiar ekonomiak 2011ko laugarren hiruhilekoan sortutako BPGak %0,3ko hazkuntza izan zuen aurreko urteko denboraldi beraren aldean, hau da, aurreko denboraldirako kalkulaturakoa baino bost dezima txikiagoa. Horrela, urteko laugarren hiruhilekoan, espainiar ekonomiak bere hazkuntza desazeleratu zuen, nahiz eta urtearen amaieran BPG errearen urteko batez besteko gehikuntza %0,7koa izan, aurreko urtean %0,1eko hazkuntza negatiboa izan ondoren.

Autonomi erkidegoen arabera, zortzik estatuko batezbestekoaren hazkuntza bera edo handiagoa izan zuten: Kanariar Irlak (%2,1), Balearrak (%1,8), Nafarroa (%1,5), EAE eta Gaztela eta Leon (biak %1,3), Madril (%0,9) eta Katalunia eta Errioxa (biak %0,8). Autonomi erkidego batek bakarrik dauka hazkuntza negatiboa: Extremadura (-%0,3), eta Gaztela-Mantxak hazkuntzarik ez du. Hiru autonomi erkidego bakarrik hazi ziren EB27aren batezbestekoaren berdin edo gehiago (%1,5). Hauek dira: Kanariar Irlak, Balearrak eta Nafarroa.

Biztanle bakoitzeko BPG nominalaren terminoetan, estatuko batezbestekoaren gainetik dauden zazpi autonomi erkidegoetatik sei (EAE, Nafarroa, Madril, Katalunia, Errioxa eta Aragoi) EB27aren batezbestekoaren (25.134 euro) gainetik ere daude. Zehazki: EAE: biztanle bakoitzeko BPG 31.288 euro, Nafarroa: per capita BPG 30.068 euro, Madril (29.731 euro per capita), Katalunia (27.430 euro biztanleko), Errioxa (26.129), Aragoi (25.920), eta Balearrak (24.585). Beste aldean Extremadura (16.149 euro), Andaluzia (17.587) eta Melilla (18.454) daude.

Jardueraren eboluzio hau enplegu mailaren murrizpen berriarekin etorri da (2010ean izandakoa baino txikiagoa ordea). Horrela, 2010ean lantsaio osoan okupaturako lanpostuen kopuru osoa %2,6 murriztu zen, eta 2011n %2ko gutxikuntza izan zen. Soldatadunen jaitsiera %1,9koa izan zen. EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) erakusten du langabezi tasa ehuneko 1,5 puntu gehitu dela 2011n: %20,1etik %21,6ra (4.632 mila langabetutik 4.999 mila langabetura). Langabeziaren banaketa, ordea, ez da berdina autonomi erkidego guztietan. Langabezi tasarik txikiak EAEn eta Nafarroan daude (%12,01 eta 127 mila langabetu, eta %12,94 eta 40 mila langabetu

hurrenez hurren). Ordea, Andaluzia eta Kanariar Irlak dira kopuru txarrenak dituztenak (%30,39 eta 1.212 mila langabetu eta %29,69 eta 329 mila langabetu). Bestalde, defizit publikoa (Estatuko administrazio publiko guztiena), Kontabilitate Nazionalaren terminoetan neurtua, 91.420 milioi eurokoa da. Beraz, BPGaren %9,3tik %8,5era igaro da 2010 eta 2011. urteen artean. Desagregaturik, administrazio zentralak, autonomi erkidegoek, tokiko korporazioek eta Gizarte Segurantzak kontuak defizitarekin itxi zituzten, zehazki: %3, %4,7, %0,8 eta %0,1 hurrenez hurren.

Estatuko administrazio publikoen defizit honek BPGaren ehuneko 2,5 puntu desbideratzea esan nahi du, 2011-2014ko Egonkortasun Programaren Eguneratzean ezarritako helburuari dagokionez, 2011n %6koa zena.

Aurrekontuaren desbideraketa administrazio publikoen maila guztietan gertatu zen. Are handiagoa izan zen 2011n defizita (BPGaren %4,7) hasierako helburutik ehuneko 1,4 puntu (%3,3) desbideratu zitzaizen autonomi erkidegoetan. Administrazio zentralak, %3ko defizitarekin, helburua (BPGaren %2,3a) 0,7 puntutan gainditu zuen. Gizarte Segurantzako administrazioek, ordea, BPGaren %0,1eko defizita izan zuten, %0,4ko superabita jasoko zela aurreikusitako arren. Azkenik, tokiko korporazioak ez ziren desbideratu BPGaren %0,4ko defizita erregistratzeko helburutik.

EAEri bagagozkio, nabarmendu behar dugu BPGaren hazkuntza ratioa ezberdina dela estatistika organoaren arabera. Horrela, EINek egindako estimazioa, bigarren urtez segidan, EUSTATEk emandako balioetatik urruntzen da. Horrela, euskal institutuaren %0,6ko urte arteko aldakuntzaren aurrean, haren estatuko homologoak EAEko BPG errearen gehikuntza %1,3raino gehitu du, zazpi dezimako aldea, aurreko urtean gertatutakoa ia berdin-berdin errepikatzen duena (%0,3 EUSTATen arabera eta %0,9 EINentzat).

Eskaintzaren terminoetan, hiruhileko arteko profilaren analisiak erakusten du 2011. urtean zehar BEG industrialak bere hazkuntza modu mailakatuan desazeleratu duela: bigarren hiruhilekoan +%1,3ko hiruhileko arteko aldakuntza tasa izan zuen lehengo hiruhilekoaren aldean; hirugarrenean -%0,6koa bigarrenaren aldean, eta laugarrenean %1,6ko gutxikuntza aurreko hiruhilekoaren aldean. Eraikuntzaren BEGak -%2,7ko hiruhileko arteko aldakuntza tasarekin hasi zuen urtea, eta une horretatik aurrera beherakada moteldu zuen, urtearen amaieran laugarren hiruhilekoan aldakuntza tasa %1,3koa baitzen hirugarren hiruhilekoaren aldean. Zerbitzuen BEG, bestalde, bigarren hiruhilekoan desazeleratzen hasi zen, lehenengo hiruhilekoaren aldean %0,2ko gehikuntza izan ondoren, eta laugarren hiruhilekoan hirugarren hiruhilekoaren aldean %0,2ko gutxikuntza izan ondoren.

Era berean, enpleguak eboluzio negatiboa izan du. EUSTATEk urtean batez beste 8.100 lanpostu galdu direla kalkulatu du, hau da, %1 baino beherakada handixeagoa. Bestalde, eta 2009 eta 2010. urteak erkatuz, enplegu terminoetan eduki teknologiko handiko eta ertain-handiko sektoreen pisua gehitu dela atzeman da. BEGaren terminoetan, eduki handiko eta ertain-txikiko sektoreen pisua gehitu da. Salmenten kasuan, eduki ertain-txikiko sektoreen pisua gehitu da, eta eduki handi eta ertain-handiko sektoreena berdin antzean mantendu da.

Eskaeraren osagaiak bereiztuz gero, familien kontsumoko gastuak hiruhilekoen artean gorabeherak izan ditu, eta %0,5eko gehikuntzarekin amaitu du. Azkenik, administrazio publikoen gastuak, azken urteetan gehikuntza tasa negatiborik izan ez arren, hirugarren hiruhilekoan hala izan du (-%2), eta laugarrenean biziagotu da (-%3,6). Inbertsioari dagokionez, lehen hiru hiruhilekoetan segidako erorketak moteldu diren arren, hirugarren hiruhilekoan -%0,2ko ratoria iritsi arte, laugarrenean okertzea gertatu da, aldakuntza tasa -%2,8ra jaistean.

EUSTATen arabera, kontsumo pribatuaren abagune-adierazle nagusiek ahaltze ekonomikoa berresten dute. Horrela, kontsumo ondasunen Industri Produktzioaren Indizearen urte arteko aldakuntza tasa %2,2 gehitu zen arren, Barne Merkataritzako Indizea %2,7 gutxitu zen 2011n. Azalera handietako salmentak, bestalde, okertu egin ziren, aldakuntza tasa -%0,5etik -%6,1era igaro zelako. Turismoen matrikulazioak, berriz, %24,5 gutxitu ziren; aurreko urtean, berriz, jaitsiera %2,9koa izan zen. Aldi berean hoteletan pasatzen diren gauak (EAEko propioak kontuan izan gabe) gehitu egin dira, baina aurreko denboraldian baino gutxiago: %7,9 (2010ean %13,8). Inbertsioaren adierazleei dagokienez, inbertsio ondasunen Industri Produktzioaren Indizea 5,2 gehitu da (aurreko denboraldian %2,6ko gutxikuntza izan zuen). Zamaketako industri ibilgailuen matrikulazioak %17,3ko gutxikuntza izan du, aurreko urteko gutxikuntza %0,8 izanik. Azkenik, ekipamenduko ondasunen inportazioaren balioa %1,4 hazi zen, eta aurreko denboraldian %4,7ko gehikuntza izan zuen.

Hain zuzen ere, eta egoera honen ildoan, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren Kontsumitzaileen Konfiantzaren Indizeak eta haien espektatiben osagaiak oraindik ere erakusten dute euskal kontsumitzaileek egoera pesimismoz ikusten dutela. Testuinguru horretan, kontsumitzaileek kontsumoa murriztu beharra eta aurrezteko zailtasunak aurreikusten dituzte; halere aurrezpenean ahalegina egiten dute behin eta berriro, beren aurreikuspenak gaindituz. Errenta, kontsumo eta aurrezpen magnitude eta adierazleen azken eboluzioa ez da mesedegarria, ezta lan merkatuaren eboluzioaren adierazleak ere. Ingurune honetan, euskal kontsumitzaileen espektatiben datuak itxaronaldian daudela esan dezakegu. Horrela, enpleguaren bilakaeran, lanpostutan neurtuta, EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen arabera, negatiboa izan da: 2011. urtean %0,6ko gutxikuntza izan dela kalkulatzeko da.

Lanaren itxurazko produktibitatea termino errealetan %1,3 gehitu zen 2011n, aurreko urtean baino dezima bat gehiago alegia. EAEko produktibitate errealearen hazkuntza hau Europar Batasun osoan izandakoa baino handiagoa da (bai EB27an bai euro-gunean, 2010. urtearen ondoren emaitzak %2aren gaintetik egon ondoren produktibitatea %1,1 eta %1,2 gehitu zutenak hurrenez hurren). Era berean, espainiar estatuak tasa erreal askozaz ere handiagoa lortu zuen, %2,8koa behin-behineko datuen arabera, urte horretan izan den enplegu galera garrantzitsuaren ondorioz.

Bestalde, 2011rako behin-behineko datuek erakusten dute gure ekonomiako ALK aruntak murriztu direla, aurreko urtean ez bezala (-%0,7, eta 2010ean +%0,2) Industrian gutxitu dira (-%2,4) eta eraikuntzan ere bai, neurri txikiagoan (-%0,4). 2010. urtean berriz, lehenengoa murriztu zen baina bigarrenak ratio positiboak izan zituen.

Zerbitzuek, bestalde, ALK arrunten %0,2ko gehikuntza izan zuten, eta aurreko urtean %1,6 gehitu ziren. Europar Batasunean, ALK nominalak, lanpostu bakoitzeko soldatadunen ordainsarien arabera kalkulatuak, %1,2 gehitu ziren 2011n (EB-27). eta ia proportzio berean euroaren gunean (+%1,1); aurreko urteetan aldakuntzak +%0,6 eta -%0,7 izan ziren. Bien bitartean, estatuan, 2010ean %3ko eta -%3,2ko aldakuntza negatiboa izan zen 2011n, behin-behineko datuekin.

Inflazioari dagokionez, EAEn, 2010. urtean zehar prezioek beherantzko joera izan zuten (urte arteko terminoetan), ekitaldiaren azken tartean areagotu zena, neurri handi batean energiaren prezioak erlatiboki gutxiago gehitu zirelako. Aitzitik, urteko batezbestekoa (%3,1) askozaz ere handiagoa da 2010ekoa baino (%1,7), urte hasieran izandako gehikuntza handiaren ondorioz. Zehazki, apirilean inflazioak bere baliorik handiena izan zuen, %3,7, eta harezkero etengabe jaitsi da (irailean izandako igoera txikia izan ezik) urte arteko tasa, abenduko %2,4raino, eta 2012ko lehenengo hilabeteetan %2ko muga gainditzeraino. Inflazioaren zuzenketa oso lotuta dago petrolioaren prezioari nazioarteko merkatuetan, apirilean 123\$ balio zuena eta abenduan 108\$ (Brent upelaren prezioa). Horri gaineratu behar diogu barne kontsumoaren jaitsiera nabarmenak (publikoa eta familiena) 2011ko azken hiletan hazkuntza erlatiboaren moderazioa ekarri zuela.

Kapitulu honetan aztertutako datuek erakusten dute ekonomiak gure ingurunean egoera konplexua bizi izan duela 2011n, nahiz eta hasieran hobetzeko espektatibak zeuzkan. Orain dela lau urte baino gehiago hasi zen krisialdia Europar finkatu da. Herrialde gehienek zor maila handia daukate, eta kontu publikoak orekatuta edukitzeko zailtasunak dituzte. Gainera, hazkuntzaren erritmoa ahula da, urteak aurrera egin ahala okerrera egin duena.

Europar desorekarik handienak dituzten herrialdeen artean Espainia dago: Zor publikoaren maila ez da handienetakoa, baina defizitak lortutako maila eta hura gehitu den erritmo azkarra lan-merkatuaren narriatze gogorri gaineratu behar dizkiogu, %20 baino gehiagoko langabezi mailara iritsi dena. EINen datuek adierazten dute langabezi tasa ehuneko 1,5 puntu gehitu zela, %20,1etik %21,6ra 2011n, langabetu kopurua ia bost milioi pertsona izanik. Higiezin burbuilaren ezta, krisialdiaren lehenengo urteetan eraikuntza sektorearen hazkuntza erabat eten zuenak, finantza sektorean ere eragin negatiboa izan du. Gaur egun, finantza sektoreak finantzatzeko zailtasunak bizi ditu eta merkatuen arretaren pean dago. Espainiar ekonomiaren sinesgarritasuna oso kaltetuta dago. Horregatik, oso zaila da hazkunderako baldintzak lortzea, sektore publikoak jarduera are gehiago murrizten duten erreformak eta murrizketak egin beharko lituzkeelako.

EAEaren eboluzio ekonomikoa positiboagoa izan da estatuarena baino, haren produkzio egitura ez dagoelako hain lotuta sektore problematikoei. Halere, ingurune zabalaren joerak baldintzatu egin du. Horrela, 2011. urteko hazkuntzaren profilak oso seihileko ezberdin bi markatu ditu: lehenengoan industrian nahiz zerbitzuetan hazkuntza erdietsi zen. Bigarren seihilekoan, ordea, jarduera produktiboaren narriadura azkarragoa eta intentsuagoa izan da. Jarduera industrial, azken hiruhilekoan, balio negatiboetan egon da. Lan-merkatuan ere enpleguan murrizpena egon da. Urteko laugarren hiruhilekoan

8.100 pertsonak galdu dute lana aurreko urteko azken hiruhilekoaren aldean. Halere, langabezi tasa espainiarra baino askozaz ere txikiagoa da oraindik. Barne eskaera ahula da eta kanpo sektorerako da emaitza onenak izan dituenak.

Oro har esan dezakegu 2011. urtea zaila izan dela euskal ekonomiarentzat, eta beheranzko joera ikusita, 2012. urtearen hasieran zalantza handiak daude berehalako bilakaerari buruz. Epe motzerako espektatibak ez dira onak.

## 2.6. Sektore publikoa

Eusko Jaurlaritzak eta hiru aldundiek likidatutako diru-sarrerak osoek (15.093 milioi euro) 2011. urtean %2,5eko beherakada izan zuten, aurreko ekitaldiko %7,2ko hazkundea eta gero, zuzeneko zergak biltzearen bidezko hazkundea (%8,7) ezin izan dituelako absorbitu zeharkako zergen beherakada (-%3,4) eta finantza-sarreraren beherakada (-%41), zehazki finantza-pasiboena (zorraren emisioa), aurreko ekitaldiaren aldean %44,2 murriztu direnak. Ondorioz, Euskal Sektore Publikoaren diru-sarrerak, erkidegoaren BPGaren gainean, 2010ean %23,65 zirenak, ehuneko 1,09 puntu jaitsi dira, %22,56raino (behin-behineko datuak).

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, bestalde, %1,1 murriztu da, aurreko urteko -%3,3aren aldean. Horrela, magnitude hau EAEko BPGaren aldean ehuneko 0,77 puntu murriztu da, %23,30etik %22,53ra. Gastuaren bilakaera negatiboa izan da Eusko Jaurlaritzan (-%1,5) eta foru aldundietan (-%3,4). Agregatuaren aldakuntza txikiagoa izan da (-%1,1), partidetako batzuk erakundearen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat adibidez).

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, dauzkagun azken datuak 2011ko aurrekontuei dagozkien, %2,1eko gehikuntza ekarri dutenak 2010eko ekitaldiko aurrekontu-likidaziotik hona. Sail guztietan gastua murriztu da. Dena den, haien berrantolaketak, 2009ko erdialdean izan zen legegintzaldi aldaketaren ondorioz, gastu-kopuru handien eboluzioaren jarraipena zailtzen du atal batzuetan. Bi sail nagusiak, gastu-bolumenaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza (guztiaren %25,2) eta Osasuna (%32,3) dira oraindik ere. 2010. urtearen aldean, lehenengoa %4,4 murriztu da, eta bigarrena %3,8. 2011. urterako aurrekontuko gastu osoa 10.549 milioi euro da, hau da, gure erkidegoaren BPGaren %15,8 urte honetan, behin-behineko datuen arabera.

Sarreraren eta gastuen eboluzioaren ondorioz, aurrezpen publikoa %81,4 gehitu da (BPGaren %0,92), eta aldi berean defizit publikoa (finantzaketa premia) %52,7 murriztu da: 2010ean BPGaren %2,7 zen eta 2011n %1,24. Ratio hori BPGaren %2,52raino gehitu da halere (2010ean %2,45), 2012-2014ko EAEko berrorekatzeko Ekonomia eta Finantza Planean dagoen defizitaren datua kontuan izanez gero. Hor, EAEko Administrazio Orokorrak gain, LANBIDE eta OSAKIDETZA erakunde autonomoen kopuruak sartzen dira.

Finantza-aldagaia sartuta, eta batez ere zorpetzeari esker, 2011ko defizit hori aurrekontuko superabit bihurtu da (21,9 milioi euro, BPGaren %0,03), aurreko ekitaldiko 229 milioi euroak baino askozaz ere txikiagoa (-%90,4).

Datu horietatik ondorioztatzen dugu 2011n finantza publikoaren susperraldia finkatu dela (susperraldia 2010ean hasi zen), 2009ko beherakadaren ondoren, bizi dugun

abagune konplexuaren ondorioz. Abagune horrek baliabide gutxi edukitzea dakar, eta horregatik, baliabideak ahal den neurrian arrazionalizatu behar dira.

Testuinguru horretan, beste urte batez azpimarratu behar dugu zenbait partida murriztu behar direla (funtzionamendu gastuak adibidez), herritarren ongizatean zuzeneko eragina daukatenak ez kaltetzeko, adibidez inbertsio errealak eta transferentzia arruntak, gure erkidegoan bizi-kalitatea mantentzeko funtsezko tresnak direnak, eta aurrekontuen egungo egoeraren ondorioak jasan behar ez dituztenak.

Alderdi positiboa da funtzionamendu gastuak ez direla ia gehitu (+%0,1) eta transferentzia arruntak %2,3 gehitu direla. Halere datu kezkarri bat dago: inbertsio errealak %13,2 murriztu dira, 2010ean baino askozaz ere gehiago, orduan %1 murriztu baitziren. Horrek gure herrialdea garatzeko funtsezko proiektuen etorkizuna auzitan jar dezake.

## 2.7. Lan-merkatua

Hamabost urtez enplegua sortzen aritu eta gero, 2009an EAEko lan-merkatuak oso jaitsiera handia izan zuen okupazio kopuruetan. 2010ean, estatistikako iturriak bat zetozen okupazioaren beherakada horrek eritmoa moteldu zuela esatean.

2011. urtean, gure erkidegoko lan-merkatuaren eboluzioaren adierazleak ez dira aho batekoak enpleguaren eboluzioaren balorazioa egiterakoan. Enpleguan %0,6ko jaitsiera izan da, EUSTATEN Kontu Ekonomikoen arabera, baita Gizarte Segurantzaren afiliazioan ere. Bi kasuetan, ordea, jaitsiera aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da. BJAko okupazioak (EUSTATEN Biztanleriaren Inkesta Jarraieraren Arabera) 2010ean baino eboluzio txarragoa dauka, urteko batez beste %1,2 jaitsi baita, aurreko urteko -%0,3aren aldean. Eboluzio horrek esan nahi du 11.300 lanpostu galdu direla.

Aldi berean, langabezia %19 gehitu da iturri horren arabera. Langabeziaren batez besteko tasa urte horretan %10,8 da, baina laugarren hiruhilekoan %11,2koa. Kopuru horiek ez ziren ikusten 2001eko hasieraz geroztik, eta EBko batezbestekotik hurbil daude (%9,7 EB-27an eta %10,1 euroaren eremuan).

Europar, langabeziak daukan balio-sorta oso zabala da. %20tik gorako balioak dauzkagu (adibidez Espainian %21,7) eta %5etik beherakoak (Austria, Holanda eta Luxenburgon). Estatu Batuetako langabezi tasa %8,9 da, Japongoa %4,6, Frantzia eta Poloniakoa Europako batezbestekoaren antzekoa, eta Alemania 3,8 puntu beherago dago, adibide batzuk aipatzearen.

2011. urtea gure erkidegoan langabetuen kopuruak gora egin duen segidako laugarren urtea da. Gorakada horrek adin gehiagoko tartetean izan du eragina, 25 eta 44 urte arteko taldea baita langabezia gehien hazi den tartea, bai kopuru absolutuetan (+14.100) bai erlatiboetan (+%25). Beraz, urteko batezbestekoan, EAEko langabetuen %61,7 adin-talde horretan dago, eta urte bat lehenago ratioa %58,7 zen. Gazteen artean (25 urtetik behera), ordea, 1.400 langabetu gutxiago daude 2010ean baino; beraz langabezi ratioa ia puntu bat murriztu da, urteko batezbestekoaren %24,1eraino. Fenomeno honen arrazoa, ordea, jarduera tasa murriztearen ondorio da (urtean %31,8tik %28,1era), lan-aukeren gabeziak gazteak gogogabetu dituelako.

Zentzu horretan, okupatuaren gaitetasunaren eta enplegu galerak haiengan duen eraginaren arteko erlazioa

kezkarria da. Izan ere, erlatiboki, gazteenak dira, dagoeneko enplegu tasa txikitatik abiatu diren arren, lanpostu gehien galtzen ari direnak. Hain zuzen ere, 25 urtetik beherakoek enpleguaren %6,3 galdu dute urte betean, eta %28,7raino azken hiru urteetan.

Sexuz sexu, langabetuen %57 gizonak dira eta %43 emakumeak. Langabezia proportzio handiagoa gehitu da emakumeen artean (+%23,6) gizonen artean baino (+%15,7). Hala eta guztiz ere, langabezi tasa handiagoa da gizonen artean (%11,3) emakumeen artean baino (%10,3).

Sektoreka, langabetuen %59 zerbitzuen sektorekoak dira, langabezia hor %20,6 gehitu baita (2010ean, +%18,2). Era berean, eraikuntzan langabezia %30,8 gehitu da (+%19,1eko batezbestekoa baino gehiago); industrian, berriz, langabetu kopurua %2,5 murriztu da (-500 pertsona guztira). Bestalde, lehenbiziko lanpostua bilatzen duten pertsonen kolektiboa 3.200 pertsonetan areagotu da. Urteko batezbestekoa 7.700 da.

Gainera, lehen mailako ikasketak dituzten langabetuak guztira 9.800 dira eta %10,1 areagotu dira, %10,2ko langabezi tasara iristeraino. Maila ertaineko ikasketak dituzten pertsonak berriz 79.400 dira (guztien %69,6) eta %18,2 gehitu dira, langabezi tasa batezbestekoa baino handiagoa izateraino: %13,2. Azkenik, goi mailako ikasketak dituzten langabetuak, batezbestekoa baino gehiago areagotu diren arren (%25,8), langabezi tasa txikiagoa dute: %7.

Bestalde, ikusi dugu LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan dagoen langabezia BJArena baino handiagoa dela kopurutan. 2011ko abenduan 145.394 langabetu zeuden erregistratuta LANBIDEn (aurreko urtean baino +%6,9 gehiago). Aurreko urteko eboluzioaren aldean, gehikuntza apur bat handiagoa izan da (+%6,9; 2010eko abenduko urte artekoa +%6,1 izan zen). 2010ean bezala, emakumeen artean erregistratu zen langabezia gehiago handitu zen (+%8) gizonen artekoa baino (+%5,8), gizonena egonkortzen hasi baita, industriaren jarduera suspertzen ari delako.

Bestalde, 2011n, langabezi prestazioak jasotzen zituzten pertsonen batez besteko kopurua EAEn 81.847 zen, aurreko urtean baino %4,1 gutxiago. Kopuru hau murriztu den lehenbiziko urtea da, jasotzaileen kolektiboak hamarkada batez segidan gora egin ondoren, 90eko hamarkadan asko murriztu ondoren. Estatuan, jasotzaileen kolektiboak gora egiten jarraitu du: urtean %4,8 batez beste. 81.847 jasotzaileetatik, %46,9 emakumeak dira (haien kopurua batezbestekoa baino gutxiago murriztu da, %1,5), eta gainerakoa, %53,1, gizonena da (-%6,3, 2010. urtearen aldean). 2011ko abenduko datuen arabera, EAeko jasotzaileen %62,5a ordaindutakoaren arabera prestazioen jasotzaile ziren, %34,6a sorospenen jasotzaile eta %2,9 gizarteratzeko errenta aktiboaren jasotzaile.

Kezkagarria da erregistratutako langabezi kopuruen arabera 2011ko abenduan EAeko 100 langabetutik 57k prestazioa jasotzen zutela (36k ordaindutakoaren arabera, 20k sorospena eta batek gizarteratzeko errenta aktiboa) eta 43k ez zutela inolako prestaziorik jasotzen, aurreko urtean baino 4 gehiago. Gainera, iraupen luzeko langabezia (urte bete baino luzarago langabezia) beste urte batez hazi da. Horrela, iraupen luzeko langabetuen proportzioa %29,2 zen 2009an eta %34,4koa 2010.

urtearen amaieran; 2011ko abenduan, berriz, %39,1era iritsi zen.

Finean, datuek erakusten dute krisiaren iraupenaren ondorioz pertsona askok langabeziaren prestazioaren aldiak agortzea. Gero eta zailagoa da, gero eta pertsona gehiagorentzat, eskubide hori berriro sortzeko behar den denboran lan egitea.

Testuinguru horretan are garrantzitsuagoak dira enpleguko politika aktiboak lan-merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko funtsezko elementu gisa. Zentzu horretan, Ogasun eta Administrazio Publikoan Ministerioaren datuek erakusten dute 2011n Euskadi izan zela prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako fondo gehien bideratu zuen autonomi erkidegoa, bai termino absolutuetan (419,17 milioi euro), bai erlatiboetan (2.883 euro langabetu bakoitzeko, abenduko langabeziaren datua kontuan izanez gero). Kopuru horiek erakusten dute EAEk, estatuan erregistratutako langabeziaren %3,8 izanik, fondoan %7,6 erabili zituela (estatuan 5.500 milioi eurotik gora izan zirenak). Beraz, langabetu bakoitzeko zenbatekoa espainiar batezbestekoaren ia bikoitza da (estatuan langabetu bakoitzeko 1.464,7 euro izan ziren).

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu euskal lan-merkatuak, estatukoak baino portaera hobea izan duen arren, 2011. urtearen amaieran egoera kezkarria duela: enpleguak eta langabeziak eboluzio negatiboa izan dute, jarduera sektore guztietan. Gaur egungo enpleguaren bolumena 2004an zegoenaren baliokide da. Beraz, esan dezakegu pairatzen ari garen krisi iraunkorrak azken zazpi urteetan enpleguan pilatutako hazkundea desagerrarazi duela, eta langabezi tasak %10a gainditzea ekarri duela, joan den hamarkadak erdialdeko urteetan enplegu bete lortu ondoren.

Bestalde, eta ikuspegi positiboago batetik, nabarmendu behar dugu lan-merkatuko jarduera tasak gehitzen jarraitu duela, serie historikoko mailarik altuenera iristeraino. Era berean, langileen prestakuntza, orientazioa eta laneratzea gehitzeko lan egiten duten erakunde eta eragileek egiten duten ahalegin garrantzitsua nabarmendu behar dugu, horrek lan-indarraren enplegarritasuna mesedetzen baitu.

## 2.8. Familiak eta lana eta norberaren bizimodua eta familia bateratzeko premiak

Familiak, bizi izan dituen eraldaketak gorabehera, instituzio oso garrantzitsua da garapen pertsonalean eta pertsonen gizarte parte hartzean. Egia da gero eta forma ezberdinagoak jaso dituela, baina ez dirudi bere garrantzia galdu duenik. Orain dela gutxi euskal ume eta nerabeei egindako kontsulta batek<sup>2</sup> hori ikusten laguntzen digu: gehienek uste dute familiak ez dutela zertan osatu odol-kidetasuna daukaten pertsonak, baina argi daukate familiaren osagaiak "segurtasuna, errespetua, maitasuna eta konfiantza" direla.

Hain zuzen ere, deigarria da familiaren garrantzia belaunaldi berrietako gazteentzat; zaharragoek familiari ematen dioten garrantziaren antzekoa da. Horrela, familiak garrantzirik handiena jasotzen du, laguneri edo lanaren ginetik, aisialdiaren eta astialdiaren ginetik (30 urtetik gorakoentzat 3,9 puntu, eta 15 eta 29 urte artekoentzat 3,8 puntu, garrantzirik handiena 4 puntu den eskala batean, Eusko Jaurlaritzaren 2007ko "Gazteriarren Erretratuak" ikerketaren arabera).

<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritzaren (2010): EAeko umeen eta nerabeen beharrezaneko hurbiltzea.

Familiaren eraldaketan eragin handiena izan duten fenomenoetako bat emakumea modu masiboan lan-merkatuan sartzea izan da. Laneratze honek, egoera batzuetan, dilema bat sortzen du: lan profesionala eta etxeko lanak, seme-alaben zaintza eta, batzuetan, seme-alabak izateko itxaropena bera bateratu ahal izatea. Arazo hau larriagoa da baldin eta arreta premiak mendetasun eta ezintasun egoeretara zabaltzen badira.

Fenomeno horrek, ordea, ez dauka eragina emakumeengan bakarrik. Laneko, norberaren eta familiako bizitza bateratzeak gizonengandik etxeko lanetan parte hartzean eta mendeko pertsonen zaintzan espero den paper berria sartzen da. Zentzu horretan gizonek eta emakumeek erantzukizuna gehiago partekatu beharra errepikatu behar dugu, datuek erakusten baitigute egin beharreko bidea oraindik luzea dela: "Laneko, Norbanakoaren eta Familiako Bizitzak Adiskidetzeko Inkestak" erakusten du etxeko lanen banaketa EAEn lan egiten duten gizonen eta emakumeen artean desorekatuta dagoela. Izan ere, hamar gizonetik bederatzik (%92,2ak) 2 ordu edo gutxiago ematen ditu lan horiek egiten, eta emakumeen heren batek (%34,1ak) 3 ordu edo gehiago ematen dituzte.

Erantzukizuna partekatzeaz gain, langileek bizitzaren alderdi guztiak bateratzeko daukaten premiaren beste erronka batzuk enpresak langileen famili premietara egokitzea (adibidez ordutegiak arrazionalizatuz eta malgutuz) eta erakundeen papera (laguntzen bidez eta zerbitzu sozio-komunitarioak garatuz) dira. Bi eremu horietan aurrerapen argiak izan dira azken urteetan, baina kezkarria da gaur egungo egoera ekonomikoak joera horiek finkatzea galaraziko ote duen eta gizonek eta, batez ere, emakumeek lan-merkatuan sartzeko eta jarduera profesionala eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeko dituzten baldintzak okertzea.

Kapitulu honetan aztertutako datuetatik bi fenomeno kezkarri gehiago ondorioztatzen dira. Lehenik eta behin, bateratzeko laguntzak emakumeek jasotzen dituzte gehienetan (adingabekoak zaintzeko lansaiola murrizteko edo eszedentzia hartzeko laguntzen espedienteen %94,28 eta mendeko pertsonen zaintzaren kasuan espedienteen %82,93 emakumeei zegozkien 2009an). Aintzat hartzen badugu azken urteetan erdi edo goi mailako prestakuntza daukaten emakumeen proportzioa modu garrantzitsuan gehitu dela, konturatu beharko ginateke giza kapital prestaturia (eta produktiboa) galtzen ari garela baldin eta emakumeak laneratzea eta amatasuna bateragarriak izatea lortzen ez badugu, eta emakumeak eta gizonak laneratzea eta famili erantzukizunak bateragarriak izatea lortzen ez badugu.

Bigarrenik, ikusi dugu bateratzeko laguntzen kopurua murrizten dela eskatzailearen lanpostuaren kalitatea murriztu ahala. Horrela, laguntza hauen eragina %12,6koa da kide guztiek lanpostu egonkorra daukaten familietan, baina %6,9koa kideak langabezian edo lanpostu ez-egonkorrekin dauden familietan. Hortik ondorioztatu ahal dugu lana kalitatezkoa eta egonkorra ez denean ez dela hartzen familia handitzeko erabakirik; horrenbestez, ez dago bateratzerako beharrezanik. Jokabide horren ondorioak ikusten ari gara dagoeneko, jaitza tasaren beharrezanekin eta biztanleriaren zahartzearekin.

## 2.9. Bizi-baldintzak

Pobrezia eta bazterketa murrizteko helburua Europar Kontseiluak hiru adierazletan oinarrituta definitu ditu:

pobreziaren arrisku tasa (gizarte transferentziak jaso ondoren), gabezia materialaren indizea eta lan-intentsitate txikiko familietan bizi diren pertsonen portzentajea. Definizio horrek, aldi berean pobreziaren eta bazterketaren mende dauden faktoreak eta Europak dauzkan arazoak eta ezarri diren lehentasunak islatzen ditu. Agregatu gehituak (115,5 milioi europar 2010ean) "pobretzat" jo ohi dena baino biztanleria gehiago hartzen du barruan, lurralde ikuspegia daukalako eta beti errentarekin zerikusirik ez duten bazterketa motak kontuan hartzen dituelako.

"Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Europako Plataformak" adierazi du 2020. urtea baino lehen gutxienez 20 milioi europar pobrezia eta gizarte bazterketa arriskutik urruntzeko helburua ez betetzeko zorian dagoela, krisi ekonomikoaren ondorioz eta gobernuek ezarritako austeritate neurrien ondorioz. Pobreziari aurre egiteko, beharrezkoa da umeen pobreziaren aurkako borroka egitea eta inklusio aktiboaren hiru zutabeak sustatzea: enplegu politika aktiboak, gutxieneko errenten bermea eta gizarte zerbitzuak. Kontseilu hau helburu horiekin ados dago. Era berean, adierazi da zahartze aktibo eta osasuntsua sustatu beharra dagoela eta talderik behartsuena gizarte eta ekonomi inklusioari arreta eman behar zaiola (hau da, ezindua, hezkuntza maila txikiko gazteak, eta haurrak).

Haurren pobreziari dagokionez, esan behar dugu pobreziari eta gizarte bazterketari buruzko eztabaidan nagusitzen diren gaien artean eztabaida gehien pizten dutenetako bat haurren egoera dela. Zenbait ikerketak erakutsi dute haurren pobrezia, herrialde aberatsetan, nabarmen gehitu dela azken bi hamarkadatan eta haurrak talde bereziki zaugarria direla. Gainera, horren ondorioak oso argiak dira, bai epe motzean bai epe luzean. Izan ere, arazo ekonomiko eta sozialak dituzten familietan hazteak ondorioak ditu, ez bakarrik egoera sozialean, baita garapenean eta etorkizuneko aukeretan ere.

Europar Batasunean, umeen %26,9a pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan dago, arazo horiei jarraipena egiteko erabili den adierazlearen arabera, "Europa 2020 Estrategiaren" barruan, etabiztanleria osoan batezbestekoa %23,4 da. Zenbait herrialdetan (Bulgarian eta Errumanian kasu) haurren %40 pobrezia egoeran dago eta gabezia latzak dituzte. Herrialde askotan (guztietan, lautan izan ezik: Finlandia, Suedia, Danimarka eta Eslovenia) haurrak pobreziaren mendeago daude biztanleria orokorra baino. Horregatik, Europar Batasunak eta bere estatu kideek haurren pobreziaren aurkako borroka dute lehentasun handienetaketzat.

Gure erkidegoan, dauzkagun azken datuak 2008ko Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestatik (PGEI) datoz. Operazio horrek erakusten duenez, guraso bakarreko familietan pobrezia arrisku diferentzial handiagoa egotearen ondorioz, baina baita arazo honek seme-alabak dauzkaten bikoteetan eragin handiagoa izatearen ondorioz ere (%2,6ko pobrezia erreala, eta %1,5ekoa seme-alabarik gabeko bikoteetan), aipatutako urtean pobreziaren eta prekariotasunaren arazoek 14 urtetik beherako pertsonak dauden familietan eragin handiagoa dutela ikusi zen.

Horrela, adingabekorik gabeko familietan bizi diren pertsonen artean kopuruak %17,6koak dira, eta 14 urte arteko ume bat edo gehiago daukaten familietan prekariotasun arazoaren eragina %27,6koa da. Pobrezia errearen tasa handiagoa da 14 urtetik beherako bat edo gehiago dauden familietan: %5,7. Adingabekorik gabeko



familietan, berriz, portzentajea askozaz ere txikiagoa da: %1,8.

Uste dugu, Europar Batzordearen tesiaren ildoan, haurren pobrezia eta bazterketari aurre egiteko dimentsio askotako planteamendua behar dela. Planteamendu horretan enplegu politikak, zerga eta prestazio sistemen diseinua, kalitatezko gizarte zerbitzuen hornidura, hezkuntza, eta umeen eskubideen babesa sartu behar dira. Hori dena Batasunaren berriazko helburu bihurtu da. Bestalde, berdintasun eta famili politikak eraginkorrak beharrezkoak dira, gurasoak laneratzen laguntzen dutenak eta laneko, norbanakoaren eta familiako bizitza hobeto bateratzen laguntzen dutenak.

Eta nolahi ere, berriro ere esan behar dugu pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako mekanismoak indartu beharra dagoela, ez baitakigu zein neurritan eragingo duen krisi honek biztanleriaren ongizate mailan eta bereziki kolektiborik zaugarrienen ongizate mailan.

Kolektibo horien artean, etorkinen kolektiboa bereziki aipatu behar dugu. Gizarte Premien Inkestan argi ikusten da gabezia formarik muturrekoenek eragin berezia dutela kolektibo honengan, eta pertsona nagusia atzeritarra duten familien erdia baino gehiagotan (%51,3) gabezia egoerak bizi dituztela; bertako biztanleek eraturako familietan, berriz, gabezia egoerak %6,1ean bizi dira. Gabezia egoerarik larrienak etorkin familien %28an gertatzen dira, eta bertakoen familien %1,5ean.

## 2.10. Osasuna eta osasun sistema

Berriro ere heriotzen arrazoen inguruan itxuraz finkatu den aldaketa nabarmena iruditzen zaigu. Berez, EUSTATEN datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira (%31,4 2010ean) eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren (%29). 2007. urtea baino lehenagoko urteetan zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zuten heriotza gehien.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2009an emakumezkoen hilkortasun goiztiarrerako arrazoi nagusiak, ordenaren arabera, honakoak izan ziren: bularreko tumore gaiztoak; trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak; gaizki zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak; suizidioak eta norik bere buruari eragindako zauriak; obarioko tumore gaiztoak; garuneko hodian gaixotasunak; koloneko tumore gaiztoak; eta urdaileko tumore gaiztoak. Gizonen kasuan, EAEko BUPGen kausa nagusiak hauek izan ziren: trakeako, bronkioetako eta birriketako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta autolesioak; motordun ibilgailuekin trafiko istripuak; zirrosiak eta gibekeko gaixotasun kronikoak; gaixotasun zerebro-baskularrak; gaizki zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak; koloneko tumore gaiztoak; eta psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak. Itxaropentsua da ikustea bizi-baldintzen inkestaren<sup>3</sup> azken emaitzek, atzemandako osasun egoerari dagokionez, inkestatutako biztanleriaren osasun egoera ona erakusten dutela. Horrela, aipatu diren osasun arazoetatik (nahasmenak egotea, ikusmenaren akats larria, gor-mututasuna, akats fisikoa, adimen ezintasuna eta adimen nahasmenak) batek ere ez dauka %6 baino prebalentzia handiagoa.

Positiboki baloratzen dugu ospitalez kanpoko jarduera publikoan mediku kopuruaren gehikuntzak medikuntza orokorreko mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztaraztea (1.258 biztanletik 1.235 biztanlera mediku bakoitzeko), baina arreta deitu behar dugu datu bati buruz: eboluzio hori ez zen pediatrian jazo (805etik 811ra). Gainera, atseginez ikusten dugu ospitale jardueran (publikoa nahiz pribatua) 100 ohe bakoitzeko mediku kopurua gehitu dela. Hala eta guztiz ere, bi sareen arteko aldeak ere agertu nahi ditugu: sare publikoan 100 oheko 56 mediku daude eta pribatuan 24,7 mediku; sare publikoan 100 oheko 97,6 erizain daude eta sare pribatuan 44 erizain.

Espero dugu 2011n hasi den aurrekontu murrizpena, beharrezkoak diren egokitze neurrien ondorioz, sistemaren eraginkortasunaren bidez konpentsatzea eta erabiltzaileen kalterako ez izatea.

Kanpoko kontsultetarako itxaron zerrenden eta atzerapen denboraren kasuan antzeman dugu, Osakidetzaren datuen arabera, 2010ean gutxitu egin dela, aurreko urteko gehikuntzaren ondoren, itxaron zerrendan dauden pazienteen kopurua (95.558tik 90.412ra). Urte batean hazteko joera izan du eta hurrengoan murriztekoa. Zerrendetan itxaroten ari diren pazienteen kopuru gehien duten espezialitateak hauek dira: kirurgia orokorra (14.141), traumatologia (14.008) eta digestiboa (10.016). 2009. eta 2010. urteen arteko atzerapen denborari dagokionez, hilabete baino gehiago itxaroten duten biztanleen portzentajeak behera egin izana (%39,5etik %30,9ra) eta hilabete baino gutxiago itxaroten dutenen kopuruak gora egin izana (%60,5etik %69,2ra) pozgarria da.

## 2.11. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin merkatuak 2011n izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak %54,4ko batez besteko gehikuntza izan duela (+%4,9 izan zen 2009-2010ean), bilakaera positiboak izan direlako salgai dauden etxebizitza libre berrietan (+%20,7), salmentan dagoen etxebizitza erabilian (+%64,3), alokairuan dagoen etxebizitza librean (+%31,8) eta salgai dagoen etxebizitza babestuan (+%91,6). Alokairuan dagoen etxebizitza babestua da eskaintzan bere parkea murriztu duen bakarra (-%43,5). Horren aurrean, eskaera osoa, "Etxebizitza premien eta eskaeraren inkestatik" datorren azken datuan, %11,6 murriztu zen. Etxebiden inskribatutako babestutako etxebizitzaren eskaera %5,6 murriztu zen urte horretan eta 2011n %2,9.

Sektorearen etenaldi honen ondorioz (ekonomi eta finantza krisiak ekarri dutena), prezioek jaisteko joera daukate, bai etxebizitza berriaren merkatuan bai bigarren eskuko etxebizitzaren merkatuan. Halere, badirudi horrek ez duela laguntzen salerosketa jarduera suspertzen. Agertoki horretan, etxebizitzaren politika publikoak garrantzi handia du.

Aitzitik, eta administrazioek aurre egin beharreko aurrekontu murriztapenen testuinguruan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programaren gastua, azken urteetan nabarmen hazi izandakoa, %9,9 murriztu zen 2011. urtean (bigarren ekitaldiz segidan); 164,4 milioi euroko zenbatekora iritsi da (aurrekontuaren araberrako behin-behineko datua). 2010ean programa honen

<sup>3</sup> Bizi-baldintzen inkesta 5 urtean behin egiten du EUSTATEk. Azken datuak 2009. urtekoak dira.

baitan egindako inbertsioen bolumena ere erori egin da (likidazioaren arabera behin betiko datuak dira), guztira 134,2 milioi euro zenbatuz (2009ko kopuruaren aldean  $-17,7\%$ ). Edonola ere, programa honen inbertsio izaera mantendu egiten da, gauzatu diren inbertsioak gastuen  $88\%$  baitira (ratioa 1987-2010 aldirako batezbestekoaren berdina da).

Eskaera eta eskaintza pizteko mailegu eta diru-laguntza gisa ematen diren laguntzei dagokienez, 2010ean (dauzkagun daturik berrienak dira) guztira  $-42,3\%$ ko erorketa antzematen da, diru-laguntzetarako erabiltzen diren fondoak murriztu direlako ( $-43,8\%$ ) eta, neurri txikiagoan, maileguak ere murriztu direlako ( $7,8\%$  erori dira). Guztira, emandako 308 milioi euroak honela banatu dira: 287 milioi maileguetarako ( $93\%$ ) eta 21 milioi diru-laguntzetarako (gainerako  $7\%$ ).

Era berean, 2009an 595 milioi euroko gastua egin zuten etxebizitzan eta hirigintzan gure erkidegoko udalek; hau da, beren aurrekontuen likidazio osoaren  $16\%$ . Zenbateko hori hazkunde handia izan zen aurreko urtearen aldean ( $+20\%$ ). Halere, 2010eko aurrekontua kontuan izanik, gastu baliokidea  $35,6\%$  gutxitu da, 383 milioi euroraino. Aurrekontuko murrizpenak udal erakundeen aurrekontu orokorretan ere egin diren arren, esan behar dugu beherakada handiagoa izan dela etxebizitza funtzioan: 2010ean aurrekontu osoaren  $12,5\%$  da, eta aurreko ekitaldian  $16\%$  zen.

Biztanle bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, 2010eko batezbestekoa, EAEko udalerriz guztientzat,  $176,6\text{€}$  dela kalkulatu da ( $274,2\text{€}$ /biztanle 2009an). Gainera, lurralde historikoen arabera bilakaera ikertuz gero ondorioztatuko dugu murrizpena ezberdina dela, gastua  $40\%$  jaitsi baita Gipuzkoan,  $36\%$  Bizkaiko udalerrietan eta, neurri txikiagoan,  $11\%$ n, Arabakoetan (batez besteko per capita murrizpena, biztanleria ez denez ia aldatu, osokoaren berdina da:  $-35,6\%$ ).

## 2.12. Gizarte babesa

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren "EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko txostena, 2011" txostenak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egoera eta sektoreko profesionalen egoera horretaz egiten duten balorazioa erakusten dizkigu. Nabarmendu nahi ditugun ondorioetako batzuk hauek dira:

Prestazio ekonomikoaren protagonismo gero eta handiagoa, zuzeneko arretako zerbitzuen kaltetan. Horrek erakusten du gure erkidegoan gizarte zerbitzuen sistemak arreta ematen dien pertsona guztietatik  $69\%$ ak prestazio ekonomikoak jasotzen dituela (2008ko  $61\%$ aren eta 1999ko  $48\%$ aren aurrean). Fenomeno hau gastuaren ikuspegitik ere ikus daiteke: baieztatu da 2008 eta 2009. urteen artean gizarte zerbitzuetan pertsona bakoitzeko gastu publikoaren gehikuntzaren  $48\%$ a Sarrerak Bermatzeko Errentaren ondorio eta Famili Ingurunean Zaintza emateko Prestazio Ekonomikoaren ondorio (Mendetasun Legetik eratorria) dela.

- Kezkagarria da euskal gizarte zerbitzuen komunitate-izaera eskasa. Azken hamarkadan, hurbiltasun zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, laguntzako egun zentroak eta zereginetako zentroak) laguntza eskaintzaren  $26\%$  izatetik  $16\%$  izatera igaro dira. Era berean, egoitza zerbitzuak, 1999 eta 2006. urteen artean,  $26\%$ tik  $15\%$ era murriztu dira, eta prestazioa,  $48\%$ tik  $69\%$ ra. Joera horren

arrazoia prestazio ekonomikoaren estaldura eta egoitza baliabideak gehitu direla da, baina baita etxez etxeko laguntza zerbitzuen hazkuntza txikia ere.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txosteneko Gizarte Zerbitzuen Teknikari Taldean parte hartu duten profesionalen iritziei dagokienez, ondorio hauek nabarmendu behar ditugu:

1.  $88\%$ aren ustez, EAEko gizarte zerbitzuen egoera ona edo oso ona da, baina erdiak ( $49\%$ ) uste du aurreko urteaz geroztik okerrera egin duela. Aipatutako arrazoen artean, gizarte premien gehikuntza, langile-ratioen murrizpena, aurrekontuetako partiden murrizpenak eta prestazioak eskuratzeko irizpide murrizgarriagoak sartzea daude.

2. Baliabideen sarea egokitzeari dagokionez, etxerik gabeko pertsonen aterpetxeak kalitate mailarik txarra duten zerbitzuak dira:  $58,2\%$  uste du kalitatea hala-holakoa dela, eta  $16,4\%$  uste du nahiko edo oso txarra dela. Beste muturrean, adineko pertsonentzako eguneko zentroak hoberen baloratuak dira:  $87,3\%$  uste du haien kalitatea oso edo nahiko ona dela.

3. Arreta ematen zaien kolektiboetara dagokienez, 2010eko profesional taldeak bezala, profesionalak uste dute etxerik gabeko pertsonak eta mendeko pertsonen zaintzaileak arreta txarra jasotzen duten kolektiboak direla. Administrazioarengandik arretarik onena jasotzen dutenak, ordea, adineko pertsonak eta ezindutakoak dira. Zentzu horretan nabarmendu behar dugu Mendetasunaren Espainiar Behatokiak eta ARARTEKOak oso modu positiboan baloratu dutela gure erkidegoan Mendetasun Legetik eratorritako mendetasunaren arreta sistemaren ezarpen maila. ARARTEKOak 2011n txosten berezia egin du gai honetaz, eta arlo honetan foru aldundiek egin duten lan ona azpimarratu du. Giza baliabideak eta baliabide materialak bideratzeko egin den ahalegina txalotu du era berean. Aldiz, uste du hobe litzatekeela koordinazio gehiago izatea lurralde desorekak gainditzeko, baita garapeneko araudia azkarrago onartzea ere.

4. Premiazkoenak diren hobekuntza estrategietan, adostasuna dago hauetan: gizarte-osasun espazioaren garapen handiagoa (erantzunen  $42,3\%$ ) eta maila instituzional bakoitzak baliabide nahikoak ematea ( $36,5\%$ ).

5. Azkenik, gizarte zerbitzuen euskal sistemak dauzkan erronka nagusiez galdetu zaie sektoreko profesionali, eta ondokoa erantzun dute: araugintzako garapena eta batez ere Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen aplikazioa, erakundeen arteko koordinazioa eta sistemaren artikulazioa, lan-baldintzak eta kualifikazio profesionala, gizarte zerbitzuen funtzioak argitzea Sarrerak Bermatzeko Errenta LANBIDERi (Euskal Enplegu Zerbitzua) traspasatu ondoren, eta gizarte zerbitzuen eredu komunitarioa eta prebentzioari orientatua lortzea.

Uste dugu interesgarria dela azpimarratzea kapitulu honetan ageri diren kopuruek argi uzten dutela gizarte babesak gure erkidegoan dimentsio gogoangarria duela, ahalegin ekonomiko handia eskatzen duena. Horrela, azken bost urteko denboraldian (2006-2011) pentsioen inguruko ahalegina  $33\%$  gehitu da ordaindutakoaren arabera pentsioetan, eta  $15\%$  inguru bestelako

pentsioetan. Bestalde, Sarrerak Bermatzeko Errentari bideratutako baliabideen bolumena bikoiztu egin da 2008 eta 2011. urteen artean. Aldi berean, biztanleriaren %23ak Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak jasotzen ditu. Gainera, eta gizarte babesaren barruan, azken lau urteetan langabeziagatiko prestazioen gehikuntza gogoratu ahal dugu, bai kopuruan (%81) bai gastu osoan (%61).

Datu horiek gure erkidegoaren errealitate sozioekonomikoaren bi alderdi garrantzitsu erakusten dituzte: batetik, biztanleriaren zahartze mailakaturik, pentsioen gehikuntza garrantzitsuaren erantzule

nagusia, eta bestetik, krisi ekonomikoak biztanlerian daukan efektu negatiboa, Sarrerak Bermatzeko Errentari bideratutako baliabideen bolumenaren gehikuntza eta langabeziagatiko prestazioei dedikatutakoan erakusten dena.

Lehenengoari dagokionez, LANBIDEk emandako datuak kezkatzen gaitu. Kalkulatu dutenez, bere erregistroetako datuen arabera, Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonen %10ak inguru hamar urte baino gehiago daramatza laguntza hauek jasotzen. Horrek esan nahi du nolabaiteko kronikotasuna dagoela. Horren arrazoietan sakondu beharko litzateke.